

*Nazioarteko
Kongresua:
Gizonak giza
antolamendu
berriaren aurrean*



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*Nazioarteko
Kongresua:
Gizonak giza
antolamendu
berriaren aurrean*

EMAKUNDE/
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 2002

IZENBURUA:	Nazioarteko Kongresua: Gizonak giza antolamendu berriaren aurrean
EGILEA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier kalea, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
MAKETATZAILEA ETA KOORDINATZAILEA:	Ana Rincón
DATA:	Ekaina, 2002
ALE KOPUPURA:	800
DESKRIBATZAILEAK:	Gizonak, genero ikerlanak, simposioak
IRUDI DISEINUA:	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
ILUSTRATZAILEA:	Lankor
FOTOMEKANIKA:	Esda Fotocomposición. Padre Larramendi kalea, 1. 48008 Bilbao
INPRIMAKETA:	Industrias Gráficas Marcal, S.A. Enrique Eguren Kalea, 3. 48012. Bilbao
ISBN:	84-87595-81-2
LEGE GORDAILUA:	BI-528/02

Salneurria: 20 euro

NAZIOARTEKO KONGRESUA: GIZONAK GIZA ANTOLAMENDU BERRIAREN AURREAN

Donostian, 2001eko ekainaren 13,14,15ean

TESTUINGURUA

Gizarte justuagoa eta demokratikoagoa egiten lagunduko duen ordena sozial berria eraikitzeko lanean, milurteko berriak gizonei dakartzkien erronka berriak aztertzeke helburua du Biltzar honek. Eta hori lortzeko, ezinbestekoa da maskulinitasun eredu berriak aztertzea; emakumeek hartutako rola areagotzearen ondorioz sortzen ari diren eredu berriak, alegia. Azken finean, hausnarketa gune bat eskaini nahi da, gizonek egungo gizartearen erronka berriei hobeto aurre egingo dien eredu maskulino berrien inguruan hausnar dezaten, eta, ildo beretik, gizarte ordena berriaren eraikuntzaren oinarri izango diren balioak definituz joan daitezten.

EGITARAUA

Ekainak 13

- 9,00o. **Dokumentazio banaketa**
- 9,30o. **Hasiera Ekitaldia**
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU Jaun txit gorena
Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
ROMÁN SUDUPE OLAIZOLA Jaun txit gorena
Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusia
ODÓN ELORZA GONZÁLEZ Jaun txit argia
Donostiako Alkatea
TXARO ARTEAGA ANSA Andere txit argia
Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaria
- 10,00o. *Koordinatzailea*
NIEVES MARTÍNEZ DE ANTOÑANA BLANCO A.
Eusko Jaurlaritzako Azterketa eta Erregimen Juridikoko Zuzendaria.
Inaugurazio hitzaldia
"Maskulinitasunak eraldatzen: lana, familia eta kultura"
VICTOR J. SEIDLER J.
Soziologiako Departamentua. Londresko Unibertsitatea. Britainia Handia.
- 11,00o. Atsedenaaldia

-
- 11,30o. *Koordinatzailea*
ANJEL LERTXUNDI J.
Idazlea
"Gizonak emakumeen aldaketaren aurrean"
LUIS BONINO MÉNDEZ J.
Gizon Baldintzaren Azterketa Zentruko Zuzendaria. Madril
- 12.30o. **Solasaldia**
- 13.00o. **"Maskulinitasunen krisiak: zalantzan jartze feministen eta heterosexismoaren kontrako kritiken artean"**
DANIEL WELZER-LANG J.
Gizon Feministazaleen Europako Sarea. Toulouseko Unibertsitatea. Frantzia
- 14.00o. **Solasaldia**
- 14.30o. Bazkaria
- 15.30o. *Koordinatzailea:*
FRANCISCO J. LLERA J.
Zientzia Politikoen Fakultateko Dekanoa. Euskal Herriko Unibertsitatea/UPV
ESKUHARTE ESTRATEGIAK:
HEZKUNTZA ALORRA
"Maskulinitasuna eta nerabeen populazioa"
ERICK PESCADOR ALBIACH J.
Soziologo eta Sexologoa, Genero eta Maskulinitasunari buruzko Espezialista.
Unibertsitate Complutensea. Madril
- ERAKUNDEEN ALORRA**
"Berdintasunerako gizonak"
JOSÉ ÁNGEL LOZOYA GÓMEZ J.
Jerez de la Fronterako Udala (Cádiz)
- 17.15o. **Solasaldia**
- 17.45o. **GOGOETA TALDEAK:**
"Gizonak feminismoaren aurrean"
XABIER ODRIOZOLA EZEIZA J.
Laguntza-gizon Taldeak Euskal Herrian. Bergara (Gipuzkoa)

-
- 18.15o. **Solasaldia**
- 18.30o. Egunaren bukaera

Ekainak 14

- 9.30o. *Koordinatzailea:*
ENRIQUE ECHEBURUA J.
Psikologiako Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea/UPV
"Maskulinitasunaren eta indarkeriaren arteko lokarriak hausten"
MICHAEL KAUFMAN J.
Lazo Txuriak Kanpainaren Nazioarteko Zuzendaria. Kanada
- 10.30o. **"Rol maskulinoak eta pake kulturaren eraikuntza"**
VICENT MARTÍNEZ GUZMÁN J.
UNESCOren Filosofia Pakea Katedraren Zuzendaria. Jaume I Unibertsitatea.
Castelló
- 11.30o. **Solasaldia**
- 12.00o. Atsedena
- 12.30o. *Koordinatzailea:*
JAVIER GÓMEZ ZAPIAIN J.
Psikologiako Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea/UPV
"Maskulinitasunak Europa berrian: homofobiatik beste pertsonen zainketa eta etikara"
FERNANDO BARRAGÁN MEDERO J.
Didaktika Departamentua, La Lagunako Unibertsitatea. Santa Cruz de Tenerife
- 13.30o. **Solasaldia**
- 14.00o. Bazkaria

-
- 15.00o. *Koordinatzailea:*
FRANCISCO GARMENDIA J.
Soziologia Fakultateko Dekanoa. Deustuko Unibertsitatea
"Arrazoa eta sentimendua bikote harremanetan: hitzarmenetik elkarrizketara?"
M^a JESÚS IZQUIERDO BENITO A.
Soziologiako Departamentua. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- 16.00o. **Solasaldia**
- 16.30o. **"Gizon eredu berriak. Azaleratzea eta testuinguratzea"**
CARMEN DíEZ MINTEGI A.
Antropologia Soziala Departamentua. Euskal Herriko Unibertsitatea/UPV
- 17.00o. **"Rolen elkarbizitza eta berregituratzea"**
GOTZON BARAIAETXABURU ARTETXE J.
*Azterketa Soziologikoetarako Kabineteko Zuzendaria "Kualitate Lantaldea".
Bilbao*
- 17.30o. **Solasaldia**
- 18.00h. Egunaren bukaera.

Ekainak 15

- 9.30o. *Koordinatzailea:*
IÑAKI GABILONDO J.
Kazetaria
"Amak buruzagi, aitak egonean"
CARMINE VENTIMIGLIA J.
Soziologiako Departamentua. Parmako Unibertsitatea. Italia
- 10.30o. **"Maskulinitasun eredu positiboagoetarantz"**
LUIS ROJAS MARCOS J.
*New Yorkeko Ospitale Publikoetako Osasun Elkargoko Presidentea.
EE.BB*

11.30o. **Solasaldia**

12.00h. Atsedentaldia

12.30o. **Azken hitzaldia**
"Gizonak III. milurtearen aurrean"

KENNETH REINICKE J.

Generoari Buruzko Ikerketa eta Dokumentazio Zentro Nazionala. Danimarka

13.30o. **Ondorioak eta Amaiera**

MANUEL MONTERO GARCÍA J.

UPV/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea

JOSÉ M^a ABREGO de LACY J.

Deustuko Unibertsitateko Errektorea

JAVIER RETEGUI AYASTUY J.

Mondragón Unibertsitateko Errektorea

IZASKUN MOYUA PINILLOS Andere txit argia

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Idazkari Nagusia

AURKIBIDEA

HASIERA	13
Juan José Ibarretxe Markuartu	15
Txaro Arteaga Ansa	17
Ana Diamantopoulou	19
MASKULINOTASUNAK ERALDATZEN: LANA, FAMILIA ETA KULTURA	
Victor J. Seidler	21
GIZONAK EMAKUMEEN ALDAKETAREN AURREAN	
Luis Bonino Méndez	31
MASKULINOTASUNEN KRISIAK: ZALANTZAN JARTZE FEMINISTEN ETA HETEROSEXISMOAREN KONTRAKO KRITIKEN ARTEAN	
Daniel Welzer-Lang	53
ESKUHA RTZE ESTRATEGIAK HEZKUNTZA ALORREAN: MASKULINOTASUNA ETA NERABEEN POPULAZIOA	
Erick Pescador Albiach	79
ESKUHA RTZE ESTRATEGIAK ERAKUNDEEN ALORREAN: BERDINTASUNERAKO GIZONAK	
José Ángel Lozoya Gómez	105
GOGOETA TALDEAK: GIZONAK FEMINISMOAREN AURREAN	
Xabier Odriozola Ezeiza	119
MASKULINOTASUNAREN ETA INDARKERIAREN ARTEKO LOKARRIAK HAUSTEN	
Michael Kaufman	127

ROL MASKULINOAK ETA PAKE KULTURAREN ERAIKUNTZA

Vicent Martínez Guzmán 139

MASKULINOTASUNAK EUROPA BERRIAN: HOMOFObIATIK BESTE PERTSONEN ZAINKETAREN ETIKARA

Fernando Barragán Medero 159

ARRAZOIA ETA SENTIMENDUA BIKOTE HARREMANETAN: HITZARMENETIK ELKARRIZKETARA?

M^e Jesús Izquierdo Benito 181

GIZON EREDU BERRIAK. AZALERATZEA ETA TESTUINGURATZEA

Carmen Díez Mintegi 203

ROLEN ELKARBIZITZA ETA BERREGITURATZEA

Gotzon Baraiaetxaburu Artetxe 221

AMAK BURUZAGI, AITAK EGONEAN

Carmine Ventimiglia 233

MASKULINOTASUN EREDU POSITIBOAGOETARANTZ

Luis Rojas Marcos 253

GIZONAK III. MILURTEAREN AURREAN

Kenneth Reinicke 265

GIZONEN ZEREGINA NAZIO BATUETAKO (NBE) NAZIOARTEKO BATZARRETAKO MARKOAN: NAZIO BATUETAKO BIZTANLERI FONDOKO LAGUNTZA (FNUAP)

Luis Mora Fernández-Rúa 285

ONDORIOAK

Izaskun Moyua Pinillos 309

**JUAN JOSÉ IBARRETXE
MARKUARTU**

**Eusko Jaurlaritzako
Lehendakaria**

TXARO ARTEAGA ANSA

**Emakunde/Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria**

ANA DIAMANTOPOULOU

**Europako Batzordeko Kidea,
Lan eta Gizarte Gaietarako
Arduraduna**

Hasiera

Aurrerapausu garrantzitsua

Historian zehar, emakumeek beti jarri izan dute zalantzan emakume eta gizonentzako aukera berdinek eskaintzen ez duen gizartea. Ondorioz, emakume zein gizonek betidanik hartu dituzten eginkizunak berriz aztertu dira; baita eginkizun horiek defendatu dituzten gizarte eta kultura ere. Lanak sexuaren arabera banatzean oinarritzen den gizarte antolaketak emakumeak etxean egotera eta umeak edukitzera mugatu ditu; aitzitik, gizonak jendaurreko bizitzara eta etekinak ateratzera. Bada, antolaketa hori iraganeko eredu da. Gaur erronka berria daukagu: egungo errealitateak planteatzen duen erronkari erantzuteko gai izango diren harreman pertsonalen eta bestee-kiko harremanen eredu berriak zehaztu eta aurrera eramatea.

Ilido horretan, "Gizonak gizarte berriaren aurrean" biltzarrean gizarte zuzen eta modernoagoa bilatzean aurrera egiteko garrantzizko gai bat jorratuko da: gizonek modu aktiboan parte hartzea. Biltzarrak hartu-emanetarako eta hausnarketarako gune bat eskaini nahi du; non gizonek euren identitate maskulinoa berrikusi ahal izango duten eta maskulinitasun eredu berriak ezagutu ahal izango dituzten. Izan ere, eredu horiek portaerak, ohiturak, balioak eta mentalitateak berrikustea eskatzen dute.

Denon arteko (emakume eta gizon) berdintasuna bilatzea gizon euskaldun guztien ahalegina ere izan behar du.

Halaber, gai horretan ere nabarmendu behar dugu, beti ere, garena bezala: herri modernoak, irekia eta tolerantia; guztiok aukera berberak izango ditugun herria. Izan ere, zertarako bizi, pertsona guztientzat are zuzentasun eta berdintasun handiagoa izango duen gizartea lortzeko ez bada.



Juan José Ibarretxe Markuartu
Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunerako politika publikoak bultzatzen hainbat urte ibili eta gero, gure iritziz, aurrera egin bada, emakumeek izandako jarrerari esker izan da bereziki, emakumeek izugarrizko ahalegina eta lana egin behar izan dutelako, gizarteko pertsona guztion oreka eta garapena bermatzen dituzten eredu berrien alde.

Emakumeak izan dira aldaketa horren ardatz nagusia, eurek jarri dutelako zalantzan sexuaren arabera bereizitako lanaren antolaketa soziala. Hala ere, begi bistakoa da gaur egun maskulinitasun eredu berria sortzen ari dela, eta eredu berri horrek bere egiten duela erronka hori eta eraldaketa sozial garrantzitsu horretan parte hartu nahi duela, hain zuzen ere, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna helburu delako.

Aldaketa testinguru horretan "Gizonak giza antolamendu berriaren aurrean" Biltzarraren helburu nagusia ondoko hau da: hartu-eman eta gogoeta aukerak eskaintzea gizonak rol berriak aztertu ahal izateko, eta berdintasun printzipioarekin zorrotza izango den ordena sozial berriaren oinarriak zehazten laguntzea.

Biltzar honek berdintasunaren bidean urrats berriak ematen jarraitzeko berebiziko garrantzia duen alorra jorratuko du: gizonak munduaren kudeaketa elkarren artean egin ahal izateko prozesuan inplikatzeko.

Etorkizunari begira dugun erronka horrek aldaketa sakon-sakona eragingo dio gizarteari: gizarte honetan emakume eta gizonen artean banatu diren funtzio eta erantzukizunen ereduak goitik behera aldatuko du. Orain artean, etxeko lan guzti-guztiak emakumearen gain egon dira; eta arlo publikoa eta profesionala, aldiz, gizonari egokitu izan zaio. Bereizketa horrek hainbat eta hainbat desberdintasun eragin ditu, portaerekin, balioekin, jarrerekin eta abarrekin lotutakoak. Horiek dira, hain zuzen, bazterketa sortzen dutenak eta horiek dira aztertu eta aldatu beharrekoak.

Maskulinitasunari buruzko Biltzar honekin gogoeta horretan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu gizonak eta eztabaida foroa, bereziki, eurei zuzenduta dago, ziur gaudelako urrats berriak ematen jarraitzeko bitartekoak eskainiko dizkigula. Hori dela eta, oso pozgarria da guretzat arlo horretan ekarpen handiak egin dituzten pertsonak gure artean izatea, euren parte hartzea oso garrantzitsua izango delako bide berriak zabaldu ahal izateko. Horregatik guztiagatik, gure eskerrik beroena eman nahi dizuet, bai txostengileei, eta bai topaketa hauetan izena eman duzuen guztiei ere, izan duzuen interes handiagatik.

Espero dut jardunaldi hauei ahalik eta etekinik handiena ateratzen jakingo dugula, aukera paregabea eskaintzen baitigute, gizon zein emakumeoi, mundua berdintasunean eraikitzeko bidelagun izateko.



TXARO ARTEAGA ANSA

EMAKUNDE / Emakundearen Euskal

Erakundeko Zuzendaria

Europar Batasuna aspalditik ari da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzen, eta lan hori 1957ko hitzarmenaz geroztik sendotu da.

Arlo horretan aurrerapen nabarmenak lortu dira, baina eguneroko bizitzan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko oztopo garrantzitsuarekin topo egiten dugu: emakumezkoek eta gizonezkoek praktikan ez dituzte eskubide berberak izaten.

Gai horri eraginkortasunez heltzeko, ezinbestekoa da berdintasun helburu hori emakumezkoen eta gizonezkoen bizitzari dagozkien politika guztietan barneratzea. Berdintasuna barneratzeko prozesu horretan, gizonezkoen zeregina oso garrantzitsua da, bizitzako alderdi guztietan. Europako Batzordeak argi eta garbi dauka zein garrantzitsua den gai hori; horregatik, eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren inguruko Batasuneko estrategiaren testuinguruan eta dagokion programaren testuinguruan (2001/2005 aldian aplikatu beharrekoa), bi alderdi hauek dira, hain zuzen ere, esku-hartzeko arloetako baten oinarria: batetik, estereotipo femenino eta maskulinoak, eta bestetik, portaerak, jarrerak, arauak eta balioak aldatzeko beharra. Zertarako? Emakumezkoen eta gizonezkoen zereginak gizartean zer-nolako bilakaera izan duten kontuan hartzeko. Aurreiritzi kulturalak eta estereotipo sozialak kentzea funtsezkoa da emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko.

Beraz, estereotipo sexisten ondorioz sortutako diskriminazioa kentzeko neurri guztiak bultzatu behar ditugu, batik bat arlo hauetan: hezkuntza, prestakuntza, kultura, ikerketa, komunikabide eta kirol arloan. Baina beharrezkoa da, halaber, beste zenbait arlotan esku-hartzea, hala nola bizitza ekonomikoan, erabakiak hartzeko guneetan –parte hartze orekatua izateko–, eta eskubide sozialen eta gizalegezko eskubideen gauzatzean. Eta alor horiek goian adierazitako programan lantzen dira, hain zuzen.

Ana DIAMANTOPOULOU
Europako Batzordeko kidea,
Lan eta Gizarte Gaietako Arduraduna

VICTOR J. SEIDLER

**Soziologiako Departamentua.
Londresko Unibertsitatea.
Britainia Handia**

Maskulinota-

sunak

eraldatzen:

lana, familia

eta kultura

Laburpena

Hitzaldi honek maskulinitasun eta lanaren arteko harremanetan izandako aldaketak landuko ditu, baita nola horrek identitate maskulino tradizionalak zalantzan jartzen dituen ere. Hainbat industria tradizionalen gainbehera ikusi duen ekonomia globalagoan gaudelarik, gizonek bere burua familiaren hornitzaile eta sostengu ekonomiko bezala ulertzeko modua berrikusi behar badute, familia barneko genero-harremanei buruz ere berriz pentsatu behar izan dute, emakumeek beraien genero-esperientziaren inguruan hausnartzen ikasi baitute. Emakume eta hurrekin dituzten harremanak berdintasunezkoagoak izateko gai izateko, gizonek hazi diren eta ezarrita bezala onartu dituzten maskulinitasun-kulturak ikuspuntu kritikoz aztertu behar dituzte.

.....

1.

Definizioak

Alda al daitezke gizonak? Zergatik behar izan dute hainbeste denbora berdintasun eta afektua ageriago duten harremanen alde feminismoak planteatutako erronkei aurre egiteko? Tradizionalki feminismoa eskubide eta aukera berdintasunarekin lotuta egon da, emakumeek karreretan, lanpostuetan eta lanbideetan zein politikaren alorrean berdintasunean lehiatzeko aukera izan zezaten. Izan ere, politikan baztertu egin dituzte. Hori guztia ez da nahikoa izan portaera maskulinoak egituratutako alor publikoari erronka planteatzeko. Arau horiek arrazoizkotzat jo izan ziren modernitatean, baina egia esan nagusi den maskulinitatetik soilik uler zitezkeen. Emakumeak baztertu egin ziren eta etengabe izaki arrazionalak zirela erakutsi behar zuten, izan ere emakumeen berezko izaerak naturarengandik hurbilago egotera behartzen zituen eta beraz, beraien emozio, sentimendu eta nahiak direla eta, aldagarriagoak dira. Feminismo liberalak arrazionalitateari dagokionez emakumeak gizonen berdina direla zioen, eta hortaz, lehiatzeko garaian baldintza berdina izan behar zituztela.

Hala ere, anglohiztunen munduan feminismoaren bigarren boladarekin batera, beste premisa bat zabaldu zen: "pertsonala zena politikoa zen". Horren arabera, boterea harremanen maila pertsonalean onartu behar zen, baina baita politikaren maila publikoan ere. Horregatik maila publikoa ezin da orduz geroztik gune boteretsu eta arrazionaltzat ulertu. Artean, maila pribatua maitasun, emozio eta intimitate gunea zen. Horren arabera, emakumeak lanpostu eta karreretan lehiatzeko askeak izatekotan, gizonezkoek, ezinbestean, birplanteatu egin behar zituzten lantokietan arau maskulinitate jarraikiz ohiko prozedurak antolatzeke ezarritako jarraibideak. Emakumeek baldintza berdinetan lehiatu nahi zuten, beraien ardurak, esaterako haurrak zaintzea eta etxeko lanak, alde batera utzi gabe.

Horren ondorioz, gizonezkoek feminismoari lagundu egin behar diote emakumeen berdintasunaren aldeko borrokan, baina hori ez ezik, beraien esperientzia maskulino gisa onartu behar zuten. Hori gizonezkoek euren kasa egiten ikasi behar zuten, nahiz eta orokorrean homofobikoa zen kultura batean abian jartzea lan erraza ez izan. Kultura horretan maskulinitatea termino negatiboak

erabiliz planteatzen zen: "biguna" "ez" izaten, "sentibera" ez izaten, "mendetasunik" ez izaten; beste hitzetan esanda, "emakumezkoa ez izaten". Horrek are zailagoa egiten zuen gizonezkoen arteko elkarlaguntza kontzientea –taldeak osatzea– izan ere gizonezkoak zirenez gero "independente" eta burujabeak" izan behar baitzuten, ezin zuten beldurrak sortutako "ahuleziarik" erakutsi besteen aurrean. Ahulezia horiek, bestela, beraiekin maskulinitatean lehiatzen zuten beste gizonen erabil baitzitzaketen beraien aurka. Sarritan, gizonak "besteak baino hobeto egiten ari direla" jakinez soilik senti daitezke hobeto.

Eredu horiek goiz hasten dira eraikitzen, txiki-txikitatik, eta beraz, garrantzitsua da gogoeta egitea gai honen inguruan: nola bereganatzen duten mutikoek beraien maskulinitatea eskolan eta familian. Askotan, beraien kasa biziraun behar dutela sentitzen dute, eta esaterako, gurasoak elkarrengandik banantzen ari badira edo bietako bat hil egin bada, ezin dute inorekin horri buruz hitz egin ezta laguntzarik bilatu ere. Sarritan lotsatu egiten dira eta arazorik ez dutela sinestarazten ikasten dute. Pairatzen ari diren ezinegon eta aztoramen emozionala jasaten ikasi dute. Beste batzuetan, mehatxatuta ikusten duten nortasun maskulinoa indartzeko, beste haurrei ikara sorrarazten arintzen dute ezinegon. Azkenaldian, zentroetako akosoa areagotu egin da "eskola-porrotaren" inguruko eztabaidetan argi adierazi denez. Eskolan neskek emaitza hobekak lortzen dituztela azpimarratzen da. Seguruaski, neska gazte moduan beraien burua ikusteko adorea jaso dutelako izan da.

Nolabait, gizon izatera iristeko trantsizio garai horretan mutilek behar duten laguntza mota ere adierazi egin behar dugu. Tarte horretan, gaur egungo gizartean gizon izateak zalantza ugari sorrarazten ditu. Hori alde batetik arazo kulturala da, eta belaunaldien arteko elkarriketarekin zerikusia du. Baina ohiko industrietan behera egin ahala, aitek ezin izaten diote semeari lanpostu bat eman. Geroz eta "aprendiz" gutxiago dagoenetik, gizonezko heldu eta gazteen arteko elkarriketarako giroa eskasagoa egin da. Izan ere, trebeziak irakasten dira elkarriketotan eta langile klaseko gizon gazteek hezkuntza formalaren behar handiagoa senti dezakete. Baina beraien aitentzat hezkuntza mota hori nahikoa ezezaguna da. Mutil gazteak bakarrik senti daitezke, besteengana iritsi ezinik.

Ohiko lanak behera egin ahala, geroz eta gogorragoa da aitentzako beraien nortasun maskulinoen zentzua mantentzea, hots, familiarentzako hornitzaile eta euskarri izatea. Horren eraginez, depresioa hurrengo gerta daiteke, eta hori hurrengo belaunaldiei pasa. Mutilek, gizon gazte izateagatik, zalantzak izan ditzakete. Zenbaitetan, feminismoaren aurka daudela senti dezakete, izan ere feminismoak, gizona, figura boteretsu bezala baitakusa. Pertsona hori, nolabait, emakumeek pairatzen duten zapalketa eta mendetasunaren arduradun da. Baina gizonezko gazteek ez dute euren burua horrela ikusten, eta, beraz, aztoratu eta nahastu egiten dira.

2.

Boterea

Mutil gazteek euren inguruan beraien buruaz seguruago dauden neska gazteak ikusten badituzte, eta neska horiek beraien bizitzari zein norabide eman nahi dioten argiago dutela, mutilak euren baitan murgil daitezke, isiltasun goibelean. Sarritan, teoria feminista goiztiarra maskulinitatea botere erlazio hutsa bailitzan identifikatzen saiatu izan da, maskulinitatea "berraurkitzeko" modurik egongo ez balitz bezala. Izenburu hori lehen pentsatu nuen, xedea maskulinitatea behera botatzea baitzen. Gizonek aldatzeko batere aukerarik izango ez balute bezala zen, eta maskulinitatea salbatzeko modurik egongo ez balitz bezala. Aitzitik, beraiak onartu egin behar zuten maskulinitatea bera zela arazoa, eta horrenbestez, ezin zela konponbidearen alderdietako bat izan. Hori, zenbait zentzutan, oraindik ere gizon anti-sexisten politikaren ahulezia da. Politika mota hori, gai da beraien esperientzia propioa izendatzeko, gizonek emakumearen mendetasunean duten eragina onartzea.

Politika maskulino mota horrek gizonek emakumeen aurka darabilten bortizkeria izugarriaren aurkako konpromisoa hartu du, eta geroz eta argiago uzten du zerekin ez dauden ados. Bortizkeria mota hori luzaroan ukatu egin da, eta horretan gizonek duten ardura azpimarratzen du. Hala ere, emakumeengan zentratzen da. Hau da, ez du gehiegi hitz egiten gizonezkoen esperientziari buruz. MAN ENOUGH (Nahikoa Gizona) izeneko lanean aztertu dudana bezala, emakumeen aurka gizonek erabili duten bortizkeriagan erakarri behar dugu atentzioa. Etxeko bortizkeriarekin amaitu behar dugu, baita laneko eraso sexualekin ere. Sarri esperientzia horiei garrantzia kentzen diegu eta nahi gabe haien konplize bihurtzen gara. Beste zenbaitetan norberari bakarrik dagokion arazo pertsonala dela esan ohi dugu. Mexikon izandako esperientziak esaten dit, askotan maila publikoan agertzen diren "portaera onek", etxeko jarrera bortitza ezkutatzan dutela. Askotan, emakumeek beldur handiegia dute gaiari heldu eta horri buruz hitz egiteko, eta beraien burua erruduntzat jotzen ikasten dute, gainera.

Hala ere, ezinbestekoa da bi gauza onartzea: batetik, gizarte patriarkal honetan, gizonen arabera taxutuko gizarte honetan, gizonezkoek duten botere soziala; eta, bestetik, gizonezko bakoitzaren zalantza eta ezintasunak. Bi alderdi horiek errealitate konplexu baten osagai dira. Honek, aldi berean, esan nahi du gogoeta egin behar dugula botereari eta emozioen munduari buruz, bai eta boterea erabiltzen den beste alorrei buruz ere. Alde batetik, horrek generoaren eta jarreraren arteko diferentziak planteatzen ditu: emakumeek boterea bizitzako alor jakin batzuetan erabiltzen dute, eta gizonek beste batzuetan. Emakumeek sarritan adierazi ohi dute kexa bat: bikoteak etxean haur baten jarrera izatea, hots, sentimenduei buruzko izugarritzko zalantzak izatea.

Tradizionalki aita beti izan da autoritatea. Hark zioena legea zen eta obeditu egin behar zitzaion. Askotan, aitek pentsatu izan ohi dute seme-alabekin emozionalki nahastuz gero, beraien autoritatea zalantzan jarriko zela. Aitengandik, bere seme-alabentzako "onena" lortzeko agintzea espero da, eta ez dute derrigor seme-alabekin komunikatu behar. Aitak, aldi berean, bazuen beste egin-kizun bat. Esandakoa betetzen ez zuena zigortzea. Hori dela eta, aita patriarkala familiagandik urruti zegoen irudia bihurtzen zen, eta familia bera, ama eta seme-alaben inguruan egituratzen zen. Aita bakarrik eta baztertuta sentituz gero, lankideak, hau da, beste gizon batzuk, soilik zituen

laguntzeko, edo bestela, ezkutuko affairetan nahasten zen, izan ere sekretupekoak bizitzari gal-
dutako bizipoza bueltatuko zion esperantzan. Baina sarritan, seme-alabek ez zuten sumatzen ai-
tarekiko kontaktua galdu izana, nahiz eta azkenaldian, aitek seme-alabekin kontaktu emozional
handiagoa izan nahi dutela adierazi.

Britainia Handian jarrera aldaketa batek benetako eraldaketa eragin zuen: aitek haurdunaldi eta
erditzean parte hartze geroz eta handiagoa izan nahi zuten. Aitek gehiago parte hartu nahi zu-
ten, eta aitatasun-baja murriztaren ostean lanera bueltatzeko orduan ezeroso sentitzen ziren. Hori
oso txarra izaten zen emakumeentzat, "oraindik ere haurra besoetan zutela" bakarrik uzten bait-
zizuten, eta aldez aurretik euren harremanak berdintasunean oinarrituta egon ziren. Bikotean biek
lan egiten zuten eta etxea mantentzeaz arduratzen ziren. Nolabait, generoen arteko berdintasu-
nak, biak lanean ari zirenean funtzionatzen zuen, eta bazirudien ikuspegi hori ez zela aldatuko
haurrak izanda ere. Askotan irtenbidea diru gutxiago zuten emakumeei haurrak zaintzearen ardu-
ra ematea zen. Hala eta guztiz ere, ama asko ez dira erabaki horrekin pozik geratzen.
Lehendabiziko hilabeteetan bizirautea aski izaten da, izan ere etengabe sortzen zaizkie zalantzak
eta nahikoa lan izaten dute horiei aurre egiteko. Zoritxarrez, lehendabiziko 16 hilabeteak igaro
ostean, eta haurrarekin gauzak geroz eta errazagoak izaten hasten direnean, dibortzioa gertatu
ohi da.

Lana gehitu ahala, gurasoentzako geroz eta zailagoa da haurrekin behar duten denbora pasa-
tzea. Batzuetan, emakumeak, gizonetzako bezain libre dira lanera joateko, etxeko eskaera eta
kaos etengabetik ihes egiteko. Esan genezake mundu anglofonoan, emakumeek presio handiak
izan zituzten nolabaiteko genero neutroko nortasuna osatzeko, baina nortasun neutro hori, ordea,
arau maskulinoen arabera egituratuta zegoen. Emakumeak lan munduan onartu izan zirenez,
"guztiok bezala" eurak ere "presioa jasan" zezaten espero zen. Azken ikerketek adierazten dute-
nez, zenbait emakume haurrak dituztenekin deseroso sentitzen dira diote, "kale egin" dutela uste
baitute eta behar ez zutenean beraien buruarentzako gauzak eskatu izan dituztela.

3.

Diferentziak

Gizonezkoen esperientziaren inguruan adierazi bezala, gizonek ere etxeko bizitzan eta lanekoan
tentsioa jasaten dute. Ez da asteburuetan haurrekin "kalitatezko denbora" izatea soilik. Haurren
nahi eta beharrak ere entzun behar ditugu, eta generoen arteko berdintasuna aztertu, haurrek ere
horretan euren lekua izan dezaten. Horrek zera eskatzen du: eguneroko harremanetan haurrak eta
gurasoak elkarrekin nahastea zein garrantzitsua den ikustea. Era berean, industria-ondorengo la-
naren izaera birplanteatzeko beharra dago, baita gizon-emakumeek lanean eta etxekoekin ema-
ten duten denbora orekatzekoa ere. Horren ondorioz, gizonetzako onartu egin beharko dute lu-
zerako harreman bat mantentzeko "ahalegin emozionala" egitea oso garrantzitsua dela.

Gizonek beraien harremanak oinarritzat hartuko balituzte, beste gauza asko baloratzen lagundu-
ko lieke. Askotan "beraien familiarentzako" lan egiten dutela esan arren, nortasun maskulinoak
oraindik ere lanaren inguruan taxutzen dira, eta, ondorioz, gizonetzako askok oso gutxitan ikasten

dute harreman serio bat aurrera eramateak zenbat denbora, arreta eta ahalegin suposatzen duen. Hori izan ohi da askotan bikote heterosexualan emakumeak izaten duen ardura, emakumeek egiteko borondate gutxi agertzen duten lan ikusezina. Gainera, gaurko emakumeek euren gurasoen belaunaldian baino eskakizun emozional handiagoa dute. Noski, ezin dugu orokorrean hitz egin, eta gai horiek testuinguru historiko eta kultural jakin batean kokatu behar dira. Euskal Herriko antzinako legeek emakumeen oinordekotza zilegitu duenez, emakumeen boterea mantendu du komunitatean. Berriro ere agerian jartzen denez, besteen esperientziatik ikasi ahal izateko, ezinbestekoa da gai horiek testuinguru jakin batean kokatzea.

Boterea eta diferentziaren artean pentsatzen dugunean, gizon-emakumeen arteko harremanak ez ezik, sexualitate ezberdina ere izan behar da kontuan, bai eta maskulinitate mota ezberdinak banantzen dituzten erlazio konplexuak ere. Ezin dira alde batera utzi klaseekin, kulturarekin, arrazekin eta etniekin zerikusia duten baldintzak, izan ere maskulinitate ezberdinen artean botere eta eskubide harremanak ezartzen dituzte. Gizon talde batek oraintsu izandako eztabaida batean, nahiko argi geratu zen langile klaseko gizonak ezin zutela euren burua unibertsitatean joaten imajinatu. Hori ez da posible beraiek bizi duten gizarte-errealitatean. Hobe esanda, trukerako gaia zen. Emakumeen arteko diferentzietan buruz gogoeta egiten ikasi dugun bezala, maskulinitate ezberdinak onartzen ikasi dugu. Baina emakumeek beraien nahi eta behar propioak aztertzeak askatasuna izan duten bezala, nagusi zen maskulinitatearen epaietatik urrun, gizonak ere astia behar dute jaso dituzten maskulinitate formak aztertzeak. Hori gizonen lana da, jaso dituzten maskulinitate mota ezberdinak definitzea gero kontuan izateko. Lan hori zalantzaz jositako garaian burutzea zaila da, izan ere maskulinitatearen ohiko ereduak –gizona "etxera ogia dakarrena" edo "hornitzaile" gisa definitzen zutenak– behera etorri baitira. Sarritan, gizonak beraien esperientzia propioa kontrolatu beharko luketela sentitzen dute, izan ere, beraien zalantzak onartuz gero, beraien nortasun maskulinoa arriskuan gera baitaiteke. Gizonak beraien antsietate eta beldurrak ezkutatu nahi dituzte beraien irudi publikoa aurkezteko garaian. Batzuetan, barruko tristura hori geroz eta handiagoa egin daiteke, gizonak adierazi nahi ez duten beldurra dramatikoki barruan, eta inoiz erakutsiz gero, baztertu egingo luketelako. Amorrua norberaren kontra etorri daiteke eta hori gizon gazteen suizidio tasa handiak erakusten digu, ia fenomeno orokorra bilakatu baita. Errazagoa da norbere buruarekin beste egitea, zure etsipena besteei agertzea baino.

4.

Teknologiak

Globalizazioarekin eta teknologia berriekin, belaunaldien arteko tartea geroz eta handiagoa da, eta orduantxe hasten dira gazteak sentitzen gurasoek ez dutela ulertzen beraien mundu hori. Software berriei eta telekomunikazioetako teknologiei esker, denbora konprimatu egiten da eta aldi berean, gazteak kitzikapen gehiegi jasotzeaz aparte, loturak geroz eta azkarragoak diren sarean "parte hartzeko" irrikan daude. Gure kulturaren segundoko hirien eta landako giroen arteko harremanak birdefinitzen dituzte, eta kokaguneak geroz eta garrantzi txikiagoa dauka. Gure kulturaren eguneko 24 orduak eta asteko 7 egunak okupatuta daude, nahiz eta denbora eta lana aurrezteko

era guztietako baliabideak asmatu diren. Hortaz, erraza da guretzako eta harremanetarako geroz eta denbora murriztagoa dugula sentitzea, gizakiaren historian gizakiek izan dutenarekin konparatuz gero. Posta elektronikoa oso eraginkorra da, baina etengabeko mezu jario bati atsedetik hartu gabe erantzuten aurki dezakegu geure burua. Telefono mugikorrek denbora aurrezteko balio digu, baina ez oraingoa bezalako egoeratan, izan ere gure beharra daukan ororen esku bai-kaude etengabe. Ordenagailua itzaltzen dugu eta telefono mugikorrek desaktibatzen ditugu guretzako astia hartu nahi dugunean, baina hori egitean, zer gertatzen den ez jakiteak antsietatea sorrarazten digu.

Teknologia berriek, orokorrean, maskulinitateak zirkulatzen jartzeko balio izan dute, eta gazteek maskulinitate horiek aurkezten dituzten irudiekin identifikatzen ikasi dute. Look berezia hartzen dute, baina aldi berean, zaila egiten zaie gertatzen ari zaiena adieraztea, izan ere hori egiteak beraien buruz eraikitzen ari diren irudia kaltetu baitezake. Ez litzaiguke harrigarria iruditu behar, estresarekin zerikusia duten gaixotasunak munduan zehar gehitzen ari izatea. Hori, informazio gehiegi izatearen eragina izan daiteke, baina baita jendeak bere burua giza jardueren erritmoa, jarioa eta dentsitatea eramateko moduan ikustearen eragina ere. Erresuma Batuan, urtero, hamar langiletatik hiruk arazo mentalak dauzka estresarekin zerikusia duten jarreraren eraginez. Jeremy Rifkin, *THE AGE OF ACCESS* izeneko lanaren egileak oraintsu adierazi bezala "... haur bat ordenagailuz eta bideo jokoz inguratua hazten bada, eta berehalako saria espero badu, hain harrigarria al da arreta jartzeko zailtasunak izatea? Erritmoa arintzen dugunean, belaunaldi baten inpazientzia handitzeko arriskua areagotzen dugu." (The Guardian 2001eko maiatzaren 26a, Larunbata. 22. orrialdea). Rifkin-ek zenbait gauza jakin nahi ditu: ea hiper-abiaduraren kulturak geroz eta inpazienteago egiten gaituen; eta "amorratio" edo "etxeko bortizkeria" gisa azalera-tzen diren estres kasu berri horiek jendeak estresa indarkeriaren bidez kanporatzen duen erakusten duten ala ez.

Rifkin-ek galdera esanguratsua planteatzen du: "Iraultza teknologiko berria abiaduran eta hiper-eraginkortasunean soilik oinarritzen bada, ez al dugu denbora baino preziatuagoa den zerbait galtzen? Afektua duten gizakiak izatea hain zuzen". (22. orrialdea). Gai hori gizonezkoek ez ezik emakumezkoek ere badagokie, izan ere gure buruari errua botatzen baitiogu arau berri horiek "jarrartzeko" gai sentitzen baikara, eta hori guztiz okerra da. Lo egiteko behar dugun astia murrizten dugu, esaterako. Baina kanpoko arauen arabera gure burua epaitu aurretik, badaude teknologia berrietara gure bizitza nola moldatu zehaztea baino gauza askoz ere garrantzitsuagoak. Garrantzitsuena ez da teknologia berrietara edo globalizaziora egokitzen jakitea, nahiz eta politikoek une oro horretara bultzatzen gaituzten, kontuan hartu gabe ekonomia globalizatu horren atzean, batez ere, enpresen interesak besterik ez daudela. Teknologiak oinarritzat hartzen dituen gizarte ikuspegiari buruzko galdera sakonagoak planteatu behar ditugu, eta ez diegu gure bizitza gobernatzen utzi behar.

Askotan, gizonek gaixo daudenean soilik egiten dituzte horrelako galdera sakonak. Eta orduan, gaixo jartzera bultzatu dituen horren aurkako haserrea adierazten dute. Gehienetan, ohiko maskulinitate hori mantentzeak sorrarazten duen estresak jarri ditu gizonak gaixo, izan ere zaila egin

zaie beraien gorputzei entzutea, eta gorputz horiek aldi berean gizonaren zerbitzura dauden modernitatearen makina bilakatu dira. Sarri gizonak oztopoak dituzte laguntza bilatzerakoan, adibidez prostatako minbizia dutenean. Nahigo izango dute gaiari buruz ez hitz egitea, eta minbizia ezerezetik sortu bada besterik gabe desagertuko denaren itxaropena izango dute. Ez dute pentsatu nahi zein eragin izan dezakeen estresak eta tentsioak isilpean gordetzeak, ezta isilpean gordetze horrek sorrarazi duela, agian gaixotasuna. Sendagileek beraien egoera konpontzea nahi dute lanera bueltatzeko, eta hortaz, "eguneroko bizitzara" bueltatzeko. Ez dituzte sendagileen zalantzak entzun nahi kasu bakoitzaren konponbidea zein izan daitekeen azaltzeko garaian. Izan ere, horrek, sarri, gizonaren osasunari behar duen arreta eskaini ez zaiola adierazi nahi du. Aitzitik, gizonezkoek beraien burua epaitu dute eta kanpoko arauen arabera bizi izan dira, gainera gaizki sentituko dira beraien espero zena ematea lortu ez badute. Ez da erraza zure gorputza ikuskatzen ari den sendagile edo erizainari zure beldurrak agertzea, baina hori egiteak, agian, horien lana erraz dezake. Erraza da halaber, "ahula" izaten ari zarela sentitzea, eta beraz, "nahikoa gizona" (Man Enough) izaten ari ez zarela ikustea.

Gizonezkoen hainbat belaunaldik gerratik edo gatazka batetik bueltan bizi izandakoak isilpean gordetzen ikasi dute. Sarritan, ez diete pairatu behar izan dituzten egoeren berri ematen ez beraien seme-alabei ez beraien bikoteei ere, hots ez diete gerrak eragindako beldur eta izuen berri ematen. Hurrengo belaunaldia babestu nahi izan dute, baina prozesu hori igarotzen ari ziren bitartean, ez dute beraien mesederako erabil zezaketen laguntzarik jaso. Gerra Zibilak eragindako saminak bere horretan darrai eta memoria historiko horiek konpartitu egin behar dituzte, bilobek euren aiton-amonek bizi izan dutena ezagutu dezaten. Memoria horrek belaunaldi berriari beraien alor propioa aztertzei aukera ematen dio eta bizitzan benetan garrantzitsua dena ikusarazten dio. Adorea eta erabakiak elkarrizketa bat hasi aurretik berrikusi behar dira, guraso eta seme-alaben arteko komunikazio hori sarritan etenda egon arren. Hala ere, batzuetan seme-alabak dira gurasoen konponbiderik gabeko gatazkak daramatzatenak. Horregatik, berebiziko garrantzia du elkarren artean hitz egiten ikasteak, botereak eta sentikortasunaren mugak gainditu gabe.

Gizonezkoek beraien sentikortasuna modu irekiago batean adierazten ikasi ahala, hori ahultasun seinalea ez dela ikasiko dute, aitzitik, norberaren adorea adierazten duela. Gizonezko gazteek besteekin –gizon ala emakume izan– harreman intimoa izaten ikasten dutenean, bizitzan zer axola zaien ikusten ikasiko dute. Gizarte demokratikoago eta berdinoago batean generoen arteko harremanetan justizia handiago baten alde borroka egiten badute, maitasuna apreziatzen ikasiko dute.

Bibliografía

Victor J. SEIDLER: *Man Enough: Embodying Masculinities* (Sage, 1997).

Victor J. SEIDLER: *Unreasonable Men: Masculinity and Social Theory* (Routledge, 1994) duela gutxi gaztelera itzulitakoa: *La sinrazón masculina: Masculinidad y teoría social* (Paidós, México, Buenos Aires, Bartzelona 2000).

Victor J. SEIDLER: *Recovering the Self: Morality and Social Theory* (Routledge, 1995).

Victor J. SEIDLER: *Shadows of the Shoah: Jewish Identity and Belonging* (Berg, Oxford eta Nueva York 2000).

Victor J. SEIDLER: *Rediscovering Masculinity: Reason, Language and Sexuality* (Routledge).

Victor J. SEIDLER: *Recreating Sexual Politics: Men, Feminism and Politics* (Routledge).

Victor J. SEIDLER: *Men, Sex and Relationships: Writings from Achilles Heel*.

LUIS BONINO MÉNDEZ

**Gizon Baldintzaren Azterketa
Zentruko Zuzendaria. Madril**

Gizonak

emakumeen

aldaketaren

aurrean

Ponentzia hau artikuluko honako bertsio zuzendua eta handitua da: "Los varones y el cambio femenino" 1995ean *Revista de la Dirección española del Menor*, 27an agertutakoa (Gizon eta emakumeen arteko familiako arduren banaketari buruzko monografikoa) eta "Gizonak emakumeen aldatetaren aurrean" *Lectora. Revista de Dones e Intertextualitat*-en argitaratua (Gizonak eta feminismoari buruzko monografikoa), 4: 12-21, 1998 (Bartzelona-Kataluniako Unibertsitateak argitaratua)

Laburpena

Ponentzia honetan, berdintasunezko tratuaren aldeko borrokan, emakumezkoek izan dituzten aldaketen aurrean, gizonaen(1) –banaka eta taldeka– erreakzioak azaltzen dituen ikuspegi oso bat ematen da. Ikuspegi hau mendebaldeko zenbait herrialde garatueto gizonaen oinarritzen da –bereziki europarrak eta ipar amerikarrak–, bat egiten duten gaiari buruzko hainbat ikerketa soziologikoren ondorioak eta zenbait gizonaen bere rol/status eztabaidatua dela eta garatzen dituzten gizarte ekintza (mugimenduak) berezien analisisa erabiliz.

Generoen arteko justiziaren ikusmoldeetik, zergatik dira hain gutxi emakumeek berdintasunerantz buruturiko aldaketen aurrean jarrera onez erantzuten duten gizonaen? Erantzun desberdinak analizatu eta azalpen saio batzuk egiten dira –subjektibitatearen eta gizonaen jokabidearen ikuspuntutik–. Gizonaen norabide horretan egin beharreko aldaketa errazteko, egiten ari diren zenbait proposamen ezagutarazi ondoren, ponentzia berdintasunaren aldeko gizonaen bizi-praktiken perfila deskribatzen bukatzen da, berdintasunerantz gizonaen ibili beharreko bidearen eredu gisa balio dezakeena.

HITZ GAKOAK: maskulinitatea, gizonaen aldaketa, gizonaen mugimenduak, gizonaen identitatea.



1.

Jarrera

Azken hamarkadetan, emakumeak, berdintasunaren aldeko borrokan, munduarekiko eta beraien buruarekiko erlazioa aldatzen ari dira. Gizonaen boterearen hegemonia zalantzan jartzea eta pertsona/hiritar modura eskubideak indartzea borrokaren zati dira, gizonaen eta emakumezkoen arteko eredu tradizionalari aurre egitean.

Ez dago zalantzarik gizonaen erroka horren jakitun gabela. Baina nola heltzen diogu? Nola eragiten digute emakumeen aldaketek, eskubide berdintasunaren aldeko haien borrokek eta gizonaen eredu tradizionalaren zilegitasun galera gero eta handiagoak?

Ez da historian lehenengo aldia, gizonaen gizonaen moduan eta sozialki, beraien burua kaltetua ikusi dutena emakumeen aldaketaen aurrean. Oraingo berritasuna da, eraldaketa hain handia izanik emakumeari kultura emandako lekua erabat aldatzen ari dela, eta horrek –gizonaen nahi ala ez– munduan, emakumeen aurrean, beste gizonaen aurrean eta bere buruaren aurrean gizonaen duen lekua zalantzan jartzea dakar. Eta zalantzan jartze horren aurrean, zein jarrera ari gara hartzen emakume berriekiko? Nola erreakzionatzen dugu? Zein erantzun ari gara ematen? Beraien aldaketa eta eskakizunen aurrean, gu ari al gara aldatzen? Eta aldatzen ari

(1) Nahiago dut "gizonaen" terminoa erabili, kolektibo maskulinoa osatzen dutenak zehatzago izendatzen baititu "gizonaen" terminoak baino. Azken hau nahasiagoa da, jende askoren kaleko hizkeran ere (sexista), gizonaen oro har izendatzeko erabiltzen baita.

bagara, zein norabidetan? Zeintzuk lirateke erlazio eta aldaketa onenak eta zein irizpideren arabera? Ba al dago aldaketa horiek eragiteko modurik? Hurrengo lerroetan galdera hauei erantzuten saiatuko naiz, horretarako mendebaldeko munduko zenbait herrialdetako gizonaekekin –batez ere europarrak eta ipar amerikarrak– gertatzen denaren alderdi batzuetan oinarrituz.

2.

Gizonezkoak emakumezkoen aldaketen aurrean

Galdera bat erantzuten saiatuz has gaitezke: nola jakin dezakegu –gure eguneroko inkestentatik haratago– zeintzuk diren emakumeen aldaketen aurrean gizonaek dituzten erreakzionatzeko ohiko moduak?

Espanian –artikuluak idazten ari naizen herrialdea– aurkitu ahal izan dudako informazio espezializatuaren arabera, auzi honetaz arduratzen diren ikerketak gutxi dira. Alta, egin dutenek, ondorio argiak erakusten dituzte. Eta horri, azken hogeitun urteotan gai nagusitzat maskulinitatea eta gizonaek jarrera duten herri mugimenduek eta gizarte borrokek egindako teoria eta praktikak aztertuta sortzen den informazioa gehitzen badiogu, aurreko galdera erantzun daiteke. Eta erantzun horrek, ikusiko dugun moduan, komunikabide askok esaten duen honakoarekin zerikusirik ez du: gizonaek berdintasunerantz aldatuz erantzun dutela jada eta horregatik arlo guztietan emakumeekin parekotasuna dagoela, edo aita berriak hemen direla jada, edo gizonaek ez dutela indar egiten emakumezkoen aldaketen aurrean eta berdintasun ezaren ardura emakumeek beraiek dutela (Bonino, 2001).

Mundu europarrean –latinoa eta anglosaxoia– emakumeen aldaketek gizonaek jokamoldeetan duten eraginari buruzko berriazko ikerketa gutxi dago. Espanian hain zuzen ere, azken hamar urteotan modu honetako lau ikerketa (2) egin dira bakarrik. Baina hala ere, ikerketa horiek Europako beste herrialde batzuetan (3) egindako antzeko ondorioetara iristen dira, eta horregatik sailkapen erreferentziatzat hartuko ditugu.

Azterketa horien ondorioek, emakumezkoen aldaketen aurrean eta baita feminismoaren –aldaketa horren ordezkari legez– aurrean ere, gizonaek emandako hainbat erantzun erakusten digute, gizona hiru kategoriaren aldetik.

(2) Ikerkuntza espainiarretako hiru: aldaketa femeninoaren aurrean gizonaek izandako erantzunari dagozkie: *Los hombres españoles* (Inner, 1988), *El hombre perplejo* (T.E.S.T., 1995) eta *Los hombres frente al cambio de las mujeres* (Lozoya y Marqués, 1996), eta bestea: *La flotante identidad sexual* (Ortega y otros, 1993), identitate berrien sorreraren aurrean gaztetxoek duten jarreraz arduratzen da.

(3) Ikerketa hauen erreferentzia on bat Deven eta besten, 1998 aurkitu daiteke.

2.1

EMAKUMEEN ALDAKETEN

AURKAKOAK

Sarritan 55 urtetik gorakoen artean aurkitzen dira (eta azkenaldian baita 21 urtetik beherakoen artean ere), edo ikasketa ertainekoen artean, etxeko lanak bakarrik egiten dituzten emakumeekin erlazonatuak eta langabeziagatik kaltetuak, langile ez kualifikatuak eta hiri txikietan bizi direnak. Diskurtso androzentrikoa, matxista eta paternalista dute. Emakumeak gaur egun buruaskiangoak dira onartzen dute, baina berdintasun handiagoa eskatzen ez badiete bakarrik baloratzen dute. Hala egiten badute, amorrus erantzun ohi dute, biktima jarrera hartu eta urrutiratuz edo "beraien lekuan jartzeko" indarkeri gradu desberdinekin erantzunez, ezarritako rol generikoak "erasotzen" baitituzte. Normalean feministen aurkakoak dira, aldarrikapen feministak deskalifikatu eta ezagutzen ez dituztenak. Emakumeen borroka ez dute ulertzen berdintasunerako aldarrikapen gisa, gizonetzkoak menperatzeko saiakera gisa baizik. Espainian ez dituzte beraien iritziak publikoki adierazten, gaur egun ez dagoelako gizonik bere burua matxistatzat aurkeztu dezakeenik zigor sozial bat jaso gabe, baina pribatuan egiten dute, batez ere haien ondoan emakumerik ez dagoenean.

2.2

EMAKUMEEN ALDAKETEN

ALDEKOAK

Orokorrean gazteak dira, goi mailako ikasketadunak, ezkongabeak, seme-alabarik gabeak, arlo publikoan lan egiten duten eta hiri handietan bizi diren emakumeekin erlazonatuak. Zenbaitzuek ez dute beraien rola zalantzan jartzen: horien artean zenbait baliagarriak dira, emakumeen aldaketan onuradunak baitira (adibidez berak lan egin eta dirua sartzea) trukean ezer eskaini gabe. Beste batzuk norabide bakarreko baliagarriak dira, hau da, emakumeek "gizonezkoen funtzioak" har ditzaten axola ez zaienak, baina ez alderantziz, eta beraz praktikan berdintasunaren aurkakoak dira, emakumea gainzamatzen baitute etxekoa ez elkarbanatzean. Gutxi batzuk beraien rola zalantzan jartzen dute: batzuk kideak dira, berdintasunezko elkarbizitza bat ahalbideratzeko, aldatzeko prest. Eta beste batzuk, gero eta gehiago, kide pasiboak dira: ekimena emakumeen esku uzten dute eta ohiko rolak irauliz, beraien ia ez dute bere gain hartzen gizonetzkoen jokabiderik. Hauetako askok bere burua feministen aldekozat dute, nahiz eta gehiago diren ideien mailan egiteko orduan baino; gehiengo batek pentsatzen du berdintasunaren aldeko borroka emakumeek beraien egin behar dutela bakarrik. Asko eredu maskulinoen erreferentzia erakargarriak ezin topatuta sentitzen dira.

2.3

ANBIBALENTEAK EMAKUMEEN

ALDAKETAREN AURREAN

Talde honetan, 68ko maiatzean nerabeak ziren gizonetzkoak dira nagusi, Espainian Francoren heriotzarekin heldu zirenak adin nagusitasunera, zenbait arlo publikoan lan egiten zuten emakume-

ekin ezkontuta, ume eta guzti. Emakumeen aldaketen aurrean, zenbaitengan adostasuna dago eta beste zenbaitengan berriz ez, eta beraz afera zehatzetan (etxeko lanak edo dirua, adibidez) lehen azaldutako maila bateko zein besteko gizonezko bilakatu daitezke. Kexu gehien dutenak dira, norabiderik gabe sentitzen direlako, ez-ulertuak eta zorabiatuak emakumeen aldaketen aurrean; gainera jada ezin dituzte (eta sarritan nahi ere ez) kontrolatu. Aldaketa hauek rolaren galera moduan bizi dituzte eta gehienetan isolamendu edo erresistentzia pasiboaren bidez erantzuten dute. Ez dira gizonezko ahulak –batzutan esaten den bezala– ahulduak eta harrituak baizik.

Asko etsitu-ekorrak dira. Samintasunez, baina onartu egiten dute emakumeek aldatzen jarraituko dutela, gizonezkoek nahi ezta ere, eta ahal duten eran egokitzen saiatzen dira. Ez dute ardua elkar banatzen baina trabarik ere ez dute egiten eta baztertuak izatearen kontzientzia dute, nagusi izan zen talde baten partaide diren aldetik. Gehienak emakumezkoen aldarrikapenez nekatuta daude, onartzeko eta aldatzeko eskatzen zaienaz, egokitzeko egiten dituzten ahaleginak ez aintzat hartzeaz, eskaerak amaigabeak izateaz. Emakumeek zenbait alorretan "irabaziko" dietenaren beldurrez, askok uste dute aldatu beharra dutela, baina ez dakite, lan horrek nagitasuna ematen die edo ekimenak abiatzeko zailtasunak jartzen dituzte, pribilegio eta erosotasunen galeratzat hartzen baitute. Batzuek beraien aldaketak puztu egiten dituzte eta txalo beroak espero dituzte egindako sakrifizioengatik, baina denek dakite emakumeen aldaketak geldiezinak direla. Konpromisozko irtenbide gisa, modu murriztailean jokatzen dute sarritan, portaera pragmatiko eta erosoan, baina hausnarketa edukirik gabea. Zenbait, erabat lekuz kanpo sentitzen dira eta izaera krisi itsuan sar daitezke; batzuetan atsekabetu eta psikoterapia eskatzen dute (gehienetan bikoteak eskatuta). Berdintasunarekin, bizipenez baino intelektualki egiten dute bat. Batzuek ideia matxista indartsuak mantentzen dituzte, baina kontzientzia txarragatik, ez dira ausartzen esatera.

Espanian, hiru kategoria hauek, herenetan daude ordezkatuak gizonezkoengan, nahiz eta emakumeen aldaketen aurrean berdinzale moduan aurkeztu daitezkeenak, %5a baino gutxiago izan (Europako beste herrialde batean, Suitzan, portzentaia hau %2koa da). Europako beste herrialde batzuetan bezala, azken urteotan aldaketen alde egiten duten gizonezkoen portzentaia, astiro baina igo egin da eta hori gizonezkoen ohiko ereduari gutxien atxikitakoen artean gertatzen da. Alta, 21 urtetik beherakoengan aldaketen aurkakoak ari dira nagusitzen, eta lan eskasia dutenengan ere bai, emakumeak lehiakide zuzentzat hartzen baitituzte ikasketa-lan munduan.

3. *Gizonezkoen mugimenduak (4)*

Azken 20 urteotan, mendebaldeko zenbait herrialde garatuak ekimenez (batez ere Eskandinaviakoak, EEBB, UK, Australia, Kanada eta orain Espainia) maskulinitatea gai nagusitzat duten eta "mugimenduak" izena eman zaien zenbait jarduera antolatu, borroka eta aldarrikapen bultzatzen ari dira.

(4) Izen honen ("men's movement" ingelesez) erabilera arazo sortzailea da, europar eta Hego Amerikan mugimendu mitopoetikoa eta feministazalea bakarrik izendatzeko erabiltzen baita sarritan. Artikulu honetan modu orokorrean erabiliko da, mugimendu horien aniztasuna onartzuz.

Hauetako inork ez dauka maskulinitatea ezer bermatutzat eta naturaltzat, eraldatu edo mantendu beharreko zerbait bezala baizik, borrokatuz defendatu beharreko zerbait bezala. Guztiak saiatzen dira honelako galderei erantzuten: Zer da gaur egun gizona izatea? Zein eskubide dagozki gu gaur eguneko gizonei? Eta guztiak saiatzen dira, zuzenean edo zeharka, erantzun bat izaten –taldekakoa kasu honetan– emakumeek eta feminismoak dakartzaten aurrerapen eta aldaketan aurrean.

Mugimendu hauek gertatzen diren herrialde guztietan, gizonezkoen portzentaje txiki batek bakarrik hartzen du parte aktiboki eta gizonezkoen portzentaia handiena, soilik lehen aipatutako ikerketa soziologikoetan entzun daitekeen "gehiengo isilaren" parte da. Hala ere, gizarte ekimen hauek garrantzia hartzen ari dira, iritzi eta teoria sortzaileak diren esparrutan gertatzen ari direlako, hots, arlo soziopolitikoan, asoziazionista, akademikoa, laguntzaile edo hezitzailean, emakumeen eskaeren aurrean gizonezkoen erantzun aniztasuna ordezkatzeko dutelako, eta komunikabideen eta argitarapenen bidez indarrez zabaltzen direlako, batez ere internet erabiliz zabalkunde bide globalizat.

Maskulinitatea eta emakumezkoen "erronkaren" arabera, gutxienez gizonezkoen bost mugimendu bereiztu daitezke, gizonezkoen beste hainbeste kokatze ordezkatzeko dituztenak feminismoaren eta emakumeen aldaketan aurrean.

3.1

MUGIMENDU MITO-POETIKOA

Edukiera espiritualista eta naturalista handia duen mugimendu hau, EEBBetan sortu zen 80. Urteen bukaeran, Reaganen garai kontserbadoreari eta gizarte anglosaxoian 70. Hamarkadan emakumeek berdintasunerako emandako aurrerapausoen aurkako erreakzioei lotua.

Robert Bly poetak gidatua, mugimendu hau batez ere gizonezko zuri eta heterosexualez osatua dago, klase ertainekoak, asko eta asko, prestatuak zeuden arrakasta laborala edo soziala lortu ez izanagatik atsekabetutakoak, eta 90eko hamarkadaren erdialdera izan zuen indarririk gehiena. Horien ekimenaren zati handi bat, berriz ere "gizonezkoen energia" aurkitzean datza, "aitaren ausentziaren", "amaren indar erakustaldien" eta "gizonezkoen emetasunaren" garai hauetan. Ekimen horiek asteburuetan egiten dira batez ere, eta azken hamar urteotan milaka gizonezko bildu dituzte. Ekimenotan, maskulinitatera inimiziazio erritoei eta jagolearen irudiak garrantzi handia hartzen dute.

Bere jatorrizko herrialdean izan duen gorakada, iparamerikarren erlijio-zaletasun eta talde-zaletasun handia kontutan hartuz ulertzen da, Europan ulergaitzagoa izanik. Ohitura psikologia eta talde zaletasun handiko beste herrialde batzuetan, Brasil edo Argentina kasu, zabalkunde nahiko handia izan du baita ere. Espainian talde batzuk agertu dira ideia hauekin, batez ere gestalt terapiaren bueltan, baina ez dute arrakasta handirik lortu.

Mugimenduaren partaide direnak ez daude emakumeen aldaketaren aurka, baina ez dituzte txalotzen, askotan errezeloak ere badituzte emakumeekiko, boteredun eta arriskutsu moduan ikusten baitituzte. Diferentziaren feministen perspektibetatik hurbil beraien ideiatan, ez dira arduratzen

berdintasunik ezaz, ohiko rolen alderdi asko babesten dituzte eta akademia giroetatik urrun daude oro har.

3.2

GIZONEN ESKUBIDEEN ALDEKO MUGIMENDUA EDO "MEN'S RIGHTS"

Mugimendu honetan eskubide patriarkalen aldeko taldeak eta eskubide berdinzaileen aldekoak nahasten dira. 80. hamarkadan argitara ateratzen hasi ziren lehendabizi EEBBetan eta ondoren Europan, beraiek emakumeen aldekotzat eta gizonezkoen aurkakotzat hartzen zituzten gizarte egoeren ugaritzearen aurrean.

Mugimendu hau osatzen duten talde batzuk, aurrerapen horietan gizonezkoak baztertuz "emakumezkoak urrutiegi iritsi direla" esaten dutenak daude, eta egungo legeek gizonezkoen aurkako egoerak sortzen dituztela esaten dute (emakumeak baino lehenago jubilatzea, ekintza positiboan planen onuradun ez izatea haiek diren moduan, etab.) Horregatik, emakumezkoen zenbait aurrerapenen aurka eta egungo berdintasunaren aldeko planen aurka daude, "gizonezkoen eskubideen aurka" doazelako, "baztertzailak" ez badira. FREE edo NCFMaren moduko izenek EEBBetan, ildo hori ordezkatzeko dute, eta horietako zenbait buruzagi 70eko hamarkadako feministazale ohiak dira. Europan, duela gutxi arte ez da egon horrelako talderik, baina horrelako ideiak dituzten gizonezkoak azaltzen hasi dira komunikabideetan, adibidez generoen arteko biolentziaren aurkako planak kritikatu, gizonezkoek emakumeekiko egiten dutena azpimarratu eta emakumeek gizonekiko burutzen dutena ahazten dutelako, esaten dutenez, azken hau gizonezkoena bezain ugaria izanik. Beraien energiaren zati handi bat kritikatzeko hasten dute eta emakumeak isildu daitezela espero dute, beraien eskubideak zalantzan jarriz gero, berehala erasota sentitzen baitira. Beste zenbait gizonezko, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka interneten ari diren eztabaida taldeak bonbardatzen aritzen dira. Azkenik, talde gisara eratu direnak daude, Amen irlandarren antzekoak (tratu txarrak jasandako gizonezkoen laguntza).

Talde horiek osatzen dituztenei antifeminista aurrerakoiak edo feminismoaren biktima esan dakieke, beraien diskurtsoa berdintasunean oinarritzen baitute, baina baita feministek gizonezkoak alde batera uzteko duten konplot bat dagoenaren ustean ere: besteak beste, esaten dute berak monopolizatzen dituela unibertsitateetan egiten diren generoen ikerketak, emakumeak gizonezkoak bezain bortitzak edo bortitzagoak direla eta gizonezkoek etxearen zama daramatela ezkututzen duela.

Mugimendu horren barruan aiten eskubideen aldeko taldeek ("father's rights") pisu handia dute. Banandutako gizonezko aitek edo egitatezko bikoteetakoek osatzen dituzte, beraien aitatasuna murrizten duten oztopo legalen aurka ari direnak, batez ere familiaren legeek amarekiko duten begirasun handiagoa eta zaintzaren (5) legeetan ematen omen den haien aldeko balantzearen aur-

(5) Gaur egun burutzen ari den aiten eskubideak/betebeharrak aferari buruzko eztabaida interesgarria ezagutzeko, hemen begiratu daiteke: *Men, Gender Division And Welfare* (Popay, 1998).

ka. Banandu ondoren seme-alabekin geratzeko beraiek "emakumeen gezurrak" esaten dieten horiek antzemateko erne daude beti. Herralde askotan, Espainia kasu, mota honetako taldeak dira azken 5 urteotan gehien handitu direnak kopuruz, gizarte ekimenetan eta interneteko presentziari dagokionean, federatzerara ere iritsi direlarik eta 90eko hamarkadan nagusi izan zen mugimendu mitopoetikoa gaindituz.

Mugimendu honetan badira beste talde batzuk, legediak beraien eskubideak ez dituela jasotzen salatzen aritzen direnak, baina emakumezkoen kolektiboaren aurka jo gabe eta emakumeen borroka eta aurrerapenekin ados egon daitezkeenak. Hemen, prostata eta barrabiletako minbiziaren prebentzioaren hierarkizazioaren aldekoak, erdaintzaren aurkakoak, aitatasun berrien alde edo etxean egoteko gurasoek duten eskubideen alde ari direnak daude. "Aitak etxeetan" EEBBetako edo APAMATS Espainiako taldeak helburu horretarako sortu diren taldeak dira, adibidez.

3.3 GIZONEZKOEN FUNDAMENTALISMOA

Mugimendu hau ez dago horrela izendatua osatzen dutenen aldetik, baina beregan sartu ditza-kegu hain zuzen, ohiko gizontasunaren aldarrikapen erretorika muturrekoa duten eta honen berrezarpenerako ari diren taldeak. Batzen dituen ideia, ohiko rolak eta gizonezko eta emakumeen arteko botere banaketa arriskuan jartzen duten emakumeen aldaketen kontra jartzea da; horrez gain, ohiko gizonezkoaren bertsio "desitxuratuak" ordezkatzan dituztenak gizartearen hierarkiatan parte hartzearen aurka daude (berdintasunaren aldeko gizonezkoak, inmigranteak, gay, judutar, gizonezko "bigunak").

Ipar Ameriketako eta Europako muturreko eskuindarren ideiekin bat eginez, zenbait gizonezko tradizionalistaz osatuta daude. Gizonaren aita, autoritate eta hornitzaile izaera eta emakumearen ama/etxeoandrea berreskuratzea proposatzen dute. Beraien jardura, batez ere EEBBetan eta zenbait herrialde europarretan ematen da (UK adibidez), eta azken urteotan emakumeen aurrerapenen aurkako ekimenak areagotu dituzte, abortuaren aurka edo "arraren defentsan" talde espiritualistak sortuz. Lehenengo herrialdea, Promise Keepers edo Kristau koalizioaren moduko taldeek manifestazio erraldoiak burutu dituzte hiri handietan, azken lau urteotan.

Gizonezkoen fundamentalismoaren ordezkari diren beste talde batzuk, zenbait talde arrazista eta xenofobo dira, gizonezkoen nagusitasunaren baieztapenerako proiektu bat defenditzen dutenak (zuria, heterosexuala edo nazionalista), indarkeria edo nagusitasunaren balore ohiturazkoak aldarrikatuz. Gorrotoan oinarrituriko diskurtsoa darabilte eta duela gutxi boterea galdu duten edo gizartean integratzea lortu ezinik dagoen gizonezko askoren nahigabea jasotzen dute. Beraiek bezalakoak ez diren beste batzuk (beltzak, gayak, inmigranteak, judutarrak, emakumeak), arazo bihurtzen dituzte, negatibotzat aurkezten dituzte, honela beraien bueltan gizonezkoak biltzeko. Jainkoaren edo aberriaren ordezkariatza dute euren burua eta horrek edozertarako eskubideak ematen die. EEBBetan, Ku kux clana, zenbait herrialde europarretan muturreko eskuindarrak, eta Espainian El Ejidon inmigranteen aurkako erasoaldia burutu zuten gizonak, nagusitasun funda-

mentalisten eredu argiak dira. (Kimmel, 1998) (Ekialdeko munduak mugimendu honen bere bertsioa du, Estatu jarduera bilakatua, Afganistanen edo islamaren beste herrialde batzuetan gertatzen den moduan).

Mugimendu honetan beste jarduera edo gizarte erakunde sar daitezke, bereziki gizonezkoen alde edo emakumeen aurka antolatutako izan ez badira ere, nagusi den maskulinitatearen baloreak sustatu eta monopolioa duen aginte maskulinoa defendatzen baitute. Hauen artean daude: Zenbait lobbai (armadunak, militaristak), "gixontxoak", emakumeen eta umeen aurkako indarkeria bultzatzen duten zenbait talde, (gazte ultrak, neonaziak, kale-talde indarzaileak, etab.) lematzat "ohitura sendia eta jabetza" duten taldeak, edo emakumea zenbait arlotara iristea oztopatzen duten hainbat talde erlijioso.

3.4

MUGIMENDU FEMINISTA ZALEA EDO SEXISMOAREN AURKAKOA

Ohizko maskulinitatea kritikatzeko eta erausteko mugimendua da, 70eko hamarkadaren hasieran sortu zen herrialde anglosaxoietan eta eskandinaviarretan, eskubide zibilen aldeko mugimenduei lotua. Maila ertaineko sektoreetako gizonezkoek osatuak batez ere, emakumeen aldeten aldekoak dira, eta berdintasuna eta genero perspektiba, feminismoaren iturrietatik hartzen dute. Zenbait ekintzaile eta aditu, gure gizartean emakumeekiko gertatzen den bidegabekeriaren ulermenetik bideratu dira mugimendura, feminismoa ezagutu geroztik, nagusi den eredu maskulinoaren biktima izan direlako edo eredu horrekiko bere garaian urrutiratu zirelako.

Mugimendu horretan parte hartzen dutenak ez dira gizonen aurkakoak, baina emakumeen mendekotasun egoeran gizonezkoek duten arduraren onartzen dute eta botere jarduerakiko autokritika egiten dute. Nagusi den gizonezkoen eredu eta homofobiarekiko eta gizonezkoen korporatibismoarekiko mendekotasun isila ukatzen dituzte eta gizarte ekintzak, ikerkuntza akademikoa eta gizonezkoen hausnarketa-taldearen eraketa proposatzen dituzte maskulinitate tradizionalaren ideala erausteko, sexismoaren aurkako konplizitate maskulinoa hausteko eta emakumeekin berdintasuna praktikatzeko. Gorago deskribatutako mugimenduekin kritikatuak dira eta ez dute bat egiten, emakumeak bezalaxe patriarkatuaren biktima direla esaten duten beste gizonezkoekin, hau da, oinarrian dituen abantailak galdu gabe, maskulinitatearen zama kendu nahi dutenekin; baina bat egiten dute haiekin, maskulinitate hori gizonezkoen gizatasuna mozten duela diotenean. Halaber, beste gizonezko batzuen aldetik kritikatuak izan dira, gizonezko "bigunaren" kultura sustatzeagatik eta beraien konfiantzarik ez duten hainbat feministagatik ere gaizki ikusiak izan dira.

Hastapenetatik, mugimendu honen jarduera, batez ere indarkeriazko maskulinitate tradizionalaren aldetarako estrategia hezitzaile/laguntzaileak sortzea, emakumeen aurkako indarkeria ekiditeko estrategiak burutzea eta arrazakeriaren aurkako politiken alde eta homosexualen eskubideen alde egitea izan da.

Mugimendu honek ez ditu kide asko, lehenago aipatutakoek baino askoz ere gutxiago dituzte. Dena den, osatzen duten gizonezkoen ahotsa da lehendabizi eta arreta handienaz entzuten dena

nazioarteko erakundetan. Hauek, berdintasunik ezaren aurkako beraien borrokan, berdintasunarekiko harremanetan gizonezkoen aldaketa eragiteak duen garrantzia gero eta argiago ikusten dute.

Feminista zaleen artean hainbat erakunde eta talde (6) aurkitzen dira –batzuk beraien siglengatik ezagunak– patriarkatuarekiko erresistentzia erretorika bat darabiltenak. Gizonezkoak maskulinitate berdintasunezko, bakezale eta enpatiko baten eraikuntzan konprometitu nahi dituztenak; hauen artean aipagarriak dira: NOMAS EEBBetan, Achilles Heel UKan, IASOM Norbegan, XY Australian, Men for Change Kanadan, Les Traoubles Frantzian, Pfefferprinz Alemanian, Les hommes barrès Suitzan, Uomini contra la Violenza Italian, Cantera Nikaraguan eta CORIAC Méxikon. Mugimendu honen ideiekin zenbait lan eta ekintza sare sortu dira interneten, besteak beste: Feministen aldeko gizonen sare europarra, edo Maskulinitatearen Sare Txiletarra, hala nola emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Kanadan orain dela hamar urte sortutako White Ribbon Campaigna, Europan 2000. urtean eratzen hasi zena. Elkarre hauek gehienak herrialde anglosaxoietan eta eskandinaviarretan aurkitzen dira. Talde frankofonoak eta Europa erdikoak poliki-poliki baina hazten ari dira, eta patriarkatuaren aurkako eta ekologiaren aldeko taldeetako gizonezkoek osatzen dituzte bereziki. Hego Amerikan berriki hasi dira sortzen eta batez ere indarkeria matxistaz eta sexualitatearen eta ugalketa-osasunaren arazoez jarduten dira.

Espanian, dauden gizonezko ia talde gehienak, (hamar inguru, ehun bat lagunez osatuak) mugimendu honen partaide dira, eta batez ere Valentzian, Andaluzian, Euskadin eta, neurri txikiagoan, Madrilan daude. Lehendabizikoak duela hamar urte baino gehiago hasi ziren funtzionatzen, eta beste batzuk oraintsu hasi dira, zenbait ia batez ere, biolentziaren aurka egiteko. Urte batzuetan probintziarteko talde bat izan zen, orain maskulinitatearen gaiarekin Espainian egiten denaren zati handi baten errudunak, baita Andaluziako udal baten eskutik gizonezkoek zuzenduriko programa publiko bakarra. Sexualitatean adituak edo feminismoaren defendatzaileak diren gizonezkoek sortuak, horietako batzuk ezagunagoak egin dira duela urte batetik hona, emakumeekiko indarkeriaren aurka zabaldu diren manifestuengatik.

Hezkuntza alorrean, batez ere estereotipo maskulinoak eraldatzeko heziketa programak garatzen jardun dira, (Salisbury, Jackson, 1996). Espainian, arlo honetan ekintzak burutzen hasi dira, batez ere genero indarkeriaren aurka (Barragán eta beste, 2001). Arlo akademikoan, maskulinitatei eta gizonezkoek buruzko azterketen bidez sartzen da mugimendu hau batez ere.–"men's studies", studies of men and masculinitiesak edo critical studies of men and masculinitiesak–, beraien erreferentzia markoan genero kategoria sartzen dutenak, eta batez ere soziologia, antropologia, historia eta filologia fakultateetan aurkitzen direnak. Azterketa hauek historiari buruzko ikerketa asko daude, desberdintasun kulturelei eta maskulinitateen gizarte aldaketei buruzkoak, hala nola, indarkeria, osasun eta gizonezkoentzako aldaketa politikei buruzkoak. (Hearns, 1989; Welter-Lang, 1991; Kimmel, 1992; Kaufman, 1992; Seidler, 1992; Connell, 1995; Bourdieu, 1998).

(6) Talde horiei guztiei buruz, hala nola lehenago aipatutako beste mugimenduetako taldeei buruzko informazio zabaldu aurki dezakegu interneten, sigla bidezko bilaketa bat eginaz edo "men's issues page"aren bidez, izan ere, maskulinitateari buruzko informazioz beteta dago.

Espanian, ikerketa hauek azken hiru urteotan hasi dira indartzen, batez ere unibertsitate Kataluniar eta andaluziarretako filologia departamenduetatik. Lehenago, J.V. Marqués lan ildo honetan aitzindaria izan da.

Beste alde batetik, herrialde honetan ezin da aurkitu mugimendu honen produkzio aberatsaren ia ezer, ez hemen egina, ez itzulia, nahiz eta azken urtean joera hori aldatzen hasi (7).

3.5

MASKULINITATEAREN TERAPIEN MUGIMENDUA

Maskulinitatearen "krisia" zela eta kezkatutako gizonezkoek 80ko hamarkadaren amaieran gartua, hainbat terapia eta praktikaren inguruan eratuz joan zen, gizonezkoen kolektiboari, gizarte eta emakumezkoen aldaketek "kaltetutako" gizonei bere identitatea "berreraikitzen" eta "berdefinitzen" laguntzeko sortutakoak.

Bere alderdi psikoterapeutikoan mugimendu mitopoetikoak eta feministazaleak adierazten ditu, eta horregatik aldaketa maskulinorako bi proiektu terapeutiko desberdin dituzten bi ildo ditu.

Lehenengoak –eta hortik eratorritako mugimendu mitopoetikoak– sortu ditu, hain zuzen, gizonezkoentzat autolaguntzarako terapia argitarapen gehien, bai eta "jokaera maskulinoen ulermenerako" emakumeentzako argitalpen gehien ere. Genero hauek argitarapen arrakasta izugarria izan dute 90eko hamarkadaren hasieran herrialde anglosaxoietan (Bly, 1990; Fisher, 1990; Kipnis, 1991; Moore y Gilette, 1991; Shapiro, 1992; Kreimer, 1994).

Espanian hizkuntza anglosaxoian zirkulatzen duten liburu gehienak –egile iberoamerikarrak ingelertatik itzuliak izan– ildo honi eta mugimendu mitopoetikoari bakarrik dagozkie, eta argitaletxe komertzial garrantzitsuek zabaldu dituzte. Horregatik erdal hiztunak bakarrik diren askok pentsatu izan dute hor idatzita dagoena dela maskulinitateari eta emakumeekiko gizonezkoen jarrerari buruz pentsatzen, esaten eta egiten den bakarra.

Bigarren ildoak, ezezagunagoa, feminismo zaletasunetik eratorria da, genero perspektiba du eta bertan lan egiten dutenak, eta beraien argitarapenak, gutxiengoa dira mugimendu honetan (Scher, 1987; Bograd, 1992, Kupers, 1993). Hala ere instituzioetan daude (adibidez Amerikako Psikologia Elkarteak), eta bere ikuskera, tratu txarren eragile diren gizonezkoentzako programa terapeutiko askotan erabiltzen da ipar hemisferioko herrialde batzuetan.

(7) Mugimendu honi buruz Espainian aurkitu diren liburu bakarrak, honakoak dira: Marqués idatziak, 1991; Gil Calvo, 1997; Bonino, 1998; eta baita "Arianne" hezkuntza ikerketarako proiektua. Azken hilabeteotan bi liburu argitaratu dira, Sagarra eta Carabik, 2000an eta Sanchez Palencia, Hidalgo, 2001ean idatziak, Sevilla eta Bartzelonako unibertsitateetan maskulinitateari buruzko jardunaldi batzuetan aurkeztutako txostenekin. Idatziak. Detektibe senarekin, beste zenbait liburu edo artikulua ere aurki daitezke, unibertsitatearen bateko argitaletxetan edo hego-amerikako argitaletxe txiki eta ez-komertzialen batean.

Bi ildo hauek ia antitetikoak badira ere, hainbat pertsona eta talde haien arteko loturak sortzen saiatzen dira. Horien artean: Aitatasunaren Garapenerako Elkartek –Fatherhood's groups– edo zenbait terapeuta anglosaxoi (Goldberg, 1977; Keen, 1991; Rowan, 1997).

Lehen aipatutako "gehiengo isilari" ahotsa ematen dioten ikerkuntzek ordezkatzeko dituzten gizonezkoen gain, eta gizonezkoen mugimenduetan parte hartzen dutenez gain, badira beste batzuk, ugariak, emakumeen aldateten aurrean publikoki erreakzionatzen ari direnak. Berdintasuna errazten duten eta lege eta gizarte aldakuntzetan paper garrantzitsua duten haiek dira, beraien funtzio soziala hierarkizatzen dutenak beraien burua ez gizonezkoetatik eta baizik hiritartzat aurkeztuz. Gizonezko hauek, administrazio publikokoak dira, alderdi aurrerakoietakoak eta estatuko boteretakoak, legeak eta aurrekontuak bozkatzeko, erakunde publikoetako bozeramaileak izatean edo ekintza programak bultzatzerakoan, berdintasunera daraman emakumeen bidea errazten dutenak. Beraiengan, berdintasunaren aldeko lana, emakumeen arazoekiko sentsibilitatea eta "politikoki polita" denaren arteko sintesi konplikatu bat besterik ez da gehienetan, eta zenbaitetan beraien ekintza publiko eta pribatuaren arteko dikotomia deigarria da. Gizonezko publiko hauek, eta baita berdintasuneko politiken aurka dauden gutxi horiek –European– ere gutxi ikertuak izan dira eta interesgarria izango litzateke egitea.

4.

Gizonezkoak mugimenduan eta aldakuntzan

Lehenagotik dugun informazioak, milurtekoaren hasieran mundu garatuko gizonezkoekin –gutxienez ipar amerikarrak eta europarrak– gertatzen ari denari buruzko –emakumeen aldatetekiko– irudi nahiko osoa eskaintzen digu. Zertzelada askorako ematen duen panorama honetatik, artikulua honetan bi egitate esanguratsu nabarmendu nahi nituzke:

Lehendabizikoa da, hain zuzen ere aztertzen ari garen gizonezkoak, emakumeen aldatetarekiko arrera gutxi batzuen bueltan batzen ari direla –indibidualki eta sozialki– :

- Aldaketaren aldeko jarrera, berdintasuneko tratu baten aldeko proposamen batekin, gizonezkoek ere aldatetak burutu behar dituztela jasotzen duena.
- Aldaketaren aldeko jarrera, baina onarpen erabiltzailearekin edo ekimen guztiak emakumeen esku utziaz eta ohizko rola irauliz.
- Jarrera antibalantetik menperatze mesedegarriko edo aldatetaren aurrean axolagabetasun jarrera, aldateta femenino horiek gizonezkoen eskubideak edo rola zalantzan jartzen ez dituzten artean, eta beraien kontraesan askorik sortzen ez dieten artean. Jende aurrean aldateta horien alde azal daitezke, baina pertsonalki gehiegi busti gabe.
- Aurka edo antibalante izatetik aldateta horien aurka doan jarrera, gizon eta emakumeen arteko erlazio "naturalaren" aurka baitoa edo bere espazio publiko eta pribatuaren banaketa "naturalaren" aurka.

Jarrera horiek gizonezkoek feminismoarekin (berdintasunezkoa) dituzten erlazioak agertzen dituzte baita ere. Horrela, badaude gizonezko eta gizonezko talde feministazaleak (gehiago intelektualen artean), feminismoa onartzen dutenak edo bere aurrean axolagabetasuna erakusten dutenak, eta antifeministak. Diferentziaren feminismoak gehienetan ez du gizonezkoengan erreakziorik sortu, zuzenean zalantzan jartzen ez dituen neurrian (Porter, 1992).

Bigarren egiaztatzea, perspektiba lotzaile batetik, gizonezko bakoitzak –edo gizonezko taldeak–, emakumeen aurrean, lehen esandako jarrera zehatz baten arabera ekintza zehatzak, bereiztuak eta koherenteak egiten dituela da. Ekintza hauek erantzun gisako bizi-mugimenduak dira, hainbat norabidetan gertatzen direnak, honako ardatzen inguruan: hurbilpena/urruntzea, onarpena/ukazioa eta menperatzea/menpetasuna.

Hartutako jarreraren arabera mugimendu hauek izan daitezke:

- hurbilpen eta onarpena elkartrukatzeko kooperatibo eta guzti, ongizate elkar-banatuaren berdintasunezko ikuspegi batetik;
- hurbilpen eta onarpen partzialak elkartrukatzeko erabiltzaile batekin, edo emakumeen boterearekiko zalantzakorra;
- hurbilpen eta onarpena, gizonezkoen pasibotasunarekin;
- separatismo eta guztiko urruntzea, harridura geldikorrarekin; gizonezkoen munduan edo ongizatearen bila isolatu edo babesten dira;
- ukazioa, talka eta makurtze saiakera.

Gizonezko bakoitzak ez du zertan beti jarrera berean egon, ez eta beti mugimendu berberak egin, alta, beraiengan zirkulatzen du dinamikoki, adinaren arabera bere kokapena eta jokabideak aldatuz, bere egoera pertsonalen eta genero arteko justiziaren kontzientziaren arabera. Gehitu dezakegu, gizonezkoekin izandako esperientzia klinikoak erakusten duenez, mugimendu eta jarrera horiek beraietako bakoitzaren baitan borroka kontraesankorrean ari direla (Sher, 1987).

Aurrez esandako bi egitateak justiziazko eta generoen errespetuzko etika batetik behatzen baditugu, ikusiko dugu lehenengo jarrera –aldaketaren aldekoa– eta dagokion mugimendua –ongizate konpartituaren ikuspegiko hurbilpena– direla bakarrik kontutan hartzeko modukoak, berdintasunaren paradigman sostengatzen diren neurrian. Jarrera berritzaile bat da eta aldaketarako mugimendu aurrerakoia eta desiragarria, subjektu berdinen arteko erlazioak, gizonezko subjektu/emakumezko objektu, patriarkatuaren kulturari dagozkion loturen lekua hartuko duen esperantzan oinarritua. Gainontzeko erantzunak aldiz, generoen arteko loturen desberdintasunaren gaineko sinismen tradizionaletan sostengatzen dira, eta beraz jarrera kontserbadoreak dira, generoen statu quo indartzeko mugimenduak, edo aldaketa atzerakoiak; proposatutako ikuspegitik ez desiragarriak eta arbuigarriak. Hori bai, lehen aipatutako ikerkuntzei eta lehenengo aukera ordezkatzeko duten talde feministazaleen ordezkari kopuruari begiratuz gero, azken erantzun hauek oraindik gehiengoa dira gizonezkoen artean.

Berdintasunaren aldeko erreakzioei oztopo eta erresistentziak

Eraberritu nahia eta aldaketa progresista gizonetzkoen artean gutxiengo batena dela jakinda, zergatik gordetzen dute hainbeste gizonek jarrera kontserbadorea? Zergatik ez dira modu progresista batean aldatzen? Zergatik ez dituzte berdintasunaren aldeko arrazoiak bere egiten? Berdintasunaren balioa askok hitzez aldarrikatzen badute ere, zergatik dira hain gutxi hori desio dutenak edo zergatik dira hain gutxi jarrera eraberritzaileak hartzera animatzen direnak eta emakumeekin berdintasunaren aldeko bide konprometitua egiten hasten direnak? Emakumeek aldarrikatzen duten gisan, zergatik dira hain gizon gutxi lana, boterea eta bereziki etxeko lanak zintzoki banatzeko prest daudenak? Zergatik egiten diote kontra emakumeak eskubidedun subjektuak direla aitortzeko hitzarmen berri bat egiteari, zergatik egin aurre, emakumeek eskatzen duten gisan, kontratu sozial berri bat egiteari? Simón Rodríguez, 1999). Eta azkenik, emakumeekiko berdintasun gaietan zergatik karakterizatzen da gizonen gehiengo "isilik" egotearekin?

Jakintzaren hainbat eremu galdera hauen erantzuna topatzen saiatzen da. Alegia, jakin nahi da emakumeen aldaketaren aurrean berdintasunaren aldeko erantzunik zergatik ez duten ematen gizonetzkoek eta zergatik irauten duten aldaketarik egin gabe. Gaur egun galdera hauek direla-eta aipatzen diren azalpenik ohizkoenak soziologiatik, antropologiatik eta historiatik egiten direnak dira. Azalpen horiek arlo hauen ikerketetan oinarritzen dira: generoek duten identitate sozialen eta errepresentazioen produkzio, erreproduzio eta eraldaketan, menderatzaileak beti gizonak izatean eta maskulinitate sozial berrien sorkuntzan (Connell, 1995). Subjektibotasun berdintsuko beste gizoni gehituta, gizon bakoitzaren subjektibotasun partikularra kontuan hartzen duen ulermen psikosozilogikoak eta portaerazkoak jokoan jartzen duena da hori. Jokabide partikularretatik eratorritakoari galdera gutxiago egin izan zaizkio.

Generoen arteko ikerketa eremuak zenbait klabe eman ditzake hauen laguntzarekin: maskulinitate sozialaren eta subjektibotasun maskulinoaren eraikuntzari buruzko azalpenekin, eta, generozko statu quo-en mantentzei buruzko eta erreproduzioen portaerazko estrategiei buruzko azalpenekin.

Lehenengoekin lotuta eta generoen ikuspegitik begiratuta, suposatzen da gizonen leku soziala honetan sostengatzen dela: nagusitasun maskulinoaren eta erabilgarritasun femeninoaren mito patriarkatu eta historikoetan. Eta baita nork bere burua aske izatean, borrokazale heroikoa izatean eta hierarkien errespetuan ere. "Benetako" maskulinitatearen agindu sozial eta ideal gisa funtzionatzen duten mito horiek, –"maskulinitate hegemonikoa" deiturikoa–, emakumeei baino eskubide gehiago aitortzen dizkiete gizonetzkoek; bai euren arrazoiak inposatzean, bai askatasunean, bai espazioaren eta denboraren erabileran eta baita zainketa subjektu izatean ere. Eta hori guztia gizonetzkoak izateagatik bakarrik. Belaunaldien artean transmitituz eta ideal intrasubjektiboetan

eraldaketa eginez ideal nagusitan bihurtzen dira horiek. Eta horietan gorpuzten dira ohiturak, pentsamendu eta jokabide arauak, identitatea eta autoestimu maskulinoa.

Sozializazioan zehar barneratutako maskulinitate hegemonikoak menderatze maskulinoa zilegi egiten du, eta, sinestarazten du "gizonezkoa izan eta sentitzeak" emakumeak kontrolatzea eta euren boterea izatea esan nahi duela, besteak beste (sustatutako eta onartutako identitatea). Horrek, nartzisismoa balioztatzea baimentzen du, eta, autoestimua bultzatzen eta identitate "maskulinoa" onartzen duten guztien aurrean, –baita nork bere buruarekiko ere–, baliotsua eta aitortua izatea ahalbideratzen du. Nahiz eta hegemonikoak ez diren maskulinitatearen beste ideal batzuk egon, eta nahiz eta gizonezko guztiak berdinduta dauden markatuta eta nahiz eta irudimenezko barneratze horretan sartuta egon, horrek gaur egungo gizonezkoen gehiengoarentzat indar araugile indartsu bat du eta norberaren alde jarduten du. Horrek, emakumea zerbait gutxiago izatea bezalako pertzepzioa indartzen du eta aldaketa saihesten du, hau da, identitatea sostengatzen duten ideal propioen kontrako atentatu bat suposatzen du.

Gizonen aldaketa oztopatzen duena eta maskulinitate subjektiboaren osaketarekin lotura duen beste eragile bat, talde menderatzailearen (emakumeekiko) eragina da: Bertan, gizonak honela kokatzen ditu giza alegian (eta gizonak onartu egiten dute): talde menderatzaileko kide guztien gisan, hauek euren eskubide eta pribilegioak "naturalizat" jotzen dituztelako karakterizatzen dira, eta, pribilegio hauek burutzeagatik nekatuta sentitzen dira ("ardura" maskulinoa deritzona), eta azpiratutako taldeetako sufrimendua gutxiesten dute, eta azpiratutako gaitasun eta ardura sozialetaz aprobetxatzen dira (kasu honetan, pertsonen zainketa eta gizonak euren baliz bezala sentitzen ez duten etxeko lana), eta desberdintasunen ardura ez dutenez beregain hartzen, azpiratutakoei ematen diete ardura hori (Sáez Buenaventura, 1990; Kimmel, 1998). Honen ondorio da aldaketa beharrik ez sentitzea eta pentsatzea desberdintasuna emakumeen arazoa dela. Beraiek baitira sortzen zaizkien arazoak konpondu behar dituztenak.

Aldaketa eragozten duen hirugarren eragilea hau da: proposamen berri bat da eremu guztietan emakumeekin izan beharreko berdintasun erreala, gizonak barneratu ez duten ideal berri bat da alegia. Horiek izan ere, ez dute leku handirik maskulinitate hegemonikoari forma ematen dioten osagai baloratuen artean. Maskulinitate horren bidez moldatutako adimen maskulinoan ez dago berdintasun kontzepziorik harreman kooperatibo gisa, eta, erkaketa ezegonkorreko lotura gisa hartzen da. Horietan izan ere nagusi-esklabo posizioak dira dauden harreman bakarrak. Horregatik, gizonezkoek emakumezkoekin bi egoera posible baino ez daudela sentitzera jotzen dute: menderatzaile edo azpiratu. Eta horregatik, emakumeek eginiko edozein aurrerapen emakumeen menderatze ahalegin gisa hartzen dute (Benjamin, 1996; Bonino, 1998).

Gizonen eraberritzearen aldeko mugimenduaren bultzada zailtzeko beste zenbait eragile gehitzen zaizkio subjektibotasunari: ideal zaharrekin ez identifikatzea eta identifikazio alternatiboak izatea onartuko duen eredu maskulino ez tradizionalen falta, emakumeekin elkartuta egon baina askotan publikoaren aurrean agertzeko lotsa duten gizonezkoen bakartze isila, eta eredu tradizionala urratzen duenari egiten zaio zentsura. Azken hori oso da eraginkorra talde berekoen epaiak oinarritzeko diren gizonentzat.

Hauxe da eragile hauen guztien ondorioa: berdintasun bidean aldaketak egiteko motibazioa defizitarioa da. Izan ere, ez du nartzisismoa modelatzen eta ez ditu betetzen subjektibotasun maskulinoaren eraikuntza gidatzen duten aginte orokorrak.

Baina, generoen arteko harremanen optikak beste zenbait azalpen egitea ahalbideratzen du. Ez da subjektibotasun maskulinoari dagokion posizioa soilik eraikitzen, bere burua betikotzera jotzen du eta eraikuntza horretatik datozkion bizi-abantailak betikotzera ere bai. Horretarako, asmo hori laguntzeko baldintzak berriz sortzera jotzen dute gizonezkoek. Beraz, ez du inportantziarik hartzen aurrez aipatutakotik eratoritzen den aldaketarako motibazioak. Indarra hartzen duena statu quo-a babesteko, aldaketarik ez izateko motibazioa da. Erresistentzia aktiboko jokabide mekanismoen erabilera sortzen du motibazio honek. Eta horrek, posizio maskulino propioa mantentzea onartzen duten baldintzak betetzea eta sortzea ahalbideratzen du. Eta horrek emakumeekin harremanean, euren gaineko nagusitasuna mantentzea suposatzen du eta baita posizio horretatik eratorritako "eremu publikoak erabiltzeko eskubidea eta etxeko lanak saihesteko" monopolioa izatea ere. Eta erresistentziazko jokabide aktibo horiek dira statu quo-a berrindartuz erreakzionatzen duten gizonek egiten dutena: emakumeen aldaketei erantzuten auzerako oposizioa egiten duten indarkeriazko estrategiak, gatazka handirik gabe gauzak mantentzearen alde daudenen oztotze pasiboa, eraldatu gabe emakumeekin batera faltsuki eragin nahi dutenen baketzea (Godenzi, 1999), eta aldaketa femenino oro modu ikusezinean hondatzen duten erabiltzeko moduko edo ezkutuko mikromatxismoak edo krisiak (Bonino, 1998).

Aldaketarako motibazio falta, subjektibotasun hegemonikoaren eraikuntzan –nagusiki- aldaketarik ez egoteko motibazioak eta eraikuntza subjektiboak eta bereganatutako eskubideak defendatzea bilatzen duen erantzun batzuk. Ez da harriztekoa gizonen artean berdintasunaren alde egiten duen mugimendua nagusi ez izatea. Ez dute mugimendu hau euren bultzatzen, normalean kanpotik "behartzen" da aldaketa, eta, gehiago edo gutxiago egokitzen dira honetara. Emakumea berdina dela onartzea ez da erraza gizonezkoentzako. Berdintasunaren alde aritzeak egundoko esfortzua eskatzen dio gizonezko askori izan ere. Horrek, aldaketa egiteak ez duela konpentsatzen pentsa dezakete gizonezko askok: horrek ez du lortutako eskubideei ezetz esatea bakarrik esan nahi –dagokion bizipen galerarekin–, bere ohiturak eta identitatea zalantzan jartzea ere esan nahi du, eta emakumeaz duen irudia aldatzea ere bai, eta berdin autoestimua duen zentzuaren oinarria ere. Jokabideak aldatzea esan nahi du, baina, emakumearekiko berdintasuna onartzeko eta mehatxu gisa edo azpiratu gisa ez ikusteko adimena aldatzea ere bai. Mitoen bidez mantentutako posizio existentziala aldatzea norbera eta gizartea eraldatzea da. Mito horiek aldaketaren aurkako erresistentzia indartsu gisa jarduten duten eta erresistentziarako estrategia abildadeak sortzen dituen mito maskulino patriarkalak dira. Horretarako, sortzen diren nekeak sortuta, ideal zahar horien aldeko eta abantaila zahar horien aldeko dueluak burutzen dira. Horretarako, beharrezkoa da emakumeen aurrerapenen bidez proposatzen den aldaketari ematen zaizkion erantzun progresistentzat motibazioak sortzea. Lan zaila da, baina, justiziaren eta generoen errespetuzko etika bateko ideal berri gisa eraberritzeko modu bakarra da, eta bide batez, immobilismo

hilgarrian, galdutako matxismoaren nostalgian edo bezatutako gizonaren biktimismoan ez gelditzeko modu bat da.

6.

Etorkizunera begira

Zorionez, gizonak "pieza bakarrekoak" gara. Kontraesanak ditugu, gatazkak, modu anbigualentean atxikitzen gatazka maskulinitate hegemonikoari –hau ere ez da monolitikoa– eta sufritu egiten dugu (Connell, 1995). Horregatik, zailtasunak zailtasun, eta oztopoak eta erresistentziak egon arren, emakumeen aldaketaren bidetik abiatu diren eta berdintasuna praktikatzeko duten gizonak badaude. Baina, azken urte hauetan emakumeek egindako aurrerapenen aurrean, mendebaldeko gizon asko emakumearen eta feminismoaren kontrako mugimenduetara atxiki dira, eta beste asko isiltasun korporatiboan errefuxiatzen darraie, desberdintasunak egotearen konplize dira beraz. Zein izango da etorkizuneko joera? Aurreikustea zaila den arren, bidea ez da izango gizonak ulertzeko modua bilatzea edo genero ahula beraien izan litezkeelako atsekabetzea, edo ezin pentsa genezake ikuspegi baikorren arabera, gizon berri bat dagoeneko gure artean dagoela pentsatuz. Berdintasuneko etorkizuna bermaturik ez dagoela jakinda eta hori eraiki beharra dagoela sumatuz, zera galdetu beharko litzateke: gizonen artean nola sortuko ditugu motibazio berriak, emakumeekiko berdintasuna lortzeko mugimendu bat sor dadin? Nola sortuko ditugu aldaketan aldeko erresistentzia gutxituko duten baldintzak? Eta nola neutralizatuko dugu interes berrien garapena eta aldaketak eragiten dien beldurra? Nola lagunduko ditugu aldaketa jada egiten ari direnak, emakumeekiko elkatasuna hautsi gabe? Nola ez gara iraganeko lerrotatik? Nola lagunduko dugu maskulinitate zaharrekiko gizon kontserbadoreen mugimendua desaktibatzen?

Agian oraindik ez daukagu galdera guztientzako erantzunik, baina, hau behintzat segurua da: hau ez da aurrera aterako boluntarioen eta gizabanakoen aldaketei eskerrak. Taldeko eta giza estrategien garapena beharrezkoa izango da. Beharrezkoa izango da gizonentzako interes berri –ez patriarkalak– garatzeko politikak egitea, berdintasunaren aldeko aldaketa nahiak sortzea (Pease, 2000), gizonentzako batzuk galdu nahi ez dituzten eskubide "maskulinoen" erabilera ez legitimatzea. Estrategia horiek maskulinitate hegemonikoarenak ez diren balio desberdinetan –edo berri definituak– oinarritzea ahalbideratu beharko luke, gizon-pertsona balioa galdu gabe noski. Horretarako, desio horiek suspertuko dituen politikak diseinatzea izango litzateke biderik onena. Horrela, ideal berriak sortuko genituzke eta aldaketa maskulinoaren promozioa eta produktioa babestuko lirateke.

Zorionez, bide hau urratzen hasiak dira leku batzuetan. Europako zenbait herrialdeetan esaterako, lan orduak ari dira murrizten familiako bizitza eta laneko bizitza bateragarri izan daitezen, eta pertsonen zainketa lanetan eta etxeko (8) zainketa lanetan gizonen inplikazioa gehitu dadin,

(8) Adibidez, "Gizonak eta umeen zaintza" Ravennako C.E.ko Umezaroaren Zaintzarako Sareak 1993an antolatutako Nazioarteko Seminariotik sortuak.

eta aitatasun (9) baimena ere bultzatzen ari da. Eta zenbait laguntza-hezkuntza estrategia ere martxan jarri dituzte indarkeriarik gabeko eta tolerantziatzko (10) kultura maskulino baten alde, eta krisian (11) dauden gizonen laguntza psikologikoa ematen diete. Bide beretik, ekintza posible guztiak handitzen segi behar da: besteak bestea, beharrezkoak da idealen eta eredu maskulino ez tradizionalen hierarkizazio mediatikoa, gizonetako buruzko ikerketa kritikoen hedapena eta generoen ikerketen kapitulu maskulinoa, jokabide maskulinoen eta psikismo partikularrei buruzko hezkuntza, zuzenbidea eta osasungintzako profesionalen entrenamendua, –batez ere aldaketaren aurreko abildadeei buruzkoa– eta asoziazionismoaren promozioa eta berdintasunaren aldeko gizonak sostengatzea eta isiltasunetik ateratzea.

Ezinbestekoa da bestalde, gogoeta taldeak, ikastaroak eta izaera maskulinoari buruzko jardunaldiak eskaintzeko guneak izatea. Horietan, gizonetakoek rol berriak esploratu ahal izango dituzte, eta emakumeekiko dituzten sentimendu kontrajarriak ere bai, eta euren gaitasun enpatikoak eta zaintzaileak garatu ahal izango dituzte. Eta berdintasunaren aldeko borroka emakumeek protagonizatu beharrik –gizonetakoak arazoaren zati izango ez balira bezala– ez dagoela jakingo dute.

Ikerketa askoren arabera (Hearn, 1992; Seidler, 1997), gizonetakoek bizitzako une kritikoetan izaten dute aldaketarako joera: nerabezaroan, lehenengo umea izaten dutenean, 30, 40 edo 50 urteetako krisietan, lan aldaketetan, gaixotasunetan edo bizitza arriskuan izaten duten istripuetan eta banaketetan. Hau kontuan izanik, aldaketaren aldeko politikak une horietan eragitera jo behar harko lukete.

Eta ondorio gisa: ikusi dugun gisan, kultur aldaketak eta emakumeen borrokek, estimulu politiko eta sozialekin batera, eta gizonetako borronte indibidual eta kolektiboekin batera, tratu berdintasunaren aldeko aldaketak eragin dira gizonen artean. Gizonetakoak, batzuk taldean eta besteak gizabanako gisa, maskulinitate menderatzailearekiko disidente izaten hasiak dira eta emakumeak eskubide berdineko subjektu gisa hartzen ere hasi dira. Badakite eurekin banatu behar eta eurekin banatu litezkeela etxeko, laneko eta botere ardurak. Hori bai, berdintasunaren aldekoak izenarekin bataiatu ditugun gizon hauek ba al dute ezer komunean?

Bibliografia anglosaxoian hasi dira gizon hauek arduratzen diren testuak agertzen. Liburu oso esanguratsu batek (Christian, 1994), artikulua honi amaiera emateko balio diezaguke. Bertan, gizonen bizitzan aplikatzeko moduko berdintasunaren aldeko ariketak azaltzen zaizkigu.

Liburu honetan, berdintasunaren aldeko gizon hauek bizitzako esperientzia komunak argitasun handiz deskribatzen dira, autoreak atzeman dituenak guztiak ere. Esperientzia komun hauek berdintasunaren aldeko jokabidean eragin handia izan dutenak dira. Eta hauek dira:

(9) Zeinetan Suitza aitzindaria den.

(10) *"Gizonen rola bakearen kultura batetik"* Oslon, 1997an burututako UNESCOren adituen bileran atera ziren ondorioek erakusten duten bezala.

(11) European horien adibide dira: *Changing Ways UK* edo *Manner Suedian*.

Lehenik eta behin, generoen aukera tradizionalak aurrez aurre edo elkartuta zeuden umezaroko eta nerabegaroko esperientziak. Hauexek esaterako: eremu publikoan lan egiten duen ama autonomoarekin harreman ona, guraso ez tradizionalak, aita autoritarioaren aurrean bihurria izatea, edo guraso eta anai zahar zaintzaileak eta amultsuak izatea, gizonen rol tradizionalaren alderdi oldarkorrik ez izatea edo identifikazio goiztiarrik ere ez izatea, ikastetxean neska-mutilak elkarrekin ibiltzea eta ohizko lagun gisa neskak izatea. Eta eraginkorra ere bada beste gizon batzuen jarrera dominatzailearen biktima izatea ere (senideak, bizilagunak eta hezitzaileak).

Bigarrenik, aita autoritario bati heldu batek aurre egitean sortzen diren esperientzia esanguratsuak, bizitzako ideal garrantzitsu gisa "benetako gizona" ez izatea, konbentzionalki "ez maskulinoak" diren lanetan esperientziak izatea eta esperientzia izatea garapen pertsonaleko taldeetan eta tradizionalak ez diren gizonengan eraginik ez izatea, eta, hauxe azpimarratuko genuke: feminismoa gerturatzeko intelektual goiztiarra egitea, emakume feministekin harreman afektibo garrantzitsua izatearekin batera –oraingoekin edo iraganekoekin–.

Azkenik, euren maskulinitatea berriz definitzeko, gizon horiek aldaketa pertsonal handia egin behar izan zuten, bizitzako une kritikoetan berdintasunaren aldeko izateko.

Seguruenik, gizon gisa antzeko esperientziak bizitzen baditugu, aldaketarako erresistentziak gutxitzea errazagoa izango dugu eta gehiago motibatuko gara aldaketak egiteko. Baina esperientzia hauek falta izan bazaizkigu, inoiz ez da berandu izango horietara urreratzeko. Horixe ez dela berandu izango!

Bibliografía

- BARRAGÁN, F. eta besteak (2001), *Violencia de género y curriculum*. Málaga:Aljibe
- BENJAMIN, J. (1996), *Like Subjects, Love Objects*. London: Yale.
- BLY, R. (1990), *Iron John*. New York: Adisson Wesley (gaztelera itzulpena 1991az geroztik argitaletxe askotan).
- BOGRAD, M. (1991), *Feminist Approaches For Men*. New York: Harrington.
- BONINO, L. (1998), *Micromachismos, la violencia invisible*. Madril: Cecom.
- BONINO, L. ((1999), "Los varones frente al cambio de las mujeres". *Lectora. Revista de dones i intertextualitat* (Bartzelonako unibertsitatea) 4.
- BONINO, L. ((2000), "Varones, género y salud mental", in Sagarra, M. eta Carabí, A. (eds) *Nuevas masculinidades*. Bartzelona: Ikaría.
- BONINO, L. ((2001) "Los varones hacia la paridad en lo doméstico", in Sanchez-Palencia, C. eta Hidalgo, J.C. (ed) *Masculino plural: construcciones de la masculinidad*. Lleida: Lleidako unibertsitatea
- BOURDIEU, P. (1998), *La domination masculine*. Paris: Seuil.
- CONNELL, R. (1995), *Masculinities*. Cambridge: Polity Press.
- CHRISTIAN, H. (1994), *The Making Of Antisexist-Men*. Londres: Routledge.
- DEVEN, F. eta beste (1998) "Revisión de investigaciones europeas sobre conciliación de la vida familiar y laboral de mujeres y hombres". *Rev. Materiales de trabajo de Dción del Menor-MAS, España*,40.
- FALUDI, S. (1991), *Backlash, The Underdeclared War Against American Women*. New York.
- FISHER, R. (1990), *The Knight Of Rusty Armour*. New York: Fisher (gaztelera itzulpena 1994, Bartzelona: Obelisco).
- GIL CALVO, E. (1997), *El nuevo sexo débil*. Madril: Temas de hoy.
- GODENZI, A.(1999), "Style or substance. Men's response to feminist challeng". *Men and Masculinities*, I lib, 4 zk.
- GOLDBERG, H. (1976), *The Hazard Of Being Male*. New York: Penguin (1992an gaztelera itzulua, Madril: Temas de hoy).
- HEARNS, J. (1989-1998), (Argitaratzaile) Seriea: *Critical Studies On Men And Masculinities*. Londres: Routledge.
- INNER (1988), *Los hombres españoles*. Madril: Instituto de la Mujer.
- KAUFMAN, M. (1992-1998), (Argitaratzaile) Seriea: *Research On Men And Masculinities*. Londres: Sage
- KEEN, S. (1991), *Fire In The Belly*. New York: Bantam (gaztelera itzulita: 1992, Buenos Aires: Planeta).

- KIMMEL, M. (1994), *Manhood, The American Quest*. New York: Harper.
- KIMMEL, M. (1998), "El desarrollo (del género) del subdesarrollo (del género)", in Valdés eta Olavarría (ed), *Masculinidades y equidad de género en América Latina*. Santiago de Chile: FLACSO.
- KIPNIS, A. (1991), *Knights Without Armour*. New York: Tarcher (gaztelera itzulita: 1993, Buenos Aires: J. Vergara).
- KREIMER, J. (1994), *Rehacerse hombres*. Buenos Aires: Planeta.
- KUPERS, T. (1993), *Revisioning Men's Lives*. New York: Guilford.
- LOZOYA, J., MARQUÉS, J. (1997), *Los hombres frente al cambio*. Argitaratu gabea
- MARQUÉS, J.V., Osborne, R. (1991), *Sexualidad y sexismo*. Madril: F.U.E.
- MCCMAHON, A. (1999), *Taking Care of Men*. Cambridge, UK: Cambridge University Press.
- MOORE, R., GILLETTE, D. (1990), *La nueva masculinidad*. San Francisco: Harper (1993an gaztelera itzulia, Bartzelona: Paidós).
- MURILLO, S. (1996), *El mito de la vida privada*. Madril: Siglo XXI.
- ORTEGA, F. eta beste (1993), *La flotante identidad sexual*. Madril: Dirección General de la Mujer.
- PEASE, B. (2000), *Recreating Men. Postmodern Masculinity Politics*. London: Sage.
- POPAY, J. eta beste (1998), *Men, Gender Division And Welfare*. Londres: Routledge.
- PORTER, D. (1992), (Editorea), *Between Men And Feminism*. New York: Methuen.
- ROWAN, J. (1997), *Healing The Male Psyche*. Londres: Routledge.
- SÁEZ BUENAVENTURA, C. (1990), "Violencia y proceso de socialización genérica". In Maquieira, V. eta Sánchez, C. (comp.) *Violencia y sociedad patriarcal*. Madril: Pablo Iglesias.
- SALISBURY, J., JACKSON, D. (1996), *Challenging Machos Values*. London: Falmer.
- SÁNCHEZ-PALENCIA, C. eta HIDALGO, J.C. (ed) (2001) *Masculino plural: construcciones de la masculinidad*. Lleida: Univ. de Lleida.
- SEGARRA, M. eta CARABÍ, A.(ed) (2000) *Nuevas masculinidades*. Bartzelona: Icaria .
- SEIDLER, V. (1992-1998), (Argitaratzaile) *Serie: Male Orders*. Londres: Routledge.
- SHAPIRO, L. (1992), *Men, A Translation For Women*. New York: Penguin (gaztelera itzulita: 1994, Bartzelona: Paidós).
- SHER eta beste (1987), *Psychotherapy With Men*. New York: Sage.
- SIMÓN RODRÍGUEZ, E. (1999), *Democracia vital*. Madril: Narcea.
- T.E.S.T. (1995), *El hombre perplejo*. Badajoz, España: Dirección General de la Mujer.
- WELTZER-LANG, D. (1991) *Les hommes violents*. Paris: Lienne et Courier (1996an gaztelera itzulia, Bogotá: Indigo).

DANIEL WELZER-LANG

**Gizon Feministazaleen
Europako Sarea. Toulouseko
Unibertsitatea. Frantzia**

*Maskulinotasun-
sunen krisiak:
zalan-
jartze
feministen eta
heterosexismo-
aren kontrako
kritiken artean*

Laburpena

Azken hogeitertan Europako gizonen artean sortutako elkartzeko moduen aurkezpen azkarra egin ondoren (gizonen adierazpen taldeetatik hasita Europako sareetaraino), hitzaldiak honako gaiak jorratuko ditu:

- *Gizonek nola erreakzionatzen duten, progresista zein ez-progresistek, interpelazio feministan (kontzientzi taldeak –"Lazo Zuria" kanpaina, eta seme-alaben zaintza eta guraso dibortziatei dagokienez "gizonek aldaketak oztopatzea" gauzatzea).*
- *Gizarte Zientzietan egindako azterketa eta gizarte-borroken ekarpena, sexuen arteko harreman sozialak berriz negoziatzerakoan, eta, bereziki, honakoek bete duten papera: – genero-indarkerien dekonstrukzioa (emakumeen edo emakume gisa tratatutako gizonen aurkako indarkeria), – homofobiari eta hetero-normatibitateari buruzko analisi kritikoak, – generoa kontzeptua bera zalantzan jartzearen inguruan.*
- *Gaur egun, Europako emakumeen eta gizonen arteko eztabaidak duen zentzua; elkarte eta sareen papera.*
- *Europako Batasunak bultzatutako "aukera-berdintasuna"ren problematika, berdintasunezko gizartearen etorkizuna (?) eta elkarte feministek eta Feministen Aldeko Gizonen Europako Sareak bultzatutako "gizon/emakume kontratu berria"ren arteko loturak.*

.....

1.

Sarrera

Nire hitzaldian Europako ekimenei buruz hitz egingo dut, aldaketen aurrean dauden erresistentzia maskulinoen analisiari buruz. Baina, lehenik eta behin, garrantzitsua da Europako analisi feminista argitzea; jakin ezazue Toulousen, Simone/SAGESSE Taldean eta nire ikerketa taldean, maskulinoa genero hegemoniko eta nagusi gisa aztertzen dugula.

Gizon / emakume, gizon / gizon arteko harremanak, sexu gizarte-harremantzat hartuta, badirudi –gure hipotesia behintzat hori da– pragmatismo naturalista bikoitz baten emaitzak direla:

- *Gizonen sasi gorentasuna. Horrek gizonezkoen dominaziora garamatza eta baita sexismora eta genero maskulino eta femeninoen arteko muga zurrun eta zeharkaezinera.*
- *Munduaren ikuspegi hetero-asekuatua. Horren arabera, sexualitate "normal" eta "natural" bakarra gizonen eta emakumeen artekoa da. Gainontzeko sexualitateak, bisexualitateak, sexualitate transexualak..., "desberdin" gisa definitzen dira eta kasurik onenean baita onartu ere.*

Emakume feministen aldarrikapenek eta heterosexismoaren kritikak (beste gauza batzuen artean, gizon batzuk maskulinitateak dakartzan "kostuaz" jabetu direlako) gizonen arteko egitura hierarkikoa –dominazio maskulinoaren artikulazioa– eztabaidatzea eragiten du, eta horren ondorioz, gizonen eta maskulinoaren analisi moduak berriro planteatzera.

Dominazio maskulinoa eta gizon / emakumeen arteko harremanak

Ez dut gai honi buruz asko hitz egingo. Analisiak ezagunak dira eta jende askok haiekin bat egingen du. Dominazio maskulinoa, gaur egun, begien bistakoa da, baita soziologian ere. Garai batean, nire tesiko epaimahaiko kideek dominazio hori fantasia "arkeo-paleo-marxista"tzat jo zuten [hitz horiek erabili nituen haren defentsan]. Zorionez, ordea, badirudi garai hori atean utzi dugula. Kide asko, soziologo batzuk barne, paradigma horretaz baliatzen dira gizartea modu ulergarrian deskribatzeko (1). Eta analisia aberasteko eta sakontzeko azterketa feministek egin duten ekarpena, gaur egun testu askotan ageri da (2). Honela, Frantzian, halako adostasun bat dago gizon / emakume arteko harremanak sexu gizarte-harremanak izenez deitzeko.

Hau da, dominazioa ez da dena betirako erabakita eta harremanak modu bereberean ugaltzen diren bloke monolitiko moduan aztertu behar (3). Aitzitik, analisiak –bai orokorra izan edo esparru zehatz batean zentratuta egon edo interakzio pribatuetan–, inguru zabala hartu behar du: gizartearena (dominazio maskulinoa) eta emakumeen eta horien aliatuen borroka objektibo eta subjektiboak, sexu gizarte-harremanak aldatzeko asmoa dutenak, ondorioz, dominazio maskulinoa aldatzekoa.

Gizonek kolektiboki eta banan-banan dominatzen dituzte emakumeak. Dominazio hori inguru pribatuan zein publikoan gertatzen da, eta gizonei pribilegio material, kultural eta sinboliko batzuk ematen dizkie. Gaur egungo azterketa feminista asko pribilegio horiek zehazten ahalegintzen dira eta, dominazio maskulinoaren ondorioak agerian jartzen dituzte (4). Gure gizarteetan, "desberdintasun" horiek murriztu nahi dituen politikak ezin digu horiek mantendu egiten direla ahaztarazi, osterantzean gure ametsak errealitatearekin nahasteko eta ezer ez ulertzeko arriskuan egongo bainateke.

(1) Ikusi, honi buruz, Michel Bozon (1998), François de Singly (1987, 1993, 1996, et.), Pierre Bourdieu (1990, 1998), Jacques Comailles (1992) eta abarren analisiak. Soziologo feministek sarritan salatu izan dute gizonezkoen nagusitasunaren edo sexu gizarte-harremanen esparrua erabiltzea soziologoek, euren ustez soziologo feministek egindako lana beste behin ukatzen dute eta (Devreux, 1995). Hori Maurice Godelier eta François de Singly autoreek, esaterako askotan erabili izan dute. Bourdieu-ren lanei dagokionez, agertu berri diren kritika interesgarriak irakurtzea gomendatzen dut (Mathieu, 1999; Louis, 1999).

Niri dagokidanez, gizonezkoen arteko harremana eta sexu gizarte-harremanenak artikulatu batean jorratu ditut (Welzer-Lang 1999).

(2) Bereziki honako biak: APREren (Produktzio-Erreproduktzio Tailerraren) inguruan egindako lanak (tailerra lehen lan kolektibo baten ondoren (kolektiboa, 1984) 1985 eta 1987 artean bildu zen, eta ATPren *Emakumeak, Feminismoa, Ikerketa* analisiak (Kurtig Kail, 1991).

(3) Oraindik Pierre Bourdieu-ren analisi fixistatik (1998) ondorioztatzen den ideia da hori.

(4) Ikusi, bereziki, gaur egun MAGE (Lanaren eta Generoaren Merkatua) ikerketa taldea soldatape lanen alorrean egingen ari den lan garrantzitsua.

Eta desberdintasunak diot gauzak errazteko, baina komeni da termino horretaz asko ez fidatzea. Izan ere, gizon eta emakumeen egoerak sistema global bateko emaitza neutraltzat jotzen ditu; hots, analisiari dagokionez, sexu talde bakoitza, genero bakoitza, simetrikoa eta berdina izango bailitzan. Hau da, inposatutako sistema, aldatzeko aukerarik gabea. Eta ez da horrela. Gizonek emakumeak zapaltzea sistema dinamikoa da, emakumeek pairatzen dituzten desberdintasunak gizonetzkoen emandako pribilegioen ondorio diren sistema. Pastela banatzerakoan gizoni zazpi zati ematen bazaizkie eta emakumeei bat, berdintasunaren aldeko borroka pastela zati berdinean banatzea eskatzen du. Beraz, gizonek zati gutxiago izango dituzte!

Analisi hori, noski, gizarteko bestelako harremanen inguruan egin behar da, adibidez, gizarte maila, talde etniko eta adinen araberrako zatiketa hierarkikoaren inguruan, adibidez. Laburbilduz, gure bizitzak, gure egoera materialak, gizarte harreman multzo baten emaitza dira.

Nik neuk, beste batzuek bezala (5), gizonen dominazioak eragiten duen asimetria frogatu dut. Gizonek eta emakumeek termino (6) berberetz izendatutako fenomenoak modu desberdinean sentitzen dituzte, eta horretaz gain, gizartea sinbologia berberetz banatzen du: gizoni eta maskulinoari zeregina nobleak ematen dizkio, eta emakumeei eta femeninoari balore gutxiago ematen zaien zeregin eta eginkizunak.

Munduaren zatiketa horrek, generoan oinarritutako kosmogoniak, indarrean jarraitzen du, indarkeriak araututa: era askotako indarkeria, dela lanekoa, dela etxeko indarkeria maskulinoa, dela gerretako bortxakeria. Horiek guztiek, emakumeen kontura gizonetzkoek kolektiboki eta banan-banan beren gain hartzen dituzten botereak mantentzeko erabiltzen dituzte.

(5) Bereziki, bi aipatuko ditut. Batetik, N-C Mathieu-ren analisiak (1985, 1991): dominazio maskulinoak eragiten dituen desberdintasunak adierazten ditu kontzientzia, pertzepzioa eta gizarte-egagutzean; Eta bestetik, Maurice Godelier-en testuak (1982, 1995): dominazio maskulinoak azpian dominante guztiek dituzten sekretu kolektiboak ezkututzen dituela erakusten du, eta sekretu horiek, kasu batzuetan, berak aztertu dituen Baruya-en kasuan bezala, ezin dizkie emakumeei argitu, bestela heriotza-zigorra dute.

(6) Nire lanetan erakutsi nahi dudana alderdi bat gizarteko gertaeren definizio bikoitza da: "estandar bikoitz asimetrikoa". Ehunka lekukotasun aztertu ondoren (Welzer-Lang, 1988, 1991, 1992), zera erakutsi dut: batetik, gizonen bortizkeria eta bortizkeria pairatzen duten emakumeek indarkeriari buruz hitz egiterakoan ez dutela gauza berdinez hitz egiten; eta, bestetik, onartu egiten dutenean –izan ere, lehenengo jarrera defentsiboa hori ukatzea da–, beraien neska-lagunek baino indarkeria handiagoak deskribatzen dituztela. Hau da, indarkeria definitzeko ditugun kategoriak desegin behar diren aurre-nozioak dira.

Halaber, Jean Paul Filiod-ekin batera (Welzer-Lang, Filiod, 1994), gaur egungo sexu gizarte-harremanen bi ezaugarri harrigarri eta nabarmenak badirela frogatu dut: gizonek gauzak botata uzten dituzte; baina aldi berean, gizon "arruntak" ez du etxean leku egokirik. Nahiko erraza egin zaigu, garbitasuna eta txukuntasunari dagokionez, gizon eta emakumeek bi logika desberdin dituztela erakustea, bi sinbologia. Emakumeek arazoak sortu aurretik hartzen dituzte neurriak, eta gizonetzkoak, aldiz, arazoa sortu eta gero saiatzeko dira konpontzen, dominazioari lotutako ohiko gizarte antolaketan behintzat bai. Noski, gizarte-antolaketari buruz bakarrik ari gara.

Hala ere, generoen arteko harremanen azterketetan benetako arazo epistemologikoa da. Ikertzaileek postulatatu moduan onartu beharko dute dominazio modu desberdinei buruz dugun informazioa desberdina izateaz gain, beraien beraien ondorio zientifikoak ezarri behar dituztela. Hots, sexuen arteko harremanak zerk desberdintzen dituen bilatzeari utzi, eta, gizartean desberdintasun hori sortzen dela deskribatu eta ulertu beharko dute sexu gizarte-harremanak ezkutatzeko.

Hori guztia ez da berria, eta nahiz eta eztabaidak jarraitu –indarkeriaren (7) jatorriaz, sexuagatiko banaketa eta generoagatiko banaketan (8) arteko harremanez, gizonen paperaz, gaur egungo transformazioen (9) analisisiaz etab.– kontsensu berri bat eratu da, eta bi sexu taldeen (edo moten) arteko banaketa, genero banaketa izendatu da, dominazio maskulinoaren oinarri bezala.

Duela hainbat hamarkadatik aurrera, lehenbizi emakumeek eta gero gizon batzuek, fenomeno hori azaltzeko eta argitara ateratzeko borrokatu dute edota analisiak burutu dituzte. Aspaldidanik Frantzian eta Europan analisi horren oinarri diren testuetara joko dugu, Christine Delphy, Colette Guillaumin, Nicole-Claude Mathieu eta Paola Tabet-ek idatzitakoak (10). Horiek guztiek, bakoitzak bere modura, dominazioa sexuaren arabera gizarte banaketa hierarkikoan hala nola integratuta dagoen fenomeno natural eta nabarmena dela erakusten du. Eta emakumeen zapalketen analisi kritikoa izan zen, hain zuzen, sexismoa, patriarkatua eta "biriarkatua" delakoaren aurkako borroken sorburu (11).

(7) Batzuek, Bourdieu-k esate baterako, oraindik batez ere sinbolikoak kontsideratzen dituzte, nahiz eta emakume feminista intelektual edo aktibisten lanek, gaia aztertu duten gizonen lanek, nireek esaterako (Welzer-Lang, 1988, 1991, 1992, 1998) erakutsi egin duten emakumeen autonomia mugatzen duen indarkeria ekonomikoaz hitz egin gabe ere, indarkeri fisikoa egunero dagoela –bereziki (berriz) gertatuko denaren beldurraren bidez– eta horrek emakumeen autonomia lortzeko aukera benetan geldiarazten duela.

(8) Bereziki, zehazteko bietatik –sexua ala generoa– zein nagusitzen den bestearengan, edota sexu eta genero arteko harremanen adierazpideetan zein analisi soziologiko eta politiko egin diren. Honi buruz, ikusi Christine Delphy (1991, 1998) eta Nicole-Claude Mathieu-ren (1989, 1991) idazkiak.

(9) Backlash orokor baten hipotesia frogatzea komeni al da (Faludi, 1993)? Edo egokiago da Anne-Marie Devreux eta Huguelle Dagenais-ek aldarrikatzen duten bezala, gizarte aldaketek "sarri eta baita oso sarri ere [nik azpimarratua] emakume dominatu eta zapalduen egoera larritzen dutela pentsatzea?

(10) Idazle horien testuak, gaur egungo analisi feministen oinarri direnak, berriro lan desberdinetan daude bilduta eta eskuragarri: Mathieu (1991), Guillaumin (1992), Delphy (1998), Tabet (1998). Dekonstrukzio feministaren oinarriak ezagutu nahi dituenarentzat ezin bestean irakurri beharreko lanak dira.

(11) Ez zait inoiz gustatu patriarkatu kontzeptu hori. 1970ean Delphy-k definitu zuen eta gizarte mugimenduek (feminismoa, antisexismoa...) berreskuratu. Eta, bereziki gizonenei buruzko lanetarako, hori ez baitzen izan Delphyren xede. Antropologiatik datorren terminoak, emakume eta haurren aitek (patriarkek) duten boterea adierazten digu. Dominazio maskulinoa deskribatu nahi badu ere, ez ditu nabarmentzen sexu gizarte-harremanetako aldaketak eta, batez ere, semeei dagozkien botere harremanen aldaketak (amei emaniko zainketa-eskubidea, adibidez) eta semeak eskuratzeari eragiten dietenak. Hala ere, esparru horretan –eta horietanxe oinarritzen dira guraso dibortziatuen mugimendu atzerakoien kritikak, Izaera Maskulinoen Mugimenduak, esaterako– 80 eta 90eko hamarkadetan legeak aldatu egin ziren botere patriarkalaren kalterako (ikus Théry, 1998). Niri dagokidanez, denbora luzea nahiago izan dut biriarkatu (viriarcado) terminoa –eta horrela erabili dut–, Nicole-Claude Mathieu-k proposatuta (1985). Berak emandako definizioaren arabera gizonen boterea da, aita izan ala ez, gizarte patrilineal eta patrilokalak izan ala ez.

3.

Dominazio maskulinoa eta gizon / gizoneen arteko harremanak

Gauza nabarmena da dominazio maskulinoa gaur egun izan badela eta hori deskribatzeko sarritan sexu gizarte-harremanez baliatzen garela, baina harreman horiek askotan sexuen arteko gizarte harremantzat hartzen dira, gizon eta emakumeen arteko gizarte harremantzat. Zatiketa naturalista eta esentzialista hori analisi bertan horrela islatzen da. Jadanik 1994an (Welzer-Lang, Dorais, 1994), gizonen taldea ere, prozesu beran oinarrituta egituratuta dagoela frogatu genuen. Mutikoak bere sexuarekin soilik hezten direnean maskulinoa modu paradoxiko batean egituratzen dutela deskribatu dut, eta gaztetxoei (benetako) gizona izateko, emakumeen antza hartaraziko lieketen alderdiei aurre egin behar dietela erakusten diela. Maurice Godelier-en lanei (1982) lotuta, leku horien multzoari "Gizonen etxea" deitzea proposatu dut. Eta, orduan, homofobiari buruzko azterketa egiten ari ginenean deskribatutakoa hemen nolabait laburtzea baliagarri izango litzatekeela deritzot.

4.

"Gizonen etxea"

Gure gizarteetan, mutiko-matxoek emakumeen mundua (12) uzten dutenean, beraien adineko beste mutikoekin biltzen hasten direnean, homosozialitate fasea izaten dute (13). Fase horretan, momentuak homosexualak bizitzeko joera indartsuak edota presio handiak sortzen zaizkie. Zakil handiena nork izan, idiarena jotzeko (masturbatzeko) maratoiak, pisa urrutien nork egiten duen ikusteko jolasak, sexu kitzikapen kolektiboak taldean ikuskatutako pornografiarekin, eta baita emakumeak biluztean datzan strip-teaseko jolas elektronikoetan jolastea ere. Beste belaunaldietako gizon eta emakumeetatik urrun, mutikoak erotismo jolasekin hasten dira. Horretarako, aurreko belaunaldietatik heredatutako estrategia eta galderak erabiltzen dituzte (zakilaren neurria, sexu gaitasuna). Horrela aurrekoen sexu eredu berberak ikasten eta kopiatzen dituzte, desiraren adierazpenari eta hurrenkerari dagozkionez.

(12) Edo haur txikiak zaintzen dituzten gizon batzuenak.

(13) Sexu bereko pertsonen arteko harremanak izango litzateke definitu genezake, hau da, gizonen arteko harremanak edo emakumeen arteko harremanak.

"Gizonen etxe" hori, bizitzako adin bakoitzean, maskulinitatearen eratze fase bakoitzean, leku, gela, taberna, futbol estadio batekin lotuta dago. Hau da, bere berdinak direnen inguruan modu bakar bateko gizartea bizi eta esperimenta dezakeen lekua. Talde horietan, zaharrenek, jadanik helduengandik ikasi dutenek, gizontasuna bereganatu nahi dutenei erakutsi egiten die, bai eta moldatu ere. "Etxe" horretako lehenengo "gelatik" ateratzean gizon bakoitza aldi berean irakasle eta ikasle bihurtzen da.

5.

Gizon izateko sufritzen ikasi, helduen legea onartzen ikasi

Mutikoak gizonekin egoten ikasi nahi badu, helduen, denbora gehien daramatenen legea onartu behar du derrigorrez, edo kirolak lehenengo aldiz ikasteko "gizonen etxe"an sartzen denean, gizon kategorian lortzeko zain daudenen legea. Horiek arauak erakusten dizkiote, ondo portatzen, gizon izaten. Gizon batzuek garai hori eta orduan sentitzen zuten zirrara gogorazten duten moduagatik, badirudi, garai horiek hastapen erritu modua direla.

Jockeyan, futbolean, saskibaloian jokatzen ikastea, lehenik eta behin, zera esateko modu bat da: "Gainontzeko lagunen modukoa izan nahi dut. Gizon izan nahi dut eta, beraz, kontrakoagandik (emakume izatetik) bereiztu nahi dut. Emakume eta haurren mundutik banandu nahi dut (14). Kode eta errituak errespetatzerakoan ere bai hierarkia eragile bihurtzen baitira. Kodeak eta errituak –kiroletan arau deitzen direnak– bereganatzeak, esan gabea, inplizitua, bereganatzea behartzen du. Esan gabeko gauza horietako bat, ordurako gizon bihurtutako mutikoek urte batzuk beranduago kontatzen duten bezala, sufrituz ikasten dutela da. Gainerakoek bezain ongi jokatzea lortuko ez duten beldurragatik sortutako sufrimendu psikikoa. Ondo jokatzeke prestatu behar diren gorputzen sufrimendua. Oinak, eskuak, giharrak... eratu egiten dira, gogortu; forma hartzen dute, minarekin joko sadomasokista izango balute bezala. Gizontxoak sufrimendua onartzen ikasi behar du –hitzik esan gabe eta "biraorik" egin gabe– gizonen zirkulu mugatuaren parte izateko. Sexu bereko talde horietan keinuak, mugimenduak, erreakzio maskulinoak bereganatzen, gizona izateko balioko duten jarrera guztiak, alegia.

(14) Mutikoen talde batzuetan, pilota edo jockeyko stickaren inguruan, gaur egun emakume batzuk ageri dira. Neska horiek –beraien gurasoek "mari-mutil" deitzen dietenak– behatu ondoren badirudi beraiek ere, oraingoz, mutiko kategoriarantz heldu nahi dutela, hori ematen du bederen. Hurrengo urteetan ikusiko dugu ikasketa horien benetako nahasketaren ondorioek zein eragin duten homofiliaren eta gizontasunaren kategoriaren bilakaeran.

Gizon bakoitzak, indibidualki eta kolektiboki, inimizazioari ekingo dio. Hasiera horren bidez sexualitatea ikasten dute. Mezu dominantea honakoa da: gizona izatea desberdina izatea da, emakumearengandik ezberdina izatea.

Mutikoen lehenengo taldeetan, borroka "adiskidetsu" batean "sartzen" dira (nahiz eta dirudien bezain adiskidetsua ez izan, kontuan izanik zenbat malko isurtzen dituzten, desengainu eta garai horri lotutako etsipenengatik) gainontzekoen mailara iritsi ahal izateko eta, ondoren, onena izateko. Gizonekin egoteko eskubidea lortzeko edo gainontzeko gizonen bezalakoa izateko. Bai gizonak eta bai emakumeek heziketa mimetismoz bereganatzen dute. Eta gizonen mimetismoa indarkeriaren mimetismoa da. Lehendabizi, beraienganako, beren buruen aurkako indarkeria. Beraien larrutan gizonak ikasten duten gerra, batez ere, beren buruen aurkako gerra da. Gero, bigarren etapa batean, gainontzekoen aurkako gerra da.

Halaber, "gizonen etxeko" "lehenengo gela" –"gizentasunaren kaiola"ren ataria deitu dudana–, abusuak pairatzeko arrisku handiko lekua dela frogatu dut. Egia esan, "gizonen etxeko" "lehenengo gelaz" hitz egitea hizkuntzaren abusu modu bat da. "Lehenengo gelak" esan beharko genuke, "gizonen etxean" geografia era askotakoa baita. Kultura edo mikrokultura bakoitzari, batzuetan hiri edo herri bakoitzari, gizarte maila bakoitzari, "gizonen etxe" modu bat dagokio. Gizon izateko inimizazio horren gaia modu ugariara lantzen da. Kontzeptu bera da baina moduak ugariak dira.

Maskulinoa izatea, aldi berean ereduaren esanetara egotea eta ereduaren pribilegioak jarraitzea da. Heldu batzuk errekluta berri horietaz aprobetxatzen dira eta "etxeko" "lehenengo gela" hori mutiko askorentzat abusuaren gelaurrea izaten da, eta harrituko gintuzkeen neurrian, gainera (15). Lehen ere esan dudan bezala, mutikoa gizon izateko sufritu egin behar dela ohartzeaz gain, "gela" horretan (edo gainerakoetan, hemen metafora hutsa da) gaztearen inimizazioa, kasu batzuetan, heldu batek egiten du. Sexu inimizazioa ematen dio, hau da, bortxatu egiten du. Zakila lazantzera edo zupatzera, zakila edo edozein objektu uzkitik sartzera behartzen du –indarkeriaz edo mehatxupearan–. Bestea masturbatzera. Bera lazandua izaten uztera... Beraz, ulergarria da, horrelako inimizazioa izan duten zenbait gizonena, esperientzi horretako seinale borra ezinak izatea.

Homofobiari buruzko azterketaren inguruan eginiko elkarrizketen, eta, geroago, kartzelari buruzko azterketarenaren, (Welzer-Lang, Mathieu, Faure, 1996) inguruan eginiko elkarrizketen arabera, badirudi gizon helduago baten abusu sexualak jasan dituen gizonak abusu modu hori errepikatzen dituela. "Nik hau jasan dudanez, horrek ere jasan dezala" esango balute bezala.

(15) Quebec-en, 1984an, haur eta gazteek pairatzen dituzten urratze sexualen aurkako batzorde batek zera zioen: gizonak aurkeztutako bortxaketa salaketak oso gutxi izanda ere, azterketa kanadar batek bi emakumetatik batek eta hiru gizonetatik batek beraien borondateen aurkako ekintza sexualak egin zituztela aitortzen zutela (pertsonek %42,1 Kanadan eta %40,2 Quebec-en). Horietatik gehiengoak haurtzaroen edo nerabetasunean eraso zituzten (Badgley, 1984). Datu frantsesekin konparatzeko –Quebec-en egindako azterketarekin bat datoz– ikus homofobiari buruzko nire testua (1984).

Abusuak, ematen dituenari egiten dizkion onurez gain, kasu honetan, exorzismo modu bat ere bada: aurrez bizitako zoritxarra uxatzeko ekintza. Aurrerago, urteak pasa ahala, minaren eta lotsaren oroipena arintzen doanean lehenengo abusua konpentsazio moduan egingo litzateke, gutxi gorabehera bankuko kontu bat irekitzera behartzen zaituztenean bezala: orain egindako abusua abusatua izan zen gizonak erreklamatzeko dituen korrituak izango lirateke. Eta hori gizonari egindako abusu kasuetan gertatzen da, baina baita beste lekuetan emakumeei egindakoetan ere.

Beste batzuk gotortu egiten dira, halako batean (16) onartu egiten dute gizonen arteko lehiaketa arrisku handiko oihana dela, non gordetzen eta gogor egiten jakin egin behar baita; eta, azken finean, oihan hurretan defentsarik onena erasotzea dela.

Mina bestea kolpatzen uxatzea, eta bestearekiko duen boterearen onurak gozatzea: hori da "etxeko" "gela" guztietan idatzita dagoela dirudien postulatua.

Baina ez dezagun geure burua engainatu. Indarra ematen duen elkartasun horrek, kolektiboa, elkartasuna, anaitasuna –talde bereko gizonen arteko harremana anai artekoaren antzekoa da– ikaste horrek alderdi positiboak ere badakartza. "Gizonen etxean" norbera biktima izatearen mina saihesteko elkartasun maskulinoa egon arren, "etxe" hori balioen transmisioko lekua da, eta balio horiek dominaziopean egongo ez balira positiboak izango lirateke. Elkarrekin ondo pasatzea, kolektiboak indibidualarekiko interesa baduela ikustea, giza elkartasunak oinarri dituen giza balioak dira.

Gauza da, sozializazio maskulinoan, gizon izateko emakumearekin parekatua ez izatea lortu behar dela. Femininoa arbuioztako elementu nagusi bihurtzen da, borrokatu beharreko barruko etsaia, emakumearen antza izan eta hura bezala (gaizki) tratatua izan ez dadin.

Eta hutsegitea izango litzateke "gizonen etxea"ren analisisia haurtzaroko eta gaztaroko sozializazio mugatzea. Bikote kontutan, gizonak senarraren papera "hartzeko du" (gizon hornitzailea, familia zuzentzen duen aita, bere emazte eta seme-alabentzat ona zer den dakiena); baina, oraindik, maiz joaten da "gizonen etxeko" "geletara": tabernetara, klubetara eta batzuetan baita kartzelara ere; eta leku horietan ahulengandik bere burua bereiztu behar izaten du, emakume diruditenengandik, "maritxuengandik", hau da, gizon ez direla kontsideratzen direnengandik.

Maskulinoa, gizonen arteko harremanak, gizon eta emakumeen arteko harremanen irudi hierarkizatua batean oinarrituta daude. "Ondo jarrita dituztela" (17) frogatu ezin dutenek baztertuak izateko eta emakumeak bezala dominatuak izateko arriskua dute. Eta behatzez seinalatuko zaie.

(16) Zehazkiago, denbora luze batean, entzuteko eta justizia izateko eman zaien aukeren arabera. Abusatua izan den gizon oro bizi duenaren erredun eta erantzule egiten da. Ez da defenditzeko gai izan. –Ez utzi atzetik sartzen edo hartzen– esaten duen gizonen lehenengo arauan porrot egin du. Trauma fisikoez gain, oso gogorra da engainatua izanaren lotsa, "emakumetzat" hartu izanaren lotsa.

(17) Hemen gizentasunaren fetitxismo falikoa ikusten dugu.

Horrela, kartzelan, "gizonen etxeko" alderdi berezi batean, gazteak, homosexualizat hartutako gizonak (emagizontzat, trabestizat... hartutakoak), borrokatzeari uko egiten dietenak, baita dominatuak (18) bortxatzen harrapatu dituztenak ere, emakume bezala tratatzen dituzte, buruzagi diren "gizon handiek" sexualki hartzen dituzte, xantaia egiten zaie eta bortxatu egiten dituzte. Askotan "dena egiteko emakume" postuan jartzen dituzte, kontrola daramatenen menpe, eta etxeko lanak egitera behartzen dituzte (gela, arroparen garbiketa...) eta sexu zerbitzuak egitera.

Ikuspuntu horretatik, homofobiaren honako definizioa iradoki dut: beste generoari egozten zaizkion nolakotasunak (edo akatsak) dituztela erakusten dutenek edo horiek egozten zaizkienek jasaten duten diskriminazioa. Homofobia generoaren mugaren oinarria da.

Pierre Dutey-rekin batera, 500 lagun ingururi galdetu genien ea nola antzematen zituzten kaletik pertsona homosexualak. Eta gehien-gehienek gizon homosexuali buruz hitz egiten zutela egiaztatu genuen (lesbianismoa ikusezina da). Gainera, feminitatearen ezaugarri batzuk (ahotsa, janzkera, fisikoa) zituzten gizonak homosexualekin parekatzen zituzten. Gizontasunaren ezaugarri nabarmenak erakusten ez dituzten gizonak emakumeekin edota hauen baliokide sinbolikoekin –hau da, homosexualekin– parekatzen dira.

Dominazio maskulinoaren paradigma naturalistak emakumeak eta gizonak talde hierarkizatuetan banatzen ditu, gizoni pribilegioak ematen dizkio emakumeen kalterako; eta dominazio maskulinoak homofobia eragiten du, arrazoa edozein izanik ere, joera hori jarraitu nahi ez duten gizonekiko (edo oraindik okerrago, horiei uko egiten dietenekiko). Horren helburua honakoa da: gizonak, normaltzat ezarrita dauden gizontasunaren eskemak jarraitzea mehatxupean. Honela, gizarteko taldeak beraien artean eta beraien barnean mailakatuta daudela ikusten dugu: hau da, homofobiak gizonen beraien arteko harremanak egituratuko lituzke, "benetako balio" maskulinoak indartuz.

6.

"Gizon Handiak"

Kartzelako buruzagiak aipatu berri ditut "Gizon Handi" kontsideratutakoak. Baliteke, gizarte mailak pribilegiatu dituen analisi marxistaren eraginak, edo dominazio maskulinoa aztertzeako antzeko analisi bat hartzera bultzatu gaituen analisi post-marxista feministaren eraginak (Delphy, 1970; Guillaumin, 1978), eta gizoni eta maskulinoari buruzko zenbait azterketek, gizon orok dakiena ezkutatu izana: norbera oso gizon izan arren, oso dominantea izan arren, hierarkia maskulinoen menpe dago. Gizon guztiek ez dute botere berdina, ezta pribilegio berdinak ere. Batzuek, nik Gizon Handi izendatzen ditudanak, emakumeen kontura erabiltzen diren pribilegioak dituzte (gizon guztiei emandakoak), baina baita gizonen konturakoak ere. Sexu gizarte-harremanen zeharkako analisiak hainbat bide ematen dizkigu analisirako eta gogoetarako. Horiek garrantzitsuak dira iruditzen zaizkit eta hemen lantzea gustatuko litzaidake.

(18) Idealen arabera, ideal maskulinoan, gizonak emakumea bereganatu behar du beti "emakume bat ez da jo behar ezta arrosa batekin ere" agindua errespetatuz. Maila goreneko gizonaren xarma eta lilura nahikoa izan behar dute. Baita "lilura" hori akosoa bada ere, aldi batekoa, edo etengabea.

"Gizonen etxe" metafora / kontzeptua sozializazio maskulinoa deskribatzeko erabili dut, baina, oraingoz, ez diot maskulinoaren egituratze funtzionalari ekin.

Nortzuk dira Gizon Handiak? Nola ordaintzen da estatutu hori? Diruz, ohoreaz (P. Bourdieu-ren arabera, gizontasuna indartzen du) eta botere estatutuz.

Empirikoki [ikus bikote aldaketei eta sexu merkataritzari buruzko nire azterketak (Welzer-Lang, 1988, a, b)], badakigu gizon bat emakume "ederrekin" ikustean bada Gizon Handizat hartzen dela; eta gauza bera gertatzen da dirua edota gizon eta emakumeengan boterea duenarekin. Gizon orok dauka, edo eduki dezake, gizontasunaren kodeak onesten baditu, emakumeengan boterea (oraindik kuantifikatzeko dagoena); (buruzagi, Gizon Handi) batzuek gizonengan ere badute botererik. Eta hierarkia maskulinoak botere bikoitz horren inguruan egituratzen dira.

Halaber, banaketa horiek gizarte mailekin antola ditzakegu, eta antolatu egin behar ditugu. Exekutibo batek, enpresaburu batek (emakumezkoa ala gizona izan) hain zuzen, profesional mailan beste emakume eta gizonengan du boterea. Dударik gabe, kasu honetan, gizon ala emakume izateak badu eragina –ikus soziologo feministen eta François de Singly-ren lanak–. Oraindik aztertze dago lanbideko botereen eta etxeko botereen (eta abantailen) arteko loturaren gaia. Baina guzti hori oraindik oso abstraktua da.

"Gizon Handien" azterketak botere maskulinoak emakume eta gizonengan nola banatuta dauden aztertze beste baliabide batzuk ematen ditu. Har dezagun adibide moduan, legionarioen kasua (19). Atzerriko misioetatik itzultzen direnean, onartu egiten zaie alkoholarekin eta emakumeekin askatasun batzuk izatea. Guztiek, edo batzuek (20) "ekipajea emakumeak ekartzeko eskubidea dute" (21). Horiek, etorkinak, sarritan ilegalak, ez dute beti frantsesez hitz egiten, asko analfabetoak dira, eta ekarri dituzten soldaduen menpe daude erabat. "Legionarioei ulertu egin behar zaie, edozein lekutara bidaltzen dituzte eta akabatu! esaten zaie; beraz, gero askatasunen bat utzi behar zaie..." esan zidan armadako ofizial batek. Emakume horiek (edo mutil horiek), lurralde pobreetatik datozenak, post-kolonial soldaduen estatutuari lotuta dagoen pribilegio bat dira. Komenigarria izango litzateke azterketa zehatz bat egitea, Gizon Handiak nortzuk diren eta botere maskulinoak nola banatzen diren jakiteko, baita Gizon Handien beraien artean ere. Maurice Godelier-en lanez baliatuz eta gure gizarteetara egokituz, Gizon Handien artean botere desberdinak dituztenak bereiztu ditzakegu: botere politikoa, erlijiosoa (edo magikoa), ekonomikoa, gerrakoa, administratiboa, zientifikoa, unibertsitarioa... Eta botere horren pisua zehaztu genezake, ezarritakoa eta ezarri egiten dena, gizon eta emakumeekin dituzten harremanetan gizon horiei beraien eginkizunek ematen dizkieten pribilegioak begiratu jakiteko. Aldaketa maskulinoen azterketarako kontu garrantzitsua. Gizarteko dirulaguntzetatik bizi diren gizon batzuk (langabetuak),

(19) Momentuan, legionarioek egiten duten emakumeen "trafikoaz" azterketa bat egiten ari gara.

(20) Pribilegio horien inguru zehatza zehazteko ikerketa oraindik ez da amaitu.

(21) Geroago, jakin dut (oso ondo gordetako sekretua) "emakume" batzuek "hanka tartean zakila" zutela, nire informatzaile baten arabera (legionario homosexual bat).

emakumeekin dituzten harremanetan gizonen papera egiten badute ere mugikortasun sozial murrituagatik, emakumeek pairatu ohi duten bazterketatik eta urritasunetik oso gertu daude. Eta; bestalde, gero eta mugikortasun handiagoa duten zenbait emakume gizonak duten gizonetzkoen lehiakortasun eskemak kopiatzen saiatzen dira. Azken batean, gizartea generoetan banatzearen analisi naturalistak zera ezkututzen du: banaketa horren historikotasuna eta kontingentzia da. Eta, beharbada, borroka feministen eta berdintasuna lortzeko gure gizarteetako iraultzaren ondorioz zaharkitua gelditu liteke (22) eta agian, horren ordeztu giza arteko beste dominazio mota batzuk sortzea.

Baina dominazio maskulinoa ez da gure errepresentazioak eta praktikak baldintzatzen dituen paradigma bakarra. Orain, heterosexualitatearen gaiari ekingo diogu.

7.

Heterosexualitatea: gizonak eta emakumeak banatzeko inguru naturalista

Frantziako azken aldiko ideia berriek, bereziki genero maskulinoa edota sexualitate maskulinoaren gizarte antolaketa kritikatzeko dituztenen ideiek, analisi bikoitza egiten du. Alde batetik, esparru feministako lanak daude, dominazio maskulinoari, sexu gizarte-harremanen analisei lehentasuna ematen dienak. Bestaldekik, normalitate maskulinoaren inguru heteroasexuatua eztabaidatzen duten testuak, hainbat autoreenak: Michel Foucault (1976, 1984), Philippe Ariès historialaria (1973) eta J.L. Flandrin (1981, 1982, 1984)...

Scientia sexualisen (Foucault, 1976) agerpenak, gizabanakoaren definizioak, baina ez datu fisiologikoen bitartez (aparatu genitala) kategorio psikologiko baten bitartez baizik (sexu grina), gizonen artean (23) inguru heterosexuala ezartzen lagundu du, sexualitate forma natural gisa aurkeztutako ingurua. Sexualitatea onartu egin da, bai eta giza ugalketaren jolas, grina eta plazerren multzoa ere; eta horrela, paradigma heterosexuala da gizonak jarraitu beharreko portaera mota.

(22) Ikus, honi buruz, Christine Delphy-ren 1991ko artikulua bikaina.

(23) Eredu heterosexualari buruzko analisi hau emakumeei dagokienez zehaztu egin behar da. Beraiei ere ezarri egiten zaie inguru heterosexuala, baina gizonetzkoen kontrolpean dituzten homosexualitate femeninoko maitasunenganako erakarpena dute. Ikusi besterik ez dago zenbat bideo pornografikotan agertzen diren lesbianen eszenak gizonetzkoentzat noski. Hauek erotismoaren irizpide maskulino eta homofoboekin bat datoz: homofobiak agintzen du.

Eta gaur egun, heterosexismoaren oinarria da. Heterosexismoa –eta orain esanahi amerikarra hartzen dut– diskriminazioa eta zapalketa da, sexu joera dela-eta egiten den bereizketan oinarritutako diskriminazioa eta zapalketa. Heterosexismoa "erakunde edota gizabanakoen aldetik, heterosexualitatearen nagusitasunaren promozio jarraitua da eta, aldi berean, homosexualitatearen mendeotasunarena. Heterosexismoak mundu guztia heterosexuala dela ulertzen du, aurkakoa frogatzen ez den bitartean." (24)

Baina hutsegitea izango litzateke heterosexismoak eratzten duen bazterketa ingurua homosexualitate mugatzea. Heterosexualitate bestelako aldarrikatutako edozein sexualitate modu gutxietsi egiten da, eta eredu bakartzat ezartzen den sexu arautik desberdin ikusten da. Gauza bera gertatzen da bisexualitatearekin, sexualitate transexualekin...

Argi dago: gorputz eta grinak kudeatzen dituen politika eredu baten aurrean gaude. Eta heterosexzentratuak ez diren sexualitateak bizi nahi dituzten gizonak gizon anormaltzat jotzen dira. "Pasibotzat" jotzen dituzte, eta emakumeekin parekatu eta horiek bezala tratatuko dituztela mehatxatu. Gauza hori baita: gizona izateak aktiboa izatea esan nahi du. Eta ez da kasualitatea hainbat gizon-bortxatzailei –aktiboak eta zakila sartzen dutenak– egindako elkarriketetan (Welzer-Lang, 1988), gizon horiek ez edukitzea homosexualtzat beren burua. Michael Pollack-ek bere "Homosexualak eta Hiesa" lanean ere aipatzen du. Honakoa dio: "Tradizioz ezarri den [...] "zakila hartzen duena" eta "zakila sartu duena"ren arteko hierarkia da; eta lehenak gizartearen gaitzespen handiagoa jasaten du, dualtasun femeninoaren (dominatua) eta maskulinoaren (dominantea) inguruan antolatutako gauzen ordena "naturala" hautsi duelako argi eta garbi. Eta izan ere, kultura batzuetan zakila sartzen uzten duena soilik jotzen da "benetako marikoitzat" eta ez zakila sartzen duena" (Pollak, 1988).

Berriro ere, heterosexismoak bere kategoriak ezartzen ditu. Dominanteak, gizon aktiboak, zakila sartzen dutenak, gainontzekoengandik bereizten ditu: zakila hartzen duten gizon eta emakumeengandik, eta, beraz, dominatuengandik (25). Eta argi dago homofobia dela homosexualei, bisexualari, transexualei... atxikitzen zaiena, balioa kenduz, sexu forma naturalak ez dituztelako hartzen edo ez hartzearen susmagarri direlako.

(24) Definizio hau, 1994an argitaratua, Joseph Neise-k (1990) proposatutako definizioaren egokitzearen librea da.

(25) Askotan heterosexualitateari loturiko irudikapenei garrantzi txikiegia ematen zaie. Horrela, elkarre humanitario handi bateko goi mailako arduradunei Hiesarekin lotutako sexualitateari buruz emandako prestakuntza ikastaro batean, arduradunetako batek, medikua bera, harro esan zuen emakumea sodomia bitartez jabetzeak beragan erakarpen erotikoa zuela; eta, aldiz, gizon arteko uzki bitarteko harremanak buruz "antinaturalak eta, batez ere, zikinak eta nazkagarriak" zirela.

"Matxo" politiken aurkako borroka

Arrazoi historikoengatik, gizonen dominazio maskulinoaren aurka egindako borroka eta heterosexismoa kritikatzeko egindakoak, gizarako bi errealitate bereizi izan dira. Paradigma naturalista bakoitzak bere sailkapen sistema hierarkikoa sortu eta errepikatzen du. Sailkapen horretan, homofobiak aurrez aurreko bikotetan sailkatzen ditu dominante itxurakoak eta gainontzekoak. Bata gizona EDO emakumea da, "matxo" heterosexuala (hau da, "normala") EDO beste zerbait.

Gizonen artean, giza mugimenduek banaketa hori errepikatu dute. Alde batetik, Frantzian, azken hamar urteetan, gizonentzako hainbat talde, hainbat elkarte eratu dira. Batzuek gizonak gizareratu eta beraien bizimodua hobetzeko nahia dute (Guy Corneau-k eragindako gizon-sareak); beste batzuek, aldiz, beraien usteetan, gizonen kalterako dagoen sexismoaren aurka borrokatu nahi dute (gehienak aita dibortziatuen elkarteak dira (26), Izaera Maskulinokoen Mugimenduak...). Elkarte eta talde horiek gizonen sufrimenduen aurka borrokatzen ahalegintzen direla esan genezake. Horiei guztiei feministekin batera sexismoaren, homofobiaren, behartutako gizontasunaren aurka borrokatzen duten gizon taldeak ere gehitzen badizkiogu, feminismoak nahi izan dituen aldaketan aurrean agertu diren erantzun maskulinoen irudi zuzena izango dugu.

Gizon horiek berak, urte batzuk geroago, Frantzian eta Europar profeminista gisa agertu dira. Profeminista terminoa 1996ko GREMFeko mahai inguruan, Quebec-en, parte hartu zuten gizon eta emakumeek aho batez onartu zuten. Aurrez antisexista, maskulinista (27) ... izendatutako gizonak adierazi nahi dira termino horrekin; eta gizonen analisi feministekiko duten elkartasuna adierazi eta emakumeen mugimenduaren autonomia errespetatu feminista terminoaren eskusibitatea emakumei utziz. Etendura garrantzitsu bat ere adierazten du. Profeminista diren gizonak gizararte gizon moduan eraturako pertsonatzat dute beren burua, eta, beraz, emakumeekin dominanteak dira. Profeministak existitzeak zalantza jartzen du gizon eta emakumeen artean, dominante eta dominatuen artean, aliantza eta analisi berak egiteko gaitasuna. Europar profeminismoak emakumeen zapalketaren arazoaz gain, gizon dominanteen alienazioaren arazoa ere planteatzen du.

Halaber, "squats" mugimenduen inguruan eta hainbat talde libertario eta antifaxistaren inguruan, talde antisexistak eratu dira azkenaldian (Nantesen, Lillen, Parisen, Lyonon, Montpellierren...), eta horiek sexismoaren, homofobiaren eta lesbofobiaren aurkako borroken arazoa planteatzen dute, beste hainbat arazorekin batera edo bakarrik.

(26) Gai honi buruz, Germain Dulac-en lan berritzailea (1993) irakurtzea gomendatzen dugu.

(27) Termino hori 80ko hamarkadan Frantziako gizon progresisten taldeek hartu zuten, eta garai hartan ez zuen inolako errebantxa konnotaziorik, ez eta erreakzionariorik ere.

Gainera, inguru oso desberdinetan, heterosexualitate arau emailearen eta horren ondorio diskriminatzailearen aurka borrokatzen duten gizonak ageri dira, esate baterako, FHAR (gizonek eratu-tako mugimendua), PACS eta homosexualitatearen aurkako lege murriztaileak indargabetzea eskatzen dutenak (28). Talde dominatu diren heinean, homosexual maskulinoek pairatzen dituzten zapalketak ezagutzera eman dituzte: herrialde askotan errepresioa –Frantzian barne–; gainerako gizonek baino eskubide gutxiago; ustez, bigarren mailako herritarren moduan tratatzen dituztela, leku publikoetan erasoak izatea; testuliburuetan ez agertzea, eta horren ondorioz, oraindik ere gehiago isolatuta egotea...

Bi joera horien artean, ez dago harremanik, gauza gutxi (29). Hurbiltzeko saiakera batzuk, baina askotan talde bakar batekoak dira: gayak. Izan ere, beren buruak dominatutzat dituzte –eta arrazoi dute–, eta nahiz eta dominatuak izan, gizonak izaten jarraitzen dute, eta, beraz, emakumeekiko dominanteak dira, eta hori onartezina iruditzen zaie. Edo dominanteen beste talderen bat: beren buruak dominantetzat izan arren, gizon eta emakumeen arteko harremanen bilakaerak kezkatu egiten ditu. Eta, hala ere, analisi kritikoa osoa izateko, ezinbestekoa da maskulinoaren "matxo" eredu osoaren kritika onartzea. Gainera, hainbat gauzak bi joera kritikoen arteko tartea areagotzen dute: esaterako gizon homosexual batzuen misoginiak; edo gay afeminatu batzuen aurka erabilitako diatriba homofoboek ("eroak"), izan ere, zenbaiten iritziz, jolas eta burlaren bitartez, emetasunaren estereotipoak adierazten baitituzte.

Emakumeen egoera ez da berdina –emakume lesbianen ia gehiengoa aspaldidanik feministatzat agertu baita–, baina hala ere paradigma bikoitz hori artikulatzeko zailtasunak daude. Toulouseko mintegiko azken lanek, "Gayak, lesbianak, bisexualak, transgeneroak, "queers"ak; orientazioa eta nortasun sexuala, genero gaiak" mintegikoek adierazi dutenez, emakumeen mugimenduen barruan emakume lesbianen eta feminista ez lesbianen arteko harremanak oso konplexuak dira. Emakume homosexualak sarritan kezu dira gainontzeko feministek kontuan hartzen ez dituztelako, dirudienez.

Feminismoak gaur egun joera desberdin eta ugari biltzen ditu. Nola bultzatu behar da emakume eta gizonen artean berdintasunaren aldeko eta sexismoaren aurkako gaiak jorratuko dituen eztabaida zabala? Nola saihestu behar da gizonen elkarrekin emakumeekiko desbideratze erreakzionario eta sexistak egotea?

Egungo hutsunea izugarria da. Ez da maskulinoaren gizarteko egituren analisi osorik egin, zailtasunak daude gizonek emakumeekin dituzten harremanetan izan diren aldaketak ulertzeko, bai eta gizonekin dituzten harremanetan izandakoak ulertzeko ere.

(28) 1981 baino lehen, harreman homosexualei dagokienez, sexurako adin nagusitasuna geroago eskuratzen zen.

(29) Salbuespen bat ezik: *Star* aldizkaria. Horrek feminismoa eta homofobiaren aurkako borroka lotzen ditu. "Hetero edo homo, "matxo"ekiko errukirik ez". *Star*-ek gero eta gehiago ekiten dio generoaren identitatearen "queers" kritikari: "Gu "Queers" gara, ez baikara heteroak; baizik eta bisexualak, lesbianak, gayak, trabestiak, transexualak..." irakur daiteke 1994an argitaratu zuten iragarki batean. Beste zenbait elkarrekin ezin dira ahaztu, esaterako MFPP (Famili plangintzarako frantziar mugimendua). MFPPk aspaldidanik, borroka feministak eta homosexualei buruzko analisi anti-diskriminatzaileak hainbat modutan jorratzen ditu.

Maskulinoa bere osotasunean eta hamaika zatitan

Gizonen gizarte egoera aldatu egin da. Badira, noski, etxeko lan guztiez edo batzuez arduratzen diren gizon aurrerakoi eta berdintasunaren aldekoak (gutxi batzuk), bereziki bakarrik bizi badira. Badira, emakumeekin batera, politikan berdintasuna egon dadin borrokatzen dutenak; garbitasunaren, txukuntasunaren edo maitasunaren estandar asimetriko bikoitzaren kontra, ahal duten bezala, borrokatzen dutenak, eta emakumeekin berdintasuneko hitzarmen bat negoziatzen saiatzen direnak. Badira giro misto batean hezi eta oso goiz, beraien lagun neskekin ikuspegi berdin bat aurkitu behar izan dutenak; profeministak diren ehun bat gizon horiexek ...

Baina ez dira ikus daitezkeen transformazio bakarrak. Figura berriak sortu dira: transgenders-ak (30) –prostituzioari buruzko azterketetan agertzen dira; esaterako, ordenadorez erakusten diren identitate asexuatu eta sexualen nahasketa iraunkor edo momentukoa (31); ehunka SNAG (Sensitive New Age Guys) (32) –Australian horrelaxe deitzen zaie– ; eta drag queens-ak, emakumez janzten diren gizonak, beren buruak ez homosexual ezta trabestizat ere ez dituzten horiek. Horrek guztiak, hain zuzen, maskulinitatearen inguruan, antza, nagusi den desordenako figura berriak erakusten dizkigu (Balandier, 1988).

Gizon horien ereduak, aldarrikapenak eta bizipenak oso ezberdinak dira, baina zenbait gauzatan bat datoz: modu objektibo edota subjektibo batean, zalantzan jartzen dituzte "maskulinitatearen" definizio homofobo eta heterosexistak; eta gizarteko definizioak hausten dituzte. Generoaren mugek, gizonen dagokienez, zatikatzeko joera dute, lehertzekoa, maskulinoa hamaika zatitan egin.

Zer ari da gertatzen? Aldaketa azaltzeko interesgarriak diruditen hipotesi ugari daude, eta historiak esango digu ea moda fenomeno soilik den edo maskulinoa genero gisa benetan aldatzen ari den.

(30) "Transgenders" gisa definitu ditugu jaiotzez gizon diren eta emakume moduan prostituitzen direnak. Gure ikerketan laneari, Lyonen 1992an Odette Barbosa eta Lillian Mathieu-kin egindakoan, hiru emakumetik bat transgender-a zen (kopuru hori ohikoa da Europako hiri handietan), baina ikertzaileen ustetan heterosexual ziren bezeroen zati handi bat bereganatzen zuten.

(31) Ez da bat ere berria, hain zuzen, Jacques Revel-ek (1984) adibide historiko batzuk ematen ditu.

(32) Beren baliokideak dituzte Frantzia eta Quebec-en: Quebec-eko Gizonen Sarea edo Frantziako Gizonen Sarea, Guy Courneau-k eratua. Beren maskulinitatea eta emakumeekin dituzten harremanak hobeto bizitzeko adierazpide edota terapia taldeak erabiltzen dituzten gizonak dira.

Emakumeen borrokek eta feminismoak arrakasta handiz gaitzetsi dute gizonen nagusitasuna, baina inoiz ez behin betiko atzean uzteko moduan. Egia esan, dominazioak luzaroan dirau, baina gainbehera doa eta indar zapaltzaile bortitz hori galtzen. Aldi berean, genero maskulinoak beste eduki, balio batzuk bilatu ditu. Horrek ez du esan nahi, inola ere, dominazio maskulinoa birmoldatu egingo ez denik, edo maskulinitateari buruzko kuestionamendua lineala denik, edo sexu gizarte-harremanen arteko egituraz edo gizarte mailen egituraketaz ahaztu behar dugunik.

Aldi berean, eta hiesak homosexualitatean izandako eraginak bizkortuta, gay mugimenduak maskulinoaren oinarri homofoboak eta gizonen arteko harremanetako hierarkia batzuk kritikatu ditu. Aurrez aipatu dudan bezala, gayak gizonengan femeninoa dena azaleratzea ezkutatu nahi ez badute ere, FHARek (eta bere "gazoline" ospetsuek), GLHk eta CUARHeK (Errepresio Homosexualaren Aurkako Larrialdi Batzordeak) bere militante garaian, gay merkataritzak eta hiesaren aurka borrokatzeko elkarteek, egun, argitara atera dituzte maskulinitatearen beste eredu batzuk. Noski, berriro ere, maskulinitatearen urratze horiek, maskulinoaren aldagai horiek, ez dituzte zalantzan jartzen berez gizarteko sexu harremanak (edo genero harremanak). Janis Raymond-ek emakume transexualen kasuan adierazi zuen, jada (1981): gay batzuek emakume homosexual batzuek bizi dutena beraien bizi dutenaren desberdina dela ulertzeko duten zailtasuna beste adibide bat da (33). Nicole-Claude Mathieu-k (1994) ezin hobeto azpimarratzen duenez, "ez dakigu "gizonen" kategoriarik badagoen, maskulinoari buruz soilik hitz egiten da".

Sexu gizarte-harremanak kontuan hartuz, figura maskulino berrien azaleratze modu batzuk aztertzerakoan, dominazio maskulinoaren jarrerak zalantzan jartzen ez dituzten adibideak ugari dira: prostituzioaren testuinguruan, transgendesak, gizon moduan, gizonetako bezeroek nahi dutena emakumeak baino gehiago dakitenaren ustea dute, beraien eskaerei hobeto erantzuten jakingo dutela uste dute. Beren buruak "feministatza" agertzen dituzten gizon batzuk erraz asko ematen dizkie lagun neskei feminismoari buruzko lezioak, baina beren gizon izaeraz hitz egiteari uko egiten diote. Drag queensek emakumeak baino ederragozat dituzte beren buruak. Internet erabiltzen duten gizonen dagokionez, emakume telematiko horiek, emakumeak erabiliko ez dituzten lekuak sortuko dituzte, emakumeekin istilurik ez izateko; gizon eta emakumeek grina eta erotismo modu berak ase nahi dituztela sinesteko. Eta noski, "aita dibortziatuen" aldarrikapenak ere aipa genitzake. Zenbaiten iritziz, horiek kontrolatu nahi dutena ez da beraien aitasuna (ARDECOMen militanteekin gertatu zen bezala) beraien neska-lagunaren abortu eskubidea eta kontrazepzioa baizik. Eta beste batzuek emakumeek bortxaketa salaketak aurkezten dituztenean horiei sineskortasun gutxiago adieraztea aldarrikatzen dute.

Laburbilduz, maskulinitatearen gizarteko kategoriak sozialki hausteak, eredu bakarra dela eztabaidatzeak, ezbairik gabe, identitate maskulinoa pairatzen ari den krisi sakona adierazten du, feminismoaren ondorioei eta gayen kritikei aurre egin ezinik. Eta beste gauza bat ere adierazten du: genero barruko harremanen transformazioa, nahiz eta horrek, agian, eraginik ez izan genero arteko harremanetan, gizon eta emakumeen arteko sexu gizarte-harremanetan.

(33) Nahikoa da, honi dagokionez, lesbofobia terminoa onartzeko dauden zailtasunak ikustea.

Baina gizon eta maskulinoaren alderdi hori aintzat hartzeko, gay, homosexual, "maritxu", "bise-
xual", transgenero... izendatutakoak aintzat hartzeko, ezinbestekoa da egitate soziala ulertzeko
dauden eskemak liberalizatzea. Antisexistek eta profeministek gay eta lesbianen arazoak ulerta-
raztea, gay eta lesbianen problematika ezagutzeko interesa dutenenei feministen eta profeministen
jarrera ulertaraztea, geure ziurtasun gozoez zalantza egiteko modua da, iragan sexista, homofobo
eta lesbofobo batetik heredatutako ziurtasuna baita. "Queer"en problematika (34) horren adi-
bide ona da.

"Queers" aktibistak (35) asimilazioaren aurkakoak dira, eta arau heterosexualetatik desberdintzen
diren genero identitate edota sexu identitateak hartzen dituzten guztiak bildu nahi dituzte: gayak,
lesbianak, transgeneroak, bisexualak... "Queer" analisiak, aldi berean, gizon / emakume bina-
rismoa eta kategoriatan banatutako heterosexismoaren sailkapena kritikatzeko ditu, eta horrekin
gaur egungo aldaketen alderdi bat erakusten du. Baina aldaketa horiek nabaritu ahal izateko,
oraindik, egindako ikerketak "queerizatu" egin behar dira: gizonen sexualitateari buruzko inkestetan
adierazten duten mezua soila gainditu behar da, eta hortik aurrerago joan eta kalean benetan
zer gertatzen den ikusi; prostituitutako pertsonen taldeko kide izateak dakarren irain moral, estigma
(Pheterson, 1992) gainditu; transexualek diotena eta horiek gure usteei buruz esaten dutena
entzun; sexu kontsumoko lekuak aztertu, guk egindako sailkapena okerra dela frogatzeko, etab.
Hau da, gure laborategietatik irten behar dugun jendearengana hurbiltzeko, beraien elkarrizketara
eta ohituretara hurbiltzeko. Hori, zoritxarrez, ez da egungo sexualitateari buruzko azterketetan
erabiltzen den metodologiarik ohikoena. Nire ikerketak Zuzentzeko Gaikuntzan zehar izandako
gorabeheretan, Soziologo bikain batek azpimarratzen zuen bezala: "autoak egiten dituzten tailer
bateko jokaera aztertzea, soziologian, oso arrunta da; metodo hori bera erabat eskuinekoak diren
militanteekin erabiltzea edo sekta bateko jarraitzaileekin erabiltzea zertxobait ausartagoa da; bai-
na prostitutoen bizitza edo bikoteko hartu-emanak aztertzeko bide berdina jarraitzea eskandala-
garria da eta norbaitek maltzurkeriaz jokatu duzula lepora dakizuke".

Queer terminoa, hitz-irudia edo kontzeptua, frantsesua bera, agian, maskulinoaren kritikako ana-
lisietan nagusi den desordenaren ordezkari bihurtu daiteke. Pierre Bourdieu-k (1997an) gay
eta lesbianen mugimenduak ordezkari enblematiko baten gabezia zuela adierazi zuen. Zeinu be-
reizgarri baten gabezia ere badagoela esaten da, arautegi heterosexuala kritikatzeko duten mugimenduen
bandera (36) falta dela, bere baitan militante belaunaldi berrietako gay eta lesbianak

(34) Sylvie Tomolillok egin duen joera horren analisi kritikoa argitaratzeaz dago.

(35) Brigada Arrosak, Ejertzito Arrosako Frakzioak, Ejertzito Arrosako Bihotzak, *Androzine* aldizkaria eta, batez ere, *Star* aldizkaria (Lyon) dira aktibisten agerpen berri horietako batzuk. Pariseko Zoo mintegiak bi urtetan "queer" analisia egin du (Marie-Hélène Bourcier, 1998). Toulousen, gai horri buruz hainbat eztabaida antolatu dira, bereziki Betiereko Barkameneko Ahizpei buruzko ikerketa dela eta, Sylvie Tomolillok eta Yves Le Talec-ek egina.

(36) Hori, azpimarratzea komeni da, amerikar "queer" aktibisten nahiaren aurkako da, ez baitute inoiz nahi izan queer terminoa bandera edo ikur bihurtzerik.

bilduko dituen, baina baita sexu binarismo horretatik kanpo egon nahi duten pertsonak ere hartzen dituzten mugimenduen ere. Nahikoa da, horri buruz, Frantzian Lesbiana eta Gayen Harrotasun Egunean izan zen jende pila gogoratzea, izan ere arazo hori ezin da gayen komertzioek (37) –PACSek eragindako laguntzeko mugimenduak– egun duten erakarpenera mugatu, homosexualizazioaren gain beste jende mordoxka bat ere biltzen baitu.

10.

Gizonak eta maskulinoa eztabaidagai

Alde batetik, gizonen emakumeengan duten nagusitasuna definitzen duen paradigma naturalista bikoitzak, eta, bestaldetik, sexualitate maskulinoak nolakoa izan behar duen agintzen duen arauak badute antzekotasunik: benetako gizonak, gizon normalak nolakoa izan behar duen esaten duen andro-heterozentratutako arau politiko homofoboa sortzen dute. Gizona da, gizon-gizona, bai bere buruaren ordezkapenean, bai bere ohituretan; ez da afeminatua, aktiboa da, dominantea, eta generoaren abantaileri etekina atera diezazkioke. Gainontzekoek, beren itxuragatik edo gizonenganako sexu zaletasunagatik bereizten direnak, intsumisio modu bat adierazten dute generoarekiko, arau heterosexualekiko, sexuaren "doxa"rekiko (Haicault, 1992), eta sinbolikoko gizonen taldeak baztertzen dituzte, "besteen" taldekoa izateagatik, dominatuen taldekoa izateagatik; hots, emakumeek, haurrek eta gizon normala ez den edozein pertsonak osatzen duen taldera baztertzen dituzte.

Eta gizarte zientzietan ere –bai eta senean ere– analisi heterozentrista da nagusi. Kasu onenetan ere, gaur egun, homosexualitatea argitaratu ateratzeko borrokan ondoren, hiesaren homosexualizazioarekiko erakutsitako itxurazko errukiaren ondoren (Defert, 1990), Altmann-en hitzetan (1971) "heterosexismo diferentzialista" bat, "tolerantzia zapaltzaile" bat agertu da, gizaki desberdinak daudela onartzen duena: homosexualak izan badira, eta, beraz, normala da, aurrerakoa, esku-bide batzuk ematea (38).

Homogurasotasunari (39) buruzko azken eztabaidetan –testu hau argitaratzean oraindik gaurkotetasun handia du gaiak–, argi eta garbi adierazten dira analisi diferentzialista naturalista horren helburu objektiboen mugak.

(37) Nahiz eta gaueko komertzioetan gayen establezimenduen nagusitasuna bizimodu homosexuala biztanlerian oro har, eta bereziki gazteen artean, integratzeko modu bat ere izan den.

(38) Heterosexismo diferentzialista horrek batzuetan "homofobia diferentzialista" ere eragiten du, adibidez, onartu egiten denean homosexualak (edo beste talde espezifiko batzuek) gizon eta emakume normalen ezaugarriez bestelako ezaugarri indibidualak zein kolektiboak dituztela (sentikortasuna, gustuak...).

(39) Haurrak izan edota hezteko gizon eta emakume homosexualen gaitasun juridikoa eta soziala.

Feministek dominazio maskulinoari egindako kritiken ondoren, batzuk eredu bakar bat (Bata bestea da) agertuko zen beldur ziren, desberdindu gabeko androgino baten eredu. Eta hain zuzen ere, aurkakoa da gizonen artean sortu dena. Transgender-ak, transgenerikoak, drag queen-ak, SNAGak, "gender fuckers"ak dira adibide horietako batzuk. Maskulinitate eta feminitate eredu dualtasunaren bestaldean, sexismo edota homofobia edota patriarkatu/biriarkatuari kuestionatzen duten mugimendu maskulinoek eredu berriak agertzeko bidea ematen dute, eta horietan sexu gizarte-harremanekin lotutako barne borrokek beste eztabaida lekuak bilatzen dituzte.

Nola aztertu behar dira ereduaren transformazio horiek, gorabehera horiek, itxurazko hauste horiek? Zein tresna teoriko erabili behar dira bilakaera horietan benetako aldaketak zein diren jakiteko, edo aldaketa kosmetikoak bakarrik diren jakiteko, edo feministek kritikatu bezala matxoek –heteronormalizatua izan ala ez– boterea berreskuratzeko moduak diren jakiteko?

Maskulinoa egituratzen duen paradigma naturalista bikoitzari dagokionez, jarrera kritikoa hartzea, gainera, gizarte zientzietako eztabaidak berritzea dakar, bai eta beste hainbat alorretakoak ere. Arau heterosexualak oinarri ez dituen analisiak eztabaidak eragiten ditu, gizonez eta emakumez ditugun aurreuposizioak zalantzan jartzen ditu. Momentuz, aurrerakoitzat eta ez-baztertzailatzat hartzen diren testuetan, heterosexismo diferentzialista nabarmentzen den testuetan, oin ohar batek jakinarazten digu egileak bere analisiak homosexualentzat ere balio duela pentsatzen duela (40). Noski horiek ere badaude, baina gauza ez da horiek badaudela argitara ematea; aitzitik, beraien presentzia analisisietan integratu behar da, horiek ikusezin izatea egiten duten aurreuposizio naturalistak eztabaidatu egin behar dira.

Gure paradigma kritikoak aldatzea, analisi antisexistak eta ez heteronormatiboak ontzat hartzea, edo, gutxienez, adieraztea tresna bikaina da gizon eta maskulinoari buruz ditugun irudikapen unibokoak eta askotan uniformeak desegiteko. Gaur egun, beste sexualitate eta genero mota bat bizi, erakutsi edo iradokitzen duten gizon eta emakumei (41) entzutea lagungarri da horretarako.

(40) Metodoa ezaguna da. Askotan beren testuak feminizatu nahi ez dituzten egileek erabiltzen dute; nahiz eta testua maskulinoan idatzita egon, emakumeak ere barne daudela adieraziz.

(41) Probokatu egiten dutenez, genero ezaugarriak faltsifikatzen eta desbideratzen dituztenez ari naiz, izan ere, horrela adierazten dute beraien naturaltasun eza.

Bibliografia

- ALTMAN Dennis, 1993, *Homosexual oppression and liberation*, 2d edition, New York University Press, New York [Première édition, 1971].
- BALANDIER Georges, 1988, *Le Désordre*, Paris, Fayard.
- BATTAGLIOLA Françoise, Combes Danièle, Daune-Richard Anne-Marie, Devreux Anne-Marie, Ferrand Michèle, Langevin Annette, 1986, *À propos des rapports sociaux de sexe. Parcours épistémologiques*, Paris, C.N.R.S.-C.S.U., épuisé, Réédité in Coll. C.S.U., Paris, 1990.
- BOURDIEU Pierre, Sept. 1990, "La domination masculine", in *Actes de la Recherche en Sciences Sociales*, 84 zk., 2-31 orr.
- BOURDIEU Pierre, Dec. 1997, "Quelques questions sur la question gay et lesbienne", in *Liber* n° 3, pp. 7-8, repris in Eribon Didier, (dir.), 1998, *Les études gays et lesbiennes, Actes du Colloque du centre Georges Pompidou, 23 et 27 Juin 1997*, Paris, éd. du Centre Georges Pompidou, 45-50 orr.
- BOURDIEU Pierre, 1998, *La domination masculine*, Paris, Seuil. coll. Liber.
- BOURCIER Marie-Hélène (zuz.), 1998, "Q comme Queer", Lille, GKC, *Collection Question de genre*.
- BOZON Michel, 1998, "Amour, désir et durée. Cycle de la sexualité conjugale et rapports entre hommes et femmes", in Bajos Nathalie, Bozon Michel, Ferrand Alexis, Giami Alain, Spira Alfred et le groupe ACSF, *La sexualité aux temps du sida*, Paris, PUF, 175-252 orr..
- COLLECTIF, 1984, *Le sexe du travail. Structures familiales et système productif*, Grenoble, Presses Universitaires de Grenoble.
- COMMAILLE Jacques, 1992, *Les stratégies des femmes, travail, famille et politique*, Paris, La Découverte.
- Communications, *Sexualités occidentales*, 35 zk., 1982.
- Contraception masculine-paternité*, 1 zk., Février 1980; 2. zk., Novembre 1980.
- CORNEAU Guy, 1989, *Pères manquants, fils manqués*, Montréal, éd. de l'Homme.
- DAGENAIS Huguette, DEVREUX, Anne-Marie (1998), "Les hommes, les rapports sociaux et le féminisme : des avancées sous le signe de l'ambiguïté" in Dagenais H., Devreux, A.M. (Dir) "Ils changent, disent-ils", numéro commun *Nouvelles Questions Féministes*, 19.Tomoa, 2-3-4zk, Recherches Féministes, 11. Tomoa, 2 zk., 1-22. orr.
- DEFERT Daniel, 1990, "l'homosexualisation du sida" in *Gai Pied Hebdo*, 90/11/29
- DELPHY Christine, 1970, "L'ennemi principal " in *Partisans*, n° spécial, "Libération des femmes, année zér", Juillet-Août 1970, 54-55 zk., 57-172 orr. réédité en 1998: in *L'ennemi principal*, 1. Tomoa: *Economie politique du patriarcat*, Paris, Syllepse, 31-56 orr.

-
- DELPHY Christine, 1991, "Penser le genre", in Hurtig Marie-Claude, Kail Michèle, Rouch Hélène (Zuz.), *Sexe et genre, de la hiérarchie entre les sexes*, Paris, éd. CNRS, 89-107 orr.
- DELPHY Christine, 1998, *L'ennemi principal*, 1. Tomoa: *Economie politique du patriarcat*, Paris, Syllepse (recueil d'articles).
- DEJOURS Christophe, 1998, *Souffrance en France, la banalisation des l'injustice sociale*, Paris, Seuil.
- DEVREUX Anne-Marie, 1995, Sociologie généraliste et sociologie féministe: les rapports sociaux de sexe dans le champ professionnel de la sociologie, in *Nouvelles Questions Féministes*, 16. alea, 1 zk.
- ERIBON Didier, (dir.), 1998, "Les études gays et lesbiennes", *Actes du Colloque du centre Georges Pompidou*, 23 et 27 Juin 1997, Paris, Editions du Centre Gorges Pompidou.
- FALUDI Susan, 1993, *Backlash, La guerre froide contre les femmes*, Paris, éd. des femmes, 1ère éd. US : 1991.
- FLANDRIN Jean-Louis, 1981, *Le sexe et l'occident*, Seuil.
- FLANDRIN Jean-Louis, 1982, "La vie sexuelle des gens mariés dans l'ancienne société : de la doctrine de l'église à la réalité des comportements", in Aries Ph., Béjin A., (dir.), *Communication 35 zk.: Sexualités occidentales*, Paris, Seuil.
- FLANDRIN Jean-Louis, 1984, *Familles, Parenté, maison, sexualité dans l'ancienne société*, Paris, éd. du Seuil.
- FOUCAULT Michel, 1976, 1984, 1984, *Histoire de la sexualité: 3 tomes ; T1: la volonté de savoir, T2: l'usage des plaisirs, T3: Le souci de soi*, Paris, Gallimard.
- GODELIER Maurice, 1982, *La production des Grands Hommes*, Paris, Fayard, réédition en 1996.
- GODELIER Maurice, 1995, " Du quadruple rapport entre les catégories de masculin et de féminin", in EPHESIA, *La place des femmes, les enjeux de l'égalité au regard des sciences sociales*, Paris, La Découverte, 439-442 orr.
- GUILLAUMIN Colette, 1978 a, b, "Pratique de pouvoir et idée de nature : 1- L'appropriation des femmes ; 2- le discours de la nature" in *Questions Féministes*, 2.zk. et 3.zk., février, mai 1978.
- GUILLAUMIN Colette, 1992, *Sexe, race et pratique du pouvoir: l'idée de Nature*, éd. Côté-Femmes.
- HAICAULT Monique, 1984, "La gestion ordinaire de la vie à deux", in *Sociologie du Travail*, 3.zk., 268-275 orr.
- HAICAULT Monique, 1992, "Le symbolique dans la complexité des rapports sociaux de sexe: le travail de la doxa", in *Actes du XIVe Congrès de l'AISLE, Groupe de Travail "Sociologie des Rapports Sociaux de Sexe"*, Toulouse/Aix-en-Provence.

- HURTIG Marie-Claude, KAIL Michèle, ROUCH Hélène (Dir), 1991, *Sexe et genre, de la hiérarchie entre les sexes*, Paris, éditions du CNRS.
- LE TALEC Jean-Yves, 1998, *Les Sœurs de la Perpétuelle Indulgence: du mélange des genres à l'action politique au temps du sida*, Mémoire de DEA de Sociologie, Université de Toulouse 2 - Le Mirail.
- LOUIS Marie-Victoire, 1999, "Bourdieu, défense et illustration de la domination masculine", in *Les temps Modernes*, 604 zk., 325-358 orr.
- MATHIEU Nicole-Claude, 1971, "Notes pour une définition sociologique des catégories de sexe", in *Epistémologie sociologique*, Paris, 1 zk., 19-39 orr; réédité Mathieu N.-C., 1991, *L'anatomie politique, catégorisations et idéologies du sexe*, Paris, Côté-femmes, 17-41 orr.
- MATHIEU Nicole-Claude, 1985, "Quand céder n'est pas consentir, des déterminants matériels et psychiques de la conscience dominée des femmes, et de quelques-unes de leurs interprétations en ethnologie" in *L'Arraînement des Femmes, essais en anthropologie des sexes*, Paris, E.H.E.S.S., 169-245 orr.
- MATHIEU Nicole-Claude, 1989, "Identité sexuelle/sexuée/de sexe. Trois modes de conceptualisation du rapport entre sexe et genre" in Daune Richard, Hurtig, Pichevin, (dir.), *Catégorisation de sexe et constructions scientifiques*, Aix -en-Provence, Université de Provence, CEFUP, 109-147 orr.
- MATHIEU Nicole-Claude, 1991, *L'anatomie politique, catégorisations et idéologies du sexe*, Paris, Côté-femmes (recueil des principaux articles).
- MATHIEU Nicole-Claude, 1994, "Dérive du genre, stabilité des sexes", in Dion Michel, (Zuz.), *Madonna, érotisme et pouvoir*, Paris, 54-70 orr.
- MATHIEU Nicole-Claude (1999), "Bourdieu ou le pouvoir auto-hypnotique de la domination masculine", in *Les temps Modernes*, 604 zk., 296-324 orr.
- MOLINIER Pascale, 1997, "Autonomie morale subjective et construction de l'identité sexuelle: l'apport de la psychodynamique du travail", in *Revue internationale de psychosociologie*. III Alea 5 zk.: 53-62 orr.
- NEISEN Joseph, 1990, "Heterosexism or homophobia ? The power of the language We Use" in *Outlook*, 10 zk., 36-37 orr.
- PHETERSON Gail, 1992, "La catégorie "prostituée" dans la recherche scientifique", in *Collectif, La prostitution, quarante ans après la convention de New York*, Ecole des sciences criminologiques Léon Cornil, Bruxelles, Bruyllant, 373-386 orr.
- POLLACK Michaël, 1988, *Les homosexuels et le SIDA, Sociologie d'une épidémie*, Paris, Métailié.

-
- SINGLY (de) François, 1984, "Les manoeuvres de séduction", in *Revue française de sociologie*, XXV alea, 523-559 orr.
- SINGLY (de) François, 1987, "Théorie critique de l'homogamie", in *L'année sociologique*, 37 zk., 181-205 orr.
- SINGLY (de) François, 1993, "Les habits neufs de la domination masculine", in *Esprit*, 11 zk., 54-64 orr.
- SINGLY (de) François, 1996, *Le soi, le couple et la famille*, Paris, Nathan, coll. Essais et Recherche.
- TABET Paola, 1985, "Fertilité naturelle, reproduction forcée" in *L'Arraînement des Femmes, essais en anthropologie des sexes*, Paris, E.H.E.S.S, 61-146 orr.
- TABET Paola, 1998, *La construction sociale des inégalités des sexes, Des outils et des corps*, Paris, L'Harmattan, bibliothèque du féminisme (recueil d'articles).
- TOMOLILLO Sylvie, 1998, *Identités sexuelles et luttes radicales : le mouvement queer et les Sœurs de la Perpétuelle Indulgence, mémoire de maîtrise de sociologie*, Université Toulouse Le Mirail.
- WELZER-LANG Daniel, 1988, *Le Viol au Masculin*, Paris, L'Harmattan.
- WELZER-LANG Daniel, Mars 1990, *L'homme au masculin: approche anthropologique de la violence masculine domestique*, Thèse pour le doctorat en sociologie et sciences sociales, Université Lumière Lyon 2.
- WELZER-LANG Daniel, 1991, *Les hommes violents*, Paris, Lierre et Coudrier. Réédition en 1996 par les éditions Côté femmes, Paris.
- WELZER-LANG Daniel, 1992a, *Arrête, tu me fais mal...la violence domestique 60 questions, 59 réponses*, Montréal, Paris, éd. Le Jour, V.L.B.
- WELZER-LANG Daniel, (zuz.), 1992b, *Des Hommes et du Masculin* (avec J.P. Filiod éd.), Aix en Provence - Université de Provence - C.R.E.A., Université Lumière Lyon 2, CEFUP, Presses Universitaires de Lyon, (*Bulletin d'informations et d'études féminines*, n.s.)
- WELZER-LANG Daniel 1992c, "Le double standard asymétrique" in Welzer-Lang Daniel, Filiod J.P. (dir), *Bulletin d'Informations et d'Etudes Féminines (BIEF), Des hommes et du masculin*, CEFUP-CREA, Presses Universitaires de Lyon.
- WELZER-LANG Daniel, 1994, "L'homophobie, la face cachée du masculin", in Welzer-Lang D., Dutey P-J., Dorais M.: *La peur de l'autre en soi, du sexisme à l'homophobie*, Montréal, V.L.B, pp 13-92
- WELZER-LANG Daniel, 1994, *Prostitution, les uns, les unes et les autres*, Paris, Anne-Marie Métaillé (en coll. avec Barbosa Odette et Mathieu Lilian)

-
- WELZER-LANG Daniel, 1995c "Les transgenders ou comment classer l'inclassable" in *Quels Corps, Constructions sexuelles*, 47-48-49 zk, 1995eko Apirilak, 181-192 orr.
- WELZER-LANG Daniel, 1997, "Les hommes: une longue marche vers l'autonomie" in *Les Temps Modernes*, 593 zk., 1997eko Apirilak-Maitzak, 199-218 orr.
- WELZER-LANG Daniel, 1998 (zuz.), "Entre commerce du sexe et utopies: l'échangisme", *Actes du premier séminaire européen sur l'échangisme*, Toulouse, Mars 1998, Université Toulouse Le Mirail, Département de Sociologie (Université de Barcelone), Département d'Anthropologie Sociale et Philisophie, Universitat Rovira i Virgili (Tarragone).
- WELZER-LANG Daniel, 1998, "La "planète échangiste" à travers ses petites annonces" in *Panoramiques, Le clūr, le sexe et toi et moi...*, 111-123 orr.
- WELZER-LANG Daniel, 1999, "Et les hommes ? Etudier les hommes pour comprendre les changements des rapports sociaux de sexe", Université Toulouse Le-Mirail, *dossier d'Habilitation à Diriger les Recherches*.
- WELZER-LANG Daniel, 1999, "les hommes et les rapports sociaux de sexe, ou est le problème" in Lefeuvre N. (Dir) UTINAM, *Le genre: de la catégorisation du sexe*, à paraître.
- WELZER-LANG Daniel (dir), 2000, *Nouvelles approches des hommes et du masculin*, Toulouse, Presses Universitaires du Mirail, Collection Féminin/Masculin.
- WELZER-LANG Daniel, Filiod Jean Paul, 1993, *Les hommes à la conquête de l'espace domestique*, Montréal, Paris, Le Jour, V.L.B.
- WELZER-LANG Daniel, Mathieu Lilian, Faure Michaël, 1996, *Sexualités et Violences et prison, ces abus qu'on dit sexuel en milieu carcéral*, Observatoire International des Prisons, Lyon, éditions Aléas.

ERICK PESCADOR ALBIACH

**Soziologo eta Sexologoa,
Genero eta Maskulinitasunari
buruzko espezialista.
Unibertsitate Complutensea.
Madril.**

Estuhartz

estrategiak

herkuntza

alorrean:

Maskulinita-

suna eta

nerabeen

populazioa

Laburpena

Zaila da gaur egungo nerabeak behatzea eta ez harritzea euren hizkuntzaren eta jokabidearen indarkeri latzaz, etorkizunaren aurrean euren motibazio ezaz eta etengabe genero-deberdintasunak berresten aritzeaz –mutilek beldurragatik eta neskek aldaketen aldeko borrokagatik–. Mutilen kasuan, jadanik ez dago eredu ziurrik eta euren bizitza guztia norberaren izatea eta nolakoa izateko bilaketa zailean datza. Emakumeek, aldiz, badute berezko borroka eta aldaketa-eredurik: menpekotasuna eta ikustesintasan sozialaren eraginez euren ama eta amonak izan direna.

Nerabe mutilentzat maskulinitasuna feminitasunaren aurkakoa da. Emakume eta beste zenbait gizonen aurkako etengabeko borroka da "nortasun ziurra" lortu nahian.

Lan honek DBHko ikasleen (14 eta 18 urte bitartekoak) ideologi eta ikusmoldeak aurkezten ditu maskulinitasunen inguruan: garai berri hauetan "benetako gizona" nolakoa den, nolakoa izan behar duen eta nolakoa izan litekeen. Honela bost esparru desberdin aztertzen dira: akademikoa, etxekoa vs. publikoa, maskulinitasunen adierazpen publiko eta pribatua, genero barruko eta generoen arteko harremanak eta aldaketarako estrategiak.

Azterketatik ondorioztatzen diren emaitza harrigarriek esker generoen arteko bake eta berdintasun gunea oraindik eraikitzeke dagoela eta maskulinitasunaren ideia tradizioanala desegituratzea beharrezkoa dela ikusten da.



1.

Ideologia eta kontzeptzioen inguruan nerabeekin egindako ikerketa

Azken urteetan zehar, generoen arteko desberdintasunei buruzko datu kezkarriak agertu dira: ikasketen emaitzak, lanbide-espezialitateen aukeraketak, asertibitatea, motibazioa, ea. Gizonek ikasketak lehenago uzten ari dira eta emakumeek baino emaitza txarragoak ateratzen ari dira. Baina hori arazo sakonago baten sintoma bat besterik ez da.

Genero-kontuengatik desberdintzeko eta bizitza-aukerak murrizteko prozesu hauek hurbilagotik bizi dituzten pertsonak hezitzaileak dira eta maiz horietatik dator esku hartzeko eta jarraipena egiteko eskaera. Izan ere, gero eta gizon gehiago ari direla ikasketak uzten eta lan-merkatuan (era ezengokorrean), lasterrago sartzen, besteak beste, azpimarratzen dute. Emakumeak, aldiz, gero eta lehiakorragoak dira eta euren ikasketen garapena hobea da. (Barragán, 98) (1).

(1) Arianne Proiektua, 1995-1998. Maskulinitateak eta hezkuntza. *Ampliar los horizontes masculinos y femeninos: Las expresiones de las masculinidades en la adolescencia.*

Deskriba daitekeen etorkizunean gizonak proletario bihurtuak eta emakumeak kulturizatu eta gaituak aurkituko ditugu. Kontua da ere emakume guztiak ez direla erraz lan-merkatuan sartzen, prestakuntza hobea eta handiagoa izan arren, eta lortzen badute beti soldata txikiagoak jasotzen dituztela eta enpresen barruan botere eta zuzendaritza maila altuak erdiestea ezinezkoa egiten zaiela (Gil Calvo, 1997, 43 eta hurr.). Oinarrizko desberdintasun horiek eskolen bidez integratu eta ugaltzen dira, baita eskolek hezkuntza-prozesuetan integratzen dituzten genero-egituren bidez ere. Laburbilduz emakumeen aldaketa soziala badago, baina gizonak ez dute inolako mugimendurik hasi; eta egoera horrek berdintasuneranzko bidean egitura sozialaren egokitzea proposa geldiarazten du.

Ikasgeletan egunez egun gero eta argiago nabaritzen den errealitate hori ikusita, generoarekin loturiko ideologia eta kontzepzio nagusiak zeintzuk diren definitu beharra sortzen da, baita nola horiek honako arloak finkatu ditzaketen ala ez: ikasketen emaitzak, etxean eta kalean dugun jokabide desberdina, maskulinitatearen adierazpen publikoa eta pribatua, genero arteko eta barruko harremanak eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eta zuzentasunaren alde genero-egoera aldatzeko estrategiak.

Hementxe aurkeztuko dugun txostena ikerketa baten emaitza da, maskulinitateak sortu eta mantentzeko dagokionez 14 eta 18 bitarteko gazteen ideologia eta bat-bateko kontzepzioak zeintzuk diren jakiteko asmoarekin diseinatutakoa. Ikerketa hori azken hiru urteetan egin da eta bertan Santa Cruz de Tenerife, Valencia eta Madrileko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako 126 gaztekin parte hartu dute. Gainera Saguntoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean geroxeago egindako esku-hartze esperientzia bat gehitu dugu.

Maskulinitatearen inguruan gazteek azaltzen dituzten ideologia eta kontzepzioen esanahia eta ondorioak aztertuko ditugu. Azkenik eta azterketa osatzearren curriculei zuzendutako aldaketa proposamen-multzo bat agertzen da. Proposamen horien bidez, gure ustez, berdintasuneranzko aldaketa erraztuko litzake, genero-desberdintzearen ondorio kaltegarrienetarikoz, ahal den heinean, txikiagotuz.

Emakumezko eta gizonzko nerabeen harreman eta bizipenekin genero ikuspuntutik eskolan gertatzen denari buruzkoa da lan hau. Berezi arreta jarriko dugu genero-egiturek gazteen prestakuntzan duten eraginean. Jarraian aipatuko ditugu jorratuko ditugun bost esparruak.

Datuak lortzeko eta aztertzeko aintzat hartu ditugu funtsezkotzat jo ditugun bost esparru, atariko ikerketa batetik abiatuz eta hiru epaile adituren adostasunezko metodologiari jarraiki. Esparru hauek guztiak genero-polarizazio eta maskulinitatearen definizioaren inguruan gatazka tradizionalaren adierazpena aurretik aztertutik ateratzen dira. Hona hemen esparruok: Ikasketak, Etxean vs. Jendaurrean, Maskulinitatearen adierazpen publiko eta pribatua, Genero barruko eta arteko Harremanak, eta Aldaketarako Estrategiak.

Ikasketen ikuspuntutik, emaitzez edo porrotaz gain, DBH-ko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) 3. eta 4. mailerako irakaskuntza-plan berriaren eredu irekiaren arabera aukerazko ikasgaien joera eta hautaketa ere aztertu ditugu, baita faktore hauek patriarka-genero nortasunetatik definituak egoteko posibilitatea ere. Esparru hori funts-funtsezkoa da; izan ere, eskolan hori behatzeak atari-

ko ikerketei bide eman zion, zehazki, gizonak ikasteko zituzten zailtasunei eta euren eskola-porraren indize altuari dagokionez. Halaber jolasen eta lorpenerako motibazioaren berrikusketa bat gehitu dugu, alderdi hauetan ere desberdintasunak jarraitzen dutela uste dugulako.

Etxeko eta jendaurreko esparruaz hitz egiterakoan, tradizionalki femeninoak eta maskulinoak hurrenez hurren jo izan diren bi gune aurkatu ditugu. Aurkaritza hori jadanik ez dela existitzen eman lezake, eta gizon eta emakumeek gune biak era berean elkar banatzen dituztela; baina emaitzak ikusita erabat bestelakoa da errealitatea. Zalantzarik gabe, horrek justifikatuko du etxeko lanen banaketa, etxe barruan egiten diren femeninoa eta maskulinoa denaren errepresentazioak, aitatasunaren eta amatasunaren adierazpena eta aisialdiaren banaketa. Hauxe dugu generoen arteko berdintasunari dagokionez gizartea zenbat aldatu den adierazten diguten beste indikatzaile egunerokoetariko bat.

Hirugarren esparrua maskulinitatea ikusteko eta ikasteko erari buruzkoa da; hots, esperientzia maskulinoaren errepresentazio soziala, egunerokotasunetik ikasitako eta sendotutako maskulinitatea. Gizonak, eta emakumeek ere eredu nagusia kopiatzearen ondorioz, arrakastaren eta indarkeriaren esanahia aldatu eta genero nagusi baten kide izatearen indikatzaileak bihurtu dituzte. Atal honetan gune sozial guztietan dagoen androzentrismoa ere aztertu dugu, baita emakumeak eta gizonak elkarri kontrajarrita dauden eta bateraezinak diren bi errealitate bezala desberdintzea ere.

Azkenik hemen ere arretaz hartu dugu homofobia, maskulinitatearen faktore berresle bezala eta mamu handi bezala, genero-nortasuna eta desiraren orientazioa diren bezalako mota desberdineko gaiak banaezinak egiten dituenak.

Maskulinitatearen adierazpena osatzeko, laugarren esparruan genero bereko eta desberdineko pertsonen arteko interakzioa jorratuko dugu, baita pertsona horiek arau sozialari erantzuteko modua eta espresatzeko era: nolako zailtasunak sortzen ditu genero arteko eta barruko harremanen ikuspuntu maskulinoak? Esparru horrek adiskidetasun, maitasun eta sexualitatezko harremanak barne hartzen ditu, kontzeptuek ez dituztela hertsiki banatutako errealitateak definitzen jakinda ere, egunerokotasunean bata bestearen gainean jarri eta konbinatzen baitira.

Amaitzeko, aldaketarako estrategiez hitz egingo dugu, eta berdintasuneranzko aldaketa izan daitekeena gainbegiratu dugu. Komunikabideek defendatzen duten aldaketa da, baina oso gutxitan agertu da eguneroko bizitzan edo bizitza pribatuan. Atal honetan honakoaz galde egingo dugu: aldaketarako kontzientziazio-mailaz, neska-mutiek diskriminazio-errealitatei ematen dizkieten azalpenez eta generoen arteko berdintasuneranzko aldaketa horiek egiteko dituzten benetako estrategiez.

Jorratu ditugun gaiak hain zabalak direnez eta elkar loturik daudenez, logikoa da ikerketa-lana irekia, partizipatiboa, interaktiboa eta zenbaki hutsetara murrizten zaila izatea. Erabilitako metodologi mota, hortaz, batez ere kualitatiboa da eta bi ikerketetan oinarritutako azterketa hartu dugu abiapuntutzat: lehenengoan eztabaida talde misto eta genero bakarrekoetatik (ikastetxe bakoitzeko hiru talde) ateratako ideologiak lantzen dira. Bigarren ikerketan ikastetxe bakoitzeko 10 neska eta mutili egindako elkarrizketa pertsonaletatik sortutako bat-bateko kontzepzioak aztertu dira.

Ikerketa neska eta mutilekin egin arren, azken helburua mutilen gainean bereziki esku hartu ahal izatea da. Gizonezko nerabearen profila gatazkatsu eta aldatzeko zaila agertzen da; neskek, ordea, badute kontu hauetarako aurretiko jarrera ona.

Bataz besteko gizonezko nerabeak honako puntuak izan ditzake ezaugarritzat:

- 14 eta 20 urte bitarteko gizonezkoa.
- Ikasketekiko, akademikoa eta formala denarekiko ezinikusia.
- Ikasketen emaitzak euren neska ikaskideenak baino askoz baxuagoak.
- Arauekin eta diziplinarekin zailtasunak (txukuntasun eta garbitasun falta).
- Mintzaeran eta elkarrizketetan zailtasunak.
- Jakiteko gogoia pizten dioten eta elkarrizketerako gai gutxi: futbola, ibilgailuak eta emakumeak sexualitatea.
- Lehenbailehen dirua eta lanpostu bat izateko nahia.
- Motibazio falta. Ezer berezirik egiteko gogorik ez izatea.
- Amorruez harantz sentimenak eta emozioak adierazteko zailtasuna.
- Etxeko lanekin zailtasunak (bakarrik euren amak behartzen baditu).
- Kirolzaleak dira baina ez dute beste interes kulturalik.

Gure ustez, emakumeek eta gizonek jasotzen duten heziketa desberdinak euren bizitzan zehar nortasun-gatazkak bultzatu eta aukeratzeko askatasuna oztopatzen du. Generoen arabera desberdintzen den egiturak honakoak oztopatzen ditu, batez ere mutilengan: harreman pertsonalak eta nortasun pertsonal sendoa eraikitzea (eta hortaz autoestimua eta aldaketarako motibazioa). Nolabait, hezten ari garen gizonezko nerabeak gatazkan eta apatian murgildurik daude, harremanak izateko ez dira gai eta huts egiteko beldur handia dute.

Ondorioz, ikerketa honetan eta ondorengo esku hartzean planteatzen den arazoa bikoitza da: alde batetik, egun eskolan generoa adierazteko sistemak sortzen dituen arazoak aztertu eta egiaztatzea. Beste aldetik, gatazka horien jatorriari buruzko planteamendu kritikoa eta eman daitezkeen urrats hezitzaileak prestatzea, emakumeen eta gizonen arteko egoera diskriminatzaileak eta elkar ulertzeko zailtasunak zuzentzeko.

Hezkuntza sistemak, oinarriko eragile sozializatzaileetarikoa bat den legez, emakumeen eta gizonen arteko genero-rolak definitzen dituzten ideologiak eta bat-bateko kontzepzioak sortu eta babesten ditu. Nerabezaroan (12 eta 18 urte bitartean) errealitatearen eraikuntza sinboliko hauek espresibitate handiena adierazten dute eta sexualitateko, harreman pertsonaletako eta bizitzako eta ohiko proiektuetako bizipenean onartu eta integratzen dira. Hau da, genero-nortasun eta egoeraren inguruan eskolan ikasitako edo sendotutako ideologiek eta kontzepzioek indibidualitatea itxuratu egiten dute, gure gizartean arazotsutat agertzen diren jokabide-ereduak sortuz. Espazio soziala beraz egoera maskulinoen arabera definitua gelditzen da; izan ere, gure gizartearen jatorria patriarkala da; horrek berarekin dakar emakumeak eredu maskulinoetarako aldatzea eta gizonen espazioak eta ereduak galtzea, emakumeen aurrean horiek definitzen dituen espazioa

gero eta txikiagoa ikusten dutenak. Horrelako prozesuaren emaitza maskulinitateen kaosa eta feminotzat jotako guztiaren ezeztatzea da.

Rol maskulino edo femenino bat onartzearen ondorioz ikasketetarako gaitasunak finkatuta daude, baita ikasteko aukeratutako gaiak ere. Gizonezkoen eskola-porrota emakumezkoena baino askoz handiagoa da eta nerabezaroan bereziki handitzen da. Beste aldetik, lorpenerako motibazioa gizonezkoengan txikiagoa da emakumeengan izan duen hazkuntzarekin alderatuz gero.

Emakumeek etxeko espazioa ere uzten dute espazio publikoa gehiago betetzearren, baina gizonezkoentzat alderantziz gertatzeko pentsaezina da. Ondorioz etxeko espazioa inor gabe geratzen da eta horrek seme-alaben hazkuntzan eta zainketan eragina du. Rol femenino eta maskulinoak elkar lotzen dira baina beti gizonak tradizioaren arabera femeninoak diren rolak hartzerakoan prestigioa galtzen dueneko ustetik abiatuz; emakumeak, aldiz, gizartean prestigioa irabazten du lan munduan eta publikoan sartzetarakoan. Seme-alabekin egoten ez diren aitak eta amak dira. Aisialdia gizonezkoentzat gordetako espazioa da; emakumeek, berriz, ezin dute horretaz gozatu, bere lanaldia publikoa denaren eta pribatua denaren artean bikoizten delako, edo ez dute uste horretaz gozatzeko eskubiderik dutenik. Hori dela eta, aisialdiko jarduera gehienak gizonezkoentzat diseinatzen dira. Geroz eta emakume gehiago lan munduan sartu arren, lanean diskriminazio garrantzitsua egoten jarraitzen du. Gizarteak onartutako diskriminazioa da. Izan ere, emakumeak ikasketarekin, gestioarekin edo indar fisikoaren zerikusia duten lan guztietarako gaitasun gutxiago duelako ustea oraindik zabaldua baitago. Baina zainketa, hezkuntza eta etxeko lanen esparruan ondo ikusiak dira, beti ere soldata txikiagoak jasoz. Hau guztia gaur egungo nerabeen ideologia eta kontzepzioetan islatua ikus daiteke.

Lehenago maskulinitateen adierazpen publikoa aldatzen ez bada, aurreko ezerk ezin da aldaketarantz bilakatu. Gizonezkoaren ideia desberdina sortu ezean, ezinezkoa da emakumeak eta gizonak berdintasun eta zuzentasunetik eta zikiratzen duten genero-eredu eta rolen beharrik gabe elkarrekin bizitzea. Gizonezko eredu tradizionalak arrakastaren ideia estereotipatua sortzen dute, emakumeari lekurik utzi gabe. Aldi berean, gizonezkoengan indarkeriazko jokabideak eta jokabide agresiboak bultzatzen ditu eta emakumeek errepikatzen dituzte. Izan ere, aipatu ekintzak itxuraz arbuia arren, gure gizartean indarkeria helburuak lortzeko mekanismo trebetzat jotzen da. Androzentrismoak eta generoen arteko borrorak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak areagotzen ditu. Homofobia nortasun maskulinoa indartzeko giltzetariko bat bezala agertzen da eta emakumeek ere erabiltzen dute.

Genero definizioak generoen arteko harremanak baldintzatzen ditu eta adiskidetasun, maitasun eta sexualitatezko eredu desberdinak eta maiz antagonikoak agertzen dira, eredu kointzidenteak, osagarriak edo bateragarriak eratzea eragotziz. Predeterminazio sozial horiek genero bereko harremanean ere eragina dute, bereziki gizonezkoen arteko harremanean; azken horretan intimitatea, maitasuna edo hurbiltasun fisikoa deuseztatuta geratzen dira.

Gizonezkoek zuzentasuneranzko aldaketarako ez dutela ez motibaziorik ez estrategiarik deritzogu; izan ere, sozialki sendotutako gizonezkoen eredurik ez dago (lehiakidetzara oso handia delareta). Aldaketa beharrezko kontzientziarik ere ez da existitzen, eta existituz gero bakarrik garapen

betean dagoen feminismoaren lelo sozialaren itxurarekin, baina oraindik banakako kontzientzian sartu. Ez gizonek ez emakumeek ezin dute diskriminazioa eta desberdintasuna azaldu, horrek egoera hori are abstraktuagoa eta aldatzeko zailagoa egiten du.

Lortutako emaitzak aberatsak eta era askotakoa dira, hala ere, hiru gai nagusi lantzen saiatuko gara:

- XXI. mendean maskulinitateek dituzten paradoxak eta maskulinitate eredu tradizionala mantentzea.
- Gizonezko nerabeek emozioak adieraztea eta indarkeriaren genesisia.
- Emaitzen aplikazio praktikoa eta maskulinitateen aurrean kontzientzia kritikoa sortzea.

2. *XXI. mendeko maskulinitateen paradoxak eta maskulinitate eredu tradizionala mantentzea*

2.1 **GIZONEZKOAK EZ DIRA EXISTITZEN**

Etimologia aldetik, gaztelaniazko "masculino" hitza, machorekin lotzen da; azken horren sustraia latinezko "masculus" hitzetik dator, berez "mas / maris" terminoaren txikigarria, esanahi bera duena. Bere hitz eratorriak honakoak dira: "machango", "machona", "machota", "machón", 1734. "Machorra": antzua, (1495 Nebrijaren Dic. Español-Latino), arra bezain ezgaia umea sortzeko. Kultismoak: "Masculino" (1438 Corbacho de Martínez de Toledo), latinezko "masculus"; "masculinidad", 1734. "Emascular", lat. emascular "zikiratu"; "emasculación". Hitz elkartuak: "Machiembrar" (mihiztatu), 1765-83 (Corominas, 1961).

Izenlagun bezala: "... Todo ser dotado de órganos fecundantes. Propio del varón o animal macho...Conjunto de cualidades en que consiste ser masculino o muy masculino" (Moliner, 1966). ("... Ernalketa-organoak dituen izaki oro. Gizonezkoaren edo animalia arraren berezkoa... Maskulinoa izatean edo oso maskulinoa ez izatean datzan ezaugarri-multzoa")

Masculinidad "Es todo aquello que se identifica o tiene calidad de masculino. Consideramos que lo masculino es lo propio del varón o del animal macho. Como adjetivo puede aplicarse a todo ser dotado de órganos fecundantes" (Diccionario Ilustrado de la Lengua Española, 1974) ("Maskulinitzat jotzen dena edo maskulinoa denaren nolakotasuna duen oro. Maskulinitzat hartzen dugu gizonezkoaren edo animalia arraren berezkoa dena. Izenlagun legez ernalketa-organoak dituen izaki ororekin erabil daiteke.")

Gizonezkotzat jotzen badugu maskulinoa dena adierazi eta mantentzen duen eta maskulinitatea adierazten duen gizasemea, horren arabera EZ dira gizonezkoak maskulinoa edo oso maskulinoa

dena adierazten dutenak, zikiratuak daudenak, animalia arraren berezko gauzak egiten ez dituztenak edota ernaltzeko ahalmena duten organorik duten frogatuta ez daudenak.

Ondorioz gizarte jakin baten, esate baterako gurea, gizonezkoen multzotik, honakoak ez dira horrelakotzat jotzen:

- Zentzu tradizionalaren arabera eta arau sozialek eta horiek mantentzen dituzten ideologiek definitzen dutenari jarraiki maskulinoa dena adierazten ez duten pertsonak.
- Maskulinoak izanda ere, oso maskulinoak ez diren gizonak.
- Maskulinoak izanda ere ernalketa-organorik ez duten emakumeak.
- Maskulinoak izan ala ez izan euren organoek ernaltzeko ahalmena dutela frogatu ezin dezaketen mutilak.
- Edozein adineko gizonak, adinagatik edo egoeragatik ezin dutenean ernaldu.

Beharrezkoa litzateke hiztegieta aipatutakoari gehitzea gure gizarteko gizon eta emakumeen ideologietan agertzen dena eta horiek adierazten dituzten kontraesanak:

- Gizonek ez dute negar egiten, negar egiten baduzu ez zara gizona.
- Gizonak ez dira ahulak, sentitzen duzuna adierazten baduzu ahula zara, sentitzen baduzu ez zara gizona.
- Gizonak gizonago dira erektzioa izan eta baginaren hondoan eiakulatzen badute, baina hori ez bada zure helburua edo sexu-jarduera maiteena ez zara gizona.
- Gizonak gizonago dira semeak izaten dituztenean.
- Gizonak ez dira emakumeak, emakumezkoen gauzak egiten badituzu ez zara jada gizona.
- Gizonek boterea dute (politikoa, ekonomikoa, soziala, ea.), ez baduzu botererik ez zara gizona.
- Gizonak indartsuak eta agresiboak dira, baketsu agertzen bazara ez zara gizona.

"Masculinidad" terminoa lehen aldiz 1734. urtean agertu zen, Diccionario de las Autoridades de la R.A.E. (Real Academia Española) hiztegiaren hirugarren liburukian eta honela definitzen dute: "la calidad que constituye o diversifica el sexo masculino, es voz usada en lo forense. Latín 'Masculinitas'. Deriva de 'másculo'." ("Sexu maskulinoa osatu edo dibertsifikatzen duenaren nolakotasuna, auzitegi-medikuntzan erabiltzen den hitza da. Latinez 'Masculinitas'. 'Másculo' terminotik eratorria.")

Gure gizartean maskulinitateak, gizonezkoak dibertsifikatu baino osatu egiten ditu. Horrek esan nahi du sozialki gizartean maskulinitatea adierazteko forma egoki bakarra dagoela eta ez baldin badator zurearekin bat orduan ez zara benetako gizona.

Maskulinitate tradizionalaren aurrean nerabeen ideologi eta kontzepzioetan benetako gizonaren eredu hori agertzen da. Maskulinitate tradizionala definitzeko honako parametro eta erlazioak har ditzakegu abiapuntutzat:

- Emakume ez izatea.
- Itxura.

- Gaitasuna.
- Indarra.
- Boterea.
- Hutsezintasuna.
- Erantzukizuna.
- Ekimena.
- Etengabeko Bilaketa.

Badago ere hasieran nabarmena ez den faktore bat ere: eredu eta itxura alde batera utzita gizonetzko bakoitzaren Nortasun Ezkutua, alegia. Baina badago aniztasunari eutsi eta babesten duten aukerazko eredurik. Gizon heldu edo nerabe bakoitzaren atzean ezkututzen den pertsona nazkatuta dago errepresentatzeaz eta bere buruarekin eta beste pertsonekin sakonki ezin konektatzeaz, beldurrarekiko beldurretik babesteko armadura barruan harrapatua. Gizabanakoa ezkutatu eta gizona ateratzea uzten dute iseka edo ostrazismoa saihestearren. Hala eta guztiz, nortasun ezkutu horren gehiena aurkitzea gizonen aldaketarako berdintasuna handiagoa eta generoak hainbestearino baldintzatzen ez duen gizarteranzko abiapuntua da. Izan ere, orduan gizonetzkoek arautik, arrazionala denatik eta euren gaitasunetik espero denatik arrotz eta emozio eta sentimenekin konektatzen baitira (2).

Balore sozialak eta genero-egiturak gizona izateko eredu bakarra babesten dute, eta inork ezin duenean eredu hori lortu paradoxa agertzen da, hortaz nortasuna maskulinoa beti dago zalantzan jarrita. Gizona izatea ez da egoera bat, baizik eta etengabeko bilatze-prozesua.

Gizonetzko nerabeek ere berean zentzurik ez duen bilaketa hori adierazten dute. Inora doan bidaia da, benetakoa gizon izatea saiaturik benetan gizonetzkoak ez direnean existitzen.

2.2

EZ AL DAGO ANIZTASUNIK?

Maskulinitateaz singularrean hitz egiten dugunean oker ari gara. Maskulinitatea esaten dugunean eta ez maskulinitateak, terminoa alde aurretik singularizat jotzen dugu, ezaugarri maskulinoak errepresentatzeko modu zuzen eta egoki bakarra balego bezala, eta sozialki halaxe da. Hala eta guztiz ere, munduan oraindik daukagun aniztasun kulturalari esker, gizarte desberdinetako hainbat genero jokoaren xehetasunak azter ditzakegu.

"La diversidad masculina persiste de un extremo al otro del mundo a pesar de la creciente occidentalización" (Badinter, 1993, 44) ("Okzidentalizazioa hazten ari den arren, aniztasun maskulinoak bizirik jarraitzen du mundu guztian zehar").

(2) Azken bi urteetan ildo horretan lanean ari naiz gizon taldeekin (nerabeak eta helduak) eta emaitzak ikusgarriak izan dira. Gizonen hausnarketa-taldeetarako eskari irekia ez dago, baina dena dela baldintza egokiak sortzen direnean, talde horiek sortu eta behar ezkutu baten adierazpen bezala era naturalean birsortzen dira. (Pescador, 2000).

Mendebaldeko eta ekialdeko kulturen artean, esaterako, aniztasun soziala handiagoa da, eta ondorioz gizon izateko eta gizentasuna erakusteko modu oso desberdinak aurki ditzakegu. Espainiako gizartean gazteek zerbitzu militarra eginez, zezenaren aurrean jarriz, kontzientzia galdu arte edanez, edo beste edozein egintza arriskutsu burutuz erakusten zuten euren gizentasuna. Txinan berriz, gizentasuna begirunearen bidez eta ohorezko jokaeraren bidez lortzen da, eta sarritan gizonezko zaharragoekiko otzan agertuz; ohorea galtzen duenak maskulinitatea galtzen du.

Honela, beraz, maskulinitatearen kontzeptu murriztua zabaltzen duen faktorea dela kultura aniztasuna esan dezakegu. Baina Gilmore-k dio (1994), gizon izatearen ideia jarraitua gainditzen duela, eta ideia hori maskulinitatea lortzeko frogak egoteak zehazten du, beste batzuen artean. Maskulinitatea beti zalantzan jartzen da, eta aipatu frogak, desberdinak kultura guztietan, gainditzearen arabera da (3).

Gizon adindu baten gaitasunak dituztela erakutsi nahi izaten dute inguruko gizartean, gaitasun eta froga horiek inguruaren arabera desberdinak diren arren. Gizon izateko modu konkretu bakarra osatzeko joera dago, eta honela aniztasuna ekiditen da eta baita horrek eragiten duen nahastea ere.

Bestalde, gizarte bakoitzaren baitan sentitzeko eta pentsatzeko gai diren banakoak izaten dira, eta beraien ezaugarri zirkunstantzialek eta bizipenei dagozkienek egiten dituzte gainerako banakoekiko ezberdin, giza-jokaeraren hegemonia geroz eta handiagoa den arren. Sarritan antzekotasun handiagoa izan ohi da emakume eta gizon baten artean, bi gizonen artean baino.

Montoyak (1998) Nikaraguako maskulinitatea aztertzen du, eta bortizkeriarekin zer nolako lotura duen. "Nikaraguako nortasun maskulino hegemonikoa"z hitz egiten du "ezarritako maskulinitateari" erreferentzia eginez, hots, gizonezko adindun izatera nola heltzen den edo nola ez den heltzen jakiteko "modu legitimoa eta testuinguru soziokulturalaren arabera neurri bezala balio duena (Conell, 1995).

Gizarte-ezarpena eta kultura-joera hori bada ere:

"Cada uno tiene su propia percepción y vivencia de lo que significa "ser hombre". Cada uno vive ese "deber ser hombre" de la masculinidad hegemónica de manera distinta de acuerdo con sus otras condiciones de vida determinadas por la clase, raza, etnia, edad, preferencia sexual, época histórica, etc." (Montoya, 1998, 16).

("Norberak bere pertzepzioa eta bizipena du "gizon izateak" esan nahi duenari buruz. Norberak era desberdinean bizi du maskulinitate hegemonikoaren "gizon izate hori", klase, arraza, etnia, sexu lehentasuna, garai historikoa eta abarrek zehazten dituzten beste bizi-baldintzen arabera.)

(3) Singularrean adierazten den maskulinitate mota honi maskulinitate tradizionala deituko diogu.

Eta abar luze horri zera gehituko genioke: subjektibotasuna, aldakortasuna eta homogeneousaren arteko lotura gisa. Maskulinitatearen gizarte ereduaren zati batek eta pertsona bezala duen nortasun sakonenaren aniztasunak errepresentatzen du gizonetzko bakoitza.

Gauzak horrela, gizonetzkoek "gizon izateko" modua definitzen duten bi parametreri erantzuten diote: batetik, homogeneousoa denatik abiatzen diren alderdi sozialak; eta bestetik, banakotik abiatzen dena haren ingurua eta baldintza berezietan dagokionez. Horrek maskulinitate ideia dibertsifikatzen du eta hortaz pluralizatzen ditu.

"La autoidentidad –es decir, la percepción de sí mismos- se conforma por la conciencia que el sujeto tiene de sí mismo en relación con el mundo, pero también se construye a partir de la identidad asignada por la cultura y el medio social" (Ibid.) ("Autoidentitatea –hau da, norberaren pertzepzioa- munduari dagokionez subjektuak bere buruaren kontzientziaren bidez eratzen da, baina kulturak eta inguru sozialak ematen dion nortasunetik aurrera ere eraikitzen da.")

Maskulinitatea terminoa maskulinoa dena femeninoa denaren gainean hierarkizatzen duten hainbat onarpen sozialari loturik dago. Maskulinitatea beraz bere antonimoa, hots, femeninitatea, baino balio eta errepresentatibitate handiagoko ezaugarria da. Maskulinoa izateak egun oraindik gain balio positiboa du; femeninoa denak, aldiz, kontra balio gisa ere erabil daiteke: "femeninogia da".

Lengoiaren bitartez maskulinoa denaren balioa maiz beronen egunerokoa denak eta tradizionala denak ezkutatua geratzen da. Lengoiak errealtatea maskulino bihurtzen du eta lehentasuna duena, desiragarria dena eta gehiago balio duena zer den finkatzen du.

Patriarkatuak generoen arteko botere-guneak banatu eta zehazten ditu. "Izan zaitez benetako gizona" edo "benetako gizona izan behar zara" bezalako baieztapen edo eskaeren bidez "maskulinitatearen" eta "maskulinoa denaren" ideia positiboa eta baloratua errepikatzen ditu. Horrela arauaren kontrako ekintza "gizon txikia" edo "femeninoa" izatea da, horrek pertsonak balio osoa galtzea ekarriko luke.

Gizarteak oso gogor zigortzen ditu, lotsaren eta ostrazismoaren bidez, gizonetzko maskulinoa denaren aurrean egiten dituzten transgresio guztiak, eta botere-sistema zaharkitua errepikatzea ziurtatzen duen arau androzentriko oro babesten du. Hau da, "gizona" ez izatea edo ez frogatzea femeninoa izatearekin lotzen da eta hortaz gizarteak ez du baloratzen. Maskulinitatea ez da berez sortzen baizik eta femeninoa denaren aurkako eta ukapen bezala. (Marqués, 1992).

"Generalmente los machos aprenden lo que no deben ser para ser masculinos antes que lo que pueden ser... Muchos niños definen de manera muy simple lo que es la masculinidad: lo que no es femenino" (Hartley, en Badinter, 51, 1993). ("Normalean gizonetzkoek izan daitezkeena baino lehenago izan behar ez direna ikasten dute... Mutiko askok maskulinitatearen oso definizio sinplea ematen dute: femeninoa ez dena")

Definizio horiek guztiak gizon izateko eredu bakarra agertzen dute, barietatea onartzen ez duen, disidentzia zigortzen duen eta berrikuntza eragozten duen maskulinitate berezia. Gure azterketan ikusiko dugunez eta gure Mendebaldeko gizartearen asmoak homogeizatzaileak badira ere,

hainbat maskulinitate hainbat pertsona errepresentatzen dituztenak daude, eta feminitateekin gauza bera gertatzen da.

Azken buruan, maskulinitateak izenlaguna legez zera boterea esan nahi du: boterea, femeninoa ez izatea eta norberak sentitzen duena askatasunez esatea ezinezkoa izatea. Izena legez sinbolo positiboa esleitua duten pertsonak eta gauzak, jarrerak eta jokabideak adierazten ditu; feminitea izenak, ordea, sinbolo negatiboa edo balio sozialik gabekoa adierazten du. Baina maskulinitate hitzak ere gizonezko guztiak, euren jarrerak eta pentsatzeko moduak adierazten ditu eta gaur euren aniztasunean baizik ez datoz bat.

Sozializatzeko-prozesua maskulinitate nagusiaren eraiketaren funtsezko zatia da, baita banakoak pertsona baino lehenago gizona bezala adierazi, sentitu, nabaritu eta pentsatzerakoan muga bezala ere. Baina, azkenean, pertsona (izaki berezi eta errepikaezina legez) izango da jokatzeko eredu hori edo maskulinitatea erakusteko beste modu bat bere gain hartuko duena. Aukera al dezake nerabe batek maskulinitate tradizionalaren eta beste maskulinitateen aniztasuna eta bereizitasunaren artean?

2.3

MASKULINITATE-EREDU TRADIZIONALAREN AURREAN ZAILTASUNAK ETA ERREFORTZUAK

Eredu tradizionala krisian dagoela uste dugu baina gizon izateko modua ez da aldatu. Ereduaren abantailak eta eragozpenak kontrajarriz patriarka-eredu tradizionalaren inobilismoari erantzuna aurkitu beharko genioke.

Lehen aipatutako ikerketa eta ondorengo lanak (4), abiapuntutzat hartuz, maskulinitate tradizionala adieraztea eta maskulinitateen beste aukerazko ereduaren aurrean berau gordetzeko gizarteak sortzen dituen errefortzuek berekin dakartzaten zailtasunak definitzen dituzten elementu-multzoa aurkitu dugu.

2.3.1

ZAILTASUNAK

Nerabeek gizon izateko zailtasunak kexuaren bidez adierazten dituzte, emakumearen eta beste gizonen aurrean egindako kexuaren bidez, hain zuzen. Adibidez beti aurrea eramateko, onenak izateko edo erronka guztiak onartu nahi ez duten arren denarekin ahal dutela erakutsi eta itxurak egitearen beharrarekiko nolabait gogaituta daude.


Besteekin harremanak izaterakoan euren sentimenak, beldurrak eta ahultasunak adierazteko zailtasunak dituzte eta ezin dute hori onartu, batez ere beste mutikoen aurrean. Badirudi ordu oro "itxurari eutsi" behar diotela eta aldi bakan batzutan bakarrik gehiegizko tentsio-tonua askatu eta itxura lasaitu ahal dutela. Horixe da ezetz esateko edo erronka bat onartzeari ezin uko egiteko zailtasunean agertzen dena:

(4) Sagunton 14 eta 20 urte bitarteko gizonezko nerabeekin egin diren bezalako esperientziak hezkuntza ikerkuntza eta esku-hartzean. Ikus azken atala.

"...la mejor forma de hacer que un chico haga lo que tu quieras es picarlo y decirle que no puede hacerlo..." ("... mutil batek zuk nahi duzuna egiteko modu onena bera zirikatzea eta ezin duela egin esatea da...")

"Los chicos son muy fáciles. Ellos siempre tienen ganas de lo mismo" ("Mutilak oso sinpleak dira. Beti daukate gauza bera egiteko gogo") (5).

Sexu-harremanetan, zerbait paradoxiko eta tristea gertatzen da. Mutil askok ekimen osoa eta erantzukizuna bere gain hartu behar duten sexu-harremanez gozatzeko zailtasunak dituztela adierazten dute lagun artean. Izan ere beraiek lehen urratsa eman, preserbatiboa eraman eta leku aproposa bilatu behar dute (6).



Gizarteak aurretik finkatutako bizimoduari eutsi eta babestea etengabeko zailtasuna da, baina gizonen kasuan itxura ez errespetatzeagatik zigorrak bere gizon nortasuna zalantzan jartzea esan nahi du. Emozioak eta sentimenak luzaro gorde dira, eta horrek amaieran norberaren kontrako edota gainontzeko beste pertsonen kontrako amorrua eta agresibitatea sortzen du.

Itxura sendoa eta botere-suari eusten dionez, gizona ezin da inoiz ahul agertu. Sentimenak aho beteetan adieraztea, intimitatean ere, gure gizartean ahultasun-seinaleztat jotzen da, eta hori dela eta beti edozer konpontzeko gai diren cowboy gogorren itxurak egin behar ditugu.

Hainbesterainoko itxurak egitearen ondorioz eragina jasaten duten lehen guneak harremanak eta loturak dira (norberaren guneaz gain). Emakumeekin harremanak oso konplexuak dira, zeren eta ama-eme lotura hautsi ondoren, gizonak eta emakumeak era desberdinetan hezituak eta sentitzen ikasten dugu, bi kultura desberdinetakoak izango bagina bezala: azpikultura femenino bat eta azpikultura maskulino bat (Sanz, 1997, 26 eta hurrk.). Sexualitate, bikotetik eta mundua ikusteko modutik bizitzeko aurkako bi modu sortzen dira, eta adiskidetzeko eta bake eta berdintasun-gunetarako sortzeko zailtasun batzuk daude.

(5) Madrilgo Batxilergo Institutu bateko 14 eta 18 urte bitarteko emakumeen komentarioak.

(6) Saguntoko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe batean maskulinitateei eta elkarbizitzari buruzko tailerreko laburpena.

Gizon bat beste gizon batekin sakon komunikatzen saiatzen bada, litekeena da erantzunik ez jasotzea edo bietariko inor ez egotea ez entzuteko ez hitz egiteko prest. Maitasunez hitz egiterakoan, elkarrizketatu genituen mutilek esaten zutenez, asko errazagoa zen gauza horietaz neska batekin solasean aritzea; mutil batek, berriz, maitasun-penak ahazteko mozkortzera bakarrik eraman ahal zituen.

Aitatasun-lanean aritzeari dagokionez, lotura ez da afektiboa, funtzionala eta babestekoa baizik: "seme, zenbat diru behar duzu?", "zergatik nire seme-alabek ez dute nirekin berba egiten, nik beti eman diet eskatu didaten dena, jaten eman diet eta apeta guztiak ere". Eztabaida-taldeetan parte hartzen zuten mutilen portzentaia handi batek sentimenduen inguruan euren gurasoekin elkarrizketa bat izatea ezinezkoa zela adierazi zuten; izan ere, indargabetasunaren eta ahuleziaren ezaugarri bat bezala litzateke.


2.3.2

ERREFORTZUAK

Orokorrean benetako gizona izan behar duena markatzen duten balore kultural tradizional horiek guztiak adierazten dituzte. Horrela matxismoak, patriarka-ideologiaren adierazpen moduan, modan ez dagoen eta politikoki zuzena ez den izateko eta jokatzeko modu bat indartzen duen lotura nagusia adierazten du gizona gizona izateko.

Matxismoak era askotako espresioak ditu gizartean gehiago edo gutxiago ikus daitezkeenak: etxeko indarkeria esplizituena izango litzateke eta adibidez lengoaiaren bidezko mikroindarkeria⁽⁷⁾ inplizituenetarikoa izango litzateke. Matxismoa menperatzeko patriarka-eredua iraunarazteko modua da, feminismoa dena eta emakumeak gutxietsiz; emakumea izateko edo iruditzeko beldurraren adierazpena da, femeninoa dena ahulezi sinbolo gisa ukatzea. Femeninoa denarekiko arbuioa nortasun maskulino arinaren berrespen bezala adierazten da. Misoginia balore soziala da. Emakumea gizonaren aurrean gorrotatzea eta gutxiestea kultura judeokristauaren agindua da. Homofobia, era berean femeninoa dena gorrotatzea da eta irudi maskulino baten bidez errepresentatua dago. Gure gizartea, tradizioz, homofobikoa da, femeninoa izatea ahula izatea bada, zer izan daiteke sendotasun itxurak egin behar dituen gizon batek ahulezi papera errepresentatzea baino beldurgarriagorik?

(7) Ikus Bonino, L. (1998). *Micromachismos*. Bruselas: City & Shelter (Euro PRO-Fem, www.menprofeminist.org).



Taula honetako elementu guztiak maskulinitate tradizionalaren errefortzu bezala funtzionatzen dute, errespetatzen ez dituenak balore soziala galtzen duelako.

Gizon batek ordaindutako lanik ez badu ez da hain gizona. Gizon batek bere emazteak baino gutxiago irabazten badu edo langabezian badago eta bere emaztea lanean ari bada, bere inguru sozialaren arbuioa eta zigorra jasotzen du: "hori bai dela alperra, bere emazteak mantentzen du", eta esaldi hori alderantziz gaur egun oraindik erabat pentsaezina da.

Gizona gogorra izan behar da, indarkeria helburuak lortzeko baliozko balore soziala delako, indarra erakusteko eta boterea mantentzeko. Hainbestearinokoa da hori ikertu edo esku hartu diren ikastetxe guztietan maiz mutilen artean indarkeriazko egoerak gertatzen dira baina nesken artean ere eta gerroz eta maizago (beso hautsiekkin eta borroka odoltsuekin) (8).

Gizon bat gizonagoa da ernaltzeko gai bada, are gehiago haurtxoa gizonzkoa bada; aita direnak edo izatear daudenei asko laguntzen zaie, eta oraindik ez direnen aurrean axolagabetasuna eta nolabaiteko harridura dago. Gizon orok une jakin batean gaintitu behar duen gizontasun-proba da.

(8) Emakumeen arteko indarkeriazko gertaera horiek irribarrez komentatzen dituzte eta beste emakume eta gizonak defendatzen dituzte, "defender al novio frente a la otra que se lo quería llevar" ("mutil-laguna defendatzea berau eramatea nahi zuen beste baten aurrean") lortzeko zilegizko mekanismo bat bezala.

Bakarrik desira heterosexuala orientazioak lor dezake onespén soziala. Gizonezko nerabeen artean (helduen artean ere) euren heterosexualitatea eta hipersexualitate genitala frogatzeko jokoak agertzen dira, beste gizonen aurrean botere eta sendotasun ezaugarriak agertzeko. Horiek guztiak gizontasun sinboloak dira, egun oraindik maskulinitateen beste edozein adierazpen baino onartuagoa dagoena. Gizon-itxura duen gizonzkoa errespetatua eta miretsia izango da; funtsean sexualitate genitala ez duen, hipersexuala ez den eta beti koitoa egiteko prest ez dagoen gizona ez da benetako gizona.

Maskulinitate tradizionalaren errefortzuak aho biko argudio bezala agertzen dira: alde batetik lehen aipatu dugun nortasun bilaketa horren beldurra eta zailtasunak eta ziurtasunik ezak eragozten dute. Baina beste aldetik errefortzu horietariko batzuk ez onartzeak nolabaiteko ostrazismoa eta zigor soziala dakar berarekin.

Laburbilduz: zergatik mantendu da maskulinitatearen eredu tradizionala? Babesten duen egitura soziala ez delako aldatu. Itxuraz aldaketa bat egon da eta garai bateko arauak eta egitura baztertu dira, baina gure gizartea ez da berdintasunezkoa, femeninoa denak ez du botererik, genero-egitura babesten duten baloreak ez dira aldatu. Emakumeak berdintasuneranzko bidean aurrerapausoa eman du, baina gizonak leku berean jarraitzen dute eta jakinaren gainean ez dituzte aldatetaren abantailak ikusten.

Aldatzea gura duten gizon askok, zapaltzen dituen eta amorruez bestelako eraz adieraztea eragozten dien eredu deuseztatze gogoia dutenak, eredu haustearen beldur dira baldin eta beste pertsonak bultzatutako aukerarik ez badute.

Gizonen boterearen begi-bistako abantailak asko izan daitezke baina gehiago dira ikus ezin daitezkeen desabantailak.

3.

Gizonezko nerabeek emozioak adieraztea eta indarkeriaren genesisia

3.1

SENTIMENAK SOZIALIZATZEA

Gizon izateak berarekin dakar taldeak eta tradizio kulturalak ezarritako arau sozialak, jokatzeko arauak, baina baita modu jakin batean pentsatzea eta sentitzea. Honakoa ikasten dugu: gizonzko bezala sentitzen, gizonzkoek bezala janzten, ahulezia, beldurra edo sentitzen dugun hori guztia ez adierazten. Bihotzetik komunikatzea arriskutsua dela ikasten dugu, arrazoia eta pentsamendua gure ekintzen gidari izan behar direla eta sentitzen duguna adieraztea sentitu behar duguna baino ahulek egiten dutela.

Gizonezkoen sozializazio-prozesuak ez du iragaite-erritorik euren nortasun maskulinoa lortzeko edo bereganatzeko. Emakumea emakume da beraz izateko lehiatu behar ez delako eta naturak iragaite-errito zurrak ematen diolako. Beste emakume inork ez du ez bere feminitatea ez bere nortasuna zalantzan jartzen. Ez dio inori ezer frogatu behar, bere betebeharra ez delako errito berrietara heldu eta gainditzea; eranskin bat da eta ez betebeharrak sozial bat.


Jaiotzean, gizonezkoetatik identifikatutako fetuak, ekografian genital maskulinoak ikusi ondoren, dagoeneko itxaropen batzuk sortzen ditu: "que patadas pega, es muy fuerte, seguro que será futbolista" ("a ze ostiko egiten dituen, oso indartsua da, baietz futbolaria izan"). Emakumezkoetatik identifikatutako fetu batek, ordea, itxaropen desberdinak sortzen ditu: "pega pataditas suaves, que inquieta va a ser esta nena" ("ostikotxo leunak egiteko ditu, a ze neskatxa ipurtarina izango den"). Jaiotzerakoan itxaropen batzuk baieztatu eta beste batzuk sortzen dira: "Ves es fuerte como un toro y con ese paquete que tiene seguro que crea estragos entre las mujeres" ("Ikusten duzu zena bezain indartsua da eta duen hankarte horrekin baietz emakumeen hondamena izan")

Sozializazio osoan zehar sentimenak eta gizonezko patriarkalaren jokabidea moldatzen jarraitzen da:

- LEHEN HAURTZAROAN: "No llores" ("Ez egin negarrik")
- ESKOLARA HELTZERAKOAN: "Tienes que ser el mejor" ("Onena izan behar zara")
- NERABEZAROAN: "Deberías salir más con chicas" ("Neskekin gehiago ateratu behar zara")
- LENGOIATIK: "Dile a los hombres que vayan sentándose en la mesa que la comida ya está" ("Esaiezu gizonei mahaian eseri daitezela bazkaria prest dago-eta")
- MAITASUNAREN AURREAN: "No te enamores que es una locura" ("Ez zaitez maitemindu zoramenaren da-eta")
- EMAKUMEEN AURREAN: "Todas las mujeres te quieren cazar" "Todas las tías son unas putas" ("Emakume guztiak harrapatu nahi zaituzte", "Emakume guztiak emagalduek dira")
- LANEAN: "Tienes que ganar mucho y ser famoso" ("Asko irabazi eta ospetsua izan behar zara")
- SENAR-EMAZTEAK: "Tú llevas los pantalones, tú decides" ("Zuk agintzen duzu")

Nagusitzen den maskulinitate patriarka-ereduak sentimen-multzo bat moldatzen du eta eraldatu egiten ditu edozein ahulezia-aztarnaren aurrean gizonezkoaren nortasuna indartzearren. Itxurak egitearen bidez tristura eta mina indar eta kontrol bihurtu behar dira eta geroxeago beharbada amorr, baina gizon batek ezin du tristura adierazi, ez dakielako nola, beldurrak hartzen du, berau ukatzen bakarrik erakutsi zioten eta ez berau gaingiditzen.

PATRIARKA-MASKULINITATEAREN EREDUA



Indarretik eta amorrutik ezinezkoak dira berdintasunezko komunikazioa, elkartrukea eta bakezko loturak eta hortaz baita gozamena eta sexualitatea ere. Gizonezko nerabeak sentimenak bidez adierazten ditu eta harremanetan arazo larriak ditu nahi ez duen eta alde ez dagoen gizon-eredu errepresentatzera behartzen duelako gizarteak.

Funtsezkoa da gizonezkoen artean hausnarketa egiteko eta kontzientzia kritikoa sortzeko gunea eratzea. Ikastetxeetan antolatutako esku-hartzeen bidez gune horiek sortzea bultzatu daiteke.

Genero-desberdintasuna eta hierarkia dela medio eta horren bidez emakumeen eta gizonen artean gatazka irekia badagoela baieztatu da: alde batetik, lortu ez den berdintasuna, sinbolizatua eta teorizatua baina egunerokoa dena arte zabaldu ez dena; beste aldetik, oraindik aukerazko eredurik ez duen etengabeko patriarka-maskulinitatea. Emakumeak berdintasuneko kulturarantz hasitako aldaketen emaitza ez da oraindik nahikoa, eta orain arte lortutakoak kritikarako eta aldatetarako lekurik gabe maskulinitateak babesten dituzten ideologiak berrikustea eta aldatzea eskatzen du. Iragaite-gizartean aurkitzen gara, feminismoaren eskakizunetara moldatzen dena baina gatazka sozialaren oinarriak aldatzen ez dituen. Patriarkatua eguneroko bizimoduaren oinarri diren ideologiak eta aldaketa eta berdintasuna itxuraz bakarrik existitzen da. Egoera hori aldaketa koherenteago eta errealagorantz bilakatzen ez den bitartean, generoen arteko berdintasunaren etorkizun soziala gezur hutsa, pantomima bat, itxurazko antzerkia izango da.

Azterketatik eta esku-hartze lanetik pentsatzeko hiru joera ondorioztatzen dira, ideologiaren edo bat-bateko kontzepzioen bidez adierazitakoak.

Nerabeen portzentaje txiki batek (batez ere gizonetakoak) maskulinitateen inguruan ideologia patriarkala eta matxista agertzen eta defendatzen dute. Joera hori Tradizional-Patriarkala izena emango diogu.

"Un hombre jamás debe fregar un plato pudiendo hacerlo una mujer" ("Gizonak inoiz ez du plater bat ere garbitu behar, emakumeak egin ahal badu")

Beste portzentaje txiki batek, batez ere emakumezko nerabeez osatutakoak, joera feminista aukeratu dute, aldaketa eskatuz eta maskulinitatea bere adierazpen tradizionalen arbuiz, teoriarik ezin eguneroko praktikan. Errealitatearen aurka dagoen joera Feminista-Progresista izango litzateke.

"Mujeres y hombres pueden fregar los platos" ("Gizonek eta emakumeek harrikoa egin dezakete")
Bukatzeko, joera Mistoak nerabeen gehiengoa ordezkatzeko du. Aldaketa eta berdintasunaren aldeko lelotik adierazten da, baina zalantza jartzen ez diren eguneroko jokabide patriarkalak eta tradizionalak ditu oinarrian. Aldaketari baietza ematea da eta egungo genero-definizioa mantentzen duten egitura sozialak aldatzeari ezetza ematea.

"Un hombre puede ayudar a fregar los platos sin dejar de ser hombre" ("Gizonak harrikoa egiten lagun dezake, gizon izateari utzi gabe")

Bi eredu arteko bidegurutzeak krisialdia sortu du maskulinitate tradizionalarentzat eta banakoen maskulinitateentzat, baina ez du aldaketarik sortzen. Gizonezkoek aldaketa ere behar dute, baina beharrezkoa da aldaketa horren abantailak ikus ditzatela.

Eredu mistoaren eraginez, gizonezkoek beste alderdi batzuetan bilakaera soziala izan arren, emozioak adierazi eta bideratzerakoan zailtasun handia dago, gizonezkoek itxurari eusten jarraitu eta gizon berriak izan behar dira, baina bere buruarekin konektatu gabe eta askatasunez, beldur barik eta kanpora atera barik sentitzen dutena adierazi gabe. Sentimenei eusteak kanpora atera barik tentsioa sortzen du eta horrek aldi berean amorrua eta agresibitatea sortzen ditu, edozein gizonezkorentzat adierazten errazak direnak.

4.

Emaitzak benetan aplikatzea eta maskulinitateen aurrean kontzientzia kritikoa sortzea

lkerketatik eta aurretik aipatutako oinarri teorikoetatik abiatuz, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan esku hartzeko hiru eredu landu dira. Egin berriena adibidetzat hartu eta Saguntón 14 eta 20 urte bitarteko neska-mutilekin izandako esperientzia azalduko dugu.

Lehenbizi gaiarekin hasteko galdekizun ireki bat eman zitzaion:

GALDEKIZUN ANONIMOA

Sexua Generoa..... Adina.....

Orri honen atzealdean erantzunak idatz ditzakezu. Nahiago baduzu, nahikoa da galderen inguruan hausnarketa egitea eta gero zure erantzunak beste pertsonekin komentatzea. Gauza biak ere egin ditzakezu.

1. Ze gauza egin ditzake emakume batek gizon batek egin ezin ditzakeenak? Zergatik?
2. Ze gauza egin ditzake gizon batek emakume batek egin ezin ditzakeenak? Zergatik?
3. Zer egin behar du mutil batek "benetako gizona" izateko?
4. Zeintzuk ateratzen dituzte nota hobeak, neskek ala mutilek? Zergatik?
5. Etxean: nor garbitzen ditu eta txukuntzen ditu gauzak? Zergatik?
6. Zer esan nahi du maitasunak mutilentzat? Zergatik?
7. Zer esan nahi du maitasunak neskentzat? Zergatik?
8. Nola adierazten dute amorrua eta borroka egiten dute neskek? Eta mutilek? Zergatik?
9. Zeintzuk lan nahiago dituzte neskek? Eta mutilek? Zergatik?
10. Gizonen izateko eran zer aldatuko litzateke? Eta emakumeen izateko eran?

Eskerrik asko zure arretagatik eta parte hartzeagatik.

Atentziona eman nahi da eta zalantza sorraraztea eta ondorioz eztabaida. Hori dela eta era eztabaidagarrian idatzia dago da eta normalean lehia edo liskarra sortzen dituzten gaiak ukitzen dira. Emaitzekin gaiaren egoera eta neskek eta mutilek emandako erantzunetan egon daitezkeen desberdintasunak aztertzen dira. Zer erantzun den eta nola aztertzen da. Kasu hauetan bitxia da ikustea mutilek oso gutxitan idazten dituztela euren erantzunak, horiek komentatzea besterik ez dute egiten.

Bigarren urratsa mintzaldi edo hitzaldi parte-hartzaile moduan esku hartzean datza. Normalean gizonari bakarri dei egiten zaie baina aldi honetan eta sexualitatea eta elkarkidetzaren lantzeko aitzakiarekin, lan mistoa egitea erabaki genuen.

Azkenik, hainbat tailer eta eztabaida talde egin dira oinarritzko bi kontzeptu lantzeko: sentimenak adieraztea eta genero arteko eta barruko harremanak. Beste gai batzuk ere ukitu ditugu ia beti aurretik aipatutako ikasketa-arloen barruan, esate baterako: sentimenak eta horiek nola adierazi eta bideratu ohi diren aztertuz, indarkeriaren eta beldurraren gaia agertzen da.

Tailer nahiz taldeetan maskulinitate tradizionalaren ereduaren aurrean kexatetik abiatu gara, honakoak bezalako galderekin:

zer da gizon batek egin behar duena benetako gizona izateko?

- Zeintzuk dira gizon izatearen abantailak eta desabantailak?
- Gure asmoa nerabeek direnaren eta diruditenaren aurrean kritika egiteko gai izatea da, eta nahi ez dituzten jokabide arketipikoak ordezkatzeari utz diezaiotela.

Halaber emakumeak enpatian trebatzen ditugu, baita gizonezkoen arteko harremana eta zainketa ere, homosexualitatearen mamuekin eta jokabide homofobikoekin hautsiz.

Sentimenen adierazpena eta maskulinitateen sorkuntza kritikoari buruzko lan mota hau ere helduekin egiten da gizon-taldean bitartez. Azken muga gurasoekin seme-alabekin dagoeneko jorratu ditugun gaiak lantzea da.

Bibliografía

- ALVARO, J.L. ; GARRIDO, A. eta TORREGROSA J.R.(1997). *Psicología Social Aplicada*. Madril: Alianza Universidad.
- AMORÓS, C. (1991). *Hacia una crítica de la razón patriarcal*. Bartzelona: Anthropos.
- AMORÓS, C. (1994). *Historia de la Teoría Feminista*. Madrileko Erkidegoa.
- ARANGO, C. (1987). *Comportamiento participativo y educación popular*. Cali: Editorial Popular S.A.
- ARANGO, C. (1998). "Conceptos básicos para la intervención comunitaria". Valencia: Apunteak: *Seminario Intervención comunitaria en salud mental*. Insalud.
- BADINTER, E. (1992). *X Y La identidad masculina*. Madril: Alianza.
- BARBERA, E. (1998). *Psicología del género*. Bartzelona: Ariel.
- BARRAGÁN, F (1998). *Ampliar los horizontes masculinos y femeninos: Las expresiones de las masculinidades en la adolescencia*. Argitaratu gabeko txostena.
- BENHABIB, S. eta CORNELLA, D. (1990). *Teoría feminista y teoría crítica*. Valencia: IVEI, Generalitat Valenciana.
- BONINO, L. (1995). "Los varones y el cambio de las mujeres". *Materiales de trabajo nº 27*. Madril: Ministerio de Asuntos Sociales. Dirección General del Menor y la Familia.
- BONINO, L. (1996). "Grupos de Reflexión de Varones" *Rev. Modelos Grupales de Psicoterapia*. Madril: SEGPA.
- BONINO, L. (1998). *Micromachismos*. Bruselas: City & Shelter (Euro PRO-Fem, www.menprofeminist.org).
- BOURDIEU, P. (2000). *La dominación masculina*. Bartzelona: Anagrama.
- BOURHIS, R. eta LEYENS, J. (1996). *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos*. Madril: McGraw Hill.
- CONNEL, R.W. (1998). "Enseñar a los chicos: Nuevas investigaciones sobre la masculinidad y estrategias de género para la escuela". *Kikiriki*. 47 zk. (52-68)
- CORNEAU, G. (1991). *Hijos del silencio*. Bartzelona: Circe.
- COROMINAS, J. (19763). *Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*. Lehen argitalpena 1961. Madril.
- CORSI, J. (1995). *Violencia masculina en la pareja*. Buenos Aires: Paidós.
- COVARRUBIAS, S. (1994). *Tesoro de la lengua castellana o española*. Lehen argitalpena 1611. Madril: Gredos.

-
- EISNER, E. (1992). "Curriculum Ideologies". In Ph. W. Jackson, *Handbook of Research on Curriculum* (302-326 orr.). New York: Macmillan Publishing Company.
- FERNÁNDEZ, J. eta beste. (1996). *Varones y Mujeres: desarrollo de la doble realidad del sexo y del género*. Madril: Pirámide col. Psicología.
- FERNÁNDEZ, J. (1998). *Género y sociedad*. Madril: Pirámide col. Psicología.
- FREIXA, C. (1998). *Ellos y nosotras*. Bartzelona: Icaria.
- GARCÍA, M.; IBÁÑEZ, J. eta ALVIRA, F. (Comp.) (1994). *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Madril: Alianza.
- GIDDENS, A. (1995). *La transformación de la intimidad*. Buenos Aires: Paidós
- GIL CALVO, E. (1997). *El nuevo sexo débil: Los dilemas del varón posmoderno*. Madril: Temas de hoy.
- GILMORE, D. (1994). *Hacerse hombre. Concepciones de la masculinidad*. Buenos Aires: Paidós.
- GIORDAN, A. (1993). "Representaciones y concepciones" *Rev. Curriculum* 6-7 zk., 5-30 orr. La Laguna.
- GOLBERG, H. (1992). *Hombres, hombres: Trampas y mitos de la masculinidad*. Madril: Temas de hoy.
- HARRIS, C.T.B. (1998). *La castración del unicornio: Al encuentro de la identidad masculina*. Madril : Gaia
- HOUSTON, J. (1993). *La diosa y el Héroe: El viaje como símbolo e iniciación*. Buenos Aires: Planeta.
- HYDE, J.S. (1995). *Psicología de la mujer: La otra mitad de la experiencia humana*. Madril: Morata.
- IBÁÑEZ GRACIA, T. (1996). "Las ideologías y las relaciones intergrupales." In R. Y. Bourhis eta J. Leyens, *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos* (307-336 orr.). Madril: McGraw-Hill.
- KAUFMAN, Michel (1989). *Hombres, placer, poder y cambio*. Santo Domingo: Taller.
- KREIMER, J.C. (1991). *El varón sagrado. El seguimiento de una nueva masculinidad*. Buenos Aires: Planeta.
- KREIMER, J.C. (1994). *Rehacerse hombres*. Buenos Aires: Planeta.
- LADI LONDRONÓ, M.(1994). *Ética de la ilegalidad*. Cali: Fundación para la investigación en salud y derechos reproductivos de la mujer.
- LELAND, P. Bratforrt. (1966). *Dinámica de grupo de discusión*.

-
- MARQUÉS, J.V. (1991). *Curso práctico para varones sensibles y machistas recuperables*. Madrid: Papagayo.
- MOLINER, M. (1983). *Diccionario de uso del español*. Primera edición: 1966. Madrid: Gredos.
- MONTERO, M.(1983) "La psicología comunitaria y el cambio social" Apunteak: *Seminario sobre Psicología Comunitaria*. Colombia.
- MONTOYA, O. (1998). *Nadando contra corriente: Buscando pistas para prevenir la violencia masculina en las relaciones de pareja*. Managua: Fundación puntos de encuentro.
- PALMADE, G. (1979). *Interdisciplinarietà e ideologías*. Madrid: Narcea.
- PESCADOR, E. (1998). *Talleres sobre Sexualidad y Masculinidades*. Mexiko: IX CLASES
- PESCADOR, E. (2000). *Talleres de masculinidades y emociones: Formas de ser hombre desde el sentir y la escucha*. Peru: X CLASES.
- PIAGET, J. (1993). *La representación del mundo en el niño*. Madrid: Morata.
- R.A.E. (1984). *Diccionario de Autoridades*. Edición facsímil 1726 - 1739. Madrid.
- R.A.E. (198420). *Diccionario de la lengua española*. Madrid.
- RIGOLET, D. (1996). "Ideología", In P. Bonte eta M. Izard (Coord.), *Etnología y Antropología* (358-359 orr.). Madrid: Akal.
- ROURA, A. (1997). *La mujer ante el espejo: Apuntes sobre el amor*. Bartzelona: Thassàlia.
- SANZ, F. (1997). *Psicoerotismo femenino y masculino*. Bartzelona: Kairós. 3^{er} Ed.
- SANZ, F. (1995). *Los vínculos amorosos*. Bartzelona: Kairós.
- STOLOVITZKY, I. eta SECADES, C. (1987). *Sexualidad y poder*. Buenos Aires: Puntosur editores.
- SZIL, P. (1997). "Los ciclos vitales en los hombres y sus significados. Mitos y Símbolos". Jeréz: *V Jornadas Andaluzas de Salud y Mujer*.
- TORRES, J. (1991). *El curriculum oculto*. Madrid: Morata.
- VALLÉS, M. (1997). *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*. Madrid: Síntesis.

JOSÉ ÁNGEL LOZOYA GÓMEZ

**Berdintasunaren aldeko
Gizonak Udal Programako
Koordinatzailea. Jerez de la
Fronterako Udala, Cádiz**

Estuhartz

estrategiak

erakundeen

alorrean:

Berdintasun-

erako gizonak

Laburpena

Jerezko Udaleko Osasun eta Genero Ordezkaritzari atxikitako programa dugu. Aipatu programa 1999ko irailaren bataz geroztik funtzionatzen ari da.

Programaren xede nagusia gizonen berdintasunezko harremanen beharrei erantzutea da. Izan ere, emakume gehienek eta geroz eta gizon gehiagok eskatzen dute gizonak aldaketara egokitu daitezela. Eta honek berarekin dakar bizitza, famili erantzukizunak, lana eta boterea elkar banatzen ikastea.

Lehen urtean programa ezagutarazten eta garatzen aritu gara, helburuak eta lehentasunak egokitzten, sortu den edo sortu dugun eskariari erantzuten, udalaren eskumenpean dauden gaietan genero-ikuspuntua bultzatzen, gizonak bizitza sozialean parte har dezaten laguntzen; hau guztiau aldaketaren beharra nabaritzen dutenezko erreferentzi eredu erakargarritzat har daitekeen diskurtso eta irudiak erabiliz gauzatu dugu. Gizon harberenak hausnarketa eta ekintzak egiteko taldeetan antola daitezten bultzatzea. Informazio gehiago: www.hombresigualdad.com



1.

Sarrera

"Gizonak berdintasunaren alde" programa aurreko legealdian hasi zen garatzen, honen nondik norakoak Ongizate Sozialeko sailetik markatu ziren, eta plazaratzea Osasun eta Jenero sailetik etorri zen, Antonia Asenciok zuzendutako sail berritik.

Osasun eta Jenero Saileko izenaren arrazoia honako hau da, pertsonen ongizate fisiko, psikiko eta soziala berdin banatuta egotea gizon eta emakumeen artean, bizitzaren arlo guztietan, eta era berean gizonak eta emakumeak berdintasunaren bidean finkatu nahi ditu.

Sailaren xedea berdintasunaren alde modu orokor batean lan egitea da, sexu batekoa edo beste-koa izatea udaleko programa, laguntza eta zerbitzuen onura jasotzeko oztopoa izan ez dadin. Hau dela eta gure departamentuek elkarrekin egiten dute lan proiektu honetan.

Gure aktibitatearen garapenaren helburua ez da sexuen arteko uniformetasuna lortzea edo inoren izaera ezabatzea, alderantziz, helburua aniztasunarekiko errespetua da, gizonak eta emakumeak jeneroaren diskurtsoan sartzea elementu integratzaile gisa alegia.

Sail hau ez litzateke posible izango aurreko arduradun politikoek gaur arte garatutako emakumearen inguruko politikak gabe. Horregatik emakumearekiko diskriminazio positiboa lortzeko neurriak indartu eta jarraitu behar dira, helburu askoz zabalagoa lortzeko nahiarekin, hots, emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukerak berdintzea, euren arteko aldea ekidinez eta gizonetzokak aldaketaren parte bihurtuz.

Sailak hiru departamentu ditu: Osasunaren Promoziorako Zentroa, Emakumearen Departamentua eta Gizonak Berdintasunaren Alde Programa, esku artean daukaguna alegia.

Gizonak Berdintasunaren Alde. Programa hau martxan jartzean lortu nahi duguna gizonetzkoek gizonetzko eredu tradizionala zalantzan jartzea da, eta beraiek kontura daitezen zein onuragarria den ezarritako sexuen arteko mugak gaitztea.

Nahi duguna zera da, gizonetzkoek arraren papera jokatzearen prezioa zein den ikustea eta hausnarketa egin dezaten sarritan emakumearekiko duten dominazio harreman klasikoaren inguruan. Eran berean, gure helburua ere gizonetzkoek bikotearen arteko lan banaketak, seme-alabak zaintzeak eta aisialdiaz gozatzeko dakarren onuraz jabetzea da. Oro har, nahi dugun gizarte globalean partehartzea erraztea eta berdintasunaren inguruan gizona izatearen erreferente batzuk ematea da gure helburua.

1.999ko irailean Programari hasiera eman zitzaion, segidan azalduko dugun programarekin:

2. *Gizonak berdintasunaren alde*

Emakumeek hasitako bideak gizon asko txundituta utzi ditu, hauek ideiarekin ados egon arren, prozesuaren abiaduraz eta eurengandik espero denaz harritzen direlarik. Euren gurasoek errepresentatzen duten modeloa eta bizi duten egoeraren arteko desberdintasunaren artean dauden gizonak alegia.

Jeneroarekiko ikuspuntuak emakumeen bizimodua ulertzea ekarri du, gizonetzkoak ulertzen laguntzen du eta euren arteko harremanak ikertzea posible bihurtzen du.

2.1

HELBURU OROKORRA

Gizonetzkoen beharrak betetzeak, emakume gehienek eta gizon askok eskatzen duten berdintasun harremanak lortzeko bidean, dakarrena zera da gizonetzkoak aldaketara egokitzen laguntzea, besteak beste, bizitza, familia ardurak, lana eta boterea banatzen ikastea.

2.2

EKIMEN ILDOAK

1. Banakako arreta
2. Informazio zerbitzua.
3. Hedatzea.
4. Ikerketa
5. Heziketa
6. Aholkularitza. Koordinazioa
7. Dirulaguntzak: Proiektuak, gizonetzkoen Kolektiboak, e.a.
8. Web orrialde bat eratzea
9. Bestelako ekimenak:
 - Aitarek Eguna.
 - Begizta zuriaren kanpaina.

- Senarraren Eguna.
- Gay Harrotasunaren Eguna.

2.2.1

BANAKAKO ARRETA

Krisian dauden gizonak, osasun arazoak dituztenak edota informazio eskatzen duten gizonentzako arreta eta aholkularitza, era berean programa garatuz goaz hala nola arriskuak aurrikusteko estrategia.

HELBURU ZEHATZAK

1. Conocer y atender en lo posible la demanda explícita de los hombres de Jerez.
2. Favorecer la adquisición de una perspectiva de género, autocrítica e igualitaria, en el abordaje de los problemas y sus soluciones.
3. Derivar aquellos problemas que escapen a nuestra competencia.

EKIMENAK

1. Programa martxan jartzeak sortzen duen eskaera posiblea ezagutu eta arreta jarri.
2. Programa azaldu eta kontaktatutako pertsona zein kolektiboekin lankidetzarako bideak bilatu.
3. Krisian dauden gizonezkoei kasu egin, gizona izatearen baldintza barneratzean sortu daitezkeen arazoei aurre egiteko (ohitura arriskutsuak, jarrera ausartegiak, orientazioa galtzea, e.a).
4. Jokamolde maskulino batzuekiko ikuspuntu kritikoa ezagutu nahi duten bikote eta emakumeei aholkua eman, eta hauek aldatzeko egin daitekeenaren berri eman.

2.2.2

INFORMAZIO ZERBITZUA

Gizonentzako Orientazio Telefonoa. Anonimotasuna gorde eta kontsulta zailak errazten dituen baliabidea da, horrela posiblea da arazoak ezagutzea eta kasu egitea.

HELBURU ZEHATZAK

1. Arazoak ezagutu eta hauei kasu egin, beste baliabide batzuk erabiliz zaila izango zela kontutan hartuz.
2. Programa eta honek ukitzen dituen arloen arteko kontaktu zuzena sortu.
3. Zerbitzu honen aukerak zehaztu.

EKIMENAK

1. Telefonoa astean birritan zabaldu, egunean bi orduz.
2. Ahal den neurrian eskaerari aurre egin.
3. Baliabidearen erabilera hobetuko duten aldikako informeak idatzi.

2.2.3

HEDATZEA

Emakumearekin berdintasunean lan egitearen aldeko gizon askoren ustez jarraitu beharreko norabidea markatzen duten erreferente argi gutxi dago.

HELBURU ZEHATZAK

1. Eredu maskulino tradizionalaren krisiaren inguruko diskurtsoak hedatu, hauek eskuragarri izan daitezen.
2. Gizartean eta batez ere gizonen artean dauden diskurtsoen inguruko eztabaidak ahalbideratu.
3. Gizonen artean Baldintza Maskulinoaren inguruko prozesu autokritikoa bultzatu.
4. Gizonen arteko zein emakume eta gizonen arteko lan bateratua indartuko duen jeneroari buruzko diskurtsoaren zehaztapenari bultzada eman.

EKIMENAK

1. Materiala sortu: Liburuxka bilduma:
 - Berdintasun politika baten barruan interesa duten edo jarrera positiboa duten gizonen artean gaur eguneko eztabaida, arazo eta gaien inguruko zenbait argitarapen burutu.
2. Hedabideekin elkarkidetza:
 - Topikoak errepika ez ditzaten eta sexismoaren kontrako borrokarekin bat egin dezaten lagundu.
 - Eurekin ahalik eta harremanik arinena sortu, iritzi estatu bat lortu ahal izateko gertakariak aprobetxatuz.
 - Delegazioarekin bat irratia eta telebista programak diseinatu jeneroaren arazoaren inguruan.
3. Kongresu, lhardunaldi, Topaketa eta abarretan parte hartu:
 - Honako ezaugarriak dituen lehen programa izanik, jeneroaren arazoa, maskulinitatearen ikerketa edo gizonekin lan egiteko estrategien diseinua jorratu nahi duten foro askoren interes gunea bilakatzen da.
 - Programa ahalik eta gehien zabaldu nahi dugu helburuak lortzeko, antzeko esperientziak sortarazteko, interesa duten edo interesgarriak diren profesionalekin harremanetan jartzeko eta abar luze baterako.

2.2.4

IKERKETA

Aktibitate honen antzekoa den edozein ekimenak programazioa, inguruarekiko egokitzapen jarraia eta ebaluazioa beharrezkoak ditu hasieran ezarritako helburuak bete direnentz jakin ahal izateko.

HELBURU ZEHATZAK

1. Programa garatzen den bitartean ikerketa-ekintza lana egin behar da, gure lanaren eragina, merezitako balorazioa eta errealitateak eskatzen dituen aldaketak ahalik eta zehatzen ikusi ahal izateko.
2. Oinarritzko ikerketa ildoak garatu Jerezeko gizonezkoen ezaugarri zehatzak ezagutu ahal izateko eta lan estrategia eraginkorrenak diseinatu ahal izateko.
3. Hiriaren diagnostikoan parte hartu, non Jerezeko gizonezkoen osasun egoera aztertuko litzatekeen.
4. Soziologo bat edo gehiagoren aholkua eskatu, noizbehinka estudio eta ikerketak neurtzen eta diseinatzen lagun dezaten.

EKIMENAK

1. Jerezeko gizonezkoen arazo eta eskaera zuzen zein zeharkakoak ikertu, sailkatu eta hierarkizatu.
2. Azaltzen diren gaien edo arazoaren lehentasun eta erritmoak zehaztu.
3. Ikerketak ematen dituen datu eta ondorioak zabaldu, edonork eskura ditzan.

2.2.5

HEZIKETA

Heziketa, programan lan egingo dutenei edo antzeko helburuak dituztenei laguntza eta ahalmena emateko tresnarik eraginkorrenetariko bat da. Gizonen arteko elkarkidetzak gehien bultzatuko duen tresna da eta era berean, gizonengan eragina duten gaien inguruko hausnarketa kolektiborako lagungarrien suertatuko den baliabidea da baita ere.

HELBURU ZEHATZAK

1. Patriarkatua eta honen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatu gizon eta emakumeen artean.
2. Jeneroen gaiaren inguruan lantzen ari diren lan, bibliografia eta ikerketak plazaratu.
3. Jarraikako heziketa ziurtatu gai honetan sakondu nahi duen orori.

EKIMENAK

1. MASKULINOTASUNEN TAILERRA. Gizonezkoen kolektiboarengan eragina duten gaien inguruko ezagupen eta hausnarketarekin interesatuta dauden gizonezkoen zuzenduta dago, gizon taldeetan normalean eztabaidatzen diren gaiak edo partehartzaileek beraiek proposatutako gaiak.
 2. Delegazioaren OSASUN ETA JENEROKO MINTEGI IRAUNKORRA delakoan kolaboratu.
 3. HEZIKETA PARTEHARTZEAK
- Ahalik eta ekimen gehienetan parte hartu: Ikastetxeak, Elkarateak, Kolektiboak, e.a.

2.2.6

AHOLKULARITZA ETA KOORDINAZIOA

Jeneroaren inguruko lana gizon eta emakumeen arteko eskubide eta aukera berdinen aldeko politikaren barruan kokatzen da. Honen helburua jarrera, ohitura eta joerak aldatzea da, eztabaida soziala eta analisi kritikoa erraztuz, jeneroak gizon eta emakumeen arteko harreman zein osasunarengan duen eraginaren inguruan.

HELBURU ZEHATZAK

1. Berdintasunaren aldeko jarrera eta diskurtsoak udal ihardueran ere islada izan dezan lagundu.
2. Udaletxeko ordezkarien irudi eta diskurtsoaren bitartez gizonen aldaketaren bidean dauden oztopoak borrokatu.
3. Delegazio guztietan programa honen helburuekin bat datozen aktibitate guztietan lagundu.
4. Hezkuntza programetan ume eta gazteen heziketa samurtasuna eta enpatia bezalako baloreetan oinarrituta egotea, hala nola euren arteko zein neskekin dituzten arazoak bortizkeriarik gabe konpon ditzaten lagundu.

EKIMENAK

1. Bestelako Delegazioei eta programak zein ekimenak garatzerakoan gure laguntza onuragarria izan ditzaketen profesionalei gure laguntza eskaini aholkua edo ideiak ematerako orduan.
2. Delegazio edo programen artean gure partehartzea gauzatu koordinazio batzordeetan, nahi izanez gero.
3. Gure programaren zeharkako izaera bultzatu ardura eta ezarri ditzakegun kolaborazio bide orotan.
4. Mutilentzako proposamen zehatzen inguruan egon daitezkeen hezkuntza hutsuneak betetzeko aktibitateak proposatu.

2.2.7

DIRULAGUNTZAK PROIEKTUAK

Programa ezartzerakoan ehun soziala sortarazi behar da zeinek jeneroaren problematika eta gizonen gaiarekiko ardura erakutsiko duen. Sorrera honek udalaren laguntza ekonomikoaren beharra izango dituen proposamenak ekarriko ditu, administrazio hau baita gizonen programa berezia duen bakarra. Eskakizun hauek jasoko duten erantzuna beraien seriotasuna eta gure ahalmenaren araberakoa izango da.

HELBURU ZEHATZAK

1. Gizonezkoen zein talde mistoak sortarazi edota bermatu, gizonen edo jeneroaren inguruko problematika landuko dutenak, emakumeekiko benetako berdintasunaren aldeko bidean.
2. Kolektibo hauen ekimenak bultzatu, taldearen bermatzearen aldeko pausuak edota matxismoaren desagertzearen aldeko pausuak ematen dituzten heinean.

-
3. Udalerrian berdintasunaren aldeko gizon talde autonomoaren sorrera bultzatu. Honek gure helburuak lortzeko lanaren jarraipena ziurtatuko bailuke, etorkizunean eman daitezkeen aldaketa politikoen ginetik.

EKIMENAK

1. Interesa izan dezaketen talde, kolektibo edo pertsonak proiektu autonomoak martxan jartzera animatu.
2. Ekimen hauen programaziorako aholkua eskaini.
3. Gure ahalmen ekonomikoaren arabera eta ekimenek duten interesaren arabera, baldintzak betetzen dituztenei dirulaguntza eman.

2.2.8

INTERNETEKO ORRIALDEA

Jerezeko Udalaren Osasun eta Jenero Saileko "Gizonak berdintasunaren alde" programaren web orrialdea sortu.

Hau informazio, hedapen, heziketa eta aholkularitzarako tresnarik garrantzitsuenetariko bat izan daiteke.

Bertan programa, gaiarekin lotura duten udal dokumentuak (Alkatearen Bandoa emakumeen kontrako gizonen bortizkeriaren inguruan, Osasun eta Jenero Delegazioko adierazpenak,...) iragarri nahi diren ekimenak, burututako ekimenen memoria, argitaratzen diren materialak, interesgarriak diren helbideen zerrenda (zuzeneko kontaktuekin posible bada), maskulinitate eta jeneroaren inguruko bibliografia, ponentziak, artikulak, gaietan sailkatutako lanak (bortizkeria, aitasuna, lana, e.a) azalduko dira.

2.2.9

BESTELAKO EKIMENAK

Gizonezkoen gehiengoak jeneroen papera zalantzan jar dezan eta berdintasunaren alde borroka dezan, mota desberdinetako efemeride edo kanpainak bultzatu eta laguntzea da helburua.

HELBURU ZEHATZAK

1. Gure programak edo hauen inguruko aspektuak ahalik eta gizon gehienei helarazi.
2. Jeneroen papera eta honek babesten dituen zenbait jokamolde sexistarekiko jarrera kritikoa bultzatu.
3. Sexismoak dakarren ondorioz latzenenganako erreakzio publiko eta pribatuak sortarazi.

EKIMENAK

AITAREN EGUNA

Martxoaren 19a aprobetxatu gaur eguneko gizartean aitak duen paperaren inguruko hausnarke-ta kritikoa publikoki zabaltzeko, horrela gurasoen arduretan inplikazio progresiboa erraztuz. Gure

ideia "Aita izan zaitez, arduratu zaitez" bezalako leloak zabaltzea da, hala nola artikuluak idatzi, seme-alaben heziketan partehartzea duten aitei elkarrizketak egin, e.a.

BEGIZTA ZURIAREN KANPAINA

1.991 urteaz geroztik Kanadan gizonezkoek emakumeen kontrako bortizkeria salatzen nazioarteko kanpaina bultzatzen ari da. Kanpaina honek baditu Europan martxan jartzeko zenbait ekimen aurrikusita, hauetan herrialde desberdinetako kolektibo eta instituzioek hartuko dute parte.

SENARRAREN EGUNA

Maila sozial desberdinetako gizonekin lan egiten hasteko modurik errazena agian, Delegazioak emakume elkarteekin duen harremanen bitartez egitea da.

Uste dugu emakume taldeetan lanean daudenen bikoteek sentsibilitate handiagoa izango dutela orokorrean, baita aldatetaren premiaren inguruan ere, hortaz, gure ustez programa honen helburu eta ekimenenganako interes handiagoa izango dute.

Honen guztiarengatik emakume talde orori iradoki diogu "Senarraren Eguna" delakorako deialdia egitea. "Gizonak emakumearen aldatetaren aurrean" gaiari buruz hitz egiteko data eskatu diegu, hala nola "Gizonak Berdintasunaren alde" programa azaltzeko, euren ideia eta iradokizunak biltzeko, zalantzak argitzeko eta nola ez, proposatzen dituzten gaiak komentatzeko.

GAY HARROTASUNAREN EGUNA

Mugimendu homosexualaren aldarrikapenekin gure elkertasuna adierazi nahi diegu eta gizonen subjektibotasunaren eraikuntzan homofobia zein kaltegarria den azpimarratu.

3.

Balantzerako charra

Delegazioa (Osasun eta Jeneroa) eta Programa (Gizonak berdintasunaren alde) erronka politiko ausarta dira, berdintasun politikak jorratzeko modu berria planteatzen baitu, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna errealitate bihurtzeko, inplikaturako parte guztien mobilizazioa biltzerakoan (emakumeak eta gizonak).

Orain arteko balantzea motibagarria da. Lehenak izateak nori jarraitu ez izatea suposatzen du eta honek bere alde onak eta txarrak ditu. Onak hauek lirateke: asmatu, saiatu eta sortzeko aukera ematen du, "ekinez bidea eginez" alegia. Eta txarrak aldiz: erreferente zehatzik ez dugula, ekin daitezkeen akatsak egiten ditugula, beti helburu eta lehentasunetara egokitu behar garela esperientziaren arabera, aukera zehatzen arabera, eskaeraren arabera, lan egiten dutenen limitazio pertsonalen arabera, e.a.

Gure helburua izan da eta bada oraindik ere, gizonezkoen eguneroko bizitzan jeneroak duen eraginaren inguruko eztabaida soziala eta analisi autokritikoa sortaraztea, hala nola honako gai

hauen inguruan ere, hots, emakumeek sofritzen duten bortizkeria, homofobia gainditzeko beharra eta sexismoa ezabatzeko beharra.

Helburu hauek lortzeko udal programa guztien inplikazioa nahi dugu, ahalik eta gizon kopuru handienaren partehartzea lortuz, irudi eta diskurtso egoki batekin zein aldaketaren beharra somatzen duen edonorentzat eredu baliagarria izango den.

Baliabideak murrizak dira: telefonoa eta internet duen ordenadorea daukan bulegoa, udal azpiegitura (prentsa bulegoa, ...) eta aurrekontu bat, zeinen nondik norakoak ezagutzen ez ditudan oraindik ere.

Giza baliabideak: informatikan aditua den pertsona baten laguntza, ni neu eta delegazioko kideen laguntza puntuala.

Txipa aldatu behar izan dut honako hau administrazio batetik lan egiten dudan lehen aldia baita. Nire lanean ni nintzen lanaren arrakasta edo porrotaren arduradun bakarra, orain aldiz edozein gauza erabaki kolektibo edo beste edonoren erabakien esku dago. Era berean meritua edo ardurara ere banatu egiten da, edo bestela eta azkenez ardura politikoa duenarena, hots, delegatua.

Lan giroa zeharo ona da, delegatua eta zuzendaria (feminista eta nire lagunak) nahi dutena argi duten emakumeak dira eta ardurak banatu egiten dituzte. Delegazioko beste guztiak ere emakumeak dira gehienak (gizonezkoak lau gara nire burua kontutan hartuta), oso atseginak orokorrean eta lanerako dugun espazio fisikoa berriz handia, modernoa eta gustu handiz dekoratutakoa da.

Parte hartzen dudan barne batzarretatik honako hauek azpimarratuko nituzke:

- Delegazioaren koordinaketari buruzkoak, bertan arlo-zuzendariak, delegazioko programaren arduradunek eta helbideekiko harremanen arduradunek parte hartzen dutelarik. Hemen programa desberdinen ekimenak aztertzen dira, proiektuak eta eguneroko lana aberasteko baliagarriak diren ideiak planteatzen dira, programen arteko elkarkidetza bultzatzen dugu, eta jenero diskurtso bateratua lortzen saiatzen gara, horrela eta Jerezeko gizon eta emakumeen egoera abiapuntua izanik, eskubide zein aukera berdintasunaren aldeko urratsak ematen saiatzen gara.
- Hilero egiten ditugun delegazio osoko bilkura, bertan elkar ezagutzeko aukera dugu, besteen lanaren berri izaten dugu eta lana koordinatzen saiatzen gara eta ilusioa sortzen dugu gure lanaren diskurtso eta helburuen bidean.

Nire uste ez litzateke arriskutsua esatea programa oraindik ere guztiz bermatu gabe dagoela:

- Hirian gero eta ezagunagoa da.
- Hedabideetara heldu den kritikarik ez du izan.
- Gizartean interesa duten gai askoren inguruko eztabaida sortarazten du: emakumeenganako gizonezkoen bortizkeria, aitaren papera, homofobiak guztiongan duen eragina, guretzat emakumearen borrokak duen garrantzia, bortizkeria xenofoboaren ezaugarri maskulinoa, gizonezkoen ardura IHESAren kontrako borrokan, gizonezkoen sexualitate tradizionalaren krisia, jeneroen arteko harremana eta estimatutako bizi iraupena (jarrera arriskutsuak, drogamenpekotasuna, ...), maskulinitatea eta eskola giroaren gainbehera, e.a.

- Hedabideekin dugun harremana ona da eta hauengandik jaso dugun jarrera egokia da. 50 irriti edo telebista programa baino gehiagotan parte hartu dugu eta 10 iritzi-artikulu baino gehiago argitaratu ditugu oso gai anitzei buruz, emakumeen kontrako gizonaen bortizkeria, xenofobia, aita izatea, emakumearen askapena edo gay harrotasunaren eguna besteak beste.
- Irakaskuntza, polizia edo krisian dauden gizonetik lana bezalako arloetan kolaborazioa sortzen edota sakontzen ari gara (drogamenpekotasuna, banaketa prozesua, ...)
- "Jerezko Gizonen Taldea" sortu eta bermatzen lagundu dugu, talde hau 2.000ko urtarrilean hasi zen lanean, erkidego autonomoko beste taldeekin harremana du eta joan zen azaroaren 25eko ekimenetan partehartze handi izan zuen (emakumezkoek sofritzen duten bortizkeriaren (gizonaen bortizkeria) kontrako eguna) "Isiltasunak konplize bihurtzen gaitu" lelopean. Urtero azaroak 25 eguneko ekimenetan parte hartzen duten gizonen kopurua gehitu egiten da.
- Gizonentzako zerbitzuak eskatzen zituen eskaerak edo problematikari buruzko eskaerak antzematen hasi ginen: Banaketa eta dibortzio prozesuak, arazo sexualak, ugalketaren inguruko arazoak eta higiene arazoak, drogamenpekotasunak eta adizioak, eraso sexual edo bikotearen tratu txarrak sofritzen dituztenak (gizoneko gutxi, baina egon badaude), emakumearen kontrako bortizkeria erabiltzen duten gizonetik lana, eta abar.

www.hombresigualdad.com programaren Web orrialdearen helbidea da, Luis Balbásek diseinatu eta egunean jartzen du nik materiala pasatzen diodan heinean eta berak denbora duen heinean.

USTE GENUENA BAINO HOBETO ATERA DIREN GAUZAK

INTERNETEKO ORRIALDEA

Bisitatu gaituen jende kopurua ia publizitaterik eman gabe (4.000tik gora), gure partehartzea hainbat eta hainbat tokitan, bidaltzen dizkiguten laguntasun mezuek, gure fondo dokumentalean agertzeko eskatzen diguten testuak, eta abarrek "mutilak" gaia zein interesgarria den adierazten dute. Bestalde sortzen ari garen fondoak interesgarri eta balio handikoa da jenero eta maskulinitasun gaien inguruko ikerketak egin nahi dituztenentzat.

GAY ETA LESBIANEN NORMALIZAZIORAKO LANA

Hedabideen aurrean egin nituen lehen adierazpenetan programaren arduradun gisa, esan nuen penagarria dela kolektibo honen partehartzea hirian hain eskasa izatea. Sofritzen duten diskriminazioa eta askatasun eza isladatzeak kezkatzen ninduen. Euren presentzia publikoa onuragarria suertatzen da normalizaziorako bidean eta bestalde, ohiko eredu maskulino eta femeninoak kuestionatzen ditu.

Gay-Lesbiko zinema zikloak, aurreko urtean Udaletxeak antolatu zuena, adin guztietako pertsonen partaidetza izan zuen, giro ona egon zen baita hiriaren bizitza kulturalarentzat gertakari historiko

baten partaide izatearen sentimendua ere izan zen. Ordutik ona Arcadiako kide batek (herrialdean presentzia gehien duen erakundea) gure delegazioan homosexuali zuzendutako kontsulta dararama. Aurten zikloa errepikatuko da eta paraleloak diren ekimen batzuk antolatuko dira, horregatik uste dugu Udalak konpromezua hartu duela eta hasi dugun lana bermatu daitekeela.

DROGEN MENPE DAUDENEKIKO LANA

Hasierako helburuetan ez genuen kontutan izan, baina gizonzkoek gai honen inguruan ohikoa ez den interesa eta jarrera autokritikoa erakutsi dute, maila kulturala edozelakoa bada ere. Hau dela eta nik nuen ideia kolkan jarri zen, hots, eredu maskulinorenganako interesa 35 urte baino gehiago dituzten gizonzkoek zutela, ezkertiarak eta kultura maila ertaina edo altua zutenak.

POLIZIA NAZIONALA

Poliza nazionalak zuzentzen zuten emakumearen kontrako gizonzkoen bortizkeriaren inguruko tailerra. Hauen artean militante zahar ezkertiar batek espero zuen baino erantzun hobean aurkitu nuen.

IKASTETXEEN JARRERA

Mota guztietako erraztasunak eman didate "Bortizkeria eta Eskolako Giroa, lehen zikloko ikasleen arteko tratatu txarrak" gaiaren inguruan lan egin ahal izateko, beti ere jeneroaren ikuspuntutik.

GIZONA IZATEARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

Legealdi honetan bi antolatuko dira. Lehenak, 2.001ko arazoaren 8, 9, eta 10 egunetarako antolatuta daudenak, Gizona Izateari buruzko Estatu mailako ihardunaldiak (gizonzkoak berdintasunaren erronkaren aurrean).

UNIBERTSITATEAREKIN HARREMANAK

Honako hauetan txostengile bezala parte hartu dugu:

- "Maskulinitatearen Erretorika" Nazioarteko Ihardunaldiak, Sevillan 2000ko martxoan, Sevillako Unibertsitateko Ipar Amerikako Literatura eta Literatura Ingelesa Departamentuak antolatuta.
- IX Biltzarra: Zuzenbide Penalaren gaur egunekoak, Jerezen 2000ko martxoan. Kadizko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatea.
- Ugalketa eskubideen Ikerketa Juridikoaren Mintegia, Jerezen 2000ko martxoan. Kadizko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatea.
- Lan Sozialaren VI Ihardunaldiak "Lan Soziala Jeneroaren Ikuspuntutik", Jerezen 2001ko martxoan. Kadizko Unibertsitateko Turismo, Lan Soziala eta Lan Harremanen eskolaren eskutik.
- 2001ko abenduan "Maskulinotasunaren Eraikuntza Sozialak" Ihardunaldietan parte hartuko dugu. Ihardunaldi hauek Sevillako Pablo de Olavide Unibertsitateko Jenero Gelak antolatuko ditu.

**OZTOPO GEHIEN IZAN DITUZTEN
PROIEKTUEN ARTEAN HONAKO
HAUEK AZPIMARRA DITZAKEGU:**

- Programaren zirriborroa delegazioaren helburuetara egokitu behar izan zen eta gizonak laguntzeko kontsultak martxan jartzea planteatzen zuten zenbait ideia ez ziren batu.
- Aurrekontu eskasak proiektuak laguntzeko ildo ezinezkoa egin zuen, Jenero Koadernoak argitaratzea luzatu egin da eta hiriari zuzendutako Osasun eta Jenero Mintegi Jarraia atzeratu behar izan da.
- Eskaera ezak honako hau ekidin du: "Maskulinitasun Tailerra" gizonentzat eta "Senarraren Eguna" emakume taldeekin. Duela gutxi burututako hitzaldi batean, emakume talde batek antolatutakoa, 60 urte inguruko gizon talde batek parte hartu zuen, hauek oso jarrera positiboa erakutsi zuten. Euren kexa bakarria aldaketaren abiadura geldoa "soilik" izan zen eta onartu zuten aldaketa hau ez zela martxan jarriko presiorik izan ez balitz.
- Udalaren funtzionamenduaren inertziak zaila bihurtzen du delegazioen arteko zeharkako lana eta era berean zaila bihurtzen da gure delegazioaren gai interesgarriak eta gizonen programa bultzatzea. Gobernu anitz batekin egoera hau bada, imajina ezazue koalizio gobernu batetan egoera zein izango litzatekeen.

XABIER ODRIUZOLA EZEIZA
Laguntza-gizon Taldeak Euskal
Herrian. Bergara. Gipuzkoa

Gogoeta

taldeak:

Gizonak

feminismoaren

aurrian

Laburpena

Gizonezkoari, umea den unetik, hezkuntzaren bidez halako "aurretik espero izandako" jokaera batzuk garatzeko prestatu izan zaio, gogorra izan dadin, eremu pribatuan ongi molda ez dadin, emakumezkoak zapal ditzan... besteak beste, eta gero jakeara haietxengatik gaitzetsi eta erru-
dundua izango da. Baina gizonezkoa, hondoan, ez da horrelakoa.

Bere sendimendu mundua txikiatu behar izan zioten, gizatasuna kendu, gizakoiak ez diren joka-
bideak garatu aha ditzan, baina sendimendu mundua berreskura dezala irakatsi, erreztuez gero...
gauzak aldatzen dira.

Sexismoaren ezkutuko aldeak

Azken 10 urteetan aukera polita egokitu zait gizonezko askoren bizitza gertutik ezagutzeko "gi-
zonezkoen taldeak" izeneko ekimenari esker. Talde horietan kolore guztietako historiak, gertaerak,
bizipenak, gogoetak, tragediak, sentikizunak, ametsak... entzun ahal izan ditut, zuzeneko lekuko-
tasun paregabea gizonezkoek oso gutxitan kontatzen duten barneko korapiloen aurrean. Honek
hausnarketara eramane zuzenean eta horixe da zuekin konpartitu nahi nukeena, zeren eta tal-
de hauetatik hartu dudak eskarmentuak eman dit orain arte sexismoaz ez nuen ikuspegi berri bat,
sexismoaren ezabatzeari buruz ikuspuntu berri eta itxaropentsua ekar diezaiokeena.

Denok jakina da bizi garen gizartean zapalketa anitz badela, hots, gisa-talde batek beste gisa-tal-
de bat zanpatzen duela, gehienetan etekin ekonomikoak edo abantaila laboralak ... lortzekotan.
Adibidez zuriak beltzak esklabutzara behartu ohi izan dituzte; egun ez bakarrik beltzak, bestela-
ko arrazakide batzuk esklabugintzapean bizi ari dira. Aberatsek behartsuak ustiatzen dituzte, na-
gusiek langileak, helduek gazteak, gazteek adin txikikoak, gizonezkoek emakumezkoak, garai
batean kristauak, judutarrak, protestariak, indiarak, larrudun piztiak ... izan ziren zapaldu eta ja-
rraituak. Eta honi buruz hitz ugari egin da, zapalketa hauen ondorioak eta emaitzak aztertu dira.
Emaitza hauen arabera plangintzak, kanpainak, plataformak, erakundeak, ekimenak, erantzun-
ak.. eratu eta burutu dira era guztietakoak, eta hauen emaitzei buruzko datuak ikerketak, inkes-
tak etab kaleratu izan dira azken hamarkadetan eta egindako lana eta aurrerapena baikorra izan
da oso, batipat emakumeak egindako lan, ahalegin eta kontzientzia hedapena, guri interesatzen
zaigun gai honetan: sexismoan. Beraiek zabalduetako borrokari esker gaude gu hemen, gizez-
kook, ia zeharka etorri zaigun arazo honi argitasuna jarri nahian, azken finean konturatu bait
gara gu geu ere zuzen-zuzenean eragiten gaituela.

Bai, zapalketak eta beren ondorioak mintzagai bala-bala denen ahotan, baina, nire ustez, hitz
gutxi egin da zapalketen zergatiaz eta honen inguruan kokatu nahi nuke gaurko hitzalditxoak:
Gizonezkook zergatik zapaltzen ditugu emakumezkoak? Jende gehienak ez du hau ezagutzen eta
ondorioz gizezkoak berez zapaltzaileak direla uste ohi du. Honek ez digu itxaropen gehiegirik
ekartzen sexismoa desagerrarazi nahi badugu, gizezkoak berez sexistak badira lan izugarria

izango genukeelako, zeren eta sexismoa etenarazi nahi bada derrigorrezkoa da gizonezkoek emakumezkoak zapaltzeari uztea. Baina baditugu zantzu batzuk gizonezkoak ez direla sexistak jaiotzen sinisteko, baizik eta hezi egiten zaie sexista den kultura batetan, eta hortik ateratzen direla sexista errol guztiak barneraturik, emakumeak gaitzesteko prestatuak. Nola eta non gertatzen da hau guztia? Gizartean bada ageriko curriculum bat, denon ezaguna, etika, morala eta bizikidetzari buruzko araudia duena: pertsonak begirunez hartu behar ditugu, giza-eskubideak errespetatu behar dira, denok aske jaiotzen gara eta heziketa, etxebizitza, lanerako, aisialdirako... eskubidea dugularik, ikasteko, elikagaiak eskura izateko eta pentsatzen duguna adierazteko eskubideak... guztioi ongi iruditzen zaigu curriculum hau, ados gaude berarekin, irakatsi egiten dugu ikastetxeetan, sendietan, eta berorietan oinarrituta bizitzen saiatzen gara.

Eta honekin batera bada gizarte honetan ezkutuko curriculum bat, berarekin inor ados ez dagoe-na, inor gutxi defendatuko lukeena eta denok baztertu nahi duguna baina, tamalez gertatzen uzten duguna, belaunaldiz belaunaldi gugana heldu dena, eta guztiongan eragina duena, barnera-ino sartu zaiguna eta igortzen, transmititzen jarraitzen duguna, berarekin ados ez gauden arren. Ezkutuko curriculum honetan aurkitzen ditugu sexistak diren ideiak, matxistak diren jokabideak, gizakiaren aurka doazen jarrerak, baloreak... Ikus dezagun nola gertatzen den hau:

10 urtez gizonezkoekin ukalondo ukalondo lanean eta 17 urtez ikastola, ikastetxeetako, parkeetako jolastokiak behatzen, nahikoa informazioa bildu ahal izan dut gizakiari buruz. Hor ditugu haurrak, gizaki gazte horiek, bizitzaren lehenengo urteetan denetaz gozatzeko prest, denari buruz jakiteko irrikaz, denekin jolasteko eginak baldin eta urte motz horietan bizitzak eta hau bizi dugunok gogor hartu ez baditugu, noski. Lasai asko ibiltzen dira elkarrekin haurrak beren jolasak konpartituz, beren ametsak, fantasiak gauzatuz elkarrekin, jarioasun emozional etengabea, gauza guztiekin gozatuz, hunkituz, barreak, algarak, negarrak, lotsarik gabe kaleratuz etengabe-ko interakzio kolaboratzailean jolasak eta jokoak burutuz, bai jantzirik parkean kalean, bai biluzik hondartzan igerilekuan... ez zaie axola generoa, berdin die zer den bere jolaskidea, neska ala mutila den... bost axola. Nahi duten bakarra ongi igarotzea da, batek ez badu jolastu nahi, berdin dio, beste batengana joko du jolas eske. Elkarrekin ikusten zaie, gertu, bizi-bizirik, alai, oso lagun, ...

Hirugarren urtea betetzerakoan eskolan hasiko dira, Haur Hizkuntza deritzan horretan; 2-3 urte betetzerakoan giroa aldatzen hasiko da, poliki-poliki, beraiek ohartzeke. Eguneroko marrazkietan, liburuetan, ipuinetan, heldu batzuen jokabideetan, txisteetan, iragarkietan, filmetan, telebis-tan, jantzietan, jostailuetan, ikusten, sumatzen hasiko dira zerbait: neskak eta mutilak ez dira berdinak; gainera urte honetan eta hurrengoan (3-4) mutikoei curriculum ezkutuko errolak ezartzen hasiko zaie: ez negarririk egin! ez izan mari neska! gogorra izan zure aita bezalakoa! ez erakutsi sentimendurik, ez izan "ahula", "biguna", ez izutu ezeren aurrean, itxura eman beti dena ongi da-goela kanpoan zein zuregan, dena dakizula, dena ahal duzula, ez erakutsi sentiberatasunarekiko zirrikiturik... Mutiko kozkorraren emoziozko bizitzaren aurka doa errol multzo hau zuzenean, bai-na konturatuta bere inguruko helduek zein presioa eragiten dioten zinez saiatuko da azaleratzen zaion sentipen orori barrurantz bultzatzen, helduek berarengandik espero dutena betetzeko.

Bestela zaila izango zaio onartua izatea. Garai batean jasotzen zituen, etengabeko ukimena, laz-tan mordoak, afektuzko keinuak, babes emozionala eta fisikoa, besarkadak etab., behar beharrezkoak zaizkio osasuntsu hazteko eta emozionalki orekatua garatzeko baina hauek guztiak desagertzen hasi dira abiadura handian eta etorkizunean gizartean jokatu beharko duen "gizonezko" baten jokabide zurrin eta gogorrenatik trukatuak, ordezkatuak izaten hasi dira. Ez dira ordea desagertu nesken multzotik; haiei bai uzten zaie beren afektibozko arloarekin, sentikizun munduarekin kontaktuan egoten; noski neskatoengandik gizartean errol gogorrak, agintariak, zurrinak... betetzea espero ez denez, neskatoek garatzen dituzte sentiberatasuna, maitasuna, afektibotasuna, gertutasuna, ulergarritasuna... txiki-txikitandik eta beren barne munduarekin oso lotuta hazten dira, oso gutxi espero da eta haiengandik, zoritxarrez.

Mutikoen ezberdintasun hau antzematen dute errez eta ondorioztatzen duten lehenengo ideia beraien errotzen joango den sexismoaren lehenbiziko zutabea izango da: "neskak ezberdinak dituk"! Eta mutikoen ezkutuko curriculum hartatik jasotzen jarraituko duten mezuek ideia baieztatu eta indartuko diete. Neskatoekiko halako mesedezko tratua ibiltzen dela ikusten dute, negar egiteagatik ez dituzte ez joko ez zigortuko, ez dituzte gaitzetsiko euren sentimenduak agertzeagatik, ez dituzte hertsituko eguneko ordu guztietan gizaki gogor eta zurrinak, inposatzaile eta harroak, lehiakorrak eta eraginkorrak izan daitezela, hots, ez dituzte esparru publikoan borrokatzeko prestatuko, esparru pribaturako baizik (etxe barrua, umeen zaintza: maitasunezko jokabideak, samurrak, ulerkorrak, jasankorrak, menpekoak, apalak,...) eta ondorioztatuko dute sexismoaren bigarren zutabea, ezkutuko curriculum horretatik datorren ideia batetan oinarrituta: neskekiko amorrutik sortutako ideia: "mutil izatea hobeagoa duk"! Eta mutil izatea hobeagoa bada, noski, neurri handi batean da neska izatea okerragoa delako. Mutikoen lauzpabost urterekin garatuko dute halako jasankortasun gabeko jokabide obsesiboa neskekiko. Neskak bihurtuko dira mutikoen zurigune, diana, mutikoen pairatu behar duten presio jasangaitzaren ihes-balbula, eta neskak gaitzetsi, izorratu eta erasotzeari ekingo diote hurrengo hilabete luzeetan. Hautzaro goiztiarrean lagunik hoberenak zirenak, amets guztiak konpartitzen zituzten jolaskide maitagarri paregabeak bitalde ezberdinetan kokarazi ditugu, aurrez aurre kokatu eta hemendik aurrera ia-ia heltzarorarte doan bolada luzean iraungo duen enfrontamendu batetan. Jolastokietan mutikoen neskei iletatik tira, baloikadak jo, gonak altxatu, mespretxatu, iraindu, irrigarri utziko dituzte neskatoak. Neskak erabat harririk beren garairik hobereneko jolaskideen jokaera berriarekin beldurtuta bizi ari dira mutilen aldaketa honen aurrean eta ez dute ezer jakin nahi izango mutilekin, jolasak aparte egingo dituzte, ez diete mutikoei euren elkarrizketetan, jokoetan, planetan sartzen utziko: "hain dira astakiloak mutilak"! pentsatzen dute. Jakina, mutilek beldur hau sumatuko dute eta nesken aurka grinatsuagoki ekiteko erabiliko dute; mutilei dieten beldurra areagotuko da neskengan eta neskek beldurraren erantzule mutilak bihurtuko dituzte. Mutilek uste dute, aitzitik, neskak beldurti hutsak dirrela, beraiekin ezin dela ezer egin eta erruduntzat joko dituzte: "ez dute ezertarako balio".

Lehen Hezkuntzara sartu gara jokabide hauekin eta orain oinarritzko hezkuntza honen hasierako urteetan mutikoengan gauzatuko da hirugarren zutabea. Mutikoak beren barne munduari nahikoa uko eginda daude jada eta ikasita ere bai ezin direla izan beraiek direna, baizik eta beraien-

gandik espero dena. Honetan gogotik ahaleginduko dira eskatzen zaien ereduak izaten, hots, onenak, lehendabizikoak, paregabeak, ahaltsuak, azkarrenak, indartsuenak,... eta nahi eta nahi ez lehiatu beharko dute beraien artean. Honek zapuztuko ditu beren arteko harremanak. Onenarentzako leku bakar bat dago, ez besterik, lehengoa bata bakarrik izan daiteke, ez bi, beraz, hasiera batean ume guztien laguna izan zitekeen umea, gerora bakarrik mutilen laguna izan zitekeen eta hor mantentzen zuen bere harreman afektiboak (afektiboa errol gogorrek uzten zioten neurri txiki horretan) arloa, baina orain ez eta hori ere. Lehiatu behar du bere lagun onenekin "oihanaren legea" ezagutzen dugun antzeko giro batean murgildurik. Liderrak sendotzen ari dira adin honetan eta zenbat eta gauza, balentria... zailagoak egin gero eta oharpen handiago lortuko. Lehen laguntzat, adiskidetzat zituen asko orain lehiakide, areriotzat izango ditu gainerakoak eta helduen onarpena jasotzearen (onarpena denok dugu beharrezko, baina kasu honetan ez da emango norbait denagatik, baizik eta egiten duenagatik eta honela ez da inolaz ere errazten norbait bere buruarengan ardazturik haz dadin, aurkakoa baizik). Eta zoritxarrez jokabide honetan neskei erasotzeak garrantzi handia hartzen du, batez ere oinarriko hezkuntza honetako urte hauetan (7-8-9-10...) mutilengan ezkutuko curriculumak zabaltzen hasi den mamuagatik, homosexualaren mamua: homosexual izatea neska izatea bezain txarra da. "Edo gurekin zaude edo neskekin" eta gurekin bazaude badakizu nor izorratu behar duzun: neskak. Eta beraiekin bazaude marineska zara eta "guk geuk emango diagu egurra". Beraz aukerak oso zehatzak dira: Neskekin ongi moldatzen bazara, marineska, arraroa, afeminatua eta mutilen zapalketa jasoko duzu, benetan latza dena eta betirako markatua utziko zaituena – homofobiaren hastapenak- eta ordea mutilen multzoan egotea erabakitzen baduzu, mutilen "arauak" bete beharko dituzu eta hor listoia oso-oso altua dago: neska guztien aurka egin beharko duzu eta baita, lehiaketa dela eta, mutil gehienek aurka, onena izateko, norbait izatea lortu nahi baduzu. Egoera honek irango du nerabe aro arte.

Zer dugu hemen, zer da ingurumari hau guztia? Zeharo gizatiarrak jaio diren umeak, bizitzaz beterik, sentimendu eta emozioz gainezka, elkarrekin jolasteko begirunez eta irrikaz beteta, kooperatzaileak, lagunak, gardenak, alaiak, solidarioak... ziren genero bereizketarik gabeko umeak erabat ez gizatiarrak diren jokabideetan murgilduta aurkitzen dira, elkarri mina eginez, zanpatuz, gaitzetsiz, arerio giro batean, oso aukera urriekin %100ean gizatiarrak izateko, bi multzo ezberdinetan zatiturik, generoaren arabera kilometroetako amildegi baten bi ertzetan aurrez aurre kokatuak. Batetik mutilak neskak gorrotatzera iritsi dira eta beraiekin ongi moldatzen diren "sasi gizon" guztiak, eta bestetik neskek ez dute tutik ere jakin nahi "astakirten hutsak" diren mutilekin. Bakoitzak bete behar dituen errolek urratzen diete gizatasuna; mutilek ikasi dute ondo asko beren emozio arloa isolatzen, izozten; errazago zaie ez sentitzea sentitzea baino, batez ere jokatu beharra daukaten errol ezgizatiar horiek gauzatu ahal izateko, hobe ez sentitzea; baina honen orain gero etorriko zaie: sentitzeko zailtasunak, gaitasun eza kasu askotan, nor diren, nolakoak diren jakiteko arazo larriak, depresioak, frustrazioak, zapuzak...

Inork aukeratu ez dituen, eta gustu handiz errefusatuko lituzkeen errol ezgizatiar horiek kalte beterik ez diete ekartzen, bai neskei zein mutilei. Hain bizitza elkartuak eramaten hasi ziren ume

haiek oso bestelako bidea egin dute, ia-ia 180 gradu kontrako norantzan. Elkarretaz ez dakite ezer. Mutilek ez dute ulertzen nesken mundua, ia-ia estralurtarrak iruditzen zaizkie –nerabe aroan gaude ia- eta neskek antzeko, ez dute ulertzen mutilen jokabide eta erreakzioak, eta "hobe haiengandik aparte samar". Ezkutuko curriculumak ez du lana bukatu oraindik; adin honetan mutilei berrira xuxurlatuko die: "orain neskak konkistatu behar dituzu", euren gustuko izan eta, noski, berriek maitatzeko era da sexuaren bidez. Eta neskei mutilak erakarri behar dituztela, linburtu, eta jakina, berriek maitatzeko era da berriek esan eta egiten duten guztian baiezkoa ematea, sexuan ezik. Imajina al dezakezue zein nahaspila handia den hau dena. Ia-ia 15 urtez kontraerriak eta aurrez aurreko "guda" batean kokaturik bizi izan direnek bat-batean berrelkartu beharra dute, aurreko urtetan deskonponduko guzia konpondu gabe. Zergatik ikasketen porrota eta buru botatze kopuruak dira horren altuak adin honetan? Ezkutuko curriculumaren zeregina ez da hemen bukatu. Lanean segituko du pertsonen gizatasuna hondatzen, (soldaduska, lan arloko sexismoa, esparru publikoko matxismo eta aurreiritziekin, soldata bereizketak, injustiziak sexu bereizketetan, eta abar luzeegi bat hemen aipatzeko.)

Panorama hau ikusirik argi dago sexismoak ez duela etekinik ekartzen inorentzat, ez duela zentzurik, kalte besterik ez diela egiten neskei eta mutilei, ez gaituela gizatiar izaten uzten; gizakiak gara eta gehien betetzen gaituena, zoriotsuen egiten gaituena, eta pertsona bezala asebate eta errealizatzen gaituena da gizaki izatea %100ean, gure gizatasuna osotasunean mantentzea eta sexismoak ez digu uzten, sexismoak gizatasuna husten digu, murrizten digu, hondatzen digu. Lan etekinik, diru etekinik, ospe etekinik ez gaituzte benetan betetzen, zoriotsu egiten, gehien batean beste gizaki bat zapaltzetik datozkigun etekinak direnean, zeren eta norbait zapaltzean bere gizatasunaren aurka ari gara eta gizaki gizatiarrak garenez gure giza-integritateak ez du hori onartzen; norbaiten gizatasuna mintzen dugunean gurea mintzen ari gara eta hau ez gara pertsonok, honek ez digu inongo mesederik egiten. Sexismoa etetea denon onurako izango da, zalantza izpirik gabe. Ez dugu gehiago itxoin behar. Ez dugu gizonezko berriaren eredu aurkitu behar sexismoa geldiarazteko, ez dugu gogoeta gehiagorik burutu behar nolakoak izan behar dugun gizonok jakiteko; badakigu nolakoak ez dugun izan behar. Ezkutuko curriculum horretan in-tziditu beharra dago, hor aurkitzen dira gizon-emakumeen arteko harremanak gaiztotu eta hondatzen dituzten aurreiritziak, jokabideak eta baloreak, denok arbuiatzen ditugunak, baina orokorrean denok nozitu genituenak. Sexismoa bukaraztea ez da emakumeen lana bakarrik ez da emakumeen mesederako bakarrik izango, denon ardura da, denok izango gara irabazle, mesedea denontzat izango da, zalantzarik gabe. Emakumeak zein gizonok, barru-barruan ez gara ongi, pozik bizi errol hauetan, gehien maite ditugun pertsonak mintzera bultzatzen gaituzten errol hauetan; lana elkarrekin egin beharra dago. Gizonezkoek zenbat eta azkarrago askatu errol horietatik bizkorrago askatuko dira emakumeak beraienetatik.

Gakoa ez dago gizon eredu berriaren ezaugarriak zein maskulinitate oinarritik aterako ditugun, ez; honela egingo bagenu akatsa errepikatzen ariko ginatke. Gizarte zapaltzaile honek gizonezkoengan sustatu ditu emakumezkoengan antzutu, debekatu, ezabatu dituen ezaugarriak, eta alderantziz. Eredu hauek ez digute balio, ez dira gizatiarrak. Ezaugarriak ez ditugu bilatu behar

genero bereizketan sortutako ereduengan. Ezaugarriek izan behar dute pertsonari, gizaki zeharo gizakoiari dagozkion ezaugarriak., guztiz gizatiarrak eta bi generoei egoki-egoki dagozkienak. Guztiz bateragarriak eta egokiak dira bi generoetan: sentiberak izatea, indartsuak (indarra berez ona da, txarra izan daiteke egiten den erabilpena norbait zapaltzeko, kaltetzeko erabiltzen denean) maitekorrak, alaiak, elkarkoiak, jasankorrak, bizkorrak, xamurrak, jakitunak, inizatiba-zaleak, ospetsuak, lagunkoiak, ausartak, bigunak (ez menpekoak ala sumituak, baizik neka daitezkeen eta atsedena merezi duten pertsonak) adimentsuak, burutsuak, kirolzaleak, etxe,-kale,-mendizaleak,...

Errepika nahiko ez nukeen beste akats bat izango litzateke gizonezkoak arazoa direla pentsatzea. Gizonezkoak ez dira arazoa baizik eta arazoaren eroaleak, igorleak, transmisoreak. Arazoa da denok ukitzen gaituen sexismoa, eta denon ardua dugu berau desagerraraztea. Aukera paregabea dugu aurrean 35.000 urtez bizirik iraun badugu, zerbait ongi egin dugun seinalea da. Eta oraindik hobeto egin dezakegu, ziur! Eskerrik asko emakundeko langileei hausnarketarako txoko hau prestatzeagatik eta hona etorri zaretenoi. Etorkizuna denon esku dago. Aurrera!

MICHAEL KAUFMAN

**Lazo Txuriak Kanpainaren
Nazioarteko Zuzendaria.
Kanada**

*Maskulinota-
sunaren eta
indarkeriaren
arteko lokarriak
hausten*

Laburpena

Norbera eta gizartea hainbat botere-motaz (emakume, beste gizon, haur, inguruaren eta gure berzko emozioen gainekoa) baliatzea gure maskulinitasun era nagusien muina izan da. Azken buruan, indarkeria aipatu boterea mantentzeko bitartekoa da eta boterearen "laneko hizkuntzan" sartzen da. Aldi berean, banakako indarkeriazko ekintzak ere konpentsazio-mekanismo bihurtzen dira, zeinak gizonak bere buruan nabaritzen duten ahultasuna arintzen duen. Aspalditik emakumeak jakitun dira hori guztiagatik beraiek eta haurrek larrutik ordaindu dutela. Medioambientalisten iritziz, gizonak ere larrutik ordaindu dute. Hitzaldi horrek lehenik gure gizon-tasun eta indarkeri era nagusien artean dagoen lotura aztertuko du, eta ondoren lotura hori apurtzeko beharrezkoak diren gizartea eta norbanakoa aldatzeko erak aztertuko ditu; azkenik, aipatu lotura hobe apurtzen eta gizon izateko modu berriak sortzen lagunduko diguten borroka eta antolaketa era batzuk.



Aurreko udan nire baratza izan zuen bilakaera ondorengoa izan zen: egunak eta egunak eman nituen buztin-lur astuna lantzen, azaleko lur freskoa eta "compost" lurra aitzurtzen, landatzen eta lurra zulatuz lehen kimuak nola erretzen ziren ikusten, landaretxo ahulak zaintzen, ureztatzen eta belar txarrak kentzen. Eta bi hilabete igaro zirenean izugarritzko poza sentitu nuen nire lehen tomate bakartia baina jateko nahiko heldua ikusi nuenean. Orduan, bat-batean, guztia basati bihurtu zen: tomateak, patatak, kalabazinak, pepinoak, piperrak, artoa, kalabazak, belarrak eta zortzi letxua klase. Pazientziaz eta gogor egina nuen lan, baina aste bat edo biren buruan sorturiko materia berde horrek guztiak harrিতuta utzi ninduen.

Azken hogeitun urteetan baratza bat zaindu duten gizon guztien artean beste bat besterik ez naizela esan dezaket. "Gizon kontuak" deitzen diet batzuetan (zehaztasun gutxiagoko "feminismoaren aldeko gizonen mugimendua" izen handizaleagoa erabiltzen ez dudanean –zehaztasun gutxiagokoa, parte hartzaile gehienek ezagutu ondoren "mugimendu" hitza handiegia geratzen zaiolako). Esparru horretako hainbat gairen inguruan gizon gazte eta zaharrek egin nuen lan. Emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko gizonekin egin nuen lan. Lantoki osasuntsuak eraiki genituen, erasorik gabeko lekuak. Harreman sanoak landu genituen eta gizonak familian zizuten zereginak aldatu genituen. Baratza hartan hobeto edo okerrago zaindutako zerrendak zeuden. Baina urria txikia izan zen, lehen tomate harena bezalakoa. Arrakasta txikia izan zen: lanagatik poza, eta gizon bat edo bi aldatu izana. Lagun berriak munduan zehar. Beste gizon eta emakume batzuen lanetik jaiotako inspirazioa. Institutu bateko auditorioan emandako hitzaldiaren ondoren, mutil nerabe batek eskainitako lasaitasun begirada eta esker oneko hitzak. Nire liburuetako batek norbaitengan izan duen eraginari buruzko eskutitza, telefono deia edo pertsonalki esandako hitzak.

Baina lan honen hasierako izaera atsegina guztiz aldatu da azken urte honetan. Bat-batean edo nora begiratzeko dudala (edo edozein toki bisitatzen dudala edo edozer gauza irakurtzen dudala) gizon eta gazteak esparru horretako gaietan inplikatzeko eta bereziki emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko ekimenetan parte hartzeko jarduerak antolatzen dira.

Udako goiz zoragarri batean lehertzen den lorategia bezala, horrelako gertaerak eta ekimenak, hitzaldiak eta tailerrak, ikerketak eta antolaketak, ez dira ezerezetik sortu.

Oinarria mundu guztiko emakume taldeen etengabeko lanak finkatu zuen. Baina Ipar Amerikan, Europan eta Australian feminismoak izan duen bilakaerak ez bezala, munduaren gainerako alderdietan feminismoa gizon guztiengana iritsi eta haiek proiektu feministan inplikatzeko behar handi baten eraginez garatu dela esango nuke. Kezkaz eta kontu handiz (horretarako arrazoirik ez dute falta), gizonengana iritsiko diren programa eta ekimenak sortzeko beharra azpimarratzen dute orokorrean emakumeek eta Latin Amerika, Afrika eta Asiako emakume elkarteek.

Baina oinarriak ezartzen lagundu zuen beste faktore bat ere bada: gizonen eta gizon elkarteek –gero eta ugariagoak– egiten duten lan gogorra. Izan ere, arlo horretako gaiak buruz eta emakumeek jasandako indarkeriaren amaierari buruz idatzi eta ikertu dute, bai eta horren inguruko jarduerak antolatu ere.

Eta hainbeste lan egin ondoren, zerak kezkatzen nau: azkenaldian antolatu diren ekimen askotan ez dituzte oinarritzat hartu orain artean hori guztiari buruz gizonekin egindako lanen emaitzak.

Artikulu labur honetan, gizonengana iristeko eta haiek emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko ekimenetan inplikatzeko beharra aztertuko ditut, bai eta gida moduan erabili ahal izango diren arazo eta printzipio batzuk ere. Eta, azkenik, gogoeta batzuk egingo ditu lan honen inguruko adibide garatuenari buruz, hau da, Begizta Zuriaren Kanpainari buruz.

1.

Fergatik gizonengana zuzendu eta haiek E.A. Prekin amaitzeko ekimenetan inplikatu?

Liburuetakoa hainbat artikulu eta kapitulutan aztertu izan ditut gizonen indarkeriaren arrazoiak, bi faktore multzoren arteko harremanean oinarrituz. Alde batetik, gizonen dominatzen duten gizarteetan gizonen ohi duten boterea eta pribilegio sozialak, eta gizartearen permisibitatea emakumeen aurkako indarkeriarekiko. Bestetik, haurrak direnean eta botere egoeretan gizonen izandako esperientzia: indarkeriaren lekuko nahiz hartzaile izaten dira, eta ezintasun emozionala izaten dute patriarkatuak gazteei eta gizonen inposatzen dizkien eskakizun emozionalak maskulinitasunaren fraka estuetan sartu ahal izateko (bigarren faktore multzo hau ez da indarkeriarako aitzakia bat, noski, hura eragiten duten arrazoiaren katearen zati bat baizik) (Kaufman 1985, 1993, 1994, 2000).

Gazteek eta gizonak emakumeen aurkako indarkeriarekin dituzten harremanak alderdi asko ditu eta oso konplexua da. Konplexutasuna alde batera utziz, gizonen guztiak ukitzen dituen harremana da, zuzenean nahiz zeharka: gehiegi dira indarkeria erabiltzen duten gizonak. Baina gizonen gehienak isilik egon dira indarkeriaren aurrean, eta isiltasun horrekin indarkeria egoeren iraupena ahalbidetu dute. Azkenik, indarkeria erabiltzen ez duten gizon ugari horien bizitzan ere eragin izugarria izan du maskulinitasun hegemonikoaren eraikuntzak, batzuetan indarkeria erabiltzea suposatzen baitu.

Gizonei indarkeria ez erabiltzera bultzatzeko heziketa kanpainak antolatzeke beharrak argia izan behar luke baina, zoritxarrez, munduko leku gehienetan egin diren ahaleginak urriak izan dira, eta zenbait lekutan ez da inolako ahaleginik egin. Eta gazteengana iristeko ahaleginak oraindik urriagoak izan dira, gizon izaera eta beste gizon eta emakumeekiko harremanak lantzen ari diren adin garrantzitsu horretan.

Mutiko eta mutil gazteengana zuzentzeak duen garrantziaren gaitetik, gai honi dagokionez haiengana hurbiltzeko modu eraginkorrenetako bat haiek emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko ahaleginetan inplikatzeko dela uste dut. Kanadako Ontario probintziako gobernuaren-tzat egindako txosten batean, arrazoiak bat baino gehiago direla iradokitzen dut (Kaufman 2001, 70-73).

A. EMAKUMEEKIKO INDARKERIA, JOKABIDE ALDAKETA BATERA ERRAZ ZUZENDU DAITEKEEN JARDUERA DA

Oso desberdina da, adibidez, komunikabideen eta informazio kanpainen bidez gazteei gidatzeko moduari edo alkohola edateari buruzko nahiz beste gai batzuei buruzko heziketa ematea.

Emakumeen aurkako indarkeria eragiten duten faktoreak askoz konplexuagoak eta kontraesankorrak dira eta kulturaren, ekonomian, legearen nahiz egitura sakonagoetan errotuta daude (maskulinitasunaren egitura psikikoetan). Orokorrean ez dira informazio faltaren emaitza, nahiz eta askotan manipulatuak informazioak indarkeria hori elikatu badezakeen.

Mutikoei aplikatzen zaizkien genero espektatibek kontrola erasoaren bidez nabarmentzeko joera dute. Horrek ez du bere giza potentziala soilik mugatzen, indarkeriarekin eta gatazkekin zerikusia duten erabakien aldeko aukerak gehitzen ditu: dominatzeko gaitasuna gizentasunaren adierazpen bihurtzen da. Mutikoak eta gizonak gizatasun kontzeptuaren birdefinizioan inplikatzeko badiugu soilik lortuko dugu dominazioaren eta kontrolaren patroien horiek benetan zalantzan jartzea. Beraz, beste lan batzuetan landu ditudan arrazoiak kontuan izanik (Kaufman 2000, 2001), gizonak eta mutikoak zeregin horretan inplikatzeko, gizon eta mutiko horiek burutu ditzaketek sortu behar dira beste gauza batzuen artean, beraien aldetik ahalik eta gehien jarri dezaten eta emaitza onak lor ditzagun. Rol horiek indarkeriaren murrizketan eragin positiboa izateaz gain, gaur egun emakume eta neskatuengana eragin negatiboa duten auzien esparruan ere eragin positiboa izango dute.

B. GIZONEK INPLIKATU EGIN BEHAR DUTE (EZ ENTZUN BAKARRIK), GIZONEK ETA MUTIKO EK BESTE GIZON ETA MUTIKO BATZUEI GEHIAGO ENTZUNGO BAITIE GAINERAKOEI BAINO; emakume baten eskaerei edo komunikabideen gorputzik gabeko ahotsari eskainiko lieken arreta

baino askoz gehiago. Gizon eta mutikoengana modu eraginkorrean iritsi nahi badugu, beste gizon eta mutiko batzuek inplikatura egon beharko dute. Baina horrek ez du esan nahi irratiko iragarki batean gizon ahotsa erabiltzea nahikoa denik. Indarkeriaren aurkako ahaleginen kontzepzioan, garapenean eta aplikazioan gizonek parte hartze aktiboa izatea esan nahi du inplikatzek.

Izaera horretako inplikazio zuzenaren bidez errazagoa da gizonengana eta mutikoengana benetan iritsiko diren eta haien portaera aldatuko duten hizkuntza, ikuspegiak eta teknikak topatzea. Gure helburua ez da hobeto sentitzea gizonen esan behar dieguna esaten diegulako, eraginkorrak izatea baizik.

Horrelako parte hartze zuzena eraginkorragoa da: horren bidez gizonen eta mutikoen arazoak "jabetzen" direla sentituko dute. Horrek ez du esan nahi, ordea, bere gaia emakumeenaren aurka jarri behar denik, ez eta emakumeentzat erabiltzen diren baliabideak desbideratu behar direnik ere: emakumeen taldeetarako edo emakumeentzako eta haien inplikaziorako programetakoak. Guztiz bestela jokatu behar da: indarkeria erabiltzen dutenak gizonak direla eta ondorioz gizonen arazoa dela aitortu behar da, besterik ez. Aktiboki inplikaturik, gizonen nahiz mutikoen gaierikiko lotura pertsonala dutela sentituko dute eta ondorioz, aldaketa prozesuan zer irabazia badutela ikusiko dute. Sentimendu horrek, era berean, energia eta baliabide gehiago eragingo ditu, eta horiek indarkeriarekin amaitzeko erabili ahal izango dira.

C. Mutikoak eta mutil gazteak zuzenean inplikatzeko azken arrazoia ez da gehiegi aipatzen: mutikoen (eta neskatuen) hainbat modutan bizi izaten dute emakumeak jasandako indarkeria –amari jasandako indarkeriaren lekuko izaten dira edo amari tratatu txarrak ematen dizkion horrexen indarkeria jasan behar izaten dute– eta hori ere haurren giza eskubideak ez betetzeko era bat da. Arlo horretako bibliografiak erakusten duenez –gero eta ugariagoa da, gainera–, indarkeria ekintzen testigu izatearen eragina indarkeria zuzenean jasatearen parekoa izan daiteke eta, are gehiago, esperientzia zuzena izateko modu bat da. (Jaffe, Wolfe eta Wilson, 1990; Groves eta Zuckerman, 1997; Osofsky eta Fenichel, 1996)

Haurren Eskubideen Konbentzioko 19. artikuluan garbi asko jasotzen da estatu guztiek obligazioa dutela:

“Haurrak, edonolako kalte edo abusu fisiko edo mentalen, arduragabekeria edo tratatu axolagaberen, tratatu txar edo esplotazioaren (baita ere abusu sexualen) aurka babesteko beharrezko neurriak hartzeko; legeei, administrazioari, gizarteari nahiz hezkuntzari dagokionez, haurra bere gurasoen, legezko ordezkari baten edo bere esku duen beste edozein pertsonaren zainpean dagoen bitartean”. (UNICEF, 1997:3)

Beste hitz batzuetan esanda, haurrak ere inplikatu egin behar dira, emakumeen aurkako indarkeria oso hurbiletik jasaten dutelako.

2.

Emakumeen baliabideen desbideraketa?

Bidaietan zehar ezagutu ditudan leku guztietan zalantza gogorra sortzen da: gizonekin egindako lan hau ez ote da emakume eta neskatoentzako programekiko desbideraketa garbia? Edo, gizonek beren arreta emakumeen kezketatik aldenduko ote dute? Horrelako kezka oso kontuan izan behar dira.

Gauza bat, behintzat, argi dago: gizon eta mutikoengana zuzentzeko beharra aitortu egiten bada, horrek esan nahi du gobernuek eta beren eragileek oraindik baliabide gehiago erabili behar dituztela. Beste hitz batzuetan esanda, zereginak etekin handiagoa izango du indarkeriaren prebentziorako ahaleginak egiteko finantziazioa handiagoa den neurrian.

Hala ere, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako gizonak erabiltzea, emakumeen beharrak eta interesak asetzeko fondo publikoak erabiltzea da. Ez da "gizonentzat" gastatutako dirua, malaria sendatzeko erabiltzen den dirua "eltxoentzako" gastatzen den dirua ez den bezala.

Emakumeen aurkako indarkeria kasuak murriztuz ez da emakumeen bizitza bakarrik hobetuko, emakumeen programetan ere eragin ekonomiko positiboa izango du, kontuan izan behar baita indarkeria arazoaren larritasuna dela-eta zenbait programaren finantziatioa murriztuta dagoela. Baina, nola egin? Gizonengana behar bezala iristen bagara, emakumeen aurkako indarkeria murriztuko da, eta, ondorioz, emakumeentzako programen gaineko karga finantzarioa ere bai.

Gizonak inplikatzuz eta mobilizatuz emakumeentzako programetarako laguntza finantzarioak ematen dituztenak gehiago izango dira eta handiagoa izango da emakumeen aldeko programak bul-tzatzeke borondate sozial eta politikoa ere.

Beste hitz batzuetan esanda; gauzak modu egokian egiten badira, eta emakumeen aldeko programekin lankidetzan egiten badira, gizon eta mutikoengana zuzendu eta haiek inplikatzeko lanak emakumeen aldeko etekin garbiak emango ditu (finantzarioak nahiz bestelakoak).

3.

Guztiak erruduntzat sentiarazteak edo besteak erruduntzat jotzeak ez gaitu inora eramango

Ikuspegia bietako edozein izanik ere, bada inolaz ere egin behar ez den zerbait: guztiak erruduntzat sentiaraztea edo guk geuk besteak erruduntzat jotzea.

Behin batean, uste dudanez feminismoaren aldeko gizon talde batek patriarkatuaren aurka zeudela adierazi nahian sortutako intsignia bat ikusi nuen. Zera zioen: "Gizonek bortxatu egiten

dute". Zeharo ikaratu nintzen. Bai, gizon batzuek bortxatu egiten dute baina gehienek ez. Denak errudun jotzen zituen eta guztiak errudun sentiarazten zituen kasuaren adibide bat zen. Errugabe zirenak erruduntzat jotzeaz gain, intsignia hura sortu zuten gizonen beraien erruduntasun sentimendu nahiko orokor eta patetikoa erakusten zuen: gizarte patriarkal batean gizon izatearen errua.

Horrelako esparru batek ez du zentzurik emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko mutiko eta gizonekin egiten den lanean.

Erruduntzat jotzeko eta errudun sentiarazteko hizkuntza erabiltzeko joerak eta tentazioak baztertu egin behar dira. Bai, mutikoak mutil izateagatik pribilegio multzo batzuk izaten dituzte gizonek dominatzen duten gizarte batean. Gizonak eta mutikoak hori jakin dezaten nahi dugu, errealitate horri aurre egin diezaioaten eta pribilegio horiek alde batera utz ditzaten, emakumeek nola sufritu duten uler dezaten eta, harrigarria bada ere, gizonak pribilegio horiek izateagatik ordaindu behar izan duten prezioaz jabetu daitezten. Eta, bai, ikasi dute "armadura" jartzen eta, neurri batean, beraien rola betetzen. Beren buruei ematen dizkieten gizontasunaren definizioak zalantzan jarri eta beraiak (eta emakumeak, eta haurrak, eta planeta osoa) armadura hori gabe hobeto egongo lirakeela ikus dezatela. Gizarte hau ez zuten beraiak sortu. Beraiak armadura hori ezerezetik egin zuten bost, zazpi, hamabi edo hamasei urte zituztela, eta beraien gorputzetan ongi egokitu zedin saiatzten ziren. Neurri batean ez dute sari bat jasotzeko bakarrik egiten paper hori, benetako beldurrak eta segurtasun faltak eraginda egiten dute.

Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean gizon gehienak isilik geratu baziren ere, gizon gehienek, herrialde askotan behintzat, ez dute emakumearen aurka indarkeria fisiko edo sexualik erabili.

Arrazoi hauengatik guztiengatik, zeharo desegokia da guztiak errudun sentiarazteko eta erruduntzat jotzeko hizkuntzak erabiltzea. Izan ere, ez da zuzena.

Gainera, akats handia da sexismoa banakakoen arteko harremanetara eta banakakoaren nortasunera mugatzea, patriarkatua eta sexismoa ere instituzionalak direla eta sistemaren zati bat direla ulertu behar baita.

Ikuspegi pedagogiko gisa ere ez da batere erabilgarria. Gizonak egin ez dituzten gauzengatik edo beste gizon batzuek egin dituzten bekatuengatik errudun sentitzera bultzatzen dituen hizkuntzak, azkenean, alienatu egingo ditu mutiko eta gizon gehienak. Geure aurka bihurtzera bultzatuko ditu. Gizaki horiek estutu egingo ditu. Ez gaitu inora eramango.

Beraz, guztiak errudun sentiarazteko eta erruduntzat jotzeko hizkuntza erabili beharrean erantzukizunaren hizkuntza erabiltzea proposatzen dut. Ez arazoaren erantzukizun orokorra, aldaketaren erantzukizuna baizik.

Nik nahiago dudan esparrua ondorengoa da: Begizta Zuriaren Kanpaina parte hartu duen Estatu Batuetako ikasle batek "aliatutako gizonen esparrua" esaldiarekin deskribatu duena. Ipar Karolinako Unibertsitatearen Campusean egindako Begizta Zuriaren Kanpaina gizonak emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko duten zeregina deskribatzen duen slogana erabili dute: "beti aliatuak". (Moore 2001).

4.

Emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko, gizon eta mutikoekin lan eraginkorra burutzeko gida-printzipioak

2001. urtearen hasieran Asiako Hego Ekialdeko zortzi herrialdetako gizon emakumeentzako tailer bat antolatzen lagundu nuen. Talde horren zeregina emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko gizon eta emakumeekin lan egitea zen. Gure jatorrizko diseinuan sartzen ez baziren ere, taldeak gizon eta hurrekin lan egiteko printzipio multzo bat landu zuen. Printzipio haiek hezkuntza/prebentzio zereginetan aplika zitezkeela ikusi genuen, bai eta emakumeen aurkako indarkeria ekintzak burutu dituzten haiekin lan egiteko ere.

Irizpide horiek ekimen multzo handi bat garatzeko abiapuntu izan daitezkeela uste dudanez, orduan egindako deklarazioa osorik azaldu nahi nuke:

'Guk, Filipinetako Lapu Lapu hirian 2001eko apirilaren 16tik 20ra, "Gizonak eta Genero Indarkeria" gaiari buruzko Asiaren Hego Ekialdeko Eskualde Tailerrean parte hartu genuenok, emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko ekintzak egiten ari gara, gizon eta hurrengana zuzenduz eta haiek zeregin horretan inplikatu. Gure ustez, gizonak emakumeen aurka burutzen duten indarkeria, gizon eta emakumeen arteko botere desorekaren eta gizartean bizi den indarkeriarekiko permisibitatearen ondorioa da (eta horren barnean indarkeriaren inguruko isiltasunarena). Eta, gainera, gizonak beraien beldurrak eta segurtasun falta konpentsatzeko erabiltzen dute emakumeen aurka indarkeria. Haien heziketak eta esperientziak (gizon izateagatik pribilegioak eta emakumeen gaineko boterea eman zizkietenek) mugatu egin dituzte gizaki gisa. Beraz, emakumeen aurkako indarkeriarekin amaituz emakume eta neskatoen bizimodua hobetuko da baina baita gizon eta mutikoena ere.

'Prebentzioa eta esku hartzeak eskatzen dituen lan hau ondorengo printzipioek gidatu behar dutela adierazten dugu:

1. Ekitatea, berdintasuna eta justizia dira lan honen oinarriak.
2. Emakumeekin eta emakume taldeekin lan egin, haiekin lankidetzan jardun, lanak koordinatu eta haiei aholkua eskatu behar litzake.
3. Gizon eta mutikoen aurrean garbi uzten dugu genero indarkeria onartezina dela bere forma guztietan eta harekin amaitu behar dela.
4. Emakumeen segurtasunak eta duintasunak lehentasuna dute lan honetan.
5. Gizonen aniztasuna aitortzen dugu. Gizon guztiek ez dute indarkeria erabiltzen.
6. Emakumeen aurka indarkeria erabiltzen duten gizonak erantzukizuna berengain hartu behar dute eta horren erruduntzat jo behar dira.

7. Gizonek aldaketak jasateko eta aldaketa eragiteko potentziala dutela ulertzen dugu. Indarkeria erabiltzen ez duten gizonak emakumeen aurkako indarkeriaren aurka azaltzera bultzatzen eta animatzen ditugu.
8. Gizonekiko giza ikuspegia erabiltzen dugu, enpatiazko ikuspegi positiboa.
9. Gizartean harremanak sortzen ditugu eta klase sozial eta ekonomiko guztietako nahiz erlijio, etnia eta ideia politiko guztietako gizonak inplikatzera bultzatzen ditugu.
10. Emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko gizontasunaren ohiko definizioak eta haur-tzarotik gizonek gizartean burutzen dituzten rola zalantzan jartzea esan nahi duela badakigu. (1)

Printzipio hauetako asko Begizta Zuriaren Kanpaina burututako ekintzekin ilustra daitezke.

5.

Begizta Zuriaren Kanpaina

1991. urtean gutako hiruk Begizta Zuriaren Kanpaina Toronton hasi genuenean, ez genuen inolaz ere usten nazio mailako erakunde bat bihurtuko zenik eta hamarkada batean neurri horretan zabalduko zenik –maila desberdinetako profil eta jarduera publikoekin bada ere– eta azkenean emakumeen aurkako indarkeriaren aurka gizonek munduan egin duten ahaleginik handiena izatera iritsiko zenik. Gutxienez hogeita bost herrialdetan antolatzen dira BZKren jarduerak eta erabiltzen da BZKren ikurra: Europan (Austria, Belgika, Danimarka, Ingalaterra, Finlandia, Alemania, Lituania, Norvegia, Espainia, Suedia), Afrikan (Namibia, Marroko, Hegoafrika), Latin Amerikan (Brasil, Nikaragua), Estatu Batuetan, Australian eta Asian (Kanbodia, Txina, Japon, India, Filipinak eta Vietnam).

Kanpainaren premisa oso zuzena da: gizon asko dira emakumeen aurka indarkeria erabiltzen ez dutenak, baina gizon horiek isilik egon dira, eta horrek indarkeriak jarraitzea ahalbidetu du. Azaroaren 25etik (Emakumeen Aurkako Indarkeriarekin Amaitzeko Nazioarteko Eguna) abenduaren 6ra arte (Montrealgo masakrearen urteurrena) begizta zuria eramatea edo BZKren jardueretako batean parte hartzea, isiltasun hori hautsi eta autoanalisia sustatzeko modu bat dira. Begizta eramatea, aitorten publikoa da: emakumeen aurka inoiz ez dela indarkeria erabiliko, ez dela isilpean gordeko eta ez dela onartuko. Horretaz gain, eskaera bat ere bada: gizonen menpe dauden gobernu eta erakunde guztiei arazoari serioski aurre egiteko eskatzen zaie. Begizta Zuriaren oi-

(1) Tailer honetan Kanbodia, Indonesia, Laosko EDP, Malasia, Filipinak, Singapur, Tailandia, Vietnam eta Kanadako 50 gizon eta emakumek parte hartu zuten. Nazioarteko Garapenerako Agentzia Kanadarraren Asiaren Hego-ekialdeko Genero Berdintasunerako Programaren laguntza jaso zuen eta anfitrioiak Kauswagana Komunitatea eta Gizarte Zentroa izan ziren, Emakume eta Haurren aurkako Indarkeriaren Aurkako Gizonak (Cebú) taldearen lankidetzaz.

narrizko filosofia ondorengoa da: gizon guztiak emakumeen aurka indarkeria erabiltzearen erantzule ez badira ere, indarkeria horrekin amaitzeko ardura gizon eta mutiko guztiek hartu behar dute.

Ez da, inolaz ere, jarduera partidista; gizarteko eta politikako esparru guztietako gizonak onartu nahi ditu. Emakume taldeekin lan egiten du eta gizonen emakume horien ahotsa eta kezka entzuteko eskatzen dio. Kanadan Emakumearen Fundazio Kanadarrarekin fondoak biltzeko elkarte formal bat egin du, indarkeriaren aurkako emakumeen programak eta emakumeentzako programak eta zerbitzu lokalak finantzatzeko. Horrez gain, aitasunarekin zerikusia duten gaiak lantzen ditu eta gizonak aita aktibo eta konprometitu bihurtzera bultzatzen ditu.

Kanpaina hezkuntza alorreko ahalegina areagotzen ari da orain (Web orri modernizatu bat du) eta defentsarako gaitasun handia lortu du.

Gure programen osagai garrantzitsuenetako bat haur eta gazteentzako hezkuntza materiala garatzea eta eskoletan prestazio eskaerak sustatzea izan da. Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdi aldera, Heziketa eta Ekintza Sorta bat garatu zen. Horrek, besteak beste, honako materialak ditu: curriculum barneko jarduerak, curriculumaz kanpoko jarduerak, Begizta Zuriaren jarduerak antolatuzko eta fondoak biltzeko gida praktikoa, eta gaiari buruzko liburuxkak.

Urtero "Pertsonaia Famatu" kartel bat ateratzen du. Kartelaren titulua "Pertsonaia horiek badaukite Emakumeen aurkako Indarkeriarekin Amaitzeko Unea iritsi dela" da eta bertan hainbat gizon famatuen sinadurak jasotzen dira: rock kantariak, aktoreak, lan eta enpresa munduko pertsonaiak, artistak, idazleak eta zientzialariak. Karteletan hutsik dauden lerro asko agertzen dira, gazteek eta hurrek beren sinadurak jar ditzaten. Kartelak eskoletan, lantokietan, gobernuaren bulegoetan eta dendetan jartzen dira gizonen sinatu ditzaten.

Beharbada, gauzarik garrantzitsuena zera da: BZKak gizonak eta haurrak animatzen ditu bere komunitatean beste haur eta gizon batzuegana iritsi eta haiek inplikatzeko egokiena dena egitera. Adibideak ugariak dira: ikasle talde batek emakumeen aurkako indarkeriari buruzko bideo filma egin du, ehunka eskolak emakumeen ostatu emateko etxeentzako fondoak biltzeko begizta zuriak saltzen dituzte, zenbait sindikatuk kideen artean begizta zuriak eta liburuxkak banatzen dituzte, hainbat kirol taldek jokatzeko dutenean begizta zuria jartzen dute. Jarduera horien garrantzia ez datza jardueran bertan, egitura, motibazioa eta erremintak dira mutiko eta gizonen neska- toen eta neska gazteen aliatu gisa lan egitea ahalbidetzeko.

Jarduera hauek eta munduan zehar landare indartsuak bezala erretzen diren beste milaka jarduerak garbi adierazten digute, azkenean, gizonak emakumeen aurkako indarkeriaren aurka hitz egiten hasi direla. Aspalditik landutako eta itxarondako garapena da. Gure indarrak eta esperientziak uzta ona berrmatzen erabiltzeko unea iritsi da.

Bibliografia

- GROVES, Betsy McAlister eta Barry ZUCKERMAN (1997). 'Interventions with Parents and Caregivers of Children Who are Exposed to Violence,' 183-201 orr., Joy D. Osofsky, *Children in a Violent Society*, Nueva York: The Guilford Press.
- JAFFE, Peter G., David A. WOLFE, Susan Kaye WILSON, *Children of Battered Women*, Newbury Park: Sage Publications, 1990.
- KAUFMAN, Michael (1985). 'The Construction of Masculinity and the Triad of Men's Violence,' M. Kaufman, arg. *Beyond Patriarchy: Essays by Men on Pleasure, Power and Change*, Toronto: Oxford University Press, 1985. Laura L. O'Toole eta Jessica R. Schiffman-ek berrargitaratua, *Gender Violence* (Nueva York: NY University Press, 1997)
- KAUFMAN, Michael (1993). *Cracking the Armour: Power, Pain and the Lives of Men*. Toronto: Viking Canada.
- KAUFMAN, Michael (1994). 'Men, Feminism, and Men's Contradictory Experiences of Power,' Harry Brod eta Michael Kaufman, arg., *Theorizing Masculinities*, Thousand Oaks, CA: Sage Publications.
- KAUFMAN, Michael (2000). *The Seven P's of Men's Violence*, www.michaelkaufman.com;
- KAUFMAN, Michael (2001). *Effective Education With Boys and Young Men to Help End Violence Against Women*, Kanadako Ontario probintziako Gobernuarentzako txostena.
- MOORE, Jessie (2001). komunikazio pertsonala.
- OSOFSKY, Joy eta Emily FENICHEL, arg. (1996). *Islands of Safety*, Washington D.C.: National Center for Infants, Toddlers and Families.
- UNICEF, 'The Convention on the Rights of the Child and Violence,' *Innocenti Digest*, 2 zk. (1997ko iraila), 3. orr.

VICENT MARTÍNEZ GUZMÁN
UNESCOren Filosofia Pakea
Katedraren Zuzendaria. Jaume
I Unibertsitatea. Castelló

Rol

mastulinoak

eta pake

kulturaren

erakuntza

Laburpena

Ponentzia Bakearen aldeko Filosofiaren ikerkuntza batean sartzen da; horren asmoa bakeak egitearren giza gaitasunak berreraikitzea da. Kultura gizakien arteko eta hauen eta naturaren arteko harremanak lantzeko giza gaitasuna bezala ulertzen dugu.

Kultura eta erantzukizunaren artean lotura sortzen da; horren bidez giza harremanak lantzeko erak guk instituzionalizatzen ditugun erlazio-sistemenak direla medio elkarri kontuak eskatzearen menpe daude. Horrela emakumeen aurka eta naturaren aurka egiten diren menderatze maskulinoeko sistemak berrikusten dira gerraren aldeko kulturen esparruan.

Gizakiok gure artean eta gure eta naturaren artean harremanak lantzeko asmotan gerraren aldeko kulturarekiko aukera alternatiboak berreraikitzen dira, segurtasun eta justiziako diskurtso maskulinoetan gordeta dauden genero-azpittestuek argi azaltzen dituzten analisi feministen ikuspuntutik, emakumeak kategoria moral "baxuagoko" baloreetarantz (hala nola samurtasuna, maitasuna edo zainketa) "baztertuak" ziren bitartean.

Gizon eta emakumeentzako rol berriak proposatzen dira, segurtasuna, justizia, samurtasuna, maitasuna edo zainketa ulertzeko modu berrietan bakeak egiteko kulturetan.



1.

Sarrera: U.N.E.S.C.O.ko deitutako adituen batzarra Osloen 1997an abiapuntu gisa

Kongresu honen promotoreekin izan nuen lehen hartu-emanean(1), 1997ko irailean Osloan UNESCOk antolatu zuen batzarrari buruz hitz egiteko aukera izan nuen. Aditu batzar haren izenburua, batzuk kongresu honetan parte hartzen dute, "Rol maskulinoak eta maskulinitateak bakearen kulturaren ikuspuntutik" izan zen. Nire ustez izenburu honek inspirazioa ekarri du, nire interbentziorako ideia eman dit.

(1) Hausnarketa hauek "Nazio konfliktuak eta hauen dimentsio kulturala: estruktura nazionalak eta nazio artekoak eta bakerako ikerketa" proiektuaren parte dira, Generalitat Valencianaren dirulaguntzarekin (España) GV99-71-1-09 kodigo pean.

1.1

GERRAK GIZONEN BURUETAN SORTZEN DIRA: JENEROAREN PERSPEKTIBA ETA SEXISMOA

Batzar hartan esandakoak biltzen dituen liburuaren proposamenak jarraituz (Breines, Connell eta al, 2000:10), gaia ezaguna den UNESCO(2)ren sorrerako atarikoetan sartu zen: "gerrak gizonen buruetan sortzen diren moduan, gizonen buruetan sortu behar dira ere bakerako tresnak". Ironikoki, egia da kasu honetan "gizona" "jenero-kolektibo" gisa erabiltzen dela Maria Moliner-ek, emakumea berau, esaten duen moduan: "gure espezieari dagokio, hots, razionalak diren ugaztunei" berak egindako hiztegi erabilgarrian (1997). Dena den, egun hauetan jorratu behar ditugun gaiek, hasiera baten emakume feministek egindako proposamenetan inspiratuak direnak, honako hau argituko ligukete: buruan, hau da, esaten dugun gauzetan, esaten ez dugun gauzetan eta orokorrean gizonok egiten dugun gauzetan dago gerraren sorrera eta ondorioz, gizonen buruetan, esan, isildu eta egiten dugun gauzetan bakerako tresnak aurkitzeko aukera dugu hala nahi izanez gero. Kasu honetan noski, "gizona" hitzak "gizakien espezieko eta sexu maskulinoko pertsona heldua" esan nahi du lehen aipaturiko hiztegiari jarraituz.

Modu honetan hitz egitea bada "jenero perspektiba" sartzea gure artean eta gure buruei egiten diogunaren analisi kategoriatik bezala. Jenero perspektiba kontutan ez izatea modu "dejeneratuan" hitz egitea dela proposatuko dut: lehenik, bere hiztegiaren jasotako zentzuan "kalitatea txarragokoa bihurtu", "zehaztasuna galtzea", "gaitasunak galtzea", "gure arbasoak baino kalitate txarragokoa izatea" (Martínez Guzmán 1998b, prentsan).

Bigarren, jenero perspektiba kontutan ez izatea, modu "dejeneratu" batean jokatzeko ere bada, eztabaida feministan ikasitako zentzuari jarraituz. Oraingoan "dejeneratua" desberdintasun anatomiko nabariak direla medio, emakumearen kontrako diskriminazio, bazterketa eta marjinazioaren aurrean itsu egotea litzateke. Horrela gizakien arteko harremanak "dejeneratzen" ditugu, kulturetan sozialki eraikitako jenerotik, nagusitasun maskulino modura gizartean eraikitako "sexismora" pasatzerakoan. Dominazio maskulino hau (Bourdieu, 2000) zenbait kultura eta ezagupen instituzionalizatzen ditu, hauek jeneroari dagokionean neutralak direla esaten duten arren.

Egia da, "jenero perspektiba galdu dute". Hala ere kultura eta ezagutza "sexistak" dira. Izatez, gizon zuri, heldu, heterosexuala eta mendebaldekoa izatearen ideia inplizituki duten kultura eta ezagupenak inposatzen dituzte. Hau da, sexu maskulinoa, kolore jakin batekoa, garapen pertsonal maila jakin batekin, gozamen sexuala ulertzeko modu konkretua duena eta munduaren parte ze-

(2) Izatez, nire bestelako lanetan ikertutako informazioaren arabera (Martínez Guzmán, 1998b, prentsan) emakume batek Margaret Mead (1994) alegia honako ideia hau gehitu zuen: gerra gizakiaren asmakizun txar bat da eta ez behar biologikoa.

hatz batean bizi dena, hau ere "garatua". Gizon eta emakumeek "maskulinitate"(3) eredu ideal honi jarraitu behar diote. Ikusiko dugunez, sexismo mota honek gerra sistema eta bortizkeriarekin orokorrean lotura du, betidanik maskulinitzat hartzen dena alegia (Reardon, 1985).

Oraingoz azpimarragarria iruditzen zaidana zera da, jenero perspektiba kontutan ez izateak analisi kategoriala gisa, gizon eta emakume bezala ere dejenaratu gaitu. Emakumeek egindako ekarpenei esker konturatu gara sexismoa dominazio maskulinoaren sistema gisa, bai emakumeak eta baita gizaki guztiak ere "dejenaratu" garela: gizaki kalitatea galdu dugu. Testuinguru honetan kokatzen dut eztabaida berria, maskulinitatearen ikerketa eta maskulinitate berrien inguruko bigarren samalda (Brod eta Kaufman, 1994). Gizon eta emakume nola bihurtzen garenari buruzko kultura eta ezagupen forma berriak behar ditugu, horren kontuak eskatzen ditugu, bazterrean uzten dugunari adi egoteko. Ikusiko dugunez, diskriminazio sexisten aurrean itsu ez egotea edota jeneroaren kategoriaren arabera ezartzen ditugun eta ezar ditzakegun ezaugarri kulturei begiak irekitzea, beste mota bateko bazterketa edo marjinazioaren aurrean begiak irekitzen dizkigu: indigenak, beltzak, "ekialdekoak", etorkinak, "azpigaratuak", neskek eta mutilak, ...

1.2

BAKE KULTURA

UNESCOk deitu zituen adituen interbentzioen liburuaren sarreran azaltzen den moduan:

"Bake kultura eraikitzeak gure bizitzan zehar izan ditugun gerra kulturaren kodeak baztertzea suposatzen du. Hau da, kultura honen instituzioak, lehenetsiak eta praktikak zalantzan jartzea, hala nola armen ekoizpena, trafikoa edo erabilera kaltegarria. Horrez gain, kriterio ekonomikoetan soilik oinarritutako garapenaren ideari ere aurre egitea suposatzen du, eta injustizia, diskriminazio edo bazterketa mota desberdinen kontra borrokatzea. "Segurtasun" kontzeptua ere zalantzan jarri beharko genuke, sarritan tanke eta armen kopuruaren arabera neurtzen dena, herrien arteko elkar-uleltze mailari soilik beharrezkoak" (Breines, Connel et al. 2000: 12).

Betebehar hauek UNESCO-ren Bake Kultura baten aldeko 2000 Manifestuaren puntu hauekin deskriba daitezke (Martínez Guzmán, 2000a; 2000b, prentsan):

Bizitza oro errespetatzea, bortizkeriari ezetz esan biolentzia-eza aktiboa praktikatzeko konpromezu aktiboaren bitartez, eskuzabala izatearen gaitasuna garatu nire denbora eta baliabide materialak besteekin konpartituz, erabiltzen ditugun ahots eta kultura desberdinak entzun ulergarriak bilaka daitezen, gure planeta zaindu, hau da, justizian oinarritutako kontsumo arduratsua, eta azkenez, elkartasuna berriz asmatu: gizakion arteko harreman sendoak berreraiki ditzagun.

(3) Maskulinitate berrien "kuestioaren egoera" ez naiz egiten hasiko, kongresu honetan kuestio horren bultzatzaileak diren batzuk parte hartuko dutelako gai akademiko eta konpromezu praktikoa modura. Bestalde, bakerako Filosofia UNESCO Katedran zuzendu zuen ikerketa taldeko ikertzaile eta doktorautza prestatzen ari den bat, Joaquín Navarro, bere doktorautza maskulinitate berrien gaiari buruzkoa da, Bakera Ikerketarako Aportazio Gisa eta Bi Artikulu Idatzi Berri Ditu Bake eta Konfliktuen Kulturari Buruzko Bilduma Txiki Batentzat. Bilduma hau Andaluziako Juntaren Bakea eta Biolentzia ezaren Kulturarako Plana eta Granadako Unibertsitatearen Bake eta Konfliktuen Institutoaren markoan koordinatzen da.

Gai hauek sakonduko ditut, lehengo eta behin nire proposamenaren oinarri filosofikoak laburtuz, bakea lortzeko eta honen harremanak bakearen kulturarekiko filosofia alegia. Bigarrenez bakera-ko Estudio eta Ikerketan jeneroaren kategoriaren garrantziaz arituko naiz. Azkenez, gizonak eta emakumeak izaten ikasteko kulturak lantzeko iradokizunak egingo ditut, elkarri egiten diogunaren kontuak eskatzen ikas dezagun, gauzak elkarri nola egiten dizkiogun eta hauek egiteko modu desberdinak dauden jakiteko.

2.

Bakea lortzeko kulturen inguruko hausnarketa filosofikoak

UNESCOren "bake kultura" formula zehaztuko dut. Azken aldi honetan lantzen ari naizen testu-
guruak eta kongresu honen muina ere badena, formularen aniztasun handiagoa sartzera gonbida-
tzen du. Nire ustez kultura forma sinplea, honen zentzu etimologikoaren berreskurapena da: kultu-
ra gizakien arteko harremanen lantze gisa, baita gizakia eta naturaren arteko harremanen lantze
gisa ere; lurra planetan bizitzeko modua cólere beste zentzu bat dena honako hauekin batera:
apaindu, errespetua erakutsi, zaindu, praktikatu, ohore egin, gurtu, sakon ospatu.(4)

2.1

KULTURA LURRA LANDU, ZAINDU ETA BERTAN "BIZITZEKO" MODU GISA

Hitz honen etimologia aipatzeak ez dio oinarritzko definizioaren ezaugarria eman nahi, hau uler-
tzeko modu arautua inposatuz eta beste esanahiak baztertuz. Hitzekin esan, isildu eta egiten du-
gunaren sustrai desberdinak argituko dituen aztarnak berreraikitzea litzakete (Austin, 1975:190).
Zein kontakizun eta metafora erabiltzen dugunaren berri ematen diguten izpiak dira, zein institu-
zio sortzen dugun, gure gaitasun, botere eta konpetentziak nola erabiltzen ditugun, nori ez diogun
boteretik onartzen, nortzuk baztertzen ditugun; baina baita ere elkar maite dugula nola adieraz-
ten dugun, gure tratuen samurtasuna, nola zaintzen dugun elkar eta zein desberdintasun antzema-
ten diogun elkarri. Foucault-en (1987) hitzetan, zein diskurtso erabiltzen dugun eta zer harreman
mota ezartzen dugun ezagupena eta boterearen artean. Nire ustez beti, elkarri erantzukizunak es-
katu ahal diogula jankinez eta harremanetan jartzen gaituena alda dezakegula jakinez.

(4) Kultura eta kulturak definitzea ez da erraza. Maskulinitate eta kulturekin zerikusia duen informaziorako ikus gutxie-
nez Gilmore (1994) eta Hofstede (1998).

Horrela, "kultura" gizakion ezaugarri berezia izango da: gure buruak lantzea, gure artean zaintzea eta natura zaintzea, gizakiok lurra planetan dugun "bizitzeko" modua, gure planeta errespetuz zaintzea. Gure metodologian natura eta kulturaren arteko dikotomia tranpa bat da, "Filosofia sarritan politika ona da, bikote baten partaide bat susmopean dagoenean begiratu iezaiozue susmati errurik ez duela ematen duen parteari" (Austin, 1981:43).

2.2

KULTURA ETA NATURA ELKARREN ARTEKO LOTURA DUTE

Gizakiok "naturala dena" ezagutzen dugu jaiio, loretu, ugaltu edo hazten denagatik zainduz, sustraien izpiak bezala nasci latinez, phyto grekoz edo azkenik gen- indoeuropeoz, hauek guztiek erditu esan nahi dute (Roberts eta Pastor, 1997) eta funtzio hau femeninoa da. Bestalde kultura hitzak erro indoeuroparra dauka kwel-, nahastu edo inguruan mugitu adierazten duena. Kulturarekin nahastu egiten dugu, inguruan mugitzen gara, gure buruak zaintzen ditugu, errespetua diogu jaiio, loretu, ugaltu eta hazten denari. Gainera perfekzio, amaitze edo helburu (telos) jarrera zirkular batekin, zerbait "borobildu dugula" esaten dugunean bezala. Ezin dugu jakin zer den "naturala" zerbait zaintzen ez badugu, lanketarik ez badago, kulturarik gabe. Horregatik susmagarria da norbaitek edo batzuk naturala dena eta ez denaren erabakitze ahalmena izatea. Zerbaitek jeneroarekiko unibertsala eta neutrala dela esaten duenean, ikusi behar da zein ezagupen moduak esaltzen dituen, zein kultura forma marjintzen duen, zein ezagupen mota zanpatzen duen (Foucault, 1992).

Beraz kultura eta natura elkarren arteko lotura dute, elkarren arteko beharra dute. Irazki bat osatzen dute, gizakien arteko eta naturarekiko baztertzaila eta menperatzailea dena deseraiki dezakeguna, loturak beste moduan eraikitzeke alegia.

2.3

KULTURA ETA ARDURA: GIZAHARREMANEN BALORAZIO MORALA ETA KULTURA ANITZEN IRAZKIA

"Kulturak" gizakion gaitasun, ahalmen eta potentzialitate gisa geure burua eta natura landu eta zaindu ahal izateko, "ardura moralarekin" harremana du. Hau da, giza-ahalmee, gaitasun eta kompetentziekin geure buruari egiten dioguna neurtzeko, ardurak eta erantzunak eskatu ahal izateko. Modu dotore batean esanda: kultura eta askatasunaren arteko harremana proposatzen dugu. Kultura askatasun jarduera bat da, honen bitartez konturatzen gara geure buruei gauzak modu desberdin askotan egin ahal diegula eta hauen erantzukizunak askatu ahal ditugula. Terminoaren garrantzia handia izan arren modu apalean erabiltzen ari naiz: ez naiz askatasun "osoari" buruz hitz egiten ari, "totalitarioa" bihur daitekeen tamalez; "egiazkoa" denari buruz ari naizenean ere ez naiz "egiari" buruz aritzen, egi osoari buruz alegia. Zerbait libreki egin dugula edo ez dugula

egin esaten dugunean, geure buruei egiten diogunaren ebaluaketa dimentsio bat da, hots, botatako zerbait "egiazkoa" dela esatea bezala, gertakizunen eta komunikatzen garenon arteko balorazio dimentsio bat da (Austin, 1975:173).

"Kultura" eta "askatasuna" "ardura morala"rekin lotzean "habitu" hitzaren bitartez euren etimologiaren aztarnak jasotzen dituzte. "Moralak" latineko *mos-etik* dator, *êthos* eta *éthos* esan nahi duena. "Êthos" ("eta"rekin) bizitokiren esanahi zaharrena da, baita "izaera" adiera ere. *Éthos* (epilonekin) gure jokaeran ohitura zentzua sartzen du, jokaera zuzena izan daitekeena, bereziki "izaera" delako eta ez natura (*páthos*) bera (Aranguren, 1968: 24ss.).

Gizakiok gure izaera lantzeko gaitasuna dugula azpimarratzen ari naiz nire partehartzean, habito etiko eta moralak sortaraziko dituzten jokaerak lantzeko gaitasuna alegia. Honek guztiak lotura handia du gure bizilekua konpartitzen dugun erarekin, gure bizimoduarekin, "desberdinak" direnekin gure abegia konpartitzeko moduarekin. Horregatik ezin ditugu gure buruak moralizat izan "atzeritarren beldur" bagara, desberdinak direnen beldur, besteen beldur, hots "xenofobia". Grekoz abegia *filoxenia* da, atzeritarrekiko maitasuna, desberdinarekiko, tragikoa izan arren (Derrida eta Dufourmantelle, 2000). Xenizo aditzak ostatu eman esan nahi du, hartu, harretaz hartu, baina baita ere liluratu edo gauza arraroekin zoratu; eta xeniak lotura esan nahi du, abegia izateko eskubidea, abegitasuna. Horregatik, estranjeria legeak baino behar duguna abegitasun legeak dira, lurraren jabeago komuna egokituko duena, desberdinak direnen arteko lotura gisa, horretan geure buruak moralizat hartzeko aukera baitatza (Martínez Gúzman, prentsan).

"Kultura" askatasun ariketa modura, zeinen bitartez gizakiok zaintzen dugun elkar eta zeinen bitartez gure arteko desberdintasunak lotzen ditugun; beti ere erantzukizunak eskatzeko aukerarekin. Horrela banakako gizakiak eta gizaki taldeen desberdintasunak ezagutu ahal izango ditugu gure arteko eta naturarekiko harremanetan. Laburbilduz, kultura aniztasuna. Zentzu honetan kultura ez da existitzen, biltzen ari garen kontzeptuen irazkiaren ikuspuntutik kulturak dira existitzen direnak, "bakea lortzeko" modu desberdinak dauden bezala. Hemendik datoz nik UNESCOren "kultura eta bakea" eta honen berreraikitzea edo "bakea lortzeko kulturak" hasierakoei egindako zehaztapenak.

2.4

GIZA-HARREMANEN LOTURA "SENDOAK": KOMUNIKAZIO AHALMENAREN BOTEREA ETA JARRERA PERFORMATIBOA

Kulturek bakea lortzeko gizakiok gure aniztasunean lotuta erakusten gaitu. Gure harremanak jorratzean ezagutzen ditugun lotura hauek, gizakion harremanen hasierako elkartasuna dira. Gutariko bakoitzak bere nortasun propioa eraikitzen du harreman sendo horien barruan, eta era berean norberaren berezitasunak ezagutzeko aukera dago baita ere. "Askatasun osoa" edo "egi osoa" terminoei buruz aritu ez naizen bezala, oraingoan ez naiz "nortasun absolutu edo beharrezkoa"ri buruz ari, pertsonala zein kolektiboa, eta "nortasun hiltzaileak" ekar ditzakeena (Maalouf, 1999).

"Nortasuna" kontzeptu dinamikoa da, aniztasunarekin harreman handia duena. Izatez, "berdina" izateak ez du beti esanahi berdina (Austin, 1975:121): niri buruz hitz egitea ez da nire alabaren aitari buruz hitz egitea bezala, nire emaztearen senarrari buruz; nire nortasun balentzianoari buruz hitz egitea ez da balentziano guztien nortasun "berdinari" buruz hitz egitea bezala edo nire ikasle guztientzat ikasle "berdina" izatea bezala. Pertsona berdina naiz eta desberdina naiz nire izaeraren arabera (êthos), naturala ez dena (pathos), baizik eta beti ere besteekiko harreman estua duena. Lotuta dauden nortasun eta elkartasuna dira eta beti ere nola bizi garen, nola zaintzen garen, nola hartzen dugun elkar eta zein abegi erakusten diegun desberdinak direnei bezalakoak ikuspuntu desberdinetatik ikus daitezke, horrela benetako izaki moralak izateko aukera izango dugu.

Elkarrekin eraikitzen diren nortasunen irazkian nire burua ikustea jarrera performatibo baten ezaugarria da (Austin, 1971; Habermas, 1985, Strawson, 1995). Gure artean dagoen jarrera objektiboa desberdina da "neutralak" garela esaterako orduan edo "ardurarik ez dugula" gure artean baloraziorik egiten ez dugulako eta gertakarietara soilik mugatzen garelako (Martínez Guzmán, 2000c; prentsan). Jarrera performatiboan beti ari gara elkarrekin konprometitzen. Beti dago konfigurazio jarrai edo per-formazio bat (formazio sakona) elkarrekiko nortasunean, hau elkarrengandik espero dugunetik sortzen da, sortzen ditugun itxaropenetatik eta "erantzukizunak eskatzeko aukera" beharrezkoa den mailara heldu ezean. Gure harremanak lantzeko dugun eran oinarritzen den hasierako elkartasunean datza gure nortasunen elkar-konfigurazioaren dinamika, hots, performatibitatea.

Performatibitatea komunikazio gaitasunaren ariketa da. Hannah Arendten (1996; 200 ss) arabera, komunikazio gaitasuna gizakiok dauzkagun hiru aktibitateen ikerketan agertzen da, "ekintza" deritzona eta zeinen baldintza aniztasuna den. Gizakion ekintzak posible dira gizakiok pluralak garelako, hau da, berdinak eta desberdinak. Diskurtso eta ekintzan boterea erabiltzen dugu. "Gizakion gaitasunari erantzuteko ahalmena, ez ekiteko bakarrik, baizik eta modu bateratuan ekiteko. Boterea ez da inoiz banako baten jabetasuna; taldeari dagokio eta bere horretan jarraitzen du taldea existitzen den bitartean" (1998, 146)

Nire partehartzearen arabera esan genezake gizakiok lotzen gaituen azpi-subjektibitate originala dagoela. Elkarren arteko komunikazio sendo hau botere modu bat da, modu bateratuan aritzeko gaitasun edo kompetentzia, hau guztia elkarri egin, isildu edo esaten diogunaren indarrean azaltzen da, teknikoki indar ilokuzionarioa edo performatibitatea deritzona (Austin, 1971; Martínez Guzmán 1998a; 1999).

Esan, isildu edo egiten dugunak hainbeste lotzen gaitu, ezen besteek egiten dugun indarra somatzen dutenean egiten dugunaren erantzukizunak eskatu ahal dizkigutela, hau da, gure buruei edo naturari egiten diogunaren ariketa edo performazioaren inguruko konpromezu edo ardurak onartzen ditugu. Egiten dugunaren erantzukizuna elkarri eskatzea askatasun komunikatiboa erabiltzea da: "ekintza komunikatiboari dagokion elkarrenganako aukera, besteen iritziaren inguruko iritzia izateko aukera eta iritzi horren baliogarritasunaren aurrean ere, zeintzuk onarpen inter-subjektiboan bermatzen diren" (Habermas, 1998:185).

Egia da lokuzio aurreko ondorio batzuk daudela, konpromezu eta arduraren maila hori ez dutenak, indar ilokuzionarioetan azaltzen dena gure ekintza egokia denean. Interlokutoreek zerbait esan, isildu edo egin dugunaren indarra somatzean, guk egindako ekintza desegokien erantzukizuna eska diezagukete. Ordea ondorio perlokuzionarioetan indar normatibo txikiago dago. Noski erantzukizunak eska diezaguketela, baina gure ekintzen ondorio perlokuzionarioek izutzen gaituzte asma ezinak izan daitezkeelako eta egiten dugunarekiko arbitrarioak direlako (Austin, 1971).

Nire ustez komunikazio gaitasuna eta gure nortasun sendoaren performazioa konpara genitzake, azken hau oso lotuta dagoena besteen nortasunarekin modu bateratuan jokatzeko bakean bizitzeko aukerekin, bakea lortzeko aukerekin. Izatez, latineko "paz" hitza "paktu" hitzarekin lotuta dago, egiten ditugun tratuen arabera jokatzeko, akordioak lortzeko, hau da, modu bateratuan ari-tzeko.

Bestalde, "biolentzia" batzuen komunikazio gaitasunaren apurketa da beste batzuen alde; giza-harremanen hasierako elkartasun intersubjektiboaren apurketa, modu bateratuan jokatzeko gaitasunarena; batzuekiko komunikazio askatasuna ez onartzearena, indarra lehertzearena bitartekoak helburuak gainditzen dituztenean eta bitarteko hauek tresna soila bihurtzen direnean gizakion jokaeren ustekabearen arbitrarietatea sortzen dutenean eta askotan, gerra azken arbitro gisa hartzen dute. Bortizkeriak gure jokaeren ondorioetan sortarazten duen arbitrarietate dosia gizakion jokabide askoren ahultasun adibidea da (Arendt, 1998:112, ss. 148). Nire uste arbitrarietate hori harreman estua lukeela ondorio perlokuzionarioen ustegabetasunarekin.

Lantzen ari naizen bakea lortzeko filosofia errealista da. Gizakion kompetentzia bortitzak onartzen ditu, haustura mota guzti horiek sortzen dituztenak alegia. Onartzen ditu baita ere aurrekoen marjinazio, baztertzeko edo menperatzeraren ondorioak, botereak adostasunak ematen dion legitimitatea galtzen duenean bortizkeria eta arbitrarietatearen erruz. Baina errealista bada ere gizakiok bakea lortzeko ditugun kompetentziak onartzen dituelako. Hortaz, bakerako filosofia modu bortitzean jokatzeko kompetentzien deseraikitze eta des-ikastea da, hala nola bakea lortzeko izpien berreraikitzea (Martínez Guzmán, prentsan), bakea zein "inperfektua" izan daitekeen onartuz (Muñoz, 2001).

3.

Jenero sailkapenaren garrantzia Ikerketan eta bakerako Estudioak: ikuspuntu filosofiko bat

3.1

BORTIZKERIAREN SEXU MASKULINOA KULTURA BATZUEN AZTARNA ETIMOLOGIKOETAN

Orain arte bazirudien ni neu diskurtso "dejeneratu" bat egiten ari nintzela jeneroen desberdintasunik ez egiterakoan, zein jenero miresten den eta zein baztertzen den esaterakoan. Egia da gizakiei buruz aritu izan naizela orokorrean, autore emakumeak aipatzerakoan ere, kontzesio gramatikal batzuk salbu. Dakigunez, tranpa modu "orokorrean" erabiltzerakoan gizon zuriari buruz hitz egiten ari garela ez antzematea da, maskulinoa nire nortasun propioaren berezitasun guztiekin alegia.

Nire diskurtsoan galdutako "kalitate humanoa" berreskuratzeko momentua da. Horretarako ikus ditzagun bortizkeria hitzean aurkitzen ditugun lehen adierazgarriak (Martínez Guzmán, 2001; prentsan).

Erro indoeuroparra duten hizkuntzetan (Roberts eta Pastor, 1997) "bizitza indarra" esan nahi du: erro indoeuroparra gei- da, latineko vit-atik datorrena eta grekoko bios-tik. "Biolentzia" "bio-lento"-ren ezaugarria da, indarra esanahia duen vis erroak eta -lent intentsitate atzizkiak osatuta (adibidez "sucu-lento"-ren esan nahia "oso gozoa" litzateke). Beraz indar handia esan nahi du, indar osoa. Egia da "vis" hau da indarra, harrigarria dela, "maitasunaren indarrak" ere edo "indar armatuez" ere hitz egin genezakeelako. Badirudi, Arendt-en ikusi dugun bezala, indar oro ez dela baztertzaila izan behar.

Vis virtutekin lotzen da, energia, kemena, balentria edo esfortzua esanahia duena. Hemen bortizkeria, indarra eta gaitasuna maskulinitatearekin lotuta daudela ikusten dugu, hirurak vir-ekin dutelako harremana, hots, gizonezkoa edo gizonezkoen ezaugarriak dituen alegia. Bertute edo gizonezko hitzentzako erro indoeuroparra wiro da. Bertute eta maskulinitate arteko harremanak honen edo honen moral zein etikaren interpretazioaren aurrean begiak zabaldu ahal dizkigu, bertuteetan oinarritutakoa, ez modu "unibertsalean"; esan dugun moduan jenero ikuspuntua kontutan izan gabe, maskulinitatea soilik.

Aztarna etimologiko hauen artean ere "bortxaketa" zentzu orokorrean "transgresio" modura aurki dezakegu, baina baita indarrez sartu, inbaditu, profanatu edo bereziki emakumea gizonaren desio sexuala betetzera behartu zentzuan ere.

Nire partehartzean, Arendt-en proposamenarekin bat datorrena eta baita performatibitatearen nire hausnarketarekin bat, gizakiok, gizonak bereziki, indarra erabiltzen dugu, positiboak eta bizitzarekin lotuta egon daitezkeen botereak. Arazoa larriagoa bilakatzen da "kontrolrik gabeko" indarra denean, sendoa, ondorio arbitrarioak izan ditzakeena eta elkarri eskatzen dizkiogun erantzukizunetatik kanpo geratzen dena, hau bortizkeriaren benetako zentzua litzateke.

Testuinguru honetan zentzuak garrantzitsuak dira, jarrera bortitzak ditugunean "gure onetik kanpo" egon gaitzake, neurrigabe, gure mugen kontzientziarik gabe, gure "gizaki baldintza". Sentimendu hauetarako María Moliner-en hiztegiak "boteretik gabea" erabiltzen du, hau da, bortitza naiz "nire buruaren kontrola galtzen dudanean", nire buruaren kontzientzia. Nire aldetik honako hau eransten dut, "boteretik gabea" ere feministen aportazioekin ere lotu daiteke, hots, baztertu ditugunei "boterea" edo "indarra" ematearekin (empower). Bortizkeriarekin gu geu boteretik gabe gaude, eta baztertzen ditugunen botere, gaitasun edo kompetentziak ere alde batera uzten ditugu.

Grekoz bortizkeria bía da, bizitza bios-ekin lotura duena aipatu dugunez. Kasu honetan eta Aristotelesek esan zuenez, mugimendu bortitza dena ulertzeko gai gara, gauza "naturalak" nola funtzionatzen duten dakigulako (Aristoteles, 1977: Fisika, IV 8, 215 1-6). Lehen aipatu dut nire "natura" eta "kultura" kontzeptuak lotuta daudela. Nire egokitze aristotelikoaren arabera berriz, gure oinarritzko eraikuntza sozialetan gauzak nola funtzionatzen dutenari buruz zerbait badakigu eta bortizkeriak funtzionatzeko modu hori "bortxatzen" du.

Bestalde grekoz ere badago beste hitz bat, hybris, harrotasun maskulino edo giza-harrotasunari dagokiona, hau da gizakia izatea onartzea eta jainkoak diren moduan uste duten bezala izan. Harrotasun honek justiziaren bortxaketa dakar, baita lurra eta gizartea-bizitzak dituzten gaitzak ere eta Nemesis jainkosak mendekatuko ditu (Jaeger, 1971). Modu batean edo bestean hybris hitza "boteretik gabea"-k zuen zentzuarekin lotzen dugu, hau da gizakia izatea ez onartzea eta "bere onetik kanpo" egotea.

Hirugarren, grekoentzat ere bertute eta maskulinitasunaren artean ere harreman susmagarria dago, latinaren kasuan ikusi dugun moduan. Grekoentzat heziketa bertutea da, jokaera bikaina (arete) izatea da. Dena den arete-k hasieran gizon-zentzua zuen, aristokraziaren balore gisa ulertuta (aristos).

Azkenik, grekoz ere segurtasunaren nozioarekin lotura duten kontzeptuek maskulinoak dira. Asphaleia aletheia-rekin lotuta dago, faltsua ez dena, huts egitea, bhle erro indoeuroparra, biak sendotasun maskulinoarekin lotuta, falica erro berdina duen aztarna etimologikoa duena (Dillon, 1996; Roberts eta Pastor, 1997). Antzeman dezagun segurtasuna eta egia arteko lotura, eta joko etimologiko guztia, benetako ezagupena ulertzeak duen forma maskulinoa, herentzia grekoko ezagupen maskulino hau ezagupen femenino oro eta beste kulturen ginetik jarri arazi diguna, aipatu dugunez.

Bestalde gazteleraz eta latinez "seguridad" hitzak sine-cura esan nahi du, kezkarik ez izatea, elkar zaintzeko beharrik ez izan, bizitza zaintzeko beharrik ez izan, hau berreskuratu nahi genuen kulturaren beste zentzuetarik bat da. Gainera ikusiko dugunez, proposamen femenino batzuetatik

salatuko da maskulinitatean oinarritutako etikak "zainketa" gaitasuna ahaztu duela, samurtasunez elkar-zaintzeko, jarrera femeninotzat ezarri dena alegia (5).

Bibliaren hebreoan (Leon-Dufour, 1976) bortizkeria hitzarekiko baliokideak, Hms, araua apurtzearen zentzua du, grekoek injustizia bezala itzuli zutena (adikia). Genesiaren narratzaileak sugearen bitartez esaten du gizakiak Jainkoa imajinatu duten bezala izan daitezkeela (hybris esperientzia grekoaren antzera). Esperientzia honen narrazioaren bitartez konturatu gaitzke paradoxikoki elkarri eta lurrari zenbat on edo txar egin diezaiokegun. Horregatik, bortizkeria edo arauen hausturaren ostean, biluzik aurkituko dira, lotsa sentituko dute eta etorkizunaren beldur izango dira. Gogora dezagun bortizkeriaren arbitrarietatea.

Nire interpretazioaren arabera bortizkeria haustura moduan gizakien arteko eta lurrarekiko harreman originalaren oreka apurtzen du, ez da bidezkoa, emakumeak menperatzen ditu, natura modu harrapari batean ere menperatzen du. Gizaki, animalia edo lurreko fruituen ugalketa eta hazkundea, bortizkeriaren esperientziatik penagarritzat joko dira; erditzea minez egingo da, elikagaia lortzea izerdiaren truke, lurrak orain kardo eta arantzak sortuko dituelako. Askatasun, ezagupen eta bortizkeriaren arteko harremanaren paradoxa, era berean, elkarri eta naturarekiko harremanen ondorioen erantzukizunak eskatzeko aukeraren esperientziarekin lotuta dago: "Zergatik estaldu zarete?" Galdetu zien Yahavé Adán eta Evari. "Non dago zure anaia?" galdetu zion Caini. Bestalde, gizakioi gizakiok elkar zaintzeak sortzen digun "ezinegona" ere kontutan izaten du: "Nire anaiaren zaindaria ote naiz akaso?" erantzun zuen Caine (Martínez Guzmán, 2001; prentsan).

3.2

SEGURTASUNAREN ERAIKUNTZA MASKULINOA BESTEARENGANAKO BELDURRETIK

Hitzekin egiten duguna nola deseraiki daitekeen ikusten ari gara, nortzuk baztertzen ditugun eta zein ideal mota proposatzen dugun ikusteko. Horrela "mendebaldeko" oihituraren oinarrietako kulturen hitzek utzi diguten aztarna ikus dezakegu, bortizkeria jokaera maskulinoa da. Paradoxikoki jokaera honek harreman dauka forma deskontrolatuen gaitasun humanoak eta potentziak gartzeko askatasunarekin, baita bertute etikoekin ere, gehienak maskulinoak direnak eta "beldurra- ren" esperientziarekin lotuta.

(5) UNESCO Bakerako Filosofia Katedrako ikertzaile taldearen artean ere, doktoretza egiten ari den Irene Comins, tesi doktorala zainketa etika eta bakeak lortzeko kulturen arteko harremanei buruz egiten ari da. Era berean, gai honekin lotuta dauden zenbait artikulua idatzi ditu aipatutako Andaluziako Biltzarreko Bake Entziklopediarako.

Izan ere proposamen feminista batzutan eta maskulinitate berrien ikerketetan, maskulinitatearen bortizkeria lotuta dago beldur, izu eta gizonezkoen ahulezia edo sentikortasuna onarpen ezarekin (Brod eta Kaufman, 1994; Carabí eta Segarra, 2000; Chodorow, 1984). Edipo konplexua berregokituz azalpen psikoanalitikoak berreskuratzen dira. Haurrak amaren dependentziaz konturatzeko eta "gizona bihurtzeko" sortzen den itxaropenean dago kontrastea, lehenago aitaren irudiaren bitartez eta azkenik era maskulinoan eraturako gizartearen bitartez, zeinek beldurra sortzen duen ahulezia maskulinoa ez onartzearen. Ahulezia hori ez onartzeak umeok bortitzak bihurtzen gaitu. Samurtasuna behar dugula onartzeak gizonen jarrera bortitzak dakartza (Rof Carballo, 1997). Itxaropen matxista duen jokoan gizonok maskulinitate bortitza jasotzen dugu (Miedzian, 1995). Ar gogorraren rola jokatzearren gure seme-alaben aitak izateko aukera ere galtzen dugu (Lo Russo, 1998).

Azpiko psikoanalisi honekin Betty Reardon ere bat dator bakerako ikerketa feministan, aspalditik lantzen ari naizen liburu batean (1985) (Martínez Guzmán, 1998b, prentsan). Autore honek, "sexismoa" deitzen dio guk egin dugun moduan, asmakizun soziala den dominazio maskulinoa eta gerra sistema asmakizun soziala lotzen ditu. Asmakizun biek lotura sinbolikoa dute, hau da, elkarren onura dute, bortizkeria sozialaren arazo arruntaren manifestazio bikiak dira eta zergati amankomuna dute. Amankomunean duten horrek zerikusia du gizakion psikismoa nola funtzionatzen duen azalpenarekin:

1. Ugalketa gaitasunean desberdintasun sexualak daude.
2. Gizonei beldurra ematen die: amarekiko menpekotasuna, besteeikiko desberdintasuna, ahulezi maskulinoa.
3. Ondorioz, rolen desberdintasunak eraikitzen dira jeneroaren arabera, bestearengandik babesteko sistema modura.
4. Segurtasun nozioa eraikitzen da dominazio gisa desberdina denaren mehatxutik defendatu ahal izateko.
5. Etsaiaren nozioa eraikitzen da bestearenganako dudak beldurretik, bestearenganako (emakumeak) beldurra zena hasiera batean.
6. Gerra sistemari egokituta: benetako etsaia sortzea da, irudimeneko etsaia desberdintasunari diogun beldurraren ondorioz eraikita.
7. Sozializazioari aplikatuta:
 - a) Gizonak sozializatzen dira euren berdinak direnekin bortizkeria lehiakortasunez erabiltzeko, "menpekoekin" aldiz zampaketa bortizkeriaren beldur baita. Emakumezkoek soilik dute beldur hori adierazteko eskubidea.
 - b) Gizonak beldurra erasoaren bidez bideratzen du, emakumeak aldiz sumisioaren bidez.
 - c) Eraso-sumiso harreman honen adierazgarririk gorena bortxaketa da: pertsona bat edo batzuk sumisio eta egokitzapen egoera batera behartu indar edo bortizkeriaren mehatxua erabiliz. Bortxaketaren mehatxuak balio du emakumeak, etsaiak, kolonizatutakoak, bestea edo desberdina dena "menperatuta" mantentzeko. Gerra sistemaren azken metafora da, non bortiz-

keria harremanen azken arbitroa baiten. Honen legitimazioak mehatxatutakoa, bestea edo nazio-estatuari balioa kentzen dio, deshumanizatu egiten du.

Beraz, jeneroaren eraketa hasieratik zaurituta dago desberdintasunari diogun beldurratetik, dominazio sistema bihurtze dena eta gerra sisteman isladatzen dena. Bere aldetik, bortizkeria sozialaren arrazoi estrukturalak harreman sozialen eraketa giza-maskulinoa dira desberdintasunari diogun beldurrak zauritzen duen estruktura psikikoaren arabera. Desberdintasunari diogun beldur honetatik gizonek militarizatutako nazioen antolaketa mundiala eta gerraren kultura sortzen dute. Jeneroaren hasierako zauri hau, zeinen desberdintasunak sexismo eta dominazioa bihurtzen diren gure ikusmolde propioa eta naturaren gure ikusmoldearekiko, baita ezagupenarekiko eta zientziarekiko ere. Natura "Ama Lurra" dominatu behar da, zulatu eta menderatu ekofeministek esan duten bezala (Shiva, 1991). Reardomen interpretazioaren arabera hondamendi ekologikoa misoginoa da, emakumeekiko gorrotatik sortzen delako (miseo grekoz gorrotatzea da); ginofobikoa ere bada, hau da, "beldurtia" (phobeomai, "beldurra izan") emakumeen beldur, femeninoa denaren beldur, bestearen beldur.

Sexismo dominatzailea bihurtzen den jeneroaren eraketa sozialaren hasierako zauri honen inplikazioek "zientzizismo" bezalako zientzia nozioa sortzen dute: hau da, zientziaren ikusmoldea ezagupen absolutu eta unibertsal gisa, bakarra eta besteen zein beste herrien ezagupenen ezabaketa. Oraindik ere zientziaren izenean kolonizatzen diren herriak Sandra Harding (1996;1998) bezalako filosofo feministek adierazi duten moduan eta nik neuk ere beste nonbaiten ikusi dudan moduan (Martínez Guzmán, 2000c; prentsan). Zientzia nozioan jenero ikuspuntua sartzea ez da jada "emakume" edo "indigena" zientifiko gehiago egon daitezen, baizik eta mendebaldeko zientzia zuri maskulinoa iraultzeko. Nire ustez Kolonia Osteko Ikerketetatik (Toro y Toro, 1999) herriek euren jakituria propioa erabiltzeko duten eskubidea aldarrikatu dezakegula. Era beran, Bakerako Ikerketen barruan, sexualitatearen ikusmolde dominatzaile honek ere "garapenaren" ikusmoldearentzat garrantzitsua izan da. Batetik, Gizakien Garapenerako Nazio Artekoen Programaren txosten ofizialak ere jenero sailkapena erabiltzen hasi behar izan dira euren hasierako ikusmoldean, garapenaren ikusmoldea gainditzeko garapen ekonomikoaren saiakera zena. Horrela "pobrezia feminizatu" dela konturatu dira, ikusi dute baita ere garapenaren ikusmolde sexista gainditu nahi bazuten (PNUD,1996; 2000) "jeneroa indartzeko indizea" delakoa bultzatu behar izan dutela.

Bestalde, Garapen Osteko Ikerketak direlakoek aipatutako ekofeminismoarekin lotuta daude, gizarte industrialarekiko kritikekin eta ekoizpen ekonomiarekin, Ivan Illich-en inguruan biltzen diren "desprofesionalizatutako intelektualak" deritzenak bermatutakoak. Horrela, autore hauen ustetan, garapena munduaren ikusmolde zuri, dominatzaile, zuri eta mendebaldeko gisa ikusten badugu, edo Vandana Shiva (1991) dioen moduan "garapen txarra" deitu behar badiogu modu erradikalago batean, herri guztietan ez aplikatu izana ez dugu gaitzetsi behar, gaitzetsi behar duguna hau garaile suertatzea baita (Sachs, 1996).

Ivan Illichek (1990) sexismoaren analisi argi bat egiten du, kasu honetan gizarte industrialaren ikusmolde ekonomikoari lotuta dagoen dominazio maskulino modura ulertuta eta "sexu ekonomi-

koa" deritzona. Egia da jeneroak kulturetan gaitasun batzuk adierazten dituela. Egia da kultura patriarkaletan gaitasun horiek asimetrikoak direla, eta hain zuzen ere asimetria horren kontra borrokatu behar da. Dena den, sexu ekonomikoak gizarte industrialean adierazten duen dominazio sexista lotuta dago "ekonomia industrial" nozioarekin. UNESCOko biltzarretik hartu dugun "rol" kontzeptua bera tranpa bat izan daitekeela adierazten du. Illich-entzat soziologian erabiltzen den moduan "rola gailua da, zeini esker jendea jenero kontzepturik gabe analizatzen den aniztasunaren parte bat da". Bitartean, "jeneroak sakonean, bata bestearekiko oso bestelakoak diren bi terminoen arteko harremana ezartzen du, euren rola jokatzeko gizabanakoa inoiz izango ez direnak" (91s).

4.

*Laburbilduz: Bakeak
lortzeko kulturetan emakume
eta gizon bilakatur.
Justiziaren samurtasuna*

Akademikoki ikertzen jarraitzeko eta bakeak egiteko kultura berrien eraketaren alde lan egin jarraitzeko adierazgarri batzuekin amaituko dut, emakume eta gizon nola bilakatzen garen ulertzeko dauden modu berriekin lotuta:

1. Onartzen dugu gerra kulturak "kulturak" direla eta "gizonei dagozkiela".
2. Gerren kulturaren maskulinitasunaz jabetu ez bagara, kulturaren ikusmolde "dejeneratua" eduki dugulako izan da: hau da, gizakion harremanetan ematen diren jenero dualtasunak kontutan ez ditugulako izan, eta paradoxikoki, kultura "sexistak" egin ditugu, hots, sexu maskulinoaren nagusitasuna emakumearekiko.
3. "Sexismoarekin", emakumeen ikerketei esker jakin izan dugunez, gizaki oro galtzaile atera gara. Horregatik "emakume eta gizon nola bilakatzen garen" modu berriak ulertu behar ditugu, feminitate berriak eta maskulinitate berriak.
4. Bestalde, dominazio maskulinoaren aurrean begiak zabaltzeak bestelako baztertze eta marjinalizazioak ikustera ere lagunduko gaitu, arraza arrazoiak, larruaren kolorea, klase soziala, dominazio koloniala, zientzia eta garapenaren ikusmoldea eta abar.
5. Horretarako kultura, lantze, bizitzeko moduak, elkar zaindu eta natura zaintzeko harremanak berriz ere hausnartu behar ditugu, gerrak egiteko kulturak bakeak egiteko kulturekin ordezkatzeko iraultza modu bezala.
6. Bazterketen aurrean begiak zabaltzeko, gauzak nola egiten ditugunaren deseraikitze modura eta, natura eta kultura dikotomiaren tranpari nola aurre egin diezaikegun berreraikitze. Kulturarekin loretu, hazi eta jaiotzen dena iraultzen dugu. Naturala dena ezin dugu jakin beratu landu gabe, kulturarik gabe alegia.

7. Gainera kultura askatasun eta ardura moralarekin lotuta dago: elkarri egiten diogunaren erantzukizunak eskatzeko gaitasuna, lurrian nola bizi garen eta desberdinekiko zein harrera dugun.
8. Giza harremanekiko hasiera originala, komunikatzeko boterea erabiltzeko gaitasuna, erantzukizunak eskatzeko askatasuna eta modu jakin batean jokatzeko aukera oso estuki lotuta daude. Arendt-en arabera, hau posiblea da berdinak eta desberdin egiten gaituen aniztasun marko batean bizi garelako.(6)
9. Modu jakinean jokatzeko komunikazio botere honek bakea egiteko erak adierazten ditu, "bakea"-k duen zentzu etimologikoan, paktuak egiteko aukera alegia. Bitartean, bortizkeria komunikazio boterearen haustura, zehaztapen ahalmenaren haustura, gizakion harremanen elkartasunaren haustura da. Hau gizakion harremanen ahulezia frogatzen da, maskulinoa oinarriz, eta moralarekin ere lotuta bere zentzu maskulinoan; bertutea bezala, vir edo varonekin lotuta, edo grekoz arete-rekin lotuta, hots, aristokrata gerlarien bertutea.
10. Badira eragin psikoanalitikoa duten hausnarketa batzuk bakerako ikerketa feministengan eragina izan dutenak, bortizkeriaren jatorri maskulinoa azaltzen dutenak, emakumeenganako beldurrarengatik, amaren zainketa eta samurtasunarekin apurtzean hasten dena. Horrela misoginia eta ginofobiak sortutako bortizkeria ematen da, segurtasun faliko eta maskulinoa dardarren sistema sortzen duena, arreta, zainketa eta samurtasuna kontutan hartzen ez dituenak, baizik eta jeneroa bereizterakoan edo bestelako bazterketen justizia baino ikusi ahal izan dugunez.
11. Lantzen ari garen alternatibek, bestelako ahotsak kontutan hartzea dakarte(7), sentiberagoak, justiziaren etikak osagarri gisa, kognitiboagoak. Hasiera baten konturatu ginen jenero sailkapenari muzin egiten zioten justizia etikak sexista bihurtu zitezkeela, emakumeak justiziaren gai publikoetatik kanpo uzten baitzituzten. Beranduago konturatu gara gizonok samurtasuna, errespetua eta emakumeei egokitutako maitasunarekiko galtzaile atera garelako. Berriz ere gaizki dagoena dikotomia bera da, "cuidado" hitza cogitaretik datorrelako, hots "pentsatu". Beraz, ez daude alde batetik justiziaren etika kognitiboak eta bestetik zainketarekiko sentiberak diren etikak. Feminitate eta maskulinitate berriok behar duguna zera da, arrazoi samurak, justiziatik aldentu eta justiziaren samurtasunarekin konprometuz hartu.

(6) Performatibitatea eta emakume zein gizon nola bihurtzen garen arteko harremana filosofo feministek ikertu dute (Butler, 1997; 1999), feminitate eta maskulinitate modu berriengatik kezkatutako autore emakumeak inspiratu dituztenak ere Jennifer Harding (1998) kasu. Dena den, nire ustez Derridaren (1989) eraginagatik, batzutan "performatibitate" kontzeptu bat erabiltzen dute, zeinek performancerekin harreman handiagoa duen, "antzezpen" moduan, eta autore batzuk, komunikatzen diren pertsonen arteko testuen interpretazioaren literaltasunarekin. Nire aldetik, performatibitatearen interpretazio "komunikatibista" hau nahiago dut, beti ere egin, esan edo isiltzen garen erantzukizunak eskatzeko aukera ematen duelako (Martínez Guzmán, 1997; prentsan).

(7) Carol Gilligan (1982; 1986) izan da diskurtso moraletan ahots feministak gehien sartu dituen autoreak, honek, lehen aipatu ditudan zainketa etikak inspiratu ditu (Martínez Guzmán, 1997; prentsan).

Bibliografía

- ARANGUREN, J. L. (1968): *Ética*, Madril, Editorial Revista de Occidente.
- ARENDRT, H. (1996): *La condición humana*, Bartzelona, Ediciones Paidós.
- ARENDRT, H. (1998): «Sobre la violencia» 1998): *Crisis de la república*, Madril, Taurus: 234.
- ARISTÓTELES (1977): *Obras*, Madrid, Aguilar.
- AUSTIN, J. L. (1971): *Palabras y Acciones. Cómo hacer cosas con palabras*, Buenos Aires, Paidós.
- AUSTIN, J. L. (1975): *Ensayos Filosóficos*, Madril, Revista de Occidente.
- AUSTIN, J. L. (1981): *Sentido y percepción*, Madril, Tecnos.
- BOURDIEU, P. (2000): *La dominación masculina*, Bartzelona, Anagrama.
- BREINES, I. eta beste (eds.) (2000): *Male roles, masculinities and violence. A culture of peccate perspective*, París, UNESCO Publishing.
- BROD, H. eta M. KAUFMAN (eds.) (1994): "Theorizing masculinities". *Research on men and masculinities series; 5*, London, Sage.
- BUTLER, J. P. (1997): *Excitable speech: a politics of the performative*, New York, Routledge.
- BUTLER, J. P. (1999): *Gender trouble: feminism and the subversion of identity*, New York, Routledge.
- CARABÍ, À. eta M. SEGARRA (2000): *Nuevas masculinidades*, Bartzelona, Icaria.
- CHODOROW, N. (1984): *El Ejercicio de la maternidad: psicoanálisis y sociología de la maternidad y paternidad en la crianza de los hijos*, Bartzelona, Gedisa.
- DERRIDA, J. (1989): *Márgenes de la filosofía*, Madril, Cátedra.
- DERRIDA, J. eta A. DUFOURMANTELLE (2000): *La hospitalidad*, Buenos Aires, Ediciones de la Flor.
- DILLON, M. (1996): *Politics of security: Towards a Political Philosophy of Continental Thought*, London, Routledge.
- FOUCAULT, M. (1987): *El orden del discurso*, Bartzelona, Tusquets.
- FOUCAULT, M. (1992): *Genealogía del racismo. De la guerra de las razas al racismo de Estado*, Madril, La Piqueta/Endymion.
- GILMORE, D. (1994): *Hacerse hombre. Concepciones culturales de la masculinidad*, Bartzelona, Paidós.
- GILLIGAN, C. (1982): *In a different voice: psychological theory and women's development*, Cambridge, Mass., Harvard University Press.
- GILLIGAN, C. (1986): *La moral y la teoría. Psicología del desarrollo femenino*, Mexico, Fondo de Cultura Económica.

-
- HABERMAS, J. (1985): *Conciencia moral y acción comunicativa*, Barcelona, Península.
- HABERMAS, J. (1998): *Facticidad y validez. Sobre el derecho y el Estado democrático de derecho en términos de teoría del discurso*, Madrid, Trotta.
- HARDING, J. (1998): *Sex acts: practices of femininity and masculinity*, London; Thousand Oaks, Calif., Sage.
- HARDING, S. (1996): *Ciencia y feminismo*, Madrid, Morata.
- HARDING, S. eta U. NARAYAN (eds.) (1998): *Border crossing multicultural and postcolonial feminist challenges to philosophy Part I*, Bloomington, IN Indiana, University Press.
- HOFSTEDE, G. (ed.) (1998): "Masculinity and femininity. The taboo dimension of national cultures". *Cross-cultural psychology series*; 3, London, Sage.
- ILLICH, I. (1990): *El género vernáculo*, Mexico, D.F., Joaquín Moritz/Planeta.
- JAEGER, W. (1971): *Paideia: los ideales de la cultura griega*, Mexico, Fondo de Cultura Económica.
- LÉON-DUFOUR, X. (1976): *Vocabulario de Teología Bíblica*, Barcelona, Herder.
- LO RUSSO, G. (1998): *Hombres y padres: la oscura cuestión masculina*, Madrid, Horas y horas.
- MAALOUF, A. (1999): *Identidades asesinas*, Madrid, Alianza.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, V. (1997): «Educación en valores como adquisición de hábitos», in GENERALITAT VALENCIANA. CONSELL ESCOLAR VALENCIÀ (ed.) (1997): *VIII Jornadas de Consejo Escolares autonómicos y del estado*, València, Generalitat Valenciana: 53-67.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, V. (1998a): «De la fenomenología comunicativa a la filosofía de la paz», in PINTOS PEÑARANDA, M. L. eta J. L. GONZÁLEZ LÓPEZ (eds.) (1998a): *Actas del Congreso Fenomenología y Ciencias Humanas, 24-28 de Septiembre de 1996*, Santiago de Compostela, Universidad de Santiago de Compostela: 87-101.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, V. (1998b): «Género, paz y discurso», in FISAS, V. (ed.) (1998b): *El sexo de la violencia. Género y cultura de la violencia*, Barcelona, Icaria: 117-134.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, V. (1999): «El silencio como interpelación: Paz y Conflicto», in FARRELL, M. eta D. SALES (eds.) (1999): *El silencio en la comunicación humana*, Castelló, Seminari d'Investigació Feminista. Universitat Jaume I: 107-120.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, V. (2000a): «Cultivar la pau», *RE*(24, octubre), 14.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, V. (2000b): «Filosofía y cultura de la Paz», *ILAS - Revista del Instituto Latinoamericano de Salud Mental y Derechos Humanos de Chile*, II(2º semestre), 47-54.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, V. (2000c): «Saber hacer las paces. Epistemologías de los Estudios para la Paz», *Convergencia. Revista de Ciencias Sociales*, 7(23), 49-96.

-
- MARTÍNEZ GUZMÁN, V. (2001): «La violencia como condición humana y patología social», *Éxodo* (57 (urtarrila-otsaila)), 4-10.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, V. (prentsan): *Filosofía para hacer las paces*, Bartzelona, Icaria.
- MEAD, M. (1994): «La guerra es sólo una invención y no una necesidad biológica», in VÁSQUEZ, J. A. (ed.) (1994): *Relaciones Internacionales. El pensamiento de los clásicos*, Mexico, Limusa. Noriega Editores: 265-269.
- MIEDZIAN, M. (1995): *Chicos son, hombres serán. Cómo romper los lazos entre masculinidad y violencia*, Madril, Horas y Horas.
- MOLINER, M. (1997): *Diccionario de uso del español*. Edición en CD-Rom versión 1.1., Madril, Gredos.
- MUÑOZ, F. A. (2001): *La paz imperfecta*, Granada, Universidad de Granada.
- PNUD (1996): *Informe sobre desarrollo humano 1996*, Madril, Mundi-Prensa.
- PNUD (2000): *Informe sobre desarrollo humano 2000*, Madril, Mundi-Prensa.
- REARDON, B. (1985): *Sexism and the War System*, New York/London, Teachers College, Columbia University.
- ROBERTS, E. A. eta B. PASTOR (1997): *Diccionario etimológico indoeuropeo de la lengua española*, Madrid, Alianza.
- ROF CARBALLO, J. (1997): *Violencia y ternura*, Espasa-Calpe.
- SACHS, W. (ed.) (1996): *Diccionario del Desarrollo. Una guía del conocimiento como poder*, Lima, PRATEC.
- SHIVA, V. (1991): *Abrazar la vida. Mujer, ecología y supervivencia*, Montevideo, Instituto del Tercer Mundo-ITeM SRL.
- STRAWSON, P. F. (1995): *Libertad y resentimiento*, Bartzelona, I.C.E. UAB-Ediciones Paidós.
- TORO, A. D. eta F. D. TORO (ed.) (1999): *El debate de la postcolonialidad: una postmodernidad periférica o cambio de paradigma en el pensamiento latinoamericano*, Madril, Iberoamericana.

**FERNANDO BARRAGÁN
MEDERO**

**Didaktika Departamentua, La
Lagunako Unibertsitatea. Santa
Cruz de Tenerife**

*Maskulinota-
sunak Europa*

Berrian:

homofobiatik

beste

pertsonen

zaintzetaren

etikara

Laburpena

Europako Elkarteko zortzi herrialde kidetan, hots, Erresuma Batua, Danimarka, Alemania, Italia, Grazia, Portugal, Frantzia eta Espainian egindako ikerketa baten emaitza konparatuak aurkeztuko dira. Ikerketan lau alor landu dira: akademikoa, etxeko bizitza eta beste pertsonen zainketaren etika, gizontasun esperientziaren adierazpena eta genero harremanak.

Era berean generoaren ikuspegitik eskuhartzeko programa baten diseinuan ere lan handia egin dugu, eta bi ikasturte osotan burutu da ikerketa, Espainiako emaitza batzuk aurkeztuz. Azterketa teorikoen parean, mintzaldian Europako beste alor batzuetan egindako beste heziketa esperientzia batzuren berri ere emango da, gizontasuna genero adierazpen bat bezala ulertuz.

Gaia bigarren hezkuntzako eskoletan planteatzeko moduari buruzko adibide praktikoak jarriko ditugu, bereziki homofobiaren gaia azpimarratuz.



1.

Maskulinitateak eta generoa

Benetako gizona(1) zarela frogatzeko kultur eta giza mekanismoak garai historikoaren, klase sozialaren, eboluzio etaparen eta erreferentziazko kulturaren arabera aldatzen dira nabarmen. Eta bereziki, maskulinitasuna eta feminitasuna elkarren aurka jartzea ulertzeko moduaren arabera aldatzen dira. Halaber, kultura bakoitzak harreman zuzena izaten du desiragarritzat dituen produkzio, balio eta arau sistemarekin.

Maskulinitate patriarkala hiru alderdi hauekin definitzen da batez ere: jokabide, jarrera eta balio femeninoak saihesteko mutilak amarengandik bereiztea; neskengandik bereizteko adin txikia izatean banatzea eta homosexualitatea ukatzeko heterosexualitatea berrestea (Badinter, 1993).

Maskulinitatearen eraikuntza dela-eta oinarrizko hiru alderdi adierazi behar dira ikuspegi antropologikotik. Lehenengoa: ezagutzen ditugun gizarte gehienek generoaren araberrako desberdintze funtzioak sortzen dituzte. Bigarrena: maskulinitatea eraiki egiten da eta feminitatea ez. Maskulinitatea frogatu egin behar da, gainera. Eta hirugarrena azkenik: maskulinitate ulertzeko ikusmolde desberdinak daudenez –patriarkalarekiko desberdinak denak– maskulinitateez (pluralean) hitz egin behar dugu.

Banaketa eta bereizketa mekanismoak –bai sozialak eta bai heziketakoak– berriz errepikatzen dira boterean dauden talde eta instituzioen aldetik. Hauek, izan ere, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak legitimatzen saiatzen dira.

(1) Nahiago dugu "benetako gizona" terminoa erabiltzea. Maskulinitatea eta generoa kontzeptuak berriak dira izan ere, eta, biak ere gizonen eta emakumeen arteko diferentzien argibide-sistema teorikoa dutela suposatzen da. Ezin extrapolatu daitezke kontzeptuak garai historikoetara, errealitatearen analisia egiteko kontzeptu hauek erabiltzen ez ziren garaietara.

Bigarren alderdiaz hainbat autore arduratu dira (Mead, 1981; Gilmore, 1994; Mathieu, 1996; Lagarde, 1994). Horiek gizon baten eraketa kulturak eta eraketa ohiturak hartzen dituen zenbait forma aztertu dituzte, bereizketa biologikoen elementuetatik harantz. Bizitza pribatuan eta publikoan maskulinitatea definitzen duten ezaugarriak nabarmenki aldatzen dira kultura batetik bestera. Kontrakoak ere izan daitezke ezaugarri hauek.

Ikertutako zenbait kulturatan biologiarene eta maskulinitatearen edo feminitatearen arteko erlazio zuzen bat ezartzen da. Honela, zambiarrentzat, heldutasun sexuala fisiologian datzan ikusmolde dimorfikoa duten haurrentzat, neskek etengabe emakume bihurtzen dituen fingua izeneko barne organo bat dago. Mutilen fingua berriz, ahula da eta semena behar du hazteko (Gilmore, 1994).

"Ginea Berriko gimien artean sortutako zerbait dela esan daiteke fisiologia. Bertan, erritoei esker lortutako maskulinitate erabatekoa kontrako sexuak batzean lortzen da, baina forma maskulino baten pean (Gillison, 1980). Botere biologiko femeninoan gizonak lortzen duten jabetzak substantzia femeninoak ere hartzen ditu beregan: emakume gimiarrentzat hilekoa eraldatutako eta "hildako" gizonaren semena da. Baruyarrentzat berriz, emakumeen esnea gizonen semenetik jaiotzen da" (Mathieu, 1996, 667).

Kultura mediterraneoan laguntza ekonomikoa behar ez izatearen bidez edo sexualitatearen espresio bidez egiten da maskulinitatearen karakterizazioa. Papua Ginea Berriko kasuan berriz, min fisikoa jasatea derrigorrezkoa den erritoen bidez egiten da karakterizazioa (Gilmore, 1994). Eta modu homogeneoegian izendatzen dugun mendebaldeko kulturak, lehiakortasunaren bidez, arriskuko esperientziak aurkitzearen bidez edo tabako eta alkohol kontsumoaren bidez egiten da karakterizazioa (Harris, 1995), besteak beste. Modu unibertsalean maskulinitatearen eraikuntza karakterizatzen duten inbariante multzoa ezartzea oso zaila da beraz. Eta batez ere, aldagaien dibertsitatea eta hauei dagozkien balioak hartzen baditugu kontuan.

Egin dezakegun lehenengo baieztapena hau da: termino biologikotan ulertzen dugun gizon bat izatearen aldean, maskulinitatea kultur fenomeno bat da. Honek, sexuaren eta generoaren arteko bereizketa egitera behartzen gaitu.

Generoa kultur eraikuntza gisa hartzeak oinarrizko hiru egitura eskatzen du kontuan hartzea: lana, boterea eta katexisa (Connell, 1987) eta indar, ahalmen eta hierarkia gradua. Sexualitatea katexis kontzeptuan sartzen duen aipatutako idazleak ez bezala, generoa azaltzen duena sexualitatea dela defendatuko dugu guk, eta ez alderantziz.

Generoaren arabera bereizketa egiteak sexualitatearen eta generoaren(2) arteko bereizketa bat planteatzea eskatzen du. Honela, azalduko dugu lehen mailako eta bigarren mailako sozializazio prozesuek eraikuntza kontzeptualeko mekanismoak sortzen dituztela, hau da, maskulinitateaz eta feminitateaz ulertu behar den sistema esplikatiiboak –modu idealean bai gutxienez– izango ditugu.

(2) Thurenak (1993) adierazitako harremana Gizarte Zientzietatik kanporatua izan da, feminismoak salatua duen gisan (Ikus Barragán, Pérez eta Jiménez, 1996).

MaCkinnon-ek (1982) "... generoa sexualitateaz dagoenez osatua bi kategoriak batean biltzen ditu, eta, sexualitatea generoaren bidez dago zehaztua gehienbat, edo bere osotasunean bestela". Baina "sexualitatea da generoa zehazten duena eta ez alderantziz" (Osborne, 1991, 139). Ondorioz, maskulinitate desberdinak baldin badaude, nolako harremanak daude euren artean? Eta nola transmiti edo betikotu daitezke hezkuntzako instituzioen curriculumetan?

"Marcela Lagardek dio, (1994, 415-416) lehiakortasuna medio, gizonak botere nagusitasuna erabiltzen dutela beste gizonakiko nagusi eta arrakastatsu izateko, eta baita bakoitzak boterea bere gain pilatzeko borrokatzen duelako ere" (...) Baina, gehienbat, zilegi da gizonentzat bere etsaiak menderatzea".

Generoen ikuspegitik, oinarriko lau kontzeptu planteatzen ditu Connellek maskulinitateen arteko harreman sistema bat ezartzeko (1995): hegemonia, mendekotasuna, konplizitatea eta marjinalizazioa.

"Gramsciren klase arteko harremanen ikerketatik eratorritako "hegemonia" kontzeptuak kultur dinamikari egiten dio erreferentzia. Horren bidez, talde batek posizio bat aldarrikatzen eta sustengatzen du bizitza sozialean. Garai desberdinetan maskulinitate modu bat gehiago goesten da besteak baino. Patriarkatuaren zilegitasun arazoari komunki onartutako erantzuna ematen dion genero praktikaren konfigurazio gisa defini daiteke maskulinitate hegemonikoa. Honek, gizonen posizio dominatzailea bermatzen du, emakumeen mendekotasuna bezalaxe" (Connell, 1995, 77).

Hala ere, gizon gayen izatea heterosexualen menpeko kultura gisa planteatzen duenean, sinplifikazio komun bat egiten du maskulinitatea lehentasun sexualarekin⁽³⁾ identifikatuz.

Guk nahiago dugu zapalketaren kulturez hitz egin, aurrekoekin etengabeko gatazkan dauden kultur praktiketaz hitz egitea baino, horietako bat baita maskulinitatearen ikusmolde patriarkala. Azken finean nahiago genuke kultur erresistentzietaz hitz egin. Kultura hegemonikoarekin identifikatzen ez diren gizonen kolektiboek biziraupenerako mekanismo sozialak sortzen dituzte izan ere, inguruko presio sozialari aurrez eginez.

Curriculumaren bidez maskulinitateen eraikuntza mekanismoei dagokien bigarren galdera dela eta, curriculum preskribatuen eta ezkutuko curriculumen garrantzia azpimarratu behar dugu, baita testu liburuek eta curriculum materialek moldatzaile gisa betetzen duten funtzioa ere, eta, ideologia hegemonikoen erreproduktzioa ere bai.

Bide beretik, mundu sozialaz egiten dugun azalpena eraikitzean garrantzia handia dute errepresentazio sistemak, balioek eta arauak, eguneroko bizitzako egoera bakoitzean darabilgun jokabidearen gidari gisa.

Esate baterako, mutil koxkor batek bere sentiberatasuna publikoki adierazten badu, bere kideek, familiak edo eskolak eginiko presioa medio hainbat erreakzio eragin ditzake: eredu "hegemoni-

(3) Zentzu honetan oso da interesgarria generoen identitate kontzeptua dela eta Moneyk (1982) egindako ekarpena. Bertan sartzen ditu nahiak, lehentasun pertsonalak, jokabideak eta lehentasun sexualak.

kora" makurtzea, konplizitatea edo marjinazioa. Bizirauteko modu gisa, mekanismo hauek bere buruari egindako traiziotzat jotzen dira edo besteekiko elkarrekintzan eraikitzen den askapen kultura baten ernalditzat. Nola azal genezake bestela gizon batzuk txiki-txikitatik futbola gorrotatzea, bere sentimenak adieraztea, sentiberak izatea eta gatazken indarkeriazko konponbidearekin ados ez egotea eta oraindik ere bizirautea?

Ez dago familiako edo eskolako "sozializazio akatsei" buruzko ikerketa sakonik. Badakigu badaudela akatsak, baina ez dakigu arrazoa. Gizarte zientzietako androzentrismo menderatzaileak azal dezake oinarritzko eremu honetan ikerkuntzak piztutako interes eskasia. Eremu horretan jarriko lirake auzitan kontzepzio patriarkalen eraikuntza mekanismoak. Instituzioen errepresioa eta botereko taldeen errepresioa oso egituratuta egon den garai historiko jakinetan, maskulinitate hegemonikoak zapaldutako zenbait gizon kolektibok ez dute "sozialki onartutako jokabideak" eta batez ere patriarkatuarentzat jasateko modukoak ziren jokabideak hartu beste erremediorik izan. Eta azkenerako, onartuak izatera irits daitezkeen kultura ez-patriarkalak eraiki dituzte, forma patriarkalak onartzen ez diren modu berean. Honela, maskulinitatearen kontzepzio desberdinak medio krisiak eta borrokak sortu izan dira historikoki. Gaur egun, nerabeei dagokienean, arazo afektiboetan islatzen da hori, indarkeriaren hazkuntzan, absentismoan, eskola-porrotean, beste mutelkin laguntasun harremanetan arazoak izatean edo aldaketa bat planteatzerakoan estrategiak falatzean.

2.

Arienne(4) proiektua: berrikuntza, generoa eta maskulinitateak

Oinarritzko hiru aldagaik azal ditzakete maskulinitatearen krisiak: lehenengoa, feminismoaren sorrerak eta garapenak generoen arteko botere harremanak zalantzan jarri ditu, eta gizonak jokatzen duten paperaz ere duda egiten da. Hirurogeita hamarrek hamarkadan arrakastaz sozializatu ez ziren gizonak sortutako men's studies delakoak eta kultur erresistentziak agertzean, ez dituzte onartuko genero maskulinoari emandako paperak, jokabideak, desioak eta nahiak. Baina gizarte garaikideetan emakumeek euren estatutuak berriz planteatu badituzte ere, gizonak maila apalagoan egin dute hori. Horregatik da interesatzen zaigun oinarritzko arazoa nerabeen artean maskulinitatearen kontzepzio askatzaileak bultzatzea.

(4) Hasiera batean hauek diseinatu zuten: Cambridgeko Unibertsitatearen Hezkuntza Saila (Erresuma Batua), Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren ICE (Espainia) eta Lombardiako IRSAE (Milan, Italia). Ondoren batu ziren: La Laguna Unibertsitateko Didaktika eta Hezkuntza eta Jokabide Ikerketa Saila (Espainia), Salonikako Aristoteles Unibertsitateko Psikologia Saila (Grezia), Parisko Unibertsitateko Psikologia Saila (Frantzia), Oportoko Unibertsitateko Hezkuntzaren Psikologia eta Zientziak Fakultatea (Portugal), Aalborg Kommune (Danimarka) eta Hamburg-eko udala (Alemania).

Arianne proiektua bi fasetan garatu da: etnografikoa da bat, eta ikerkuntza-ekintza bestea. 1996-1997 ikasturtean, parte hartzen zuten herrialde desberdinetako nerabeekin ikerketa etnografiko sorta bat egin zen generoen identitateei eta generoen errepresentazio sozialei buruz.

Burujabetza kritikoaren ikuspegi batetik ulertzen den ikerkuntza-ekintzaren ziklo karakteristikoa jarraituz, bigarren faseak bere gain hartu ditu hezkuntzako parte-hartze programa zabal baten diseinua, garapena eta ebaluazioa (McKernan, 1996). Honek heziketa praktikoaren ikerkuntzaren eta garapenaren arteko bereizketa konpontzen lagundu du funtsean.

Ekimen europar globalak falta direla eta, hezkuntzan egin den berrikuntza gisa, maskulinitatean zentratutako hezkuntzako esku-hartze estrategikoetan zentratzen da bigarren mailako heziketa zentroetan.

"Connellek (1998, 52) dio ikastetxeak "umeentzako programak" ari direla sustatzen; ikertzaileek eta arduradun politikoek laguntza edo orientabidea eman edo ez eman. Zoritxarrez, mota honetako eragiketa batzuk ez daude maskulinitateari buruzko ezagutza depuratu batzuen bidez informatuta, ez eta gaiari buruzko hausnarketa xehe baten bidez ere. Gainera, zoritxarrez, ikertzaileek ez dute ezer askorik egin ikastetxeak laguntzeko". Horregatik, ikerkuntza etnografikoa ikastetxeetako estrategiekin batzeak duen garrantzia azpimarratuko dugu guk.

3.

Arianne Proiektuaren helburuak

- Parte hartzen duten herrialdeek sostengatzen dituzten maskulinitatearen errepresentazio sozialak handitzeko heziketa estrategia eraginkorrak identifikatzea.
- Bigarren mailako ikastetxeek maskulinitatea dela-eta beharrezko trebetasunak garatzea, generoko gai bat bailitzan. Maskulinitateari dagozkion antsietateak identifikatzea, eta, neska-mutilen jokabide desberdinekin lotuta, ikastetxeek jokatzen duten papera ebaluatzea maskulinitatearen kontzeptu jakinak bultzatzeko unean.
- Lankidetzak garatzea eta Europako herrialdeen arteko hartu-eman sarea garatzea. Eta baita gaur egungo eskolatzean, maskulinitateari dagozkion gaietan eskolek lan egitea ahalbidetuko duen estrategia eraginkor sorta bat garatzea ere.
- Bitartekoak banatuz, lankidetzak, ikerkuntza metodologiak eta ikastetxeetako parte-hartze taldeen estrategiak laguntzea, eta baita proiektuan zuzen-zuzenean kolaboratzen duten Europako herrialdeetako ikastetxe pilotuak aztertzen dituzten ikerketak laguntzea ere.

4.

Masculinitatearen adierazpena dela-eta zenbait emaitza

Lau ikerketa eremu handi aukeratu ziren: akademikoa, etxekoa, masculinitatearen adierazpena eta heziketa programarako eta ikerketa etnografikorako gida osatu zuten generoen arteko harremanak.

Duen interesagatik, masculinitatearen adierazpen eremuan parte hartu zuten herrialdeen zenbait emaitza konparatibo(5) erakutsiko ditugu.

ALEMANIA (9 - 13 URTE)

- Mutila izatearen ezaugarri onak dira: lagun asko izatea, maitasunarekin ongi pasatzea, ausartak, hotzak izatea, umoretsua izatea.
- Irakasleekin borrokatzea gustatzen zaie.
- Istituluak gorroto dituzte, eta baita irakasle oldarkorrek, tratu desatsegina eta irakaskuntza pobrea ere.

DANIMARKA (9 - 13 URTE)

- Mutila izatea ezaugarri femeninoak ez izatea bezala deskribatzen dute.
- Gazteago izan ahala arazo gehiago dituzte. Adinean aurrera egin ahala "gixon" izatearen alde positiboak gehiago hartzen dituzte kontuan.
- Masculinitate positiboa definitzen duten ezaugarriak dira: indarra, lan aukera handiagoa eta laguntasuna.
- Benetako gizona honela karakterizatzen da: gogortasuna, hunkiberatasun eza, norberekeria, borondate indarra, alkohola, politikoki konprometituta ez egotea eta kontent ez egotea.
- Generoka bereiztutako klaseek homosexualitatea bultzatzen dute. Horregatik dira hobe mistoak.

(5) Espainian lortutako datuetan penintsulako eta Kanariar Irletako (letra etzanean) datuak bereizi ditugu. Kanariar Irletako kultura desberdina baita Estatu espainiarrean bere osotasunean lortu diren ezaugarriekiko.

ESPAINIA (14 - 18 URTE)

- Mehatxu fisikoak maskulinoak dira, mehatxu sinbolikoak emakumeenak. Azterketa sakon batek fisiko-sinboliko bereizketa ez dela generoen araberakoa frogatzen du, klase sozialen artekoa baizik.
- Fama lortzeko estrategiak: kaleko bizitzaren kultura, futbola eta ordenagailuko jokoak.
- Buruzagien arteko desberdintasunak (jarduera matxistak) eta errefusatzan dituztenak (jarduera femeninoagoak)
- Mutilak ondraduagoak dira, egiazaleagoak, bromazaleagoak. Uste dute neskek ez dituztela mutilak ondo ulertzen. Eta neskek konfliktuagoak direla uste dute hitzez eginiko oldarrak txantxak bakarrik direla ez dutelako ulertzen.
- Lagunik onena izan liteke neska bat baina neska-lagunak ederra izan behar du.
- *Arrakasta eredu nagusia maskulinoa da, bai mutilentzat eta baita neskentzat ere.*
- *Ikusmolde tradizional batetik, arrakasta maskulinoa eta femeninoa hauen bidez lortzen da: heterosexualitatea, familia ekonomikoki mantentzea eta babestea. Publikoa izan behar du.*
- *Neskentzat garrantzitsuena bizitzako helburuak lortzea da eta norbere buruarekin gustura egotea. Ez du zertan publikoa izan.*
- *Arrakasta duten ereduak pertsonak dira: abeslariak, kirolariak, modeloak, printzepeak eta printzesak batez ere.*
- *Bilakaeraren ikuspegitik, arrakasta bizitzan jarritako helburuak betetzea dela defendatzen du neska-mutil talde batek.*
- *Nahiz eta oro har, mutilak biolentoagoak direla onartzen den. Berdintasun feministaren ideologia bere egiten duten neskek mutilak bezain biolentoak izan daitezkeela defenditzen dute. Eta horrelaxe demostratzen dute eguneroko jokabidean.*
- *Homofobiaz neskek eta mutilek iritzi bera dute, eta bi generoen aldetik indartzen da. Talde handi batek uste du generoen arteko mugak hautsi behar direla.*
- *Mutilek egitea gustuko ez duten eta gustatu bai baina egin ezin duten gauzen arteko gatazka ematen dute aditzera.*
- *Bere antzekoak diren lagunen presioa droga arriskutsuak eta alkohola saihesteko.*
- *Mutilek uste dute biolentzia sexuala eta fisikoa soilik direla biolentzia, eta ez dagoela hitzezko biolentziarik.*

FRANTZIA (14 - 17 URTE)

- Mutilek euren burua maskulinoki indartsutzat jotzen dute, eta diote ez dutela femininotik ia ezer. Hala ere, –neskek ez bezala– ez dituzte "gixon izatearen deskribapen tipikoak" erabiltzen euren buruak definitzeko.
- Ez dute emakumeak baino lehiakorrak direnik uste, nahiz eta beste mutilekin lehiatzen diren lanen garapenak ebaluatzen direnean modu lehiakorren portatzen diren.

ITALIA (14 - 17 URTE)

- Eskolatik kanpo kirolarekin (futbolaz) eta musikarekin identifikatzen dira.
- Badago diruaren eta maskulinitatearen artean harreman bat nahiz eta bitarteko berdinak dauden gaur egun bikoteen artean (heterosexualak).
- Mutil batzuk nahiago dute lagun asko izan eta estimatuak izan, nahiz eta guztiak ez izan hain lagun onak.
- Mutilei ondraduak ez izatea egozten zaie.
- Indarkeria maskulinoa, fisikoa soilik, hobe dago ikusia hitzezko indarkeria femeninoa baino.

GREZIA (15 - 17 URTE)

- Mutilak emozioak kontrolatu behar ditu, eta, droga eta alkohol arriskuak saihestu.
- Mutilen arazoak gurasoen banaketak, lagun txarrak, drogak eta langabezia dira.
- Ikastetxean onak izateko presioa sentitzen dute inguruan.
- Mutilek saihestu beharrekoa zein den ikasten dute, ez egin behar dutena.
- Gizon baten ezaugarri positiboak: askatasuna, ez da arauetara ohitzen. Neskek askatasuna eskatzen dute. Arau gehiagoren menpean daude.
- Neskek bikotea aukeratzeko dutenean errefusatutako izateko beldurra izaten dute mutilek. Ideia erromantiko hori adierazten dute.
- Homofobia.
- Ez dute harremanen alde emozionala aipatzen.
- Neska-mutilek maskulinitatea eta eraso lotzen dituzte. Eraso erromantizismoari aurka jartzen zaio. Neskak biktimitzat hartzen dira.

PORTUGAL (14 - 18 URTE)

- Euren buruen irudi positiboa: ausartak, indartsuak eta "beti gauza nagusiak egiten", birao sexistak ongi pasatzeko erabiltzen dituzte baina neskak babesten dituzte.
- Mutilek beste mutilen maskulinitatea kontrolatzen dute: esaneko mutil bat eta ikastetxean langilea den mutil bat "femeninoa" da.
- Drogez eta indarkeriez daude kezkatuta.
- Gizon helduez irudi negatiboa dute: Eurek desberdinak izan nahi lukete, baina ez dakite nola.
- Mutilak aldaketa sozialetaz jabetzen dira eta ez dira seguru sentitzen idealen eta jokabideen artean. Sentimenduez eta maitasunaz egiten dute hitz: traizionatutako izateko beldurra...
- Gorputzaren irudia ere aldatzen ari da: itxura modernoarengatik arduratzen dira.
- Homosexualitatea besteen kasutan onartzen da.

ERRESUMA BATUA (12 - 16 URTE)

- Gizonen ezaugarri bikainenak dira kirolak eta alderdi fisikoak eta baita neska bat bezalakoa ez izatea.
- Kontrol emozionala.
- Irakasleek nahiago dituzte neskak, gehiago babesten dituzte.
- Abenturak ematen duen plazera.
- Gauzak banatzea, laguntasuna, leialtasuna nozio oso fuerteak dira (Laguntasuna ordenagailua uztean datza).
- Fidelak dira amarekin.
- Irain sexista eta arrazistak erabiltzen dituzte. Ez dituzte okertzat jotzen. Gorputza dela eta eginiko irainak gehitzen ari dira.
- Mutilak gorputzaren irudiaz arduratuta daude. Bakoitzak bere itxura zaintzeko estrategiak: isiltasuna, ahultasunik ez erakustea. Agerpena mehatxu bat da.

Europako herrialdeetan oinarrizko bost alderdi komun aurki daitezke. Interesgarria dela uste dugu hauxe azpimarratzea: maskulinitatea feminitatearen oposizio bidez definitzen da, sentimenduen ezkutatzearen bidez, indarkeriaren eta maskulinitatearen arteko harremanaren bidez –identifikazioa ez beti–, homofobiaren, eta, izan behar denaren eta izatea gustatuko litzaiokeenaren arteko kontraesanaren bidez.

4.1

MASKULINITATEA FEMINITATEAREN OPOSIZIO BIDEZ DEFINITZEN DA

Maskulinitatearen definizio patriarkalarekin bat etorritik, maskulinitatea feminitatearekin desberdintzen duten neurriak aurka jartzen dira argi eta garbi Europako nerabeen gehiengoan. Kasu batzuetan, biologikoki frogatzen diren generozko estereotipoak sortzen dira berriz.

Maskulinitatea eta feminitatea alderatzeak balio femeninoak ez onartzea esan nahi du. Horrela, maskulinitatea esplizituki definitzen duten adibide argiak topa ditzakegu: ezaugarri femeninoen gabetia, indarra, gogortasuna, maskulinoki indartsuak izatea eta femeninoetik ia ezer ez izatea, dirua edukitzea, emozioak kontrolatzea, indarkeriaren erabilera.

4.2

SENTIMENDUAK ADIERAZTEKO ZAILTASUNAK ETA SENTIMENDUAK EZKUTATzea

Mutil nerabeek esperimentatzen duten zailtasun nagusietako bat euren sentimenduak adierazteko gaitasunik ez izatea da. Alderdi horrek hasiera batean, ez dirudi arazoa denik eurentzako. Modu inplizituan, afektibitatea eta afektibitatearen agerpena ahultasunarekin dago lotua, eta beraz, feminitatearekin.

Oro har, mutilek ez dute euren sentimenduak ezkutatu eta zailtasunak esperimentatzeko kontzientziarik.

4.3

INDARKERIA ETA MASKULINITATEA

Ezin genezake baieztatu indarkeria maskulinitatearekin identifikatzen denik, baina, bi adierazle hauen artean harreman garbi bat ezartzen da. Hitzeko indarkeria gainontzeko pertsonentzako irain modu bat denik ez dute uste. Horrelako irainak gehitu direnez hezkuntzako kezka garrantzitsu izatera iritsi dira, hizketa modu hori pertsonen arteko harreman modu naturala eta dibertigarria dela pentsatzera ere heldu baitira. Kanariar Irletako kasuan, zenbait neskek indarkeriazko adierazpenak aldarrikatzen dituzte, mutilekin berdintasun ezaugarriak izate aldera.

4.4

HOMOFOBIA

Homofobia mutiletan adina agertzen da nesketan ere. Gizonen artean laguntasun minik ez izatea da homofobia falta izatearen ondorioetako bat, eta baita berdinen arteko taldeetan afektibitatea agertzeko zailtasunak izatea ere. Era berean, gizonen artean sentimendu adierazpenak ukatzen ditu homofobiak sortutako mekanismoak. Maskulinitatearen kontzepzio patriarkalak aldatzeko oztopo nagusietako bat osatzen du, gainera.

4.5

DIRENAREN ETA IZATEA GUSTATUKO LITZAIKEENAREN ARTEKO GATAZKA

Portugalen, Greziaren eta Espainiaren (Kanariar Irlak) artean badago kointzidentzia interesgarri bat. Bertan, maskulinitate patriarkalaren presio soziala nola bizi duten konkretatzen da eta baita beste modu batera jokatzen ikasteko desioa zein den ere. Beste gauza batean ere bat datoz, gainera: ez dakite egoera aldatzeko zer egin beharko luketen (bereziki Kanariar Irletan eta Portugalen). Gatazka bat egotearen kontzientzia izatea da hori konpontzeko lehen pausua. Potentzial eraldatzailea bikaina da. Era berean, interesgarria da gizon helduekiko duten arbuioa azpimarratzea ere. Feminismoen bidez eragindako aldaketan presioa argi agertzen da mutil portugesen eta kanariarren artean.

5.

Gogoeta kritikorako zenbait dilema

Hedapena dela-eta, ezin da hemen deskribatu Europako(6) zortzi herrialdeetan hezkuntza garatu den esku-hartze guztia. Kanariar Irletan eginiko lan guztia ere ezin izango dugu sartu. Horren ordez eta duen interesagatik, maskulinitateari buruzko programen diseinuan orientabide batzuk sortzeko potentzial handiago bat ordezka dezaketen zenbait alderdi azpimarratuko ditugu.

5.1

CURRICULUMAREN ERAIKUNTZA ETA IKERKUNTZA-EKINTZA

Maskulinitatearen gaineko curriculumaren eraikuntza irakasleak eta hezkuntza instituzioak inplikatzeko gerturapen bat eskatzen zuten, ikerkuntza-ekintzako oinarrietatik posible izan den gerturapen bat. Stenhousek (1987, 172) dioen moduan "Irakasleak (*bai gizonezko eta bai emakumezkoak*(7)) euren artean garatzeko hezi behar dira, eta ez domina dezaten. Dominioaren aldarrikapenak izan ere, jomuga bat albora uztea esan nahi du."

Maskulinitate gisa planteatutako arazo batetik abiatuta, ikerkuntza-ekintzak zentro bateko irakasleen artean eta zentrotik kanpoko ikerkuntza taldearen artean ekintza bateratuak egiteko prozesu batzuk sortzen ditu. Generozko gai gisa, hezkuntza zentroak lanean konprometitzeko alternatiba egokitzat aurkezten da, maskulinitatean zentratutako hezkuntza estrategien garapenean.

(6) Arianne Proiektura arte eginiko argitalpen guztiak sartu ditugu bibliografian.

(7) Letra etzanez datorrena gurea da.

Ikerkuntza-ekintzan hiru dira planteatzen diren oinarrizko dilemak (Elliot, 1990): ikerketaren arazo zentrala norik definitu behar duen, norik zehazten dituen helburu pedagogikoak eta nola lotu prozesuak eta produktuak. Horretarako, irakasleen eta zentrotik kanpoko ikerkuntza taldearen artean negoziazio prozesu iraunkorrak sortzen dira, Hutchinsek (1992) adierazitako bidea jarraituz: Sarrera Fasea, beharren Identifikazioa eta zentroaren ekintza Plana, garapen Fasea, eta, hobetze eta instituzionalizazio Fasea. Lehenengo bi faseak funtsezkoak izan dira proiektuaren garapena erregulatzeko eta proiektuaren filosofiarekin bat datozen irakasleak inplikatzeko.

Era berean, Carr-en (1989) hitzetan eta McKernanek (1999, 53) bildu zuen gisan, ikerkuntza-ekintzaren –oinarrizko beste ardatzetako bat– ezaugarri emantzipatzaileak adierazten du "ikerkuntza-ekintzaren zati bat praktika errepresiboak eta injustuak nozitzen dituenak askatzea dela". Parte hartzaileak askatzen saiatzen da eta autonomia handiagoa ematen gogoeta kolektiboaren bidez. Helburu zentrala da ikerkuntza taldeari boterea ematea erabakiak hartzeko arduraren jabetza emanez". Bide beretik, egoera problematikoak –generoaren funtziopean diskriminaziozkoak– zeudela agertu zen hasierako eztabaidetan eta hezkuntza praktikarako ekintza plan bat diseinatzeko beharra ere agertu zen.

Ikerkuntza-ekintzaren ikuspegitik eraikitako ekintza curriculumak bigarren mailako hezkuntzan ondorengo irudian bildutako gaietara ekitea ahalbidetu du.

EREMU AKADEMIKOA	ETXEKO BIZITZA ETA GAINERAKO PERTSONEN ZAINKETA ETIKA	ESPERIENTZIA MASKULINOAREN ADIERAZPENA	GENEROEN ARTEKO HARREMANAK
<ul style="list-style-type: none"> • IKASGAIK ETA GENEROA. MOTIBAZIOA ETA ESKOLA-LANA TRANTSIZIOA. 	<ul style="list-style-type: none"> • FAMILIAREN DIBERTSITATEA: BOTERIA, LANA ETA SENTIMENDUAK. 	<ul style="list-style-type: none"> • IRAINAK ETA HORIEN ONDORIO SOZIALAK. • LEHENTASUN SEXUALA, GENEROEN IDENTITATEA ETA HOMOFOBIA. • MASKULINITATEAREN ADIERAZPIDE PUBLIKOA ETA PRIBATUA. 	<ul style="list-style-type: none"> • GENEROEN ARTEKO HARREMANAK: ERAKARGARRITASUNA ETA SEXUALITATEA. • EMAKUMEAREN ESTATUSA ETA BALORAZIOA GAUR EGUNGO GIZARTEAN. DISKRIMINAZIO PROZESUAK ETA EMAKUMEAK.

Eskolatik kanpoko ikerketa taldeak "Maskulinitateaz" lan egiteko egin zuen hasierako proposamenetik abiatuta, irakasleekin eztabaida bat egin zen eta kontsulta bat egin zen ikasleekin. Irakasleek irainez eta familiako dibertsitatez agertu zuten bereziki interesa. Irakasleen ardurak mutilen eskola-porrota eta motibazio falta izan zituen ardatz. Horrela zehaztutako gaiak diseinu, garapen, ebaluazio eta hobetze ziklora pasa ziren bi ikasturte akademikotan zehar.

Esku-hartze hezgarriak gatazka pertsonalaren kontzientzia hartzen laguntzen du, gizon gisa egin behar dugunaren eta gizon gisa egin nahiko genukeenaren artean. Honela genero berdinen arteko presioa haustea lortzeko mekanismoak lortuko ditugu kasu batzuetan. Curriculumak gatazka ezabatzen duela jakingo genuke, eta ez curriculumeko edukietan bakarrik, baita ikastetxeetan sortzen diren ikasketa dinamiketan ere.

Gure esku-hartzearen oinarritzko helburuetako bat gatazka curriculum esplizituan sartzea izan da, bai edukietan eta baita maskulinitateari buruzko ikasleen ideologiaren adierazpenean ere.

"Gatazkak interes indibidualen edo sozialen borroka eskatzen du. Gatazken izaera pertsonala, ekonomikoa edo politikoa izan liteke. Borrokak edo norgehiagokak fenomeno sozial baten aurrean perspektiba posible batzuk daudela esan nahi du, eta baztertzailak direla. Gatazkak pertsonen arteko harremanetan aurkitzen dira, eta baita familian, Estatuan eta beste erakunde sozialetako instituzio edo taldeetan ere" (Barragán, De la Cruz, Doblaz, et al, 2001, 20).

Pertsonok egiten ditugun errepresentazio sozialak mundu soziala azaltzeko ikuspuntu posibleak adierazten ditu. Eta ideologiak osatzen dute maskulinitateaz dugun gure kontzepzioa azaleratzeko moduetako bat.

"Gizartean ideologiaren funtzioa– adierazten du Torresek (1991, 17)- konstituzioan eta formen modelatzean kontzentratzen da bereiziki. Horien azpian bizi dira pertsonak eta horien azpian eraikitzen dituzte euren errealitateak, ametsak, desioak eta helburuak."

Bere aldetik, Soziologiak ideologiak(8) definitu ditu "ahul sistematizatutako "mundu ikuskeraz" dugun printzipioen antolatzaile multzo gisa. Printzipio hauek erreferentzia puntu baino ez dira, lautasun gehiago edo gutxiago izan, eta nahiz eta kontraesankorrak izan batzuetan. Horietatik abiatuz, topatzen dituen errealitateen zentzua eraikitzen du aktiboki subjektuak" (Ibáñez, 1996, 316).

Ondorioz, ideologiak ez dute munduaz dugun kontzepzioa bakarrik adierazten –eta kasu honetan generoen arteko harremanetaz dugun kontzepzioa. "Posible denaren eta ezinezkoa denaren" arteko mugak ezartzen dituzte (Therborn, 1987, Torres-en aipatua, 1991, 17).

(8) Ideologia bat definitzen duten oinarritzko ezaugarriak hiru dira: "Batetik, terminoaren zentzu indartsuan, "sistema" bat ez du inongo ideologiak eraikitzen. Ez dago ideologiarik kontraesanik ez duenik eta inolako ideologiak ez du munduaren adiera bakarreko interpretazioa egitea (Billig eta kolab., 1988)" (Ibáñez Gracia, 1996, 314).

"Bestetik, ideologiaren izaera lausoa. Interpretaziozko gailua gehiago nabarmetzen da, posible baldin bada behintzat. Izan ere, gizabanako oro dago eguneroko bizitzan ideologiaren pluraltasun baten aurrean, ideologia bakar baten aurrean izan beharrean (Billig, 1991). Eta ideologiak "intertestualak" dira, beste ideologiekiko egiten den erreferentziarekin lortzen baitute esanahia. (Ibáñez Gracia, 1996, 315).

Azkenik, "eztabaidatzen den auzi bakoitzeko subjektuak badaki aurka jarritako argumentu multzoak daudela" (Ibáñez Gracia, 1996, 315).

Gure ikerketak oinarrizko hiru ideologia daudela utzi du argi eta garbi: patriarkala, feminista liberala edo aukera berdintasunaren aldeko ideologia eta eraldaketaren ideologia.

Lehenengoak patriarkatua definitzen duten printzipio teorikoen erreproduzioa errepresentatzen du: gizon eta emakumeen arteko genero rolen banaketaren defentsa, indarkeriaren adierazpena eta femeninoaren aurrean maskulinoaz egiten den balorazio hobea. Bigarrena, aukera berdintasuneko programen emaitza da ideologia feminista liberala. Horrek, gizarte guztiarentzako eredu maskulinoaren hedapena ekarri du eta mutilak hori onartzera behartzea. Azkenik, eraldatzearen ideologia. Hori, heziketaren ikuspuntutik da interesgarriena, kontzepzio patriarkalei dagozkien balioen haustura bat defendatzen baitu eta generoen estereotipoak bazter utzita, gizonen eredu bat eraikitzen baitu. Helburuak edo jokabide adierazpenak aukeratzekoan lehentasuna da askatasuna defendatzea, maskulino edo femenino gisa sailkatu edo ez.

Ideologia hauen norgehiagoka beharra planteatzen du metodologia konstruktibistak, eta ondorioz, baztertzailak direnez, gatazka esplizitu egitera behartzen du.

Heziketaren aldaketarako oinarrizko gakoa zera planteatzea izan da: zeintzuk diren euren artean agintzen duten botere dinamikak. Eta ez hainbeste ideologia edo maskulinitatearen kontzepzio ezberdinak egotea. Izan ere, horretan datza aldaketa potentziala eta horretan datza hezkuntzan esku hartzeak aldaketa horretan lagun dezakeela egiaztatzeko erronkak. Ikuspegi hauen arteko norgehiagokak gatazka ulertzea ahalbidetzen du. Horren lehenengo erantzuna oldarkortasuna da. Ondoren, gatazka ez bada konpondua izan, indarkeria planteatu liteke. Indarkeria psikologikoaren adierazpide leunena hizkuntzaren bidez egiten dena da. Eta nerabeek jolastzat edo bromatzat hartzen dute hori. Eta horixe da ideologia hegemonikoaren hasierako legitimazioa, giza esperientziaren bidez eginiko objektibazio linguistikoa (Torres, 1991).

Hizkuntza sexista edo diskriminatzaileak osatzen du indarkeria psikologikoaren espresio egunerokoena. Pertsonak edo taldeak gutxiesteko, mespretxatzeko edo kaltetzeko erabiltzen da hori. Eguneroko adierazpen honetatik, "zu ez zara gizona" (zuk ez duzu barrabilik, bertsiorik erreduktionistenean eta herrikoienean) eta antzerakoek duten esanahia, genero berdinekoen taldean aztertzea eta alternatibak lortzea gero, heziketa prozesu oso bat dago.

IDATZI HOMOSEXUALITATEAZ HITZ EGITEKO EZAGUTZEN DITUZUN HITZAK

NORMALEAN GAZTELERAZ ERABILTZEN DIREN HITZAK

Mutilek

Fla-fla, maricón, trucha, gay, maricona, bujarrón, buja, travestí, pájaro, mariposa, mariposón, palometa, pájaro cojo, crispín, sin gas, sin cafeína, modosito, cóndor eta bestelako hegaztiak (halcón milenario, aguililla...), veneno, morcillón, sin aceite, leona, raro, chapero, chupa pollas, termita, culitrichi, trochón, niña, putilla, cuerva, sarasa, carapene, galápago, putón, culero, julay, travestí, pajareta, soplá gaitas, chupa yerro, asalta culos, caliente cucas, chupa flas, come pingas, drag queen, light, gallinita ciega, achinado, cerradura.

Neskek

Maricones, gay, mariposón, trucha, de la acera de enfrente, sin aceite, palomo, bujarrón, sin gas, power finger, buje, canta más que las lapas, sarasa, sasa, vasioleta.

HITZ HORIEK EZ ERABILTZEKO AUKERAN DAUDEN HITZAK

Mutilek

Gay, homosexual, maricón, por su nombre, nombre propio, palomo.

Neskek

Gay.

IDATZI LESBIANISMOAZ HITZ EGITEKO EZAGUTZEN DITUZUN HITZAK

NORMALEAN GAZTELERAZ ERABILTZEN DIREN HITZAK

Mutilek

Tortillera, camionera, bollera, legionaria, lesbiana, puta extraviada, sin gas, paloma, furcia, zorra, guarra, perra, puta, despistada, caliente coños, pendón, boca chocho, come clitoris, light, minera, camella, fos, transitoria, dedo rápido, power finger, truchona, lengüeta, descafeinado, asquerosas, penco, falta pingas.

Neskek

Bollera, tortilla, lesbiana, camionera, minera, light, sin gas, sin aceite, vuelta y vuelta, langer.

HITZ HORIEK EZ ERABILTZEKO AUKERAN DITUGUN HITZAK

Mutilek

Lesbiana, homosexuala, homosexual, por su nombre, nombre propio, bollera.

Neskek

Lesbiana.

Banatutako taldeen artean (Homofobia gaian, Generoen Identitatean eta Lehenetasun Sexuala gaian garatutakoa) konparaketa egiteak hauxe egiaztatzea ahalbidetzen du: umeak direla nagusiki gizonen kontrako mesprezuzko terminoak gehien ezagutzen eta erabiltzen dituztenak.

Bestalde, gure perspektiba esplikatiboen balioaz jabeazten gaitu gatazkak; logika patriarkaletik ulertzen ditugun generozko kontzeptu zurrunen askatzaile eta gainerakoekiko bereizle gisa. Maskulinitate berrien larrialdietarako heziketak aurrekoekin norgehiagokan sartzen diren ideologia horiek balioetsuzat jo behar ditu.

Gatazka horrela, ezagutzaren eraikuntzarako oinarritzko mekanismo bihurtzen da, (aldaketa kontzeptualean oinarritutako metodologiak argi utzi duen bezala) errealitatearen gure sistema esplikatiiboak bateraezinak –eta baztertzailak honenbestez– direla agerian jartzean.

5.3

BANAKETA PEDAGOGIKOA(9) BURUJABETZA MASKULINOAREN ESTRATEGIA GISA

Garatutako zenbait ikerketek agerian uzten dute "banatutako espazioak" neskentzako abantaila direla antolaketa estrategia gisa. Noddingsek (1992) adierazten digun bezala, gogobetetasun handiagoa eta heziketa helburu handiagoak sortzen dituzte (Lee eta Marks, 1988), eta baita komunitate zentzu indartsuago bat eta bizitza intelektual eta sozialerako jarrera komenigarriagoak ere (Gilroy, 1989; Jiménez eta Lockheed, 1988; Lee eta Bryk, 1986).

Banaketa, praktika pedagogiko gisa, emantzipatzeko edo zapaltzeko erabili daiteke. Hala ere, Krussek (1992, 21) dio "...sexu bidez banatutako inguruak antolatzeke lehenengo helburu peda-

(9) Kanariar Irletan bakarrik sartu zen banaketa pedagogikoaren aurreuposizioa Arianne Proiektuan. Banatu ez ziren taldeekin izan zitezkeen ezberdintasunak esperimintatu nahi genituen.

gogikoa hirukoitza da: autoestimua eta identitate sexuala sustatzea, ikasle bakoitzarekin –neska edo mutila izan– arretaz jokatzuz. Neurketa espektroa handitzeko erronka egitea, bai pertsonalki eta bai profesionalki ere. Eta, gai antisexisten inguruko kontzientzia politikoa handitzea sozialki landutako eredu sexualak aldatzen saiatzeko".

Gure kasuan, banatutako antolakuntza estrategiak abantailarik aurkezten duen frogatu nahi genuen, bai neskentzako eta bai mutilentzako.

Ebaluazioaren emaitzek frogatu dute banatutako inguru pedagogikoetan tarteka lan egiteak abantailak dituela. Hori bai, generoen arteko botere harremanak ikusgarriagoak diren gaietan, edo kontzeptuetako batzuk polarizatuago dauden gaietan –generoen estereotipoen ikuspuntu batetik–. Indarkeriazko adierazpenetan edo sentimenduen adierazpenetan esaterako. Emaitzetan hala ere, banaketa pedagogikoaren alde daudenen gehiengorik ez da izan. Gogora dezagun Europar Batasuneko herrialdeetako ikasle batzuei itxura mantentzeak ardua dietela. Ondorioz, generoen gatazkekiko ikastetxeek gordetzen duten isiltasunak ideologia patriarkala betikotzen laguntzen dute, kultura zapaltzaile gisa.

Ezin uler daiteke ikastetxeetako banaketa pedagogikoa generoen arteko arazoaren eta maskulinitatearen irtenbide gisa. Baina uler daiteke elkartze malgu baten gisan. Tarteka hori erabiltzeak pertsona gisa ulertzen laguntzen du. Ikasleek banaketaz egiten duten balorazioa landutako gaiekin dago harremanetan, euren buruak onartzen jakin dezaten eta euren buruak hobeto ezagutu ditzaten.

Homofobia, Generoaren Identitatea eta Lehentasun Sexuala gaian landutakoa –programaren hasieran– azaldu zitzaienean nahastutako taldeekin eta banatutako taldeekin landuko gurela "neskek banaketaren arrazoiak galdetu zuten eta ez ziren oso ados agertu banaketarekin. Oso talde txikia zen euren izan ere. Eta gainera, ontzat jotzen zuten mutilekin lan egitea, harreman ona baitzuten haiekin. Bazeuden hala ere, mutilekin bananduta lan egitea nahiago zuten neska batzuk ere" (Irakasleen oharrak).

"Mutilak, neskak bezala, taldea banatzearen aurka azaldu ziren. Esaten zidatenez, neskekin oso batuta zeudela sentitzen zuten, eta ikaragarri gustatzen zitzaien haiekin hitz egitea. Hala ere, baziren mutilen arten banaketa defendatzen zutenak ere. Hauek zera zioten: neskarik gabe hobeto egingo dugu lan eta argiago egingo dugu hitz" (irakasleen oharrak).

Maskulinitatearen adierazpen Publikoa eta Pribatua gaian: "uste zuten hobeto zela taldean hitz egitea. Honela, neskek haietaz pentsatzen zutena aurrez aurre esateko aukera izango zuten. Mutil gehienek, ordea, nahiago zuten banatuta lan egin izan balute. Euren iritziak azaltzeko orduan neskek asko baldintzatzen zutela argudiatu zuten izan ere" (Irakasleen oharrak).

Azkenik, esku hartze programaz ikasleek egin zuten balorazioan, gai jakinetan bakarrik jo zuten positibotzat banaketa. Gai horietan mutilak elkar ezagutzeko aukera bultzatu da, eta nola eta zein norabidetan alda daitezkeen kontzientzia hartzen lagundu da.

"Homofobiak –dio Badinterrek (1993,146)–, gizon askotan indartzen du euren heterosexualitate hauskorra. Defentsa psikikoaren mekanismo bat da beraz, euren zati onartezin bat aitortzeko modua lortzeko estrategia bat. Homosexualekiko oldarkorrek izatea gatazka kanporatzeko modu bat da, eta egoera hori jasangarria bihurtzea bide batez".

Maskulinitatearen ideologia patriarkala betikotzeko oinarritzko mekanismoetako bat da homofobia. Beste pertsona baten lehentasun homosexualean oinarritzen da hori, nahiz eta ez dakigun hala den edo ez dakigun seguru edo ezin izango dugun frogatu kasurik gehienetan. Hasiera batean, homofobiak sortzen duen mekanismoa, kulturalki femeninotzat edo maskulinotzat hartzen ditugun jarrera edo ezaugarri jakin batzuk norberak aitortzea da. Eta gizon edo emakumeen, pertsonen kontzepzio androzentrikoan oinarritzen da. Jokabide edo ezaugarri femeninoak emakumeekin konparatzen gaitu, heterosexualitatearekin beraz (giza sexualitatearen ikuspegi heterozentrikoa). Ondorioz, jokabideetatik lehentasun sexual(10) jakin bat ondoriozta daiteke. Kontzepzioak lehentasun sexuala generoen rolekin nahasten du. Gure ikerketa emaitzek (Barragán et al, 1998) baieztatzen dute maskulinitatea zaintzeko alderdi edo adierazleak ez direla lehentasun sexualak. Nerabeek uste dute genero patriarkalen arauak hausten dituen jokoak "afeminatze" bat lagun dezaketela: Mutila bazara ezin jolas zintezke "Barbiekin".

Hezkuntzan egindako esku hartzea dela eta, azpimarratu beharreko alderdietako bat gizona izatearen desabantailak ezagutzea izan da Marvin Harrisen "Matxismoaren ezkutuko kostua" irakurri ostean. Lehiakortasunak, alkohol kontsumoak, drogak, arriskuak eta gidatze ausartegiak edo arriskutsuegiak gizonen bizitza laburtzen du. Balio femeninoen "kutsaduratik" babesteko nerabeek jartzen dituzten erresistentziak ikerkuntza-ekintzatik garatutako lanari esker hausten dira. Generoen arteko aurreiritziak ezagutza kritiko eta emantzipatzailearekin eraldatzen dira. Maskulinitatearen adierazpen pribatua eta publikoa gaian egindako esku hartzean, zenbait ikasleek baieztatu zuten hauxe zela egin nahiko luketena: "Hanketako ilea kendu, kirol femeninoetan jolastu, bizikleta arrosa bat izan, emakumeentzako lantzat hartzen diren etxeko lanetan lagundu, negar egin eta lagunek onartzen ez dituzten jolasetan jolastu".

(10) Lehentasun sexuala terminoak beste termino batzuk ordezkatzan ditu; joera edo orientazio sexuala hala nola. "Heterosexual", "bisexual" eta "homosexual" terminoak pertsonen sexualitate osoaren deskribapena eskaintzen digu. Hiru kategoria horien artean, jarduera sexualaren lehentasunetan eta hauetan hartu nahi izaten dituzten paperetan ez datoz bat gizabanakoak" (LeVay, 1995, 154). Homosexual terminoa da bereziki desegokia. "Eta hala ere, homosexualek bizi izandako zailtasunak edozein izanda ere, ezin baieztatu dezakegu gizon guztiak elbarriak direnik. Litekeena da homosexual orekatuen proportzioa, well-adjusted (Richard Isay psikoanalistaren adierazpena) elbarri ez diren heterosexualen kopuru berdina izatea gutxi gora behera... Bere burua homosexualtzat duena estereotipoetatik kanpo geratzen da. Ez du bere burua nabarmentzen, ez du bere burua ezkututzen eta mundu guztiak bezala bizi nahi du. Pentsatzen du "homosexualitatea heterosexualitatea bezalako zorientasun iturri dela" eta maitasunean sinesten du, bikotean bizi da eta bizitza afektibo sakon eta orekatu bat mantentzen du. Aita izatea gustatuko litzaioke eta seme-alabaren bat hezte" (Badinter, 1993, 194-193).

Azkenik, ametan eta emakume langileetan errepresentatzen diren balio femeninoak aitortu zituzten: arrakasta lortu nahi duzun hura lortzean oinarritzen da edo gainerako pertsonen zainketa baliolan.

5.5

GIZONEN HEZIKETA SENTIMENTALA

Txikia nintzela Historiako klasetan ikasi nuen esaldietako bat hau zen: "Egizu negar emakume batek bezala, gizon baten gisan defenditzen ez badakizu". Ez dut gogoan zein erregeri esan zion bere amak. Ez zait axola, gainera. Gogoan dudana sortu zidan harridura da. Ez nuen ulertu. Batzuetan, ustez ahaztuta genituen esaldiei hautsak kentzen dizkiegu, eta geroagoa heltzen gara ulertzera. Hezkuntza sistema europarraren gabeziak bat da gizonen sentimenduen heziketari buruzko eduki kurrikularrik ez izatea.

Heziketa Sentimentalak gure adierazpide aberatsaren kontzientzi hartzea potentziaztea esan nahi du eta pertsonen arteko harremanetan gure sentimenduak erabiltzea eta baita geure buruarekin ere, sasi ahalmenen harremanetan sartu behar izan gabe.

Heziketa Sentimentalak gure autoestimua hobea dezake, gure gatazka afektiboak ezaba ditzake. Eta gure sentimenduak modu sosegatuagoan eta suharragoan bizitzea ahalbidetzen du.

Baina giza jakintzaren beste zenbait esferatan gertatzen den gisan, "lan zientifikoa helburu duten emakumeak eta gizonak –itxura saihestezin batean– "ikaskuntzaren paradoxa" dei genezakeenean aurkitzen dira harrapatuta: sorkuntza zientifikoa helburu duen orok sormena posible egiten duen orori esan beharko dio ezetz –pentsamendu autonomoa– eta komunitate zientifikoan une hartan dominatzailea den pentsamendu eredueta makurtu beharko du eta haiekin batean sortu beharko du arrazoiak propioak aldatzeraino. Hori egiten ez badu, ez da inor iritsiko zientziari izatera, eta, hori egiten badu, bere kabuz pentsatzea eta paradigma menperatzaileak aldatzea zail egingo zaio –aurrerapen zientifikorako ezinbesteko baldintza– eta "zientzia ofizialak" kolonizatuko du lepa hezurreraino" (Moreno, 1992, 30).

Zientzia ofizialak sinestarazi nahi izan digu –gure mesedetan arrakasta beti izan ez duelako– afektibitatea inteligentzia baino gutxiago baloratzen dela. Bereiztutako gaitasunak direla ere sinestarazi digu, gainera. Baina, bere bihotza ematen ez duenak –edo egiten ez duela uste duenak– bere burua traizionatzen du eta gainontzeko pertsonak ere traizionatzen ditu gure bizitzako edozein esparrutan.

Sentimenduak –innatoak izan edo ez izan, neurotransmisoreei esker funtzionatu edo ez, edo txokolata jateagatik indartu ala ez– gizatasunaren zati ukaezinak dira, geure-geureak dira eta ez digu inoiz inolako zientziak sentimendurik galaraziko. Gizakiak egiteko gai garen distira guztia adierazteko desiratzen dago gure bihotza. Bihotza eta arrazoia mugarik gabe loratzen uzten dugunean askatasun eta zorientasun berriak erdietsiko ditugu seguruenik.

Bibliografía

- BADINTER, E. (1993). *XY La identidad masculina*. Madril: Alianza.
- BARRAGÁN, F.; PÉREZ, M^o I. y JIMÉNEZ, B. (1996). "La construcción colectiva de la igualdad". I. I. alea *¿Cómo nos enseñan a ser diferentes?*. Sevilla: Dirección General de Promoción y Evaluación Educativa. Consejería de Educación y Ciencia. Junta de Andalucía.
- BARRAGÁN, F. (1998). "Las razones del corazón. Afectividad, sexualidad y curriculum". *Cuadernos de Pedagogía*, 271; 72-76.
- BARRAGÁN, F. et al (1998). *El Proyecto Ariane*. Argitaratu gabeko txostena. Departamento de Didáctica e Investigación Educativa y del Comportamiento. La Lagunako Unibertsitatea.
- BARRAGÁN, F. et al (1999). "La agresión y sus consecuencias sociales" (III. Praktikan jartzeko zenbait adibide). In F. Barragán (43-76 orr.), *Educación Sexual, Género y Constructivismo*. Sevilla: Consejería de Educación y Ciencia. Instituto Andaluz de la Mujer.
- BARRAGÁN, F.; DE LA CRUZ, J.M. eta DE LA ROSA, I. (1999). "L'Homme au Coeur Blessé. Experiencia Masculina y el Curriculum". *Archivos Hispanoamericanos de Sexología*, Vol. V (1); 57-91.
- BARRAGÁN, F. y TOMÉ, E. (1999). "El Proyecto Ariane. Ampliar los horizontes de las masculinidades". *Cuadernos de Pedagogía*, 284; 44-47.
- BARRAGÁN, F.; GARCÍA, M^oJ. eta RODRÍGUEZ, J.D. (1999). "El Proyecto Ariane en Canarias. Construir una cultura del cambio educativo". *Cuadernos de Pedagogía*, 284; 54-57.
- BARRAGÁN, F.; PÉREZ, R.I. eta MORENO, M.P. (1999). "El mito de Eurídice. ¿Igualdad o imperialismo masculino?". *Cuadernos de Pedagogía*, 284; 63-68.
- BARRAGÁN, F.; DE LA CRUZ, J.M.; DOBLAS, J.J. et al (2001). *Violencia de Género y Curriculum. Un programa para la mejora de las relaciones interpersonales y la resolución de conflictos*. Archidona (Málaga): Aljibe.
- CONNELL, R.W. (1987). *Gender and Power. Society, the Person and Sexual Politics*. Stanford, California: Stanford University Press.
- CONNELL, R.W. (1995). *Masculinities*. Berkeley, Los Angeles: University of California Press.
- CONNELL, R.W. (1998). "Enseñar a los chicos: Nuevas Investigaciones sobre la Masculinidad y Estrategias de Género para la Escuela". *KIKIRIKI*, 47: 51-68.
- ELLIOT, J. (1990). *La investigación-acción en educación*. Madrid: Morata.
- GILMORE, D.D. (1994). *Hacerse hombre. Concepciones culturales de la masculinidad*. Barcelona, Buenos Aires, México: Paidós.
- HUTCHINS, C.L. (1992). *Achieving Excellence*. Aurora, Colorado: McREL.

-
- IBÁÑEZ, J. (1992). *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: Técnica y crítica*. Madrid: Siglo XXI.
- IBÁÑEZ, J. (1994). "Cómo se realiza una investigación mediante grupos de discusión". In M. García, J. Ibáñez eta F. Alvira (Comp.) *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación* (pp.569-581). Madrid: Alianza.
- IBÁÑEZ GRACIA, T. (1996). "Las ideologías y las relaciones intergrupales". In R. Y. Bourhis eta J. Leyens, *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos* (307-336 orr.). Madrid: McGraw Hill.
- HARRIS, M. (1995). *Nuestra especie*. Madrid: Alianza.
- KRUSSE, A.M. (1992). "We have learnt not just to sit back twiddle our thumbs and let them take over. Single-sex settings and the development of a pedagogy for girls and a pedagogy for boys in Danish schools". *Gender and Education*, 4. alea (1-2): 81-103.
- LAGARDE, M. (1994). "La regulación social del género. El género como filtro de poder". In C.J. Pérez eta E. Rubio (Coords.), *Antología de la Sexualidad Humana*, I. Alea (389-425 orr.). Mexico: Angel Porrúa. Conapo.
- LEVAY, S. (1995). *El cerebro sexual*. Madrid: Alianza.
- MATHIEU, N.C. (1996). "Sexos (diferenciación entre los sexos)". In P. Bonte eta M. Izard, *Etnología y Antropología* (666-669 orr.). Madrid: Akal.
- MCKERNAN, J. (1999). *Investigación-acción y curriculum. Métodos y recursos para profesionales reflexivos*. Madrid: Morata.
- MEAD, M. (1981). *Sexo y temperamento en las sociedades primitivas*. Bartzelona: Laia.
- MONEY, J. y EHRHARDT, A. (1982). *Desarrollo de la sexualidad humana (Diferenciación y dimorfismo de la identidad de género)*. Madrid: Morata.
- MORENO, M. (1992). *Del silencio a la palabra. Coeducación y reforma educativa*. Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales. Instituto de la Mujer.
- OSBORNE, R. (1991). "La discriminación social de la mujer en razón del sexo". In J.V. Marqués eta R. Osborne, *Sexualidad y sexismo* (131-295 orr.). Madrid: Fundación Universidad-Empresa.
- NODDINGS, N. (1992). "Gender and the Curriculum". In Ph. W. Jackson (659-684 orr.). *Handbook of Research on Curriculum*. New York: Mcmillan Publishing Company.
- SANTOS, M. Á (Coord.) (2000). *El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar*. Bartzelona: Graó.
- STENHOUSE, L. (1987). *La investigación como base de la enseñanza*. Madrid: Morata.

-
- THUREN, B.M. (1993). *El poder generizado. El desarrollo de la antropología feminista*. Madrid: Instituto de Investigaciones Feministas. Universidad Complutense de Madrid. Madrilgo Autonomia Erkidegoko Dirección General de la Mujer.
- TOMÉ, A. eta RAMBLA, X. (2001). *Contra el sexismo. Coeducación y democracia en la escuela*. Madrid: Institut de Ciències de l'Educació. Síntesis.
- TORRES, J. (1991). *El curriculum oculto*. Madrid: Morata.

M^º JESÚS IZQUIERDO BENITO
Soziologiako Departamentua,
Bartzelonako Unibertsitate
Autonoma

Arazoia eta

sentimendua

bikote

harremanetan:

Hitzarmenetik

elkarriketara?

Laburpena

Emakumeen gizarte mailan izan diren aldaketen ondorioz, sexualitatea eta birsorkuntza arautzen duten erakundeak zalantzan jarri dira. Ematen ari diren erantzunen jatorria baloratzeko beharrezkoa da gizarte demokratikoaren mito sortzailearen pisu nagusia kontuan izatea: berdinen arteko akordioa, eta kalkulu arrazionalaren eta negoziazioaren ondorioa delako ustea. Halaber, merkatu-ideologiak pertsonen arteko harremanetarako eredu gisa (ez bakarrik ekonomikoak, baizik eta administrazioa eta herritar/bezeroen artekoa ere) indarra hartu du. Testuinguru honetantxe garatzen da emakumeak barne hartuko dituen gizarte kontratu berrirako proposamena, baita kontratu-nozioa bikote-harremanetara zabaltzea ere.

Zeintzuk dira bikote-harremanetako sentimendu, pasio eta prozesu inkontzienteei ez entzuetatik ondorioztatzen diren ondorio pertsonal eta politikoak? Ponentzia honen asmoa harreman pertsonalak berriro kontzeptualizatzeko bide desberdinak lantzea da, baita aldaketa sozialei gizarteak, erakundeek eta pertsonak nola erantzuten dieten.

Sexu-ezberdintasunak gizartean nabarmendu egiten dira XIX. mendeko bigarren erditik aurrera. Bere interesa agertzen zen emakumeak, gizartean erantzukizunak hartzeko, zuen gaitasunik ezari buruzko diskurtsoetan, eta, horiei, emakumeen desberdintasunaren eta ezberdintasunaren gaineko diskurtsoen bitartez erantzuten zaie. Gizona aintzat hartzen zen, noski, inolako zalantzarik gabe, eta, gizona izatearen alde onak ere aintzat hartzen ziren, ezbaian jarri gabe, jakina. XX. mendearen akaberan, ordea, gizona interes gai gisa agertzen da, eta, gero eta ahots gehiago entzuten dira sexismoak gizonaren subjektibotasunaren eraikuntzari egiten dizkion kalteez. Ponentzia hau hirugarren ildo batean kokatua dago, hots, emakumea eta gizona aintzat hartzen dituen posizio gisa sare harreman batean eta ez harremanen aurreko entitate gisa. Ikuspegi horrek gizon/emakume pareaz hitz egitea eskatzen du.

Ponentzia honen orientazioari bere garapenean erabiltzen diren suposaketan gaineko azalpen batzuk beharrezkoak zaizkio. Lehenbiziko suposaketak aipamena egiten dio "gizon"-aren nozioari berari. Alde horretatik, ponentziak dio gizonaren izaera epifenomenikoa dela. Bigarren suposaketak zer ikusia du lanaren sexu-banaketari lotzeko beharrezkin, "emakume" eta "gizon" kategoriei entitatea sortu eta ematen dien matrize den gisan. Aurreko bi suposaketa horietatik hirugarrena eratortzen da: sexualitatea lehentasun eta praktika heterosexualetarantz orientatzeak, bizia bera sortzeko duen garrantziagatik, eragiten du gainontzeko harreman afektibo eta sexualen destinoa. Azkenik, eta oro har, ezin dugu esan gizona, ezta emakumea ere, izate autonomoz hornituriko entitateak (izakiak) direnik, baizik eta harreman matrize batean kokaturiko kategoriak dira, zeinak sexualitatearen ordenazioa jotzen du ordena sozialaren beraren funts gisa.

"Gizona" eta "emakumearen" izaerak epifenomenikoak direla esaterakoan, agerian uzten da ez dutela izate autonomorik: gizarte-ohituretan eta ohitura horien kontzientzian eraikitzen dira.

Sexismoaren fenomenotzat hartzerakoan, autonomia ezintasun logikoa da hala "emakumearentzat" nola "gizonarentzat". Gizakiaren autonomia datza bere izate historikoaren ukazioan –"emakume" ala "gizon"– desberdintasunen ordena sexista batean. Direna ukatzerakoan, bai euren praktikan bai praktika horien eraikuntza mentaletan, euren autonomia gauzatzen dute.

"Gizona" eta "emakumea" halakoak dira botere harremanen ondorio gisa. Harreman horiek ezartzen dira gure izatearen ekoizpen lanaren banaketako prozesuan. Emakumea, gizakien biziaren zainketan/gaizki tratatzean parte ez hartzearen ezinaren/beharraren ondorioa da, konpromiso politikoa, zientifikoa, kulturala eta ekonomiko merkantilaren bitartez. "Gizona", alor horietan parte hartu ahal izatearen/beharraren ondorioa da. Baldintza hori beharrezkoa zaio bere izateari baina ez da nahikoa, bien izatea baitago horietako batek zuzeneko zainketa/gaizki tratatzean parte hartu ahal izatearen/beharraren mendean, sortzearen eta pertsonen zainketa zuzenen bitartez, eta besteak ezin du/ez du behar. Inklusio/esklusio sistema horrek egitura tankerako mendetasun harremanak sortzen ditu. Bestela esanik, biziaren abentura oso zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, –askatasun tarte batzuk ditugu eta– gizabanako bakoitzak bere aldetik aurre egin nahi dionean. Generoko esparruen ezarketak eraginik, pertsona bakarraren ekimena ez da bideragarri, bikotearen ekimen batua bai ordea. Bestetik, gizarte-egitura korrelazioan jarria dago egitura psikikoarekin, zeinak aipamena egiten dion desioaren orientazioari eta ekiteko moduari. "Emakume" izatea da desiratzea desiratu izatea eta espero izatea xedeak betetzea, eta horretarako lortu behar da ekiten diotenak besteak izatea. Horrek dakar bikotea eta seme-alabak aintzat hartu behar izatea pertsonaren beraren zabalgarri bat bezala, "emakumearen" ordezkariak bezala mundu publikoan. Horregatik, emakumeaz esaten da maskulinitate egiten dela alor publikoan parte hartzerakoan eta lorpenari buruzko orientazioa duenean. "Gizon" izatea da "emakumea" hartzea desio gai bezala, mundua haren oinetan jarriz. Mundura ateratzea, ekimenaren muinean kokatzea, ez emakumea edukitzeko baizik eta emakumearen edukitza merezi izateko. Horregatik, "gizonez" edota "emakumez" hitz egiten dugunean, bikoteaz hitz egitera behartuak gaude.

Modelo honetan ez du lekurik aukera libreetan oinarritutako sexualitatearen kontzeptuak, baizik eta egiturazko eskakizunekin bat datorren moduan arduraz orientatua izaten da. Sexu-orientazioa, baita egiturazko eskakizunak hausten direnean ere, homosexualitateari dagokion bezala, egiturei zor zaie. Haien mendean dago, jokoan baitago izatea bera, bizia bera. Desioa ezerk orientatzen badu, horixe lanaren banaketa sexuala da, desioa ezan oinarritzen baita, eta lanaren banaketa sexualak eza eraikitzen du, sexu-ezberdintasunei lotuz. Bestea, beste sexukoa bezala hautamaten dena, beste bat da munduan eta bere "bestetasuna" eraikitzen da lanaren banaketa sexualarengatik. Ezberdintasun anatomikoen itxurak argi uzten du zeintzuk diren soldatapeko enplegu batetik bizia ateratzearen (familiaren ongizatearen habetzea bilatuz munduan) edota bestei atxanduz bizia ateratzearen arteko (familiaren ongizatea habetuz etxean) funtsezko ezberdintasunak. Orientazio homosexuala halako moldez zor zaio orientazio heterosexualari, ezen homosexualak euretako aldarrikatzen baitituzte heterosexualen eskubideak, eta eskubide horiek dira pertsonen arteko desberdintasuna dakartenak. Logika hau azpikoz gora jartzea ez datza sexualitatearen orientazioan, baizik eta gizabanakoaren, familiaren eta bizitza afektiboaren kontzeptuan

berean. Logika sexista, afektibitatea, bikotea eta familiak lotuta sostengatzen da eta horrekin batera bereizi behar dira afektibitatea eta lan, merkataritza-harremanak, harreman politikoak eta kulturalak...

Hortaz, horren ondorioa hauxe da, hots, sexista ez den ordena berria, demokratikoa, edozein sexualitate motari inolako fobiarik ez dionak dakarrena: "gizon" eta "emakume" kategorien ukazioa. Ez du zentzurik galdetzeak gizon eta emakumeen arteko harremanen etorkizunaz, gizon eta emakumerik gabeko etorkizunaren aldeko apustua egiten baitugu, pertsona bakar, ezberdin eta antzekoen aldeko etorkizunaren alde. Etorkizunean dibertsitatea ez da laburbildu behar genitalen ezaugarrietan edota ugaltzearen eginkizunaz bizitza sozialean. Horixe da gure apustua. Orrialde hauetan agertzen den proposamenak ideia hau des-eraiki nahi du: "emakumeok" eta "gizonok" kontratu berri baterantz bidean goazela gure harremanak arautzeko.

Lehenbiziko lana da gizarte-harremanen kontratuzko kontzepzioari eusten dioten apriorismoen azterketa egitea: gure portaera orientatzen duten motibazioen autonomiaren suposaketa, utilitarismoari dagokiona, eta desioaren berri ematen duten prozesu inkontzienteen gortasuna. Jarraian, aintzat hartzen dira kapitalismo garatuaren gizarteetan nagusitu diren subjektibotasunaren ezaugarriak, horixe da gure kasua, eta beste baten errekonozimendua oztopatzen dutenak. Horregatik, era berean, oztopatzen dute harreman libreak izatea, esan nahi baita, harreman kontzienteak izatea. Bukatzeko, lanaren banaketa sexualaren etorkizunaz eta sexualitatean berean duen eraginaz ariko gara, hala nola sexuen arteko harremanetan duen eraginaz, subjektu pertsonaren azalratzearen ondorioz.

1.

Apriorismoak gizarte-harremanen kontratuzko kontzepzioan

Generoagatiko gizarte-desberdintasunaren errefusak berekin dakar sexualitatea eta ugaltzea arautzen duten erakundeak zalantzan jartzea. Erakunde horiek izatearen beste alorrekiko duten egiturazko loturak hauxe dakar berekin, hots, eztabaidatzen direnean sexualitatea eta ugaltzea arautzen duten erakundeak, zalantzan jartzen dela ordena soziala bere osotasunean, ordena hori dagoelako erakunde horien iraupenaren mendean. Sortzen ari diren erantzunak baloratzeko, beharrezkoa da kontuan izatea gizarte demokratikoaren mito fundatzailearen garrantzia: berdinen arteko ituna, eta kalkulu arrazionalaren eta negoziazioaren emaitza dela dioen nahikaria. Erantzunei ere merkatuaren ideologia darie, pertsonen arteko harremanen modelo gisa, eta ez bakarrik harreman ekonomikoak, baita administrazioa eta hiritar/bezeroen artean ere, eta hiritar gizonezko eta hiritar emakumezkoen beren artean ere bai. Testuinguru horretan, bada, garatzen da gizarte-kontratu berri baten proposamena, emakumeak barne hartuko dituen eta kontratuzko ideia eraman nahi da bikote harremanetara.

Gizarte-harremanen kontratuzko kontzepzioa, eta horiekin batera "emakumea" eta "gizonarena", utilitarismoari bete betean dagozkion suposaketa batzuetatik abiatzen da (1):

- Pertsonok ekiten edo jokatzen dugunean, eta gure harreman baldintzak erabakitzen ditugunean, aipatzen ditugu, eta hori espero dute guregandik, gure jokaeraren arrazoiak. "Arrazoiak" hitza erabiltzen da motibazioak, sinesmenak eta desioak aipatzeko, arrazionalak izan ala ez. Ezkonduko naiz maitemindua nagoelako, eta ez bakarrik egotea ez jasateagatik.
- Ekimenaren arrazoiak - motiboak, irakurri- portaera mota berdinak eragiten ditu beti. Zu maitatzeak zurekin egotera narama, ez du lekurik aintzat hartzeak zurekin egon nahi ez dudala, hain zuzen ere maite zaitudalako.
- Gure ekimenen kausak dira ekimen horiek justifikatzeko erabiltzen ditugun arrazoiak. Esate baterako, esatea seme-alabarik ez dugula diru baliabiderik ez dugulako, aitortu beharrean seme-alabek ez dutela lehendabiziko tokia hartzen lehentasunen ordenan. Edo esatea ez dugula seme-alabarik izan nahi ez dugulako nahi gaizki zainduta egoterik, ideiarik garrantzitsuena izaten denean ez garela iritsiko ama perfektua izatera.
- Badakigula zergatik egiten dugun egiten duguna: zergatik ezkontzen garen, zergatik izaten ditugun seme-alabak, zergatik onartzen dugun lan bat eta beste bat errefusatzeko dugun.
- Motibazioak eta sinesmenak ez direla aldatzen eta autonomoak direla. Egunero gertatuko ez balitz bezala orain pertsona bat zaintzen duzula harenganako duzun maitasunak bultzatuta, beste une batean pozik edukitzen duzunean arazorik sortu ez diezazun eta hirugarren une batean nahi duzuna da huraxe bistatik kentzea saturazioraino iritsi zarelako. Uste izaten da gainera, ama izatearen edota familia bat mantentzearen desioa modu espontaneoan agertzen dela, desio azalerrate horretan gizarte-baldintzek eta gizarteratze prozesuak eskuartu izan ez balute bezala.

Horixe da, funtsean, planteamendu utilitarista, ikuspegi horren muinean esaten baita lehentasunak autonomoak direla eta agertzen direla erabaki hartzeetan. Esate baterako, kontsumoko ohiturak lehentasunen adierazle dira, eta produktu jakin baten eskari erantsia hartzen da herri-erreferendum bat bezala produktu hori ekoizteko edo ez ekoizteko komenigarritasunaz, horixe jotzen baita jendearen desioen adierazpena bezala. Suposaketa horretatik abiatuta, helburua da uste izatea jendearen desioak aitortzen eta errespetatzen ari direla ekoizten denean erosten/bozkatzeko dena. Beraz, gizarte-baliabideak administratzea herri-borondatearen adierazletzat hartuta, merkatuko salneurrien gorabeherak, demokrazia ekonomikoaren laburpena lirateke.

(1) Jarraian adierazten den suposizio zerrendaren oinarrian Jon Elster-en *Uvas amargas* lana dago, arrazionaltasunaren subertsioari buruzkoa.

1.2

APRIORISMO UTILITARISTAREN KRITIKA

Dena dela, argudio horiek oinarri ahulean dautza. Hona hemen nola nabarmentzen duen argudio horien ahulezia Jon Elster jaunak:

“Pertsona batek zergatik nahi izanen du satisfazioa izatea justizia eta hautaketa sozialaren irizpidea, norberaren nahiespenak osatuak izan badaitezke hautaketa aurreko prozesu baten arabera? Eta, bereziki. Zergatik aukera posibleen arteko hautaketak soil soilik kontuan hartu behar ditu gizabanakoen lehentasunak, pertsonen joera baldin bada euren xedek eta nahiak euren posibilitetara moldatzea?” (azpimarratua nirea da). 159-160. orrialdeak. *Uvas amargas...*

Horixe da gakoa, hots, jendeak nahi duena, "norberaren nahiespenak", ez dira autonomoak, forma eman dakieke erabakiak hartu baino lehen. Ez daude gizarte-harremanen jatorrian, bukaeran baizik. Horregatik, ez dute balio gizarte-harremanak arutzeko. Seme-alabak izatearen desioak, familia bat zaintzearenak, babestearenak edota familiaren beharrak asetzeko behar adina diru lortzearen desioak jatorria baldin badu lanaren banaketa sexuarekin, desio mota horiek ezin dute balio gizarte-harremanak arutzeko. Izan ere, desio horiek, lanaren banaketa sexualaren ondorioz jaio diren desio horiek sexismoa babestu eta irauraraziko duten harreman moduak bilatuko dituzte. Batzuk besteen mendetasunean eta gizakien eta izadiaren energien neurritz gainera ustiakuntzan oinarritzen diren sistemen egonkortasunaren oinarria izaten da menpeko eta esplotatutaren parte hartzea zapalkuntzaren naturalizazioan/normalkuntzan, eta horrek berekin dakar pentsatzea ezinezkoa dela beste edozein gizarte-harreman mota. Desira agertuek, hau da, gure ekimenak azaltzeko aipatzen ditugun horiek, ez dute ordena zalantzan jartzen, berresten dute baizik.

Merezi du xehekiago ikustea Elsterrek aipatzen dituen desira edo lehentasunaren eta ekimenaren arteko interferentziak. Festingerren disonantzia kognitiboaren teoritik abiatuta, -horren arabera, frustrazioa edo ezinegonean ez dute horrenbesteko eragina bizitzen diren ingurumarietara, baizik eta bizitzatik lortzen denaren eta bizitzatik lortzea espero zenaren aldeak-, Elsterrek murrizketako mekanismo batzuk aipatzen ditu. Erabaki hartzearen prozesuan nahi denaren eta lortzen denaren arteko aldearen murrizketak –disonantzia kognitiboaren murrizketa– zalantzan jartzen du ekimenak desira edo sinesmen autonomoen emaitza zuzena izatea, eta zalantzan jartzen du, noski, desira edo sinesmen autonomo horiek izatea horiek ulertzeko erreferentzia puntua.

Oso adibide ezaguna azeriarena da. Izan ere, mahats aleetara ez dela iristen onartu beharrean, esaten du ez dituela gogoko ondu gabe daudelako (2). Azeriak, desio dituen mahats aleak hartzeko eragozpena ikusita, disonantzia kognitiboaren murrizketaren mekanismo bat aplikatzen du eta Elsterrek mekanismo horri "lehentasun moldagarrien osaera" deritza: desirak aldatzen dira, desira horiek gauzatzeko edo lortzeko eskueran ditugun bitartekoetara moldatzeko. Gizon/ema-kume harremanen alorrera eramanez, Richard Gere edo Brad Pitt desira dezakegu, Pamela Anderson edo Penélope Cruz, baina irismentik kanpo daudenez, lehentasunak aldatzen dira, di-

(2) Elsterren liburuaren gaztelarako edizioan itzulpen literala egin da: "sour" "amargas" itzuli da "verdes" itzuli beharrean, eta hori litzateke gaztelaraz adierazteko modua.

sonantzia kognitiboa murrizteko, modu horretan, frustrazio maila ezabatzeko edo mugatzeko, behintzat. Lehentasun moldagarriek bultzatzen gaituzte senar zintzo eta langilea bilatu eta, ziur aski, aurkitzera edota emakume garbia eta maitagarria. Bi biak oso urrun daude komunikabideetan agertzen diren edertasun moldeetatik. Gaur egun, maiz entzuten ditugu lehentasunen moldaeraren agerpidea diren diskurtsoak: behin eta berriz esaten da ez duela merezi izan emakumearen borroka posizio profesional bat izateko, edota esaten da etxeko lanak egitea aukera baliagarria dela, emakume guztiek lortu izan balute bezala norberaren garapenaren helmuga eta euren diru autonomia. Eta errealtateak dio oso emakume gutxi dagoela jarduera ordainduetan, goiko mailatan, batez ere; edota politikagintzan, zientzialarien alorrean edota arte-jardueretan. Aldiz, asko eta asko dira, gehienak, euren dirubiderik izan ez, gizartean presentziarik izan ez eta etxea "aukeratzen duten" emakumeak. Izan ere, zaila da oso laneko baldintzak aldatzea, zaila den bezala etxeko lana aintzat hartu eta antolatzea merkatu-lanarekin bateragarri eginik, eta horrek guztiak ekarri ditu emakumeen autonomia finantzariari garrantzia kentzen dioten diskurtsoak. Diskurtso horiek etxeko lanaren garrantzia azpimarratzen dute eta, era berean, azpimarratzen dute emakumeak lan ordaindua izateak ala etxeko lana egiteak "hautaketa libre" baten emaitza izan behar duela. Beraz, ez dute horrenbestean azpimarratzen emakumeak lan ordaindu hori izatea.

Disonantzi kognitiboaren kontrako muturrean, Elsterrek "lehentasun kontramoldagarriak" aipatzen ditu, hots, desiragarri bihurtzen da lor ez daitekeen huraxe. Lehentasun mota horiek islatzen dira masokista eta sadikoen txiste honetan:–Mesedez, sufriarazi nazazu! –Ez dut nahi! –Ahhhhh... hau bai plazerra!. Emakume batzuek irudikerietan aritzen dira parte hartze soziolaboralak ekarriko lukeenaz, eta oso helburu edota xede urrunak markatzen dituzte, horiek gauzatzeko posibilitate objektiborik gabe. Irudikatzen dutena, aurrez aurre paratzen dutenean, azkenean topatzen dituzten enpleguekin, ez dute martxan jartzen autonomi pertsonalaren euren proiektua, ez baita posible nahi dutena eta ez baitute nahi posible dena. Egoera hori maiz gertatzen da lan esperientziarik gabeko emakumeen artean. Seme-alabak handitu direnean, erabakitzen dute lan merkatuan sartzea eta hauxe aurkitzen dute, hots, har ditzaketen enpleguak æetxeko lana, gaixoen edo haurren zainketaæ ez datoz bat nahi zutenarekin edo espero zutenarekin. Horregatik, etxea "aukeratzen dute", euren xedeak bazter utziz.

Erreakzio horien azpian hiru mekanismo mota dautza. Batetik, nahi dugu, ez duguna, hain zuzen ere, ez dugulako: lortuz gero errefusatua izanen litzatekeen alegiazko senarra, ez dagoen lana. Bestetik, eta gizarte-baldintzek bazter utzi gabe, emakumea ez da ohartzen bizitzen ari den bizitza dela nork bere buruari ematen diona, bere buruaz irudi bat eraikitzen du buruan, eskuartzeko inolako gaitasunik ez duena, eta mugak aldatzerik ez duena. Bere bizitzaren gaineko erantzukizuna bere gain hartu baino lehen, bere buruaz irudi pasiboa eraikitzen du, gauza ez dena bere helmugak erdiesteko. Hirugarrenik, pertsonen zainketa lanak jarduera ordaindu gisa egiteari agertzen zaion errefusak bere baitan dakar suposaketa hau, hots, maitasuna eta zainketa "etxeok" baizik ez dutela merezi. Ezkututzen da besteen iritziak duen pisua, besteengan aldeko iritziak eragiteko beharra, eta maite ditugun pertsonenganako sentimenduak maitasunezkoak izateaz gain, gorrotozkoak ere izan daitezkeenaren onarpena eta, batez ere, badaki bere familiaren zainketaz

arduratzea dela ogia irabazteko modua. Horrek dakar uste izatea familiakoa ez den jendea zaintzea mailaz beheko jarduera dela, horren ordainez, besteak beste, oso gauza garrantzitsua hartuz, dirua, alegia. Horrek ere berekin dakar ez lukeela maila behekotzat hartuko hirugarren mundurantz edota ingurumenerantz ekoizpen kostuak bideratzen dituen enpresa handi batean buru izatea edota ez luke maila behekotzat hartuko erabakiak hartzeko ahalmena izan eta, horren ondorio zuzenez, lanpostuak galtzea edota salneurriak garestitzea merkatuko baldintza monopolistak sortzeagatik. Maila behekoa da, ordea, zerbitzu horrengatik dirua ordaintzen digun gaixo bati ipurdia garbitzea.

"Manipulazioa" da disonantzi kognitiboaren hirugarren murrizketa kasua. Elsterrek ez du manipulazioa ondoko modu honetan erabiltzen, hots, pertsona batek besteari eragiten dio sinestera bere desioak direla lehen pertsonak zituen berberak. Adibidez, besaulkitik altxatu, eta garagar-doa eta futbol partida bazter uztera eragiten dio zinera joateko "horixe baita benetan egin nahi duzuna, gertatzen dena da eseri zarela egonean egotera ". Elsterrek, bere indibidualismo metodologikoari jarraiki, manipulazioaren nozioa erabiltzen du prozesu endogeno bat aipatzeko. Lor daitekeen apurrarekin pozik egon beharra dago: ez etxea, ez bikotekidea, ez lana, ezta seme-alabak ere, ez dira desiratutakoak bezalakoak, baina, egia esan, gauza horiek guztiak ez genituen zinetan nahi, benetan ditugunak baitira nahi genituenak.

Emakume eta gizonaren arteko harremanetan maiz dagoen prozesua da, "pisu atributiboan aurretiko aldaketa" deitzen duena, hots, atzeraeraginezko moduan aktibatzen den mekanismoa, aukera posible batzuk daudenean. Aukera horietako bakoitzaren alde onak eta txarrak xeheki neurtu ordez, jarraitzen den bidea da edozein aukera hartzea eta, jarraian, hartutako aukerari beste-ei baino balio handiagoa ematea. Ezkontza egin beharreko gauza denez, bikotekidea kontu handiz aukeratu beharrean, pertsonak azkenean edozeinekin ezkontzen dira, eta, jarraian, hartutako erabakia justifikatzen dute diskurtso baten bidez: neurritz gora, muturreraino, baloratzen dituzte aukeraturiko bikotekidearen ezaugarriak eta gutxiesten dituzte beste "hautagaien" nolokotasunak. Aurreko kontsiderazioek zaildu egiten dute kontratuaren aukera bera sexuen arteko harremanak arautzeko bide gisa, eta, hori hala da, hain zuzen ere, harreman horietan, beste ezein harreman motetan ez bezala, alderdi emozionalak eta arrazionalak elkarren ondoan doazelako, nahasita ez esateagatik.

1.3

DESIRAZ ETA ARRAZIOIAZ. KOTRATUTIK KONFRONTAZIO POLITIKORA

Elsterren (3) gogoetek garrantzi handiko hainbat kontu jartzen dizkigu mahai gainean, emakume/gizon harremanen arautzeari begira, kontratua -zaharra nahiz berria- hartzearen bideragarritasunaz ari garenean:

(3) Marxismo analitikoaren ordezkari nagusietako bat. Festinger eta Veyneren planteamenduak segitzen ditu.

- Frustrazioa ez zaigu eramangarri gertatzen. Zer edo zer desiratu eta uste dugunean ez dugula lortzerik, disonantzia kognitiboa murrizten da, hots, nahi dugunaren eta gure desirak aldatuta gure ustez lor dezakegunaren arteko aldea, gure bizi baldintzak aldatuz ekin beharrean.
- Posible den horretara neurritz gora moldatzen gara. Tolerantzia muturretaraino eramaten dugu, egoerak halakorik eskatzen ez duenean. Ondorioz, gauzatu daitezkeen desirak ase gabe uzten ditugu.
- Egin ezina nahi dugu. Gure irismenetik kanpo dauden helburuak finkatzen ditugu, gure konpromisoa saihesteko.

Hiru joera horiek aditzera ematen dute ez gaudela behar bezala horniturik aldaketak planteatzeko, aldaketa horiek egin badaitezke ere. Desberdintasuna zilegi egiteko modu bat da sexuen arteko harremanen etorkizuna emakume eta gizonen artean, banan bana, nor bere kasa, hartutako akordioetatik askatzea, kontratu berri batetik askatzea, alegia. Horrek sexuen arteko harremanen izaera ez aldatzea nahi dugula bezain gogo edo asmo zentzugabea indartzen laguntzen du, ez dagoela ezer txarrik baldintza bakarra baldin bada sexismoa aukeraketa librearen emaitza izatea. Ez da, behar bada, hori zabaltzen den mezua esaterakoan, emakume bat etxeoandrea dela izatearen arazo bakarra dela modu librean aukeratu ez izana, aldi berean, modu susmagarrian, esaten ez denean, ez dela arazorik gizonak, ogi irabazlea izatea, modu librean hautatu ez izana. Gizona eta emakumea hartzen baditugu botere efektu gisa, ez dago bien arteko kontratua egiterik, "emakume" posizioa duena libratzea baitakar baita "gizona" posizioa hartzen duen boterera. Botere efektu gisa hartzeak, ordea, esan nahi du bien arteko harremana familia barrutitik politikaren barrutira eramatea. Harremanak eta horien irtenbideak familiaren barrutian planteatzea da emakume bakoitza libratzea gizon bakoitzaren boterera. Baina, harreman hori politika, demokrazia eta kontratuaren barrutira eramanez gero, talde-eskubide bihurtzen dira, eta ez norbanakoaren eskubide, liberalismo utilitaristak dioen bezala. Emakume bakoitzaren nia, desberdintasunaren efektua, zabaltzen da "gu(emakumeak)" bihurtu arte, "emakumea" eta "gizona" ukatzen dituen, dibertsitate pertsonalaren alde borrokatzeko. Ni zabaldu horretan (4), subertsiboan, bada-gu subertsio gehigarria egiterik, "gizonari" botere efektua ukatzen dioten gizon haien parte hartzea sexismoaren kontrako borrokan, gisa horretan bat eginez banaketa sexuali aurre egiten dien subertsioarekin. Oposizio horretan "emakume"/"gizon" gizarte-kategoriak hausten dira eta kategoria horiek ahalbidetzen dituzten egiturazko harremanak ere bai.

(4) Ni zabalduaren ideia George Meadengandik hartu dut.

2.

Itsutasuna, utilitarismoaren eta marxismo analitikoari dagokionean

Elsterrek apriorismo utilitaristari egiten dion kritika ez da egin dakioken bakarra. Ikuspegi psikoanalistak konplexutasuna eransten dio ekimena desiren edo sinesmenen emaitza dela dioen ideiarri. Freudek azpimarratzen du ez dagoela "benetako" desirarik, gizarte-harremanez aurreko zentzuan. Psikoanaliaren planteamenduen arabera, desira –inkontzientea– hala ekimenen nola sinesmen sistemekiko atxikimenduen motorra da. Dena dela, ondorioak azkarregi aterako genituzke, esandako horretatik ondorioztatuko bagenu utilitarismoa eta psikoanalisi antzeko direla, edota hurbil daudela, behintzat. Izan ere, utilitarismoaren galdera ez da desiren izaerari buruzkoa, desiren jatorriari buruzkoa, eta, psikoanaliaren ikerketa gaia desirak dira.

Psikoanaliaren ikuspuntutik, desira da lehen satisfazio esperimenduen berrezartzea bultzatzen duen mozio psikikoa. Desiran, iragana bi alderditan gogoratzen da, ezinegona eta asetasuna. Ezaren esperientziaren betebeharra du, ezinegona sentitzearena, eta asetasunaren esperientziaren betebeharra, iraganean eza bete edo estali izanaren asetasuna, asetzeko gauzaki baten bidez. Hortaz, desiratzeko gaitasuna ez dagokio berez, jaiotzez geroztik, gizakiari –pultsioz mugitzen gara eta ez instintoz–. Izan ere, ez ezaren esperientzia, ezta asetasunarena ere, ezin dira ziurtat jo. Gizakion ezaugarri fisikoek desirarekiko aukeraren baldintzak sortzen dituzte, portara programatua ez dugun heinean, eta, hala ere, batezbesteko garunak iraganeko esperientzien asetasunaren irudiak erregistratzen ditu eta neocortex-ean, bitartean, berregiten dira lehen esperientzia horiek. Gure nerbio-aparatuaren nolakotasun horrek ahalbidetzen digu esperientzia horien eguneratzea, asetasunerako bidea aurkitzeko iragana errepikatu gabe, eta eguneratze hori da, ez baita errepikapena, desira bezala bizitzen duguna.

Desiraren helburua ez da organismoaren kontserbazioa. Biziraupena erraztu beharrean, gure suntsiketara eraman gaitzake edota gure ongizatea laguntzen duten gauzakien suntsiketara –per-tonak edo gauzak–. Mugiarazten gaituen desira ez da programazio genetikoko baten emaitza. Gaur egungo sentsazioetatik abiatuta, iraganeko esperientzietara garamatza, hala gabezia bihurtutako ezinegona eragin zigutenak nola asetasunekoak.

Elsterren eta Freuden planteamenduak har daitezke desira/sinesmenaren eta ekimenaren arteko harremana ikusteko bi modu alternatibo bezala. Dena dela, bi egile horiek aurrez aurre jarri beharrean, nahiago dugu Elsterren proposamena aztertzea ikuspegi psikoanalitikoaren arabera. Bidean aurrera egingen dugu ikuspegi bat hartuz, beste ikuspegia gelditzen den tokian. Ildo psikoanalitikoan, Christopher Laschek gure garaiko (5) kultura iparramerikarrera hurbilketa egiten du europarronak ere geure egin ditzakegun alderdietan. Bat egiten du gaur egungo gizarteei narzisisista

(5) The Culture of Narcissism...

irizten dieten ahots ugariekin, baina narzisismoa erabiltzen du zentzu psikoanalitikoan. Beraz, ez du narzisismoa egoismoarekin nahasten, baizik eta narzisismoa jotzen du osotara ezberdina den fenomenotzat (6).

Laschek dioenaren arabera, kapitalismoaren hastapenetako asaldura ohikoenak histeria eta neurosi obsesiboa izan ziren. Azken horren ezaugarriak hauexek dira: eskuratzearen joera, denbora lanerako baliatzea modu fanatikoan eta sexualitatearen zapalketa basatia. Gaur egun, ordea, narzisismoa nagusitu da eta horren ezaugarria da oinazearen ezabaketari edota maitasun nahi-gabeari egiten zaion jazarpena. Laschen arabera, hona hemen zeintzuk diren narzisismoaren sintomak:

- asegabetasunaren sentimendu lausotua;
- emozioen ekimena emozioak zapaldu beharrean;
- dolurako gaitasunik eza eta, ondorioz, desiratzen genuen huraxe lortu ez izana edo galdu izana aitortzeko gaitasunik eza, eta horrek agresibitatea handiagotu egiten du;
- sexu-promiskuitatea;
- ahalguztiduntasun fantasiak izatea;
- eskubideak azpimarratzea;
- Pertsonenganako mesprezua, zeinak manipulatzeko baitira abantailen bat lortzeko edo desiraren bat asetzeko.

Eta zerrendan erantsi dezakegu:

- ez dago konpromiso pertsonalik, sozialik eta politikorik.

Asko zabaldu dira gaur egungo gizarteak "arriskuaren gizarteak" (7) direla dioten formulazio teorikoak, baina, egia esan, kezkarekin batera eta horri aurka eginik, kontrako prozesuak abiarazi dira eta azken prozesu horiek nortasun narzisistaren haztegiak dira. Prozesu horien funts ekonomikoak, prozesu horiek ahalbidetzen dituzten baldintza materialak, nahiz eta ez sortu, kapital monopolista transnazionalaren garapenari dagozkion baldintzak eta funtsak dira. Kontua da ekonomiaaren planifikazio pribatua egitea, ekoizpen eta kontsumo-prozesuen burokratizazioa azkarragotuz, eta esparru dimentsioaren ezabaketa ekarriz. Planifikazio horrek aurreikus daitekeena handitzen du (8), kontsumoan batez ere, horregatik denbora dimentsioa ere ezabatzen du. Burokrazia

(6) Ikuspegi psikoanalitikoak dio narzisismoa eta egoismoa ez direla bateragarri. Ezinezkoa da narzisista izatea sentimendu boiko heldua eskuratu gabe, eta horrek eskatzen du "bestearen" errekonozimendua, bakoitzarengandik berezia eta horretarako gainditu behar da kanpoko errealitatea mentalki eta emozionalki eraikitzeko joera, atsekabetzen edo ezinegona eragiten digun geure barnean dagoen horren guztiorren proiektzioaren bitartez.

(7) Ikus, esate baterako, gai honi buruz Beckek eta Giddensek dituzten planteamenduak.

(8) Gai honi dagokionez, George Ritzerrek, *El encanto de un mundo desencantado* lanean dio aurreikusteak kontsumoan duen lilura efektua. Ekoizpenean eta banaketan dagoen erregularitate handi handi horrek –denboraren joanean eta herrialdez herrialde egonkor mantentzen dena, frankizien eta merkatalguneen bitartez, batez ere, zabaltzen ari diren erosketa molde gisa– sortzen du espazioaren eta denboraren hesiak gainditu izanaren sentsazioa. Egoera horrek alde orotan egotearen sentsazioa eragiten digu eta gauden tokia handi handia dela, denbora bertan behera gelditzen den bitartean. Merkatalgunean sartzerakoan, orduak eta orduak pasatzen dira ohartu gabe eta bertatik ateratzerakoan, harritzen gara erakuslehiok erakuslehiok noraezean eta asmo zehatzik gabe ibili garen denbora luzeaz.

alor ekonomikoan garatzearekin batera tradizioaren eta arrazoiak nahiz ezagupen zientifikoak jakinarazitako jakintzaren ordezkapen prozesua garatu da. Pentsamolde zientifistaren ezarketak, bere aldetik, - hasieran gizakiari posizio heldua ematen diona, bere ekimenak orientatzeko goiko entitateetara jo behar izan gabe- indartzen du den dena jakin edo aurreikus daitekeenaren fantasia.

Egoera berri orok bere kontraesanak sortzen ditu. Pentsamolde zientifistak berekin du hazkunderako erresistentzia, bizitzaren beraren orientazio zientifista interpretatzen ez den heinean arrazoiaren eta ezagueraren erabilpen gisa eta erabakiak hartzeko metodo gisa. Aitzitik, haurren posizioa itzulita, badago norberaren erantzukizuna profesional espezializatuen gorputz batean uzteko joera, zeinei autoritatea ematen baitzaie gaitasun titulu hutsa erakutsi dezaketen aldiro. Arriskuaren gizartearen ondorioak jasaten dira, nahiz eta emozionalki onartzen ez den. Horregatik, kontzientziatik baztertzen da abiarazten den edozein proiektu aurreikus ez daitekeen emaitza izan dezakeela, edota, dudazko emaitza bederen izan dezakeela, gure bizitzan espezialista eta profesional asko sartzen baditugu ere.

Pentsamolde zientifistak arazo orok bere konponbidea duenaren fikzioa sortzen du eta guk uko egiten diogunean erabakiak hartzeari eta gure erantzukizuna profesionalen esku uzten dugunean, premisa (9) horren pean egiten dugu. Baina horrek pisu handia ematen dio zientifismoari, eta kendu, aldiz, desira inkontzienteei. Pentsamolde zientifista hornitzen da gizakiak mugak onartzeko duen erresistentziaz, errege magoak politikariengatik edota zientzialariengatik ordezkatu dituen haurren sentimendu ahalguztidunaz baliatuta, horiei egokituz desira oro errealitate bihurtzeko gaitasuna, inolako kosturik gabe. Helduen bertsioan, arazo orok badu bere konponbidea, baina ez naiz ni bilatu eta praktikan jarri behar duena.

Mikroklima moral horrek azaltzen du zergatik Mendebaleko herrialdeetan murrizten ari den bizitzaren zailtasunak eta etsipenak jasateko gaitasuna. Inpotentzia/ahalguztiduntasunaren sentimenduen artean mugitzen gara, den dena posible baita, edota halaxe hitz ematen digute behintzat eta guk sinistu egiten dugu, baina ez dago deus gure esku, gure bizitzaren ildo eragiten duten indarren kontrolak ihes egiten digu. Gure asmoa denez, arazo orori irtenbidea ematea, gure eginkizuna arazoaren konponketan eraginkorra eta erabakigarria izaterik gabe (10), zailtasunak bizi ditugu haur-frustrazioaren sentimenduarekin. Alegiazko izaki batek modu arbitrarioan ukatuko baligu bezala posible dena –haiek, goikoek, gizonek, emakumeek, besteek, sistemak, botereak –,

(9) Paradoxa da erabaki hartzeen aurreko jarrera molde hori ez dagoela portaeraren orientazio tradizionala edo erlijiosotik urrun. Bat dator portaeraren orientaziorako molde horrekin autoritatea beste bati ematen zaionean, uko eginez nor bere autoritateari, uko eginez bakoitzaren jakintzei edota bere bizitza orientatzeko eskura litzakeen jakintzei. Kontuan hartu behar da pentsamolde zientifistak tartea irekitzen duela zientzialari nahiz profesionalen eta beste bizilagunen artean, eta faboratzen du batzuk eta besteen arteko urrunketa, hizkuntza ulergaitza garatuz, eta nahita oztapatuz hiritarren ulermena erabaki hartzeen prozesu zientifiko-teknikoei dagokienez.

(10) Parte hartze politiko gisa, demokraziari egiten zaion ukazioa izan liteke munduan-izateko-modu honen sintoma bat.

eta frustrazio horren aurrean prestatzera iristen ez garen sentimendu agresiboak garatzen ditugu. Ez gara gauza sentimendu horiek gordetzeko, jokatzen ditugu, baina hala ere, ez gara gehiago hurbiltzen gure asmoak gauzatzen, sentimenduen jarduerak proiektuak gauzatzea eragozten baitu. Are gehiago, bizitzaren zailtasunak hartzen ditugu huts hutsean arbitrarioak balira bezala, edota halabeharrendaren emaitza balira bezala. Horregatik, ez ditugu ezberdintzen zeintzuk diren saihestu daitezkeen eragozpenak eta zeintzuk, aldiz, desberdintasunezko ordena baten emaitzak (11). Azken horiek, eurekin batera dakarten sufrimenduekin batera, gatazken eta interesen posizioen adierazpena bera dira. Frustrazio edo oinaze horiek prebenitu daitezke edota aurre egin, oposiziokoak baino indar indibidual eta talde-indar eraginkorragoak biltzen diren aldiro, oposizioko indar horiek frustrazioa eta oinazea sortzen baitute.

Zoriontsu izateko edota zoritxarrekoak behintzat ez izateko desirarekin batera, ongizatearen bilaketarekin batera, gure ekimenek agerian uzten dute mugatuak, behartuak eta akastunak garela onartzeko erresistentzia. Hortik sortzen da Mendebalean zientziaz dagoen kontzepzioa, hots, ez dago horrenbestean plazerraren eta ongizatearen zerbitzuan, baizik eta gutaz dugun irudi ahalguztiduna berrestearen zerbitzuan. Asmo horietako bat asetzen duen neurrian, ez du bestea betetzen. Sexismoa, beste erdiaren bila ari den laranja erdiaren fikzio hori, jakinik inork eta ezerk ere osatu gaitzakeela, bikotean oinarrituriko bizi modelo horren azpian dagoen gezur hori, geure burua izaki mugatu gisa aitortzeko erresistentziaren beste adierazpen bat da. Gezur horrek eta gezurrak sortzen duen frustrazioak azaltzen dute "gizonak" "emakumea" ezabatzeko borondatea eta "emakumeak" "gizona" ezabatzeko borondatea. Agertzen da gizonak emakumea hiltzen duenean berea zelako, eta berak naturaltasun osoz bizi duenean seme-alabekin, etxea eta pensioarekin geratzea, ezkontzan ez baitzen gizonaz jabetu baizik eta gizonaren ondareez eta, horren ordainez, gizona emakumeaz jabetu zen.

Disonantzia kognitiboa gertatzen denean gure asmoak murriztuz, ahalguztiduntasun irudi horri gordetzen da, eta ez dugu onartu nahi mugatuak garenik, ez dela posible "gauza oro", eta "ezer" ere ez dela "osotasunean" posible. Desiratzea galtzeko arriskuaren mendean jartzea da, borrokatu behar izatea desiratutakoa erdiesteko, gure desiren gauzaperari gogor egiten dioten indarrak gainditzea, errealitatearen mugak zabaltzea, gure desirak edo asmoak muga horietan sartzen direla lortu arte. Hartzen den bidea da desioa engainatzea, edo ez desiratzea, edozein gauza egingarria denaren eta ezin eginaren arteko muga bereizten duen amildegian burua atera baino lehen. Edozein gauza jainkoa ez garela onartu baino lehen, ezin garela egon toki guztietan aldi berean, ezin dugula den dena eduki, ezta den dena ulertu ere, erabat ulertu ere ez. Edozein gauza ezinezkoa izan dela onartu baino lehen, porrot egiteko arriskua gure gain hartu baino lehen, ikusi baino lehen ezin ditugula lortu gauza batzuk, izugarri desiratuta eta horiek lortzeko borrokatuta ere, edozein gauza, azken buruan, aitortu baino lehen desirari zenbat eta lotuagoa egon, hainbat eta aukera gehiago dagoela saiakeratik porrot eginik ateratzeko.

(11) Alexander Mitscherlichek, *La idea de la paz y la agresividad humana lanean*, hauxe dio agresibitateaz aritzean: frustrazioari lotua dago eta frustrazioa da galtzearen beldurra, edukitza-bulkada batera aldatuta, eta, horren ondorioa da gauzakiaren suntsiketa. Hortik atera daiteke agresioaren harremanak espektatiben izaerarekin duen irismena.

Desirak eraldatzen dira eta arrazoia ez da fidatzekoa. Desira, azkenean, beti gauzatzen da, desira hori muturreraino, kontrakoa izateraino, eraldatu bada ere.

3.

Emakumea eta gizona: Gauza pertsonala politikoa da

Arestian ikusi dugu kontratuaren nozioak a priori bat daukala, hots, horren arabera pertsonok jokatzen dugu desira autonomoetatik abiatuta eta desira autonomo horiek direla gauzatzen saiatzen gareneko gizarte-baldintzak baino lehenagokoak. Bigarren a priori bat da emakumeen eta gizonen negoziazio gaitasunaren arteko baliokidetasun printzipioa. Printzipio horretatik ateratzen da emakumeek eta gizonak baliabide eta botere berdina dutela negoziatu ahal izateko. Negoziatzeko gaitasun horrek eta norberaren askatasuna defendatzeko jarrerak "emakumearen" eta "gizonaren" arteko harremanak kokatzen ditu hiritartasunaren alor zibilean (12). Demokrazia bateragarri al da emakumeen desberdintasun sozialarekin?, eta.... emakumeek eta gizonak kontratuzko harremanak ezar ditzakete desberdin izanik?

T. H. Marshall hiritartasunaren kontzeptu modernoaren sortzailetzat jotzen da eta antzeko galderak egiten ditu, baina gizarte-mailei buruzkoak. Galdera horiek ageri dira nabarmendu beharreko lan batean gai hauen gainean gogoeta egiten denean (13). Marshallek hiru barruti ezberdintzen ditu hiritartasunean: eskubide zibilak, politikoa eta sozialak. Eskubide zibilek XVIII. mendean dute jatorria eta norberaren askatasunerako beharrezkoak diren haiexek dira. Eskubide zibilen artean dago kontratu baliozkoak egitearena. Barruti politikoa garapena, botere politikoa betekizunean parte hartzeko eskubideari dagokiona, kokatzen du XIX. mendean. Eta soziala, aldiz, ongizatearen eta seguritatearen eskubideari dagokiona, XX. mendean.

Kontratuen artean, Marshall bereziki enpresariaren (gizonezkoa) eta langilearen (gizonezkoa) arteko lan-kontratuaz aritzen da. Aitortzen du kontratu mota horiek egitean desoreka gertatzen dela batzuk eta besteen indarretan. Horregatik, XIX. mendeko lorpen politikorik nagusienetakoa talde-negoziatorako eskubidearen errekonozimendua da, enpresariaren (gizonezkoa) eta langileen (gizonezkoak) arteko indarren oreka ekartzen baitu. Talde-negoziatioak alde kontratugileen indarrak orekatzen ditu. Izan ere, langileek baturik jokatzen dute enplegu emaileekin egiten diren negoziatioetan eta aurrez aurre jarri dezakete enpresariaren adinako indarra. Hori ezinbesteko betebeharra da kontratua botere abusua izan ez dadin. Interpretatzen dugu talde-negoziatioaren ezarpenak bilatuko lukeela desberdintasun soziala demokraziarekin bateragarri egitea, eta baimenduko lukeela langilearen eta enpresariaren arteko harremanak barruti zibilean kokatzea. Bata

(12) Marshallen terminologiari jarraikiz, zeinak hiru maila ezberdintzen dituen: politikoa, zibila eta soziala.

(13) *Ciudadanía y clase social* (1950).

eta bestearren artean indar desoreka uzteak langile eta enpresarien arteko tentsioak botere barrutira eramanez lituzke, eta politikagaitz bihurtuko lituzke, botere borroka litzateke, gizarte mailen arteko borroka, alegia. Liberal petoa izan zen gisan, Marshallek hiritartasuna definitu nahi izaten zuten kapitalismoarekin bateragarri egiteko hitzen bidez. Beraz, ezin zuten begi onez ikusi langile eta enpresarien arteko harremanak politizatzea. Hori eragozteko, beharrezkoa zen subjektu kontratugileetako bat, langilea, talde-subjektu bihurtzea. Eskubide horrek gizarte-aurrerabidea ekarriko luke, hiritartasuna zabaldu gabe bere alde sozialean, hau da, huraxe lortzen zen eskubide zibilak zabalduz, kontratazio baldintzak barruti horri baitagozkio.

"Horrela, talde-negoiazioaren onarpena ez zen eskubide sozialen hedapen natural hutsa. Izan ere, hura izan zen prozesu garrantzitsu baten transferentzia hiritartasunaren alor politikotik zibilerara". Ciudadanía y clase social, 49. orria.

Eraman ditzagun aurreko kontsiderazioak "emakumearen" eta "gizonaren" arteko harremanetara. Gaur egun, jende askok aipatzen ditu emakume/gizon harremanak "kontratu sexual berria" hitzak erabiliz. Mintza ote gaitzake "kontratu sexual zaharraz" modu horretan justifikatua egon dadin "kontratu berria" erabiltzea, sexuen arteko harremanen etorkizunaz mintzatzean? Ezkontza bereziki tankera ekonomikoa duen kontratutzat jotzen da. Are gehiago, lan-kontratura hurbiltzen da emakumeak bere diru sarrerarik ez duenean eta hartzen duenean, ezkontzaren bidez, etxekoandarearen estatutua. Bizikidea eta enplegu emailea pertsona berarengan nahasten dira. Kasu horretan, Marshallen antzeko kontsiderazioak aplikatu genitzake langile eta enpresarien arteko kontratuetz ari denean. Horrela bada, edo emakumearen eta gizonaren indarrak orekatzen dira kontratua egitean, emakume guztiek talde gisa emakume bakoitzaren kontratuzko baldintzak negoziatuz gizonenganako euren harremanetan; edo emakumearen eta gizonaren arteko tentsioa eremu politikora eramaten da, borroka feministaren bidez.

Erdiko bidea hartu da. Alde batetik, gizonari gogorarazten zaio harremanaren kontratuzko egitura, eta hortik dator emakumeei egiten zaizkien tratu txarrei indarkerian oinarrituta ematen zaien erantzuna. Tratu txar horiek bereziki basatiak dira emakumea saiatzeko denean kontratuzko harremana hausten. Indarkeria hori ez dago horrenbestean bideratua tratu txarrak egiten dituztenak zigortzera, baizik eta gizon guztiei ohartaraztera, emakumea ez dela gizonaren jabetza, emakumeekiko dituzten harremanak ez direla morrontzak kontratuzko harremanak baizik, eta, horrenbestez, emakumea libre dela kontratua hausteko. Beste alde batetik, borroka feministak salatzen du emakumeen desberdintasun soziala eta ekimen positiboko neurriak aldarrikatzen dituzten desberdintasun hori gainditzeko.

Emakumearen eta gizonaren arteko harremanen arazoari ematen zaizkion erantzun sozialen artean, ondorioztatzen da ez direla bateragarri demokrazia eta emakumeen desberdintasun soziala, hori bai ñabardura askorekin, emakumeen instantzia kolektibo bat falta baita "gizon"/"emakume" harremanak negoziatzeko. Mobilizazio sozialak esparru hori hartzen du.

4.

Hitzarmenetik elkarrizketara?: Subjektuaren agerraldia

"Emakumeek" eta "gizonek" euren harremanen norainokoa, harreman horiek bide ematen dituzten betebeharrak eta eskubideak arautu ahal izateko asmoak, berarekin dakar parekideak diren bi subjektuen printzipioa. Eta horren ondorioz, euren harremanaren baldintzak negoziatzeko moduan dauden bi subjektu, euren indarrak orekatuta baitaude. Asmo horren abiapuntu diren apriorismoak honakoak dira: lehenik, emakume unibertsala eta gizon unibertsalaren existentzia. Bigarrenik, aipatu unibertsal horrek ez dituela harreman sozialak kontuan hartzen, eta batak eta besteak harremanetan jartzen diren gizartearen ezaugarriak alde batera utzirik existitzen dela. Hala eta guztiz, harremanaren etorkizuna deskribatutako "gizonaren" eta "emakumearen" arteko harremanek kontratuzko izaera dutelako ideia, "gizonek" eta "emakumeek" euren harremanak eztabaidatu, negoziatu eta arautzen dituzteneko nozioen bidez ordezkatzeko, esparru zibiletik jauzi egitea da, hau da, esparru pribatutik, politikara, hau da, esparru publikora. Bigarrenik, banakako subjektuen ordezkari taldekako subjektuak jartzea dakar berarekin. Eta azkenik, barne hartzen duen baieztapenaren arabera ez dira subjektu autonomoak ez "gizona" ezta "emakumea" ere, baizik eta aitzitik, desberdintasunen ordenaren adierazpen subjektiboa, ugaltzeari dagozkion ezberdintasun anatomikoetan gehienbat oinarritutako ordena dena.

"Gizon" eta "emakume" banakako subjektuen des-konstrukzioak egiteko "emakumeak" eta "gizonak" taldekako subjektuen agerraldia bultzatzen da. Des-konstrukzio horrek boterearen eta propietate/nolakotasun pribatuak gordetzearen esparruari (14) dagokion hitzarmenetik elkarrizketara (15) igarotzea dakar; azken horretan entzutea, interpretatzea eta ulertzea nagusitzen dira.

Habermasek ordena demokratikoaren baldintzen inguruan hausnarketa egiten duenean, batez ere baterako bizimoduan eragina duten erabaki eta ekintzak hartzeko prozedurak jorrotzen ditu, hots, eremu publikokotzat jotzen direnak. Komunikazio-egintzak, bizitza demokratikoaren berezko ezaugarria izango litzatekeenak, elkar ulertzea bilatzen du ekintza-egitasmoak koordinatu eta aurrera eramateko. Nire ustez, Habermasen asmoa da subjektuek euren bizitza antolatzeko duten askatasunaren eta ongizaterako Estatuak bermatutako berdintasunaren arteko tentsioa gainditzea. Horren aurrean irtenbide bat eskaintzen du: publikoa denaren eta pribatua denaren arteko banaketa ez dadila a priori antolatu, baizik eta eztabaida publikoaren emaitza izan dadila.

"En lugar de la polémica sobre si la autonomía de las personas jurídicas está mejor asegurada mediante las libertades subjetivas para la competencia entre personas privadas o mediante derechos

(14) María Molinerren hiztegiaren arabera honela definitzen da: "Acuerdo establecido con ciertas formalidades entre dos o más personas, por el cual se obligan recíprocamente a ciertas cosas." ("Lagun bi edo gehiagoren artean egindako eta zenbait formalitate dituen akordioa, batak besteari zerbait egiteko obligazioa hartzen duenakoa")

(15) "Acción de hablar una con otra dos o más personas, contestando cada una a lo que otra ha dicho antes" (M. Moliner). ("Lagun bi edo gehiagoren artean hitz egiteko ekintza, bakoitzak besteak lehenago esan duenari erantzunez.")

de prestación garantizados objetivamente para los clientes de las burocracias de los Estados de bienestar, se presenta una concepción procedimental del derecho, según la cual el proceso democrático tiene que asegurar al mismo tiempo la autonomía privada y la pública: los derechos subjetivos, que deben garantizar a las mujeres una configuración autónoma de la vida, apenas pueden ser formulados de modo adecuado si antes los afectados no articulan y fundamentan por sí mismos en discusiones públicas los puntos de vista relevantes para el tratamiento igual y desigual de los casos ípicos. La autonomía privada de los ciudadanos iguales en derechos sólo puede ser asegurada activando al mismo compás su autonomía ciudadana". 258. orr. *La inclusión del otro* (1999).

("Pertsona juridikoen autonomia hobe bermatzeko honako bi aukeren artean eztabaida dago: pertsona pribatuen arteko lehiakidetzarako askatasun subjektiboen bidez edo ongizaterako Estaturen burokraziak objektibotasunez bermatutako prestazio-eskubideen bidez. Baina eztabaida horren ordez zuzenbidearen prozedura-ikusmoldea aurkeztzen da; horren arabera prozesu demokratikoak aldi berean autonomia pribatua eta publikoa bermatu behar ditu: eskubide subjektiboak, emakumei euren bizitzaren eraketa autonomoa behartu behar dietenak, ozta-ozta adieraz daitezke era egokian, baldin eta eragindakoek ez badituzte aurretik inoren laguntzarik gabe azaltzen eta oinarritzen eztabaida publikoetan kasu tipikoen tratamendurako ikuspuntu garrantzitsuak. Eskubide berak dituzten herritarren autonomia pribatua bakarrik berma daiteke baldin eta erritmo berera herritarren autonomia aktibatzen bada.")

Hala eta guztiz, Habermasen planteamenduaren arabera emakumeak nolabait gauza bihurtzen dira. Izan ere, emakumeen bizitzako antolaketa, hura aipatzen duenez, sexismoarekikoa dela uler daiteke. Emakumeak boterearen efektua, sexismoaren efektua, direla esaten badugu, ezin daiteke horien bizitzaren antolaketa autonomorik egin. Autonomiak "emakume" botere-objektua urtu egiten du, eta subjektu baten aukera-baldintzak sortzen ditu, hortaz, definitzen, izendatzen eta ukitzen duten definizio eta izenak problematizatzen duen izaki baterako baldintzak, honi adierazteko atea ixten baitizkiote.

Haren proposamena erakargarri bihurtzen duena "ezaguera objektiboan" oinarritutako botereaz baliatzea gainditu nahi izatea da, subjektu ezagutzailaren eta ezagueraren objektuaren artean omen dagoen banaketan mantendutakoa Deskribatzen duen bidea "arrazoi" unibertsala, subjektu posizio desberdinetatik "arrazoiak ematearekin" ordezkatzean datza. Halaber, emandako mezua interpretatzeko aukera ematen duen intenzionalitatea dela medio, norbaitek mezu bat ematerakoan, neutraltasun-helburua ordezkatzeko du. Elkarrizketan proposamen bat dago, pertsonen arteko harremanerako eskaintza, berba egiten duenaren asmoa eta entzuten duenaren interpretazioa.

Habermasek gogoratzen du jakinduriak eta borondateak ez direla unibertsalak, hortik elkarrizketaren beharra eta horrekin batera diskurtsoak aldatu/barne hartzearen beharra. Baina azkarregi gelditzen da elkarrizketaren inplikazioetan; izan ere, subjektu/objektu banaketa ekintzaren eremura eramaten du. Arrazoiak elkar trukatzeko proposatzen ditugun xedeak aldarazten ditu, aberastuz, laburtuz eta gutxietsiz ere, bestearen arrazoiak ulertu ondoren. Elkarrizketa elkar ulertzeko borondatearen ondorioa da, helburu berberen bila bestearekin bat etorri edo ados egoteko ahalmenetik jaiotzen dena.

Komunikazio-egintzarekin nola konprometitu patriarkatua gauza bihurtu gabe, hori baita "gizon" eta "emakume" kategoriak gordez gero gertatzen dena. Beharbada Habermasen lanean aurkitu ez dudakomunikazio-egintzaren alderdi batean dago giltza. Ez dirudi jabetzen denik elkarrizketaren oinarritzko eragina elkarrizketan aritzeko prest daudenen subjektibotasun-aldaketak direla. Elkarrizketak subjektibotasunetan aldaketak sortzen ditu elkar ulertzearen ondorioz; azken hau subjektu bat eta beste subjektua elkar ulertzeko ahalmena da. Zein da "emakumeen" eta "gizonen" arteko elkarrizketaren funtsezko emaitza eszena politikoan, "emakume" eta "gizon" entitateak desegitea baizik. Baina, "maskulinitatea" eta "feminitatea" desegiteak ez dakar desberdintasunaren desagertzea, baizik eta desberdintasuna azaleratzeko aukera bera osatzen du. Interpretazioa subjektibotasun batetik abiatzen da eta beste subjektibotasunaren adierazpenei esanahiak ematen dizkio. Bestea ulertzerakoan, haren subjektibotasunezko adierazpenak nik interpretatzen ditudanez, nire desberdintasuna berea esanguratsu egin dudak neurri berean antolatzen dut.

Julia Kristevak "Tiempo de mujeres" lanean aipatzen du emakumeen belaunaldi berria erlijio-krisiaren muinean kokatzen dela:

"Llamo religión a la necesidad fantaseada de los seres parlantes de darse representación (animal, femenina, masculina, parental, etc.) en lugar de lo que los construye como tales: la simbolicidad". 202 orr.

("Erljio-krisia deritzot izaki mintzodunek euren buruari errepresentazioa (animala, femeninoa, maskulinoa, ahaideena, ea.) emateaz amets egindako beharra horrelakoak eraikitzen dituenaren orde: sinbolizitatea.")

Bere ustez, hirugarren belaunaldi feminista (16) gauzatzen ari da, eta gehituko genuke beharbada jardunaldi honek berak agerian jarriko duela gizon kritikoaren lehen belaunaldia.

"Para esta tercera generación que reivindico –¿qué imagino?– la dicotomía hombre/mujer, como oposición de dos entidades rivales, parece corresponder a la metafísica. ¿Qué quiere decir "identidad", o incluso "identidad sexual", en un espacio teórico y científico en el que se cuestiona la noción misma de identidad? No insinúo simplemente una bisexualidad que, en la mayor parte de los casos, evidencia una aspiración a la totalidad, a una desaparición de la diferencia. Pienso en primer lugar en una desdramatización de la "lucha a muerte" entre los dos sexos. No en nombre de su reconciliación –el feminismo ha tenido por lo menos el mérito de hacer aparecer lo que tiene de irreductible, de mortífero incluso, el contrato social–, sino para que su violencia opere con el máximo de intransigencia en el interior de la identidad personal y sexual en sí, y no en el rechazo del otro". 203-204 orr. (Neuk azpimarratua).

(16) Lehengo honela definitzen du: denbora linealean lekua bilatzen duena, ulertzeko modu unibertsalistaz sortuz, eta emakumeen arazoak globalizatuz, arrunki "berdintasunaren feminismoa" deitzen dena. Bigarrenari dagokionez, espezifikotasun femeninoan jartzen duen interesa du ezaugarri; hori gorputz-esperientziei lengoia ematen saiatzen da, arrunki "desberdintasunaren feminismoa" deitzen da.

("Aldarrikatzen –imajinatzen?- dudan hirugarren belaunaldi horrentzat badirudi gizon/emakume dikotomia, bi entitate etsaien arteko aurkaritza bezala, metafisikari dagokiola. Zer esan nahi du "nortasuna" terminoak, edo "nortasun sexuala" terminoak ere, nortasun nozio bera zalantzan jartzten den gune teoriko eta zientifikoan? Ez naiz ari soilik bisexualitatea iradokitzen; horrek kasu gehienetan, agerian uzten du osotasun gura, desberdintasuna desagertzeko nahia. Lehenik bi sexuen arteko "hil arteko borrokari" dramatizazioa kentzean pentsatu dut. Ez horiek adiskidetzeko –gutxienez feminismoak horrek duen murrizketa ezintasuna, hilgarria ere, kontratu soziala, ageriarazi du-, baizik eta haren indarkeriak ahalik eta amorerik ez emate handienaz aritu dadin berez nortasun pertsonal eta sexualaren barruan, eta ez bestea arbuatzean.")

Bestearekin elkarriketan aritzeak nortasun beraren barruan sexismoari amore ez ematea gartzten laguntzen du. Urruntzeak, "egokitasun politikoaren" estetika atzean ezkututzen den borrontate totalitarioak, ebidentziak estaltzen ditu eta ez die arazoei azaleratzen uzten, horiek prozesatzen lagaz. Bide horretatik deabruak botatzea errazten da, eta horiekin batera errealitatea gauza bihurtze inobilizantea eta erlijio feminista garatzea. Izan ere, ez zaio horren jarrerari aurre egiten, baizik eta agerikoa egin dadin eragozten da zentsuratzekoan. Jardute sexisten aurrean amore ez egiteak, sexismoak lotu dituen subjektibotasunen artean elkarriketari laguntzen dio, eta horri bakoitzak sexismoari irauten nola lagundu duen azaltzeko aukera ematen du. Eta agerian jartzerakoan, prozesu horri esker harakiria egin dakioke sexuan edo sexualitatean oinarritutako edozein nortasuni. Hori feminismoa erlijio-esparrutik atera eta politika-esparrura eramatea da, izan ere, azken horretatik ez zuen inoiz atera behar.

Kontua ez da gizonak etxeko lanak egin ditzaten borrokatzeak, baizik eta gure buruari galdetzea zergatik maitemintzen garen euren etxeko andreak izan gaitezkeelakotzat hartzen gaituzten izakietaz. Kontua ez da bakarrik gizonak gu sexualki eraso gaitzaten oztopatzea, baizik eta gure buruari galde egin beharko geniokeela zergatik garen erasotzeko hain errazak. Kontua ez da emakumei tratu txarrak ematen eta hiltzen dituztenak garbitzea, baizik eta egoera horiek gerta daitezten galaraztea, hil arte tratu txarrak eman diezazkioketen pertsonekin zergatik egon nahi duten emakumeek bere baitan galdetzearekin batera. Kontua da amorerik ez ematea edo aurre egitea emakumeek seme-alabekiko duten jabetza-sentimenduari, edo gu baino indartsu eta boteretsuago den gizonarekiko desira, edo lantokian mailaz igotzea lortzearen lehiatzeari beldurra izatea. Kontua da aldi berean ulertzea zergatik gizonak ez duten nahi seme-alabak bakarrik berarenak direla, edo fisikoki eta sozialki txikiagoak diren emakumeak gurago dituzten, edo ez duten beste gizon batekin bereak eta bi jotzeko beldurrik lantokian mailaz igotzeko bada.

Sexismoari amore ez egiteaz beteta gaude gutako bakoitzaren baitan, bideragarri egiten ez gure borrontatez, baizik eta gure partehartzeaz. Horixe baita subjektibotasun berdintsu eta desberdina aktiboki eraikitzeke atea zabaltzen duena; bizitza bera bezain aparteko, ezegonkor eta aldakorrek diren subjektibotasunak hain zuzen. Zergatik goraiatu sexu-desberdintasuna? Zein bertute du berekin zerbait izatea, horren definizioan parte hartu ez badugu? Zein bertute du izatea aukeratu ez duguna izateak?

Bibliografía

- BUTLER, Judith, "Actos performativos y constitución del género: un ensayo sobre fenomenología y teoría feminista", *Debate Feminista*, 18. liburukia, 1998eko urriak.
- BUTLER, Judith, *Gender Trouble. Feminism and the Subversion of Identity*. New York: Routledge, 1990.
- ELSTER, Jon, *Uvas amargas. Sobre la subversión de la racionalidad*. Bartzelona, Península, 1986.
- FRASER, Nancy y Gordon, Linda, "Contrato versus caridad: una consideración de la relación entre ciudadanía civil y ciudadanía social", *Isegoría*, 6. zk., 1992.
- HABERMAS, Jürgen, "Teoría de la acción comunicativa". I. Tomoa, *Racionalidad de la acción y racionalización social*. Madril, Taurus, 1987 (1981).
- HABERMAS, Jürgen, *La inclusión del otro. Estudios de teoría política*. Bartzelona, Paidós, 1999.
- IZQUIERDO, María Jesús, *Cuando los amores matan. Cambio y conflicto en las relaciones de edad y de género*. Madril, Libertarias argitaletxea, 2000.
- IZQUIERDO, María Jesús, *Sin vuelta de hoja. Sexismo: Placer, poder y trabajo*. Bartzelona, Bellaterra argitaletxea, 2001.
- IZQUIERDO, María Jesús, *El malestar en la desigualdad*. Madril: Cátedra, 1998.
- JÓNASDÓTTIR, Anna G., *El poder del amor. ¿Le importa el sexo a la Democracia?*. Madril, Cátedra, 1993.
- KRISTEVA, Julia, "Tiempo de mujeres", *Las nuevas enfermedades del alma*. Madril, Cátedra, 1995.
- LASCH, Christopher, *The Culture of Narcissism. American Life in an Age of Diminishing Expectations*. New York, Warner Communications Co., 1979.
- MITSCHERLICH, Alexande, *La idea de la paz y la agresividad humana*. Madril, Taurus, 1971.
- PATEMAN, Carole, *El contrato sexual*. Bartzelona: Anthropos, 1995.
- PATEMAN, Carole, "A Comment on Johnson's Does Capitalism Really Needs Patriarchy?", *Women's Studies International Forum*, 19. liburukia 3. zk., 1996.
- MARSHALL, T. H.: "Ciudadanía y clase social", in Marshall eta Bottomore, *Ciudadanía y clase social*. Madril, Alianza argitaletxea, 1998.
- RITZER, George, *El encanto en un mundo desencantado. Revolución de los medios de consumo*. Bartzelona, Ariel, 2000.

CARMEN DíEZ MíNTEGI
Antropologia Soziala
Departamentua, Euskal Herriko
Unibertsitatea/UPV

*Gizon eredu
berriak.*

Azaleratzea

eta

testuinguratzera

Laburpena

Bitza soziala eta kulturala orokorrean eta pertsonen bitza bereziki egituratu eta antolatzen duten aldaeretako bat da generoa. "Gizon-emakumea" dikotomia hertsia jadanik ez da eraginkorra, gizarte errealitatearen konplexutasuna eta izaera maskulinoa edo femeninoa bizitzeko eredu berriak azaltzerakoan.

Ikuspuntu teoriko honetatik, gizonen "berezko eredu berriak" bezala definitzerakoan dauden zailtasunak azaltzen dira eta nola analisiaren bidez dirudien hauen ezaugarriak direla. Ezaugarri hauei buruzko azalpenak ematen dira eta baita hauek agertzen diren testuinguru edo esparru zehatzei buruzkoa ere.

Azkenik, "gizon berria" bezalako kategoriak sortu eta erabiltzeak dakarren ikuspuntu epistemologikotik heltzen zaio arazoari. Horiek jokatzeako eredu berrien zirriborroak baino ez direnak gautzen dituzte, eta horrela genero-harreman edo sistemen analisi dinamiko eta irekiagoa egiteko aukera ixten dute.

.....

1.

Sarrera

Berrogeiko hamarkadaren amaiera aldean, Simone de Beauvoirrek "emakumea ez da sortzen, egin egiten da" esan zuen; bi hamarkada igaro behar izan ziren esaldi horren esanahia sakontzen hasi orduko, emakume izateko moduak eta eraketa horretan gizarte eta kultura mailako testuinguruek duten garrantzia erakutsiz. Biologia patua ez dela erakustea, emakumeek gizartean, denbora eta toki orotan, duten jardunbidea begi aurrera ekartzea, zientzien epistemologian aldaketak sartzea, dira zientziaren ikuspegi kritiko feministak azken hiru hamarkadetan izan dituen helburuetako batzuk, oraindik ere irekita jarraitzen duen prozesuaren barruan.

Prozesuaren hasiera-hasieratik erlazioen elementua kontuan izan beharra agerian egon zen, hau da, emakumezkoen errealitatea ulertzeko modu bakarra gizonezkoekin duten erlaziotik baino ez dugula ulertuko. Hala ere, duela hamarkada bat inguru arte ez da planteatu, modu sistematikoan, "gizonezko izatea" ere gizarteko hainbat prozesuren ondorio dela, eta eraketa horiek beraien sorrera diren errealitate konplexuen testuinguruan aztertu behar direla.

Egin dudan ikerketa lanean ere islatzen da prozesu hori; horrela, laurogeiko hamarkadaren amaieran, eta emakumea eta boterea(1) gaiari buruzko ikerketa baten barruan, haurren jolasen behaketaren bitartez argi eta garbi ikusi zen oso garrantzitsua zela gure gizartean dauden egitura sozialak agerian uztea, maskulinitasunaren nagusigoaren ugalketarako. Gipuzkoan futbolaren

(1) Teresa del Valle antropologoak zuzendutako eta Celia Amorós filosofoak zuzentzen zuen CAYCIT-en "Mujer y poder" (1987-1990) proiektuaren barruan zegoen "la socialización para el no poder: aspectos antropológicos", izeneko subproiektuaren barruan.

antolakuntzari buruz egindako azterketak (Díez, 1996) aukera eman zidan egitura horiek gizonezkoak nagusi diren edozein gizartetan izan duten eta oraindik ere baduten esanguratasunean eta garrantzian sakontzeko: lehenbizi, gizonezkoen multzoa emakumezkoen multzoaren gainetik egoteko aukera ematen dutelako, baina baita erreferentzia gisa arituko den maskulinitasunaren hegemonia edo nagusigo eredu ezartzeko ere balio dutelako, Antonio Gramscik hegemonia kontzeptuari eman zion esanahiarekin, hau da, gizarteko bizitzan talde bati nagusitasun postua eraikitzen eta eusten laguntzen dion dinamika kulturala. Maskulinitasunaren nagusigo edo hegemonia eredu horren ondorioz, erreferente nagusi gisa ari denean, ereduaren arabera aritzen ez diren eta ereduarekin identifikatzen ez diren gizonezkoek, beraien buruak "desberdin" gisa ikusten dituzte, eta besteek ere hala ikusten dituzte. Horrela, erlazio modu desberdinak ezartzen dira hegemonia duen maskulinitasun horren eta beste maskulinitasun batzuen artean, eta erlazio horiek mendekotasun, konplizitate edo baztertze erlazioak izan daitezke (Connell, 1995).

Beste azterketa batean, lan merkatuan sartuta dauden emakumezkoen bizitza prozesuak aztertzerakoan, jarduera publikoaren eta pribatuaren arteko bidean eta artikulazioan, ikusi ahal izan zuen etxe barruko erlazioen mikro mailan generoen arteko erlazioak berdintsuagoak zirela. Egoera batzuetan, bikoteko bi kideek antzeko profila erakusten zuten, lan jarduerari eta bizitzeko jarrerari eta egitasmoari zegozkienez (Díez, 1993). Aurrerago, bikote horien erlazioetan sakontzean, talde domestikoen "barruko" eta "arteko" estrategien azterketaren bitartez (Díez, 1996), aurreko iritziak baieztatu egin ziren, eta ikusi zen beharrezkoa zela generoen arteko erlazio horiek toki, denbora eta pertsona zehatzetan kontestualizatzea, pertsonen arteko erlazio modu berdintsuagoak sortzen dituzten zergatien ezagutzan aurrera egin ahal izateko.

Azkenean, 1997-1999 urteen artean egindako "Modelos emergentes en los sistemas y relaciones de género: nuevas socializaciones y políticas de implementación"(2), izeneko ikerketa izan da gaur hemen, gure gizartean egun gizonezko izateko agertzen diren eredu berrien ezaugarrietan sakontzeko aukera emango dizkiguten iruzkinak eta proposamenak aurkezteko aukera eskaini didana.

(2) "Proyecto MEC 115.230-IMO1/97, III Plan Nacional de Investigación Científica y Desarrollo Tecnológico y de acuerdo al Programa Sectorial de Estudios de las Mujeres y del Género" izenekoak. Taldea: Teresa del Valle (zuzendaria), José Miguel Apaolaza, Francisca Arbe, Josepa Cucó, Carmen Díez, Mari Luz Esteban, Felipa Etxeberria, Virginia Maquieira.

Hurbilpen teorikoari buruzko iruzkinak

Gure kultur testuinguruan gizonetzko eredu berriez hitz egiteak, "femeninotzat" eta "maskulinotzat" hartzen denak eskaintzen duen dikotomia sakonean oinarritzea eskatzen du. Badakigu maskulinitasuna eta femeninitasuna ez direla ezaugarri finkoek eta mugiezinez eraturako multzoak, zerbait dinamikoa dira, etengabe eraikitzen doana. Hala ere, gizarte mailan oraindik ere uste da bi giza talde handirekin, gizonetzkoekin eta emakumezkoekin, identifikatzen diren bi portaera mota desberdin direla. "Aritzeko" bi modu horiek pertsonen jokaera ebaluatzeko erabiltzen den ardatza dira. Egiten duguna gara, eta gure gorputzaren irudia eta gure jokaera, ume-ume garenetik zahartzaroraino, jokaera "femenino" edo "maskulino" gisa identifikatzen dira, batez ere "gizonetzko" edo "emakumezko" batentzat egokia ez omen dena zigortzeko edo kritikatzeko orduan.

Horrela, oso garrantzitsua da kontuan izatea "gizonetzko" eta "emakumezko" izateko modu jakin baten antolakuntza eta produkzioa femeninitasunak eta maskulinitasunak gidatzen duten gizarteetan, femeninitasun eta maskulinitasun hori genero egitasmoak direla, eta gizartearen jardunbidea, orokorrean, haien eraikuntzara bideraturik dago (Connell, 1997). Eraikuntza hori pertsonen gorputzen modelaketaren bitartez egiten da –edukia eta edukitzailea–, hau da, jardunbide sozialak gorputzen formak eta haien estalkiak, mugimenduak, emozioak, sentimenduak, desioak eta bizitzeko eta lanerako proiektuak zuzentzen eta antolatzen ditu, baina ez ditu zehazten.

Baina jardunbide soziala aktiboa eta aldakorra da, eta ondorioz, konplexua, eta berau hautematea eta zehaztea ez da erraza, gizartearen ezaugarrietan aldaketak erakusten dituzten alderdiak, eta "gizonetzko" edo, hala denean, emakumezko, eredu berriak agertzeko moduak adierazi nahi direnean.

Sortzen ari diren erduei buruzko ikerketan⁽³⁾ erabili izan dugun estrategia, ikuspuntu dialektikotik, generoen arteko erlazioen ikuspegi sistematikoa gizakien jardunbidearen edo egintzaren azterketarekin artikulatzea izan da, egitura soziala orokorrean eta egitura horren barruan genero sistema nola sortzen eta ugaltzen den eta aldaketa prozesuak zergatik gertatzen diren ulertzen saiatuz. Aldaketa horietan gizarteko aktoreak protagonista nagusizat hartu behar dira.

Genero kontzeptua polisemikoa eta polemikoa denez, komenigarria da hitzaldi honetan emango diogun erabilerari buruzko zerbait argitzea. Ikuspegi kritiko feministak sexuaren eta generoaren artean planteatu zuen bereizketa, biologiaren eta kultura jakin baten ondorio denaren artean bereizteko pauso garrantzitsua izan bazen ere, gaur egun argi eta garbi dago bereizketa horrek arazoak sortzen dituela, eta generoa kontzeptu ahistoriko eta akritiko bilaka dezakeela, ustez bereizitasun biologikoetatik datozenak bezain esentzialistak edo esentzialistagoak izan daitezkeen nortasunen eratzaille, alegia (Haraway, 1991). Balizko horretan oinarrituz, "genero sistemaz" hitz egitearen azpian dagoen planteamendua, egitura horiek gizartearen ordena antolatzen duten botere sistema gisa ikustearena da, denbora eta toki zehatzetan dauden sistema dinamiko gisa.

(3) Denbora gutxi barru Editorial Narceak argitaratuko duen ikerketa.

Sistema horietan pertsonen eta sexuen arteko erlazioak aldatu egiten dira, aldagai materialetan eta sinbolikoetan gertatzen diren aldaketan arabera. (Esteban eta Díez, 1999).

Teoria kategorialen edo rol sexualen ikuspegi kritikotik ere, Connell (1996) soziologoak behin eta berriro esaten du generoa, gorputzeko desberdintasun baten bitartez lotutako ezaugarri indibiduala baino gehiago dela, eta azpimarratzen du praktika sozial landuaren aurrean gaudela. Praktika hori oso eraginkorra eta indartsua da, eta horren bitartez, eguneroko bizitza "ugalketaren harearen" inguruan antolatuta dago. Kontzeptu horren barruan, gizarteko espazio guztiak sartzen dira, mikrotik makroraino, aginte, ekonomia eta emozio erlazioak zeharkatuz. Horrela beharrezkoa bilakatzen da planteamendu dikotomikoak gainditzea eta azterketa gizarteko errealitatean azaltzen diren formen eta portaeren aniztasuna kontuan izango duen ikuspegitik egitea, generoko sistema zehatz batek desberdintasunen ugalketan duen eraginaren eta pertsonen erantzun eta egoera desberdinen arteko tentsioari eusten saiatuz.

Connell (1987) generoaren barne egiturak erakusten duen konplexutasunari ekiteko orduan egiten duen sistematizazioari jarraituz, sortzen ari diren eredu azterketan hiru egitura bereiztu dira: lana, boterea eta emozioak. Horien bitartez antolatu dira bai azterketaren unitateak eta baita egindako sakoneko elkarrizketetan erabili zen gidoia ere (4). Beste alde batetik, gizarteko aktoreen praktika oso elementu garrantzitsuen bitartez hartu da kontuan, sozializazioaren bitartez, alegia. Sozializazio prozesu horien bitartez sartzen eta barneratzen dira testuinguru sozio-kultural jakin bateko esanahiak, balioak eta praktikak.

Sortzen ari diren eredu ikerketa gidatu zuen marko teorikoan agertu diren zenbait gai garrantzitsu sozializazio kontzeptuaren inguruan izan behar dira kontuan. Horietako bat, sozializazioa, oso gaztetan ematen den prozesu erabakigarri gisa ulertzearen inguruan egiten dugun kuestionamendua da, sozializazio kontzeptua, sozializazioa pertsonen bizitza osoa irauten duen prozesu gisa planteatzeko. Prozesu horretan, "sozializazio berriak" genero erlazio berrien erakuntzaren ardatz nagusia dira (del Valle, 1992). Aurrekoarekin erlazionatutako beste gai bat, ñabardura bereziak baditu ere, sozializazio prozesua pertsona mota jakin bat sortuko duen bide bakar gisa ikusteari utzi behar izatea da, prozesu hori, pertsona horren inguruan sortzen diren aukeretara edo mugetara irekitako prozesu gisa ikusteko.

Horrela, esate baterako, jarraitasunerako sozializazioaz eta aldaketarako sozializazioaz (Díez, 1993) hitz egin dezakegu, Francoren garaiko Espainian, berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan, nagusi ziren jarraibide murriztaileetan eta tradizionaletan hezitako emakume asko feminista aktibo bilakatu zirela eta amatasunarekin eta zainketarekin lotutako emakumezkoaren betiko irudia hautsi eta lan munduan sartu zirela ikustean.

(4) 35 elkarrizketa, horietako lau taldeekin (gazteak -mistoa-, adin ertaineko gizonezkoak eta emakumezko nagusiak), gainerakoak bakarkakoak: 14 gizonezkoekin eta 17 emakumezkoekin, hiru mailatan banatuak, adinen arabera (gazteak, helduak eta nagusiak), gizarteko hainbat mailatakoak (behe maila, maila ertaina eta goi maila) eta ideologiaren arabera ere aukeratuak (eskuindarrak eta ezkeriak).

Gizonezkoei dagokienean ere, gazteen artean generoaren eraikuntza aztertu duten zenbait azterketen arabera, horien artean gaur egun hiru nortasun mota azaltzen dira: betidaniko maskulinoa, feminista eta moldaeraza edo pragmatikoa, eta azken hori da guztien artean hedatuena (Ortega, 1993). Azterketaren egileak esaten duenez, azken mota hori "mota ez oso zehaztua da, izaeraz oportunitista, eta norabide batera edo bestera, testuinguru sozialean nagusi den ideologiaren edo pentsamoldearen arabera jotzen duena" (ibidem: 49-50) da. Hala ere, nire ustez, gazteen jarrera hori irekia da, eta bat dator garaiko gizartearen errealitatearekin. Esan behar dut, baita ere, egileak ematen duen definizioak, nire ustez, nolabaiteko mesprezua erakusten duela. Kontuan izaten badugu emakumezkoak izan direla batez ere "emakume izatearen" nortasuna zailantzan jarri dutenak eta gizonezkoek antzeko bidea egin beharko dutela edo egiten ari direla (Arraiza, 1998), egileak ematen duen definizioa, bizitzako une batean, kasu honetan gaztaroan, nortasuna eta sozializazioa gauza itxi eta jada osatu gisa ikusten duenaren ikuspegitik baino ezin daiteke eman.

Ikuspegi horretatik planteamendu dialektikoa proposatzen da, eta planteamendu horrek aldi berean gizarteko sistema edo egoera jakin baten azterketa eta gizarteko aktoreen praktika aurreikusten du; planteamendu horrek aukera ematen digu sistema orokorraren eta gizarteko aktore horien egoeraren arteko elkarrekintza nola gertatzen den behatzeko. Lan, botere eta emozio esferak praktika soziala banatzen den oinarritzko mailekin uztartuz, orokorrenetik banakakora, hau da, makrotik mikrora (Saltzman, 1992), pertsona baten nondik norakoa lekutu nahi da, bere bizitza zikloko une eta egoeretatik ezartzen diren loturen bitartez, eta horrela, testuinguru sozial jakin baten nondik norakoaren eta bizipenen ikuspegi orokorra eta aldi berean zehatza lortuko da.

3.

Gizonezko eredu berriak

Eredua, erreferentziatzko pisua eta entitatea duen konstruktoa da, eta kasu batzuetan baita normatiboa ere. Díaz Martínezek (1996) definizio hau ematen du: "gizarteko talde jakin bateko norbanako talde baten praktiketan, balioetan eta euren burua ikusteko moduetan kointzidentziak erakusten dituen abstrakzio modu bat edo aldagai jakin batzuen arabera diseinatutako lagin jakin bat. Eredu horiek beste eredu batzuekin kontrajarriz agertzen dira, hau da, ereduak, euren artean dauden desberdintasunen bitartez azaleratzen dira" (ibidem, 96).

Ereduren definizio horretan oinarrituz, argi dago orokorrean gizonezko eredu berriez hitz egin dezakegula. Alderdi hori baieztatu egiten dute adinez aurrera doazenek, berrogeita hamarreko, hirurogeiko eta baita hirurogeita hamarreko errealitateak eta gaur egungo errealitatea alderatu baititzaikete, zainketaarekin edo etxeko lanekin erlazionatutako gaietan: "Lehen haur bat zeraman gizonezkoa gaizki ikusita zegoen, ez zen benetako gizonezkoa, homosexuala zen. Gaur egun

oso arrunta da gizonetzko bat arropak esekitzen ikustea"(5), "Gaur egungo gizonetzkoak bestelakoak dira"(6). Baina, hala ere, orokorrean ikusten diren joera horiek ez dira erraz zehazten pertsona errealen bizitzak erakusten dituen orokortasunean eta konplexutasunean. Alde batetik, prozesuan dauden esperientzia berriak definitu behar direlako, eta beste alde batetik, eta hau aurrekoa baino garrantzitsuagoa da, adibidez Xabier Odriozolak(7) argi eta garbi adierazi duenez, ez dagoelako maskulinitasun eredurik, feminitasun eredurik ez dagoen bezala: "Badakigu gizonak nolakoak ez diren izan behar: justu inposatu dizkiguten rol horiei erantzun gabe gelditzen bagara nahiko gizontasun eredu polita emango genuke. Baina, nik uste dut ezin dela definitu, zehaztu, gizonak nolakoak izan behar dugun; ez du zentzu gehiegirik"(8).

Arazo horiek kontuan izanik ere, argi eta garbi dago bai ikuspegi orokorretik eta bai ikerketa taldeak pertsona zehatzak aukeratzeko orduan ere, gizonetzko eredu berriez hitz egiterakoan ezaguri jakin batzuk, profil bat izaten direla kontuan, eta horien bitartez gizartean egoteko modu berria identifikatzen dugu.

Aurreko lan batekin erlazionaturik taldeko kide batek aipatu dituen adierazleak baliagarriak dira "gizonetzko berriaren" irudipenezko profil hori definitzeko(9): 1) Teorian eta praktikan, gizonetzkoak eta emakumezkoak rol desberdinak dituztela eta espazio eta hierarkia desberdinak bete behar dituztela esaten duten pentsamendu eta portaera klasikoekin hautsi duena; 2) esparru pribatua atazek eta erantzukizunez arduratzen dena, emakumezkoak bezala; 3) biziraupenari dago-kionez buruaskia dena; eta 4) bakarka eta gizartean konpromisoa hartzen duena, bere inguruko emakumezkoek euren bizitzak modu autonomoan kudeatu ditzaten eta erantzukizuna eskatzen duten lanpostuak bete ditzaten (Estepan, 1998).

Gizonetzko osatutako zenbait mugimenduk ere gizonetzko antisexistentzat baliagarri izan daitezkeen zenbait printzipio ematen dituzte. Australiako Michael Flood-entzat (1995) hiru printzipio horiek hauek dira: 1) pro-maskulinoa izatea, horrek esan nahi du gizonetzkoekiko positiboa izatea; gizonetzkoak aldatu daitezkeela uste izatea eta, gizonetzko bakoitzak aldaketa positiboa lortzeko egiten duen lanari laguntzea. 2) pro-feminista izatea, hau da, emakumezkoen zapalkuntzari, sexismoari eta generoan oinarritutako justizia ezari aurre egiteko konpromisoa hartzea. 3) pro-homosexuala izatea, homofobiari eta pertsona homosexualen aurkako aurreiritziei eta zapalkuntzari aurre egitea.

(5) Emakume nagusia, behe maila, kontserbatzailea.

(6) Emakume nagusia, behe maila, aurrerakoia.

(7) Laguntza-gizon taldeak Euskal Herrian. Bergara.

(8) ZABALIK, IKUSMIRA GIZARTEA, 2000ko martxoaren 18tik 19ra.

(9) Bere garaian egileak "gizon berria" esamoldea erabaki bazuen ere, ez da egokiena lantzen ari garen gairako, eta nahasteak sor ditzake, zeren normalean Elizak edo galdu omen den maskulinitasun ideal horretara itzultzea eskatzen duten gizonetzkoen taldeek erabiltzen baitute.

Premisa horietan oinarrituz, "eredu berri" izendatu dezakegunaren lau adibide aurkeztuko ditut, gure azterketan parte hartu zuten gizonetako batzuen bizitzaren nondik norakoaren deskribapenaren bitartez. Hiru elkarrizketa –lehenbiziko hiru adibideei dagozkienak– profil berri horien ezaugarriak betetzen zituztelako aukeratu ziren. Ez da hori gertatzen azken adibidearekin, pertsona "normal" gisa definitzen dugunaren multzoko gizonetakoak baita. Planteatu eta eztabaidatu beharreko puntu bat hau da: lehendik ere hor zeuden baina gizartean proiektio urria edo hutsa zuten eredu berrien ezaugarri jakin batzuen azaleratzearen eta orokortzearen aurrean gauden ala ez.

3.1

INDEPENDENTZIA BALIO GISA

Pertsona hau berriemaile gisa aukeratu genuen "gizonetako eredu alternatiboa" zela uste genuelako, eredu "tradizionala" esango genukeenaren ikuspuntutik: gizonetako lan horietako bat egitea; etxeko lanik egiten ez duen familia burua izatea; gizonetako eta emakumetako dagozkien tokiak bereiztea.

Hogeita hamasei urteko pertsona da. Antzerki munduan ari da lanean, antzezle, idazle, irakasle edo zuzendari gisa, eta nahiko maila oneko familia ugarian sortu zen (bost neska eta bi mutil). Gaur egun bakarrik bizi da, Espainiako hiri handi batean; beste garai batzuetan bikotearekin bizi izan da, eta baita adiskideekin ere; atzerrian ere bizi izan da.

Pertsona honek, gizonetako eta baita emakumetako artean eredu berriak egotearen inguruan duen iritzia positiboa da, eta eredu horiez egiten duen deskribapena argia da. Gizonetako kasuan hau litzateke:

"Alde guztietatik independentea eta autonomoa den gizonetako, hau da, etxea eramateko, lan egiteko, harreman baten menpe ez egoteko... gai dena, eta ez, nik ezagutzen ditudan kasu asko bezala, harreman bat behar dutenak etxeko gauzak eginda edukitzeko; beste gizonetako batzuekin erlazioak izateko gai dena, jende askok hala egiten baitu. Nik uste dut hori orain lehen baino gehiago gertatzen dela. Alde horretatik bai. Ez dut esango beste garai batzuetan egon ez denik, noski egon dela, baina behar bada ez orain bezain argi. Horrez gain, itxura fisikoa gehiago zaintzen duten gizonetakoak, lehen ere bazeuden, baina orain askoz gehiago daude"

Elkarrizketaren bitartez eta sozializazio prozesua aztertzerakoan, ikus daiteke ez zela besteak bezalako mutikoa, barnerakoa, isilkorra, eta ez zituen maite futbola eta mutikoen beste gauzak; friadeek (jesuitek) presioa egiten zioten, beste mutikoak bezala izan zedin. Esaten du etxean ez zela hori gertatzen eta denbora luzez mutiko bakarra izan zenez, arrebek asko mimatu zutela; esan daiteke bere bizitzan zehar emakumez inguratuta bizi izan den pertsona izan dela. Onartzen du antzerkiaren munduari esker birsozializatu egin dela, eta haur barnerakoa eta isilkorra izatetik oso pertsona gizartekoa izatera heldu dela.

Independentzia, bai lan jardueran eta baita bizitza pertsonalean eta erlazioetan, eta baita espazio pribatuari ematen dion garrantzia, elkarrizketan zehar indar handiz azaldu diren elementuak dira. Berak bizi duen lan munduaren ikuspegitik, uste du antzerkiaren munduan gizonetakoak eta

emakumezkoek aukera berberak dituztela. Halaber, uste du ez dagoela alderik gizonezkoen eta emakumezkoen artean, agintea, lidergotasuna, burutzeko orduan, eta hori pertsona bakoitzaren izaeraren arabera dela uste du. Emozioei buruzko atalari dagokionez, oso isilkorra da, eta bere bizitza afektiboarekiko kontrol handia du. Hari buruz esaten du gero eta "drastikoagoa dela" eta "orain ez duela ezer jasaten", harremanei dagokionez.

Pertsonak nolakoak diren eta berak nolako pertsonak atsegin dituen esatean gizonezkoen eta emakumezkoen artean bereizketarik ez duela egiten adierazten du, eta esaten du berak ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonak atsegin dituela, sexu batekoak zein besteak izan; zein motatako pertsonak atsegin dituen adierazteko egiten duen deskribapena ez da orokorrean markaturik agertzen:

"Atsegin dut pertsonak gauzen ikuspegi zehatza izatea, mundua ulertzeko modua izatea, ona edo txarra, berdin zait, baina bat izatea, umorea izatea. Zintzotasuna atsegin dut, baina beti ere, kalterik sortuko ez duen zintzotasuna dela baldin badakizu, beno, ezin daiteke beti zintzoa izan, zorritarrez, baina ahalik eta gehien. Independentek izatea atsegin dut".

3.2

INTELEKTUALA, AKTIBISTA ETA INKONFORMISTA

Oraingo hau, hogeita hamarreko amaiera aldean jaiotako pertsona da, gehien bat nekazaritazatik bizi zen herri batean, eta nahiko gizarte maila oneko lur-jabe txiki batzuen etxean. Bertako giroa oso autoritarioa zen, eta aita ere oso autoritarioa zen "benetako falangista", elkarrizketatuak berak esaten duen bezala. Lizentziatura Espainian egin eta gero, berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran Europako beste herrialde batzuetara joan zen, eta bertan gizarte zientziak ikasi zituen. Itzuli eta gero, hirurogeiko hamarkadaren erdialdean, ikerketa lana eta jarduera aktibista hasi zituen, pobreziarekin eta ingurumenarekin erlazionatutako hainbat gaien inguruan. Elkarrizketa egin zen garaian unibertsitate publiko bateko irakasle zen.

Hogeita hamar urte zituenean ezkondu eta handik zortzi urtera banatu zen; bikoteak zazpi eta bost urteko alabak zituen. Hasiera batean alabak amarekin geratu baziren ere, banatu eta bi edo hiru hilabetera, emazte ohiak bizitza berria hasi behar zuela erabaki zuen eta alabak aitarekin bizitzera joan ziren, eta berarekin bizi izan dira, duela denbora gutxi, hogeita sei edo hogeita zazpi urterekin, independizatu diren arte. Beraz, hamabost urtez bi alaben zainketa oso arduratu den gizonezkoa da. Denbora horretan intentsitate eta ardura bereziko garaiak bizi izan ditu, alabetako baten gaixotasuna dela eta. Esan du banatu zenetik "amodio asko" izan dituela, eta gehienak nahiko iragankorrak izan direla, bat edo beste egonkorragoa izan bada ere. Elkarrizketa egin genuen garaian ez zuen bikoterik.

Gaur egungo ikuspegitik pertsona horren bizipenak eta nondik norakoak, hogeigarren mendearen bigarren erdialdearen testuinguruan kokatuak, behatu ahal izateak, adin horretako gizonezko baten lan karrera "klasikoa" egin ez duen gizonezko batez hitz egiteko aukera ematen digu. Bere bizitzan lanak oso toki garrantzitsua betetzen badu ere, bai gizartearekiko dituen idealak burutzeko

bide gisa, eta baita nortasun pertsonala sortu ahal izateko, lanbidea ez da izan aberasteko edo agintzeko iturri, baina bai gizartean legitimotasuna lortzeko iturri. Unibertsitate munduaz oso kritiko azaltzen da, eta esaten du unibertsitatea izan dela lanaren alienazioa erakutsi dion toki bakarra: ez jakitea egiten duzunak zer baitetarako balio duen ala ez.

Bere bizitza guztia oso gaztetako sozializazio autoritarioa gainditzeko borrokatu den pertsona baten aurrean gaude, bai testuinguru sozial zabalean –frankismoa– bai familia barruan ere; bere idearioa eta bizitzarako planteamendua libertarioa da, bai familiari dagokionez bai lanari dagokionez ere. Alaben zainketa eta ardua "sozializazio berria" (del Valle, 1992) izan zen bere bizitzan, eta horrek "ama batek egiten duena" erakutsi dio eta baita "banatu ondoren, alde egiten duten eta ardua guztia emakumeen gain uzten gizonetako egiten dutena" esperimentatzeko aukera eman dio. Alaben zainketaren esperientzia horrek, bere adineko gizonetako gehienek ezagutu ez duten emozio esparrua eskaini dio.

Pertsona honek dio ez duela bereizketarik ezartzen femeninoaren eta maskulinoaren artean, zeren bere burua hau egiten ikusten baitu:

"nire alaben amaren, adiskidearen, konfidentearen eginbehar femeninoak, edo etxea eramatekoak, edo erosketak egitera jaistekoak, zeren hori nik, ustez emakumezko batek biziko lukeen bezala bizi izan baitut", eta "eta bazterketa bakarra egin duela, eta alderantzizkoa, eta ez duela inoiz nahi izan garbiketarako emakume bat izaterik, ezta emakumezko idazkaririk ere".

Hala ere, gizartearen esparrutik gizonetako eta emakumezkoen genero proiektuek duten eragin handia argi eta garbi agertzen da pertsona honek bere burua ikusten duen moduan:

"'ama' bat bezalakoa, emakumezkoaren lana bete duen gizonetako modukoa; ama ezkongabe bezalako zer bait, guraso bakarreko etxeko buru den emakumea, baina emakumezkoengan oso garrantzitsua den eduki afektibo eta emozional hori gabe, nik hori erreprimitu egin baitut"; "nire kasuan, emoziozko elementuak baztertu dituen gezurrezko emakumezkoa izango nintzateke".

Oso interesgarria da berriemaile honek erakusten digun paradoxa, zeren esan baitezakegu gure aurrean daukagun pertsona, orokorrean, oso maskulinoa dela, oso giro maskulinoetan bizi izan dena, baina pertsona aurrerakoia da, eta "amaren" tokia onartu du, horrek duen guztiarekin. Elkarrizketa egin genuen garaian pertsona hori bere bizitza birplanteatzen ari zen, alabak etxetik kanpo zeudelako eta ama duela denbora gutxi hilda zuelako. Une horretan zuen ardua nagusia lanaren mendekotasunetik, aktibismotik, desintoxikatzea zen, ordura arte horrela ikusi ez bazuen ere, une honetan hori ez dela ona uste baitu.

3.3

AITA ARDURATSUA

Berrogeita bost urteko gizonetako da, eta sei urteko semea eta bi urteko alaba ditu. Semea eta alaba jaio eta gero urte beteko lan eszedentzia eskatu zuen, haien zaintzeko. Pertsona honentzat aitasun esperientzia funtsezkoa da bere bizitzan.

Bikotekidearekin (sendagilea) eta bi seme-alabekin bizi da. Lehen hezkuntzako irakasle da, hainbat ikastetxetan aritu izan da lanean, baina azken hamabi urteotan, baterako hezkuntza alorrean

aitzindari den eskola batean ari da lanean. Eskolako gizonezko bakarra da, eta hemeretzi emakumezko daude. Etxeko lanaren %50 egiten dute berak eta bikoteak, baina berak denbora gehiago ematen du seme-alabekin, bikotekidearen lana dela eta.

Bere haurtzaroko eta gaztaroko urteetan azpimarragarriak dira oroitzapen txarrak utzi dizkieten familiako bizipenak; arazo ekonomikoen ondorioz gurasoek Euskadira etorri ziren lan bila; batez ere, azpimarragarriak dira Apaiztegian egin zituen ikasketak. Beste puntu azpimarragarri bat, beti ere emakume indartsuz inguratutik bizi izan dela da, bai bizitzako lehen urteetan (ama, amona) bai ondoren ere, lanean eta adiskidetasun harremanetan. Azken urteetan terapia bat jarraitu du, eta terapia horretan gehien landu duen alderdietako bat bere nortasun maskulinoarekin erlazioatutakoa izan da.

Lanaren, boterearen eta emozioen esparruak beti inbrikatuta daude. Hala ere, komenigarria da horietako bakoitzaren alderdi esanguratsuenak azpimarratzea, horrek inbrikazioa hobeto ikusteko aukera ematen baitu. Lan munduari dagokionez, esate baterako, esaten du bere lana, urte luzez, dirua irabazteko egiten zuen zerbait baino ez dela izan; hala ere, duela denbora gutxi, bere bizitzako alderdi orokorrean buruz berriro pentsatzeko prozesuan, bere lanbidearekiko duen jarrera aldatu egin da, eta orain uste du garrantzitsua dela eta "bere bizitza antolatzen duela". Beste alde batetik, bere lana egiten duen esparrua oso esparru feminizatua da, eta hori oso alderdi interesgarria da generoaren eraikuntzan funtsezkoak diren alderdien inguruko gogoetarako. Lehen urteetako hezkuntzaren alorrak oraindik ere emakumezkoen esku jarraitzen du, baina pertsona hau mundu horretan murgildurik dago, eta horrek gai horri buruz gogoeta egiteko aukera eman dio, aldaketa gertatu beharri eta gizonezkoek ume txikiak zaindu beharri dagokionez, praktikako ereduetan aldaketak gerta daitezten.

Boterearen esferari dagokionez, hemen ere gai interesgarriak azaltzen dizkigu, bai erlazio pertsonalen maila mikroan, bai lanaren esparruan ere. Lehenbizikoan, bikotekidearen lanbidea berea baino garrantzitsuagoa dela uste duelako, gizarte mailan duen onarpenari dagokionez eta langileari ematen dion satisfakzioari dagokionez, eta horrek dedikazio handiagoa justifikatzen du. Hemen egoera "berria" aurkitzen dugu, gure esparru sozialeko bikote harremanen artean. Beste alde batetik, pertsona honek lan egiten duen eskolan, boterea emakumezkoen esku dago; berak bere burua ez du ikusten horretarako trebe, boterea erabili behar izan duenean hala gertatu omen baita. Boterea argi eta garbi erlazioatzen du "maskulinoarekin" eta esaten du "langile gehienak oraindik ere emakumezkoak diren mundu batean, oso pertsona jakin batzuetan maskulinitasuna ikusten jarraitzen duela". Bera kide den irakaskuntzako sindikatuan ere nolabaiteko bazterketa nabaritu du gizonezko izateagatik, emakumezkoen artean eztabaidatzekoak omen ziren gaiak plantatzerakoan.

Emozioen munduan argi eta garbi azaltzen dira pertsona jakin horren bizitzaren nondik norakoaren kontraesanak, baina baita gizonezko izateko ereduetan izandako aldaketak ere. Alde batetik, pertsona horrek emakumezkoen eta gizonezkoen diskurtso bereiztailea egiten du, eta hala erretxikatzen du, baina, azpimarratzen du, baita ere:

"Berrito definitu behar dela zer den maskulinoa eta femeninoa, nik uste dut hori denborarekin definitzen joango dela, zeren, noski, orain emakumezkoek kristoren buelta eman diozue historiari, eta nik uste dut bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek ere... Baina ez dut oso argi zein motatako gizonezkoa den orain nahi duzuen, eta guk ez dakigu nolakoak izan behar dugun. Hori argi eta garbi dago".

Berak bere burua beti ere gizonezko berezi, ahul, gisa ikusi du, ez zaio inoiz futbola gustatu, ez du bete gizonezkoaren estereotipoa:

"Nik ez dut inoiz nire burua emakume gisa sentitu, eta ez dut emakume izan nahi izan eta, beste alde batetik, beraiek (bere emakume adiskide feministek) argi eta garbi utzi didate ni ez nintzela emakumea, batez ere emakumeek antolatze beharra zuten urteetan eta horrelakoetan".

Esan du bere bizitzan izan dituen ereduak "arketipo maskulinoa eta arketipo femeninoa" izan direla, baina paradoxa bat bizi izan du, bere burua ez zuelako ikusten "maskulino" izateko gaitasunarekin eta, beste alde batetik konturatu delako bere alderdi "femeninoa" gezurrezkoa zela, eta feminismora egin duen hurbiltetaren bitartez bizi izan duela. Ahulenen alde egotea baino ez dela izan. Bere aldaketa prozesuak bere maskulinitasunaren onarpenera eskatzen du.

Lehen ere esan dugun bezala, aitatasuna pertsona honen bizitzako ardatz nagusietakoa da. Aitatasun hori aurrera eramateak, ordura arte inoiz esperimentatu gabeko emozioen eta sentimenduen mundua azalertzeko aukera eman dio, zeren:

"Haur batekin bizi ditzakezu, nagusiekin, zure bikotearekin edo emaztearekin bizi ezin dituzun emozioak, ez dakit zeren papera bete behar duzulako, eta, horrez gain, ez duzulako nahi hartaz duzun mendekotasuna erakusterik eta hark hartu eta besarkatu zaitzan duzun gogo eta haur sentitzeko duzun beharra, zeren hori barneratuta baituzu, baina noski, haur batekin, bakarka uzten bazaituzte eta zure buruari horretarako baimena ematen badiozu...".

Pertsona horren esperientzian, haurrekin izan dituen emozioen bizipenak, esparru pribatutik eta aitatasunetik kanpo, hau da, eskolako munduan izandakoak, gaur egun gure gizartean funtzionatzen duten genero adierazpenak behatzeko aukera ematen digu. Adibidez, gizonezko baten eta haurren arteko ukipen fisikoaren gaiak arazoak sortzen ditu, irudi hori ez delako zainketaarekin eta arretarekin eta sentimenduen adierazpenarekin lotzen, eta guraso batzuek kexak ere aurkezten dituztelako.

3.4

LAN BIZITZA ZAPUZTUAK

Gizonezko izateko hiru modu berri ikusi ditugu, eta horiek, nolabait, bat datoz eredu horiez ditugun aurreiritziekin. Kasu honetan, lan harremanetan gertatutako egiturazko aldaketak eredu berriaren sorrera eragingo du. Nire iritziz, adibide horrek praktika sozialaren ikuspegi dinamikoak izatearen garrantziaz jabetzeko eta sozializazio berrien bitartez testuinguruko aldaketen eta norbanakoen aldaketen artean ezartzen den erlazioa ikusteko aukera ematen digu.

Gizarte industrialean, gizonezkoaren lan bizitzaren ezaugarrietako bat izan da laneko bizitza hori zela gizonezkoaren bizitza egituratzen zuen ardatza, gaztetatik hasi eta jubilatutako arte. Kasu

askotan zapuztu egin da irudi hori: mutil gaztea, tailer batean, fabrika handi batean edo lanbide independentean lanean hasten zen, gaztetatik, sarri askotan aitak eta haren aurreko gizonezkoek egindako bideari jarraituz, eta lan horretan jarraitzen zuen zahartu arte. Esan dugun bezala, irudi hori apurto egin da, betidaniko industriako lan antolakuntzaren ereduak behera egin duen heinean. Ingalaterran edo Norvegian, industriguneen desmantelamentua gertatu den lurralde batzuetan egindako azterketek (Wheelock eta Mariussen, 1997), mutil gazteen artean gizarte egitura gertatutako aldaketa horiek izan dituzten eraginak erakusten dituzte, batez ere, beraien hezkuntza jaso dituzten ereduak desagertu egin direlako, eta ez dutelako bizitzeko proiekturik sortzeko aukera emango dien lan irteerarik. Horren ondorioz, gune horietan gizartearen ugalketa arriskuan dago.

Elkarrizketak egin diren Gipuzkoako gune batzuetan ere desegituraketa ezaugarri horiek ikusi dira. Oraingoan gure protagonistak ez dira mutil gazteak, baizik eta aurre-jubilazio egoeran dauden gizonezko helduak. Hori da beraien lan bizitza zapuzturik duten eta berrogeita hamar urtetik gertu dauden gizonezko askoren kasua. Egindako bi elkarrizketetan egoera hori ikusten dugu; biak ere, gaztetan, Espainiako beste toki batzuetatik Gipuzkoara etorri ziren gizonezkoak dira, eta berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetako industriaren garapenaren inguruan azkar hazi ziren herrietan jarri ziren bizitzen, enpresa haietako batean hartu zuten lana, ezkondu ziren, seme-alabak izan zituzten eta gizonezko langilearen bizimodu klasikoa eraman dute aurre-jubilazioa heldu zaien arte. Bi kasu horietan emakumezkoak izan dira etxeko lanez arduratu direnak. Elkarrizketa egin zitzaizenean, jada bost edo sei urte zeramatzen lanik egin gabe, eta bi kasuetan ere, beraien bizitza proiektua berrosatzen eta berregituratzen ari ziren. Haietako baten hitzetan argi eta garbi hautematen dira beraien sozializazioan eta beraiak bizi diren inguru hurbilean gertatutako aldaketak.

- G.** Aurre-jubilatuta zaudenetik esan didazu baratzean aritzen zarela. Egon al da inolako aldaketarik, lehen etxean egiten ez zenituen gauzetan, lanean zeundelako eta orain egiten dituzunen artean?
- E.** Bai. Ni lehen oso lanpetuta nengoen, lan egiten nuelako. Zeren ni beti izan naiz pertsona bat, lantegian zortzi ordu egin eta bero, lantegitik irten eta beste toki batera joaten nintzena lan egitera, eta orduan, jakina, ez zegoen beste ezertarako denborarik. Baina gaur egun, niri berdina zait, zenbat bider esaten diodan emazteari. 'Eguraldi ederra egiten du, zoaz hondartzara, utzi ontziak, garbituko ditut nik'. Lanean nengoen hori ez dut inoiz egin, ezta erratza pasatu, ezta entsalada prestatu ere, eta gaur egun egiten dut".
- G.** Eta egiten duzunean zer sentitzen duzu?
- E.** Ba, hori sentitzen dut, lehen esaten nuena, pertsona probetxugarriagoa sentitzen naiz; lehen lantegian probetxugarri sentitzen nintzen, eta orain probetxugarriago, eta uste dut beste asko ere hori egin beharko luketela, eta emakumezko bat baino gehiagori agobio pixka bat kendu. Zenbatek esaten duten senarrak ez duela etxean ezer egiten.

- G.** Ba al dago zure inguruan antzeko beste adibiderik, lehen emakumezkoek egiten zituzten lanak orain gizonezkoak egiten dituztenak?
- E.** Bai. Nik batzuetan egin dut, eta gizon bat baino gehiago ere ikusten dut, aurre-jubilatuak, ataripea garbitzen, eskaileretatik erratza pasatzen, eta baita portalea urez garbitzen ere. Hori neuk ikusi dut. Etxean bertan, zorua urez garbitzen.

- G.** Zure inguruko, zure auzoko, jendeak, zure ustez nola baloratzen du hori?
- E.** Nik uste dut ongi baloratzen dutela, eta hau ere esaten dute: "nireak ere egin zezakeen, baina hortik zehar dabil, buelta bat ematen edo", "O, nireak ez, ez esan horrelakorik egiteko, zeren...".

- G.** Ikusten al duzu, baita ere, haurren zainketaz arduratzen den beste gizonezkoarik?
- E.** Bai, bai.

- G.** Eta zer egiten dute?
- E.** Ba, gutxi gorabehera, edozein aitak egiten duena, nondik nora dabilen edo zer egiten duen zaindu, edo ikastetxean zer egin behar duen, edo irakaslearekin edo tutorearekin hitz egitera joan, ba arduratu egiten dira, bai. Nik entzun diet nire lagun askori sarritan joaten direla ikastetxera seme-alaben ikasketak nola doazen jakitera, seme-alabek ezer jakin gabe.

Gizartea etengabe aldatzen ari da, eta, onerako edo txarrerako, gizartearen testuinguruek eraginda dute bizitza proiektuetan eta, betirako iraungo zuela zirudiena, bat-batean alda daiteke; pertsonak bizitzeko modu berriak bilatzen dituzte eta bakoitzak bere bidea aukeratzen du. Talde berri hori osatzen dutenetatik asko aurre-jubilatuak dira, gizonezkoak. Pertsona horien ibilbide berrien estrategiei behatzea, oso interesgarria izateaz gain, beharrezkoa da genero erlazio berriak zein modutan sortzen diren zehazteko.

4.

Amaierako iruzkina

Betidaniko gizonezkoaren irudiarekin apurtzen duten portaerak, portaera berritzaileak, erakusten dituzten bizitza zehatzen lau adibideak ikusi eta gero, amaiera gisa, eta eztabaidarako, printzipioz, beraien artean inolako erlazorik ez duten lau kasuren plasmazioak erakusten duen heterogeneotasunaren arteko lotura puntuak ezartzeko aukera emango diguten zenbait galdera. Azpimarratu nahi dudan lehenbiziko alderdia lehen ere esan duguna da, gizonezko izateko moduan eredu berrien sorreraren aurrean gauden, ala, ondoren defendatuko dudan bezala, kontua beste bat den; pertsona horien eta beste batzuen bizitzan, gizartean egoteko modu berrietara eramaten dituzten zenbait ezaugarri eta bizipen berritzaile agertzen dira, baina jada eratuta dauden ereduak osatu gabe. Behar bada, adibide bakoitzak ustezko eredu horren zati bat, pieza bat, ematen du, eta guztien batuketak, hori posible balitz eta nahi izango bagenu, portaera maskulino

ezin hobearren erretratu erroberta sortuko luke: lehen adibidean ikusten den autonomia; bigarren adibidean agertzen zaigun borrokalaria inkonformista; maskulinitasun eredu berrien bilaketa eta aitasun sentimenduen adierazpenean ikusten dugun samurtasuna hirugarrenean edo laugarren adibidean, baliabide intelektual eta ekonomiko mugatuak dituzten pertsonengan ikusten dugun bizitzeko jarrerak aldatzeko sendotasuna.

Kontuan izan beharreko beste alderdi bat, aztertu ditugun adibide horietan, aurreko atal batean planteatu diren oinarritzko premisak betetzen diren ala ez ikustea da, eredu berriez edo portaera antisexistez hitz egin ahal dezagun. Aurreko gaiarekin gertatzen zen bezala, nire iritziz, adierazle batzuk kasu batzuetan betetzen dira, baina ez besteetan. Orokorrean, bai hemen aurkeztutako adibideetan eta baita egindako ikerketako beste batzuetan ere, ideologia aurrerakoa, emakume orok bere lan jarduera aurrera eramateko duen eskubidearen aldeko jarrerarekin erlazionatzen da; horrekin batera, etxeko lanen banaketaren ardura onartzen da, baina beste gauza bat praktikan banaketa hori zuzena den ala ez ikustea da. Ideologia aurrerakoiak berarekin darama, baita ere, pro-feminista eta pro-homosexuala izatea, teoriarik bederen, baina zailagoa da borroka horretan dagoen konpromiso indibidual maila zehaztea.

Nire ustez, premisa horietako bi ez dira planteatzen edo ez dira agertzen, argitasunez bederen, hemen ikusi ditugun lau adibideetan, ezta ikerketako beste batzuetan ere. Lehenbizikoa, munduaz dagoen ikuspegi dikotomikoari buruzkoa da, gizonezko eta emakumezko izateari dagokionez eta kategoria horiek dituzten roleri dagokienez; lehen adibidean alderdi hori zalantzan jartzen da, hirugarren adibidean ardura handia sortzen du, baina bai azken horretan eta baita beste adibide batzuetan ere, azpian badago planteamendu bat, eta planteamendu horretan, "femeninoak" eta "maskulinoak", ustez mundua banatuta dagoen bi talde handi horiei egozten zaizkien praktika eta jarrera multzoa osatzen dute. Mundua ustez eratzen duten bi talde handiak gizonezkoak eta emakumezkoak dira. Gai horrekin erlazionaturik, nire ustez oraindik bide luzea egin behar da dualismo hori apurtzeko eta, errealitatean egoteko modu askoz eta ugari osatutako errealitatearen existentzia planteatzeko. Apurketa horrek, gaur egun sortzen ari diren eredu ugariak ikusteko eta errealitatea egiteko aukera emango liguke, bai gizonezkoei eta baita emakumezkoei ere.

Aurrekoarekin batera, Michael Floodek (1995) aipatzen duen beste alderdi bat dago: pro-maskulino izatea, gizonezkoekiko positiboa izatea bezala ulertuz, gizonezkoak aldatu daitezkeela uste izatea, eta gizonezko bakoitzak aldaketa positiboa lortzeko egiten duen lanari laguntzea. Hori ere ez da ikusten hemen erakutsi ditugun adibideetan, ezta egindako ikerketan ere, orokorrean. Beraz, badirudi ez dela gertatzen ari mota horretako mugimendurik. Baina, hala ere, agertzen dira mugimendu hori agertzearen beharra adierazten duten iruzkinak. Gai horrekin erlazionatuta, kontuan izan behar da Mugimendu Feministaren eragina izan dela, emakumezkoak beraiek gizaratean egoteko duten modua planteatzera bultzatu dituen, eta hori genero erlazioen aldaketaren planteamendurako motorea izan da. Hala ere, gizonen artean ez da horrelako prozesurik gertatu, behar bada eredu femeninoak dituen ezaugarrien ondorioz. Horrek gizonezkoak beraiek barne dinamikatik urrundu ditu, eta gizonezkoen artean ez da sortu antzeko mugimendurik, ezta bi sexuak biltzen duen mugimendurik ere.

Honaino heldu da portaera berriak profil maskulino berriek bete behariko lituzketen premisetara zenbateraino egokitzen diren inguruko lehen zatia. Hemendik aurrera, profil horiek inguratzen di-

tuzten testuinguruekin erlazionatutako zenbait gai landuko ditut, hau da: egoera batzuk lagungarri al dira portaera berri horiek sortzeko eta jarrera maskulinoetan aldaketak eragiteko?

Lehen alderdia adinarena da, zeren, gure gizartean azken hogeita bost urteotan gertatu izan diren aldaketak direla eta, badirudi logikoa dela planteatzea aldaketa jarrerak nabarmenagoak direla gazteen artean; hala ere, datuek ez dute hori baieztatzen, behar bada gazte horien bizitzak dituen baldintzen ondorioz: ikerketan parte hartu duten gazte asko oraindik ere gurasoen etxean bizi dira eta hango arabei jarraituz ari dira. Hala ere, esan behar da genero jarrera aurrerakoia hautematen dela etorkizunerako dituzten espektatibetan.

Kontuan izan beharreko beste alderdi bat, pertsona horien bizitza inguratu edo inguratzen duten erreferentziazko ereduak dira. Horrekin erlazionatuz, azpimarratu behar da gazteek gaur egun, adinez nagusiagoak diren pertsonak izan zituztenak baino erreferentziazko eredu gehiago dituztela, eta eredu aniztasun hori oso garrantzitsua dela, zeren, eragin handia baitute, edo izan baitezakete, sozializazio prozesuetan edo sozializazio berrietan. Aurretik erakutsitako adibideetan, aita autoritarioaren edo mendean dagoen amaren irudia negatibo gisa agertzen dira, eta, berriz, haur txikien gizonezko irakasleak, afektibitatearen aldetik hurbiltasuna eskaini zuten aitona edo ama indartsuak oso eredu positiboak dira.

Erlazioen testuinguruak ere oso garrantzitsuak dira, bai adiskideen munduari dagokionez eta baita bikote harremani dagokienez ere. Testuinguru batzuetan araua apurtzen duten portaera eta jarrera berriak garatzen dira, baina ez beste batzuetan.

Azkenik, kontuan izan beharreko beste testuinguru bat lanekoa da. Badakigu badirela lan esparru "gogorrak" eta badirudi esparru horietan zailagoa dela maskulinitasun hegemonikoari dagozkionak ez diren jarrerak eta portaerak garatzea. Aurkeztutako adibideetan ikusten ditugun lan munduei behatzen badiegu honako hau aurkituko dugu: artearen mundua, giro intelektuala, irakaskuntza eta oso lan jarduera "maskulinoarekin" gertatutako hausketa. Horrela, planteatu dezakegu espazio mota horiek maskulinitasun modu berrien sorrera bultzatzen dutela. Beste alde batetik, esan behar da, baita ere, esparru gogor horiek gune feminizatuetan ere aurkitzen ditugula, lehen hezkuntzaren munduan, esate baterako.

Nik planteatzen dut beharrezkoa dela lan espazio bakoitzean funtzionatzen duten genero erregimen zehatzak ezagutzea, zeren horrek aukera emango baitigu, adibidez irakaskuntza bezalako testuinguruetan, aldaketa sakona gertatzeko dauden zailtasunak aztertzeko. Hirugarren adibidean ikusi dugun bezala, oso esanguratsua da baterako hezkuntzaren alorrean sentsibilitate berezia duen ikastetxe batean, hogeit langiletatik hemeretzi emakumezkoak izatea; nire iritziz, haurren sozializazioan eta genero adierazpenetan aldaketak gerta daitezten, beharrezkoa da eredu horiek aldatzea. Baina badirudi hori ez dela gertatzen ari, gaur egungo lan egoera kontuan hartzen badugu. Lan egoera horretan, neska gazte askok aurkitzen dituzten lan bakarrak zainketarekin eta garbitasunarekin erlazionatutako lanak dira, eta mutil gazteek betidanik gizonezkoek egin dituzten lanbideetan jarraitzen dute.

Beharrezkoa da dinamika horietan aldaketa sakona sartzea, zeren, hori gertatzen ez bada, gizarte dikotomiko ereduak ugaltzen jarraituko baitu, toki berezietekin eta hierarkizatuekin, eta horrek eragin zuzena du, bai makro eta bai mikro mailan ere, eredu maskulino berriek sortzeko eta hedatzeko giro egokia aurkitzeko orduan.

Bibliografía

- ARRAIZA, M.V., 1998, "La identidad masculina: del privilegio del "ser" al yo cuestionado", *INGURUAK-en* (Revista Vasca de Sociología y Ciencia Política) 22, 31-45. orr.
- CONNELL, R.W., 1987, *Gender and Power: Society, the Person and Sexual Politics*. Cambridge: Polity Press.
- CONNELL, R.W., 1995, *Masculinities*, Berkeley: University of California Press.
- CONNELL, R.W., 1997, "La organización social de la masculinidad", in Teresa Valdés eta José Olavarría (eds.), *Masculinidades. Poder y Crisis*. Chile: Isis Internacional.
- del VALLE, T., 1992, "Mujer y nuevas socializaciones: su relación con el poder y el cambio" in *KO-BIE* nº VI, Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.
- DÍAZ MARTÍNEZ, C., 1996, *El presente de su futuro: modelos de autopercepción y de vida entre los adolescentes españoles*, Madril: Siglo XXI.
- DÍEZ MINTEGUI, C., 1993, *Relaciones de género en Donostialdea y en la Rivera de Navarra. Actividad laboral y cambio*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Doktoretza Tesien saila.
- DÍEZ MINTEGUI, C., 1996, "Deporte y construcción de las relaciones de género", *Gazeta de Antropología*-n 12 zk., 93-100. orr.
- DÍEZ MINTEGUI, C., 1996, "Relaciones y estrategias "dentro" y "entre" grupos domésticos", D. Comas (coord.), *Familia, herencia y derecho consuetudinarios-en*, Zaragoza: VII Congreso de Antropología.
- ESTEBAN, M.L., 1998, "¿Y los hombres?", *INGURUAK-en* (Revista Vasca de Sociología y Ciencia Política) 22, 15-29. orr.
- ESTEBAN, M.L., DÍEZ, C., 1999, "Introducción" in *Antropología feminista: Desafíos teóricos y metodológicos*, Donostia: ANKULEGI.
- FLOOD, M., (1995), "Three principles for men", in *XY: men, sex, politics*, Laura E. Asturiasek itzulia. Internetez lortua:
WWW.europofem.org/02-info/22contri/2.05.es/2es.masc/53_mas.htm
- HARAWAY, D., 1991, "'Género' para un diccionario marxista: la política sexual de una palabra", *Ciencia, Cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza-n*, Madril: Cátedra.
- ORTEGA, F. VV.AA., 1993, *La flotante identidad sexual. La construcción del género en la vida cotidiana de la juventud*. Madril: UC-ren Instituto de Investigación Feminista./Dirección General de la Mujer.
- SALTZMAN, J., 1992, *Equidad y género*, Madril: Cátedra.
- WHEELOCK, J. eta A. MARIUSSEN, 1997, *Households, Work and Economic Change: A Comparative Institutional Perspective*. Boston: Kluwer.

**GOTZON BARAIAETXABURU
ARTETXE**

**Azterketa Soziologikoetarako
Kabineteko Zuzendaria.
"Kualitate Lantaldea". Bilbao**

Rolen

elkarbizitza eta

berregituratzea

Laburpena

Ponentziaren hizpidea emakumeek bultzatzen ari diren aldaketa sozialak gizonengan duen eragina aztertzea da, eta horretarako, ikerketa kualitatibo desberdinetatik ateratako materiala erabiliko da.

Emakumeek berdintasun handiagoa behar dutelako egiten ari diren eskaerez gizonak erabat jakitun direla hartu da abiapuntutzat. Eskaera horrek izaera sozial nabarmena du eta, neurri txikiagotan, pertsonala eta norbanakoarena; hots, jende askok badaki desberdintasunak daudela eta non dauden (lanean, kulturen edo politikan), baina gutxiago dira bere burua aztertu eta eguneroko elkartzaren arabera harreman pertsonaletan gertatzen ari diren edo gertatu beharko liratekeen aldaketak adierazten dituztenak.

Azken buruan, gizonak badakite matxistak direla, abantailak dituzten egoera pertsonalak zeintzuk diren badakite eta ez daude boterea uzteko prest. Mekanismo asko erabiltzen dira aldaketak saihestearren; azterketa honetan hiru arlotako esperientzietan oinarrituko gara bereziki: etxeko lanak, amatasuna eta ezkontidearekiko harremanak. Honez gain, belaunaldien arabera autoperzeptzio desberdinak nabarmenduko dira, eta ikusiko dugunez gazteenek planteamendu zaharkituak mespretxatzen dituzten arren, eroso daude desberdintasun nagusiak kendu direlako ustean eta beraiek ez daukatela zeregin handirik sinestuz.

Azkenik, garapenaren ikuspuntutik hausnarketa egingo dugu, eta etxeko eta afektibitatearen esparruko jarrearen aldaketa kokatuko da; izan ere, esparru honetan boterea lagatzeaz gain, gizonak aitatasuna edo sentsibilitatea bezalako aldeak berriz ezagutzen hasi dira. Gizonak aldatuz doaz emakumeen presioaren bidez, baina hobe litzateke beraiek zuzenduko balute euren aldaketa.



1.

Atarikoa

Ondoren azalduko ditudan gogoeta eta ondorio gehienek "Kualitate Lantaldeak" Emakunde-arentzat egindako ikerketa kualitatibo desberdinetan dute jatorria. Horietako bat "Transformazioak emakumeek gizartean duten zereginean. Análisi kualitatiboa Euskadin" izenekoa da eta 1995. urteko azaroan argitaratu zen. Bestea, berriz, "Portaera maskulino eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazteetan" 2000. urteko uztailan argitaratua.

Ikerketen xedea desberdina zen, baina biak rol maskulino nahiz femeninoetan gertatzen ari diren aldaketak ulertzen saiatzen dira eta aldaketa hori errazten duten elementuak edo, alderantziz, aldaketaren eragina neutralizatzen duten elementuak bereziki aztertzen dituzte. Bi kasuetan bereziki azpimarratzen da emakumeengan izaten duen eragina, haien baitira neurri handi batean aldaketa horiek eragiten eta bultzatzen ari direnak. Gizonak aldaketa horien ikusle moduan agertzen dira, batzuetan ikusten dutenarekin gustura, baina gehienetan nahastuta, beren zeregin tradizionalak zalantzan jartzen baitira.

Biltzar hau, "gizonak eta gizarte ordena sozial berria", testuinguru hobezina da txostenetan jasotzen diren gizonen iritzia aztertzeko, eta sakonki analizatzeko gizonekin zer gertatzen ari den eta emakumeek eskatzen dizkiguten zeregin berrien aurrean nola sentitzen garen.

2.

Gogoeta esparrua

Hasiera-hasieratik garbi utzi beharreko premisa batzuk badira, genero gaiaren inguruan egindako ikerketa guztietan sistematikoki agertzen direlako:

- Emakumeak gizonak baino azkarrago bilakatu dira berdintasun ideia inguruan.
- Gizonak jabetzen dira eguneroko bizitzako hainbat esparrutan emakumeek jasaten duten diskriminazioaz.
- Gizonak berdintasuna onartzen badute ere, gehiago da egokitze beharrak eraginda ("ez duzu beste erremediorik") kontzientziazioaren ondorioz baino ("berdinak izateko gogo").
- Gizonentzat logikoa da, eta beharrezkoa, emakumeak asaldatzea, baina beraiek ematen dituen laguntza arrazionala besterik ez da, inplikaziorik gabekoa.

Premisa hauek ondorio nahiko ezkorretara eramaten gaituzte berdintasuna lortzeko helburuari dagokionez: berdintasunaren aldeko borrokan emakumeak dira beren aldetik zerbait jartzen ari direnak, gizonak atzetik "atoian" doazen bitartean. Batera ezintasun horren arazoak bilatzen baditugu ondorio hau ateratzen dugu: gizonak ez zaie aldaketa interesatzen, beraien maila jaitsi egiten delako. Beraz, beste modu batean esanda, gaur egun bizitzaren arlo gehienetan duen botere maila galtzeari uko egiten dio argi eta garbi.

Interpretazio hau gutxitan egiten da hain modu garbi eta salatzailean, baina, garbi dago gaur egun gizon askok ez dutela bere portaera aldatu nahi, eta gutxiago beren jarrera. Inmobilismo horren arazoietako bat hau izan daiteke: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna gizonen pribilegio galtzarekin identifikatu da eta ez, ordea, beste alderdi berri batzuen aurkikuntzarekin, adi-

bidez, elkarrekin hazi, heldu eta osatzearekin. Beharbada beharrezkoa izango da diskurtso sozial baikorrakoak, pentsamolde erakargarriagoak lantzea gizonak aldaketa horiek burutu ditzaten eta "gizontasun" eredu berri baten bidean sar daitezten lortzeko.

Gizonen kexu arruntenetako bat hau da: aldaketaren eredu izan daitezkeen erreferente gutxi ditzutela eta bidea erakutsiko dieten jarraibiderik ez dutela. Baina, egian esan, aldatzeko hain gogo gutxi dutenez, zailtasun handiak izango dituzte ahalegin bat suposatzen duten edo gizonen eta emakumeen arteko orekaren ikuspegi berezi hori aldatzen saiatuko diren ideiak onartzeko.

3.

Gizonen aldatzeko gogorik ez

Aztertu egin beharko litzateke gizonen nola adierazten duten aldatzeko gogorik ez dutela, ezin bestekoa baita ideia hori garatzen lagundu duen sakoneko egitura mentala ulertzeko. Ondoren azalduko ditugu defentsarako estrategia gisa erabiltzen diren 8 argudio:

- "Emakumeak jadanik emantzipatuta daude": Gizon helduen artean asko erabiltzen den argudioa da: berdintasuna jadanik lortu da, emakume asko lan munduan sartuta daude eta "batzuk goi mailako karguetan" gainera.
- "Beraiek egin ezin dituzten lan asko daude": Indar fisikoa da beste argudio klasikoetako bat. Indar fisikoa balioaren zeinu da eta, ondorioz, emakumeen errebindikazioak zalantzan jartzeko arrazoi bat. Kamioilariaren edo bonbona banatzailearen adibideek garbi uzten dute, batzuen ustez, emakumeak ez direla lan guztiak egiteko gai, eta gizonak, berriz, bai.
- "Beraiek egin nahi ez dituzten lan asko daude": Zenbait lan ezatseginak izan ohi dira eta inork ez ditu egin nahi. Orain artean gizonen bete dituzte lan horiek, eta emakumeek lan horiek egiteko duten asmoa zalantzan jartzen da. Horrekin, hain zuzen, bizitasuna kendu nahi zaio emakumeek lan munduko maila baxuenetatik igaro gabe, estatus sozial altuko lanak lortzeko itxaropenari.
- "Gizonen gainetik agindu nahi dute": Gizonak bere egoera pribilegiatuan ordezkatua izan nahi ez duela islatzen du, batez ere beste baten azpitik egoteak esan nahi duen egoera negatiboari dagokionez. Kasu hauetan asko erabili ohi den irudia gizonaren gainetik dagoen eta hura alde batera usten duen feminista erradikala da.
- "Gauza batzuetan bakarrik aldatu nahi dute": Egoera batzuetan beren desberdintasunetik onurak lortzen dituzte emakumeek; emakumeekiko adeitasuna adieraztea adibidez (emakumei "atea zabaltzea", "lekua uztea", "loreak oparitzea", "arreta berezia ematea"). Emakumeek dituzten pribilegio horiek emakumeen errebindikazioen seriotasuna zalantzan jartzeko erabiltzen dira.
- "Gazteen artean ez dago desberdintasunik": Gazte askok erabiltzen dute argudio hau, aurrekoekin alderatuta beren belaunaldia asko hobetu dela esanez. Zentzu honetan, desberdinta-

sun eta diskriminazio egoera gehienak desagerraraztea lortu duen belaunaldi gisa agertzen da.

- "Emakumeek etxean agintzen dute": Botereak parean jarri eta bakoitzari tradizioz izan ohi duen leku naturala ematean datza; emakumeentzat bizitzaren alde pribatua eta gizonentzat alde publikoa. Euskadin emakumeen matriarkatuak indar handia izan duenez, interpretazio hori arrazoituta geratzen da eta errealitate hori mantentzeko asmoak izaera "antropologikoa" hartzen du.
- "Berdintasun prozesuak harian-harian gertatu behar du": hau defendatzen dutenak, gizarteak irakatsitako portaera matxista jakin batzuk aldatzeko gizonak dituzten zailtasunetan oinarritzen dira. Gazteek ere erraz erabiltzen dute argudio hau horren errurik handiena beren amak direla esanez, guztia eginda aurkitzen duten bizimodu eroso batera ohitu dituztelako.

Argudio hauek erabiliz emakumeek egiten dizkieten kritikei aurre egiten diete gizonak eta haiekin alderatzeko aukera ematen diete, betidanik boterea izan dutenak gizonak direla eta hura galtzeko beldurra dutela aitortu behar izan gabe.

Baina argudio horietako askok ez dute orain garai batean izan zuten pisurik. Indarra galtzen joan dira eta gizon asko horren aurka agertu dira. Defentsak asko ahuldu direnez emakumeen kritikei aurre egiteko metodo burutsu eta landuagoak erabiltzen hasi dira gizonak. Diskurtso politikoki zuzena deitzen dena, alegia.

Estrategia horrek mezu bikoitz bat erreproduzitzean du: alde batetik, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde dagoela onartzea gizartearen aurrean, eta bestetik, norberak horretan lagunduko duen inolako aldaketarik ez egitea. Hau da, gizartean berdintasun maila handiagoak lortzearen aldeko diskurtsoa egiten badu ere, jarrera eta portaeretan erresistentzia azaltzea. Kanpoan baietz esaten du baina barrutik ez du ezer aldatzen.

Hots, jarrerak indartu egin dira, baina arrazionalki mozorrotzen dira gizarteak onartuko duen moduan agertzeko. Indartze horren isla dira sarritan erabiltzen diren roletako batzuk:

"BIKTIMAREN ROLA"

"Gaur egun ez dakigu nolako harremanak izan, xamurra eta gogorra izan behar da, baina hori bai, beraiek eskatzen dutenean".

"Edozer gauzogatik matxista txartela jartzen digute, esandako hitz bakoitza ondo neurtu behar da".

"Gutxietsi egiten gaituzte, ezertarako balioko ez bagenuke bezala tratatzen gaituzte".

"Nik bera baino ordu gehiago egiten dut lan eta etxera iristen naizenean lagundu egin behar gai-nera, bestela muturrak".

"SALATZAILEAREN ROLA"

"Lan egiteko afanarekin amatasuna galtzen ari da".

"Familia giroa ez da lehengoa, funtzionalagoa da. Familiako oreka hautsi da".

"Emakumeak ez du kohesioa lortzeko eta elkartzeko zeregina jadanik beregain hartzen".

"Sentsibilitatea galtzen ari da lehiakorragoa izateko".

"Garai bateko amaren indar moralik ez dute oraingo emakumeek".

"ERRUGABEAREN ROLA"

"Matxista zertan zaren esan diezazutela".

"Berdintasun eza non dagoen ikusten lagun zaitzatela".

"Aldatzen lagundu behar digute".

"Beraien arazoa da eta transmititzen jakin behar dute".

4.

Elkarbizitza eta rolen berregituraketa

Diskurtso sozialaren mailan gertatu diren aldaketak, oraindik, ez dira gizonengan berdintasunaren aldeko defentsa erreakzioak eragiteko adina errotu. Horrek ez du, ordea, egia islatzen, asko baitira transformazio prozesu bat hasi duten gizonak, maskulinitasunari buruzko iritzi batzuetan islatuta geratu ez bada ere.

Gizonei beren barnean edo esparru pribatuan gertatzen ari zaiena analizatu eta ulertzea interesatzen zaigu; emakumei dagokionez gertatzen ari zaien transformazioa, gertatzen ari bada behintzat. Esparru jakin horretan, hain zuzen, erantzukizuna ez da genero maskulinoaren ore nahasi horretan urtzen: gizon bakoitzari dagokio pertsona den neurrian. Horregatik da hain garrantzitsua zer gertatzen ari den jakitea, hor gertatzen baita benetako rol aldaketa, berdintasuna neurri politikoak, judizialak eta lan mundukoak (denak kanpokoak) errebindikatzea baino zerbaiz gehiago dela frogatzen duena. Hor erakusten da eguneroko bizitzan berdintasuna lortu behar denaren aldeko jarrera eta inplikazioa. Esparru horretan gertatzen baita aldaketaren aurkako eta sortzen ari diren balore berrien aldeko irizpideen arteko borroka.

Prozesu hau hobeto ulertzeko, esparru pribatuan berezkoak diren hiru alderditan gertatzen ari diren aldaketak aztertuko ditugu: etxeko lanak, amatasun/aitatasuna eta ezkontideen arteko harremanak.

GIZONEN BILAKAERA ETXEKO LANAK EGITEARI DAGOKIONEZ: Gero eta gehiago dira etxeko lanak egiten "laguntzen" dutenak, prozesu hori emakumeek nahi luketen bezain eraginkorra ez dela esan behar bada ere. Bestalde, gizonen artean sentsazio bat orokorra da: benetan laguntzen dutena baino gehiago laguntzen dutela uste dute. Gizonek gehien egiten dituzten lanak aztertzen baditugu, hiru esparrutan biltzen direla ikusiko dugu, kanpoarekin zerikusia dutenak eta ondorioz errazago egiten direnak, eta barneko aldaketa suposatzen dutenez onartzen zailagoak direnak:

- Kanpoarekin zerikusia dutenak: bazkaria egitea, ontziak garbitzea, zurgagailua pasatzea, erosketak egitea, haurrak paseatzera eramatea, etab.
- Tartekoak: Hautsa kentzea, arropa esekitzea, garbitasun orokorra, haurrak aldatu - bainatu - jantzi, etab.

- Barneko aldaketa suposatzen dutenak: Plantxatzea, labadora jartzea, bainugelak, kristalak, axuleiuk, lanparak, etab. garbitzea, etab.

Bilakaera garbia da: Gizonentzat errazagoa da gizartean nolabait onartu diren eta ahalegin gutxiago eskatzeaz gain, lan gisa onartu ohi diren jarduerak egitea; eta, aldiz, zailagoa ezatsegiragoak eta zailagoak izateaz gain emakumeen lan gisa ikusten direlako sozialki hain onartuta ez dauden jarduerak egitea.

Zeregina, gehienetan, ez dute gizonek beraiek euren kasa onartzen, emakumeen presioak behar hartzen du. Gazteen artean gero eta gehiago antzematen da etxeko lanak erdibana eta adostasunez banatzeko joera baina denborarekin lan gehienak emakumearen eskuetan geratzen joaten dira.

GIZONEN BILAKAERA AITA ROLARI DAGOKIONEZ: Gizonen aitatasuna da inplikazio gehien lortzen ari den esparrua. Gehien eskatzen den alderdietako bat da eta, dirudenez, aldaketa handienak ere esparru horretan gertatzen ari dira. Gizonek beren aitatasuna errebindikatzen dute, askotan zeregin hori nola burutu ez badakite ere (beren gurasoetan ez baitute erreferenterik aurkitzen). Esparru honetan ere gizonak kanpoko gauzetatik hasi dira eta gero barneko gauzetara igaro dira:

- "Laguntza": Haur-oihalak aldatzea, haurrak bainatzea, biberoia ematea, lo araztea, hurrei arreta emateko jaikitzea, etab.
- "Jarrerak": afektibitatea, sentsibilitatea, laztanak, gorputz jokoak, etab.
- "Konpromisoa": haurren hezkuntza zereginak maila guztietan elkarbanatzea, aginte rola edo rol ludikoak (gizonetan klasikoak) ez diren beste batzuk betez eta guztiz inplikatu.

Aitatasunari dagokionez konpromiso eta inplikazio fenomeno hori azalduko duten arrazoen artean hauek egon daitezke: a priori behintzat, beste zenbait jarduera baino atsegiragoak izatea –garbitzea, kasu–, edo ageriko onura gehiago izatea, adibidez seme-alaben esker ona edo barneko alderdi hau ezagutzera ematea (afektuak, sentsibilitatea, emozioen adierazpena, etab.); edo, zergatik ez, iragarkietan islatzen duten gizon modernoaren ereduaren antza izatea. Alderdi hauetan sartuz gero errazagoa egiten da etxeko lanaren beste alderdi batzuetan sartzea.

GIZONEN BILAKAERA EZKONTIDEEN ARTEKO HARREMANETAN: Gizonek zailtasun handiak dituzte esparru honetan garatzeko. Belaunaldi gazteenek bikotearekin esperientziak elkarbanatzeko eta proiektuak sortzeko joera badute ere, belaunaldi asko dira itxaropenak bateratzeko zailtasunak nahiz ulermen arazoak dituztenak.

Harreman maila desberdinen analisisia egin ondoren honakoa da panorama:

- Planteamendu arrazionala: Bikote harremana hor dagoela eta zaindu egin behar dela, desberdintasunak ekidin behar direla, bakoitzaren funtzioak norberaren gain hartu behar direla, erantzukizuna norberaren gain hartu behar dela, etab. ulertzea.
- Planteamendu funtzionala: Uneak elkarbanatzeko, bizipenak komunikatu eta adierazteko eta bikotearen garapen pertsonala sustatzeko gai izatea.
- Planteamendu emozionala: Bikotea proiektu komuna duten bi pertsonak osatzen dutela ulertzea, sentsibilitatea eta afektibitatea adieraztea, bestearen tokian jartzeko gaitasuna garatzea, harremaneko bizipenetan inplikatzeko, etab.

Gizonek esparru honetan abilezia gutxi dutela argudiatu ohi dute, eta honako arrazoia ematen dute: sentimenduen munduan mugitzeko zailtasunak dituzte. Zaila egiten zaie gertatzen zaiena hitzez adieraztea erreferenterik ez dutelako, eta, batez ere, bizitzaren beste esparru batzuetan beren barneko mundua azaltzea ahalbidetzen dieten bizipenen esperientziarik ez dutelako.

5.

Gazteenen jarrerak berdintasunaren aurrean

Gizonak esparru pribatuko hainbat arlotan izan duen bilakaera aztertu ondoren, belaunaldi gazteenek, hau da, oraindik familia gune independente bat osatu ez duten haiek horri buruz dituzten joerak eta iritziak biltzea garrantzitsua da, sexu berdintasunari dagokionez gauzak nola garatu ahal izango diren islatuko baitute.

Azken ikerketetan lortutako emaitzetatik lehenik azpimarratu beharrekoa da gazteek desberdintasun eta diskriminazio planteamenduak ez dituztela kontuan ere izaten. Berdinak sentitzen dira, batez ere beren gurasoen belaunaldiekin alderatuta. Mutilek nahiz neskek esparru askotan berdintasuna lortuta dagoela uste dute (lan munduan, lege esparruan, politikan, etab.) eta oraindik lortu ez den esparruetan, hartu beharreko bideak finkatuta eta neurriak hartuta daude. Belaunaldi honek, beraz, berdintasuna esparru publikoari dagokionez bakarrik du kontuan, eta ikuspuntu horretatik, lortutakoaren irakurketa oso positiboa egiten du.

Gazteriak azaltzen duen segurtasun hori urratu egiten da esparru desberdinetan bi alderdiek dituzten portaerak eta jarrerak aztertzen hasten direnean. Une horretan egoera jakin batzuk sakonki aztertzen direnean, berdintasuna hain erreala ez dela konturatzen direnean, alegia, desberdintasunak agertzen dira, batzuetan diskriminazio kasu garbietan oinarritutakoak gainera.

"Kanpotik ez da ezer gertatzen" baina "barnean desberdintasunak asko dira" paradoxa horretan, hain zuzen, gauza bat oso deigarria da: ez da posible desberdintasun horiek zehazki non dauden eta neska nahiz mutilen garapen osoa nola mugatzen duten zehaztea. Beharrezkoa da, beraz, desberdintasun hauek publikoak egitea.

Ondoren desberdintasun horietako batzuk azalduko ditugu hiru esparru desberdinetan: familian, lagunartean eta bikotean.

DESBERDINTASUNAK FAMILIA GIROAN:

- Semeak edo alabak jasotako tratuan desberdintasunak daude. Neskek konplizitate gehiago dute amarekin (konfidentziak, afektua, etab.) eta mutilek jarduerak elkarrekin banatzen dituzte.
- Neskak gehiago kontrolatzen ditu familiak (ordutegiak, mugimenduak, etab.)
- Etorkizunean haiengandik itxarongo dena desberdina da: mutilentzat prestigio soziala bilatzen da.
- Zereginen banaketa desberdina da: neskei erantzukizun gehiago ematen zaizkie.

DESBERDINTASUNAK LAGUNARTEAN:

- Lagunartean zirkuituak nesKentzat eta mutilentzat bereizten dira. Harreman eredu, elkarriketa gai, etab. desberdinak finkatuta egon ohi dira.
- Lagunartean jarduera desberdinak antolatzen dira bi sexuentzat. Mutilak futboleko jolasteko edo kirola egiteko elkartzen dira eta neskak kafe bat hartzeko edo erosketak egiteko.
- Balio desberdinak ematen zaizkie. Mutilak gizartean hobeto moldatzen dira eta neskak afektuen munduan.
- Aurreiritzi eta estereotipo sexistak mantentzen dira. Mutilak parranda zaleak, atseginak eta astakiloak dira, eta neskak, berriz, erretxinak eta berritsuak dira eta beraien artean arazo gehiago izan ohi dituzte.

DESBERDINTASUNAK BIKOTEAN:

- Afektuen pisua nesKengan erortzen da. Mutilek zailtasun gehiago dute komunikazioaren esparru pertsonal eta barnekoan inplikatzeke.
- Seme-alabak amari lotuta daudela ulertzen da. NesKentzat ama izatea emakume izatearekin eta emakume gisa errealizatzearekin lotuta dago.
- "Bikote proiektua"k inplikazio desberdinak ditu nesKarentzat eta mutilarentzat. Mutilek egonkortasunari, lasaitasunari eta orekari ematen diote balioa eta neskek maitasunari eta ulermenari.
- Bikoteak estereotipo tradizionalak erreproduzitzeko joera du. Neskak beren esparru afektiboan eta mutilak esparru sozialean.

Desberdintasun multzo hau kanporatzen denean erreakzio desberdinak eragiten ditu nesken eta mutilengan. Nesken jarrera aktiboagoa da, kaltetan ateratzen direla ulertzen dutelako eta hori ekiditeko modu bakarra aldaketak eragitea dela ba dakitelako. Mutilak berriz, pasiboagoak agertzen dira. Berriz ere emakumeak aldaketen eragile moduan aurkitzen ditugu eta gizonak erreze-lozko jarreretan murgilduta. Baina hori bai, ez dute mutil guztiek jarrera berdina azaltzen. Tipologia desberdinak bereizi behar dira:

ALDATU NAHI EZ DUEN GAZTEA:

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeagatiko goganbeharra adierazten du, berari onurarik ekarriko ez diola ikusten duelako. Feministen mugimenduak kritikatzeko eta barregarri jartzen ditu. Desberdintasuna bera ere zalantzan jartzen du.

ALDAKETA ONARTZEN DUEN GAZTEA:

- Pasiboa: aldatzeko beharra onartzen du, gizartean zalantzan jartzen ez den zerbait delako, baina ez du inolako ekimenik burutzen berdintasun gehiago lortzeko. Zereginetan laguntzen du baina eskatzen badiote bakarrik.

-
- Itunetarako prest: aldaketaren ebidentzia onartzen du, neska/mutilak eskema berriekin funtzionatzen hasi diren belaunaldi bateko kide dela onartzen du eta, ondorioz, negoziatzeko eta itunak egiteko prest agertzen da.
 - Aldaketa errazten duena: inplikatzera zuzendutako joera eta jarrera malguak ditu baina arrazoi desberdinengatik ez du aldaketaren eragile aktibo bihurtzeko erremintarik (esperientziarik, bizipenik, erreferenterik, etab.).

ALDAKETAREN ALDEKO GAZTEA:

Berdintasuna beharrezkoa dela ulertzen du, nesken eta mutilen arteko "diferentzia" askok azpian diskriminazioak dituztela eta horiek batez ere neskengan eragin kaltegarria izateaz gain mutilentzat ere aukera murrizketa suposatzen dutela badakielako. Irekia, malgua eta geldiezina da eta nesken taldeetan mutilenetan bezain ondo mugitzen dira, batzuegandik nahiz besteengandik ikasten du eta baliagarriak zaizkion genero balioak bereganatzen ditu. Gauzak hankaz gora jartzen dituen diskurtsoak erabiltzen ditu eta gogoetara bultzatzen duten elementuak nahiz gehien hedaturiko ideien aurkako iritziak azaltzen ditu. Gaiari buruz gogoeta asko egin ohi du aldaketaren aldeko apustu garbia egin duten bere inguruko giroetan (familia, lagunak, eskola, etab.).

CARMINE VENTIMIGLIA
Soziologiako Departamentua,
Parmako Unibertsitatea. Italia

Amak

buruzagi,

aitak

egonean

Laburpena

Ohar hauetan aipatu dugun ikerketak baieztatzen du oro har gizona babesa, sostengua dela, lagundu egiten duela, baina ez duela bere bikotearekin erantzukizunaren eta lan-zamaren globaltasuna eta transbersalitatea elkar banatzen, seme-alabei dagokionez zein familiaren kudeaketa orokorrari dagokionez. Hemen tradizioarekiko etendura-elementuak nabari daitezke, zeren eta badi-rudi gizonak bere energiak haurrarekin-egoteko espazioak eta aldiak laburtzeko erabiltzen dituela, eta ia eskusiboki jolasteko lagun gisa agertzen da. Aitek adierazten duten bezala, kontua da genero-oroimen berean ez dagoela gaur egun erreferentzi eredutzat har daitekeen aita gisa jokatzearen aztarnarik. Aitzitik, gehienetan lortzen dena nola ez jokatu ulertzea da soilik; aitasun desberdinaren elementu bereziak zeintzuk izan daitezkeen, oster, eraiki eta errotik identifikatzeko daude oraindik.

Kontua da aitek eta amek bere buruarentzako, seme-alabentzako, etxearentzako –lanak berez duen garrantziaz gain– astiak subjektibotasunez nabaritu eta berreraikitzen dituzten erak desberdinak eta mota askotakoak direla, eta hortaz, aitaren, amaren, bikotekidearen izateko eta jokatze erari dagokionez autobalorazio desberdinak ere sortzen dituzte.

Laburbilduz, haurrentzako zerbitzuei dagokionez, hots, aipatu zerbitzuetako langileak, ohartu gara aitek seme-alabekin pasatzen duten astiari buruz (gutxi) eta horren kalitateari buruz (mugatu), arreta-lana nahiz haurrentzako zerbitzuen jardueran egon eta partehartzeari dagokionez, bertako langileek, eta aita eta ama beraiek pentsatzen dutenaren artean kontraste edo kontradikziorik ez dagoela.

Zerbitzuei dagokionez, nolabait orokor daitekeen iritzi hau aipatu da: haurrentzako zerbitzuen tradizioak eta antolaketak oraindik duten feminizazio-balore faltak, baduela garrantzia aitek zerbitzu honen jardueran parte hartzea sustatu eta areagotzeko helbururako.



Aitzinsolasa: Demokrazia, hiruren bidez hasten da?

Familia barneko harremanek duten balore demokratikoaren eta demokrazia sozial eta politikoaren mailaren arteko lotura ez da zerbait berria hausnarketa filosofiko eta soziologikoen historian (adibidez, besteak beste, Tocqueville). Halaber, ikuspuntu sinbolikotik beti aipatu izan da Mendebaldeko pentsaeraren berreraiketan mikro eta makro-sistemaren artean dagoen lotura. Hasieratik ere, lotura hori harremanetako subjektu gisa jartzen diren irudietatik bakarraren (hots, irudi maskulinoa, eta, bereziki, aitaren irudi maskulinoa) funtsezko zentralitateari loturik egon da. Aipatu zentralitatea sinbolo zein gizarte arlokoa zen. Aita familiaren barnean bere eginkizun arau-emailean irudikatuta zegoen eta simetriaren bidez eginkizun horren balore kualitatibo sinbolikoki lekuz aldatzen zen gizarte eskenatokira. Besterekikotasun metafora, alegia. Ez da kasualitatea "barne" aitaren aurkako errebolta historikoki eta ideologikoki edozein aitatasun sozial edo erlijiosorekin lotu izana (hala nola, aitaren heriotza, Jainkoa hil da, Estatu burgesaren heriotza, eta abar).

Aldi berean simetrikoa eta ikusgarria, famili harremanetako aitaren zentralitate maskulinoa harreman moten pasahitz soziala zen, baina soilik bere eraketa "positiboan", hau da, familiaren ordezkari eta han agintzen zuena zeneko frogaz bezala; izan ere, denboren gidaria zen eta araugintza eta legitimitateko zentzua ematen zien familiako zein gizarteko jendetasun adierazgarriaren zeinuei. Aitaren irudi maskulinoa eta botere politikoaren egitura eta formaren arteko jarraitasun-baldintzetan, nahiz ez-jarraitasun baldintzetan, ia pentsalari guztiek beti nagusitzat jo izan dute batetik, maila txikian, aitaren aginte, rol eta eginkizuna, eta bestetik, botere politiko mailan, aginte, rola eta eginkizunaren elkargurutzatzea (hots, aitatasun soziala).

Absolutismoa, monarkia, demokrazia, makro-harreman erak ziren eta bakoitzaren argudioen araberako barne aldaeretatik harantz, jarraitasun edo ez-jarraitasuna dela-eta, analogia metaforikoren bidez familian aita-gizonak gainontzeko subjektu guztiekin izaten zituen mikro-harremanen forma bereziek irudikatzen zuten ikuspuntuaz definitzen ziren.

Horrela da, adibidez, mikro eta marko-sistemaren arteko jarraitasun-bidea defendatzen duten pentsalarien kasuan: Lutero (aitarekiko obedientziak botere politikoari zor zaion obedientziarekin osotasuna osatzen du); Bodin (familia gizarte politikoaren prototipo bezala); eta mikro eta makro-sistemaren arteko ez-jarraitasun bidea defendatzen dutenak, honako baieztapenetik abiatuz: botere politikoaren balorea, balore familiarra edo berau desberdintzen duten harremanak ez bezala, gehienbat mota konbentzionalekoa dela. Kontua da, edozelan ere familia-harremanen eta harreman sozial eta politikoen formaren arteko lotura betidanik izan dela zentralitatearen inguruan hausnarketa soziologikoa eta politologikoa bat egite sendoa, irudi maskulinoaren harremanen dimentsio batean edo bestean, hau da, edozein harremanen oinarria diren bi iruditako bakarra. Alexis Tocquevillekoaren adibidea bikaina da (ik. *La democracia en América*, I, II, VIII), aitaren irudi maskulinoaren zentralitatea abiapuntutzat hartuta hausnarketa eginez, harreman sozialetan

demokraziak egindako ibilbidea eta "gurasotasun" maskulinoko harremanak "demokratiko bihurtzearen" arteko kontestualitatea eta lotura finkatzen duenean.

Beraz, familia barruko harremanen balore kualitatibo eta sinbolikoen, eta harreman sozialen arteko zirkularitatearen irakurketa eta berreraiketa beti nabarmendu da azterketa monosubjektibo bezala, edo harremana osatzen duten subjektuetako bakarretik abiatu eta han agortzen zen azterketa gisa ere. Irudi maskulinoaren zentralitatea, pentsaera eta pentsatzeari buruzko koadro hone-tan, inplizituki segurutzat jotzen zen genero maskulinoaren unibertsaltasunaren balizko premisarekin aldi berean gertatzen zelako. Aipatu baldintzak erabat justifikatzen zuen harreman-privilejioa (mikro-sistema familiarrean), eta errepresentazio sozialaren eskenatokiaren gaineko privilejio politiko eta sinbolikoa.

Emakumeen hausnarketak beharrezkoak izan dira hemen ia xehetasunetan sartu gabe aurkeztutako erakundeari errotik eraso egiteko, eta askotariko pentsaera aurkeztu baino, zerbaiti pentsatze-ari buruz eta zerbaitekin pentsatzeko era desberdina aurkeztu dute. Eta hori, gutxienez, oinarriko hiru gairi dagokienez, erabat funtsezko agertzen direnak.

1. Unibertsala dena – aurretik jadanik kointzidentea zen logosarena, zeina genero maskulinoaren pentsaera eta pentsatzearekin arbitrariotasunez kointziditu arazi da ontologikoki ere, –ez da bat, baizik eta bi (Irigaray 1994). Eraso hau erabatekotzat jo da, hain zuzen ere, bizi-harremanaren jatorri bereizleetan berriro ezartzen duelako unibertsalitate atribuzioa, berau edozein izanda ere, ez dela desberdintasun eta dibertsitateetako baten (hainbeste, baina, bien bitartean, oinarriko biak) murrizketaren baliokidea, ezta murrizketa hori horren atribuzioaren helburuetara aurrez suposatuta ere. Murrizte prozesu guztiak esparru etikoarekin bateraezinak izateaz gain, beste subjektuaren (ia beti adierazgarria den bestea dena) murrizgarritasuna aurrez suposatzen dutenez, ikuspuntu soziologikotik arbitrarioak dira; izan ere, "a priori" aurrez suposatzen baitute harremana oinarritzen duten subjektibotasun bietako bakoitzaren lokadura asimetrikoa, balorea, zentzua eta eginkizuna era askotara hierarkizatuz, maila sozial zein sinbolikoan.

2. Mikro eta makro-sistemaren arteko harremana, edo familia "zelula" eta maila sozial eta politikoko "zelularen" arteko dimentsioa, ez da irudi maskulintik hasita garatzen, baizik eta bi subjektuen, genero desberdinekoak, zentralitate/unibertsaltasunetik hasita. Subjektu horiek ez dira baten bakarrera murrizteko ezta bata bestearekiko independenteki autodeterminatu ere. Hori onartzea bi generoen arteko harremaneko besterekikotasun baldintzaren oinarria da eta, aldi berean, besterekikotasuna harremanetako benetako etikotasun baldintza da. Baina dagoeneko ez da printzipioen etika tradizionala, hori bera harremanen konplexutasunaren *reductio ad unum* jatorri eta adierazpena (jokabide zehatzen aniztasuna eta dibertsitateetik horien arautzaile gisa metafisikoki jarritako printzipio baten bakartasunera). Baizik eta eguneroko harremanaren eragina eta zentzu jakinen bidez osatzen (eta, espekularki, zatitzen) den etikotasuna dugu; harreman hori gertatzen denean, besterekikotasun harreman bezala gertatzea lortzen denean, hau da, auto-etero-determinatzen den harremana bezala, baietzaren autonomia eta bestearen esperientziarekin elkartasuna egiteak sortutako harridura batuz, jolas enpatikoaren bidez, zeinean "ni" izatearen aukera beste-ek bakartasun hori erabat onartzearekin bat datorren, modu gatazkatsuan ere.

Ildo horretan, bi desberdintasunen arteko harremana beti da besterekikotasun etikoaren adierazgarri. Horrek agerian uzten du subjektu bakoitza ez dela bakarrik bestearekin alderatuz gero desberdina, baizik eta euren artean ere desberdinak direla. Hementxe sortzen da lotura izatetik baliabide izatera aldatzeko aukera, bien arteko harremanean eta harreman sozialean. Hementxe gainezkatzen da printzipioen etikatik eguneroko bizitzaren eta erantzukizunaren etikara. Hementxe, azkenean ere, "demokraziaren" esperientzia etikoa dugu eta demokrazia maitasunaren baldintza eta alderdi etikoa izatera heltzen da. Zeren eta hementxe banakako nortasunak, familian zentzu hertsian zein familia politikoan, ez daude jadanik alienaturik.

Hain zuzen ere, horretan datza bakoitzaren murrizketa ezintasunak aurrez suposatzen dituen maitasunaren "erakutsi" etikoa: alteritateak erabat errespetatzea norbera errespetatzeko eta osotasuna errespetatzeko baldintza bakarra da, hau da, leku berera, norberaren nortasunaren lekura, sartu eta itzultzeko baldintza bakarra da. Eta hori posible da hain zuzen ere bi subjektuak elkar onartzen dutelako bilakatzeaz dauden alteritate autonomoak direla.

Baina hori da hain zuzen gaur egun gertatzen ez dena. Geure mundu kultural, politiko, harremanezkoa, anizkoitasun eta aniztasun baloreez gain, hierarkietan, balorezkoak, zentzuzkoak murriztu eta aldarazten duten kontrajartzeen logikaren menpe egoten jarraitzen du. Eta hori guztia honako neutraltasun faltsuen babespean: hitzak eta lengoia, elkarbizitza zibila zuzentzen duten arauak, unibertsaltasuneranzko joera berak bermatuko lukeen printzipioen etika.

3. Publiko/pribatua, subjektua/objektua, banakakoa/taldeakakoa, eta abar, hautazko dikotomia horiek lehengoa eta sortzailea den harremanetik (dikotomiko gisa jarria) ondorioztatzen dira, hots, gizonaren eta emakumearen arteko harremana. Eta behin dikotomiak jarrita, beharrezkoa da, hautamenez ere, kontrajartze hauek konpontzeko estrategiak identifikatzea, harreman maila nahiz maila sozialari dagokionez inplosioa saihestearren. Eta konponbide hori konbentzio mailara transferitzen da, artifiziotasunez, esparru neutrotzat hartzen dena; esparru hori da egin daitekeen edozein bitartekaritza eta kontrajartzea bakartasunera murriztea benetan bermatzeko gai den bakarra. Hori da, nire ustez, logosaren "tranpa" teoriko eta etiko handia, unibertsala dena bataren gainean ezartzen duena. Lehenengo kontrajartzeak sortu eta definitzen ditu - horien jatorrizko kausa baita -, gero horiek konpontzeko gai den leku "objektibo" bakartzat aurkezten du bere burua. Hori dela-eta gaur egun inoiz baino gehiago genero maskulinoak deserosotasuna eta nortasun krisia sentitu eta horrela erantzuten du harremanetako gatazken aurrean, batez ere familia barnean. Emakumeak subjektu desberdin gisa, eskubide desberdin eta era askotakoen eramaile, pentsatu eta ekiteko beste modalitate desberdinak dituenak legez, izateari nahiz maitatzeari dagokionez, ezagutua izateko egiten duen aldarrikapenaren ondorioa da. Eta gatazkek, bakoitzaren berezko gauzetara heltzen direlako, hain zuzen, (genero, kultura, erlijio, "ideiak", eta abarretakoak) ezin dira konpondu konbentzio mailara transferituz, zeren eta aipatu mailak aurrez suposatu eta berarekin dakar bakoitzaren berezitasunak bati murriztea. Hori guztia, berriz, ez da desberdintasunaren etikan sartzen; izan ere, etika horrek anizkoitzetik batera iragatearen oinarria ukatzen du eta nortasuneko berezitasunen (genero, eta abarrekoa) murrizketa ezintasuna defendatzen du, gatazkek kudeatzeko baldintza gisa, baina ez gatazka hori nahitaez konpontzeko,

ezta horiek deslegitimatzeke ere. Eta ezta horien exortzizatzeez ere. Segur aski loturetatik baliabideetara desberdintasunen eta dibertsitatearen alderantzeta erabat bideratuta egongo da gutako bakoitzak ber-definitze prozesua bera bizi ahal izateaz jabetzen denean norbera txunditzeaz eta besteak txunditzearen plazerraren bidez, eta ez desilusioaz, zeina batzutan garrantza den. Desilusio hori besteekiko harremanetan, eta batez ere harreman afektiboetan, ordaindu behar dugun prezioa bakarrik delako uste osotik dator.

Nire ustez, eskenatoki kognitibo, emotibo eta jokabidezko horretatik abiatuz, seme-alabekin dituzten harremanek forma eta esanahi sendoago eta desberdinak lor ditzakete aitentzat. Horrek posible egingo lituzke harreman aitatiarrak zeinek segur aski egiten ari den alteritatea, seme-alaben alteritatea, erabat onartzea ezaugarritzat duten. Izan ere, alteritate hori ezin da gure berezko "ni" (bere irudi eta antzera) bikoizten duen irudi gisa proposatu, ezta bakarrik bidezko bere guztiz autonomia, eta batez ere desberdina, bilatzen duelako, uko egingo liokeen irudi bezala ere. Kontraesanak, anibalentziak, loturak, itxaropen eta "erantzunen" arteko diskrasia, eta abar, harreman aitatiarrari dagokie, partnership harremanari ere. Beste adierazgarrien jokabideak kausa gisa, inplizituki, beti eskatzen du, subjektuaren izatea eta jokabidea "esanahia ematen duena" bezala proposatzea.

Bikote helduan besterekikotasun harremana "genitorialitate" harremanerako ikasketa-bidea da, bereziki aitatasunari dagokionez. Harreman orok ez du inoiz adiera bakarrekoa eta gardena den ikusgaitasunaren garbitasunik, baizik eta tonu argilunetan eratuta dago, hain zuzen ere nolabait jokatzea behartuta gauden rolen bidez ere eraikitzen diren dibertsitateetatik jarraitzen direnak. Ildo horretan eta arrazoi hauengatik guztiengatik aitatasun esperientzia harremanetako demokraziaren testuinguruko esperientzia bezala, bikoteko "bi"tik eta seme-aitaren "bi"tik "hiru"ra edo aita-seme-alaba hirukora pasatzen dena, eta alderantziz, proposa daitekeela deritzot.

1.

Premisa

Askotan azalpenen halabeharrezko eskematismoek eragin dezakete eguneroko bizitzaren eta harreman afektiboen (bikote nahiz "gurasotasun") eskenatokiak anibalentziarik ez kontraesanik onartzen ez duela pentsaera dualista baten arabera.

Anibalentzi alderdiak, ostera, nabarmentzen ditu gure existentziako edozein espazio eta batez ere pertsonen arteko elkarreragiketetan eta genero paradigmaten definizioan. Bestalde, hausnarketa soziologikoko adierazgarri baimenduek (maskulinoak eta femeninoak) ere hori bera gogorazten digute (ik. Simmel 1985 eta Lorber 1994).

Anibalentzi bikoitz bat da, batetik, rolen definizioa, gaitasunak esleitzea, ea. eraikuntza sozialaren prozesuen emaitza direla dioskuna; eta bestetik, generoa prozesu beraiekiko zerbait berezitat ematen dela adierazten digu.

Horren guztiaren emaitza honakoa da: genero batekoa edo bestekoa izatearen arabera harremanetan itxaropenak, eskaerak, beharrak, zabaltzen ditu aipatu taldekoa izatearekin "koherentziako" logikaren arabera. Aipatu logikak askotan ekintza, erantzun eta itxaropenen elkarreragiketa

prozesuetan benetako "a priori" gisa jokatzen du. Hau da: bakoitzaren jokaerak genero sozialaren eta kulturalki eraikitako nortasuna baieztatzea espero da.

Baina genero batekoa eta ez bestekoa izate horretatik abiatuz hain zuzen hainbat mapa kognitibo eratzen dira. Mapa horiek munduaren kontzepzio desberdinak dira, mundua eta harremanak pentsatzeko, harremanaren ethosa nabaritzeko eta emozioak sentitzeko modu desberdinak, alegiak. Halaber harreman mota ororen azpian dagoen eta berau laguntzen duen irudizko espazioan.

Azken finean, generoaren espezifikotasun eta autonomi bereizgarria hain zuzen eratuta dago harremanen, horien irudikapenaren eta definizioaren printzipio arautzailea izateagatik, baita etikamailan ere, hots, erantzukizunak emateko prozesuetan.

Horrelako prozesuetan, egokia da gogoraraztea, emozioen eta ezagueraren artean lotura bada-goela, hau da, bikotezko harremanean erantzukizun auto-atribuzioak emozioak ezagutzeko prozesu bezala ulertzen dira (Zamperini, 1998). Baina ere gogorazi behar da bi generoen arteko desberdintasun adierazgarrienetako bat, jadanik beste bi adituk azpimarratutakoak (Gilligan, 1987; Irigaray, 1994). Horien arabera jokabideak, erantzukizunak, arau-multzoen eta horien zorrotasunaren eraketa bera, eta abar, gehienbat harremanaren testuingurutik hasita berreraikitzen dituzte. Gizonek, aldiz, batez ere printzipioetatik hasita egiten dute, arauak babestetik hasita, alegia, askotan harremanak alde batera utzita eta horien kaltetan.

2.

Timinga eta generoa

Premisa honetatik ondorioztatzen da aniztasuna banakako jokabideetan eta besteekin harremanak izateko modu adierazkorretan, norberaren munduan bestea onartzea, eguneroko bizitzan bestearekin dugun harremanan esatearen eta gertatzearen arteko kontraesanak etengabe negoziatu eta birnegoziatzeko itunei jarraitzen dieten gatazkak eta arauak gestionatzeko.

Garrantzitsua dena eta lehentasunak definitzerakoan, gainera, aniztasunari lotzen zatzaio, baita horiei aurre egiteko moduan ere.

Aniztasun hori bateraezintasunen deklinazioan, denboren neurria eta pertzepzioan, ez soilik harreman, sozial eta profesionaletakoak, ez soilik ama eta aita moduan aritzekoak, baizik eta (berezik) bakoitzaren barne denborazkoak ere. Aipatu denborei esker gure esperientziak egin ahal ditugu eta bere horretan eta berez zentzua ematen diegu.

Hori dela eta bikotean ez dago, zereginen eta horiek egiteko moduaren inguruan, eguneroko bizimodua antolatzen duen erlojuaren auto eta etero-pertzepzioaren arteko bat etortzerik.

Pentsa ezazue bakarrik komunikazioa laguntzen duten semantemen hiztegiari azpian dagoen balore sinboliko desberdinean: denbora irabaztea, denbora galtzea, adibidez. Norberarentzako denborak murriztea, besteentzako denborak handitzearen. Norberarentzako denbora laburtzea besteentzako denbora zigortu barik. Edozein modutan ezin dugu segurutzat jo hizkuntza homologatua egotea eta homologagarria izatea ezin dugu segurutzat jo. Are gehiago, froga askoren ar-

tean arretea jartzea merezi duenik badago, hori hain zuzen ondorengo eran eskematiza dezakeguna da:

- badago amen denboren zeharkakotasunik, etengabeko "toque y retoque" (gertu-gertuko jarraipena) geometriaren arabera;
- badago aiten denboretan bertikaltasunik, garrantziaren arabera hierarkien loturaren arabera.

Horregatik esaten dut amak buruzagi direla eta aitak egonean egoten direla.

Zer esan gura da?

Kristalizazioak engaina ez gaitzan azpimarratu behar dugu ez gaudela bakarrik amaren eta aitarren banakako denbora-kontrolaren aniztasunaren aurrean, baizik eta berezko zentzu desberdinen pertzepzio eta esleitzearen aurrean ere, denboren zeharkakotasunaren edo zeharkakotasunaren eraketatik hasita. Horrek berarekin dakar eguneroko bizitza eta zereginei dagokionez emakumeek baterako ikuspuntua izateko sentikortasun-joera handiagoa edukitzea; baita, nolabait esatearren, aitek "monokulo" gisako jarrera izatea ere. Oro har azken horien performanceek adierazkortasun bakarreakoak izatea dute ezaugarritzat: gai bakarreakoak, betetzeko bakarrik eta, batez ere, kronologikoak dira: lehenengo gauza bat eta ondoren beste bat. Gutxitan ezagutu dute garaiakotasunaren logika, egiteko dauden gauza anitzen testuinguruko praktika. Metaforak erabili nahi izanez gero, esan dezakegu aiten jokabideek dameroaren logika jarraitzen dutela; amen jokabideak, berriz, radarraren, edo nahi izanez gero, sarearen logikari erantzuten diote. Denbora maskulinoen neurri kronologikoak berau bizitzen dutenengan denbora horien ondorengo berreraiketa aritmetikoa sortzen du: kenketa (norberarentzako ahalik eta denbora gutxiena) eta batuketa, neurria gaiztatuzea (etxea eta seme-alabentzako ahalik eta denbora gehiena). Egin daitezkeen konbinaketen (horiek guztiak elkarrekin eta testuinguruan agertzen dira) aniztasunaren bila amaren esperientziarekin doan zeharkakotasun-balorea, oster, geometria motako luzetarakotasunaren arabera jarraitzen da.

Mapa kognitiboen aniztasunak denboren, nahiz emozioen inbertsioen aniztasuna ere badakar; estresaren aniztasuna, alegia, izan ere, aldi berean gauza gehiago jagon behar dituzte eta ez aldi bakoitzean gauza bakarra. Badirudi bateragarritasunaren eta malgutasunaren logikak, irudi femeninoarekin maskulinoarekin baino gehiago loturik dagoenak, emakumearentzat "batera eramateko" behar etengabea dakarrela; hau da, guztien jokabideak beti norberaren nia-tik eta bakoitzaren nia-tik baino harantzago doan esanahiarekin lotzeko eta multzoa Zera gisa eratzeko beharra (Martín Buberrek adierazitakoaren arabera), eta ez banakotasun gehiagoren batuketa huts bezala. Eta hori dela eta, benetan, erabiltzen dituzten energiak desberdinak dira, batzuetan erasokorrak eta leherkorak ere.

Halaber irudizkoa hainbat eratan osatzen da. "Etortze" dagoen haurra gurasoentzat etorkizunean espero dutena da; ia sozializazio-esparruan aitak duen garrantzia eta amak haurren lehen urteetan berau zaintzean duen garrantzia areagotzeko. Egia esan, amek irudikatzen duten "etortze" dagoen semearen erretratua alderdi fisikoaren (benetako eta berehalakoa, orainaldian sartua) arabera da gehiago.

Esan gabe doa seme eta alabekin duten harreman bera era desberdinetan eratzen dela. Izan ere, seme-alabak amaren munduan sartzen dira eta bertan gainontzeko guztiekin daude. Aitak, ordea, semeen munduan sartzen dira, denbora, espazio eta leku xedatu, mugatu, eta eskusiboetan EGO bien bat egitea proposatuz.

3.

Aiten denbora- kontrolaren gainbalioa

Bikotekide bakoitzak harremanaren eguneroko eskenatokia ulertzeko modua banandua dago. Norberak bere jokabideari esleitzen diona ez dator bat besteak uste duenarekin. Gizonek bere buruari egozten dizkieten denborak famili ménagea gestionatzen horien bikotekideak egozten diotena baino nabariki handiagoak dira. Gizonek emakumeei egozten dizkieten denborak, aldiz, emakumeek bere buruari egozten dizkietenekin bat etortzeko joera dute. Horrek zer esan nahi du? Argi dago ez garela aurkitzen gizonek bere burua engainatzeko saialdien aurrean, euren denborei dagokionez, eta testuinguruko objetibotasun "zintzoaren" aurrean emakumeen denborei dagokionez.

Aitzitik, nire ustez, bakoitzaren oroimenen ondare desberdinaren arabera da, hots, bakoitzaren biografien arabera. Oroimen maskulinoan lanekoez bestelako aldien inolako aztarnarik aurkitzen ez bada (seme-alabentzako, bikotekidearentzako, etxearentzako aldien aztarnak, ea.) ia saihestezina da (baita alibi bat eratu behar ez badu ere) soilki "norbaiti pixka bat laguntzea", "hainbeste ematea" bezala ikusi izanak benetan dena baino trinkotasun handiagoaz. Nolabaiteko gainbalioa, "laguntzea" soilaren gainean sortzen dena. Beste hitzetan, badirudi gizonek euren aldiei ematen dieten esponenzialitate-balore hori litekeena da euren berezko oroimenen eta aitatasun "eredu" aldean ez-jarratasun eta haustura-pertzepzioan sorburua izatea, gure azterketarako elkarrizketatu genuen aitetako bateko adierazi duenez.

Horrek ez du esan nahi norberak 25 urte dituenean bere historia izan dena deusezta dezakeenik; izan ere, badut gauza jakin batzuen inguruan lasaitzeko joera, eta hori gertatzen denean, nire emazteak errieta egiten dit eta errealitatera itzularazten nau.

4.

Amatasun eta aitatasun zenbait erretratu

Ikuspuntu partikular eta askotarikotik berreraikitako eta berreraiki daitezkeen erretratuak ditugu, aipatu berreraiketaren egileak aitak, amak, seme-alabak edo haur-eskoletako langileak izan. Eta, bistan denez, "behatzen" zuenaren ikuspuntutik ere, batez ere hori bera aita edo ama bada.

Erretratu horiek honela eskematiza daitezke:

- aita modernoa;
- aita postmodernoa.

Erretratu bi horiek, aldi berean, performanceekin elkar lotzen dira, aita-irudi mota bi eratzeko gai direnak:

- aita oblatiboa;
- aita aldarrikatzailea.

4.1

AITA MODERNOA

Konbentzioaren araberrako aita da, funtsean tradizioarekin jarraitzeko jokabideak proposatzen dituen. Ez-bateragarritasun eta ez-adiskidetzeko arrazoiak bere egiten dituen da, eta hortaz, bikotekidearekin soilik famili eta gurasotasun gestioaren zati bat elkar banatzen du. Eta hori gertatzen denean ere, nolabaiteko *arrière pensée*-aren bidez egiten da; hau da, distantzia mantenduz, aitari eta amari rolen berariazkotasuna eta era askotako funtzioak inplizituki ematetik hasita. Horretarako soilik generoari loturik dauden arrazoiez baliatzen da, biologikoki ezaugarri desberdinak izatea, eta horrek berez emaitza desberdinak eragiten dituela gaitasunen eta zainze-lanaren esparruan.

4.2

AITA POSTMODERNOA

Elkar banaketa eta adiskidetzea ezaugarritzat dituen aita da; horiek oinarrituz eta zilegitzat airtortzen ditu, baina ia beti izan beharko litzatekeena irudizko mailara soilik mugatuz. Hau da, eguneroko bizitzan jokatzeak erak printzipioei jarraiki defendatzen dituenekiko ez dute koherentziarik gordetzen. Bere buruari galderak egiten dizkion aita da: norberari buruz, bikote-harremanari buruz, aitasunari buruz, ea. Aita horrek bere oroimenekiko eta gurasotasunaren irudikapen tradizionalarekiko eten gisa bizi nahi du. Bere buruarentzako aitaren irudiaren aurrean aniztasun-irudia aldarrikatzen du; eta aitzitik, amaren irudiaren erreplika afektibo eta emotiboa, nahiz eta, beti arrazoizko pentsamenduaren emaitza ez den, beharra dela medio, eta paradigmatikotzat bizi eta norberaren gain hartzen den edozein sustrai eta oroimenari eustea zeinen funtsezkoa den pentsaraziko lukeena .

4.3

AITA PRESTUA

Emateko prest dagoen aita da. Sostengua da, etxean laguntzen duena, eguneroko zereginak gestionatzen bikotekideari laguntzen diona eta espazioak eta denborak laburtzen dituen seme-alabekiko duen harremanari eskaintzeko.

Aita horrek oraindik eguneroko konpromisoen betebeharren eta erantzukizunen asimetria izateko datu ia atzerazina bere gain hartzen duena. Hortaz, datu hori berarentzat ezin da negoziatu ezta berriz eztabaidatu ere, bidezkotzat teorizatzen duen eta hain zuzen gauzatzen duen kuotatik kanpo. Eta hori bereziki genero desberdintasunarekin zerikusia ez duten arrazoiak direla medio

baino, aitzitik, errealitate-printzipioa kritikarik gabe nolabait onartzeagatik. Errealitate-printzipio horren arabera normalean bikotean konpromiso eta erantzukizun desberdinak hartu beharra egotea halabeharrezkoa da. Bestalde, halabeharrezkoa da ere seme-alabekin denbora gehien pasatzen duen subjektua presentzia-kuotei dagokionez hartzaile nagusia izatea. Aita horrek beharrezko ordena ("nahiko nukeen, baina ezin dut") eta errealitatea soilik gertaera bat bezala onartutako errealitatea batzen dituen aita da, hots, norberaren muga eta oztupoak gainditzeko nagusitasun femeninoa onartzearen bidez.

Aita-irudi hori autoeraketa espazio gehiagoren artean mugitzen da eta jokatzeko ezaugarri-multzok desberdinak biltzen ditu. Egia esan, bikotekidearen esijentziak eta seme-alaben arazoizko eskararak asetzeko eguneroko egutegiari denbora kentzen dion aita da; betebeharrak eta presentzia asimetriak horrek bere burua absoltzen duen aita da, bere konpromisoa eta bere erantzukizuna azpimarratuz.

Eta horrelako irudikapenaren baldintza partnership eta aitatasun harremanaren artean gertatzen den disoziazioa da, batari eta besteari zentzu desberdina emanez, eta famili ménagearen gestioa ontzat jotzeko (emakumeari esker) eta ez hain ontzat seme-alabekin pasatzen den denbora-kuota (oztopo objektiboengatik).

Hauxe dugu, azken finean, partnerrarentzako esker ona (hark betetzen duen funtzioa dela eta) eta egiten ez duenagatik norbera ulertzea argudiatzen duen aita da. Hauxe dugu, azken buruan, seme-alabekiko harremanean "ezetik" ematen ez duen aita, bere buruarentzako oso atsegina ez den seinalea aitortuz; ez dago gustura arauzko funtzio tinkoaren arabera neurtu behar duelako bere burua. Zirkunstantzia hori gehiago baieztatzen da bereziki bikote gazteetan; beharbada ikerketa sakonagoak egiteak mereziko luke

4.4

AITA ALDARRIKATZAILEA

Aita-erretiratu honek egunerokotasunaren testuingurutik "kanpo norbere burua ikustearen" harreman-erak hartzen duen prestutasun falta nabaria eta batzutan eztabaidatua salatzen du. Hori justifikatzearen honako argudioak erabiltzen ditu: partnerrarekiko kontrajartze esplizitutik hasita, famili ménagea gestionatzeko modalitateetan, zein seme-alabekiko jokabide esplikatiboetako estilotan, funtsean seme edo alabekiko harremanean ez egotea edo gutxitan egotera baino norbere burua ikustearen saihestezintasunaren teorizatoraino, seme-alabek amarekin aitarekin baino denbora gehiago pasatzen duteneko datu objektiboaren arabera.

Familiako beste elementu adierazgarri guztiekiko norberarentzako askatasun eta etxeko privacy eskubideak aldarrikatzen dituen aita da; eta partnerrari ez dizkio eskubide horiek testuinguruan neurri berean aitortzen.

Honengatik guztiagatik, bikote-harremanaren barruan negoziazioaren zilegitasunari funtsean baliokidetasunik ez dion aita da. Horretan nolabaiteko harreman-erregresio arriskutsua antzemango balu bezala; erregresio horren jatorria, bistan denez, emakumeen emantzipazio-prozesuetan dago.

Hauxe da, azkenik, emakumearen lanbide-esparruari dagokionez bereak duen nagusitasuna eta lehenetasuna teorizatzen duen aita; izan ere, lehenagoaren sari handiena etxeko lanetan bilatu behar baita.

Argi dago, lehenago aipatu bezala, azalpenaren eskematikotasunaz harantz, aipatu erretratuek ez direla elkarren artean erabat alternatiboak diren gramatika eta jokabidezko formula espresiboen arabera. Askotan harremanaren espazio partikularretan oinarritu eta elkar oinarritzen dira, erretratu bat besterekiko gailentzea hain agerikoa ez eginez.

5.

Gatazka zaharrak eta pendularitate maskulinoa

Hausnarketa-pisten aniztasunaren aurrean aurkitzen gara. Bereziki aipatzekoa da bat.

Horren arabera ménagearen gestioan dagoen asimetriaren ezaguera femeninoak, batez ere zaintzeko lanari dagokionez, gaur egun ez du beti bikotekidearekiko harreman gatazkatu nabari eta espliziturik ezagutzen. Zergatik?

Aurreratuko ditudan hipotesiak funtsean bi dira:

- a. nahikoa dirudi prestutasun maskulinoaren partzialtasuna, eskatu eta zuzena izan behar denean ere, ama-emakumeari orientatua egotea. Izan ere, harremaneko beste leku, denbora eta espazioetara etengabeko negoziazioaren baldintzak edo aitaren jokabide maskulinoa orientatzeko norabideak zabaltzeak emakumeari asimetria tazituki eta inplizituki onartzetik ondorioztatzen direnak baino kostu subjektibo eta harremanezko koste handiagoak eragingo lioke, baita gatazkatuagoak ere. Horren emaitza partnerrari inplikaziorik eskatu gabe lehen pertsonan "egitearen" gestioari ekitea da. Hemen ideala dena eta benetakoa denaren arteko zirkularitatea berriro proposatzen da; egoera horrek askotan itxurazko paradoxa edo paradoxetan pentsarazten du. Hau da: elkartrukearen eta negoziazio esplizituaren logika. Horrek amatasunaren eta aitatasunaren ekintza zehatzetan desberdintasunaren terminoak agerian uzten ditu. Baina oraindik ez du, gutxienez berehala, gatazka-arrazoi esanguratsurik sortu. Ia badirudi esparru antropologiko-idealean "berreskuraketa" maskulinoan erabat elkar banatzearen oinarritzeak ("polita izango litzateke, zuzena izango litzateke") nahikoa izango litzatekeela aipatu oinarritzearen onarpen teorikoari dagokionez gizonak benetan dituen jokabide kontraesankorren ondorioz izan daitekeen irtenbide gatazkatua geldiarazteko. Izan ere, iraganeko eta bere aiten eta amen harremanetan gizonak sortu duen deslegitimizatze ideala (betebeharren banaketa zorrotza, aita edo aita izatean oinarritzen dena; beraz, asimetria zilegia izatez gain, "naturala", fisiologikoa, eta abar) badirudi berritasun onuragarri bezala proposatzen dela eta proposatu beharrekoa dela (beharbada lasaigarria ere), eta harremanaren sostengufuntzioa betetzen duela, nahiz eta oraindik benetan asimetrikoa izan. Eta proposatu beharreko efektu horrek paradoxa bera antzemanarazten digu, emakumearentzako bateragarri egiten duelako asimetriak errepikatzea, zentzu desberdineko argudioen seinala gisa izanda ere. Eta

posible egiten du gizonak adiskidetze bideetatik jo dezala, "bere burua" deseroso egon arren, bere gurasoen tradizioarekiko ez-jarraitasunezko instantzia jarraiak gauzatu beharra, ez bada beste zerbaitekin, izateagatik.

Hauxe da, hain zuzen, zaharraren eta berriaren arteko, oroimen eta tradizioei dagokienez aiten egungo jokabidearen jarraitasunaren eta aldi berean ez-jarraitasunaren pendularitate maskulinoaren ezaugarria. Lehen, esan dutenez (ik. Bimbi e Castellano, 1990), patriarkatuaren setaren barruan sartutako asimetria bikote-harremanaren esparru afektibo-relazional-emozionalan nolabait berreskuratzen zen. Gaur, nire ustez, errepikatzen den asimetria hori nolabait berreskuratu egin da aitatasun maskulinoaren estetikari esker, guztien aurrean (emakume, gizon nahiz gizartean) berritasun eta ez-jarraitasun ezaugarri nabaria lortu duelako; horrela egunerokotasuneko jokatzeko era zehatzetan desberdintasuna gainditzen du.

- b. Orain aurreratuko dudan bigarren hipotesia, nire ustez, beharrezkoa eta saihestezina den an-bibalentziari buruzkoa da. Aipatu an-bibalentzia amaren jokabidean soilik da tipikoa, bereziki haurraren lehen urtean.

Psikoanalisi esparruan sartu nahi ez izan arren, gogora ditzakegu, adibidez, zenbait lekukotasun, bereziki ama gazteen lekukotasunak, gure ikerketan zehar focus group femeninoetan emandakoak. Aipatu lekukotasunen arabera seme/alaba-ama harremanak haurraren lehen urtean hain konnotazio estua eta berezia du, ezen aitari, inplizituki, babesa besterik exijitzeko modukoa; eta ez banaketa, zeinak amarentzat erabateko rol-elkartrukearen "mehatxua" zabal baitzezakeen. Kontua da amaren an-bibalentzia horren pertzepzioa maiz aldatu egiten dela, erabateko konpromiso faltaren alibia bihurtuz gizonentzat.

Uste dut honengan guztiarengan badagoela etno-antropologiak jaso duen eta gizateriaren hasierarekin loturik dagoen oinarri txit urruna; tesi horren aldekoa naiz. Aipatu tesiaren arabera hasieran biko bat dugu, eta ez hiruko bat; seme/alaba-ama bikoteak erakusten dutena, eta haiek gizona bertan sartzera gonbidatzen dute. Bestalde, erlijioen historian ere, "la divinidad masculina entra sólo en un segundo momento y el rango de divinidad-hijo se le ha conferido sólo secundariamente por la divinidad madre" (Neumann, 1981, 98 orr.); hau da, jainkotasun maskulinoa soilik bigarren sartu zen, eta jainkotasun ama berak seme-jainkotasun maila bigarren eman zion. Emakumea haurdun dagoen bitartean gizona esperientziari laguntzen dioten bide emotibo, psikologiko eta harremanezkoetan hau guztia egiazta daitekeela deritzot. Tonu emozionalaren intentsitatea, partehartzearen erritmo desberdindua, konpromisoaldi desberdinek ondorengoaren berri ematen digute: aitatasuna bikoan pixkanaka "sartzea". Gizon helduak, aita-gizonak, femeninoa denaren bizitzaren gune sinbolikoarekiko duen menpekotasun etengabea berriz osatu behar du, seme-ama harremanaren eskusotasuna erabat onartzearen bitartez. Baina horrek trabak, "bazterketa" esperientziak ere eragin ditzake. Eta batzutan nortasun-hauskortasuna.

Ziurrenik hori onartzeak (egiantzekoa baita) guztiei –ama, aita, langile nahiz seme-alabei– lagun diezaieke, aldi berean, natura eta kultura eta amatasuna eta aitatasunari eta zuzentzen

zaizkion itzaropen eta eskaeren eraikuntza sozialaren esparruaren arteko lotura ez-bereizgarria ulertzen.

6.

Behatzen duten beste zenbait begi

Haur-eskoletako langileek deskribatutako gurasoen portraitu bat dator aita eta ama beraien lekukotasunen bitartez zuzenean egindako testuinguruko berreraiketarekin.

Horrelako antzekotasunek bikotearen eta familiaren bizimoduaren gai-sorta osoa nolabait aipatzen dute: aitak zerbitzu horien jardueran egoteak eta partehartzeak duen trinkotasun kualitatibo eta kuantitatibotik hasita (langileekin izandako banakako elkarrizketak, formal eta informalak, barne hartuz) haurrak zerbitzuan sartzera aitek aipatutako jokabide eta harreman-modalitateetara arte, presentzia aktiboari dagokionez, zein "birtuala" bakarrik den presentziari dagokionez.

Are gehiago, zerbitzu horietako langileek izandako esperientziak berreraikitzearako aipatzeko den elementu bat dago: zerbitzuarekin harremanetako ohiko gestioan aitak ia ez duela parte hartzen adierazten badu ere, azaltzen diren aita gutxien inguruan langileek egiten duten balorazioak badirudi erretratua eta konpromisoa saritzen dutela; horrek esan nahi du erabateko aldaketan gailurrera heldu diren subjektu maskulinoak ia adieraztea.

Egia esan, komeni da beti gogoratzea zerbitzuetako jardueran konprometitutako eta azaltzen diren aiten ordezkari txiki hori (bikote-harremanean balore kualitatibo desberdin bat adierazten dutenak) motibazioei dagokionez jadanik nork bere burua aukeratu duen txapelduna dela. Eta, hortaz, ia ezin ekidinezkoa da eurekin eguneroko harremanean sartzeko denaren aldetik haien irudia nolabaiteko meritu-plusaz nabaritu eta berreraikia izatea.

Laburbilduz, esan genezake alde batetik haurtzarorako erakundeen aurrean seme-alaben eguneroko bizimoduan aitak ez direla azaltzen; baina, beste aldetik, azaltzen eta konprometitzen diren aita bakanak aita perfektutzat jo eta ikusten dituztela. Argi dago saritzeko plus hori ulertzeko kontuan izan behar dugula aipatu aita-irudien gutxiengoak espazio gehiagotan aiten unibertso maskulinoaren gehienaren ezaugarriak ezeztatzen duela. Unibertso horrek, aurpegi anitz eta desberdinen bidez, oraindik eredu tradizionalen tinko atxikita dauden jokabideak funtsean adierazten ditu, ez-jarraitasuneko seinale txikien atzean.

Halaber interesgarria da langileek guraso mota batentzat edo bestearentzat aipatzen dituzten hobespenei so egitea haurrak haurtzaindegira joaten hasten direneko aldia aita edota amekin batera gestioatzeko aukerari dagokionez. Oro har aipatu hobespenak egiteko langileen arrazoiak honela laburbil daitezke:

- amarekin berba egiten erosoago sentiitzen da, bereziki egoera horri zentzua ematen dioten kodeei dagokionez;
- ama sinesgarriagoa da egunero seme edo alabaren bizitzan azaltzen delako; azken hori dela-eta, ezaguera eta informazio osatuago eta sakonagoak ditu;

-
- gainera, amak langileekiko duen harremanaren egunerokotasunarengatik hain zuzen ere, pixkanaka harreman hori konfiantzakoa bihurtuko da eta azkenean berezko laneko eskenatokitik harantzago joan daitekeen harreman/komunikazio gisa eratuko da.

Dirudienez sartzeko-aldi honetan azaltzen ziren aita bakanek, esan dugun bezala, langileen lekukotzaren arabera, kalitate-saria jasotzen zuten, halaberrez unibertso maskulino osoaren gainean aukera potentzial bezala (<se>) pentsatuta dagoena, zeren eta hain zuzen ere aiten gutxiengo horren jarrera (berritasun positiboko zeinuak) aktibatuen eta aiten gehiengoak ez aktibatuen (eta oraindik aktibatuak izan daitezkeenak) artean dagoen gaparen erregistroari esker lortutako esker ona da. Gehiengo horrek, benetan, funtsezko ez egotearen tradizioa errepikatzen du. Langileen lekukotzak lerro artean irakurriz, ia ezagutu daitekeen nolabaiteko matrize weberianodun aita mota perfektua, hezkuntza-zerbitzuekiko harremanen egunerokotasunaren gestioan azaldutako eta konprometitutako aita bakan horien jokabideek eman ditzaketan edo zatika eguneratutako zenbait ezaugarriren abstrakzioan oinarrituz zehatz-mehatz eraikia. Eredu horrek, perfektu-tipikoa hain zuzen ere izateagatik, tradizioa eta aldaketaren baterako existentziaren arteko ia bateragarritasun-adierazpidea gisa proposatzen dela dirudi, edo aldi berean iraganaren aldean ez-jarraitasun aztarnak (azaldutako aita bakanek zerbitzuaren jardueran benetako prestutasuna eta parte-hartzea agertzea) eta irudi maskulinoen proposamen berria oroimenean eta tradizioaren seinalean (aita-gizon horrek amaren aldean bere emozioak kontrolatzeko gaitasun handiagoak ditu, antsietate txikiagoa du, ea.) ia bateragarritasun-adierazpidea

7.

Behin betikoak ez diren zenbait hausnarketak

Aitatasuna, diotenez (ik. Mead, 1962) asmakeria da. Ahaidetasun-sistemak, gehitu dutenez, (ik. Lévi-Strauss, 1969) gizonen kontzientzian baizik ez dira existitzen. Aitatasunaren eta ahaidetasun-sistemen ezaguera ekoizpena dugu, gizarteak taxututakoa, alegia. Eta hala bada, beharbada, nabaritzen duenak, hortaz, aita-nortasunaren definizioaren egoera perfektua, nolabait, aita beraren irudia testuinguruan ukatzean datzala deseroso sentitzen dela suma daiteke. Izan ere, ukapen horrek honakoa esan nahi du: generoaren berriazkoa bezala berriro definitzea horren ageriko aztarnarik ikusi ahal izan gabe. Gainera, "irudiren" bat duen ainguraketa segurua beharrezkoa izateaz jabetzen dira. Eta, beraz, jatorrizko bikotera beste behin itzultzen da. Izan ere, aitatasun eredu bezala ama bera dute gogoan. Eredu "berri" bat da edo aitzitik "naturatik" kulturara iragartea hain zuzen ere adierazten duten sustrai eta harremanen esplizitazio sozio-kulturala? Edo ugalketa biologikoaren eta harremanen edo emozioen ekoizpen afektiboaren arteko zubia. Jaso ditugun lekukotzetako batek ondorengoa adierazi du: "Nere semearekin aita izatea nahiko nuke, nere ama nirekin izan den bezala". Ikuspuntu horretatik Giulia Paola Di Incolaren hausnarketak (1996, 105 orr.; ik. 1994 ere) egokiak iruditzen zaizkigu, honakoa aipatzen duenean: amatasunaren es-

perientzian "pertsonearen erlazionabilitatearen esanahi sinboliko paradigmaticoak" laburtzen dira eta "[...] oro har giza esperientziaren osagaiak direla ematen dute". Hortaz, nortasuna eraikitze-ko prozesu eta bideak dira, ez direnak femeninora mugatu ezta bertan agortzen ere".

Are gehiago, ez dirudi defenda daitekeenik oroimen maskulino-aitatiarrak, barne hartutako agindu eta "ereduen" ildoan, gaur hain erabat berrikusi eta berriro eginda egoteak. Beharbada "ideologikoki" ezeztatuak daude, sozialaren eszenan eta partnership harremanean hautamenez ezin aurkez daitezkeenak bezala ikusiak, baina eguneroko ekite zehatzean gertatzen dira. Muinean "ez dut nahi nire aita bezalakoa izatea" esatea haren presentzia handia berrestea da.

Osterantzean, oroimenak, batzutan, aipaezinak dira, bestean samingarriak, bestan norberari ere ezin aurkez daitezke. Dena dela, badaude. Eta badaude bi irudietako oroimenak, hots, aitaren eta amaren oroimena. Jatorriak eta sustraiak dira. Edozelan ere, egiten ditugun berreraiketa oso edo gutxi kontzienteetan irudi batak edo besteak lortzen duen gailentasunak era esanguratsuan islatzen du gaur egun berreraiketa horien aurrean agertzen diren ziurtasun-eskariak. Eta, segur aski, gaur atzo ez bezalakoa dena honakoa da: deserosotasuna, alegia; oroimen horiekiko ez-jarraitasun alderdiek sozialaren eszenan eta horren adierazpenean presentzia-maila ahula ekartzearen ondorioz. Beste aldetik, ezin daiteke pentsa biografien esparruan bakoitzaren baitan dagoen amatasun eta aitatasun kopurua azaldu ahal izatea. Ezin da kanpo utzi ere ez-jarraitasunaren ezaugarriaren azpian "idealki" sartutako harreman-zeinuen eragina, bestalde loteslea ere dena. Horixe bada gertatzen dena, kontrakoak ez du balio. Eta, arazotsuaz izateaz gain, batzutan kostatzen da kultura ezaren prozesuak (bereziki oinarritzkoak) pentsatze-bideetara aldaraztea; horrela berezko jokabideei gurarizko zentzua emango zaie. Hau egitea ezinezkoa denean, hala nola elkarrizketatu genituen aita gazte batzuk, ezaugarri bikoitza azaldu da: batetik, gabezia, eta beste aldetik, artegatasuna.

Gabezia partnership harremanaren testuinguruan aitatasunaren leku berezia berriro defenitzeko beharrari buruzkoa da. Hau da, orokorrean, eta halabeharrezko salbuespen batzuek, nahita aitatasunaren aritzeak ezin du kanpo utzi partner berarekin duen harremanaren testuinguruko aipamena. Eta, beste aldetik, ezin du ezta kanpoan utzi ere aitatasunaren aritzea ez dela bakarrik partnerrarekin duen elkarrekiko mendetasunaren "jokoan" ematen jakitea, baizik eta independentzia forma, modu eta bideen esperientzian ere; horiei esker seme-aita harremana autonomiaz eta berezitasun ezaugarri eta konfigurazioez hazi eta eratzen baita.

Artegatasun hori berriz definitze horren azpian dagoen balore bikoitzean datza eta norbera aita eta partner gisa ulertzeko moduari buruzkoa da.

Nire ustez, "ukatu" nahi den aitatasun eredu baten bidezko ez-jarraitasun maskulinoaren beharra indartsuagoa dela eta artega handiagoak sortzen dituela, sartutako amatasun ereduak emakumeek berrikusteak baino. Nire ustez ere, dena dela, gabezia maskulino horretan bi maila batera daude: bata benetakoa eta bestea birtuala. Hau da: benetakoa dena harreman-aldaketaren soziologiaren bidez neurtu behar da, izan ere, partnership harremanetan emakumeek eskubide subjektibo berriak erabat eskuratzearekin osatzen baita. Horiek harremanaren hainbat "itun" berriro defini daitezela eskatzen dutelako, baita arau-zentzuan ere. Birtualak, aldiz, guraso beraien alde-

an desberdinak direla esateko beharrari erantzun behar dio, zeren eta aniztasunaren autoerrepresentazioa, edozelan ere, gure nortasunaren eraketa-sendotasuna oinarritzen duten baldintzetako bai izaten jarraitzen du.

Oraindik, gizonen ikuspuntuaren arabera aitaren irudia alde batera uzteko era onenak berarekin darama genero femeninoarekin gainjartzeko arriskua, seme-alabekiko harreman emotibo eta afektiboarentzako erreferentzia positibotzat amaren irudia hartzerakoan. Gainjartze horrek ez du uzten aitatasunaren berezko elementu eta ezaugarriak berarentzat berreskuratzea, norberaren nortasunaren eremuak desberdintasunen arabera neurtzen diren unetik hasita. Pentsamolde maskulinoen arrisku horretarako konponbideak dirudienez asimetriako nolabaiteko arrazionalizazioa eragiten du, eguneroko konpromisoetaraino iristen dena. Arrazionalizazio horrek asimetria hori justifikatzen du seme-alaben zainketari dagozkien ardua eskusiboki edo batez ere femeninoetatik abiatuz, hain zuzen ere haurren lehen urteetan. Horrela eraketa kulturak sortutako oztopoak pentsatzeko ("ez du nire aita bezalakoa izan nahi, baizik eta nire ama bezalakoa") beharrezkoa litzatekeela biologikoa izan ohi den arloan arduren aniztasuna oinarritzea, elkarrizketatutako aita baten adierazpenen arabera: "emakumea ama izateko jaioa da". Horrela ziurtzat jotzen du "egia" hori ez dagokiola aitari eta bere aitatasunari.

Badago beste seinale bat tradizioa eta aldaketaren arteko pendularitate maskulinoaren zentzua ematen duena. Eta pertzepzioari buruzkoa da, guztiz elaboratua ez badago ere, norberari aitatasunaren nortasuna eskuratzea baieztatzeko baldintza aita lanetan aritzea dela, eta ez soilik aita "izatea". Auto-etero-konnotazio mailatik (aita izatea) interakzio mailara (aita lanetan aritzea) igarotzea, hau da, izendatze sozialaren beharrezko mailatik (atzokoa) eguneroko harreman zehatzaren mailara (gaurkoa) benetan urrats arazotsua da eta elaborazio kulturalen bidea, babes eta euste baldintza instrumental eta estrukturalak eskatzen ditu. Horiek testuinguruan jauzi handiak dira, ez bakarrik pentsatuenak, baizik eta pentsatzaileak ere, hots, ekintzaileak. Eta eguneroko harremanari esker semeek eta alabek aitak "aita" egiten dituzte. Horrexegatik eguneroko jardueretan bi partnerren arteko asimetriak aurretik juzga dezake gizonentzat balore esparru horretara sartzea; horri esker norberarentzako erantzukizuna eta besteekiko erantzukizuna izatea bat etorri eta elkar lotu behar izateaz ohar daiteke.

Badago erantzukizunen asuntzio mentala eta emotiboa ere. Erantzukizun horiek ez badira harremanean erabat betetzen, ezin dute aitak egonean utzi baizik, aukera baldin badago aldatzeko prest, "pixka bat laguntzeko", baina ez elkar-banatzeko.

Bibliografia

- BIMBI, F. eta CASTELLANO, G. (argitaratzailea) (1990), *Madri e padri*, Angeli, Milano.
- DI INCOLA, G. P. (1994), *Il linguaggio della madre. Aspetti sociologici ed antropologici*, Roma, Città Nuova.
- DI NICOLA, G. P. (1996), "Il capovolgimento del paradigma etico-antropologico", in C. Militello (argitaratzailea), *Che differenza c'è. Fondamento antropologici e teologici della identità maschile e femminile*, SEI, Torino.
- GILLIGAN, E. (italierazko itzulpena) (1987), *Con voce di donna. Etica e formazione della personalità*, Feltrinelli, Milano.
- IRIGARAY, L. (italierazko itzulpena) (1994), *La democrazia comincia a due*, Bollati Boringhieri, Torino.
- LÉVI-STRAUSS, C. (italierazko itzulpena) (1969), *Le strutture elementari della parentela*, Feltrinelli, Milano.
- LORBER, J. (italierazko itzulpena) (1995), *L'invenzione dei sessi*, Il Saggiatore, Milano.
- MEAD, M. (italierazko itzulpena), (1962), *Maschio e femmina*, Il Saggiatore, Milano.
- Neumann, E. (italierazko itzulpena) (1981), *La grande Madre*, Astrolabio, Roma.
- SIMMEL, G. (italierazko itzulpena) (1985), "Il relativo e l'assoluto nel problema dei sessi", in Id., *Saggi di cultura filosofica*, Longanesi, Milano: 55-98.
- ZAMPERINI, A. (1998), *Psicologia sociale della responsabilità*, Utet, Torino.

LUIS ROJAS MARCOS
New Yorkeko Ospitale
Publikoetako Osasun
Elkargoko Presidentea. EE.BB.

Maskulinotasun
eredu
positiboagoetarantz

Laburpena

Historian zehar joan da eraikitzen egungo gizarte sistema, eta bertan emakumeek eta gizonek beraien paperak interpretatu dituzte. Alabaina, gidoia eta eskenatokia gizonentzat bakarrik pentsatuak egon dira beti.

XX. mendeko azken hamarkadak geroztik eta pentsamendu feministari esker gizartea ohartzen joan da gizona ez dela unibertsoaren neurgailu bakarra. Horrela, gizontasun eredu berriak osatzen joan dira, pertsonak bizizaletasunaren eta gizatasunaren ikuspegitik dituen beharretatik abiatuz.

Aldaketa horiei esker elkarbizitzarako aro berri baten hasiera ikusten hasi gara, bertan gizonen eta emakumeen arteko harremana ekitatibo, armoniosu eta atseginagoa izateko itxaropena dugarik.

Gaur egun sei mila milioi gizakik osatzen dugu gizateria gurekin ditugun bi sexuen artean banatuta: maskulinoa eta femeninoa. Behin aitaren espermatozoide gartsuak, 23 kromosoma daramatzala bere baitan, amaren obulu lasaiaren bilduki gelatinatsua zeharkatzen duenean garaile, uteroaren sarreran zain duena beste hainbat kromosomekin, guztiok edo ia guztiok ezinbestez edo gizonetzkoen taldean sartzen gara, ixa sexu-kromosoma bat eta y grekoko beste bat dituzten zelulez osatuta, edo emakumezkoen taldean, bi ixa kromosomez osatutako zelulekin.

Pentsatzen dut Homo Sapiens-ek gure espeziaren ezinbesteko sexu-dualtasunaren kontzientzia bereganatu zuen unetik, duela laurehun mila urte inguru -milurteko bat gora, milurteko bat behera- ez dira gutxi izan antolamendu banatzaile horren egokitasuna eztabaidatu dutenak. Batzuk filosofiko sentitzen diren unereren batean zalantzan jartzen dute inkognita bitxia bailitza. Dena den, nire esperientziaren arabera, zergatik ez ote garen denak gizon edo emakume ozenki gehien galdetzen dutenak "aurkako" sexuarekin izandako liskar mingots edo mingarri baten ondorioz ilusioa galdutako edo etsitako pertsonak izaten dira.

Inork ez du zalantzan jartzen historian zehar bi sexuak elkarrekin zoriontsu bizi izan garenik. Era guztietako ondasunak, proiektuak eta esperientziak partekatu ditugu, eta elkarrekin burutu dugu zibilizazioaren garapena. Baina egia da baita ere beste kasu askotan berriz norberekeriaz norgehiagoka aritu izan garela eta gure artean ezinikusiz borroka egin dugula baliabideak, boterea eta norberaren autonomia lortzearen, baita horretarako bestea errukirik gabe menderatu behar bagenuen ere.

Bikoterik zorionsuenek ere txakurra eta katua bezala ari daitezke aldi baten ostean. Estatu Batuetan esaterako senar-emazteen erdiak azkenean dibortziatu egiten dira beste herrialde industrializatu batzuetan gertatzen den bezala. George Bernard Shaw dramagile irlandar eta Nobel saridunak zioen bezala, "amodioagatik egiten diren egintzen berri izateko gertaeren orrialdea ira-

kurri behar da". Izan ere gizon eta emakumeen arteko tirabirek sarritan zorigaitzoko amaiera izaten dute.

Giza espezia gizona eta emakumezkoen artean banatzearen pisuzko motibo dezente ezagutzen ditugu gaur egun. Banaketa hori, berez, bizitzari urteak gehitzeko eta urteei bizitza gehitzeko bide ematen digun garaipen biologiko eta soziala da.

Gizonaren 23 kromosomak emakumearekin parekatuz egindako birsorkuntzak abantaila handiak ditu ingurunera egokitu gaitzen, eta gure biziraupenerako eta eboluziorako; eta ondorioz baita ere arian-arian bizitza kalitatea hobetzen joan gaitzen. Jatorri desberdineko gene anizkuren nahaste horrek eragiten duen dibertsitatea da arrazoi nagusia.

Gogora ekar dezagun une batez urte honetako otsailaren 12 historiko hura. Giza Genomaren Proiektuko eta Celera Genomics enpresako ikerlariak gure gene-maparen sekuentzia aurkeztu zuten egun. Gure gorputzaren eta adimenaren konplexutasuna ez dela gene kopuruan oinarritzen –dirudenez soilik 30.000 inguru ditugu–, baizik eta beraien aniztasunean eta euren artean sortzen diren itxura askoko milioika konbinazioetan eta forma anitzeko egituretan oinarritzen dela, izan zen zientziaren egun handi hartan ezagutzera eman zen aurkikuntzarik txundigarrienetakoa. Gure gizon edo emakume nortasunaren gainean pentsatzen dugunean, geure berezko ezaugarriak –geneak, hormonak, garunaren konfigurazioa– eta geureganatuak –esperientziak, hezkuntza eta kultura-balioak– antolatze garrantzia-ordena, erronka polemiko bezain konplexua da. Genetikako aurrerapen ikusgarriek oso erakargarria egiten dute geneen determinismoaren ideia. Egia da baita ere asko direla indar sozialak nagusi direla gure izaeraren osieran defendatzen dutenak. Margaret Mead Columbiako Unibertsitateko karismadun antropologoak, bere ikerketenatik bezain ezaguna mingainean zimurrik ez edukitzeagatik, zera idatzi zuen 1935ean: "Maskulino eta femenino deitzen ditugun nortasun ezaugarrietako askok, edo guztiek, garai zehatz bakoitzean gizarteak sexu bakoitzari jartzen dizkion soineko edo orrazkerekin bezain zerkusi eskasa dutela faktore biologikoekin esan dezakegu".

Nire iritziz, denok gara etengabe garatzen ari diren eta elkarrekin lotuta lan egiten duten era askotako osagai genetiko eta ingurunekoen, somatiko eta izpiritualen, berezko eta geureganatutakoen nahastearen ondorio.

Genero maskulinoan eta femeninoan banandutako munduan bizitzearen onurak lasaituta onartzen ditugunean, eta jai eta moldatuz joaten garela onesten badugu, iruditzen zait lagungarria izan dakigukeela gizonen eta emakumeen arteko harremanen zenbait alde historikoren errepaso laburra egitea maskulinitasun eredu berriak kritikatu aurretik.

Adituek diote prehistoriaren hasieran bizi izan ziren gizakiek zailtasun handiak izan zituztela. Naturaren eraso bortitzak babesgabe sufritzeaz aparte, sarritan gose ziren animaliez ere ezin ziren babestu. Hain zaurgarri izan arren, uste dut gizonen eta emakumeen betegarriak ziren harremanak zituztela eta somatzen zuten bizitzeak merezi zuela. Hau horrela izan ez balitz, mendeetan zehar bizi izatea eta espezie azkar eta jakitunaren garapen harrigarria ez litzateke posible izango.

Jakina denez, aditu guztiak ez datoz bat Neolitikoko gizona eta emakumearen arteko lan banaketari dagokionean. Dena den, datu antropologiko ugari ditugu eskuetan eta hauen arabera oso antzinako herriak ehiza eta basoko landare zein fruituekin elikatzen ziren, lan hauetan gizonak eta emakumeak posizio sozial berdintsuak zituzten. Kay Martin eta Barbara Woothies ondorio hauetara heldu ziren azken 200 urtetan aurkitutako hamarnaka tribu basatien ohiturak metodikoki ikertu ostean. Hala ere ezin dugu ziurtatu azken ikerketa hauen ondorioak historia aurreko aroetako ikerketetarako baliogarriak direnik.

Arkeologo ugarien ustez, Harri Aroko milaka estatuatxo eta zinginarri ikertu ostean, gehienak haurdun dauden emakume potoloak Willendorf edo Polichinelako Benusak kasu, antzinako ama-jainkosak ondo ikusiak zirela ondorioztatu dute, emakumeak balio handikoak ziren eta pribilegiatuen kolektiboko partaideak ziren. Dena den, ez dugu ahaztu behar emakume itxurako irudiak gurtzea emakumearen diskriminazio sozial eta balio ezarekin bizi izan dela, Afrodita edo Ateneatik hasita Hollywoodeko artista famatuetara eta Erdi Aroko Ama Birjinatik pasatuz.

Nekazaritza asmatzeak eta animaliak abere bihurtzeak bizimodu sedentarioagoa ekarri zuten. Orduan ere gizakien finkapen dentsu eta iraunkorrak eman ziren, denborak aurrera egin ahala hiriak bihurtu zirenak. Historialari askoren ustetan, elikagaiak lortzea errazagoa zenez aisialdia ere areagotu zen eta betebeharrak berriak sortu ziren. Ondorioz, artisau desberdinak, espezialista eta asmatzaileak sortu ziren.

Gizarte aldaketa izugarri honen onura garrantzitsuenetariko bat sumerioek asmatu zuten, idazketa alegia. Aurrera pausu erraldoi honi esker, ideiak bildu eta zabaldu ziren, pertsonen egitandi edo herrien gertakari nagusienak dokumentatu ahal izan ziren, eta nola ez, historiaren garapeneren berri eman ahal izan zen.

Dena den, duela sei mila urteko hirien sorrerak ere badu bere alde beltza, hots, gizon eta emakumeen arteko bizimodua. Populazioaren kontzentrazioak, komertzioaren gorakadak eta militarismoaren garapenak lehiakortasuna, desberdintasun ekonomikoa eta ondasun zein boterea lortzeko borroka ekarri zuten. Badirudi lehiaketa honetan gizonezkoek ardurua intelektuala, soziala eta ekonomikoa hartu zutela, emakumeek ugalketa eta umeak zaintzeko behar zuten energia, denbora eta lana aprobetxatuz. Horrela, laster gizonezkoek lortu zuten idazketa, heziketa, lege, antolaketak politikoa eta gizartearen burokrasia soziala, zein garapenak emandako fruituen monopolioa printzipio naturala bihurtu zen, eguneroko eguzkia bezain naturala zen monopolioa alegia.

Ondorioz, gizakiaren historia ofiziala eskenatokia bihurtu zen non gizonek eta emakumeek zegoen papera betetzen zuten. Obrak bien partehartzea behar zuen. Baina obra gizonezkoek baino ez zuten sortzen eta zuzentzen. Eurek gidioa zuzentzen zuten, aktoreak aukeratzen zituzten eta interpretazio guztien esanahia definitzen zuten. Gizonezkoak lehen aktoreak ziren, pertsonai heroikoak, obraren izarrak.

Duela hiru mila urte inguru Lurrean eta ia aldi berean agertu ziren profeta handiek eta hauen doktrinek (Abraham, Jacob, Moises, Lao-tse, Zoroastro, Buda, Confucio eta sei urte beranduago Jesukristo eta Mahoma) sexu femeninoaren kontrako diskriminazio sozial izugarri eta "moralki justifikagarria" ezartzen lagundu zuten. Irakaskuntza erlijioso askok irudi femeninoaren distorsio hau

babesten dute. Budari egokitako esaldi batek dio: "Emakumearen gorputza zikina da eta ezin du legearen ardurara izan". Otoitz hebreo batek ezartzen du: "Gurtua Jauna, gure jainkoa, Unibertsoko Erregea, ez ninduzun emakume egin eta". Eta Tomás de Aquinoren hitzak "Gizona emakumearen gainetik dago, Kristo gizonen gainetik dagoen bezala".

Bibliaren pasarte askok gogorazten dute gizonak direla zero jainkotiarren enbaxadore bakarrak mundu honetan. Izan ere, Genesiaren arabera, Jaungoikoak ez zuen amarik behar izan sormenerako, gizakia egin zuen jainkosaren beharrik gabe, eta harreman familiarrik gabe. Bere obrak ez du amatasun iturririk, ez dago ugalketa prozesuarekin lotuta.

Nire ustez, profeta gizonetako aurrikusitako erlijio handiak eta Jainko arra soilik gurtzen dutenak, mendeetan zehar emakume eta gizonaren berdintasuna desitxuratu dute. Horrela, hauen eragina gizakien erdiarenganako ziur asko sakonagoak eta iraunkorragoak izan dira filosofo zein buru zibil eta militar guztien jarrera misoginoak baino.

Baldintza hauek guztiek gizon eta emakumearen arteko lanaren banaketan eragin handia izan zuten. Horrela jenero bakoitzari zegozkion betebeharrak, desberdintasun biologiko edo ahalmen zein gaitasun biologikoen ondorioen baitan baino, hierarkia sozialen baitan egon ziren, gizon batzuk beste gizonengan zuten botereren arabera eta gizonetako emakumeengan zuten ia botere absolutuaren baitan ere.

Lan-eskuaren beharrak gutxiago zirenen edo galtzaileak zirenen taldeen esklabutza instituzionalizazioa ekarri zuen. Laster, esklabutza instituzio legala gizartearen oinarri bihurtu zen, oinarri hau hain izan da sendoa, kasu askotan gaur egun ere sostengatzen dela. Emakumearen esplotazio unibertsala onartzea eta aukera ekonomiko, heziketa eta prozesu politikoetatik kanpo egotea, laster, esklabutza kontzeptuarekin lotu zen modu batean edo bestean. Azpimarratu behar dugu dena den, emakume esklabuek behartutako lana egiteaz aparte, euren jabeen zerbitzu sexualak ematen zizkietela eta ume esklabuek ematen zuten aberastasunaren iturri ere bazirela.

Talde eraginkor eta boteretsua sortzen zuten monarka eta oligarkak ia beti gizonen osatuta zeuden. Errepublikak asmatu zenean ere, aukeratuak zirenak eta aukeratzeko ahalmena zutenak gizonetakoak ziren. Egia da baita ere noizean behin gobernatzen zuten emakumeren bat egon izan dela, baina hau salbuespena izan ohi da. Soilik azken hamarkadetan, demokraziak emakumeen bozkatzeko eskubidea eman die, eta herri batzuetan emakumeek oraindik ere ez dute eskubide hau.

Zoritxarrez, gizarte desoreka eta desberdintasun honek gizakiari talentu berriak aurkitzeko aukera lapurtu zion bigarren mailako paperak betetzen zituzten artean. Eta obra zuzentzeko arduraren bereganatu zutenak ere zorigaitzekoak izan ziren, antzeman zuten zamak ez baitziren berdintasun eta elkartasun giroaz gozatzeko aukerarik eman, zapaltzaile eta zapalduak izan gabe.

Iraganaren memoria labur hauek aipatu ondoren, denon inkontziente kolektiboan gordeta daudenak eta gure nortasuna lantzen dituztenak, maskulinitasunaren eredu positiboak sortu zirenenko testuingururik hurbilenak deskribatuko ditut.

XX mendean ezaugarri nagusienak, zientziak lortutakoak (erlatibitatea, energia nuklearra, injineritza genetikoa), asmakizun teknologiko zoragarriak (aeroplanoa, telebista, ikuzgailua, inter-

net), mirari-botikak (txertoak, antibiotikoak) eta emakumearen aurrerapausoa gizonarekiko berdintasun sozial eta ekonomikoa lortzeko borrokaren bultzada lirateke. Honen adibidea herri garatuetan onartutako emakumearen bozkatzeko eskubidea litzateke, besteak beste, Alemanian, Italian eta Suedian 1919an, Estatu Batuetan 1920an, Espainian 1931an, Frantzia 1944an eta Suitzan 1971an.

Agian XX mendeko konkista sozial handiena gizona gizakiarekiko neurri bakarra ez dela deskubritzea izan zen, bi neurri desberdin daudela baizik: gizona eta emakumea. Aurkikuntza honek gure kontzientzia aldatu zuen, Copernicoren aurkikuntzak baino gehiago agian, hots, Lurra ez dela unibertso erdigunea.

Inork ezin du ukatu emakume izateak azken hamarkadetan garapen izugarria izan duela. Mugimendu feministak eta antisorgailu ziur eta eraginkorrak, batez ere 1960an pilula merkaturatu sartu zenean (bizitza-kalitate medikuntzaren lehen fruitua), izan dira aldaketa honetan eragin handiena izan duten bi gertakariak.

Gaur egun emakume gehienek badakite zein harreman estuak lotzen dituen ugalketa eta euren bizitza propioa. Emakume gehienek ustez, gaur eguneko bizitza ekonomiko, politiko eta sozialean berdintasunean parte hartu ahal izateko, ugalkortasuna kontrolatu behar dute. Gero eta emakume gehiago joaten da unibertsoetara, ardua karguak daukate, beranduago ezkontzen dira eta ume gutxiago dute. Emakumeen parte hartzea lan-munduan etengabeko gorakada izan du.

Espeziearen superbizipenerako ugalketa beharrezkoa zenean, aitaren paper hornitzailea eta amaren paper zaindaria ia derrigorrezkoa zen. Gaur egun aldiz, "gizona lanean eta emakumea etxean" irudia ia iraganeko gauza da. Errealitate sozial eta ekonomikoek defendatu beharreko ideala iraganeko errelikia bihurtu dute.

Mugimendu feministari esker emakumeak tokia lortu du gizonezkoen botere sozialaren estrukturan, ekonomiaren erreinuan, negozioetan, ogibideetan eta tradizioz gizonezkoek kontrolatutako botere politikoan. Azken 30 urteetan, gizonezkoen botere soziala kultura feministarekin kutsatuz joan da. Emakumeak gizona desafiatu du, honek bere nortasuna alda dezan eta bikote dinamika berriera egokitu dadin. Emakumearen metamorfosiak gizonezkoaren egokitzapen aldaketa ekarri du. Emakumearen aurrerapauso sozial eta ekonomikoa sexu bien garapenaren agentea izan da, eta emakumeak iraganeko estereotipoetatik askatzen diren bitartean, gizonezkoak arra-irudi gogor, zaharkitu eta jasangaitzetik alde egiten saiatzen dira.

Adibidez, duela gutxi arte etxeko eskenatokian aita urruneko aktorea izan da, nabaritzen ez zena, agertzen zenean zeharka egiten zuen, bigarren maila batean. Nire ustez, urruntasun hau izan da aita askoren arrazoia aukeratu beharreko papera erabakitzerako orduan lehen erronka. Aita batzuk gizon ehiztariaren papera aukeratzen zuten, haurren heziketatik libre egon behar zirenak, ama eta seme-alabak babestu eta hornitu ahal izateko. Beste batzuk errege magoaren papera jokatzen zuten, ia beti etxetik kanpo zeudenak baina bueltatzerakoan guztientzako opariak ekartzen zituenak. Aita batzuk lagun edo kidearen papera jokatzen dute, eta ez zuten partehartze errealik seme-alabak nagusiagoak egin arte, hots aitari interesatzen zaizkion gaietaz hitz egiteko gaitasuna izan arte. Beste batzuk autoritate moral goienekoaren papera jokatzen zuten, ondo da-

goena eta gaizki dagoena erabakitzen zuen epailearen papera alegia. Paper hauek bakar batean elkartu zitezkeen arren, ezaugarri amankomuna dute: ardura urrunetik gauzatzea.

Etxeko bizitzaren historian zehar aiten papera ia hutsa izan ohi da. Ume gehiegi amek bakarrik hezi dituzte. Etxe hauetan sarri huts izugarria nabaria zen, zulo handi bat zeinetan agertzen ez zen pertsona bat bilatzen zen, pertsona honen hutsuneak beti ere presente mantentzen zuena. Hau da aitaren gosea epidemiaren arrazoia, edo beste modura esanda, gazte askok bizi izan duten aitarekiko lotura emozionalaren nahi izugarria. Bete gabeko nahi honek galera sentimendu kronikoa sortarazten du, baita irudi paternal edo autoritate irudiekin harremanak izateko zailtasuna ere.

Haurren heziketan aitaren partehartzea justifikatzeko erabilitako arrazoiatariko bat amatasun instintoa izan ohi da, gen femeninoek soilik duten indar natural gisa, eta ustez emakumeak soilik hornitzen dituen haurrak zaintzeko beharrezkoak diren gaitasun emozionalekin, umeen garapen emozional egokia lortu ahal izateko. Gaur egun dena den, badakigu haurrak zaintzeko beharrezkoak diren gaitasunak ez daudela energia instintiboaren menpe, baizik eta ikasten diren jokararen menpe eta pertsonaren izaeraren aspektuen menpe. Izan ere, gizonezkoek hauek ikas ez ditzaten arrazoirik ez dago.

Arketipo guztiak aldaketaren kontrakoak izaten dira, baina aitaren irudi urrun eta zorrotza bezalako irudi sendoa bereziki kontrakoa suertatzen da. Gizonaren irudi idealizatua, Olimpo eta Genesiaren losa zaharretan bermatutakoa, gizona boterea, arrakasta, nagusitasuna eta edozein prezioetako askatasuna bilatzera bultzatu zuena, memoria kolektiboko zatia da oraindik ere, mito eta estereotipoen estalki distiratsua duena.

Zentzu batean gure kulturaren asmoek gizona ia ekidin ezina den tranpa baten aurrean jarri dute: gizona "aita ona" izateko, ezer baino lehen, hornitzaile lana bete behar du eta honek denbora gehien etxetik kanpo egotera behartzen du. Baina aldi berean, etxetik kanpo egoteak umeengan afektibitate falta eta segurtasun eza dakar. Dena den, gero eta aita gehiagok nahi dute euren papera hornitzaile baino gehiago izatera heltzea. Aktiboagoak eta nabariagoak bihurtzen dira eta euren ustetan, ogibidea edo etxeko lanetan aritzearen artean libreki aukeratu ahal izango balute, bigarrena aukeratuko lukete. Etxezaleagoak dira, espresiboagoak, samurragoak, oro har, bihozberagoak.

Gero eta gizon gehiagok lana eta aita izatearen arteko erronkaren aurrean aurkitzen dira. Gaur egun aita ona izatea zein zaila den isladatzen duen dilema. Bestalde, sarritan tartekoa ez dugu kontutan izaten, hots, aita nahiko ona. Aitaren eredia muturretako paperek baino ez dute jokatu, hots, aita langile, errespetagarria eta etxezalea edota aita berekoia, gaiztoa eta indiferentea.

Maskulinitate eredu berriak ez dira idealizatutako gizonen sinboloetan oinarritzen, baizik eta denborazko ezaugarri zehatzetan. Eredu hauetan espeziearen bizi iraupenarenganako berezko ardura eta eguneroko bizitzaren prozesurako lotura sartzen dira. Beste ezaugarri bat baloreen eskala litzateke, berdintasuna errazten duena eta hierarkiak alboratzen dituen, eta bizitza-kideen ongizatea ideologia eta kontzeptu abstraktuen gainetik jartzen duena. Maskulinitate eredu berri hauek bortizkeriaren kontrakoak dira eta arazoak konpontzeko tresna gisa negoziaketa eta bata-

suna onesten dituzte. Enpatia handia duten ereduak dira, besteen errealitatean benetan kokatzeko gaitasun hori, malgutasun handia ere badute eredu hauek, gu geu eta gure ingurua etengabe aldatzen duen indarrak antzeman ahal izateko. Oro har, maskulinitatearen eredu berriek pertsonaren ezaugarri bitalista eta bihozberekin garatzen dira.

Maskulinitate berria eskola giroan, unibertsitatean, lanean eta aisialdi ekimenetan isladatzen da, baina batez ere, familia barneko bikote harremanetan. Positiboagoak diren eredu hauek berdintasunaren nahian oinarritzen dira, emakumeen aldarrikapenak kontutan izaten dituzte eta sentsibilitate maskulinoaren dosi handia dute.

Adibidez, gaur eguneko bikoteak lagun minak, kide intimoak eta bikote sexuala izateaz aparte, etxetik kanpoko eta etxeko lanean, zein umeen zainketa eta heziketan parte hartu nahi dute. Bikote askorentzat harreman kontzeptu hau erronka handia da. Dena den hauxe da gero eta emakume zein gizon gehiagok nahi duten elkarbizitza prototipoa.

Hala ere, gure kulturak hiru joera elikatzen ditu, ohituretan oso bermatuta daudenak eta maskulinitate positiboko eredu berrien garapenerako oztopo direnak: "Arra" gurtzea, lehiakortasuna eta "besteak" bereizketa printzipioa. Argitu dezadan aurrekoa: gure gizarteak oraindik ere "gizona izatea" miresten du, Rambo izatea, maskulinitatearen estereotipo gogorrak ospatzen ditu. Idealizatutako irudi hau gizon agresiboak, tinkoak, beti ziur dagoenak errepresentatzen du. Beldurrik gabe erronkak botatzen dituen, besteekiko nagusitasuna bilatzen duena, mina kexatu gabe jasaten duena eta sentimenduak adierazten ez dituen gizona. Irudi hau nabaria da umeen azpi-kulturan, irakurketetan, telebista emanalditan, kiroletan eta bideo-jokuetan.

Eredu maskulino berriak zulatzen dituen bigarren joera kulturala lehiakortasuna da. Gure kulturaren norgehiagoka miresten da eta enfrentamendu egoeretan lortutakoak gorai patzen dira, hauek modu argi batean edo ez, beti irabazle eta galtzaile bat eskatzen dutelarik. Gaur lehiaketa birusa dugu. Uste dugu antagonismoa eta lehiakortasuna eguneroko bizitzaren beharrezko elementuak direla, ideia hau oso bermatuta dago mendebaldeko gizarte maskulinoan.

Paradigma maskulino berriak ere "besteak" printzipio zaharra gainditu behar du. Honek argi erakusten du pertsona talde batzuekin oso harreman eskasa dugula, ezta humanitatearen parte bereizi bat ere. Talde hauek desberdinak izateaz aparte, azpitik uste dugu, guk baino balio gutxiago dutela. "Besteak" printzipioa, normalean berez ulertzen dena, marjinazio eta diskriminaziorako aitzakia ematen du, "desberdinak" diren taldeei buruzko ideia kaltegarriak izateko baimena ematen digu, baztertze, gizaki mailatik kanpo uzteko eta batzutan euren kontrako bortizkeria erabiltzeko ere.

Maskulinitatearen eredu berriak kaltetzen dituzten mezu eta balio kultural hauek gainditzeaz aparte, joera eta jarrera positiboak biderkatzeko aukerak handitzen dira, gure ezaugarri maskulinoak onartzen baditugu hauek ezeztatu, desitxuratu edo ekidin beharrean. Sokratesen aholku zaharrak "zure burua ezagutu ezazu" eta "egiak askatuko zaitu", gaur egun baliagarriak dira ere. Jenero maskulinoa ezagutzen dugun heinean, aldatu ezin ditugun gizonezkoen jarrera eta portaera tipikoak ezin izango ditugu onartu, aldagarriak direnak ezabatuko ditugu eta jarrera mota bien arteko desberdintasuna somatu ahal izango dugu. Gainera, besteekiko orokortasun automatikoak eta

epai azkarregiak zalantzan jartzera lagunduko digu, hala nola aurreritzi pozointsuak, sinesmen sexistak eta gure baitan dugun narzismoa gainditzen lagunduko digu. Zama honetatik libratuz gero, elkarrekin lan egin ahal izango dugu gure arteko harremanak sendoagoak eta estuagoak bihurtzeko, ez bakarrik emakumeekiko, baizik eta gure artean ere.

Emakumearen askapena eredu maskulino positiboaren garapenarekin batera, gizarte osasuntsuago bat lortzeko indarra da. Gizarte osoagoa, kreatiboagoa eta betegarriagoa parte bien batuketa soilak suposatzen duena baino. Abraham Lincoln lehendakariak, Guda Zibilean gobernatu zuenak eta hegoaldeko esklabuak askatu zituenak, 1861etan EEUUko herriari esan zionez bere hasierako diskurtsoan, "gure banaketekin amaitu dezagun eta batasuna bultzatu dezagun gure naturaren aingerurik hobeak suspertuz".

Behin jarrera zorrotzak, emozioetan sostengatutako argudioak edo "onak" eta "txarrak" bezalako sailkapen sinplistik ezabatu ostean, gure burua ezagutzen hasiko gara eta bizitzan ditugun kide-etaz zein euren egoeraz benetan arduratzen hasiko gara. Esaera zahar batek dioen bezala "ezer ezagutzen ez duenak ez du ezer maite, baina ulertzen duenak maite du baita ere. Zerbait zenbat eta gehiago ezagutu are gehiago maitatu daiteke".

Bukatu baino lehen uste dut ez nintzatekeela gizakiarekiko justua izango, gertakari lasaigarria bezain egiazkoa den bat gogoratuko ez banu. Elkarbizitzarako garai berri baten egunsentia deskubritzen ari gara. Emakume eta gizonen arteko harremana berdintasunean oinarrituko den garai hobea, aro armoniosu eta eskertzekoa. Ehundaka ikerketek adierazten duten moduan eta egunero jende askok onartzen duen moduan, gizon eta emakumeen arteko harreman ona euren zoriontasunaren iturri nagusia da. Harreman betegarriak pozaren zergati garrantzitsua da eta baita bizitzak ematen dizkigun buruhauste askoren kontrako antidotoa ere. Egia da eguneroko bizitzan elkarbizitza onak bikoiztu egiten duela ilusioa eta tristura erdira gutxitzen duela.

Bibliografía

- BEAUVOIR, Simone de: *The second sex*, Alfred A. Knopf, New York, 1952.
- FROMKIN, David: *The way of the world*, Alfred A. Knopf, New York, 1999.
- HOYENGA, Katharine Blick eta Hoyenga, Kermit T.: *Gender-related differences*, Simon & Schuster Inc., Boston, Massachusetts, 1993.
- LERNER, Gerda: *The creation of patriarchy*, Oxford University Press, New York, 1986.
- MARTIN, Kay eta VOORTHIES, Barbara: *Female of the species*, Columbia University Press, New York, 1975.
- MEAD, Margaret: *Male and female: a study of the sexes in a changing world*, Morrow, New York, 1949.
- ROJAS MARCOS, Luis: *La pareja rota*, Espasa Calpe, Madril, 1994.
- ROJAS MARCOS, Luis: *Las semillas de la violencia*, Espasa Calpe, Madril, 1995.
- ROJAS MARCOS, Luis: *Nuestra felicidad*, Espasa Calpe, Madrid, 2000.
- WADE, Nicholas: "Genome's riddle, few genes and much complexity", *The New York Times*, 13 de febrero, 2001.
- WILSON, Edward O.: *Consilience*, Alfred A. Knopf, New York, 1998.

KENNETH REINICKE

**Generoari Buruzko Ikerketa
eta Dokumentazio Zentro
Nazionala. Danimarka**

Gizonak

J.J.J.

milurtearen

aurrean

Laburpena

Hitzaldi honen xedea hirugarren milurtekoari aurre egin behar dion Europako gizona jorratzea da. Hegoaldeko Europako, Balkanen inguruko eta ipar Europako estereotipo maskulinoak eta maskulinitasunak alderatuko ditut. Alderatze ikuspuntutik egingo dut Italian maskulinitasunei buruz doktorego-tesia egin nuelako, Albanian Giza Eskubideen Agente gisa egon nintzelako eta gaur egun Danimarkan gizonak genero-berdintasun gaietan gehiago konprometitzearren lanean dihardudalako.

Luzatuko ditudan galdera batzuk gizonak genero-gaiez interesatzea lortzeko dauden zailtasunei dagokie. Zergatik generoari buruzko galderak gizon bakan batzuei besterik ez zaie interesatzen? Nola aztertu eta konprometituko ditugu gizonak genero-gaien inguruan, eta zeintzuk dira eskentoki politikoan generoari buruzko galderak egiterakoan topatzen ditugun kultur oztopo desberdinak? Ba al dago desberdintasun handirik Europako estereotipo maskulinoen artean? Horrela bada, zeintzuk dira hau eragiten duten arrazoi kultural eta instituzionalizatuak? Maskulinitasuna krisian al dago? Ba al dauka zentzurik horrelako galdera batek? Nola ulertu behar ditugu maskulinitasunak eta genero-egintza maskulinoak? Zein da hirugarren milurtekoari aurre egin behar dioten gizonengan globalizazioak duen eragina?



1.

Sarrera

Gizonezkoei eta maskulinitateari buruzko ikerlana, eta horren lotura gizonezkoek burututako politikarekin, oso gai korapilotsua da. Testuinguru politikoan gaia aurkezteko zailtasunak ematen dira eta gainera eremu akademikoetan gizonezkoei eta maskulinitateari buruzko ikerlanak burutzera-koan erresistentzia nabaria da mundu osoan zehar. Maskulinitateari buruz idazteak izan dezakeen esanahi politikoa ez da zehatz-mehatz argitu. Gizonek gizonezkoei eta maskulinitateari buruz lanean dihardutenean lortu nahi dutenari buruz ez da inolako adostasunik erdietsi. Maskulinitateari buruzko ikerlanaren helburuak oso eremu zabalak hartzen ditu, esaterako, sexuen arteko berdintasunaren aurrean gizonezkoen dituzten mugak, gizonezkoen indarkeria eta euren burua deuseztatzeke sentitzen duten nahia, gizabanakoari erreparatuz gizonezkoen izaera nola alda daitekeen ikustea, eta sexuen arteko berdintasunari buruzko eztabaidan gizonezkoen partaidetza nola areagotu daitekeen aztertzea.

Maskulinitateari buruz idaztea lan erraza eta zaila da aldi berean. Erraza da gai ugari dagoelako jorratzeko; argi dago bizimodu eta izaera aldatuz gizonezko askorengana ailegatzeko aukera badagoela. Bestalde, maskulinitateari buruzko ikerlanak oso esparru korapilotsuan mugitzen dira eta zaila izaten da azterketak burutzea, zalantzan jartzen baitituzte balio handiko ezaugarriak, besteak beste, lehiakortasuna, adorea eta handinahia. Ezaugarri horiek jada positibotzat hartzen dira eta ez da lan erraza izaten horien izaera negatiboa erakustea.

Generoari buruzko nire ikerketetan, gehienetan Pierre Bourdieu-ren genero sozialari buruzko teoriarekin bat zetozen maskulinitateari eta generoari buruzko ikerlanekin egin dut lan, hau da, betiere munduaren ordena sinbolikoa azpimarratzen zituzten lanak. Nire ustez praktika sozialaren alderdi sinbolikoak funtsezkoak dira gizonezkoen nagusitasunaren izaera orokorrean ulertzeko. Aurkezpen honetan askotan "naturala" eta "naturalizazioa" terminoak erabiliko ditut maskulinitateak nola eratzen diren aztertzerakoan. Nik esango nuke maskulinitatea gizarteak berak eraikitzen duen zerbait dela. Eraikuntza ematen dela esan genezake berez maskulinitateak ez duelako forma bakar bat. Gizonezko zurien artean, gehienak klase ertainekoak eta heterosexualak izanik, maskulinitate ezberdinak aurki ditzakegu, eta generoaren araberako praktikek osatzen dute nagusitzen den ideologia.

Nire ustez, lan egiterakoan garrantzizkoa da Mediterraneoko gizona sailarekin aritzea, berez sail honen barruan ezberdintasun ugari ematen bada ere. Baina badago familiaren egituraketa zehatz bat, hots, "familia mantentzen edo sostengatzen duen" gizona litzateke oinarri nagusia. Senideen arteko lotura oso estua da, amatasunari garrantzi handia ematen zaio, eta testuinguru politikoa ere gizonezkoen esku dago. Nire doktore tesian erdietsitako ondorio nagusia zera litzateke: azterketari dagokionez behintzat, zentzuzkoa da mediterraneoko testuinguru abiapuntutzat hartzea. Eremu horretako dinamika politiko, kultural eta sozialak gizonezkoen hainbat printzipio hedatzen dituen indarra lirateke, antzeko ezaugarriak dituzten printzipioak baitira. Familiari buruzko ideologia garrantzitsua da, eta familia barruan garatzen den bizitzari gizabanakoari baino garrantzi handiagoa ematen zaio. Aitzitik, Eskandinavian ez da hala gertatzen. Familiaren eraikuntza soziala guztiz ezberdina da Mediterraneoko ingurukoarekin alderatuz gero, eta gainera eragin izugarria dauka lagun bakarrak osatutako familietako kideen estrategia eta egoeran.

2001eko martxoan EBk Suedian "Gizonezkoak eta Berdintasuna" gaiari buruz antolatu zuen hitzaldian esku hartu. Hizlariak azpimarratu zuten, oraindik gizonezkoak familiaren sostengu nagusia izatea espero da, euren lanari lehentasuna emango baitiote familiaren aurrean; ez da espero gizonezkoak gizarteari edo gizadiari laguntzeko helburua duten lanbideetan aritzea; eta azkenik, gizonezkoek etxeko lanak eta haurren zainketa emakumeen esku uzteko baimena ematen zaie.

Generoen arteko ezberdintasunak mundu osoan barrena aurki ditzakegu politika eta ekonomia mailan eta maskulinitatearen ezaugarrien parekotasun handia ikus daiteke mundu osoan zehar. Ia kultura guztietan, maskulinitateak emakumeentzako debekatuta dauden jarduerak eta esparruak finkatzen ditu. Oro har eta esparru publikoari dagokionez, askotan maskulinitateak eta emetasunak bat egiten dute, baina betiere etxeko bizitzarekin lotuta. Politikak eta praktika homosexualek erakutsi digutenez gorputzaren ezberdintasunak ez dira funtsezkoak; gainera joera sakonena askotan gizarteak berak mugatzen ditu. Baina ezberdintasun anatomikoek guztiz garrantzizkoak dira generoa gizarteratzerakoan, eta alor askotan praktika heterosexualak oraindik fenomeno naturaltzat jotzen dira. Gizona familiaren sostengua dela erakusten digun ideiak oso hedapen handia dauka oraindik eta beraz gizonezkoek euren nortasuna eratzeko funtsezkoa izaten da. Gizonezkoek emakumezkoak zaindu behar dituztela eta gizon zaharrek gazteak zaindu behar di-

tutzela dioen ideia, Kate Millett-ek "Sexual Politics" (Politika Sexuala) bere liburu ospetsuan esaten zuen bezalaxe, oraindik garrantzi handikoa da.

2.

Ikuspegi konparatiboa

Nire ustez, egokia izan daiteke maskulinitateen ezaugarriak orokorrean eta nazioartean ematen diren parekotasunak eta ezberdintasunak aztertzea. Ikuspegi konparatiboak maskulinitate eredu ezberdinei buruzko kontzeptuak finkatzen laguntzen du, eta gai honetan Jeff Hearn-ekin ados nago, berak zera baitio: testuinguru orokorrean eta erakundeetan aurki ditzakegun maskulinitate ereduak buruzko ikerlan gehiago behar ditugula.

"Gizarte osoaren bitartez nazioarteko eta nazio bateko testuingurua aztertzeak duen garrantzia behar den moduan ezin du azpimarratu, eta ez bakarrik eguneroko bizitza eta familiari dagokionez. Generoen arteko ezberdintasunak hainbat arlotan aurki ditzakegu: gobernuak, nazioarteko enpresak, armada, armen salmenta, finantzak, talde aberatsak, goi mailako jendea eta nazioarteko hainbat erakunde". (Hearn, 2001).

Ikerlan konparatiboak abantailak eta mugak dauzka. Baliokidetasunari buruzko gaiak, beraz, funtsezkoak gertatzen dira azterketa konparatiboa burutzerakoan. Ikuspegi konparatiboa baliagarri da gizarte mailan ematen diren parekotasunak eta ezaugarri berdintsuak bereizteko, baina garrantzitsua da termino teorikoen jatorria zein den ezagutzea eta konparazioa garatzean zehaztasun osoz jokatzeko testuinguru sozialaren funtsezko ezberdintasunak finkatzearen. Sail bakoitzak esanahi gutiz ezberdina izan dezake testuinguruaren arabera eta, horrela, sailkapenak finkatzean eta ezberdintasunak bereiztean sor daitezkeen arazoak ere aintzat hartu behar dira.

Nazioa eta Estatu batzen dituen ereduak azterketa konparatiboan askotan erabiltzen den unitatea da. Baina nazio-estatu hori ez da beti parametro egokiena ikerlan konparatiboa burutzeko. Nazio-estatuaren mugak eta kulturaren mugak askotan ez dira bat etortzen. Mediterraneoko testuingurua, adibidez, herrialde ezberdinetan banatzen da. Nazio eta kulturen arteko mugak zehaztea batzutan zaila izan daiteke, eta testuinguru kulturala bera ere zehaztea ez da erraza izaten. Baina guztiz funtsezkoa da azaleko parekotasunak alde batera uztea eta edukiari heltzea.

Azterketa konparatiboa jorratzen duen ikertzailearen erronka etnozentrismoa eta erlatibismo kulturala alde batera uztea da. Maskulinitateak aztertzen direnean garrantzizkoa da ezberdintasun kulturalak ere aztertzea eta, aldi berean, ez da baztertu behar ohorea eta gizentasuna oinarritzat hartuz garatzen diren jardueren tradizio kulturala. Berez, gerta daiteke globalizazioaren eta maskulinitateen arteko lotura sinplifikatzea; horregatik oso garrantzitsua da kultura ezberdin bakoitzak era ezberdineko generoak eratzten dituela ikustea. Horrez gain, gerta daiteke generoei buruzko ikerlanak jarduera akademiko eta teoriko hutsa bilakatzea. Behin batean Karin Widerberg irakasle suediarrek arazo hori oso modu interesgarrian azaldu zuen zera esanez: askotan generoaren teoriak "generoari buruzko teoriari buruzko teoriak" izaten direla eta ez "generoari buruzko" teoria.

Metodologia dela-eta, arazo bereziarekin topo egiten dugu generoari buruzko ikerlanak garatzerakoan. Generoari buruzko ikerlanak aipatzen ditugunean, horien egituraketa zientifikoa zaila izaten da. Ohorea, intimitatea eta sexualitateari buruzko ikerlanen izaera sentimenekin lotuta dagoenez, zaila izaten da ondorioak erdiestea, gauzak neurtzea edota azterketa zehatzak gauzatzera. Oro har, ikerlanaren eremuari "susmoen soziologia" esango nioke.

Badirudi ez dela batere egokia generoarekin lotutako rola konparatzea, Albaniako rola eta Europako ekialdeko herrialdekoak alegia. Sexuen arteko ezberdintasuna Albanian sustrai sendoak dituen jarrera da eta aspalditik hala izan da. Horregatik, ez da erraza egoera hori konparatzea ekialdeko herrialdeek bizi duten egoerarekin. Baina "muturreko kasua" izanik Albania aukatatu dut maskulinitatearen eta indarkeriaren arteko lotura aztertzeko. Italian ere sexuen arteko ezberdintasuna tradizio handikoa izan da, emakumeak bizitza publikoan baztertuta geratzen baitziren; emakumeek etxeko lanak egin eta umeak zaindu behar zituzten besterik gabe. Baina sexuen arteko harremanen "izaera" ezberdina da Italia eta Albanian; halere ohorearen kontzeptuari Italian ere garrantzi handia ematen zaio. Ohiko bizitzaren izaera aztertu ahal izateko garrantzizkoa da zera ikustea: Italian ohorea beti eta testuinguru guztietan ematen den zerbait dela. Danimarkan aitzitik ohorea/lotsa bikotea oinarritzat hartuz gauzak baloratzeko ohiturarik ez dago. Danimarkaren kasuan, interesgarria da generoari buruzko kontu honen eragina eta ondorioak aztertzea, jende gehienak uste baitu ez dela aparteko bereizketarik burutzen sexua dela-eta.

3.

Fer da maskulinitatea?

Zer dugu buruan maskulinitateaz hitz egiten dugunean? Eta zer izan beharko genuke buruan? "Manhood in the making" liburuan (Gizentasuna/gizona sortzeaz dago) David D. Gilmore-k gizentasuna honela definitzen du: "gizarte zehatz batean pertsona heldu arra izateko era onargarria" (Gilmore, 1990). Nire ustez, maskulinitatea hitza bera ere aipatzea arazoak sor ditzake. Nire kasuan, gogoan daukat nire senide bati maskulinitateari buruzko ikerlana prestatzen ari nintzela esan nionean, berak "ilargira joan behar nuela" esan banu bezala begiratu baitzidan.

Maskulinitatearen eta globalizazioaren arteko lotura ulertzea garrantzizkoa dela uste dut gero generoaren tokiko egiturak ulertu ahal izateko. Mundu osoan zehar, sexuen arteko harremanei dagokienez, aldaketa asko ematen dira, eta horiek denek eragina daukate tokiko egiturari. Gizonezkoek generoaren arabera burututako jarduerak eta maskulinitate ezberdinak ulertzearen beharrezkoa da esparru bakarria finkatzea, tokiko eremu berezia eta eremu unibertsala bateratuz. Tokiko testuingurua garrantzitsua bada maskulinitateak ulertu ahal izateko, alderdi batzuk tokiko esparrutik kanpo aztertu behar dira.

"Berez, toki zehatz batean gertatzen dena herrialde osoaren historiak baldintzatzen du, baina aldi berean, herrialde batean gertatzen dena mundu osoaren historiak baldintzatzen du. Une honetan (edo urte askotan zehar behintzat) toki ezberdinetako bizitza alderdi ugari baldintzatzen du, besteak beste, borroka geopolitikoak, mundu osoko merkatuak, nazioarteko korporazioak,

edota nazioarteko hedabideak. Bada garaia funtsezko ezaugarri hori gizonezkoei eta maskulinitateari buruzko azterketan sartzeko". (Connell, 1998).

Maskulinitateaz hitz egiten dugunean kontzeptuak argi eta garbi zehaztu behar dira horien bitartez erabat finkatuta dagoen patriarkatuaren eta gizonezkoen ohiko bizitzan ematen diren espe-
zientzien arteko lotura erakustearren. Maskulinitatea generoaren arabera jarduerak finkatzen di-
tuen zutabe bezala gizabanakoak ez ezik, taldeek eta erakundeek mantentzen dute. Esparru pu-
blikoa nola erabili eta menderatzen duten ikusita, gizonezkoen nagusitasuna agerikoa da. Gizon
askok esparru publikoa beraiena dela uste dute. Adibidez, Michel Kimmel-ek zioenez, lantokian
emakumeak gizonezkoen parekoak direla ez onartzeak dakarren ondorioa litzateke sexu jazar-
pena (Kimmel 2001).

Bob Connell-en ustez, gizartea maskulinitateentzako eszenatokia besterik ez da. Connell-ek azter-
ketan erabiltzen den "maskulinitate nagusia" terminoa honela definitzen du:

"generoaren arabera gizonezkoen jardueren egituraketa da, patriarkatuaren zilegitasunaren
arazoari gaur egun erantzun onargarria ematen dion egituraketa alegia, eta aldi berean gizonez-
koen jarrera nagusia eta emakumezkoen menpetasuna bermatzen du (edo bermea bideratzen
du)". Connell, 1995).

"Maskulinitate nagusia" terminoa erabiltzearen garrantziaren kontua funtsezkoa da. Zenbat mas-
kulinitate anitz behar ditugu maskulinitate nagusiaren eredu aldatu egin dela esan ahal izateko?
Connell-ek zera azpimarratzen du: maskulinitatei buruzko azterketa maskulinitate anitzetan, hie-
rarkian, nagusitasunean, taldekako maskulinitateetan eta maskulinitateen arteko kontraesanetan oi-
narritu behar dela.

4.

Ume izatetik heldutasuna lortzera

Mundu osoan zehar ikusten al dugu parekotasunik mutikoak gizon nola bilakatzen diren aztertze-
rakoa? Mutiko askok oso heziketa zorrotza jasotzen dute eta estimatua izan behar den herentzia
emozionala dutela ustearekin heldutasuna erdiesten dute. Victor Seidler-ek "itxitura" terminoa era-
biltzen du mutikoek euren sentimenduak ezkutatzen eta naturaltasuna galtzen nola ikasten duten
azaltzeko. Zalantzarik gabe gizonezko asko beldur dira, euren sentimenduei buruz gehiegi hitz
egiten badute maskulinitatea zalantzan jarriko dutenaren beldur alegia. Gizonezkoak gizartera-
tzen diren heinean, euren sentimenduak eta emozioak gutxitu egiten dira. Michael Kaufman-ek ho-
nela azaldu du gizonezkoek beste gizonen aurrean izan ditzaketan beldurra eta larritasuna: "be-
ste gizon guztiek zapaldu egingo naute, nire etsaiak dira, nire lehiakideak" (Kaufman, 1987).

Zergatik da zailagoa gizonezkoentzat ardurua handiagoa erakustea euren bizitza emozionala
dela-eta? Victor Seidler-ek dioenez, gizonezkoen izaera batez ere lantokiko esparru publikoan fin-
katzen da, eta gizonezkoek euren burua baloratzen ikasten dute betiere maskulinitate nagusiek es-
kaintzen dituzten kanpoko ezaugarri estandarren arabera. Gizonezkoak euren jardueretan baka-

rrik existitzen dira – berez ez dira existitzen. Hainbat gizonzkoren kasuan, oso tarte handia dago euren buruaz pentsatzen ikasten dutenaren eta barrenetik benetan nola sentitzen direnaren artean. "umetan askotan gezur berarekin bizitzeko modu ezberdinak daudela ikasten dugu, gure bizitza emozionalaren errealitatea baztertzen ikasten baitugu" (Seidler, 1977).

Maskulinitatea ulertzerakoan bi puntu hauek garrantzizkoa dira: batetik, beste gizonzkoak baztertzeke nahia eta bestetik homosexuali gizonzkoen ohorea kentzeko joera. Maskulinitatearen nagusitasuna mantentzeko homosexualitatea baztertzea beharrezkoa da. Futbol zelaietan, adibidez, askotan zaleek arbitroari oihu egiten diote eta halakoetan homosexualen aurkako irainak erabiltzen dituzte. Mutiko askorentzat, kontu nagusia gay ez direla erakustea da. Bat nator Victor Seidler-ekin oso tarte handia dagoela euren buruaz pentsatzen ikasten dutenaren eta barrenetik benetan nola sentitzen direnaren artean dioenean. Gizonzkoak hazten diren heinean, euren segurtasun eza eta larritasuna ezkututzen ikasten dute eta ez diete esaten emozioak naturaltasunez adierazteko. Gizonzkoek konpondu gabeko euren iragana ez onartzen ikasten dute eta euren zioak eta arrazoiak ontzat ematen dituzte. Gutxi gora-behera, emozioak erakustea "ez dela arrazoizkoa" ikasten dute. Hainbat gizonzkoek euren burua kontrolatzen ikasten dute, eta geure sentimenduei buruz ez dugu ezta txintik ere esaten. Beste maila batean ere, interesgarria da zera eztabaidatzea: zergatik da hain zaila gizonentzat euren esperientziak aditzera ematea horiek adimenaren iragazkitik pasa gabe.

Duela gutxi, Danimarkan umeen aurkako sexu gehiegikeriei buruzko hitzaldi batean esku hartu nuen. Benetan ikusgarria zen zer zaila eta deserosoa izan zen gizonzkoentzat jasan zituzten sexu gehiegikeriak aitortzea. Lotsa segur aski mitoek eragiten dute, horien arabera gizonzkoek ezin baitute gehiegikeriarik jasan, eta gainera kulturak berak onartu ostean jendearen artean hedatu duen ustearen arabera, sexu gehiegikeriak jasan dituztenek gero bortxatzaile izateko arrisku handia dute. Homosexualtzat hartuko dituztelakoan eta euren emetasuna areagotzeko arriskua dela eta, gizonzko askok euren sekretua gorde eta isil-isilik bizi dira.

5.

Matxismoa

Gizonzkoon arteko harremanetan zergatik nagusitzen da lehiakortasuna? Nire ustez gizonzko gehienek uste dute euren maskulinitatea inoiz ezin dela segurtzat ematen. Euren buruari erakutsi behar dioten zerbait da eta zaila da arauak apurtzea, hots, benetako gizona zer den eta benetako gizona zer izan beharko litzatekeen finkatzen duten arauak.

Matxismoari buruz mito asko dago. Matxismoa oso arazo korapilotsua da, irrigarria eta erakaragarria izanik, bi muturren artean kokatzen den arazoa baita. Ralph Bolton-ek "Matxismoa abian" artikuluan Peruko kamioi gidarien jarrerak eta baloreak aztertuz erakutsi zuenez, matxismoa hainbat alderditan oinarritzen da, besteak beste, boterea, inbidia, norberaren gorapena eta sexualitatea (Bolton, 1979). Maskulinitatea nagusitasunarekin lotuta dago. Gizonzkoen arteko lehiakortasuna, emakumeekiko nagusitasuna eta horiek mendean hartu nahia matxista baten ohiko jarreran aurki ditzakegun osagaiak dira. Beste gizonzkoen aurrean indar erakustaldiak ere funtsezkoak

dira, baita sexualitatea, boterea eta konkista ere. Matxista baten autoestimua emakumeak mendean hartzearekin eta horien esplotazioarekin lotuta dago. Matxismoak gizonaren beste alderdiekin zerikusia dauka, besteak beste, gorputzaren jarrera eta itxura, hizkera edota ibiltzeko eta esertzeko era. Matxismoa gorputzean sartuta daukagu pentsamenduari eta pertzepzioari dagozkion eskemen eta egituraketa mentalen bitartez. Automobila gidatzeak askotan matxismoa areagotzen du, ibilgailua segituan gorputzaren irudi bilakatzen baita.

Zein dira gizonezkoen arrazoiak egoera hori bilatzeko? Aberastasuna eta boterea dira maskulinitatea mugatzen dutenak. Baina kontua ez da aberatsa izatea bakarrik –matxistak gainera adorea ere behar du dirua era boteretsuan erabili ahal izateko. Derrigorrezko jarduerak, esaterako ea zeinek edaten duen gehien, gizontasunarekin lotutako probak dira. Maskulinitatea erakustaldi hutsa da. Kanpoko eskakizunek mugatutako probak gainditzea besterik ez da eta inoiz ezin da behar moduan bermatu. Interesgarria da Pierre Bourdieu-k dioena Kabyle Gizartea aztertzen duenean, hau da, berez "jarduera" bera ohorezkoa dela gizonarentzat.

Maskulinitatea kontzeptu ideala besterik ez da eta gizon askok berau ohorez hartzen dute naturalizat jo den ideiarekin bat etortzearen, hots, gizonezkoek lehiakorrak eta oldarkorrak izan behar dutela dioen ideia. Maskulinitate ugari badago ere, matxismoaren ereduarekin bat etortzen den maskulinitatea askotan esfortzu handiarekin lortzen da. Maskulinitatearen izaera ulertu ahal izateko, paradoxa badirudi ere, kontuan izan behar dugu ideal horri oraindik balio handia ematen zaiola, nahiz eta gizon gutxi izan itxaropenak betetzen dituztenak eta "benetako gizonaren" ospea lortzen dutenak. Nik esango nuke badagoela nolabait esateko ezkutuko "maskulinitatearen matxinada", gizonaren bizitzan zehar ia edozein unetan eta edozein egoeratan maskulinitateari buruzko mitoa agerian geratzen baita.

6.

Maskulinitatea eta indarkeri simbolikoa

Zergatik uste dute gizonek emakumeak baino gehiago direla? Galdera hori erantzuteko kontuan izan behar dugu gizonezkoek daukaten botere soziala ikaragarria dela, eta berau erabili dezaketela emakumeen aurrean eta horiekiko harremanetan. Kontua ez da bakarrik gizonezkoek emakumeak mendean hartzea, aldi berean maskulinitateak emetasuna gainditu behar du. Pierre Bourdieu-ren generoen nagusitasunari buruzko teoria soziala fenomeno hori azaltzeko baliagarria da, generoari buruzko eskema sortzaileak eta generoen ordena mugatzen duten mito eta praktikak oinarritzat hartzen ditu-eta.

Pierre Bourdieu-ren teoria soziala erabiltzen dut honek maskulinitatea bereziki azpimarratzen duela Mediterraneo herrialdeen dinamika aztertzerakoan. Maskulinitate nagusiak ziurtzat eta ontzat nola ematen diren aztertzea funtsezkoa gertatzen da genero nagusiarekiko harremanen izaera eta "genero soziala" ulertu ahal izateko. Michael Kimel-ek oso era dotorean esan duenez,

"kontua da ikusezin bilakatu direla pribilegioaren mugak eta horixe da pribilegioaren pribilegioa" (Kimmel, 2001).

Generoak, oro har, praktika sozialak egituratzeko balio du eta horregatik beste egitura sozialetan ere esku hartzen du. Berez, emakumeak ez dira gizonezkoak baino gutxiago, gutxiagotasuna ez baita natural, aitzitik gizarteak berak inposatutako zerbait da. Pierre Bordieu-ren genero sozialari buruzko teoria mito eta errituen sistema azpimarratzen du horren taxonomia orokorrak ere aipatuz, horiexek baitira gizartearen ordena nahita antolatzen dutenak, ez dute hala-hola antolatzen. Generoa ezabatzen duen joera horretatik ihes egitea oso zaila da bide ezberdinei esker ahalbidetzen baita, esaterako, joera nagusiak, esaerak, ohiko hizkera eta gizarte harremanetan nagusi diren kodeak.

Ez dut uste gizonezkoen gorputzek maskulinitatearen arauak finkatzen dituztenik, baina garrantzi handia dute maskulinitatea zehazterakoan. Gorputzaren nagusitasunak ahalbidetzen duen sentimendua funtsezkoa da gizonek dena kontrolatzeko eta menperatzeko duten joeran. Baina zer esan nahi dugu nagusitasuna oinarri duen harremana gorputzak berak baldintzatzen duela diogunean? Hemen argi eta garbi esan behar dugu gorputzaren zapalkuntza ez dela berezko prozesu biologikoa. Gizarteratzeak dakarren bide luze eta neketsuaren ondorioa da. Nire ikerlanetan Italiako maskulinitateari buruz, agerian utzi ditut "taldekako gorputza", kolektibitatearen naturalizazioa eta horien eragina gizarte harremanetan.

Jende askorengan, batez ere feministengan, haserrea eragin dezake Pierre Bordieu-k Kabyle gizartearen erabili izanak sexuen araberrako lanaren bereizketa munduari buruzko ikuspegiaren oinarri bilakatzen dela erakusteko. Kabyle elkartearen eredu aproposa da arra/emea taxonomiaren funtzionamendua erakusteko. Bourdieu-k dioenez, arra/emea taxonomiak munduari ordena soziala eskaintzen dio eta berau hain sendoa denez "naturalizat" jotzen da. Baina noiz esan dezakegu doxa hori (hots, ordena objektiboaren eta buruko egituren arteko baliokidetasuna) ez dela zalan-tzan jartzen? Eta nola funtzionatzen du gizarte egituraren irudikapen sinbolikoak eragileen jardueretan?

Pierre Bordieu-ren teoria sozialean eragileen ohiturak sartzen direnean gertatzen da, hots, iraganeko presentzia aktiboa jokoan sartzen denean. Ohitura kontzeptua pertsonen jardueraren praktikak egituratzen dituzten alorrekin lotuta dago, hots, ekintzak, hizkera, sentimenduak, pentsamenduak eta pertzepzioei buruzko eskemak. Pierre Bordieu-k azaltzen duenez, gizonezkoen nagusitasuna "indarkeri sinbolikoaren" adibide paradigmaticoa da. Pierre Bordieu-ren teoria sozialaren logika maskulinitate menderatzailei buruzko eztabaidarekin lotuta dago. Askotan Pierre Bordieu-ren teoria soziala kritikatu izan da eta ni ere kritika horrekin bat nator, zera esaten baitiote: gizarteari buruzko azterketa bera testuinguruaren barruan ulertu behar dela. Berezitasun historikoa kontua da. Uniberteltasuna eta partikulartasunaren artean bideren bat finkatzeko ezinbestekoa da, baita gizarte ezberdinetan ditugun sail ezberdinak joratzeko ere.

7.

Albania eta gizonezkoen indarkeriaren naturalizazioa

Albania Balkanetako ingurunean kokatzen da. Eremu horretan sexuen arteko harremanak egituratzerakoan gehienetan tradizioari heltzen zaio, Europako gaur egungo kulturari baino askoz gehiago. Albanian ezberdintasunak naturalak direla eta benetako maskulinitatea badagoela sinesten dute. Zaila da lurralde barruan zer nolako gizarte mota dagoen definitzea. 1991n erregimen komunista erori eta gero, Albaniako gizarteak aldaketa sakonak jasan ditu. Gizartearen ideologia zaharra desagertzen ari da eta herrialde osoak erronka eta zailtasun berriei aurre egin behar die. Jendeak herrixkak utzi eta hirietara jo du. Komunistekin ezagutzen ez ziren krimen berriak agertu dira: droga, prostituzioa, iruzur ekonomikoa, eta abar. 90ko hamarkadan gertatu zen emigrazioak eragin handia izan du Albaniako biztanleengan eta familien egiturari. Askotan, aita da atzerrian bizi dena. Kapitalismoaren nagusitasunarekin batera maskulinitate nagusiek indarberritu egin dira eta aldi berean emakumeen bizitzarekiko betiko jarrerak eta iritziak nolabait berpiztu egin dira.

Historian zehar, eta kulturarekin lotuta, benetako gizontasunari buruz oso sentimendu sendoa eman da, eta agian Albania da Europan ikus ditzakegun herrialdeen artean "gizonak benetako gizonak" diren toki bakarra eta herrialde horretan emea/arra taxonomiak gizartearen ordena antolatzen du, zalantzan jartzen ez den ordena alegia. Baina komunisten garaian, 1945 eta 1991 bitartean, emakumeek oso paper garrantzitsua jokatu zuten esparru publikoan. Etxeko nagusia oraindik gizona bera zen eta bera zen familia burua. Sistema komunistak biztanleen hazkundera sustatzen zuen eta abortua legez kanpo utzi zuten. Sistema komunista behera etorri eta gero, Albanian jaiotzak nabarmen gutxitu ziren.

"Giza eskubideetarako ikuskatzaile" gisa Albanian eman nituen 9 hilabetetan zehar, giza eskubideekin lotutako hainbat alderdiren artean, Albaniako poliziaren heziketa bideratzen lan egin nuen, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egin behar zioten polizien heziketa alegia. Albanian emakumeen aurkako indarkeria oso arazo larria da, baina emakumeen eskubideak babestea zaila izaten da bortxatzailea ez baita estatua, gizabanakoa baizik. Familian bertan ematen den indarkeriaz eta bortxakeriaz ez da hitz egiten, Albaniako kulturari tabu baitira eta sistema juridikoan ere gutxitan aipatzen da horrelakorik. Beraz, zaila da poliziaren jarduerak eta jarrerak aldatzea giza eskubideen aldeko joera onar dezaten. Albaniako poliziak ezin du bere antolaketa diziplinaz eratu eta aldatu nazioarteko giza eskubideen aldeko kulturarekin bat egitearren. Aldatzeko zailtasun hori zerikusi zuzena dauka polizian bertan nagusi diren gizonezkoen printzipioekin. Albaniako poliziaren mentalitatean oso eragin handia daukate Mediterraneoko gizonezkoen betiko baloreak. Horrek esan nahi du horien portaera matxista, lehiakorra eta oldarkorra dela, indar fisikoaren aldekoa. Albanian gizonezkoek indarkeria maiz erabiltzen dute emakumeen aurka, umeen aurka eta beste gizonezkoen aurka.

Albanian nagusitzen den maskulinitate ereduak harrotasunari garrantzi handia ematen dio. Ohorea eta lotsa gizonezko gehienek portaera eta pentsamoldeetan beti aurki ditzakegun printzi-

pioak dira. Albaniako gizartean nagusi diren harreman sozialetan ematen den egitura orokorra osatzen dute. Albaniako emakumeak esparru publikoan eta politikoan ia guztiz baztertuta daude. Emakumeak baztertu egiten dituzte sustrai handiko "arau kulturala" oinarritzat hartuz. Horren arabera gizon eta emakumeen ohiko paperak finkatzerakoan, emakumezkoen naturalizat jotzen den gizonezkoekiko menpetasun posizioa ematen zaie. Albanian nazio osoan zehar burutuko den ekimena garatzen hasi dira emakumeen aurkako diskriminazioari aurre egitearren.

Giza eskubideen aldeko joerarekiko agertzen duten jarrera lehiakorra erdi aroko ondaretik ekarritako doktrinan oinarritzen da, "Kanun" izena duen doktrinan alegia. Ez da argi eta garbi adierazten, baina ia gizon guztien buruetan sartuta dagoela esan daiteke. "Kanun" doktrina oinarritzat hartuz, familiako kideen eginkizunak, betebeharrak eta eskubideak finkatzeko ohitura sustrai handikoa da, nahiz eta batere demokratikoa ez izan. Oraindik ohoreari dagokion taxonomia zehazten du eta demokratizazio prozesua atzeratzen ari da.

Albanian generoen arteko ordenan aldaketak eman badira ere, batez ere hirietako gazte jendearen artean, generoen betiko ordena gizartearen egituraren eta ekonomia eta politikaren antolaketan bere horretan mantentzen da. Gizonezkoen nagusitasunari eta emakumeen zapalkuntzari ez zaio seriotasunez aurre egiten, eta horrela gizonezkoek gizarte osoa menderatzen dute. Ez da erraza izaten indarkeriazko kultura gainditzea, batez ere gizonezkoen betiko ohituretan hain sustrai sakonak dituen zerbitu denean. Albanian ekintza bortitza ez da bakarrik botere sozialak ez duen gizabanakoaren sentimenduaren isla. Berez, erakundeetan ere arazoak konpontzeko indarkeria bera baliabide egokitzat hartzen da eskuarki. Nagusitzen den maskulinitate ereduak ez da nahasia edo hauskorra, eta gizonezkoen izaeran oso kontraesan gutxi ematen dira. Albaniako gizartean ezin zaie gizonezkoen eskatu sexuen arteko ezberdintasunari buruzko kontuetan esku hartzeko, ez da posible. Telebistan emakumeen aurkako ekintza bortitzen berri ematen bada ere, oraindik ez da sexuen arteko berdintasunari buruzko ekimenik burutu. Albanian eman nituen hila-betetan, giza eskubideen aldeko arduradunek ez zuten ezta aipatu ere egin, esaterako, gutxiengo sexualen kasua.

8.

Italia eta gizon estetikoa

Italiako maskulinitate ereduaren konplexutasuna eta sakontasuna ulertzea zaila da. Berez, ohiko maskulinitatearen eredu matxista ontzat ematen da eta hori gizonezkoen portaera estetikoarekin nahasten da. Italia bera herrialde industrializatua bada ere, NATO eta EBeko kidea, eta mundu osoan modaren zentro nagusia, gizon askok euren ohorearekiko lotura ohiko eran ulertzen dute. Ospea eta izen ona funtsezkoak dira Italiako gizonezkoen ohiturak ulertu ahal izateko. Azken 20-30 urteotan Italian aldatu egin da ohorea eta harrotasuna bideratzen zituen oinarria –lotsa mugatzeko balorazioak alegia. "Vendetta" eta "odolezko borrokak" bezalako fenomenoak mafiaren inguruan bakarrik gertatzen dira eta ohorezko portaera ez izateak izan zitezkeen ondorioak gaur egun ez dira lehen ematen ziren berberak. Baina ohorea oraindik garrantzizkoa da eta ez dugu gutxietsi behar gizarte harremanen alderdi sinbolikoa.

Maskulinitateak sustrai sakonak ditu ekonomian eta politikan. Historian zehar emakumeak esparru publikoan eta politikoan baztertuta geratu dira ia beti. Emakume italiarrak urte askotan zehar existitu egin dira betiere gizonetzkoari lotuta, eta ez berezko eskubideak dauzkaten pertsonak bezala. Zaila izan da emakumeentzat eskubide zibilak eta politikoak eskuratzea, eta 1946ra arte Italiako emakumeek ez zuten botoa emateko eskubiderik. Joera horrek esparru publikoan gizonetzkoen nagusitasuna ahalbidetu du eta horrela lotura estua eman da maskulinitatea eta irudi publikoaren atean. Maria Minicuci soziologo italiarrak "nortasunik gabeko existentzia" aipatzen du bizitza publikoan Italiako emakumeek bizi duten egoera azaltzeko.

Kultura guztietan politika gizonetzkoen dagokien esparrua izaten da. Baina Italian, emakumeak boteretik baztertzea zerbait naturalizat jotzen da. Italian sexuen arteko harremanen izaera ulertu ahal izateko, interesgarria litzateke zera aztertzea: ea emakumeak esparru publikotik baztertzea historiari dagokionez atzerapena den, edota horiek baztertzea kultura bera eraikitzen duen beste osagaia den. Bezeroa babesteko sistema nagusitzen da Italiako esparru publikoan, hots, batetik maila handiko eremuan oinarritzen den harreman politikoak eta sozialak bideratzeko sistema dugu eta bestetik bezeroa. Bezeroa babesteko sistema ez da sistema neutrala sexuen arteko harremanen dagokionez. Berau gizonetzkoek esparru publikoan erakusten duten nagusitasunarekin lotuta dago eta horrela, gizonen bizitza publikoaren sistemari dagokion logikan esperientzia handiagoa dute. Oso sinplea da, gizonetzkoek sistema hobeto ezagutzen dute eta badakite horretaz nola baliatu etekinak erdiesteko.

Eskandinabiako ikuspegitik, oso ezberdintasun handia dago gizonen elkarri nola ukitzen dioten begiratzen badugu. Gogoan daukat harridura geratu nintzela Italian lehendabiziko aldiz bi gizonetzko besotik helduta ikusi nituenean, herrialde horretan eskuarki gertatzen bada ere. Hori ezinezkoa da Danimarkan, edo gizonetzko heterosexualen artean behintzat gutxitan gertatzen den zerbait da.

Eliza katolikoaren eragina izugarria izan da emakumeen irudi kulturala eratzekoan, hau da, emakumea ama eta emaztea da. Erlijioan oinarritzen den ideari helduz, errealitatetik at dagoen ama iristezinaren irudia Amabirgiñarekin parekatzeko joera eragin handia izan du Italiako emakumeen eguneroko bizitzan eta pentsamoldeetan. Lesley Caldwell feminista ingelesak emakume italiarrei buruzko bere ikerlanetan "naturalizazio bikoitza" terminoa erabiltzen zuen etxeoan-dre/ama sendoaren irudiaren sorrera azaltzeko.

Nire ustez, Italiako gizonetzkoen ohitura nagusiak, hau da, nagusitu den maskulinitate eredu hauskorra da herrialde osoan zehar aurki dezakegun "mammismo" izeneko joera dela eta. Amatasunak familiaren kontzeptuarekin oso lotura estua dauka eta, gizonetzkoen heldutasuna nola erdiesten duten aztertzen badugu, esan genezake mutiko askok amarekiko menpetasuna beregaitzen dutela. Italian generoei dagozkien ereduak aztertzerakoan, "haurtzaro luzatua" terminoa erabili dut, zenbait kasutan gizonetzko batzuk euren bizitzaren zati bat haurtzaroaren luzapena balitz bezala hartzen baitute. Horrek esan nahi du gurasoen etxean bizi direla, nahiz eta lana izan eta etxetik alde egiteko baliabide ekonomikoak eduki.

Oro har, Italiako emakumeen kapital sinbolikoa oso baxua da. Ekonomiari erreparatuz gero, senarraren menpe egon da eta esparru politikoan baztertuta egon da. Baina zaila da esatea sexuen

arteko gizarte harremanak lotura doxikoak baldintzatzen dituen ala ez. Horrek esan nahi du zapalkuntzaren izaera ez duela inork zalantzan jartzen, gizarte mailako harremantzat hartzen baita. Baina zalantzarik gabe argudio erlijiosoek eta biologikoek oso paper garrantzitsua jokatu dute sexuen arteko ezberdintasunari buruzko gai honetan.

Talde feministek 70ko hamarkadan eragin zuten eztabaida sutuen eta borroken eraginez, emakumei buruzko kontzeptu nagusien ezaugarriak apurtu egiten dira. Indarkeri sinbolikoak zehazten dituen "lan baldintzak" feministen ekimen gogorren ondorioz leundu egin ziren. Emakume italiarrek hainbat arlotan eskubide zibilak eskuratu izanak, besteak beste, dibortzioa eta familiarekin lotutako eskubideak, korrante nagusiaren arauak aldatu ditu. Aldi berean, Italian oso aldaketa handia eman da emakumeen ohitura orokorretan, emakume italiarren hezkuntza maila oso altua baita. Baina gaur egun emakume italiarrek emetasunari buruzko balorazioa gauzatzean estetika-eragin handia jasaten dute.

Italiako emakumeek "benetako" hiritarrak izateko eduki dituzten arazoaren adibide egokia dugu sexu indarkeriari buruzko legearen historia. Italiako legebiltzarrak ia 20 urte behar izan zituen sexu indarkeriari buruzko legea berrikusi eta aldatzeko, 1979an gai hori bertan aurkeztu eta gero, 1996an aldatu baitzuten. Aldaketa horri esker bortxakeria "moralaren aurkako krimena" izatetik "pertsonearen aurkako krimena" izatera pasa zen. Legeari dagokionez, beste hainbat aldaketa eman da gizonezkoen eta emakumezkoen adulterioa aztertzerakoan. Kulturari dagokionez, oro har, garrantzitsua da zera azpimarratzea: gizonentzat bakarrik ziren bilera eta topalekuek ez dutela euren zilegitasuna galdu eta eliza katolikoak ere oraindik eragin handia duela sexuen arteko berdintasunari buruzko eztabaidaren mugak eta arauak zehazterakoan.

9.

Danimarka eta maskulinitate "erza"

Zein da Danimarkako gizonen "berezko" izaera? Ohorea eta lotsa gizartea aztertzean topatzen diren alderdi unibertsalak dira, baina ez dute aparteko eraginik gizonezko daniarren ohiko portaera, jarrera eta baloreetan. Nire lagun italiarrak askotan txantxetan hasten dira zera esanez: gizon daniarrak ez direla dotore jantzen eta ez dakitela emakumeen aurrean behar den bezala jokatzeko. Berez egia da Danimarkan gizartean portaera mugatzen duten arauak ez dituztela aintzat hartzen matxismoa eta konkistari buruzko betiko kontzeptuak.

Ni ikertzaile daniarra izanik, interesgarria iruditzen zait ohorea/lotsa balorazioekin lotutako gaiei buruz idaztea, ohorearen sentimenduak ez baitu aparteko garrantzirik Danimarkako betiko kulturaren eta ia gizon guztiek euren burua ikusteko duten eran. Oro har, jendeak ez du uste gizonekoak gehiago direnik. Ohorearekin lotutako kodeen araberrak errituak ez direla ezagunak erakustearren, esan genezake Danimarkako gizartean "Infernuko Aingeruak" edota "Alprojak" rock taldeen portaera eta jarrera ez direla ulertzen.

Danimarkan berdintasunari eta generoei buruzko eztabaidan gehien jorratu den gaia lan mundauren eta familia bizitzaren arteko lotura izan da. 1984az geroztik, gizon daniarrek lantokian baimen berezia eska dezakete seme-alabaren jaiotza dela eta. Generoei buruzko eztabaidan tirabiretako bat zera izan da: zergatik aita gehienek ez duten eskatzen baimen berezi hori lan egiteari uzteko, baldintza guztiek, formalak zein praktikoak, horixe ahalbidetzen badute ere. Kontua da kultura eta maskulinitatea lantokian jorratu nahi direla. Danimarkako egunkari sentsazionalista batek (Ekstra Bladet) duela gutxi iragarki bat kaleratu zuen eta bertan txantxetan aritu zen lan egiteari uztearen zilegitasunari buruzko eztabaida zela eta, aitak seme-alabaren bat "edukitzeagatik bakarrik" besterik gabe lana utzi omen baitzezakeen. Kulturari dagokionez, oraindik ez dute ondo ikusten aitak baimena eskatzea. Berez, azken egunotan zera eztabaidatzen da: ea baimena luzatuz gero aitatasunagatik ematen den baimenak derrigorrezko epea ere hartu behar duen ala ez, Islandian gertatzen den bezalaxe. Aitatasuna eta umeen zainketa Danimarkan eztabaida sakona izan duen gaiak dira. Aitak izan behar duen jarrera berriari buruz hitz egiten denean, kontu nagusia zera izan da: ea zer egin daitekeen aitak ere gehiago esku har dezan umeen hezkuntzan. Agian, Danimarkan generoarekin lotutako gairik korapilotsuena umeak edukitzeko eskubidea litzateke.

Danimarkan etorkinen egoerari eta eskubideei buruzko eztabaidan, askotan entzun izan dira etorkinen bizitzaren (batez ere Turkia eta Pakistanetik datozen etorkinena) eta daniarren bizitzaren artean ematen diren ezberdintasun handiak salatzen dituzten adierazpenak. Oso eztabaida sutsua piztu da bortxakeriari eta etorkinei buruz, batez ere taldekako bortxakeriak direla eta. Adibidez, askotan esaten dute Turkiatik datozen gizonezkoen ohiko portaeran ez dagoela lekurik genero-erikiko jarrera demokratikoa burutzearren. Generoen ordenan ematen diren ezberdintasunetan oinarritzen diren "gu/haiek" jarrerak garatzeko joera oso sendoa da. Interesgarria da ikustea nola funtzionatzen duten kasu honetan botere harremanak, normalki daniarrek ez dietelako arreta berezirik eskaintzen generoarekin lotutako kontuei, baina etorkinen kasuan generoaren arabera jarrerak erabiltzen dituzte gizatasunaren erakusgarri garrantzitsua balira bezala.

Danimarkako ideal sozialak harrotasunean oinarritzen dira, mundu osoan pornografia Danimarkan jo baitzen lehendabiziko aldiz legezkoztat, eta gainera hauxe izan zen homosexuali ezkontzeko baimena eskaini zien lehenengo herrialdea. Daniarrak euren sexu askatasunaz, sexuen arteko berdintasunaz eta familia barruko harreman demokratikoaz harro badaude ere, txanponaren beste aurpegia hortxe dugu: dibortzio ugari, bakarrik bizi den jende asko eta suizidioen areagotzea. Garrantzitsua da zera azpimarratzea: Danimarkan, oro har, jarrera tolerantea nagusitzen bada ere, sexuen arteko benetako berdintasuna oraindik ez da lortu. Gainera, kontuan izan behar dugu Danimarkan ematen den bizitza sozialaren kalitatea askotan ez dela oso atsegina izaten, "banakako gorputzaren" ondorioz eta banakotasunaren naturalizazioa dela-eta.

Danimarkan, gizonezkoen bizitzan zehar ematen diren jarrera kontrajarriak aztertu egin dira gizonezkoak "muturreko" generoa direlako, hau da, gizartearen beheko eta goiko mailetan emakumeek baino ordezkari gehiago dituztelako. Gizonezkoek oraindik lan gutxiago egin eta soldata handiagoak lortzen badituzte ere, badira baztertuta geratu diren gizonak, ezin baitituzte dibor-

tzioen edo langabeziaren ondorio sozialak gainditu. Horrela ez dira gai ongizate estatuak eskaintzen dituen erraztasunak erabiltzeko.

Maskulinitateari buruzko ikerlanei dagokienez, Danimarkaren egoera nahikoa ahula da Eskandinaviako beste herrialdeekin konparatuz gero. Erakunde gisa inoiz ez da plataforma berezirik osatu maskulinitateari buruzko ikerlanak gauzatzeko. Gizonezkoei buruzko eztabaida publikoan maskulinitatea jorratzen duen ikertzaile bat eta terapeuta mitiko-poetikoak nagusitu dira, patriarkari buruzko betiko sinismenak indartu dituztelarik; horietako batzuk oso maila primitiboan. Ezin izan da Danimarkan maskulinitateari buruzko politika berezia antolatuta, eta Generoen Berdintasunari buruzko Dokumentazio eta Ikerkuntzarako Danimarkako Zentro Nazionalan "gizonezkoak eta sexuen arteko Berdintasuna" gaia modu egokian nola jorratu dezakegun aztertzen ari gara. Eskandinabian, belaunaldi berriek eztabaida feministari heldu diote berriro eta, duela gutxi, Danimarkako gizonezko gazteak euren buruei buruz idazten hasi dira, baina euren generoari buruzko ikuspegi pertsonala eta zintzoa erakutsiz. Dena den, oro har, gizon batentzat oso zaila da generoei buruzko eztabaida publiko batean feministen aldeko argumentuak onartzea, eta hedabideetan olerkari mitikoekin "lehiatzea".

10.

Gizartean ordena berria eratzeko aukerak

Nola egiten diote aurre gizonezkoek hirugarren milurtekoari? Eta nola atzematen dugu generoen arteko ordenan ematen den aldaketa historikoa? Ez dira galdera errazak. Gizabanakoak bere maskulinitatea nola eratzen duen zehaztea, eta aldi berean egunoroko ohituren eta hedapen handiko egituren arteko loturak aztertzea zaila izaten da. Aurkezpen honetan kontua zera zen: ea posible zen maskulinitateari buruz zerbait unibertsala finkatzea eta ikusi dugunez maskulinitatea kulturaren eta gizarteratzearen ondorioa da. Aurkeztu ditudan gai batzuk bi alderdi hauekin lotuta daude: generoari buruzko kontuetan gizonezkoen partaidetza areagotzeko izaten diren zailtasunak, eta bestetik zergatik topatzen ditugun hain gizon gutxi generoari buruzko gaietan sartuta. Nola azter ditzakegu generoari buruzko gaiak eta aldi berean gizonezkoen esku hartzea areagotu? Eta zein dira Europan ematen diren oztopo kultural ezberdinak esparru politikoan generoari buruzko gaiak lekua izan ez dezaten?

Maskulinitatea ugalduta eta aldatu egiten da aldi berean. Zenbait tokitan maskulinitate demokrati-koagoa erdiesteko bideari heldu diote eta beste toki batzutan maskulinitate gogorragoa eskuratzeko bidean daude. Zalantzarik gabe mundu osoan zehar aldaketa gertatu da maskulinitatea dela-eta, eta gainera mundu modernoak familiaren betiko egituren oreka aldatu egin ditu. Baina zaila da gizonezkoen nagusitasuna bestelako botere harremanekin zer lotura duen definitzea, eta era berean, oro har zaila da gizonezkoen nagusitasuna "bizimodua" den ala ez erabakitzea.

Europako testuinguruan maskulinitatea dela-eta sail ezberdinak daudela esan al genezake? Gizonezkoek emakumeekiko agertzen dituzten jarreretan ezberdintasun nabariak sumatzen al

dira? Testu honetan maskulinitateak nola ugaltzen eta eratzten diren azaltzen saiatu naiz, gizabanakoari zein esparru zabalagoari helduz, hiru herrialdetan maskulinitate eredu nagusiak nola sortzen diren ulertzeko. Albaniaren kasuan, emakumeen aurkako indarkeria berpiztu egin da eta aldi berean emakumeei buruzko ikuspegi kontserbadorea ere indartu egin da. Albanian gizartearen korrante nagusiaren munduan oraindik ezin dira giza eskubideei buruzko doktrinak eta bizimodu demokratikoak benetan sartu. Neurri handi batean, hala gertatzen gizona indarkeria naturalizat jotzen delako eta zentzu horretan behar den moduan lan egin dezaketen erakunde politiko eta sozialik ez dagoelako. Gizona ohitura "perfektuak" sortzea, emakumeen aldeko xedapen eta joerak ezabatuz, oso erraza da Albanian.

Italian ikusi dugunez, nagusi den maskulinitatearen ezaugarriak eta gizontasun eredurik desiratuen eta zintzoena gizabanakoaren ohorearekin lotuta daude. Gizona artean zabaltzen diren ohiturak nahikoa hauskorak dira "mammismo" izenez ezagutzen dugun fenomenoaren ondorioz sortu baitira. Askotan neure buruari galdetu diot ea Italiako maskulinitatea ez ote den gizona italiarrei "ematen zaion" zerbait. Oro har, esan behar dugu maskulinitatea ez dela gizona jaiotzez daukaten zerbait. Aitzitik, gizona irabazi eta eskuratu egin behar duen zerbait da. Baina Italiaren kasuan, gizarteak berak gizona bertuteekiko duen mirespena hain handia denez, gehienetan, gizona ez du neke askorik behar gizona pribilegioak eskuratu ahal izateko. Italian emakumeak pertsona bezala legearen aurrean erabateko askatasuna erdietsi zuen bigarren mundu gerra igaro ostean. Eskubide zibilak hain berandu eskuratu izanak eta bezeroa babesteko sistemak Italian indarkeri sinbolikoa sendotu egin dute. Mediterraneo inguruko pentsamoldeak oraindik nagusi dira, baina "un vero uomo" (benetako gizona) esanaren esanahia soziala gutxitu egin da. Orain generoen arteko ordenan ematen diren kontraesanekin batera, menpean eta botere harremanen lekuko bilakatu gara.

Danimarkan nagusi den maskulinitatea ezberdina da Mediterraneo inguruko herrialdeekin konparatuz gero. Danimarkaren kasuan, ohorea/lotsa oinarritzat hartuz egiten diren balorazioak ez dira beti eta derrigorrez aintzat hartzen. Maskulinitatea nola eratzten den aztertzen duenean, Victor Seidler-ek protestanteen etikan maskulinitate eredu zehatz bat ikusten du. Niri dagokidanez, ez dut protestantismoari buruz asko pentsatu, aitzitik daniarren maskulinitatea jorratu dut batez ere ongizatearen estatua abiapuntutzat hartuz. Baina agian alderdi horren sakontasuna ezin dut behar den moduan aztertu nire kultura propiotik abiatuta.

Gaur egun esparruren bat gizona bakarriz mugatzeak zilegitasuna galdu du eta fenomeno horrek erakusten digu demokraziak bizitasun handiagoa duela. Baina Danimarkan egiturei begiratzuz gero, gizona emakumeei baino abantaila handiagoak daukate. Halere, Danimarkan maskulinitateari buruzko ikuspegi positiboak aurki ditzakegu. Eta, bestelako maskulinitate ereduak topatzeko aukerak badaude ere, Danimarkako gizona eta maskulinitateari buruzko ikerlanak gauzatzean ez zaio arreta handiegia eskaini behar alderdi estetikoari. Nire herrialdean generoa eta maskulinitateari buruz nire herrialdean burutu diren ikerlanek oraindik ezberdintasun ekonomikoa eta genero sozialean ematen diren gorabeherak landu behar dituzte.

Maskulinitateak ez dauka forma zehatz bat, baina maskulinitate ezberdinen artean parekotasun handia ematen da. Maskulinitateak modu aktiboan eratzten dira, baina horrekin batera mito eta

sinboloetan oinarritzen dira. Oro har, emakumeen zapalkuntza eta menpetasuna ez ukatzea garrantzitsua da, baina aldi berean gizonetzkoen ikuspegi eta iritziei ere arreta eskaini behar zaie. Esperientzia pertsonalak eta kontzeptu teorikoak batu egin behar ditugu horrela gizonetzkoek generoaren arabera garatzen dituzten jarduera eta jarrerak hobeto ulertzeko. Nire ustez, sexuen arteko berdintasuna bera gizonetzkoentzat ere egokia da, baina aldi berean gizonetzkoak dira berdintasun horrek aurki dezakeen oztoporik latzena. Gizonen jarrera aldatzea generoen arteko ordena berria onar dezaten oso prozesu konplexua da. Sexuen arteko ordena aldatzean sumatzen den erresistentzia askotan lotuta egoten da gizonetzkoek buruan daukaten ideia honekin: maskulinitatea berrantolatzea berau baztertzea da. Nire ustez, gizon asko nahastuta dabilta gaur egun maskulinitateak izan dezakeen esanahia dela-eta. Alde batetik, lotsatuta daude sexu bereko giza-semeen jarrera dela-eta, baina aldi berean pribilegioak gogoko dituzte.

Maskulinitateari buruzko ideologia ez da asko aldatu azken hiru belaunaldi hauetan, baina generoen arteko ordena aldatu egin da mundu modernoan. Anthony Giddens soziologo ingelesak dioenez, gizabanakoaren inguruneak jasan duen demokratizazio handiak eta intimitatearen aldaketak erakunde modernoetan eragin handia izan dute. Giddens-ek azken 20-30 urteotan eman den garapena sexu iraultza bezala definitzen du, batez ere emakumeen eta homosexualen eguneroko bizitzari dagokionez (Giddens, 1992).

Bestalde, Pierre Bordieu bezalako soziologoek adierazi dutenez, generoen ordenak jasan duen aldaketa azalean dirudiena baino xumeagoa da. Zilegitasunaren gaia garrantzitsua da Pierre Bordieu-ren pentsamenduan, nagusitu den sistemaren oreka zilegitasuna gizabanakoen kontzientziantan zabaltzean datza. Zalantzan jartzen ez dena eztabaidan sartzen denean eta aipaezina aipatzen denean, orduan apurtzen da doxaren nagusitasuna. Nire ustez, gorputzarekin bat egin duten xedapenak aintzat hartzea funtsezkoa da generoen arteko harremanetan nagusitasuna nola ematen den ulertu ahal izateko. Feminismoak sexuen berdintasunari buruzko eztabaidan beste gai sartu zuen, bizitza publikoaren eta pribatuaren bereizketa alegia, eta modernitatearen eta maskulinitatearen eta maskulinitatearen eta arrazoiaren arteko loturak aztertu zituen. Zalantzarik gabe gizonetzko heterosexualek gauza asko ikas ditzakete feminismoa eta homosexualengandik. Generoari buruzko politika emakumeei eta homosexualiei bakarrik ez mugatzea garrantzitsua da. Baina gizonetzko askok beldurra dute feminismoa erronka bat bezala ikusten dutela aitortzeko, eta aldi berean eurentzat mehatxua ere badela esateko. Oro har, maskulinitatea hauskorra da irudikapen hutsa besterik ez delako, ez da gune anatomikoa eta biologikoa gizonetzko askok (baita emakume askok ere) nahiko luketen bezala. Badago hor nonbait gizonetzkoen buruzko mitoak bateratzen dituen korrante unibertuala, eta horren eraginez guztiok gure emozioei traizio egiten diegu. Baina gizon idealaren irudiak gizonetzko gehienen izaeran izugarritzko sustraiak bota ditu eta gainera beste hainbat gizonetzkoen uste dute ezin dutela euren izaera primitibotik ihes egin.

Zalantzarik gabe gizonetzko asko dute irabazteko –baina prozesua kontraesan bezala dago eta inertzia ere gainditu behar du. Emakumeek sexua bilatu eta nahi izatea gizonetzkoek beti onartu ezin dezaketenez zerbait da. Emakumeen bizi baldintza berrien aurrean eta feminismoaren erronkaren aurrean gizonetzkoek erakuts dezaketenez amorruta eta jarrera defentsiboa euren sexuari buruz

gizonezkoek sentitzen duten nahasketaren seinale besterik ez dira. Gizonak izanik, emozioen munduan gauza asko ditugu aurkitzeko eta gizonak laguntza eskatzen ikasi behar dute eta esaten dugun guztia gure aurka erabiliko ez dutela ez pentsatzen ere ikasi behar dugu. Era berean, generoen ordenaren garapenean hutsune handiak daude.

Alde batetik, arlo pertsonal eta intimoetan demokrazia handiagoa ezartzearen aurkako joera dago. Bestetik, esparru publikoan sexuak gero eta indar handiago dauka. Nazioarteko enpresen maskulinitateak emakumeekiko harremanak merkatu harremanak balira bezala burutzea sustatzen du, munduko hotel guztietan sistematikoki prostitutak eta sexu pelikulak eskaintzen baitira. Gizonezkoen janzkerak ere argi eta garbi erakusten digu gizonen portaera. Trajea da derrigorrezko janzkia politiko eta exekutibo guztientzat. Trajeak gorputza ezkutatu egiten du, sexurik gabeko objektua balitz bezala. Hedabideetan ematen den maskulinitatearen irudikapena ere maskulinitatea homogenea eta bateratuaren adibidea da.

Gizon askok uste dute emakumeak sexu objektu bezala hartzea gaizki dagoela, baina ezin dute pentsamolde hori aldatu. Nire ustez, aldaketa bideratzearen eragin egokia izango luke gizonok geure sexuari buruz esaten duguna entzungo bagenu. Askotan, gizonak ezin dute euren burua ezagutzen ere feministek egindako azterketetan. Horregatik, garrantzitsua da gizarte mailako harremanetan maskulinitatea aztertzen saiatzea.

Baina nola gauza ditzakegu maskulinitateari buruzko ikerlanak generoaren sailen eraikuntza ulertzeko lagungarriak izan ditzaten? Azterketa sozial gehienak gizonezkoen buruz egiten dira, baina ez dute lantzen sexuaren araberako botere sozialaren gaia. Nire ustez, gizonezkoen eta maskulinitateari buruzko ikerlanak gauzatzeko oinarri teorikoak eskuratu egin daitezke, baina oraindik erresistentzia handia dago unibertsitateko karreraren ikasketen egitarauan, esaterako, soziologia edo zientzia Politikoak, maskulinitateari buruzko ikerlanak garatzeko. Zailagoa gertatzen da maskulinitateari buruzko politikaren kasuan. Zein da maskulinitateari buruzko politikaren esparrua? Ez da erraza une politiko egokia topatzea legegileen buruan maskulinitateari buruzko politika garatzea beharrezkoa dela sartzeko. Erakundeen bidez eskaintzen diren pribilegioei eta maskulinitateak zenbat kostatzen duenari buruz ez da adostasunik erdietsi. Nire ustez, maskulinitateari buruzko politika hobetzeko bide aproposa izan daiteke autoritatezko jarrera sendoagoa eragitea, eta berau abiapuntu gisa hartuz, gizonezkoen iritziez hitz egitea hainbat gai aztertuz, besteak beste, bortxakeria eta indarkeria. Nik esango nuke eragin positiboa izan dezakeela eta sexuen arteko berdintasunari buruzko eztabaida bera ere hobeto egin dezakeela. Nire aurkezpena bukatzearen, Tim Carrigan, Bob Connell eta John Lee-ren "Gogorra eta astuna: maskulinitateari buruzko soziologia berria" artikuluan ageri den adierazpena aipatuko dut, maskulinitateari buruzko ikerlanen eta politikaren mamia agerian uzten duelako.

"Maskulinitateari buruzko soziologia errealista nahi dugu, benetako gizarte harremanetan oinarrituz, jarrera eta erretorikari buruzko eztabaidak oinarritzat hartu ordez. Eta maskulinitateari buruzko politika errealista nahi dugu, berau ez dadila leloen antzera baikorra izan, ezta ezkorra ere" (Carrigan, Connell eta Lee, 1985).

LUIS MORA FERNÁNDEZ-RÚA

**Generoan eta
maskulinitateetan aditua.
Latinoamerikarako eta
Kariberako Nazio Batuetako
Biztanleri Fondoaren Laguntza
Teknikoko (FNUAP) ekipoko
kidea**

Gizonen zeregina

Nazio

Batuetako

(NBE)

Nazioarteko

Batzarretako

markoan: Nazio

Batuetako

Biztanleri

Fondoko

Laguntza

(FNUAP)⁽¹⁾

(1) Giza zientzietako Latinoamerikako Fakultateak (FLACSO) –Ekuadorren du egoitza– argitaratutako artikulu baten zati bat da txosten hau.

Laburpena

Biztanleria eta Garapena (Kairo, 1994) eta Emakumea (Beijing, 1995) gaitzat zituzten Nazioarteko Batzarrek eta 1999 eta 2000. urtean hurrenez hurren egindako berraztertze prozesuek, agerian jarri zuten gizonak, beren parte hartze eta erantzukizunetik, sexuen berdintasunera-ko aurreratze prozesuan sarrarazteko beharra, hainbat eremutatik (sexu eta ugaltze osasuna, aitatasun arduraduna, emakumeen aurkako indarkeria, emakumeen aurkako praktika diskriminatzaile eta kaltegarrien ezabaketa, etab.).

Sexuen berdintasunaren ikuspegitik gizonezkoen sarraraztea sustatzeko ezinbestekoa da familiarik, buruengandik eta gobernuetatik, gizarte zibiletik eta beste erakundeetatik, maskulinitasunaren eredu positiboak sustatzea. Horretarako, politika eta programa praktikoa multzo bat sustatu behar da, honako elementuak izango dituenak: ezkontzan eta seme-alaben eta gurasoen arteko harremanetan justizia sozial eta ekonomikoa sustatzen dituen marko juridiko etiko bat; seme-alaben hazkuntzan gizonezkoek gehiago parte hartzeko neurriak; sexuen berdintasuna, sexualitate arduratsua eta ugaltze gaien aukera sustatzeko heziketa bultzatzea eta komunikabideetan mezuak hedatzea; gizon gazteek sexu harreman arduratsuetan, ezkontzan, etxeko lanetan, seme-alaben hazkuntzan, sexu indarkeriaren aurkako borrokan eta abarretan dituzten ardurei buruz sentsibilizatu eta informatzeko politikak hartzea.



Gure gurasoei eta bereziki gure aitari esker –famiako buru bezalagoi mailako heziketa jaso dut, nire espezializazioa aukeratu ahal izan dut, nik nahi nuen senarra ere bai familia nik nahi bezala planifikatu dut, eta kalifikazio altueneko karrera profesionala jarraitu eta bertan lan egin ahal izan dut (2).

Thoraya Obaid Doktorea
FNUAPeko Zuzendari Exekutiboa

90. hamarkadan kontzientzia argi bat jaio zen: genero ekitatearen aldeko borrokan gizonak ere parte hartzeko behar larria dagoela ikusi da. Gizonak izaki generiko gisa ikertzen 70eko hamarkadan hasi ziren, mugimendu feministaren eraginez. Ikerketa horiek gero eta kalitate handiagokoa izan dira azken urteetan. Ikerketak gizonari eta maskulinitateari buruzkoak izan dira, gizonak ekitatearen aldeko lanera ekarri nahian, gizonak sexu eta ugaltze osasunaren eta eskubidearen alde jarri daitezela, guraso arduratsuek izan daitezela, genero arteko indarkeriaz ari daitezela edota aurrea hartu diezaieten sexu transmisioa gaixotasunei (ITS) eta VIH/IHESari. Latinoamerikan

(2) Thoraya Obaid Doktorearen –FNUAPeko Zuzendari Exekutiboa– egindako hitzak, 2001eko FNUAPen gobernu batzordearen Lehen Bilera Erregularra zela-eta. Obaid Doktoreak Saudi Arabiako nazionalitatea du.

eta Karibean maskulinitate tradizionalari –emakumeen aurkako diskriminazioan oinarritzen daurre egin nahi dioten gizonak badaude orain. Gizon horiek, maskulinitate modu berriak eraikitzen eta aurkitzen dituzte genero arteko ekitatea lortzeko. Lan hori Nazio Batuetako Biztanleri Fondoak (FNUAP) lagundu eta bultzatu du, bai erregio mailan eta bai nazio mailan. Lan hori garapen gaiez arduratzen diren beste erakunde eta instituzioek ere egin dute: sentsibilizazio lana gizonak maskulinitate modu berrien alde jartzeko, genero ekitatearen aldeko lanean jartzeko, hots, emakumeek euren boterea lortzearen aldeko lanean gizonak ere hasteko programak eta proiektuak egin dituzte.

1. *Gizonek bete beharreko funtzioa
Biztanleriaren eta Garapenaren
Nazioarteko Konferentziaren
Ekintza Programaren (1994)
eta Emakumearen IV.
Mundu Konferentziako Ekintza
Plataformaren esanetan (1995)*

1994ko Biztanleriaren eta Garapenaren Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programak (CIPD) –179 estatuk onartua– hauxe nabarmendu zuen: emakumeen eta gizonen sexu eta ugalketa osasuna eta eskubidea garrantzitsua dela, eta, bereziki, genero arteko harremanetan berdintasuna eta sexu jarrera arduratsua behar dela. Gizonek jokatu beharreko funtzioa honela laburbiltzen da sexuen arteko berdintasunari eta ekitateari buruzko eta emakumeak boterea lortzeari buruzko kapituluan:

“Beharrezkoa da gizonezkoek produkzio eta ugalketan emakumeen pareko esku hartzea izatea, eta, seme-alaben hazkuntzan eta etxeko mantenu lanetan ardurak banatzea”.

Gizonek ardura eta esku hartze handiagoa izatea eskatzen duten adibide asko topa daitezke Ekintza Programan, baita gizonek egin beharreko ahaleginaren adibideak ere. Ahalegin hori, sexu lagun, bikotekide eta guraso gisa egin behar da, leku eta jarduera guztietan emakumeen eta gizonen sexu eta ugalketa osasuna hobetzeko. Bide beretik, generoen arteko berdintasuna eta ekitatea lortzeko, gizonek hartu beharreko ardurei eta parte hartzei buruz ari den azpiatalak, hauxe dio:

“Nahitaezko baldintza da gizon-emakumeek ezagutza, jokabidea eta jarrera aldatzea, gizon eta emakumeen arteko elkarlana orekatua izango bada. Gizonak betetzen duen funtzioa funtsezkoa da sexuen arteko berdintasuna lortzerakoan. Izan ere, gizonak ia bizitzako eremu guztietan du botere gehiago –gizarte gehienetan gertatzen da hori–: seme-alaba kopurua aukeratzeko erabaki pertsonaletatik hasita, erabaki politikoetaraino eta programa publikoetako maila guztietaraino”. Hori dela eta, Ekintza Programak jarritako helburua hau zen: bizitzako eremu guztietan –famili eta komunitate bizitza– sexu berdintasuna bultzatzea eta gizonei adre ematea euren sexu eta ugalketa jokabideez arduratu daitezten eta gizonek euren funtzio soziala eta familiarra euren gain har dezaten. Horretarako, familia bizitzako eremu guztietan eta etxe arduetan gizonaren parte hartzea sustatzea eta bultzatzea gomendatzen zen, ondorengo neurriak hartuta:

- Sexu eta ugalketa jokabide osasungarria, famili plangintza barne;
- Umea jaio aurreko osasunean, amatasun garaiko osasunean eta umea izaten duen garaiko osasunean laguntzea;
- Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunei aurrea hartzea, VIH/HIESAri ere bai;
- Gogoz kontrako haurdunaldiei eta arrisku handiko haurdunaldiei aurrea hartzea;
- Familiako diru sarreratan esku hartzea eta laguntzea;
- Aitatasun arduratsua: seme-alaben hezkuntza, osasuna eta elikadura; seme batek edo alaba batek berdin balio duela aitortzea eta ezagutza hori sustatzea; seme-alabek gurasoengandik babes ekonomiko egokia jasotzen dutela ziurtatzea;
- Emakumeen eta umeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea.

Ekintza Programak hauxe proposatu zuen nerabeekin ere sexu osasunaz eta ugalketaz aritzeko –gogoz kontrako haurdunaldiez, baldintza txarretan egintako abortuez edo sexu transmisio gaixotasunak gehitzeaz (ETS), VIH/HIESA barne–: nerabeak laguntzeko baldintzetan dauden pertsona guztietara heldu behar zuela programak eta pertsona horiek guztiak gaitu behar zituela, gero euren ere sexu eta ugalketa arduratsua erakutsi zezaten. Guraso eta familietan pentsatu da programa horretan, baita komunitate, instituzio erlijioso, ikastetxe, hedabide eta adin eta interes bereko taldeekin ere.

Urtebete geroago, 1995ean, Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzian onartutako Beijingo Ekintza Plataformak gizonek bete beharreko funtzioa funtsezkoa zela esan zuen berriro, emakumeak sexu eta ugalketako osasun zerbitzuak izateko orduan. Eta gizon guztiak animatu zituen sexu eta ugalketa jokabideetan arduraz jokatzera. Adin guztietako gizonentzat programa zehatzak diseinatzeko beharra ere nabarmendu zen, ugalketa eta sexu jokabide arduratsuari eta seguruari buruzko informazio osoa eta frogagarria emateko –VIH/HIESAari eta beste ITSei aurrea hartzeko metodo maskulino boluntario egokiak eta eragingarriak ere bai–. Hauxe ere baieztatu zen: emakumearen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzen duten gizon taldeek bihurtu behar dutela aldaketaren aliatu.

1999an CIPDen Ekintza Programa berrikustean ondorio hau atera zen: erantzukizun maskulinoa gehiago ez zabaltzeko oztopo nagusia jokabide sozial eta kultural batzuk irautea zela. Jokabide horiek, gizonak generoen arteko berdintasunaren alde eta emakumeek boterea eskuratzearen

alde aritzea zailtzen dute, bai komunitate mailan, bai politika publikoan. Bide beretik, berrikuspen prozesuak gizonak bultzatu zituen, berriz ere, amen hilkortasun eta erikortasun tasa jaisten laguntzera, baita emakumeentzako praktika kaltegarriak ezabatzeko euren esku hartzea bultzatze-
ra ere. Gizonen esku hartzea zela eta, generoarekin loturiko ekintza erabakigarrien artean –Kairo+5 eta Beijing+5 berrikuspenek gomendatutakoak– hauxe nabarmendu zen: sexu eta ugalketa osasunean gizonak dituen beharrei aurre egin beharra emakumeentzako zerbitzua oztopatu gabe, generoen arteko indarkeriaren aurka gizonak ere esku hartzea eta eredu maskulino positiboak sustatzea.

1999ko ekainean, CIPDen Ekintza Programa aurrera eramateko Funtsezko Neurriak –Nazio Batuetako Batzar Nagusiak onartu zituen– gizonen eginkizun eta ardurak zeintzuk ziren esan zuten, proposatutako helburuak lortzeko:

“Gizonek euren funtzioak eta euren ardura zein den ulertzea emakumearen giza eskubideak errespetatzeko, emakumearen osasuna babesteko –emakumea bere lagunekin sexu eta ugalketako osasun zerbitzuetara joatea ere lagunduz–, gogoz kontrako haurdunaldiak saihesteko, amen hilkortasuna eta erikortasuna gutxitzeko, sexu bidezko transmisioarekin kutsatzen diren gaixotasunak gutxitzeko –VIH/HIESA barne–, etxeko lanetan eta seme-alaben hazkuntzan ardurak banatzeko eta praktika kaltegarriak ezabatzen laguntzeko –sexu-organoak ebakitzea esaterako–, edo sexuan oinarritutako indarkeria ezabatzeko, neskabila eta emakumeak bortxatuak eta hertsia ez izateko zainketa lanak eginez”.

Nazio Batuetako Sistemarekin batera hauxe babestera bultzatu dira gobernuak, gizarte zibila, GKEk eta emaileak:

“Maila guztietako buruzagi guztiek –baita gurasoek ere– eredu positiboak bultzatu behar dituzte gizonak genero gaietan heldu sentiberak izaten laguntzeko, gizonak emakumeen sexu eta ugalketa osasuna eta emakumeen ugalketa eskubideak babesteko, sustatzeko eta errespetatzeko, eta gizonak gizaki guztien berezko duintasuna onartzeko”.

2000. urtean, Beijinggo Ekintza Plataformaren berrikuspenak hauxe nabarmendu zuten berriz ere: etxeko indarkeria mota guztien aurkako legeria behar zela, emakumeen eta nesken aurkako indarkeria giza eskubideak bortxatzea dela, eta gizonak sexu eta ugalketa jokabide segurua eta arduratsua izateko programak berehala sustatu behar direla, baita gogoz kontrako haurdunaldiei aurrea hartzeko –edota ITSei, edo VIH/HIESAri– neurriak erabiltzeko programak ere.


2.

Generoa, gizonak eta ugalketa osasuna FNAPen agendan

Nagusiki, ondorengo puntuetan oinarritu dira gizonak sexu eta ugalketa osasunaren eta ekitatearen aldeko lanean inplikatzeko erabili diren arrazoiak:

- Gizonak funtzio erabakigarria jokatzen du emakumeen sexu eta ugalketa osasunari buruzko erabakietan. Gizarte askotan, gizonak erabakitzen du emakumeak kontrazepziozko metodoen bat erabili ahal izango duen. Gizonak dira emakumea haurdun dagoenean laguntza medikoa bilatzea edo ez bilatzea erabaki dezaketenak, eta abar.
- Ugalketa osasunari buruzko programetako ohiko onuradunak emakumeak izateak –famili planifikazioan gehienbat– ugalkortasun kontrolaren ardura osoa eskatzen dio emakumeari, bai ITSetatik babesterakoan, bai haurdunaldian.
- Gizon eta emakumeen artean erabakiak elkarrekin hartzeak bidezko genero harremanak izaten laguntzen du, bikotearentzako intimitate handiagoa lortzen da eta seme-alabak hobeto zaintzea ere bai.
- VIH/HIESA gaixotasuna duten gizon askoren emakumeak infekzioa harrapatzeko arriskuan daude. Gizonen artean premiskuitate handiagoa dagoenez gero, gizonen arteko infekzio arriskua gutxitzeko eta gizonak horretaz jabetzeko neurriak hartu behar dira. Epidemia hedatzeko aukerak gutxituko dira horrela.

CIPDen Ekintza Programak famili plangintza konbentzionalaren eredu aldaketa sustatu zuen. Famili plangintza konbentzionalak ugalkortasuna murrizteko helburu demografikoa zuen, antisorgailuen bidez. Gainera, emakumeak baino ez zituen biztanleri helburu. Ekintza Programak genero eta ugalketa osasunean ekitatea izango den eredu berria sustatu nahi du. Honetan oinarritzen den eredu nahi du: generoen arteko inekitateak sexu eta ugalketa osasunean eragiten duela onartzea –giza eskubideen ikuspegitik hartuta–, eta horri aterabidea aurkitzeko, gizonak goitik behera busti behar dutela eta elkarlanean aritu. Eredu horrek generoen arteko ekitatea lortzea du helburu. Eta, besteak beste, hauxe sustatuko da: gizonak sexu eskubideak eta emakumearen ugalketa eskubideak babesten laguntzea eta gizonen sexu eta ugalketa osasuneko behar zehatzetan arreta handiagoa jartzea.



Generoen arteko ekitatea eta ugalketa osasun ekitatea duen ereduak ikuspegi honetatik elkarlotzen ditu sexualitatea, ugalketa eta generoa: sexu harremanak eta ugalketa, generoen arteko inekitateen eta gizonen eta emakumeen arteko botere harremanen arabera ulertzen dituen ikuspegi-tik. Hori, zerbitzu medikuak izatea eta metodo antisorgailu maskulino eta femeninoak izatea baino zerbait gehiago da. Horrela, zabalagoa izango da ikuspegia, funtsezko auziak ere barne hartuz: genero identitateak, sexu praktikak, generoen arteko indarkeria, maskulinitatea eta eragile sozio-kulturalen garrantzia. Horrek zera eskatzen du: identitate maskulinoak eraikitzeke prozesuak lan-du behar direla. Identitate maskulino horiek sexu eta ugalketa jokabide jakinetan izan beharko dute eragina, bai eta ekitatearen aldeko lana egiten eta emakumeak boterea eskuratzea lortzen lagunduko duten eredu maskulino positiboak sustatzean ere.

Generoen arteko ekitatea eta ugalketa osasunean ekitatea duen ereduaren funtsezko elementua da giza eskubideen ikuspegia. Izan ere, giza eskubideen ikuspegiak haxe aldarrikatzen du: sexu eta ugalketa eskubidea, generoen arteko ekitate eskubidea eta umeen eskubideak babestuko dituen sistema legalak egotea. Era berean, genero tradizionalen jokabideekin bat ez egitera animatzen dira gizonak, eta gizonen ugalketa osasunaren beharrak ere ardura gai izatera ere bai. Horri, heziketa ikuspegia gehitu behar zaio. Heziketa ikuspegia honetan oinarritzen da: gizonezkoak txiki-txikitik sentsibilizatzea –nerabezaroan ere bai– generoen arteko inekitateez, estereotipoez eta jokabide tradizionalaz. Horrela, eurek hartu beharreko konpromisoa sustatuko da ekitatearen aldeko jarrerekin eta jokabide berriekin.

Nazio Batuetako Biztanleri Fondoak gizonen esku hartzea beharrezkoa den ereduia sustatu du. Gizonen esku hartze hori ugalketa osasunean da beharrezkoa, ekitatearen eta eskubideen ikuspegitik, mundu, erregio edo nazio mailan egiten diren ahaleginen bidez. FNUAPk bultzatutako jardueren artean, erregio mailako konferentzia zenbait nabarmendu daitezke. Esaterako, FNUAPen Laguntza Teknikoko taldeak antolatutakoa Addis Abeban, 1997an: “Male Involvement in Reproductive Health and Mainstreaming Gender in Population and Development Programs”. 1998ko ekainean, Latinoamerikarako eta Kariberako FNUAPen Laguntza Teknikoko taldeak beste hitzaldi erregional bat iragarri zuen, Facultad Latinoamericana de Ciencias Sociales (FLACSO) de

Chilerekin elkarlanean: "Genero arteko ekitatea Latinoamerikan eta Kariben: identitate maskulinoaren erronkak". Eta urte bereko urrian, FNUAPk –IPPF eta AVSC Internationalekin batera– sinposio erregional hau babestu zuen Mexikon: "Esku hartze maskulinoa sexu eta ugalketa osasunean: paradigma berriak". 1998an, gainera, FNUAPk, OMSk eta FAOk nazioarteko hitzaldia iragarri zuten Erroman: "Male Involvement in Sexual and Reproductive Health Programmes and Services". Eta 2000. urtean, FNUAPen Laguntza Teknikoko taldeak tailer erregionala antolatu zuen Bangkok: "Adolescent Reproductive Health for East and South East Asia and the Pacific Island Countries". Nazioarteko eta erregio mailako bilera eta hitzaldi horiek funtsezkoak izan dira Estatuetak Programak babesterakoan. Programa horiekin genero ikuspegi berria lortu nahi da eta identitate maskulinoa eta gizonen sexu eta ugalketa jokatibidea ikertzeko beharra sortu, sentsibilizazio eta informazio zereginetarako, eta jendea behar horiekin identifikatzeko.

FNUAPek dokumentu sorta bat kaleratu du mundu mailan, ugalketa osasunean gizonen izan beharreko esku hartzeari buruz. 1996ko uztailan, FNUAPen Sail Teknikoak izenburu hau duen dokumentu teknikoa kaleratu zuen: "Esku hartze maskulinoa ugalketa osasunean, famili planifikazioa eta sexu osasuna barne hartuta". Bertan, gizonen esku hartzearen beharra ugalketako genero funtzioetan oinarritzen da eta antisorgailuen nagusitasuna hedatzean, bai eta ETSei eta HIESAri aurre hartzean eta generoen arteko indarkeria murriztean ere. Bestalde, gizonen esku hartzea lortzeko dauden oztopo eta zalantza nagusiak identifikatzen dira bertan, eta estrategi planifikazioa egiteko ildo erabilgarriak zeintzuk izan litezkeen esaten da. Osasun zerbitzuak eskaintzeko esku hartzeetan eta informazio, heziketa eta komunikazio jardueretan ikasitakoak ere aurki daitezke bertan.

2000. urtean, FNUAPek dokumentu hau ere argitaratu zuen: Funtzio berri bat gizonentzako: emakumea indartzeko laguna. Hauxe irakur daiteke bertan: "ezinbestekoa da gizonen emakumea indartzen laguntzea: munduko gizarte gehienetako botere gune gehienak gizonentzako dira. Sarritan, badirudi emakumea indartzearen aldeko borroka euren gain dagoen zerbait bezala hartzen dela bakarrik. Beharrezkoa da gizonen ere ulertzea, emakumeak aurrera egiten badu, gizarteak ere aurrera egingo duela". Testu horretan, FNUAPek ondorengo elementuak egongo diren politika eta programa praktikoak sustatuko dituela baiesten du:

- Senar-emazteen artean eta gurasoen eta seme-alaben artean justizia soziala eta ekonomikoa sustatuko duen marko juridikoa.
- Estatuaren eta gurasoen eskubide eta betebeharrak zeintzuk izango diren erabakiko dituen arau eta lege sozialak, bategitea izatezkoa denean edo senar emazteak banatzen edo bategitea apurtzen denean.
- Tradizionalak ez diren familiak laguntzeko joera eta umeen hazkuntzan gizonen esku hartzea handitzen laguntzea.
- Hedabideetan heziketa eta mezuzak hedatzea generoen arteko ekitatea, sexualitate arduratsua eta ugalketa gaietan aukera egiteko eskubidea sustatzeko.

- Famili gaietan politika hobeak izatea, gazteei sexu harreman arduratsuak izaten irakasteko, baita senar-emazte izatearen esanahia zein den eta zein ardura dauden irakasteko ere, edo helduen arteko beste harremanak irakasteko ere bai, ugalketa beharrekin batera.
- Familiako bizitzari buruzko heziketa. Beharrezkoa da mutikoei erakustea, ugalketak seme-alabei babes ekonomikoa ematea eskatzen duela eta seme-alaben hazkuntzan ardurak banatzea.

“Munduko biztanleriaren egoera 2000: Elkarrekin bizitzea bereizitako munduetan: Gizonak eta emakumeak aldaketa garaietan” artikuluan, FNUAPek gai honi eskaini zion 4. kapitulua: “Gizonak, ugalketa eskubideak eta genero arteko berdintasuna”. Bertan, sexu eta ugalketa eskubideetan eta generoen arteko ekitateetan gizonak izan beharreko esku hartzea azpimarratzen da bereziki. Gizon horiei komunitateetako eta nazioetako lider gisa ematen zaie ardura, osasuneko langile eta hezitzaile gisa, familiako kide gisa, emakumeak errespetatu eta emakumeen segurtasun zaintzaile gisa. Gainera, hauxe ondorioztatu da bertan: familiako eta gizarteko gizonen jokabideak erabakitzen duela egiaz "benetako gizona" izatea, eta, beraz, berehala sartu behar dira maskulinitateekin lotura duten lanak sexu eta ugalketa osasuneko programa eta proiektuetan.

VIH/HIESAri buruzko Nazio Batuen Programa Osoaren (ONUSIDA) laguntzaile gisa, FNUAPek 2000. urteko mundu mailako kanpaina babestu du. Ikurriz hau du kanpainak: "gizonek egiten dute diferentzia". Kanpaina horrek, VIH/HIESAren krisiari estatu mailako erantzuna ematea izan du helburu. Har ditzatela gizonak, alegia, emakume eta neskentzako prebentzio programen osagarri gisa. Peter Piot Doktoreak, ONUSIDAKo Zuzendari Exekutiboak esan zuen gisan: "bada garaia gizonak arazotzat hartzeari utzi eta gizonak irtenbidearen zati bezala hartzeko". Mundu mailako kanpaina horrek, ondorengo lau puntuetan oinarritzen den Ekintza Plana ezarri zuen:

- Generoaz sentsibilizatzea estereotipoek eta aukerek emakumearengan eta gizonarengan –generoaren arabera– nola eragiten duten ulertzeko, eta sexuen arteko berdintasuna eta ekitatea handitzeko ahalegina babesteko. Mutikoak hezteko moduari buruzko eztabaidak sustatzea, baita mutilek gero izan dezaketen jokabideari buruzko eztabaidak ere.
- Sexu komunikazioa eta negoziazioa: gizonak gizonen artean eta gizonak bere emazteekin sexuaz, droga kontsumoaz eta HIESAz hitz egitera bultzatu; emakumeak sexu harremana noiz, non edota nahi duen erabakitzeko gaitasuna handitzea; gizonen informazio eta aholku iturriak erraztea eta laguntza egokitua jartzea; eta sexu harremanak gizonekin dituzten gizonak ulertzeko eta onartzeko bideak irekitzea.
- Indarkeria eta sexu indarkeria: gobernuko eta gobernuz kanpoko jarduna laguntzea indarkeria maskulinoa eta sexu indarkeria murrizteko.
- Babesa eta sorospena: gizona laguntzea aita eta zaintzaile funtzioan, bai familia barruan, bai komunitatean.

FNUAPen kezka hori, dokumentu honetan ere islatzen da: “Aliatuak aldaketarako: gizonen kooperazioa VIH/HIESAri aurrea hartzeko”. 2000. urtean argitaratua da dokumentu hori eta bertan, arreta gizonengan eta mutikoengan jartzeko arrazoiak zerrendatzen dira:

- Gizonen lankidetza lortzea VIHaz ez kutsatzeko prebentzio lanetan. Hori da epidemiaren orain arteko bidea aldatzeko modu seguruenak;
- Jokabide arriskutsuek gizonak VIHaz kutsatzeko –eta gero hori transmititzeko– aukera handitzen dute;
- Beharrezkoa da gizonen esku hartzea emakumearen jardun baliabideak gehituko badira, eta emakumeek euren burua babestuko badute;
- Aldaketa mutikoak –semeak– hezteko moduarekin hasten da;
- Kondoiaren erabilpena sustatzea lan hori dena egiteko modurik onenetakoa da;
- Ugalketa osasunean eta sexu garbitasunean handiak dira gizonen beharrak, eta behar horiei, ez zaie behar bezalako arreta jarri;
- Berdintasun eta segurtasun baldintzak sor ditzakeen oztoporik gabeko komunitate batean gizonak eta emakumeak, biak izango dira onuradun;
- Askok da gizonak aita, senar, anai, seme eta lagun gisa eman dezaketena, eta beharrezkoa da HIESA duten senitartekoez gehiago arduratzea.

Horretaz gainera, dokumentuak FNUAPek hasitako ekinbideak azaltzen ditu. Asmoa aldaketak eragitea da Estatuaren Programen bidez, eta gobernu, nazioarteko erakunde, GKE eta gizarte zibilarekin elkarlanean. Helburua, berriz, hau da: epidemia ezabatzeko estrategiak formulatzea programa eragingarriak sustatzeko. Bide beretik, jardura espektro zabala du FNUAPek babestutako programak: gizonentzako kondoiak banatzea, gazteek VIH/HIESAri buruzko heziketa jasotzea eta erabakiak arduraz hartzen irakastea, VIH/HIESarekin lotura duten genero arteko auzien ulerpenera sustatzea, kutsatze arriskuei aurrea hartzeko zerbitzua eskaintzea sexu eta ugalketa osasun zerbitzuetan, osasun zerbitzuko langileak trebatzea, gizonak arrisku gutxiago eta ardura gehiago hartzeaz konturaratzea eta bikotekideen arteko komunikazioa sustatzea.

Eremu honetan, dokumentu hau lan tresna baliotsua da: "Generoan, VIHan eta giza eskubideetan trebatzeko gidaliburua". 2000. urtean FNUAPek egina da, Emakumearentzako Nazioen Garapen Fondoarekin (UNIFEM) eta ONUSIDArekin elkarlanean. Trebakuntza lanetan dabilzanak laguntzea du xede gidaliburu horrek: VIH/HIESAren genero neurriak hobeto ulertzeko. Eta diseinatzaile politikoen masa kritikora heldu nahi da horrela. Bide horretatik, masa horiek epidemiaren erronkari erantzun egokiak emateko beharra sortuko dute euren esfera politikoetan. Hauke irakur daitezke gidaliburuan: "gizonak HIESAren aurkako borrokan sartuago egoteko arrazoi garrantzitsuak daude. Mundu guztian, gizonak sexu bikote gehiago izan ohi dituzte emakumeek baino –baita senar-emazteen artean ere–. Beraz, handiagoa da gizonen eta euren emazteen arriskua VIH harrapatzeko. Gizonak adoretu behar dira jokabide positiboak har ditzaten, eta, esaterako, euren bikoteak eta familiak gehiago zaindu ditzaten. Ikerketa askok frogatzen dute gizonak emakumeek baino esku hartze txikiagoa izaten dutela seme-alaben zaintzan. Horrek eragin zuzena du HIESAren epidemian. HIESAk helduen laguntza beharrean dauden 11 milioi ume utzi ditu umezurtz".

Orainsu, 2001eko otsailean, FNUAPeko Zuzendari Exekutibo berriak, Thoraya Obaid Doktoreak berriro esan zuen ekitatean gizonen funtzioa zela erabakigarri, eta hori zela, FNUAPek nahitaez

landu beharreko gaia eta egin beharrezko lan enblematikoena. Printzipio unibertsalak eta kultur balioak gerturatzeko erronkarekin bat eginez, Obaid Doktoreak amatasunaren eta aitatasunaren garrantzia kritikoa berretsi zuen, eta hori, ardua ekonomikoetatik haratago zihoala. Modu berean, gizonak emakumeak babestu beharra azpimarratzen zuen euren bizitzetan euren erabakiak hartzerakoan (seme-alaba kopurua eta seme-alaben arteko tartea, ugalketa osasun zerbitzuetara joatea ziurtatzea eta bizitza publikoan parte hartu ahal izatea. Obaid Doktorearen hitzetan:

“Gero eta emakume gehiago ari dira euren boterea lortzearen alde lanean. Baina lan hori ezin egin dezakete emakumeek bakarrik. Gizonen babesa ezinbestekoa da horretarako. Gizonek funtsezko funtzioa jokatzen dute gizonen eta emakumeen arteko inekitateak ezabatzerakoan. Gizonek lagun izan beharko lukete aldaketa horretan. Aurrerapen sozialak honela bakarrik lor daitezke: gizonak emakumeek boterea lortzea sustatuta alor produktibo eta ugalketa alor guztietan (etxean, ugalketa erabakiak hartzerakoan, hezkuntzan, laneko tokian eta eremu politiko, legegile eta politika publikoetan. Gizonek ulertu egin behar dute emakumeak izan ditzakeen onurak gizarte osoarentzako onura direla, gizonak tartean direla. Orduan soilik izan ahalko dira gizonak eta emakumeak benetan berdinak eta euren gizarteetako garapenean lagun”.

Urte bereko apirilean, FNUAPk izenburu hau zuen dokumentu teknikoa kaleratu zuen: “Partnering: sexu eta ugalketa osasunaren ikuspegi berri bat”. Bertan, mundu mailan aho batez erabakia hartu zela jartzen da agerian, gizonentzako programa beharrari buruz. Eta hori, emakumearentzako jarri diren baliabide eskasak bazterrerara utzi gabe. Lan horretan, esaten da, gero eta gizon gehiago direla mobilizatu eta horren alde egiten dutenak, genero gaitan sentiberak izango diren nerabe eta gazte maskulinoak lortzeko. Partnering gizonen osasuna aztertzetik haratago doa eta azken urteetan ikasi diren gauzak sartu dira bertan: maskulinitateen eraikuntza eta gauzatzea, horren arabera sentitzen eta hitz egiten dute gizonak famili plangintzari buruz, sexu segurua, sexu heziketa, elkar banatutako ardurak eta erabakiak, eta genero arteko indarkeria ezabatzea.

3. *Maskulinitateak Latinoamerikan eta Karibeetan: FNUAPen ekarpena*

Maskulinitatearen gaiarekin eta generoen arteko ekitatean gizonak sartzearekin zerikusia duten ekintza jakinetan eta ikerketetan Latinoamerika izan da erregio aitzindarietako bat. 90. hamarkadan zehar, bilakaera handia izan da instituzio akademikoetan. Instituzio horiek, maskulinitateari buruz eginiko ikerketak sartu dituzte euren genero programetan, ikerketetan, irakaskuntzan, argitalpenetan, mintegietan eta tailerretan. Hona hemen zenbait kasu, kasuren batzuk azaltzearen: Universidad de Chileko Genero Ikerketen Programa, Pontificia Universidad Católica del Perúko Genero Ikerketen Diploma, Facultad de Ciencias Humanas de la Universidad Nacional de Colombiako Maskulinitateari buruzko Mintegia eta Universidad Nacional Autónoma de Méxicoko

Genero Ikerketen Programa Unibertsitarioa. Azken urteetan, GKEk eta Oinarrizko Mugimenduek haxe defendatu dute: generoan oinarritutako inekitateetan aldaketak izatea eta erantzukizun eta esku hartze maskulinoa sustatzea. Era honetako ekimenak ere sortu dira: Txileko Maskulinitate Sarea, gune garrantzitsua maila erregionaleko harremanetarako. Eta gizonen beste erakunde batzuk ere sortu dira: besteak beste, Berdintasunezko Harremanen aldeko Gizon Taldea (CORIAC) eta Salud y Género A.C. Mexikon, Puntos de Encuentro Nikaraguan, ECOS eta Programa Papai Brasilen, CISTAC Bolivian, ETHOS Uruguain. Horiek denek era honetako gaiak lantzen dituzte: sexualitate maskulinoa, generoen jokabideak, indarkeria maskulinoa, aitatasun arduratsua, hau da, maskulinitate tradizionala baztertze moduetan eta genero arteko ekitatea dagoen eredu berriak sustatzen egiten dute lan.

FNUAPk bat egin du erregio eta nazio mailako ahalegin horiekin, Latinoamerikako lehenengo topaketa sustatu eta babestearen bidez. Eta kasu batzuetan, estatu mailako ahaleginekin ere bat egin du maskulinitateari eta genero arteko ekitateari buruzko gaietan. Erregio mailan konferentzia erregional hau nabarmentzen da, lehen aipatu bezala: "Genero arteko ekitatea Latinoamerikan eta Karibbean: identitate maskulinoen erronkak". 1998. urtekoa da konferentzia hori eta Latinoamerikarako eta Kariberako FNUAPen Laguntza Teknikoko Ekipoak antolatu zuen, Txileko FLACSOrekin eta Ford Fundazioarekin elkarlanean. Txilen eginiko konferentzia horretan, lehenengo aldiz ia 20 estatutako aditu bildu ziren. Eta bertan, Latinoamerikako maskulinitatearen erakuntza sozialeko funtsezko gaiak landu ziren: maskulinitateak, gorputza eta sexualitatea; maskulinitateak, indarkeria eta boterea; maskulinitateak eta sexu eta ugalketa osasuna; maskulinitate hegemonikoak, menpekoak eta alternatiboak eta matxismoa eta Latinoamerikako kultura. Urte bereko urrian, Oaxacan, Mexikon ikurriz hau zuen sinposioa egin zen: "Esku hartze maskulinoa sexu eta ugalketa osasunean: paradigma berriak". Sinposio hau FNUAPek ere lagundu zuen, AVSC Internationalekin eta IPPFrekin elkarlanean. Bertan, erregio mailan gizonekin eginiko lan esperientzia adierazgarrienak bildu ziren, baita ugalketa osasunean izaniko esperientziak ere. Ikasitako lezio nagusiak jakinda, etorkizuneko erronkak zeintzuk izango ziren adierazi zen.

FNUAPek erregioiko zenbait herrialdetan maskulinitateari buruzko lehenengo nazio tailerrak edo mintegiak egiten ere lagundu du, baita gogoeta eta harreman guneak sortzen ere. Kolonbiako kasua nabarmenduko genuke hemen. 2000. urteko uztailean, Bogotako FNUAPen Bulegoak foro honen deialdia egin zuen: "Maskulinitateak Kolonbian: gogoeta eta etorkizuna". Foro hori talde hauekin elkarlanean antolatu zen: AVSC International, Programa Género, Facultad de Ciencias Humanas de la Universidad Nacional de Colombiako Emakumea eta Garapena eta Consejería Presidencial para la Política Socialen HAZ PAZ (egin bakea) Politika. Bertan, Kolonbiako maskulinitatea landu zen, baita gizonekin izandako ikerketa esperientziak eta gizonentzako osasun zerbitzu eta programetan izandako esperientziak ere. Mexikon, Maskulinitatearen Sarea sortzen lagundu du FNUAPek. Sare horren lehenengo bilera 2000. urte hasieran izan zen Querétaron. Bertan bildu ziren gai hori lantzen duten nazio erakunde eta instituzioak, eta, orduko oztopoak eta lehentasunezko ekintza bideak aztertu ziren, erakundeen direktorioa egin zen eta web orri bat egitea sartu zen agendan. Urte bereko abuztuan eta irailean, Mexikoko FNUAPek maskulinitateari

buruzko lehenengo tailerra eman zion Koordinazio Generalari eta Instituto Mexicano del Seguro Socialaren (IMSS) Elkartasuna Programako beste goi mailako zenbait funtzionariori ere bai, eta, Consejo Estatal de Población de Puebla lagundu zuen mintegi bat antolatzen. Mintegi horretara, instituzio arteko talde esanguratsu bat deitu zen gaiaz hitz egitera. Ekuadorren, azaroan, FNUAPek eta FLACSO Ecuadorrek "Maskulinitatea eta genero arteko ekitatea" tailerra eta jardunaldia deitu zuten. Bertan, identitate maskulinoen gaia landu zen eta identitate horiek sexu eta ugalketa osasunean lantzeko erreminta metodologikoak azaldu ziren. Azaroan bertan, Liman, FNUAPek nazioarteko erakundeetako, akademiako eta GKEtako 20 ordezkari bildu zituen tailer honetan: "Maskulinitasunaren eraikuntza eta genero arteko ekitatea". 2001eko maiatzean, berri, Red de Población y Desarrollo Sustentablerekin (REDPOB) eta Universidad Nacional de Venezuelarekin batera, FNUAPek "Maskulinitateari eta genero arteko ekitateari" buruzko lehen nazio tailerra antolatu zuen.

Aipatu beharra dago Panamako FNUAPek Centro de Apoyo a la Mujer Maltratada GKeri eman dion laguntza ere. Generoen arteko indarkeria ezabatzeko proposamen bat egin da elkarrekin. Hauxe da proposamenaren helburu orokorra: maskulinitatearen eredu hegemonikoaren kontraesanak eztabaidatzea eta gizonen emakumeekiko ikuspegi gizakoiagoa eta ekitatiboagoa izatea bultzatuko duen paradigma alternatibo bat kudeatzea. Zenbait jardura egin ondoren –sentsibilizatze eta trebakuntza mintegiak, Gizon Irainzaileak Laguntzeko Taldea (GAHO) sortzea–, maskulinitateari buruzko gogoeta zirkulu bat sortu zen. Zirkulu horrek, diziplina eta kultur ekarpen desberdinetako esperientziak eta bizipen pertsonalak lantzen ditu. Egin den lanak tartean sartu ditu Panamako, San Miguelitoko eta Correjidurietako funtzionario publiko asko, intelektualak, profesionalak, GKEetako kideak, eta beste. Bestalde, FNUAPen Bulegoak 2000ko Biztanleriaren Munduko Eguna baliatu zuen nazio prentsan maskulinitateari buruzko artikulua interesgarri bat kaleratzeko. Izenburu hau zuen artikulua: "Gizon izatea aro berri baten hasieran". Zera irakur zitezkeen bertan: "maskulinitatearen ikuspegi oker horrek, gizon asko arrisku handiko egoerara eramandu ditu. Egoera hori pentsamendu magikoa dutenengan da arrunta. Gizon horiek uste dute, adibidez, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunekin edo HIESAren ez direla kutsatuko. Hortaz, inolako babesik gabe egiten dute sexua. Gogoz kontrako haurdunaldiak gero eta gehiago dira, edo euren gurasoek nahi ez dituzten ume kopurua handia da. Eta ume horiek seme edo alabatzat ez direla hartuak izan arduraz hartzen ez dutenez, ez diote errua helduek izan duten jokabide arduragabeari botatzen".

FNUAPek hartu duen instituzio arteko elkartzeko estrategia funtsezkoa izan da ekimen horiek arrakasta izateko orduan –generoaren barruan interes handiko gai dela kontuan hartuta–. Sentsibilizatze eta trebatze ekintzak elkartzerakoan eta instituzio eta lan eremu desberdinei –dibertsitate eta aniztasun marko baten barruan– deialdia egiterakoan, FNUAPek mundu akademikoan gizonen eta gizonekin aritzeko behar gero eta handiagoa sortu du, bai politika publikoen genero azterketetan, bai gobernu instituzioetan eta gizarte zibilaren ekinbideetan ere. Horrela, gizon eta emakumeek eguneroko bizitzan eta harremanetan zer pentsatzen eta zer sentitzen duten aztertzeko guneak sortu dira, eta zein aldaketa mota nahi dituzten ere aztertzen da generoen ar-

teko harremanen forma eta edukietan, zein lezio ikasi dituzten ere bai eta zeintzuk diren gizonak sexu eta ugalketa osasunean aritzeko erronkak.

Era berean, sexu eta ugalketa osasunean gizonak sartu beharra sortzen ahalegindu da FNUAP, bai Estatuko Programetako dokumentuetan –Fondoaren laguntza dela eta gobernuek definitutako lankidetzaren lehentasunak biltzen dira bertan–, bai eskatzen diren beste jarduerak eta ekintzak zehaztuz ere –askotan, gizarte zibileko instituzioek eskatzen dute hori–. Bide beretik, FNUAPEk erabilgarri duen estrategia, generoen arteko ekitatea lortzeko gizonak inplikatzeko, sentsibilizazioa eta trebakuntza sustatzera bideratu da, baita gizonentzako sexu eta ugalketa osasuneko zerbitzuak erabilgarriagoak eta baliabide gehiagokoak izatera ere. Nagusiki, azpimarratu beharra dago estrategia horrek ikuspegi oso berria ekarri duela. Izan ere, Paraguay, Nikaragua, Ekuador eta Peruko Indar Armatuak eta Polizia Nazionalean bezalako instituzioak inplikarazi dira, eta Ekuadorko Eliza Katolikoa ere bai. Bolivian, gainera, sexu eta ugalketaren osasun zerbitzua bi hizkuntzetan eskaintzen da –kitxua eta gaztelania, eta Paraguayko landa lurretan bikote gazteentzako sexu heziketa erakusten da. Bide beretik jarraituz, FNUAPEko Kairoko Ekintza Programaren monitorizazio proiektuan –Latinoamerikako eta Karibeko Emakumeen Osasun Sarearekin batera–, erantzukizun maskulinoari dagokion lehentasunezko ardatza gehitu da. Horrek, defentsa elementu bati eustea ahalbidetu du nazio mailan.

Indar Armatuak eta Polizia Nazionalean generoen artean ekitatea dagoen ereduak eta sexu eta ugalketa osasuna duen ereduak sartzea –gizonak inplikatzeko eta gizonen erantzukizunean oinarritua– FNUAPEk erregio mailan darabilen strategiaren adibide nabarmenena eta berritzaileena da. Indar Armatuak nazio instituzio iraunkorrak dira, eta militar profesionalak trebatzen ditu eta derrigorrezko zerbitzu militarra egiteko adinean dauden hiritarrei instrukzioa ematen die eta biztanleriaren zati bat osasun zerbitzuez hornitzen du. Paraguayn, esaterako, 10.000 mutil gazte inguru joaten dira kuarteletara. Mutil horientzat bizitzako une oso garrantzitsua da hori, zer esanik ez euren identitate maskulinoak garatzeko orduan. Bestalde, gazte horiek zerbitzua amaitzen dutenean, euren komunitateetara itzultzen dira –sarri askotan landa lurretara– adin garai horrek eskaintzen dituen aukerekin. Oro har, sexu eta ugalketa osasunari buruz dakitena ez da nahikoa izaten, eta ez dago instituzio militarretan informazio eta heziketa sistemarik, generoen arteko ekitateari buruz, ez eta sexu seguru, osasuntsu eta arduratsuari buruz ere. Hori guztia kontuan hartuta, FNUAPEk uste du generoa, maskulinitatea, eta sexu eta ugalketa osasun eta eskubidea bezalako gaiak sistematikoki heltzeak garrantzia handia duela ikerketa militarren planetan. Eta garrantzia handia duela erreklutei instrukzioa emateko orduan eta instituzio militarrek osasun zerbitzua eskaintzerakoan.

1997ko irailean, Paraguayn, FNUAPEk proiektu hau jarri zuen abaian: “Biztanleria hezteak eta ugalketa bilakaera eta osasuna Paraguayko Indar Armatuak”. Hauxe zen proiektu horren helburu nagusia: ugalketa osasunean, generoan eta famili bizitzan trebatzea Indar Armatuak gizonak, nerabeak, gazteak eta helduak. Guztiak nahi ziren trebatu: ofizial nagusiak edo bitarteko koadroak, kadeteak edo armadako kideak, euren senitartekoak eta osasun zerbitzuak instituzio militarretan jasotzen dituen biztanleri zibila ere bai. Urtebete geroago, 1998an, FNUAPEk beste

proiektu hau ere jarri zuen abian: "Ugalketa osasuneko heziketa eta zerbitzua Polizia Nazionalean". Honelako edukiak sartu nahi ziren bertan, besteak beste: generoa, etxeko indarkeria eta emakumearen aurkako indarkeriari aurre hartzea bai polizien artean bai eta Polizia Nazionalaren curriculumean ere.

1998an, Nikaraguako FNUAPen Bulegoak beste proiektu hau jarri zuen abian: "Nikaraguako Armadako zerbitzuak eta informazio, heziketa eta komunikazio ekintzak laguntzea sexu eta ugalketa osasun eta eskubideetan". Organo betetzaila Nikaraguako Armada zen eta hauxe zen helburu nagusia: Armadako kideak eta kide horien senitartekoak autozainta lanetan trebatzea, kalitateko informazioaren, aholkularitzaren eta sexu eta ugalketa osasun zerbitzuen bidez. Gaur arte, agintari militar, ofizial eta soldaduek sexu eta ugalketa osasunarekin eta famili plangintzarekin sentsibilizatzea lortu da. Horretaz gainera, Armadako brigadak eta fasiladoreak ere trebatu dira generoa, maskulinitatea, etxeko indarkeria, nerabezaroa eta sexu eta ugalketa osasuna bezalako gaietan. Era berean, Armadako unitate guztietako irakasle taldeak eguneratzeko tailerra egin da eta beste sentsibilizazio tailer bat ere bai –iraintzaile sexualez eta maskulinitateaz– Armadako eta Gobernazio Ministerioko Polizia Nazionaleko eta Kartzela-Sistema ofizial nagusientzat. Bidean, maleta pedagogiko bat ere egin zela nabarmendu behar da. Maleta horretan era honetako gaiak lantzen ziren, besteak beste: autoestimua, generoen arteko ekitatea eta erantzukizun maskulinoa. Sexu eta ugalketarako eta famili plangintzarako programak abian jartzea lortu da unitate mediko militarretako osasun zerbitzuetan. Azpimarratzekoa da hau ere: Nikaraguako Armadak proiektu honetan lortu duena eta bizi izan duena helarazi die Ertamerikako Armadei eta Karibeko eta Hego Amerikako zenbait estatuei.

Ekadorren, 1999an, FNUAPek programa hau jarri zuen abian: "Indar Armatuentzako eta Poliziarentzako Sexu eta Ugalketa Osasuna". Hauxe zen programa horren helburua: sexu eta ugalketa osasun zerbitzuen estaldura eta kalitatea hobetzea emakumeentzako, gizonentzako eta nerabeentzako sexualitatea eta aitasun/amatasun arduratsua barne izango zuena. Horretaz gain, beste helburu bat ere bazuen, alegia Polizia eta Indar Armatuak sentsibilizatzea eta eurei informazioa ematea gai hauen inguruan: sexu eta ugalketa eskubideak, etxeko eta familia arteko indarkeriari aurrea hartzea eta generoen arteko ekitatea. Era berean, etxeko eta genero arteko indarkeriaren prebentzioa eta atentzio integrala ere landu zen, Oficina de Defensa de los Derechos de la Mujer de la Policía Nacionalarekin (ODMU) elkarlanean. Gaur egun, lizeo militar guztieta-ko ikasketen pentsumean sartu da sexu eta ugalketa osasunaren gaia; sentsibilizazio eta informazio jarduerak egin dira ikastetxe militarretako ikasleentzat (4.500 pertsona) eta zenbait atal militarretako erreklutentzat ere bai; sexu eta ugalketa osasuneko informazioa eta heziketa eman zaie estatu osoko 24 unitate militarretako erreklutei. Sexu eta ugalketa osasuneko zerbitzuen onuradun nagusiak langile militarren emakume eskubidedunak izan dira (emazteak, amak eta 15 urte baino gehiagoko alabak). 56.000 onuradun izan dira guztira.

2001. urtean, Peruko FNUAPen Bulegoak antzeko ezaugarriak dituen proiektua hasi du Indar Armatuekin eta Polizia Nazionalarekin. Gai hauek landuko dira proiektu horretan: sexu eta ugalketa osasuna, eta, genero arteko eskubideak eta ekitatea. Gai horiek militarren eta polizien treba-

kuntza curriculumean sartu nahi dira. Eta gai horiei buruzko informazioa ere eman nahi zaie, eta Indar Armatueta eta Poliziako langile guztiak –baita langile zibilak ere– hezi nahi dira ITSei eta VIH/HIESAari aurrea hartzeko.

Gizonentzako sexu eta ugalketaren osasuneko zerbitzuen hornikuntzan Peru nabarmendu behar da. Bertan, FNUAPek, 1999 erdi aldetik 2000ko abendura artean, proiektu bat egiten lagundu zuen. Proiektu horren helburua hau zen: gizon eta emakumeen sexu eta ugalketa eskubideak defendatzen laguntzea, eta bide batez, sexu eta ugalketa osasuneko zerbitzuen eskuragarritasuna eta erabilpena handitzen laguntzea eta zerbitzu horien kalitatea eta sarbidea hobetzea. Callao, Huancayo, Chimbote eta Iquitoseko 8 osasun zentro eta 4 ospitaleren gaitasun teknikoa hobetuz hauxe lortu nahi izan da: proiektua amaitzean, 40.000 gizonak erabiltzea sexu eta ugalketaren osasuneko zerbitzuak, euren beharren arabera, eta, proiektuan sartu diren 200.000 gizonak sexu, ugalketa eta osasun eskubideez informazioa jasotzea. Momentuz, 2000. urtean, oinarriko bi ikerketa interesgarri egin dira. Universidad Peruana Cayetano Heredia egin ditu ikerketa horiek eta honetaz dihardute: "Harreraren kalitatea ugalketa osasuneko zerbitzuak erabiltzen dituztenen ikuspegitik", eta "Gizonak eta sexu eta ugalketa osasuna. Beharrak identifikatzea". Bertan, informazio garrantzitsua topa daiteke zerbitzuak erabiltzen dituztenen satisfazio graduaz. Horrela, jakin dezakegu gizonak zerbitzuak zergatik ez dituzten erabiltzen edo erabiltzen dituztenek zein pertzepzio eta eskaera dituzten. Era berean, gidaliburu honen lehen argitaraldia kalean da: "Gizonen sexu eta ugalketa osasunaz arduratzeko arau eta prozeduren gidaliburua". Gidaliburu hori berrikusten ari dira une honetan. Gizonak zerbitzuengatik adierazitako aldeko ezaugarriak eta ezaugarri egokiak ere agertzen dira bertan.

FNUAP hauetaz ere arduratu da: nerabe eta gazte maskulinoentzako sexu eta ugalketa osasuneko zerbitzuez eta informazio, hezte eta komunikazio jardueraz. Zenbait estatuk arretoa berezia jarri dute gizonetako nerabeen proiektuetan eta nerabe horien sexu eta ugalketa osasunean. Haitin, adibide bat jartzearren, gazteentzako klinikek ugalketa osasuneko zerbitzua eskaini diete –FNUAPek lagunduta– 12tik 25 urte bitarteko 15.000 gazte baino gehiagori, famili bizitzan eta ugalketa osasunean hezi dira 3.000 gazte eta beste 2.000 lagun berdinen hezitzaile gisa trebatu dira. Komunitateetako jarduerari esker, beste 125.000 gazterengana helarazi da mezua: nerabezaroko haurdunaldiei eta ITSei aurrea hartzeari buruz, baita VIH/HIESAari aurrea hartzeari buruz ere. 2000n Panamako FNUAPen Bulegoak –OPS eta UNICEFekin elkarlanean– izan zuen ekimena ere nabarmendu behar da. Gai honi buruzko modulua antolatu zen: "umeak (neska-mutilak) eta nerabeak eta sexu abusua". Bertan sartu zen gizonetako ume eta nerabeen arazoa ere.

Gizonak genero ekitatean, sexualitatean eta sexu eta ugalketa osasunean heztea dela-eta, proiektu horrek eginiko lana nabarmendu beharra dago: "Kitxua eta gaztelaniaren bi-alfabetizazioa ugalketa osasunean, generoaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik". Proiektu hori, 1999an jarri zuen abian FNUAPek, Bolivian, eta Turner Fundazioaren eta parte hartzen zuten Udal Gobernuen eta Tesoro General de la Nación de Boliviaren laguntza ekonomikoa izan zuen. Proiektu horrek UNESCOren "Malcolm Adiseshiah" nazioarteko saria jaso zuen 2000. urtean. Saria metodologia berritzailea erabiltzeagatik eta kulturarteko ikuspuntuagatik eta genero ikus-

puntuagatik ere eman zitzaion. Bada, proiektu horrek biztanleria indigenaren bizi kalitatea hobetzea zuen helburu, Chuquisaca, Potosí eta Cochabambako Departamentuetako udaletako eremu peri-urbanoetan eta landan bizi diren indigenen bizi kalitatea hain justu ere. Gizonekin lan egiterakoan, gidaliburu hau egin zen: "Gizonekin bialfabetizazio lana egiteko trebakuntza gidaliburu". Gai hauek aztertzen dira bertan: genero arteko ekitatea, indarkeria ezabatzea eta sexu eta ugalketa erantzukizuna. Eta emakumeekin egin zen gisan, gizonentzako ere atentzio zentroak ere sortu ziren. Patricia Ametllerren –proiektuko genero saileko arduraduna– hitzetan: "gizonez bakarrik osatutako zentro batean genero ikuspegitik bizitako esperientziak esanguratsuak izan dira oso. Izan ere, eguneroko gaiak xehatzerakoan, beti gai "naturalak eta emakumeenak" zirela uste zirenak, kolpera, gai horietaz hitz egin da eta kontua beste ikuspegi batetik ikusi da. Hori, egitura eskurazinak mugitzea bezala izan zen, beheeraka etorri ziren egitura horiek pixkanaka-pixkanaka eta bizitzaren –bikote harremanaren– ikuspegi berri bat sortu zen". Fidela Paniaguak, proiektuan parte hartu zuen emakumeetako batek esan zuen gisan: "Senarrak zer ari nintzen ikasten galdetu zidan. Kontatu nionean bera ere gizonen zentro batean sartu zen. Orain ez da haserretzen etxea uzten dudanean, eta kalera irten behar badut eta ontziak garbitzeko edo sukaldean aritzeko edo wawa zaintzeko garaia bada, "ez, gehiago, ez" esaten dit, eta bera egongo dela zaintzen. Ontzen ari da gizona egunero-egunero".

FNUAPek beste ekimen interesgarri bat jarri zuen abian, 1999ko urtarrilean Paraguayn. Proiektu honetaz ari gara: "Landa lurretako bikote gazteentzako sexu heziketa". Proiektu horren helburua da ugalketa eskubideak lortzen laguntzea eta biztanleriaren bizi baldintzak hobetzea, ugalketa osasunean eta famili plangintzan kalitateko zerbitzua indartzearen bidez, eta, bide batez, gizon-emakumeek ugalketa gaietan erabakiak hartzeko gaitasuna indartuz. Onuradun zuzenak landa lurretako 3.000 bikote dira, 30 urte baino gutxiagokoak, ezkondata daudenak edo izatezko bikoteak. Helburua hau da: nahi den familia libreki eta modu arduratsuan erabakitzen laguntzea. Gizonezko eta emakumezko 6.000 gazteri –12tik 24 urte bitartekoak– trebakuntza integrala eman zaie sexualitatean eta sexu eta ugalketa osasunean. Bikote gazteak sexualitatean eta bizitzan hezteko gai diren 120 trebatzaile jarri dira. Ikasiak dira gazte horiek eta metodologia eta material didaktikoak dauzkate. Proiektua egitean genero ekitatea kontu handiz landu zen. Arreta berezia jarri zitzaion gizonezkoak erantzukizunak hartzera bultzatzeari sexualitate, ugalketa eta aitasun arduratsua eta osasuntsua izateko. Sexu eta ugalketa osasunean egiteke dagoen lana osatzera letorkeen osagai produktibo bat sartzeari erabaki da proiektuan. Banco Interamericano de Desarrollo (IDB) ekonomikoki lagundu du hori. Orain artean, trebatzaileentzako gidaliburuak egin dira, baita bikote gazteentzako laguntza materialak ere eta material didaktikoen paketeak egin dira. Honako gaiak lantzen dira bertan: genero arteko harremanak, autoestimua, sexu eta ugalketa eskubideak, famili plangintza eta ITS/HIESA. Tailer ugari antolatu dira trebatzaileentzat, proiektuko onuradunentzat, landa lurretako bikoteentzat eta gazteentzat. Bereziki, generoa, gorpuztasuna eta sexu eta ugalketa osasuna landu dira tailer horietan. Gainera, akordio asko sinatu dira eta loturak egin dira gazte erakunde eta instituzioekin, emakume batzordeekin, udalerriekin, nekazari elkarteekin, artisau taldeekin eta abarrek.

2001eko martxoan, FNUAP Ekuadorrek –CEMPOPLAFekin, Plan Internacional Ecuador y la Embajada Real de los Países Bajosekin batera– CD bat aurkeztu zuen: "Menos Hombre, más Humano". Bertan Ricardo Williams abeslariaren kantuak biltzen dira. Kantuak gai hauen inguru-koak dira: genero arteko harremanak, sexualitatea, maskulinitatea eta ugalketa. Erreminta pedagogiko horrek, sexu heziketako jardueretan lagundu nahi du, bai hezkuntza sistema arautuan eta bai hezkuntza sistema ez arautuan ere. Bigarren mailako ikasleek, gizonak eta emakumeek harre-
ra beroa egin diote diskoari. Diskoko kantuak neskontzako, mutilentzako eta neska-mutilentzako
–bientzako– ikastetxeek antolatutako kontzertuetan kantatu dira, baita bi ikastetxe erlijiosoetan
ere. CDa 12 kante osatzen dute. Jarraian, kantu horietako baten letra jarri dugu. Kantuan gizo-
nak beste modu batekoak izaten ikasi dezakegula esaten da eta gizonen izaera alda daitekeela:
Uste dut aldaketa gerta daitekeela...

Hain gizonak ez izaten hasi gintezkeela

gizakoiago izateko eta izaki hegaldunak garela ulertzeko...

Uste dut gure samurtasuna beldurrik eta aurreiritzirik gabe gorde behar dugula...

emakumea izan dadin amildegiaren beste aldera pasatzea ahalbidetuko diguna...

Uste dut, azkenean emakumeek erakutsi zigutela hegan egiten...

Uste dut emakumeek dutela iluntasun honetatik ihes egiteko argia...

Uste dut haizearen orrietan irakurtzen ikasten badugu...

ulertuko dugula bene-benetakoa den bakarra maitasuna eta maitatuak izatea dela...

...

CDan zenbait gizon eta emakumeren esaldiak transkribatu dira. Honelako esaldiak dira: "Maitasuna egiterakoan ezer sentitu ez eta itxurak egiten ari dena maitasunik ez egiteko konben-
tzipitu behar dela ikasi dut " (Anita, 15 urte); "Tontokeria iruditzen zait niri birjina izatea edo ez iza-
tea, ona naizen edo txarra naizen erabakitze elementu baldintzatzailea izatea" (Fernanda, 17
urte) eta "uste dut sexualitateak geure buruak ezagutzen lagundu digula, baita elkarbitza erra-
zagoa eta benetakoagoa egiten ere" (Paul, 17 urte).

Ekuadorreko eta Mexikoko FNUAPen Bulegoek bi ekimen interesgarri inplementatu dituzte. Ekimenak aitatasun arduratsua sustatzean oinarritzen dira. Ekuadorren, 1998an, proiektu hau jar-
rri zen abian: "Aitatasun arduratsuan, famili bizitzan eta gaztetasunean hezteko eta gaitzeko
Bikaintasuneko Zentroa". Cuencako artxielizbarrutiak eraman du aurrera lana. Eta helburua zen
informazio, hedapen, heziketa eta gaitze jarduerak izango zituen bikaintasuneko zentroa lortzea.
Lan eremuak berriz hauek izan dira: aitatasun arduratsua, gaztetasuna, famili plangintza naturala
eta ardura banaketa. Estatuan aitzindaria zen proiektu horren onuradun zuzenak hauek izan zi-
ren: 910 familietako guraso, 225 gazte eta 719 famili aholkulari. Proiektu horrek, gainera,
Elizarekin dauden lan eta elkarlan aukerak erakutsi zituen. Elizak bere ateak ireki zituen sexu eta
ugalketa osasunari buruz aritzeko, eta, bereziki, gazte eta helduei sexu heziketa emateko. Beraz,
Elizaren azpiegitura fisikoa eta antolatzailea baliatu zen bertan biltzen den jende guztiarekin he-
ziketa jarduerak eta prozesuak egiteko. Egindako jardueren artean, nerabeentzako heziketa se-

xualaren modulu bat eta gazteentzako eta familientzako beste aholku modulu bat nabarmenduko genituzke. Gainera, hainbat publikorentzat ere sexu heziketari buruzko tailer mordoa antolatu ziren. Eta artxielizbarrutiak proiektuaren esku utzi zituen Radio Católicaren instalazioak, heziketa programa iraunkorrak egiteko eta informazioa herri nahiz nazio mailan hedatzeko.

Mexikon, urte berean bertan, FNUAPek –Comisión Nacional de la Mujerrekin (CONMUJER) batera– proiektu hau bultzatu zuen: “Guraso izatea, gizonen eta emakumeen zeregin”. Aitatasun arduratsuen inguruko ezaguera eta sentsibilizazioa sustatzea du helburu proiektuak, ugalketa osasuneko eta famili plangintzako zerbitzua ematen dutenen informazioa handitzearekin batera. Momentuz, bizipenak trukatzeko tailer bat egin da, eta kanpaina hau ere sustatu da: "aitagoa izango den aitatasunaren alde". Eta aitatasun arduratsuari buruzko rotafolio bat amaitzeko bidean da, osasungintzako hornitzaileak trebatzeko.

FNUAPek babestu dituen beste jarduera batzuk ere aipatu behar dira. Jarduera horiek Nazio Batuetako Sistemako agentzien arteko elkarlanean egindakoak dira. Esaterako, 1998an abian jarritako Genero arteko indarkeriaren aurkako Nazio Batuen Kanpainak –UNIFEM izan da kanpainako buru– informazio, heziketa eta komunikazio oparoa eta abokatutza ahalbidetu zien gizonen, batez ere. FNUAPek ONUSIDARI erregio mailan eman dion laguntza ere nabarmentzekoa da, 2000 Kanpaina zela-eta: "Gizonen esku dago HIESA epidemiaren bidea aldatzea". Ideia horren inguruan, nazio hedabideetan sentsibilizazio eta informazio jarduera ugari egin dira. Eta gidaliburu bat ere argitaratu da: “Gizonen arteko sexuan VIH/HIESARI aurrea hartzeko estrategien eta alineamenduen gidaliburua (HSH)”. Adibide bat jartzearen, Mexikon heziketa estrategien bi proiektu garrantzitsu finantzatu ziren: a) gizonen arteko sexua egiten dutenentzako VIH/HIESARI aurrea hartzeko kanpaina, eta, b) prebentzio kanpaina gela ilunetan. Lehen proiektuari esker, Mexiko hiriko 68 tabernetan informazio eta sentsibilizazio hitzaldiak eman ziren eta kartel eta istorio lehiaketak. Kanpainak izan zuen oihartzuna ikusita, Secretaría de Salud del Distrito Federalak beste 10.000 ale argitaratu zituen. Gela Ilunak proiektuari esker, berriz, lau bideo egin dira Gela horietan ikusi ahal izateko. Bideo horiekin prebentzioa landu nahi izan da –uzkiarena bereziki– eta kondoia erabiltzera bultzatu. Horretaz gainera, hitzaldiak ere antolatu ziren, eta telebistan, irratian eta prentsan hartu da parte. Ertamerikan, ostera, distantzia luzeak egiten dituzten kamiozaleak adoretzeko programak jarri dira martxan, sexu lagun gutxiago izan ditzaten eta sexu harremanetan segurtasun neurriak har ditzaten.

4.

Phasitako lezioak eta etorkizuneko erronkak

Kairoko Ekintza Plana (1994) sei urtera ikusita, eta Kairo+5 berrikuspenaren ikuspegiarekin, begi bistakoa da sentsibilizazio eta informazio ahalegin handiak egin direla, gizonen genero arteko ekitatea lortzeko jokatu beharreko funtzioaren inguruan, eta sexu eta ugalketa osasun eta eskubi-deen programa eta proiektuetan gizonak egotearen inguruan ere bai. Hala ere, garbi dago mas-

kulinitatearen zenbait eredu tradizionalak irauteak zaildu egiten duela gizonak ekitatearen aldeko diskurtsoan integratzea eta esku hartzera bultzatzea. Bide beretik, mundu mailan –Latinoamerikan eta Karibearen bereziki– saiatu da FNUAP honetaz konturartzeko: biztanleriaren eta garapenaren eta sexu eta ugalketa osasunaren programetan gizonak egotea garrantzitsua eta onuragarria dela. Horixe bera frogatzen du FNUAPek babestu edo egin dituen ekimen ugartasunak, nazio mailan bereziki –erregio mailan ere bai–. Ekimen horietako asko berritzaileak izan dira oso eta gizonengan ikuspegi berri bat –sexuen arteko berdintasuna eta sexu eta ugalketa eskubideak– sustatzeko ahalegina egin da, gizonak bete beharreko funtzioa giltzarria dela sinistuta.

Pilatu dugun esperientziak beharra dagoela eta maskulinitateak interesa sortzen duela irakatsi digu. Azpimarratu beharra dago erregio eta nazio mailako lehenengo topaketek eta ekimenek sortu duten konpromisoa, eta topaketa horiek izan duten harrera eta oihartzuna. FNUAPek Paraguayko, Nikaraguako, Ekuadorko eta Peruko Indar Armatuak, Polizia Nazionala eta Eliza Katolikoa bezalako instituzioekin lan egin izanak hauxe utzi du agerian: jasangarritasun handia, biztanleria deitzeko eta iragartzeko gaitasun handia eta identitate maskulinoak eraikitzeke une giltzarrietan eragin erabakigarria eskaini dezaketela izaera iraunkorreko kideekin elkarlanean aritzeak. Gainera, maskulinitatea genero arteko gerturatze eta kulturartekotasun gisa sartzen jakin du FNUAPek. Hori frogatzen du proiektuak nazioarteko saria jaso izanak: kitxua-gaztelania bialfabetizazioa Bolivian. Hori frogatzen du Paraguayko landa lurretako bikote gazteentzako sexu heziketaren proiektuak. Genero arteko ekitatearen, gizonen esku hartzearen eta jarduera produktiboen arteko nahasketa interesgarri eta berritzailea da. Nabarmendu beharra dago, gainera, CEMOPLAF Ekuadorrekin eginiko lan hau ere: Ricardo Williams bakarlari gaztearen CDa. Gai hauek lantzen dira bertan gizonetzko eta emakumezko nerabe eta gazteak sensibiltzatzeko eta konprometitzeko: generoa, maskulinitatea eta sexu eta ugalketa osasuna.

Hala ere, hauxe da ikasi dugun beste lezio bat: sensibiltzazio eta informazio ahalegina egiten jarraitu beharra dago eta bizitako esperientziak kontu handiz ebaluatzen jarraitu behar da. Inbertsio handiagoa eskatzen du maskulinitateak diziplina arteko ikerketetan. Bizitza errealeko faktoreen eragina nolakoa den ikertu behar da, gizonen erabakiak hartzeko prozesuak zein eragin duen. Horretarako ikuspuntu hauek hartu behar dira kontuan: bizitza zikloa, eragile sozio-kulturala eta genero ikuspuntua; emakumeentzat kaltegarriak diren praktika tradizionalen aurkako gizonen jarrera, arrisku handiko sexu jokabideak, homosexualitatea eta homofobia, indarkeria maskulinoa; sexu eta ugalketa osasuneko zerbitzuetan gizonen emandako erantzunak eta gizonen zerbitzuei egin dien harrera; talde baztertu eta ahulenak hartzeko beharra (landa lurretako gizon eta emakumeak, nerabeak, emigranteak); fenomeno migratorioen ondorioak sexu eta ugalketa jokabide maskulino eta femeninoetan; genero arteko harremanak, mendekotasunak eta sexu eta ugalketa osasuna. Erregio eta nazio mailako esperientzia arrakastatsuek –etorkizunean urratu beharreko bidearen erreferentzia izan daitezkeenak– dokumentatzeko beharra sortu da.

Heziketaren eta giza eskubideen ikuspegiak hauxe aholkatzen du: maskulinitatea eta genero arteko ekitatea lehenengo heziketa etapetatik eraiki behar dela. Familia, eskola eta hedabideak dira ekitatearen aldeko eredu maskulinoak sortzeko prozesuetan giltzarri izan daitezkeen guneak. Eta

sozializazio tokietan funtsezkoa da gizonezko nerabeak eta gazteak egotea diskurtso tradizionalari mezu alternatiboak eskaintzeko. Jada egin diren ebaluazioetan maskulinitateak zeharkakotasun gehiago behar duela aterata da eta genero arteko ekitate programetan gizonak sartu behar direla, eta, zeharkakotasun hori ahalbidetuko duten erreminta metodologikoak behar direla. Esperientziak, gainera, generoa (maskulinitatea), boterea, sexualitatea, ugalketa eta eskubideak bezalako gaiak hobeto helarazi behar zaizkiela, eta sexu eta ugalketa osasunean soilik eginiko ekintzak ezagutarazi behar zaizkiela, eta ekintza horiek, hezkuntzako osagaiak, osagai produktiboak, sozialak, kulturalak eta atsegin hartzekoak dituzten testuinguruetan sartu behar direla. VIH/HIESAk tratamendua zeharkakotasunez egitea beharko luke ikuspuntu eta gai guztietatik. Horri guztiari, osasun eta ugalketa zerbitzuetan egin beharreko lana gehitzen zaio, gizonak ere bertaratzeko eta hornitzaileak trebatzeko. Adierazle berriak ere behar dira bezero maskulinoak gustura dauden ikusi ahal izateko. Funtsezkoa da baliabideak desbideratzearen ondorioz sortzen den tentsioa zaintzea. Izan ere, baliabideak desbideratzeak onuragarri izan daitezke emakumeentzat ere, gizonezkoek ere esku hartuko baitute. Labur esanda, FNUAPen uste dugu, orotarikoak direla erronkak baina dauzkagun aukerak ere handiak direla. Gizonak ekitatearen aldeko lanean hastea erronka zaila eta ederra da. Gizarte justuagoa, ekitatiboagoa eta berdinduagoa lortzeko emakumeen borroka luze eta gogorrek bat egin behar dute gizonak, aktibismoaren bidetik eta aldaketa lortzeko denaren ziurtasunetik.

Bibliografía

- AMATLLER, P. (2001) "Ahora yo tengo la palabra...", *Proyecto Bi-Alfabetización Quechua-Castellano en Salud Sexual y Reproductiva*, La Paz.
- FNUAP (1996) *Participación masculina en salud reproductiva, incluyendo planificación de la familia y la salud sexual*, Dokumentu Teknikoa 28. zk, New York.
- FNUAP (1997) *Proyecto de Educación en Población y Desarrollo y Salud Reproductiva en las Fuerzas Armadas del Paraguay*, Asunción.
- FNUAP (1998) *Proyecto de Educación Sexual para Parejas Jóvenes del Area Rural*, Asunción.
- FNUAP (2000) *Un nuevo papel para los hombres: asociados para la potenciación de la mujer*, New York.
- FNUAP (2000) *Estado de la Población Mundial 2000. Vivir juntos, en mundos separados: hombres y mujeres en tiempos de cambio*, New York.
- FNUAP (2000) *Aliados para el cambio: cooperación de los hombres en la prevención del VIH/SIDA*, New York.
- FNUAP (2000) *Evaluación del Programa de Ecuador del FNUAP (1997-2000)*, Quito.
- FNUAP (2000) *Revisión de Medio Término del Programa de Cooperación FNUAP-Nicaragua (1998-2001)*, Managua.
- FNUAP (2000) *Evaluación del V Programa de Cooperación FNUAP-Perú (1998-2000)*, Lima.
- FNUAP (2000) *Examen de Medio Ciclo del Programa de México del FNUAP (1997-2001)*, Mexiko.
- FNUAP (2000) *Revisión de Medio Término del Programa de Asistencia del FNUAP al Paraguay (1998-2002)*, Asunción.
- FNUAP (2000) *Informe General de Actividades del Proyecto Centro de Excelencia para la Educación y Capacitación en Paternidad Responsable, Vida Familiar y Juventud*, Quito.
- FNUAP (2001) *Statement by Ms. Thoraya Ahmed Obaid, Executive Director of the UNFPA at the UNDP/UNFPA First Regular Session of 2001*, United Nations, New York, otsailaren 5ean.
- FNUAP (2001) *Partnering: A New Approach to Sexual and Reproductive Health*, Dokumentu Teknikoa 3. zk, New York.
- FNUAP/FLACSO (1998) *Masculinidades y Equidad de Género en América Latina*, Santiago de Chile.
- FNUAP/FLACSO (2000) *Memorias del taller "Masculinidades y Equidad de Género"*, azaroaren 15-16 an, Quito.

-
- FNUAP/AVSC International (2000) *Memorias del Foro sobre Masculinidades en Colombia: Reflexiones y Perspectivas*, Bogota.
- FNUAP/OPS/UNICEF (2001) *Niñas, Niños, Adolescentes y Abuso Sexual*, Panama.
- FNUAP/UNIFEM/ONUSIDA (2000) *Manual de Capacitación en Género, VIH y Derechos Humanos*, New York.
- ICAZA, M. (2000) "Ser hombre iniciando una nueva Era", Panamá América, *Página Estilos de Vida*, urriaren 25ean.
- NACIONES UNIDAS (1994) *Report of the International Conference on Population and Development*, New York.
- NACIONES UNIDAS (1999) *Key actions for the further implementation of the Programme of Action of the ICPD*, New York.
- VILLAREAL, M. (1998) "Construction of masculinity(ies): implications for sexual and reproductive health", *Conferencia internacional sobre Male Involvement in Reproductive and Sexual Health Programmes and Services*, FNUAP/OMS/FAO, Erroma.
- WILLIAMS, R. (2001) *Menos Hombre, Más Humano (CD)*, CEMPOPLAF, Embajada Real de los Países Bajos, Plan Internacional Ecuador, FNUAP.

IZASKUN MOYUA PINILLOS
Emakunde/Emakumearen
Euskal Erakundeko Idazkari
Nagusia

Ondorioak

Giza antolamendu berriaren eraikuntzan gizonen euren partaidetza nola ikusten duten, nola sentitzen duten ezagutzeko denbora eta espazio eraiki dugu kongresu honen bitartez.

1.

Fer topatu dugu?

Gizonek pairatzen duten sufrimendu egoera aztertzeke, horri buruzko hausnarketa egiteko euren ahaleginetaz mintzatu dira. Gizonezkoaren eredu tradizionalari uko egitean edo nor bere sentimenduak eredu horren arabera taxutzea ezinezkoa dela konturatzean sortzen da sufrimendua, izan ere pertsonak tratatzea eta horiekin harreman emankorrak izatea ezinezkoa da gizonzkoaren eredu tradizionaletik abiatuta.

Ezagutu ahal izan ditugun esperientzia horiek antolatu eta garatzen ari diren lan-taldeenganako hurbilpenak dira, bere burua profeministatzat hartzen duten taldeenganako hurbilpena, hau da, emakumeen taldeek berdintasuneko helburu berberen alde lan egiten duten taldeengana.

2.

Fer esan da?

Adierazi diren ideien arragoa ikusita, orain ideiarik bateratuenak aurkezteari ekingo diogu:

- Gizonek gizonaren kontzeptua izaki unibertsal gisa ikasten dute, eta horrek genero gisa identifikatzea zailtzen du.
- Gizarte patriarkalean, gizonek jarraitzen dute gizarte mailako boterea beren gain hartzen eta, horrekin batera, gizarte horretan bizitzeak sortzen dizkien nahaste eta ezintasuneko sentimenduak ere euren gain hartu behar izaten dituzte.
- Emakumeen arteko desberdintasunei buruzko gogoeta egiten ikastean, gizonzkoek hainbat maskulinitasun mota aintzat hartzen ikasi dute.
- Berdintasunak eskatzen dizkien betekizunak direla eta, zenbait gizonek hainbat jarrera hartu dute eta hainbat mugimendutan antolatu dira.
- Maskulinitasunaren kontzeptua patriarkatuaren testuinguruan eta eredu heterosexualean sortzen den gizonaren kontzeptua da. Maskulinitasun horrek emakumeak eta eredu hegemonikotik kanpoko gizonak zapalduz hedatzen da.
- Erruduntasun sentimenduak ez du sekula aldatuta ahalbidetu. Talde bakoitzaren kalte eta pribilegio aztertu behar dira.
- Gizon-eredu tradizionala ukatzean ez dugu zertan beste eredu berri bat proposatu behar, eredu hori, agian, berriro ere zurrun eta mugatzailea izango litzatekeelako.
- Ontzat ematen dena auzitan jartzeko gauza izan behar dugu: egungo bikote ereduak, egungo familia ereduak, etab. eta eredu anitzak imajinatzeke gauza izan behar dugu, gure irudimena-
ren muga bakarria inor ez kaltetzea izanik.

- Gizon izate soilarengatik ez dago erantzukizunik, baina bai gizon izanik egiten diren jardue-
rengatik.
- Nork bere burua zaintzeko gaitasunak ez du bermatzen pertsonen arteko berdintasuneko ha-
rremana. Horrez gain justiziaren balorea behar da.
- Indarkeria erabiltzea aukera bat da, ez beharrezkoa. Boterea eta pribilegioak mantentzeko
erabiltzen da eta gizartearen permisibitatea du bere alde.
- Gizonak ez dira boterearen jabe sentitzen eta enpatiarako ezgaitasunak, euren armadura psi-
kikoak, galarazten die beste pertsoneri eragiten dizkieten kalteak sentitzea. Beharrezkoa da sa-
laketako konpromiso aktibo batetik abiatuta jardutea.
- Egoerari buruzko diagnostikoak eta esku-hartzeko proposamenak (eskoletan, nazioarteko edo
udal erakundeetan esku hartzeko proposamenak) entzun ditugu eta esku-hartze horien eragin
eta ahaleginak gizon taldeen lanarekin batzen dira.

3.

Zeintzuk dira eraginak?

Gizonek, talde zapaltzailetik datozen neurrian, sufrimenduari buruzko mintzaldia emateak behar-
bada sor dezakeen nolabaiteko mesfidantza.

Bereziki pertsonen arteko harremani begira eta maila pertsonalean egindako lan psikologikoak,
berdintasunetik hurbilago egongo den gizarte lortzeko baliagarria den ala ez eztabaidatzea.

Zalantza horretatik abiatuta planteatu da errealitatearen ordena ez dela lehenik funtzionamendu-
rako eredu teoriko bat sortzea eta gero horren arabera jardutea, izan ere pertsonak, egoera ze-
hatzen aurrean, euren ulermen edo euren posibilitateen arabera jarduten dute. Zentzu horretan gi-
zonei eskatu zaie eurak aberasteko gainerako pertsonen gainean egiten den abusua murrizteko
jardun dezatela.

Testuinguru sozial horretan esan da elkar ulertzeko "kondenaturik" gaudela. Saia gaitezen horren
ordez "elkar topatzeko aukera dugu" planteamendua egiten, eta egin dezagun giza antolamendu
berria, ez zurruna, malgua, aldagarria eta justizia baldintza bakartzat hartuta; gizonaren eredu
berria bezala, ez dugu zertan antolamendu hori aurrez definitu behar

Horretarako, bakea eraikitzeko prozesuaren bilaketa dugu erronka, bitartekoak jarri behar ditugu,
elkartasuna erakutsi behar dugu eta kultura anitzen ekarpenak aintzat hartu behar ditugu.

Arazoek konponbidea badutela sinetsita baino ez dugu lortuko konponbide horiek aurkitzea.
Badakigu pertsonen arteko harremanak lantzeko beste modu berri bat dagoela, lurrarekin dugun
harremana ere zainduko duena.

